

Haurren ongizatea I: Oinarri psikopedagogikoak



Haurren ongizatea I: Oinarri psikopedagogikoak

Argitaratzailea: Mondragon Unibertsitateko Zerbitzu
Editoriala
Loramendi kalea, 4 - (23 p.k.)
20500 ARRASATE-MONDRAGON (Gipuzkoa)

Diseinu eta maketazioa: AZK Taldea

Itzultzaile eta zuzentzailea: Edorta Jimenez

Inprimatzea:

ISBNa:

Lege-gordailua:

Debekaturik dago liburu hau kopiazea, ezta zatika ere, ezta bere tratamendu informatikoa, edo inolako igorpen elektronikoa, mekanikoa, fotokopiaren zein erregistroaren bidez, edo edozein beste modu batez, aurretik Copyrightaren jabeen idatzitako baimena izan gabe.

HAURRAREN ONGIZATEA I: OINARRI PSIKOPEDAGOGIKOAK

ALEXANDER BARANDIARAN (koordinatzailea)

IÑAKI LARREA

ELENA LOPEZ DE ARANA

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

SARRERA	13
1. KAPITULUA: JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA	17
0. Sarrera	19
1. Jokabidearen psikologiak erakusten diguna haur-jokabidez: Paulov eta Skinner	20
1.1. Pauloven paradigma	20
1.1.1. Terminologia	21
1.1.2. Pauloven paradigmaren irakurketa etologiaren ikuspuntutik	21
1.2. Skinner eta baldintzapen eragingarria	24
1.2.1. Terminologia	25
1.2.2. Baldintzapen eragingarriaren irakurketa etologikoa	26
1.3. Pauloven erreflexuen eta jokabide eragingarrien agerrera giza bilakaeran	29
2. Non edo zertan nahasten gaitu jokabidearen psikologiak	31
3. Berezkoa: berezko jokabideak animalien artean eta gizakiarengan	32
3.1. Konfigurazio pizgarriak	36
3.2. Berezko jokabideak	39
3.3. Berezko jokabidearen dimentsioak	40
3.3.1. Mugimendu dimentsioa	41
3.3.2. Dimentsio neurobiologikoa	43
3.3.3. Berezko jokabidearen barne-dimentsioak	47
3.3.3.1. Emozioa eta irudizko errepresentazioa	47
a. Atxikimendu jokabidea	48
b. Esplorazio jokabidea	48
c. Beldurra	49
d. Oldartze edo eraso jokabidea	49
e. Parekoen arteko kidetasun-jokabide	49
f. Sexu-jokabidea	50
3.3.4. Barne dimentsioen adierazpena eta komunikazioa. Hitz	50
4. Berezkoa eta ikasitakoa uztartuz: jokabide zirkuitua	52
4.1. Berezko jokabidearen aktibazioa: Objektuaren aldetik datozen estimuluak eta Subjektuarengandik datozenak	53
4.1.1. Jardun endogenoa, edo barnekoa	54
4.1.2. Estimulazioa	55
4.2. Bizitarako helburuak eta utopiak eraikiz	58
4.2.1. Berezko jokabideen arkitektura	58
4.2.2. Pauloven baldintzapena eta Unibertso Estimulagarriaren eraikuntza	60
4.2.3. Irudimenezko sorkuntza eta idealizazioa: bizitzako utopiak	61

aurkibidea

>>>	4.3. Estimuluen ebaluazioa: sentimendua eta barne mapa operatzaileak	62
	4.3.1. Sentimena	63
	4.3.2. Iraganeko eskarmentua: barne mapa operatzaileak	64
	4.4. Jokabide instrumentalak	66
	4.4.1. Skinnerren paradigma	67
	4.4.2. Arrakasta eta porrota	68
	4.4.3. Ekintza instrumentalaren arrakasta	70
	4.5. Asmoa eta zentzua	71
	4.6. Motibazioa	72
	4.6.1. Motibazio orokorra	72
	4.6.2. Motibazio eraginkorra: ekintzaren arrakastarekiko konfiantza	74
	4.6.2.1. Gaitasunaren ebaluazioa	75
	4.6.2.2. Buruturiko zereginaren ebaluazioa eta aitortza	77
	4.6.2.3. Borondatea eta abulia. Arrakasta eta porrota eskolan	79
	4.7. Amaitzaileak diren ekintzak	81
2.	KAPITULUA: BIOLOGI ERRITMOAK ETA SINKRONIA	83
1.	Helburuak	85
2.	Egoera	85
3.	Hausnarketarako galderak	87
4.	Eduki kontzeptualak	88
4.1.	Biologi erritmoen definizioa	88
4.2.	Biologi erritmoen antolakuntza	88
4.3.	Biologi erritmoetan eragina duten aldagarriak	89
4.3.1.	Jaio aurreko aldia	89
4.3.2.	Jaio ondoko aldia	90
4.4.	Biologi erritmoen mende egitearen garrantzia	91
4.4.1.	Loa	91
4.4.2.	Esnaldia	95
5.	Ondorioak	100
5.	Ariketa praktikoa	101
3.	KAPITULUA: ATXIKIMENDU JOKABIDEA	103
1.	Helburuak	105
2.	Egoera	105
3.	Hausnarketarako galderak	106

aurkibidea

4. Eduki kontzeptualak	107
4.1. Atxikimendu jokabidearen ezaugarri orokorrak	107
4.2. Atxikimendu jokabidearen izaera	109
4.3. Atxikimendu jokabidearen eragile kausalak	110
4.3.1. Atxikimendu jokabidea abiarazten duten eragile kausalak	110
4.3.1.1. Barneko eragileak edo baldintzak	110
4.3.1.2. Inguruko baldintzak	111
4.3.2. Atxikimendu jokabidea bertan behera uzten duten estimuluak	112
4.4. Atxikimendu jokabidearen funtzioa	113
4.4.1. Hurbiltasuna mantentzearen erantzukizuna	113
4.4.2. Umeak hurbiltasuna neurtzeko erabiltzen dituen sistemak	114
4.4.3. Atxikimendu jokabideak eragindako ohizko portaera patroiak	114
4.4.3.1. Ama dagoenean eta leku beretik aldatu gabe mantentzen denean	115
4.4.3.2. Ama dagoenean eta lekuz aldatzen denean	115
4.4.3.3. Ama urruntzen denean	115
4.4.3.4. Ama itzultzen denean	116
4.5. Atxikimendu jokabidearen ontogenia	116
4.5.1. Aurre-atxikimendu hasiera fasea	116
4.5.2. Loturaren eraikitze fasea	117
4.5.3. Lotura argi eta zehatzaren fasea	118
4.5.4. Elkarrekin zuzendutako bikote baten eraikitze prozesua	120
4.5.5. Egozentrismo eta altruismoaren gaineko hezkuntza gogoetak	121
4.6. Atxikimendu jokabidearen bitzta zikloan	122
4.6.1. Atxikimenduaren agerpena eta garapena: bizitzako lehen urtea	123
4.6.2. Hurrengo bilakaera haurtzaroan	123
4.6.3. Nerabearoa	124
4.6.4. Bizitza Heldua	124
4.7. Atxikimendu jokabidea neurtzen duten jokabide sistemak	125
4.7.1. Seinaleen jokabidea	125
4.7.1.1. Negarra	126
4.7.1.2. Irribarrea	128
4.7.1.3. Zizakatzea: mintzamenaren hastapenak	130
4.7.2. Hurbiltze-jokabidea	131
5. Ariketa praktikoa	132

>>> 4. KAPITULUA: ALDENTZEA ETA GALERA	133
1. Helburuak	135
2. Egoera	135
3. Hausnarketarako galderak	135
4. Eduki kontzeptualak	135
4.1. Aldentzea	135
4.1.1. Aldentze-erantzunen ontogenia	135
4.1.2. Aldentze-erreakzioaren morfologia	136
4.1.2.1. Protesta	137
4.1.2.2. Etsipena edo itxaropen eza	138
4.1.2.3. Atxikimendu eza	138
4.2. Zenbait gogoeta psikologiaren eta pedagogiaren aldetik	140
4.2.1. Eraso eta hira	140
4.2.2. Antsietatea eta larritasuna	141
4.3. Galera, dolua eta psikopatologia	142
4.3.1. Dolua eta atsekabea	142
4.3.2. Doluaren aldiak	143
4.3.2.1. Protesta aldia	143
4.3.2.2. Itxaropen ezaren aldia, edo etsipenezkoa	144
4.3.2.3. Doluaren amaiera eta atxikimenduaren berbideratzearen aldia ..	144
4.3.3. Dolua haurtzaroan	145
5. Ariketa praktikoa	146
5. KAPITULUA: SEGURTASUNEZKO ETA SEGURTASUNIK GABEKO LOTURA	147
1. Helburuak	149
2. Egoera	149
3. Hausnarketarako galderak	149
4. Eduki kontzeptualak	149
4.1. Atxikimenduaren ebaluaketa	150
4.1.1. Egoera Arrotzaren Testaren jatorria	150
4.1.2. Loturaren Tipologia	151
4.2. Atxikimendu motak eta garapen intelektuala	152
4.2.1. Atxikimendu mota eta jokabide esploratzailea	153
4.2.2. Atxikimendu mota eta ezagutzaren eraikuntza	154
4.3. Atxikimendu motak pertsona helduan	157

aurkibidea

4.4. Loturaren ezaugarria zehazten duten eragileak	158
4.4.1. Sentikortasuna eta atxikimendu segurua	158
4.4.2. Sentikortasun falta eta segurtasunik gabeko atxikimendua	159
4.4.4.1. Saiheste lotura	159
4.4.4.2. Lotura anbibalentea	160
4.4.4.3. Lotura desantolatua	161
4.5. Ondorioak	161
5. Ariketa praktikoa	163
6. KAPITULUA: ESPLORAZIO JOKABIDEA ETA GARAPEN KOGNITIBOA	165
1. Helburuak	167
2. Egoera	167
3. Hausnarketarako galderak	168
4. Eduki kontzeptualak	169
4.1. Esplorazio jokabidea	172
4.1.1. Esplorazio jokabidearen dimentsioak	172
4.1.1.1. Dimentsio motorra	172
4.1.1.2. Dimentsio neuro-begetatiboa	172
4.1.1.3. Dimentsio emozionala	173
4.1.1.4. Irudimenezko dimentsioa	174
4.1.2. Estimulu abiarazleak eta amaitzaileak	174
4.1.3. Esplorazio jokabidearen ontogenia	176
4.2. Garapen kognitiboa	177
4.2.1. Objektuaren gaineko oroimenaren agerpena	184
4.2.2. Ezagutza eta oroimena	185
4.2.3. Mundu errealaaren eraikuntza	187
4.2.3.1. Objektu iraunkorra	188
4.2.3.2. Denbora eta espazioa	188
4.2.3.3. Kausalitatea	189
4.2.4. Deszentrazioa	190
5. Ariketa praktikoa	191
7. KAPITULUA: BELDUR-IHESA, LARRIMINA, ERRUA ETA HASERRE-ERASO JOKABIDEAK	193
1. Helburuak	195
2. Egoerak	195

aurkibidea

>>> 3. Hausnarketarako galderak	196
4. Eduki kontzeptualak	197
4.1. Ihes/beldur jokabidea	198
4.1.1. Ihes/beldur jokabidearen dimentsioak	198
4.1.2. Beldur jokabidea aktibatzen eta amaitzen duten estimuluak	202
4.1.3. Pertsona: beldur izateari buruzkoan gizabanakoen arteko aldeak eragiten dituzten aldagarriak	207
4.2. Larridura eta errua	208
4.2.1. Beldurraren eta erruaren motibazio sistema	211
4.2.2. Aldentzeak eragindako larridura	213
4.3. Eraso jokabidea	213
4.3.1. Jokabidearen azaleratzea	214
4.3.2. Eraso jokabidearen dimentsioak	215
4.4. Ondorioak	217
5. Ariketa praktikoa	217
8. KAPITULUA: ERAKUSKERIAZKO ETA LOTSIA JOKABIDEAK	219
1. Helburuak	221
2. Egoerak	221
3. Hausnarketarako galderak	222
4. Eduki kontzeptualak	222
4.1. Sarrera	222
4.2. Erakuskeriazko jokabidea gizakiarengan	223
4.2.1. Erakuskeriazko jokabidearen izaera	223
4.2.1.1. Subjektuaren poloa	224
4.2.1.2. Bestearen poloa. Bestearen begirada	227
4.3. Lotsa jokabidea	229
4.3.1. Jokabidearen izaera	229
4.3.2. Lotsa jokabidearen dimentsioak	229
4.4. Erakuskeriazko eta lotsa jokabideak abiarazten duten estimuluak	231
4.5. Erakuskeria eta lotsa jokabidearen gorabeheren eragina norberak norberari buruzko irudian	231
4.6. Ondorioak	232
5. Ariketa praktikoa	235

9. KAPITULUA: BERDINKIDEEN ARTEKO JOKABIDEA	237
1. Helburuak	239
2. Egoera	239
3. Hausnarketarako galderak	240
4. Eduki kontzeptualak	241
4.1. Berdinkideen arteko jokabidea	241
4.1.1. Berdinkideen arteko jokabideak dituen kategoria funtzionalak	242
4.1.2. Lotura sortzen duten jokabideak, edo lotesleak	243
4.1.2.1. Eskaria	243
4.1.2.2. Eskaintza	245
4.1.2.3. Beste filiazio jokabide batzuk	247
4.1.2.4. Hezkuntzaren aldetiko inplikazioak	250
4.1.3. Jokabide disruptiboak, edo lotura afektiboak eteten dutenak	251
4.1.3.1. Mehatxua	251
4.1.3.2. Eraso	253
4.1.3.3. Hezkuntzaren aldetiko inplikazioak	255
4.2. Portaera profilak	257
4.2.1. Menderatzaileak	260
4.2.1.1. Menderatzaile oldarkorrak	260
4.2.1.2. Menderatzaile baketsuak: liderrak	263
4.2.2. Menderatuak	265
4.2.2.1. Menderatu aldarkorrak	266
4.2.2.2. Menderatu baketsuak edo lider mekanismoen bidez menderatuak ..	267
4.2.2.3. Menderatu beldurtiak	269
4.2.2.4. Bazterreko umeak edo menderatu ez adierazkorrak	270
5. Ariketa praktikoa	271
10. KAPITULUA: SEXU JOKABIDEA ETA MAITASUN LOTURA HAURTZAROAN	273
1. Helburuak	275
2. Egoera	275
3. Hausnarketarako galderak	275
4. Eduki kontzeptualak	276
4.1. Sarrera	276
4.2. Giza sexu-jokabidea	277

>>>

4.3. Haur sexualitatea.....	277
4.3.1. Haur sexualitatearen dimentsio erotikoa	278
4.3.2. Haur sexualitatearen txera- eta gizarte-dimentsioa	281
4.4. Sexu heziketa haur hezkuntzaren curriculamaren barruan	282
5. Ariketa praktikoa	283
11. KAPITULUA: GURASO JOKABIDEA.....	285
1. Helburuak	287
2. Egoera	287
3. Hausnarketarako galderak	288
4. Eduki kontzeptualak	288
4.1. Zaintza jokabide sistemaren izaera	290
4.1.1. Deszentrazioa	292
4.2. Zaintza eta guraso jokabidea abiarazten eta amaitzen duten estimuluak	292
4.2.1. Umearentzat arriskuaren seinale direnak	293
4.2.1.1. Gurasoak haurra arriskuan dagoen ustea edo hautematea	293
4.2.1.2. Umearengandik datozen laguntza eskeak eta haren ondoeza edota hondatzea adierazten duten seinaleak	293
4.2.2. Aldentzea	293
4.2.3. Umearen xarma iritzi dakiokkeen horrexek eragiten dituenak	294
4.3. Zaintza jokabidea bere kanpo eta barne dimentsioetan	295
4.3.1. Mugimendu dimentsioa	295
4.3.2. Irudimenezko dimentsioa	296
4.3.3. Dimentsio emozionala	298
4.3.4. Dimentsio neurobegetatiboa	299
4.4. Zaintza jokabidea eta barne-mapa operatzaileak	299
4.4.1. Zaintza jokabidearen tipologia barne-mapa operatzaileen arabera	300
4.4.2. Jokabide sistemen arteko oreka	301
4.5. Aitaren aldetiko zaintza sistema	305
4.6. Guraso zaintza sistemaren eta umearen arteko konfliktua	307
4.7. Zaintza jokabideen ontogenia	308
4.8. Pedagogiari so eginez	308
4.9. Ondorioak	310
5. Ariketa praktikoa	312
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	313

2001an, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI), haur hezkuntzaren inguruko hausnarketa egin ostean, 0-3 zikloa garatu gabekoa dela ondorioztatzen da eta erabakitzen da berau bultzatzeko proiektu bat abian jartzea. Proiektu horrek Hazitegi izena hartu zuen. Hazitegi, aipatutako zikloaren inguruko ikerketen eta mundu mailan erreferentzia ziren esperientzien azterketari ekin zion, gutxi gutxika bere ereduak eraikitzen. Ezagutza horren zabalkuntza gure helburuetariko bat izan da, lehenik gure ikasleen artean, ostean haur hezkuntzako irakasleen artean, aholkularitza eta formazioaren bidez. 2006an Hazitegiko taldeak erabakitzen du jorratutako oinarrizko markoa argitara ematea eta Rafael Cristobali ematen dio ardura hori. Hala, Hazitegik 2007an, "Fundamentos del ser humano: una psicología para educadores" delako liburua argitaratu zuen. Bada, delako liburuak gure sistemako oraingo eta geroko hezitzaileentzat eduki lezakeen interesaz ohartu zen Hazitegi Taldea, eta hurrengo erabakia da lan horren mamia, funtsezkoena, era edo molde didaktikoan euskaraz ematea. Horrekin batera Hazitegik hezkuntza-komunitateari egiten dion heziketa-proposamena ere badago, beste liburuak batean bildua. Bi dira liburuak, bada. Eta bigarrenak lehenengo honexetan duelarik bere oinarria, hura bere sakonean ulertzeko gida bezala beste hau erabiltzea gomendatzen dugu.

Hezkuntza sistema hobetearren guk geuk egin dezakegunaz hausnartu behar dugu, Unibertsitate garen aldetik bederen. Horixe da hain zuzen ere Hazitegiren erronka nagusia: hobekuntza. Liburu bion argitalpenak erakusten du erronkari tai gabe eutsi nahi diogula. Gure fakultatearen ezaugarri nagusia, sortu zen une beretik hor izan duguna jarraibidetzako, etorkizuneko hezitzaileak sortzeko bidean aurrera egitea da, bide horretan urrats bat egin eta, hurrengoan beste urrats bat harago joan nahiz. Horrela, orain artekoan gure zeregin nagusiak zientzia-komunitateari gure ekarpenak egitea, ikastetxei aholkua ematea eta, azkenik, lehenago aipatu dugun hobekuntza erdiestearren etengabeko berrikuntzaren aldeko apustuari eustea izan dira, eta geroan ere halaxe jarraitu nahi genuke.

Liburu hau behar bezala ulertzeko ezinbestekoa da bere osotasunean irakurtzea, esan nahi baita atal guzti guztiak irakurri ondoren baino ezin dela guk azaldu nahi izan dugun guztiaz jabetzea, ikuspegi osoa osatzea alegia. Atal guztiak datoz elkarri loturik, puzzleak bezala. Eta beste edozein puzzle osatzeko atal guztiak zein bere lekuan kokatuz nola joan behar izaten dugun, halaxe egin behar da honetan ere. Eraman handiz eta ekinkor egin beharrekoa bidea da liburuaren azken lerrora iritsi artekoa. Eta eleberri hoberenetan gertatu ohi den bezalaxe, behin horretara iritsita ohartuko da irakurlea liburuak bere zentzu osoa hartzen duela. Irakurleari eskatzen dizkiogun eramana eta ekinak ere ordaina izango dutelakoan gaude. Hala bidean aurrera egin ahala topatuko dituen atsegin hutsen aldetik, nola hezitzailea den aldetik ere, hemen azalduko zaizkionak eguneroko zereginetan lagungarri izango zaizkio eta.

Gure abiaburua zein den nolabait antzeman dadin, goazen gure hezkuntza-zentroetako hezitzaileen egoeraz zerbait hausnartzera. Hona: hezitzaileen ezagutza eguneratzeari buruz planteaturik ematen zaizkien hitzaldiak eta ikastaroak, sarri askotan, nahasmen iturria baino ez dira, teoriaren arlotik ailegatzen zaizkien mezuak hain dira elkarren ezberdinak edota ilunak.

Mezuok, askotarikoak izateaz gainera, psikologia-lengoaia ezberdinetan emanak izaten dira. Horrela bada, hartzaileengan askotan nahasmena sorrarazi ohi dute. Zenbat paradigma edo sistema, hainbat lengoaia! Babel beldurgarria, bai, eguneroko problema zehatzei pauso seguruz ekin behar dienarentzat batik bat. Eta gaitz-erdi psikologia ildo edo eskolek erabiltzen dituzten lengoaien arteko nahasmen hori baino ez balitz. Haurraren izaerari berari buruzkoan nork zein iritzi duen, hortik ere nahasmena etorri ohi da. Negarrez dagoen haurra besoetan hartzean haren menpekotasuna areagotu egiten dugula diosku honek, eta horko beste horrek berriz haurrarekin horrela jardunez haren geroko autonomia sendotuko dugula diosku.

Horra bada korranteak eta dotrinak elkar ukatuz eta sarritan elkarren aurka ere, eta horra hezitzaileak Babel horretan hegoa galdurik. Hori horrela, irakasle-geletako eztabaiden ostean askotan aditu izan dugun erantzuna argi izan da; utikan teoriak, goazen praktikara! Horixe. Eta praktikoa zer den? Negarrez dagoen haurra besoetan hartu ez hartu zalantzan gaudelarik norberaren etxeko eskarmentua jotzera, horixe da praktikoa, zer ikusi hura ikasi egin ohi dugulako. Haatik, koska bat baino gehiago badu horrek, zeren eta norberak aspaldi batean etxean ikusitakoak eta ikasitakoak ez du kasik zerikusirik gaur egungo industria gizarte aurreratuetako haurrekin egin ohi denarekin. Aspaldiko modu haiek zuzenak izan ziren ala ez alde batera utziz, kontua da gaur egun besterik direla gauzak, haurrak guztiz goiz sartzen baitira haur eskolan, hots, taldeetan.

Hezkuntza gorputzean egoera berri honen kontzientzia sortu ahala hark hezkuntza-proiektu trinkoagoa galdatzen duenez, edo balio humanistiko orokorretara jo, edo ez dauka beste nora jo. Europar Batasunak diozan balioak izan, zein Jacques Deloresen Hezkuntzari Buruzko Liburu Zuriak aldarrikatzen dituenak izan, zein beste edozein iturri ofizialak emanak izan, arazoa ez dago horrela konpontzerik. Zeren eta azken batean hezkuntza-proiektua zentro bakoitzaren irizpideen arabera erabakitzen baita, hots, jarraibideak tokian tokiko irakasleriaren eskarmentuaren arabera erabakiz, baina hala eta ere edozein hezkuntza-proiektuk behar duen ziurtasuna erdietsi gabe. Balizki ziurtasun hori irizpide sendo eta ondo finkatuetan oinarritu behar baita.

Egoera ezaguturik, inoiz baino beharrezkoagoa da haurraren bilakaerari buruzko psikologia ildo jakin bat, fidagarria eta bermatua. Hain zuzen ere, hezkuntza proiektuaren abiapuntua izango den psikologia ildo, haurraren psikologia eta pedagogia-praxia elkarri sendo lotuko dituen. Egun, badugu eskueran psikologia ildo fidagarri hori, psikologia ebolutibo enpirikoak eskaintzen diguna baita.

Psikologia Enpirikoa zeri deritzogu, ordea? Gertaera egiaztatuetan oinarritua izan eta zientzia-metodoen bidez egiaztagarria den haurraren bilakaerari buruzko psikologiari deritzogu Psikologia enpirikoa. Haurraren zein nagusiaren jokabideari buruzko teoria nagusi horretan abiatuz pedagogia proiektu sendoa eraiki daiteke. Lehenik eta behin praxiaren nondik

norakoak zehaztu behar dira. Horren ondoren, delako proiektu hori garatzeko behar izango diren espazioak sortzeko gai izango den arkitektura-proiektua lantzea dagokigu. Azken horixe da, hain zuzen ere, bigarren liburukian proposaturik datorrena. Azkenik, esan psikologia enpirikoak ebaluaziorako bitartekoak eskaintzen dituela, nahiz dela haurren epe laburreko bilakaera eta disfunzioei dagokienean, nahiz dela haurren familiei dagokienean, nahiz dela eskola bera ebaluatzeari dagokionean. Hori bai, eskolatzat haurra hazi eta hezi egiten den lekua eta denbora, biak batera harturik diogu azken hori.

Sarrera honen bidez aurkezten ari garen lanak erabateko garrantzia duten galderei erantzun nahi die. Galderok gure haurren eta haurron familien ongizateari eta bizi garen gizartearen etorkizunari buruzkoak dira. Gure garaian, gurea bezalako industria-gizarte aurreratuetan, eskolari, egoki ere, historian lehenago egokitu ez zaizkion ardurak eta betebeharrak egokitu zaizkio. Familiekin batera lan eginez, egungo gizartearen, hots, industriaren eta kulturaren aldetik etengabe aldatzen ari den gizarte honetako egoera aldakor eta askotarikoan haurrak bera izaten jakin dezan hazi eta hazi behar du eskolak, tradizioak utzi digun hoberena iraunaraziz eta hazten eta hazten doan haurren baitakoari lagunduz. Lan honen helburua hezkuntza sistemari bere ekarpena egitea da, zeregin horretan laguntzearen. Horiek argiturik, liburu honen egitura zertan den esango dugu.

Hasteko, gure eremu kontzeptuala azalduko dugu, gure nondik norakoa argituz. Horretarako, Jokabidearen Psikologiari, Etologia eta Atxikimenduaren Teoria erkatuko dizkiegu. Sortzetiko edo berezko jokabideak eta jokabide instrumental edo ikasiak, batzuk eta besteak ondo bereiztea, garrantzizkoa da hezitzaileari dagokionez. Hain zuzen ere, primatearen sortzetiko jokabidearen ikerketak (Harlow, Gluck eta Suomi, 1972) eman digu gizakiaren berezko jokabideak eta horien bilakaera aztertzeko erreferentziatzko patroia, gizakiok ere primateak baikara. Kapitulu luze horren bigarren zatian Giza Jokabideari Buruzko Teoria Orokorra azalduko dugu.

Horren hurrengo, eta erarik ahalik eta didaktikoenean, jokabide guztiak aztertuko ditugu, banan-banan eta zehatz-mehatz, horietako bakoitzak haurren heziketaren markoan dituen inplikazioak hausnartzeko helburuz.

fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok

1

JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

>> SARRERA

“Zenbat buru hainbat aburu” esan ohi da euskaraz, iritzi aniztasunari buruz gagozkiolarik. Bada, psikologia-eskolek anitzak eta elkarren ezberdinak diren teoriak sortu dituztelarik, horiei buruzkoan ere antzeko zerbait esan daitekeelakoan gaude. “Zenbat eskola, hainbat kaiola”. Horrez gainera, teoria horiek sarri askotan ilun eta nahasgarri gertatzen zaizkigu, idatzirik agertzen zaizkigun moduan bederen. Horren aurrean, ustez zientifikoagoa eta objektiboena delakoan, psikologia eta pedagogia arloan diharduten profesional batzuk, teoria nagusia Jokabidearen Psikologia (Psikologia Behaviorista edo Konduktista ere deitua) deritzon horrexetan bilatu nahi izan dute, beren zereginari euskarri sendoa eman nahirik. Euskarria, bai, hala ulermenaren aldetik nola praktikara begira.

Ikuspuntu horrek uste izan du giza jokabide guztiak azaldu ahal dituela. Hala eta ere, giza jokabidearen eta psikologiaren eremua Jokabidearen Psikologiak historikoki uste izan duena baino askoz zabalagoa da. Zergatik diogu hori? Ba ikasitako jokabideak ez ezik -aipatu psikologia horrek aztergai dituen arloko jokabideak hain zuzen ere- badirelako berezko jokabideak deritzenak ere.

Hezkuntzaren testuinguruan esan genezake ikasitako jokabideak hezkuntzaren bidez irakasgarriak direla, berezkoak ostera, hezi daitezkeenak lirateke.

Egin berri dugun bereizketa hori oso garrantzitsua da, hezitzailearen ikuspuntutik hitz eginda bederen. Hezitzailearen zereginaren gakoa hurrengoan datza: berezko jokabideak heztean eta haurraren portaera-multzoari jokabide instrumentalak (ikasiak) eranstean edo gehitzean, horrela eginez haurra gero bere helburuak erdiesteko gai izango baita. Jokabide-eremu horiek biak ondo bereizten jakitea hezitzailearentzat funts-funtsezkoa da. Orain artea, askotan ez da bereizketa hori egin eta sarritan berezko jokabideak zigorren zein indartzaileen bidez manipulatzeko ahaleginak egin dira, haurrek ikasi ahalko litzuketela pentsatuz. Hori izan da Jokabidearen Psikologiaren porrota.

Baina xeheago azaltzeko ahalegina egin dezagun. Lehenik Jokabidearen Psikologiak erakusten diguna azalduko dugu, ondoren izan dituen akatsak zehaztuko ditugu, segidan berezko jokabideen ikuspuntua plazaratuko dugu eta azkenik aipatutako bi eremuen arteko uztarketa egiten saiatuko gara. Azken horrekin burutuko dugu Jokabidearen Teoria Orokorra.

>> 1. JOKABIDEAREN PSIKOLOGIAK ERAKUSTEN DIGUNA HAUR-JOKABIDEAZ: PAULOV ETA SKINNER

Pauloven eta Skinnerren esperimientuek edertasunik baldin badute, eta badutelakoan gaude, giza jokabidearen eta psikologiaren eremu oso zabal baten ezaugarriak era oso bakunean eta erraz ulertarazten dizkigutelako da.

1.1. Pauloven paradigma

Bere jatorrizko esperimientuak bakuntasun edo soiltasun txundigarria erakusten du. Goazen bada hori urratsez urrats gogoraztera.


Esperimentuan lehenengo urratsean, horra hor zakur gosetia, urdailean jariatuko zaizkion jarioak direnak biltzeko balio izango duen urdail-fistula hortxe -urdailean- duelarik ezarrita. Fistula kirurgiaz ezarria da, noski. Bada, hasteko, zakurrari jakia erakusten zaio, besterik gabe. Horren aurrean zakurraren urdailak bere ohikoak jariatzen ditu. Hots, jakiarekin aurrez aurre zakur gosetiari urdailean halako jariaikin multzoa jariatzen du, guri geuri ere halako egoeretan ahoan hortzak izerditzen zaizkigun era berean jariatu ere.

Bada, bigarren urrats batean jakiaren agerraldiari segituan kanpai-hotsa erasten zaio. Zer esanik ez, jakia ikustearekin batera zakurraren urdailak bereak jariatzen segitzen du.

Antzezpen antzeko esperimientu honen hirugarren pauso edo urratsean zakurrari kanpai hotsa hutsa entzunarazten zaio. Inolako eta inongo jakirik erakutsi gabe. Hala eta ere, jakiren bat erakutsi izan balitzaio bezainbesteko jarioak jariatzen ditu.

Esperimentuaren laugarren urratsean kanpaiaren hotsa entzunarazten zaio, baina jakirik erakutsi gabe, zenbait aldiz. Azkeneko hots horrek ez dio ezer jariatzen zakurrari.

Kanpai hotsari zakurrak eman erantzunari "sentsibilizazio" esaten zaio, eta "desentzibilizazio", aldiz, erantzuna desagertu edo iraungitzeari.



1.1.1. Terminologia

Pauloven terminologian hala jakiari nola kanpai hotsari "estimulu" deritze (stimulus, ingelesez).

- Jakiari -hots, 1. estimulua denari- honelaxe esan dakioko: S_1 .
- Kanpai hotsari, 2. estimulua denez gero, S_2 .
- Urdailaren erantzunari, E, erreflexu (ingelesez, reflex) esaten zaio.
 - Berezko estimuluari (S_1) -jakia- "Estimulu Ez-baldintzatua" deritzo.
 - Kanpaiaren hotsari (S_2), "Estimulu Neutro" deritzo.
- Jakiak urdailari eragiten dion erantzunari Paulovek berak "Erreflexu ez-baldintzatua" deritzo, erantzun automatiko horri ezerk ez diolako baldintzatu.
- Kanpaiaren hotsak urdailari eragiten dion erreflexuari berriz, "Erreflexu Baldintzatua" deitzen dio, nahiz eta erantzun bera izan, jatorrizkoa ez den beste estimulu batek eragin duelako.

Paradigma honetan, estimulu neutroa eta erreflexu ez-baldintzatua elkarrekin lotzen dituen fenomenoari "Baldintzapena" izena ematen zaio.

Esperimentu horretako paradigmatari berriz "Erreflexu Baldintzatuen Teoria" izena eman zaio, sortu zen une beretik hain zuzen ere.

Esanda gauden moduan, halako estimulu neutro jakin baten baldintzapean nolabaiteko erantzun organikoa zein psikikoa erdiesteari izendatzeko -erdieste horrek ezinbestez eskatzen duelarik delako estimuluaren eta erantzunaren artean denboralotura egotea, noski- Jokabidearen Psikologiak sentsibilizazio hitza erabili izan du. Izen hori batik bat psikopatologiaren arloan erabiltzen da, bestalde. Horrela bada, Estimulu Neutroaren eta Ez-baldintzatuen arteko lotura estimulatzailearen desagertzeari desentsibilizazioa esaten zaio.

1.1.2. Pauloven paradigmaren irakurketa etologiaren ikuspuntutik

Orain artekoan azaltzen saiatu garen asmakuntza horrekin -Pauloven asoziazioa delakoarekin hain zuzen ere- zerikusirik duten psikologiaren gaiak ekiteko, eta gaiok behar den moduan ulertzeko ere, ezinbestekoa da delako fenomenoaren irakurketa konplexuagoa egitea orain artean Jokabidearen Psikologiak, egin izan duena baino.

Goian aipaturiko ildotik, Pauloven begirada arin eta gaingiroki pausatzen den gaiekikoan -hala nola, estimulu ez-baldintzatua delakoaren garrantzian- Etologiaren begiradak askoz zabalagoa den berezko estimulu edo estimulu naturalen arloa antzematen du. Izan ere, estimulu naturalok dira berezko jokabidearen abiarazleak, Hindek (1970) egin zuen kontzeptualizazioaren arabera.

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

Gisa-bilakaeraren testuinguruan lehen-lehen abiarazlea den estimulua hautatua da, berezko jokabidearen maila berean hautatua hain zuzen ere. Horrelaxe dioskute Lorenzek, Tinbergenek eta, oro har, Jokabidearen Biologiak (Etologia). Aipaturik dugun estimulu naturala eta berezko erantzunaren arteko ekologia hori, animali bizitza osatzen duten egoera guzti-guztietan omen dago, egon ere.

Beraz, Pauloven paradigman S_1 denari -hots, Estimulu Ez-baldintzatua deritzonari-Etologian "Estimulu Naturala" izena ematen zaio. S_2 , era berean, Estimulu Neutroa da. Estimulu ez-baldintzatua eta estimulu neutroa, biak aldi berean agertuz gero, horra hor non sortzen den Estimulu Baldintzatua. Estimulu bi horien elkarketa Pauloven asoziazioa izenez ezagutzen da.

Paradigma honetan, esan dugun moduan, berezko erantzunari erreflexu ez-baldintzatua esaten zaio. Eta behin estimulu neutroak estimulu ez-baldintzatuaren abiarazle-gaitasuna hartu duelarik, hots, estimulu neutroa estimulu baldintzatu bihurtu delarik, ondoren datorren erantzuna erreflexu baldintzatua da.

Horiek horrela, baldintzapena sortu, abiarazte-gaitasun indartsuena duen estimuluak sortzen du. Beraz, abiarazte-gaitasun indartsuena duen estimuluak estimulu ez-baldintzatuarena egiten du, indar ahulagoko estimuluak estimulu neutroarena egiten duen era berean.

Nolanahi ere, eta fenomenoari buruzkoan egin daitezkeen irakurketako edozein eginda ere, giza-psikologiaren hainbat arlotan erabateko garrantzia duena da estimulu neutro edo seinale jakin bat beste seinale edo estimulu ez-baldintzatu bati lotuz eskura daitekeen abiarazte-gaitasuna. Gaitasun horren ondorioengatik, hain zuzen ere.

Nola aplikatzen den paradigma gure egunerokotasunean? Adibidez, begira gaztetasuna darion halako giro erakargarri horretan edari jakin horixe edaten ari den gazteari. Edari horri -estimulu neutroa- gazte-giro horrek dituen abiarazte-gaitasunak -estimulu ez-baldintzatua- atxiki zaizkio eta, ikusleari edari horrekiko zaletasuna sortuko zaio. Gure adibide hau, ikus-entzunezko hedabideetan edarien publizitateak erabiltzen dituen trikimailuetako bat besterik ez da. Egungo publizitategintzak Pauloven asoziazioak ditu ardatz nagusi, erreflexu baldintzatuak sortu nahirik baitihardu. Baina hori aspalditik egin izan du.

Maiz ikusi izan dugu adibidez autoak saldu nahi dituztenean neskak edota mutilak agertzen direla iragarkietan. Neska mutil horiek garaian garaiko eredu erakargarriak dira. Bilatzen dena da neska eta mutil gazte eta eder horiek ikusleengan sortzen dituzten erreakzioen parekoak izatea saldu nahi dituzten autoak.

Estimulu edo abiarazleak eta erantzun baldintzatuak berriro aipatuz, esan beharrekoa da haurtzaroa izaten dela, maizen behintzat, horiek indartsuen finkatzen diren bizitzako aldia edo garaia. Eman dezagun horko haur horri jaki jakin bat beharturik janarazte zaiolarik, tentsio handiko giroan gainera: aurrerantzean jakiak -estimulu neutroa- aipatu giroak sorrarazi izan zion ezinegonaren antzekoa -estimulu baldintzatu- sorraraziko dio. Beti, eta askotan betiko. Eta betiko ez bada ere, haurraren bizitzako epe oso luzerako bai behintzat.

Orain, itzul gaitezen edariaren adibidera. Edariari eta lehen jakiari, lehenago bie iiritzi diegu estimulu neutro, zeren eta gai bi horien estimulu-gaitasuna -biena diogu, bata horekiko gogoia eta besteak horekiko arbuioa eragiten badute ere- estimulu ez-baldintzatuarena egiten duenaren estimulu-gaitasuna baina askoz ahulagoa baita.

Lehenengo kasuan, edariarenean, ikuslearen erantzuna sexu-erakarmenaren arlokoa erantzuna izan da. Bigarreanean, ordea, haurraren erantzuna ihes egiteko gogoari edota beldurrari loturiko erantzuna izan da.

Bada, jakiaren adibide horrexetan dugu, argiro, "ongi" jaten duten edo bestela "gaizki" jaten duten haurren problematikak non hasten diren. Horra, beraz, non dugun problematika horiei ekiteko lehen lehenengo euskarria. Amak bere umearen elikaduraz erakusten duen larritasunak haurrari jatorduak zeregin arriskutsu legez biziartzat diote. Ondorioz, arbuioa edo bestela iheserako gogoia sortzen zaio. Jarraibide hori behin eta berriro errepikatuz gero, horra hor bere bizi guztian gaizki jango duen umea. Aldiz, haurrari jaten eman, giro lasai, gozo, maitasunezko eta jolaserako modukoan ematen baldin bazaio, eman ere, haurrak giro atsegin horretako ezaugarriak jateari lotuko dizkio. Umea jatun ona izango da, bere bizi guztian.

Ohikoa izan daitekeen beste egoera bat hurrengoa da. Hezleen ahaleginez giro ona sortua duen gelara dakarte haurra. Giro atsegin horrek bertan egiten den edozeri atsegintasun horixe kutsatuko dio. Berezia izango da hango guztia. Haurraren munduan hezlearekiko harreman armoniatu eta idealizatu da giroari atsegintasun hori kutsatzen dion eragile nagusia. Bada, hona berriro ere Pauloven Asoziazioa. Ipuin kontaketek, irakurketa eta idazketa ariketek, jakintzaren mundurako sarbidea, horiek guztiak estimulu neutroak baino ez dira lehenengoetan. Haatik, haurrak horiek Pauloven asoziazioan zein esperientziari lotzen dizkion, halaxe egingo zaizkio erakargarri edo bestela gaitzesgarri. Haur-gelan bideratu beharrekoak nola bideratzen diren, horrexetan erabakitzen da hein handi batean bederen gero haur bakoitzak eskola nola eramango duen. Haur-gelan nolako giroa, eskolatzea horrelaxe bizi izango du haurrak. Gogotsu diharduen haurrak bere bilaketa-eta jolas-jokabideak abiaraziko ditu, eta ikasle ona izango da. Etorkizuna begira ate horiek zabalik izango ditu eta, adimenez hazten joango da. Horrelako giro gozoetan gertatu ohi den guzti guztia pizgarri zaio haurrari, gogotsu desiratzen dituen erantzun edo erreakzioak jasotzen ari baita. Umea, hitzaren zentzurik hoberenean, apetatsu dago. Gainera, pizgarri hori hezleen jarduerak abiaraz dezakeen berezko jokabidea edozein delarik

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

ere gertatzen da. Horrela bada, hezkuntzako giroak zabaltzenago egiten du haurraren interesen mundua eta, ondorioz, adin egokira iristean interesez eta zaletasunez ase izango den pertsona bilakatuko da. Ez da sekula gogaituko. Bizitza guztiz pizgarriak diren bizipenez osatua izango du. Gizakia zoriontsu egin dezakeen osagarrietako bat lantzen ari gara.

Haurraren zoriona sor daitekeen lege berean sortu ohi dira haren "fobiak" ere. Argitu dezagun baina fobia zer den: muturreko beldurra bizitzea, horrelakorik zertan sortu behar ez lukeen egoeran eta objektuarekin aurrez aurre bizi ere. Hots, objektu, pertsona edo egoera jakin batzuekiko arrazoiz kanpoko beldurra, horixe da fobia. Nolanahi ere, fobiak aurrerago aipatuko dugu, hain zuzen ere ikasitako beldur-erreakzioen atalean. Hots, beldurraren eragile diren objektuak ez baldintzatu gabeak edo naturalak, ezta ere genomaren baitakoak ez diren kasuak aztertzean.

Diogunaren nondik norakoa errazago ulertze aldera, adibide zehatza ekarriko dugu orain hona. Eman dezagun emozioetan tentsio-aldia bizi izaten ari den norbaiten egunerokoa ikusten ari garela. Norbait hori halako batean zinera doa, eta aretoa jendez beterik dago. Giroa pisutsua da. Eduki edo mamiz gogorra den filma ikusten hasi da. Izu-laborria sentitzen du, bihotz-taupadak azkarrago eta azkarrago doaz, kosta egiten zaio arnasa hartzea, izerdiz blaitzen ari da, bertigoa du, eta hiltzekotan den sententzia ere badu. Egun batzuen buruan erreakzioa berbera dauka taberna edo antzekoren batean. Aurrerantzean, noiznahi gerta dakiok larritasun-erreakzioa, edozein toki itxitan. Leku itxiek (estimulu neutroa) egoera itogarriek (estimulu ez-baldintzatu) abiarazte-boterea bereganatu dute.

1.2. Skinner eta baldintzapen eragingarria

Skinnerren esperimenduak Pauloven ereduak esperimenduak duen bakuntasunaren antzeko soiltasuna du; mutur-muturrekoa. Bakantasan edo soiltasun hori garrantzitsua da, bestalde, esperimendu horren ondorioz ezarritako paradigmatari dagokionean ere.

Esperimentuan, hortxe dugu arratoi hori, gosez amorratzen, kaiolarena egiten duen horko kaxa horren barruan sarturik. Bada, arratoiak kaiola modukoaren barruan egiten duen ibilbide ohikoaren gune jakin batean palankatxoa ezarri da, eta horri zanpa eginez gero halako gailu berezi bat aktibatzen da; kasu horretan delako gailuak janari kantitate bat jaurtiko du -saria da hori: indargarri positiboa- nora eta kaxan barruan egokiro kokatuta dagoen ontzira. Bada, halako batean bere joan-etorrietakoren batean ausaz edo zori hutsez arratoiak palanka zanpatzen baldin badu, horra janaria ontzian agerturik! Palankari zenbaitetan horrelaxe eragin ondoren arratoiak zanpaketa janariaren agerpenari lotuko dio. Horrez gero palanka zanpatuko du janaria nahi duen aldiro. Horren maneia erreza den palankaren ordezkari egoera bi baino ez: zanpatu gabe eta zanpaturik- maneiatzen konplexua den beste gailuren bat ezarrit gero ere arratoiak nola eragin ikasi ahalko du, baldin eta haren maneia ikastea animalia adimen-gaitasunaren mugen barruan bada, noski.

Behin manei u gaitasun horretara iritsita, animaliak jokabide jakin hori ikasi duela esaten da.

Aipatu zeregin horren burutzea janaria den aipatu dugun "saria" eskuratzen menpe dago, ez dago zertan esan. Ondorioz, eta jokabide horren funtsa zereginen bat betetzean datzanez -jokabide hori "operatiboa edo instrumentala" dela esango dugu, hots, saria irabazarazten diona-, paradigma honi, terminoa bera pittin bat nahasgarria izan daitekeen arren, "baldintzape eragingarria" esaten zaio.

Esperimentuaren hurrengoan, palankari zanpatuz gero kaiolaren behegaina elektrifikatu egingo da. Arratoiak utzi egingo dio zanpatzeari, nahiz eta ikasi duen zapalduta saria hartuko duela, eta jokabideaz ahaztu ere egingo da. Hori izango da "zigorraren eragingeko iraungipena".

Azkenik, hurrengo esperimentuan behegaina elektrifikatzen da, eta palanka zanpatuz deselektrifikatu ahal da. Zampaketa errepikatzeak, lehen esperimentuaren hasieran bezala ekingiza instrumentala ikastea eragingo dio: "indargarri negatiboa".

Animaliaren heziketak (txakurrak, elefanteak, ...) bere osotasunean baldintzape eragingarria du euskarri. Bada, badago giza heziketa bera ere baldintzape eragingarrian euskarritzea. Zirkua dugu, ezer izatekotan, baldintzape eragingarrien eszenatoki handia.

Aipatu ditugun hiru esperimentu-ereduak, gizakion nahiz animalien jokabideei buruzko garabide teoriko garrantziko askotako funts-funtsezko euskarria dira.

1.2.1. Terminologia

Hala arratoiaren jokabidea, janariaren ontzira joateko erabilia, nola zirkoan izurdeak edota tigreak suzko uztaian zehar igarotzeko zein beste edozein zeregin betetzeko burutua, jokabide eragingarria delakoaren adibideak dira.

- Indargarri positiboa. Janariak animalia gosea asetzen du: "plazera" sorrarazten du. Jokabide eragingarriaren bati loturiko plazer oro saria da. Hala bada, janaria erdiestea palanka zanpatzeari dagokion saria da eta, sari horrexek ikasarazten dio, eta finkatzen, palankarekiko jokabide jakin hori. Saria, janaria, indargarri positiboa dela diogu.
- Zigorra. Aldiz, palanka zanpatzean animalia helarazten zaion elektrizitate deskargari zigorra esaten diogu, mina eragiten dionez gero. Animalia delako ekingiza hori ekingizaren egingo du, eta horrelaxe iraungiko da palankarekiko jokabidea.
- Hirugarren ereduak, ordea, palanka zanpatzean behegaineko elektrizitatea desagerrarazten da eta, horra hor indargarri negatibo deritzona zertan den.

Hala indargarri positiboek nola negatiboek jokabide eragingarriari indarra ematen diote. Beraz, indargarriok animalia ekingiza-gaitasunen multzoan gorderik lotzen

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

dira. Jokabide instrumental jakin bati loturiko zigorrak delako jokabidea ahularazten du, hariak erabat iraungiarazi arte. Hala bada, jokabide hori, goizago edo beranduago, animaliaaren jokabide-multzotik desagertuko da. Zigorrek eta sariak, jokabidea finkatuko badute, jokabide horren "ondokoak" edo, bestela esanda, "kontingenteak" izan beharko dute. Alegia, ekintza eragingarriaren aldi berekoak. Kontingenteak izan ezik ez dute inondik ere jokabidea aldaraziko.

1.2.2. Baldintzapen eragingarriaren irakurketa etologikoa

Azaldu berri dugun paradigma dela eta Jokabidearen Psikologiak egiten duen irakurketaren gakoa eta ardatza animaliaaren jokabide-multzoari gehitzen edo kentzen zaion jokabide instrumentala bera da. Ez doa hori baino harago. Hala eta ere, garrantzikoak dateke jokabide eragingarriaren nondik norakoa edo izaera zertan den zertzea, hala pedagogiari nola psikopatologiari begira.

Palanka zanpatzea den ekintza hori ez da txoriek habia egitearen izaera berekoa, inondik ere, ezta ere estaltze erritua, kumeak haztea edota harrapaketa ibiltzearen parekoa. Funtsezkoa den bereizketa hau Lorenz (1937) etologoaren lanei zor diegu.

Palanka zanpatzea animaliak berak, janaria eskuratzea helburu, asmatu duen ekintza da. Bestalde, ekintza horri jokabide instrumentala deritzo Skinnerren paradigmari. Aldiz, Tolmanek jokabide finalista edo jomugaduna -purposive behavior- edo "jomugadun jokabidea" terminoa erabiltzea nahiago du.

Nolanahi ere, zein animaliak nolako adimena duen, delako animalia horrek jokabide instrumental -edo finalista- konplexuagoak zein bakunagoak izango ditu. Eskala filogenetikoan behe-behean saikaturik dagoen animaliak arazo instrumentalen soluzioak bilatzeko duen gaitasunak ez du zerikusirik eskala berean gorago dagoen beste edozein animaliak duenarekin. Hegaztien artean, esaterako, elkarren oso ezberdinak dira txolarrearen eta erroiaren gaitasun instrumentalak. Era berean, amildegiz itzela dago primaterik garatuenaren eta gizakiaren adimen-gaitasunen artean, gizakiak neopalioa -isokortexa- garatu baitu, eta primateek osteria ez.

Jokabide instrumentaletan datzan "egiten jakin" horrek ez du zerikusirik, ezta hurrik eman ere, habia egin, janaria xurgatu edota harrapaketa diren jokabideetan datzan egiten jakin delakoarekin. Azken egiten jakin horiek berezkoak dira eta, beraz, genomaren baitakoak. Emeari ez dio beste inork irakatsi behar nola erditu, ezta ere plazentaz nola garbitu edota kumeei behar dituzten zaintzak nola bideratu. Gizakiari dagokionez, ordea, berezkoari buruzko atalean jardungo dugu.

Bada, bereizketa horren nondik norakoa argiturik, itzul gaitezen aipatzen ari garen esperimentu-eredura. Horretan muturreko egoera bi ditugu: janaria (saria) eta

elektrizitate deskarga (zigorra), alde batean; bestean, goseak horretara akuilatutik janariaren bila joatea edo bestela izuak eraginez deskargari ihes egitea.

Aipatu osagarrioz etologiak egiten duen irakurketa lehenago ere adierazi dugu:

- Janaria elikatu beharra den berezko jokabideari berez dagokion estimulu naturala da, animaliaen goseak piztu ohi duen estimulua, hain zuzen ere.
- Min hartzea berezkoa den "ihes edo beldur-jokabidearen" estimulu naturala da.
- Janariari buruzko jokabidea goseak pizturik, edo minarengatik ihes-jokabidea minak berak eraginik, animaliak bere adimen-gaitasunen bilatu beharko du janaria nondik nora erdietsi edo elektrizitate deskargengatik min hartzeari nola ihes egin ahalbidetuko dioten bitarteko instrumentalak, edo tresnak. Bada, balizko bitarteko horietan dira jokabide eragingarria deritzona (instrumentala zein finalista iritzi). Berdin dio palanka zanpatzea den, aldi bakarrean airean jauzi bi egitea den, izurdeek ohi duten bezalaxe, ala suzko uztaiaren barrena igarotzea den, tigreek zirkuan legetxe.

Esanda gauden moduan, indargarriek (nahiz positiboak nahiz negatiboak) eta zigorrek ekintzaren kontingenteak behar dute izan, hots, haren aldi berean gertatu behar dira, baldin eta horien ondorioz jokabide instrumentala finkatu nahi bada. Zakurrari ardien aldera joateko joera kenduko bazaio, abiatzearekin batera zigortu beharko dugu. Izurdeak suzko uztaiaren barrena beste aldera jauzi egiten ikas dezan nahi badugu, arraina den saria jauzia burutu eta berehalaxe eman beharko zaio.

Hezkuntza prozesuan ere garrantzizkoa da, garrantzizkoa denez, kontingentzia kontzeptua, sariari eta zigorrei dagokien aldetik. Nerabeari ikasturte bukaeran saria emango zaion promesak ez dakar berez hark ikasteko ohitura hartzea. Norbaitek arauen bat urratu ostean sermoia botatzeak edo zigorra ezartzeak ez dakar besterik delako horrengan erruduntasuna eragitea baizik; jokabidea aldarazi gabe, haatik.

Saria, Skinneren paradigman, berezko jokabide jakin bat asetzean datza. Aipatu esperimenduan janariari buruzko jokabidea da saritua. Berezko edozein jokabidea asebetetuz izanak plazera sorrarazten du, plazere hitzaren esangurarik zabalenean. Laudorioa, adibidez, onespene nahiaren saria dateke. Txerak, osterak, maitatua izateko premia zein atxikimenduzko jokabidea, bata nahiz bestea asetzen du. Eta horrelaxe segi dezakegu adibideekin luzatu eta luzatu. Sariak, azken batean, jokabide instrumentala indartzen duela esateko.

Ildo berean, jokabide instrumental jakin baten bidez min sentitzetik libratzeak indartu egiten du delako jokabidea. Horri, gaitzetik libratzea denez gero, esan dugun moduan, indargarri negatibo deritzogu. Zer ekiditen edo saihesten den, horretan indartzen du jokabidea. Esaterako, ez gaitzitzearen beldurra bizi duen ikasleak gaien bat gaitzitzea lortzen baldin balu, delako ez gaitzitzearen mehatxua uxatuko du eta, beraz, ikasteari buruzko jokabide positiboa indarturik izango du horrez gero, zeren eta ikasteak mehatxuaren larritasunetik libratzen baitu.

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

Zigorra berezko premiaren bati egiten zaion kaltea da. Nahiz dela onespren premiari, nahiz dela maitasun beharrari, nahiz dela mugimendu-beharren bati, baina kaltea. Min ematen duen oro zigortzat hartzen da.

Nolanahi ere, animaliairen jokabide-multzoan finkatu nahiz horretatik kendu nahi den zeingura ekintza eragingarriari buruzkoan, indargarri eraginkorrenak, ekintzaren arrakasta edo porrota dira. Animaliak erdietsi nahi duen hori erdiesteko burutu behar duen zeregina haren gaitasunen gaindikoa baldin bada, delako animaliairen jokabide eragingarriak huts egingo du. Ostera, burutu beharreko zeregina haren adimengaitasunen baitan baldin bada, helburua erdietsiko du -arrakasta- eta jokabide hori animaliairen jokabide-gaitasunen multzoari erantsiko zaio.

Goiko paragrafoan esan dugunaren oinarrian zera dago, edozein jokabide instrumentalek izan dezakeen sari guztietan sari garrantzitsuena zer eta arrakasta delako iritzia. Gogoaren goraldia, bozkarioa, norbera ahaltsu sentitzea, horietan dira, besteak beste, arrakastari loturiko emozioak. Erdietsi den helburua zailago, emoziook indartsuago. Arrakasta, horixe da, bai, garuneko neurobiologi guneetako "reward system" delakoa (sariztatze sistema) aktibatzen duten estimuluetan estimulurik garrantzitsuena. Zigorretan zitalena, ordea, porrota bera da. Aipatu neurobiologi guneetako "punishment system" (zigortze sistema) delakoaren abiarazle indartsuena.

1950. urtean Olds eta Milner-ek (1954) plazeraren eta atsekabearen bitartekariak aurkitu zituzten. Lehenengoi "reward system" edo sariztatze sistema eta bigarrenei "punishment system" edo zigortze sistema deitu zieten.

Esandakoak esanda, argitu beharrekoa da hala arrakastak nola porrotak badutela beste gaitasun garrantzitsu bat subjektuari buruzkoan: ekintzarako gai direla, edo bestela ezindu, horixe sentiaraztea. Arrakasta zein porrota, biak ere biak subjektuak bere buruaz duen irudiari eta segurtasun-ezari lotuak dira.

Azken bereizketa hori guztiz garrantzitsua da, hezkuntzari dagokionez bederen. Hezitzailearen zereginen artean lehentasunezkoa izango da laguntzea zertan eta kulturari buruzkoan hezitzailearen beraren irizpideekin bat datozen jokabide instrumentalek (eragingarriek) arrakasta errazago erdiets dezaten. Era berean, hezitzailea saiatu egingo da bere irizpidez egokiak ez diren helburuak bere ardurapeko inork erdiets ez ditzan. Hezkuntza prozesuaren bidez gaitasun instrumentalen multzoan halako jokabide jakin bat sar dadin, ezinbestekoak dira indargarriak, hala kanpotikoak nola barrukoak, garrantzizkoagoak izanik bigarren multzokoak besteak baino. Hezkuntzan ematen diren kasuen artean ondorio zorigaiztokoak izan ditzakeen bat, garrantzizkoa gainera, beti laudatua izanik ere, bere helburuak erdiesteko bitarteko instrumentu edo tresna behar litzukeenak sekula eskuratzen ez zaizkion haurrena da. Bitartekoak, bai, janariak eskuratzeko, eskola sistemak menderatzea eskatzen dizkion gaiak menderatzeko, parekide dituen ikasleen aldeko erantzuna lortzeko, gogoko lukeen bikotekidea bereganatzeko. Heziketa ona ez

da besterik gure hurrek, neskato nahiz mutiko, beren berezko helburu anitzetara iristeko bitartekoak jartzea baino.

Hala bada, Skinnerren paradigma zertan den laburtuz zera esan dezakegu, indargarri indartsuenak jokabide instrumentalen bidez erdiesten diren senaren helburuak eurak dira, zigorrak beti zigor direlarik, hots, indargarri negatiboak. Alabaina, senaren helburuez hitz eginez gero senaren gaiari ekin beharko diogu, hots, berezko jokabideez jardun beharko dugu.

Hori baino lehen, ordea, beste gai bi aipatuko ditugu. Lehenik, erreflexu paulovarrak eta jokabide instrumentalak azaleratze ontogenetikoa haurraren hazkunde-zikloaren baitan; bigarrenik, Jokabidearen Psikologiaren eremuari gagozkiolarik horko zerk nahasten gaitun aipatuko dugu.

Bada, Jokabidearen Psikologiaren arabera indargarria positiboa nahiz negatiboa izateak berdin diola eman lezake. Egia da, bai, haren interes-gune nagusia ekintza instrumentala dela; horrek, ordea, ez du aipaturiko bereizketak berdin diola esan nahi.

Jokabide instrumentala garatzen diharduen artean arrakasta eta horren ondoriozko sariaren zain delarik, subjektua pozik eta gogotsu dabil. Zigorra etorriko ote zaion bizi denean, ostera, subjektua beldurrez eta larri egoten da. Indargarriez osaturiko edozein sistematatan subjektuaren pozak sormena eta baikortasuna pizten ditu. Pauloven asoziazioz, ekintzarekiko atsegina bereganatzen du. Aldiz, indargarri negatiboan bidezko sistemak subjektuari sormena ahitu eta lan egiteko gogoia kenduko dionez, lanari muzin egin nahi izango dio mehatxua desagertu bezain laster.

Psikologia konduktistak indargarria besterik atzematen ez duen horietan etologiak, berriz, ekintza instrumentalaren osagarria den motibazio osagarria ikusten du. Hori dela eta, delako ekintza instrumentalari ere indargarri iritzi ahal zaio, arrazoi guztiz iritzi ere. Hala animaliak nola gizakiak, uste baino motibo gehiago dute ekintza instrumentali ekiteko; sariaren poza bizi nahi dutelako ez denean, mina edota beldurra uxatu nahi dutelako.

1.3. Pauloven erreflexuen eta jokabide eragingarrien agerrera giza bilakaeran

Gizakiarengan Pauloven asoziazioak eta baldintzapen eragingarriak oso goiz azaltzen dira. Hain zuzen ere, umontzi barrukoak, azken aldera, estimulu neutroak estimulu naturalei lotzen dizkiela ziurtat jo arazten diguten ebidentziak badira.

Halaxe, Feijóok (1981) amaren erlaxazio egoera jakin bati 12 segundoko tarteko musika-esaldiren baten emisioa (Prokofiev, Mozart, Bethoven, Brahms) lotu zion, 28 jaiogabekorekin hain zuzen. Bada, horiek, jaiogostean, negarrez hasi eta, jaiogaurreko musika haietakoren bat entzunaraziz gero, bederatzik negarrari utzi, beste bederatzik begiak

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

zabaldu eta hamar erlaxatu egiten ziren, azkenok hanken eta besoen mugimendu kloniko eta guzti. Asoziazioetako bat bera ere ez da antzeman musika-perpaua besteren bat izan denetan.

Horrela bada, bigarren hilaren azken aldera Pauloven erreflexuak antzemangarri bilakatuak dira eta baldintzapen eragingarriak ere agertzen hasiak dira. Umea, edoskitzea helburu, mugimendu-eskema gero eta konplexuagoak eta eraginkorrakoak erabiliz doa. Gero, jokabide eragingarriok beren helburua erdiesten baldin badute bederen -arrakasta erdietsiz gero, alegia- haren jokabide-multzoaren baitako "ohitura" bilakatuko dira. Argitu, orde, ohitura hitz horren orde Piageten paradigman "egitura" izena erabiltzen dela (Piaget eta Inhelder, 1975). Hazkundearen adin-tarte goiztiar honetan -Piageten 2. faseaz ari gara- ez daukagu oraindik behintzat adimenaz hitz egiterik, zeren eta adimena delakoaren ezaugarri funtsezkoetakoa baita bitartekoak eta helburu edo jomugak elkarren artean bereizteko gai izatea. Bada, aipaturiko ohiturak ez dira besterik portaera instrumental (eragingarri) arrakastatsuen ondorioz umeari finkatu zaizkion automatismoak baino. Gure bizitzaren zati handi bat automatismoz osatua dago. Eskoletan ere, "errutinen" bidez, hainbat ohitura finkatzen saiatzen gara, adibidez, garbitasun ohiturak, ohitura sozialak, ikaste ohiturak eta abar. Ohitura zentzumen-motorrei buruzko ohituran ez dago helbururik edo jomugarik erdiesterik mugimendu-hurrenkerazurrunaren bidez ez bada, mugimenduotan ez dagoelarik bereizterik aldeztetik hautaturiko helburua duten, batetik, eta umearen jokabide-ondarearen baitan diren portaera eragingarrien artean hautaturiko bitarteko hutsak diren, bestetik.

Argi dago, beraz, adimena aipatu ahal izateko ezinbestekoa dela balizko adimendun horrek helburuak eta bitartekoak bereizten jakitea, eta horretarako aldeztetik espazioaren osagarrietako batzuen irudia behar du ukan. Hori horrela, umearengan sortuz doaz "planak", edo "asmoak". Bereizketa hori egin ahal izateak, espazio-errepresentazioaren ingurumari jakin batean hain zuzen ere, horrexek diosku adimena noiz hasi den osatzen, eta horrekin batera umea 3. fasean sartua dela ere adierazten digu. Hori guzti hori hazkundearen 4. eta 6. hileen tartean izaten da. Oro har, adimenaren zabaltzea 5. hilean izaten dela esan daiteke. Une hori, aurrerago ikusiko dugunarekin bat, ezagumenaren leherketa handiarena da.

Aipatzen ari garen aldian, umeak, Skinnerren esperimenduko arratoia gogora ekartzen duen portaeraz, kanpaitxoari eragiten dion sokaitxoari zori hutsez astinduz gero haren hotsa aditzen duenez, hortxe hasiko da astindu eta astindu, hotsa aditze aldera. Adimenaren atalasea da. Adimena badela esaterik ez dago, ordea, harik eta umea gauzen -izan objektuak nahiz izan pertsonak- irudiaren bat osatzeko gai izan arte, gauzok espaziorrekiko eta kausa-ondorioekikoa ez ezik bere buruaren erkintzeekiko ere irudikatuz, helburuak erdiesteko balio dioten bitartekoan halako hierarkia baten barruan jardunez beti ere. Guzti horri dagokion prozesua aski garaturik da umearen 8. eta 9. hilen tartean (4. aldia). Hil horietan dira azalera etortzen objektua bera eta objektuaren iraupena ere. Era berean, hori berori da funtzio semiotikoaren agerteraren hastapenen aldia, esan behar delarik funtzio semiotikoa delako hori ez dela erabat garaturik izango 6. aldia bete baino lehen (18-24 hilabete).

>> 2. NON EDO ZERTAN NAHASTEN GAITU JOKABIDEAREN PSIKOLOGIAK

Emanik, ikusi dugun bezalaxe, animalien zein gizakien munduak estimulu baldintzatuez beterik direla, eta emanik horien ekintza-munduak ezagutza eragingarriez josia dela, esan beharrekoa da, ordez, ez animalien eta ez gizakion jokabidearen eremua oso osoa ez dutela ikasitako osagarri horiek huts-hutsik betetzen. Bada, Jokabidearen Psikologiak, estimulu naturaletan eta berezko ekintzetan datzan jokabide instintiboa sailhestean, giza jokabidean eta animalien jokabidean funts-funtsezkoa den zerbait bazter uzten dute. Hain zuzen ere, bere burua ikasitako jokabideen zientzia den aldetik huts-hutsik aldarrikatu beharrean animalien zein gizakiaren jokabidea osoaren zientziatzat aldarrikatzean, oso oker dagoen psikologia bilakatua da, pedagogian eta hezkuntzan horrek dituen ondorio kaltegarri guztiekin.

Ondorio kaltegarrien adibiderik behar bada, horra Kibbutzeko haurrekin erabili ziren praktikek atzetik ekarri zituzten ondorio latzak. Israelen Kibbutza Sobiet Batasunetik hara etorritako komunista juduek sortu zuten. Izen horren itzalpean sortu zituzten kolonietan komunismoaren euren paradigmaren araberrako antolamendua ezarri zuten, paradigmarekikoan ahalik eta atxikienez ezarri ere. Bigarren Mundu Gerraren aurreko urte haietan psikoanalisiak izan ezik inork aldarrikatzen ez zituen berezko jokabideez ezer jakin gabe, Konduktismoa erabili zuten psikologiaren arloan eredutzat. Paradigma horrekin bat, haurraren amarenganako lotura ez omen zen besterik ikasitako harremana baino, inondik ere ez berezkoa. Hala bada, ez zuten beharrezkotzat jotzen umea amaren abaroen egotea edota izatea.

Umeak, jaiotze bezain laster kentzen zituzten amaren altxotik, eta talde-zaintza egiten zitzairen. Haurrak askorentzako geletan lo egiten zuten, eta bizi ere haur-komunetan bizi ziren. Egunean hiru orduz baino ezin egon zuten amek seme-alabekin. Ametako gehienek haustura itzela bizi zuten, haustura horren ageriko seinalea depresio-koadroetakoak diren egoeretan amiltzea izaten zelarik. Depresioari, ordea, gizarte burgesaren eraginpeko erantzun baldintzatuak zirela irizten zitzairen eta, ez zuten gaitz larritzat hartzen, erantzunok berez desagertuko zirelakoan baitziren, horixe zioen-eta baldintzapenen Pauloven teoriak.

Ondorioak ikaragarriak izan ziren. Hondamen hutsa, hala amentzat nola haurrentzat. Gero, 60ko hamarkadan hain zuzen, psikoanaliaren buru argienetako bati dei egi zioten, orduko hura azter zezan. Ospetsua den liburua idatzi zuen, "The Children of the Dream" (Bettelheim, 1969), alegia, "Ametsaren umeak". Bada, urteak igarota gero, loturari afektiboei buruzko Ainsworth eta Main jakintsuen lanen ostean horien ebaluazio-teknikak erabili ahal izan zirelarik, amaitzak argigarriak izan ziren. Hala erregimen hartan irauten zuten haurren artean, nola harexetan heziak izan zirenen artean, "atxikimendu ez-seguruen" eta "atxikimendu desantolatuko" portzentajea oso gorak antzeman ziren. Hitz batean, Kibbutzeko psikologia eskola ofizialak ez zekien deus berezko "atxikimendu-jokabideaz", ezta ere amatasunari dagokion berezkoaz.

Goian aipatu ditugun ildo bereko praktikak Erakundeetako Haurtzaindegietan, Ume-urtegiatan eta Ospitalean bideratu izan ziren, ohikotasunez, harik eta atxikimenduari buruzko ikerketek egiteko modu horien larritasuna ageri-agerian utzi zuten arte.

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

Aipatuak baino lehenago René Spitzek (1946) antzemanda zeukan depresio anaklitikoa deritzona, umezurtegiako haurren hain zuzen ere. Ikerlari horren arabera, higie-ne-baldintza ezin hobetan hazitako umeek, bizitzako 8. hilea aldera edo, halako nahasmen psikiko eta fisiko batean amiltzen ziren, eta horrelaxe hiltzen ziren. Salbuespena, zaintza berezien premia ukan zutela eta, pertsona bakar baten zaintzan utzitakoak ziren.

Nolanahi ere, azkenean Doroty Burlingham eta Anna Freud (1942) jakintsuek Bigarren Mundu Gerraren garaian Londongo Hampstead izeneko haurtzaindegi instituzioan eginiko behaketa dokumentatuak izan ziren, ezer izan baldin bazen, erreferentziako pertsonengandik aldenteak haurraren eragin zezakeena argiro eta bizi-erakutsi zutenak. Horrela, aipatu leku haietan denboraldiren egindako ume guztiak uzkur agertu ohi ziren, emoziozko atxikimenduz gabetuak bezalaxe. Ondorengo ikerketetan, 1952an, Robertson eta Bowlby ikerlari-ek, aldente-ari buruzko erantzunean bazela sekuentzia hautatu bakarra, eta haur guztiengan eman ohi zena, horixe frogatu zuten. Erantzuna hiru alditan garatzen zen: protesta, etsipena eta desatxikimendua (Robertson eta Bowlby, 1952). Bowlby beraren osteragoko beste lan batzuek erakutsi zutenarekin bat, aldente goiztiarrek ondorio gogor-ak ukan zituzten berak ikertutako adinekoen emozio-bizipenetan.

Arestian aipatu ditugun lekuon parean askoz ere malguagoak diren gure inguruko haur eskoletan ere umeen aldente esperientziak izan dira. Horietan ere, erantzuna negarrari ematea, atxikimendua dioten pertsonari eustea edota geroagoko batean ere aldente-ari dagozkion jokabideak garatzea ez dira askotan garrantzizko erantzuntzat jo izan. Hutsaren hurrengo-ak, horixe iritzi izan zaie batzuei. Azken aldiotan, oster-ak, eskola-ikasturtearen hasiera aurretiko egokitze aldia ezarri da, azkenean ere. Areago, bazterturik dago haur-ak atxikimendua dien pertsonengandik eta etxetik egunero-egunero aldenarazteko ohitura.

Geurera itzulita, haurraren loaldiari buruzko gida-liburu bilakatu zaigun “Egizu lo, haurra” izenekoan ageri diren jarraibideak ondorio kaltegarriak eragiten ari dira, haur-loturaren kalitateaz dagokionean bederen.

Horiek horrela, orain arte esandakoek, ezinbestez, animalietan zein gizakiarengan diren berezko jokabideez mintzatzea eskatzen digute.

>> 3. BEREZKOA: BEREZKO JOKABIDEAK ANIMALIEN ARTEAN ETA GIZAKIARENGAN

Iragana den XX. mendean eta gorren arteko elkarriketa zirudien eztabaida antzuan Psikoanalisaren aldekoek eta Jokabidearen Psikologiaren aldekoek, teoria zuzena eta egiazkoena norena zen eztabaidan ziharduten artean, beste zientzia-arlo bat zabaldu zen mendearen erdia aldera. Etologia zeritzon -Ethos berez “jokabidea” da-, eta beste izen batzuk ere eman zaizkio, hala nola, Jokabidearen Biologia edota Giza eta Animalia Psikologia Alderatu-ak. Norberak zein izen gurago zuen ere, egungo biologiaren irizpide enpirikoekin bat letorkeen diziplina

litzatekeena izendatzen ari ziren. Ordu arteko biologia, izan bedi hau gogoan, izaki bizidunen prozesu organikoari buruzko ikerketari zuzendua zen batik bat.

Diziplina berriak idorokuntza berriak egin zituen. Halaxe, animalia-jokabideak haren euskarri diren organismoak dituenak bezain zehaztuak eta iraunkorrek diren morfologiak dituela idoro zuen. Aspaldi batean Linneok animalien erreinua eta espezien sailkapena animalion morfologi fisikoaren arabera egin zuen lege berean, diziplina sortu berriko teorikoak, jokabideari buruzkoan ere morfologia fisika huts ziren beste haixekin bezain sailkapen taxonomiko zehatzak egin zitezkeela jabetu ziren. Gakoa morfologiaren konstantzia zen (Lorenz, 1997; Eibl-Eibesfeldt, 1972). Behaketok eta egiaztapenok, zientziaren beste arlo batzuetan gertatu bezalaxe, herri-jakintzak aspaldi eginak zituena ziren. Baserritarrek eta ehiztariek polito jakin dute espezieak edo motak bereizten; habia egiteko moduan, estaldura errituetan edota harrapakina ehizatzeke moduen arabera.

Animalien jokabidean morfologi-konstantea badela eta emozio-adierezapenik badutela, Darwinen 1859 "Espezien jatorriaz hautespen naturalaren bidez" izenekoa idatzia dago, lehenik eta behin, eta geroagoko den "Emozioen adierazpidea animalien artean eta gizakiengan" (Darwin, 1872) gaiari bereziki egokitua den beste horrekin ere bai. Hala bada, Darwin, biologia modernoaren sortzailea ez ezik, psikologia enpiriko naturalistaren aita ere bada.

Mende beteko eztabaida sutuen ostean eboluzioaren teoria joan zen nagusituz. Bere berea zuen pisu espezifikoa eraginez, besterik gabe. Hala bada, Darwinen lekukoa zientziaren munduko beste batzuen eskuera igaro zelarik, 1976ko Nobel Sariak Konrad Lorenz eta Nikos Tinbergen zientzialari lanen garrantzia aldarrikatu zuen. Nolabait esan, Lorenz bera jo daiteke Etologia moderna delakoaren aitatzat, berezko jokabideaz egindako ikerketa zientifikoengatik jo ere. Hari emandako Nobel saria zientziaren munduari gomendiozko gutuna izan zela esan daiteke, diziplina berria lerra larrizko zientzien artean onar zezan.

Mundua aipatu zientzialari bi horien onespina ekarri zuen korrontearen mende makurtzen zen artean, alabaina, arlo bereko beste batzuek ere ez zeuden geldi. Horrelaxe, egun ere garapenaren psikologiari buruzkoan ezinbesteko diren jarraibideak aztertzen ari ziren, hala primateen artean nola gizakiengan. Ildo horretan, aipatu beharreko urteen artean 1958a dugu. Urte horretan gizon bik, zeinek bere aldetik, artikulu bana argitaratu zuten; artikuluok mugarria dira Giza Psikologiaren egungo historian.

Artikuluotako bat Wisconsin Unibertsitateko Harry Harlow ikerlariak argitaraturiko "The Nature of the Love" (Harlow, 1958) izenekoa dugu. Bestea, aldi bertsuan International Psychoanalytic Review izenekoa John Bowlby ikerlariak argitaratu "The Nature of Child's Tie to his Mother" (Bowlby, 1958) titulaturikoa da. Artikuluok Giza Etologia eta, horrekin batera, garapenari buruzko psikologia enpirikoa, bi-biak abiarazi zituzten.

Lehenak, Harry Harlowek alegia, umea amarekin lotzen duen lokarriari buruzko psikoanalisiaren teoriak primateekin frogatu nahi izan zituzten. Haren frogak egiteko modua

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

egundokoa, txundigarria izan zen. Esperimentuan ikerlariak panpina bi ezarri zituen amarik gabeko Rhesus kumearen bizi-zuloan, panpinetako bat alanbrezkoa zen, eta biberioia zeukan; bestea pelutxezko zen, eta biberoirik gabe zegoen. Esperimentuak mila zatitan hautsi zuen psikoanalisiak aho-libidoaz ordura arte sostengatu zuen teoria. Kume harentzat elikadura bera baino beharrezkoagoa zen gorputz igurtzia. Tximinotxoak pelutxezko panpinari atxikirik ematen zuen denbora, eta beste panpinarengan ez zuen gose zenean baino beste inoiz jotzen.

Amarenaganako haurrak bulkada sekundariorik ba ote duen ez ote duen, teoria freudiarrak baiezkotan zegoen arren, Harlowen ikerketa esperimentalak uste hori auzitan jarri zuen. Freuden arabera, haurrak amarenganako erakutsi ohi duen atxikimenduaren zergatia ez litzateke besterik haren bularra baino, hots, haurrak amari lotua izatearen arrazoa aho-libidoa litzateke. Teoria horrek bular-elikadurari buruzko uste eta ekintza ugariri eman dio hauspoa. Aldiz, esperimentuaren agerira dakarrena besterik da. Kumea bularrak gabeko panpinari eutsita dago, denbora guztian horrelaxe, salbu eta gose denean. Orduan besteari ekiten dio. Begien bistako horren irakurketak dioskuna zera da, amaren nahiz haren ordezkoren batekiko igurtzi edo kontaktua beharizan primarioa dela. Aipaturiko egileek beharizan horrek sorrarazten duen jokabideari aipaturiko egileek "Atxikimenduzko Jokabidea" izena eman diote. Jokabide horren ondorioa, bestalde, emoziozko lotura da. Loturaren premia bulkada primario da, hots, elikadura-jokabidetik askea den jokabidea (Bowlby 1969).

Animaliekikoan indarrean dagoen etikak gaur egun ezinezko egingo litzuzkeen esperimentuen bidez, esperimentuon artean panpinekin egindakoa izan zelarik, Harlowek era sistematikoan aztertu zituen amaz gabetzeak, beste kume-kiderik ezak eta gorputz-kontaktuen gabetasunak Rhesus kumearengan izan zituen ondorioak. Ondorioan azterketak, berriz, horiek esplorazio-, beldur-, parekideekiko- eta gurasoenganako- jokabideen agertzen diren uneetan kokatu zituen. Bada, primateeii buruzko azterketotan, Harlowek eta Soumik primate-garapenean patroi edo eredu batzuk ezarri zituzten eta, patroi horiek haurraren garapen ebolutiboaren baitako puzzleko zatiak elkarrekin bat etorrarazten lagundu dute.

Atlantikoaz beste aldean, Bowlbyk, Haurren Laguntzarako Zentruko zuzendari zegoelarik, etologiaren behienak ikasi zituen, Darwinen lagun izan zen Huxley haren iloba Julian Huxleyren eskutik hain zuzen ere. Bada, Bowlby ohartu zen ezen ez Freuden Libidioaren Teoria, ezta ere Kleinen Heiro Instintuaren Teoria, zeina bere aldetik, haurrek bizi zituen depresio-, gaizkiletza- eta perbertsio-koadroak ulertarazteko balio gabekoak zirela. Egunero haur eta nerabeentzako klinikan ikusten zituen koadroak horietatik ziren, ordea. Koadro guztietan haurrak amarekikoan nahaste larriak bizi izandakoak ziren. Batzuek ama falta izan zuten, beste batzuk tratu txarrak jasandakoak ziren.

Egiaztapen hori nahinon froga zezakeela oharturik, amarekiko harreman estu eta beroa -harreman horren gorengo asebetetasun mailan bien arteko keinuzko eta azalez azaleko kontaktuan delarik- giza kumearengan "indar primarioa" eta handi handia dela defendatu zuen, guzti horrekin haurraren janarekiko edota ahoarekiko pultsioak ukatu gabe defendatu ere. Bestalde, lehenago Dorothy Burlingane eta Anna Freudek (1942) haurren aldentze-aldi luzei buruzkoan Hampsteadeko haurtzaindegi instituzioaletan eginiko behaketek, Bowlbyri, bere ideiak berresteko zioa eman zioten.

Psikoanaliaren metodoak -behaketa naturalistik gabekoa dena- Bowlbyri bere hipotesiak, intuizioz ondorioztatu zituen hipotesiak izanik, zuzenak ote ziren ez ote ziren bide enpirikoz frogatu ahal izateko tresnarik eskaintzeko gaitasunik ez zeukan, ordea. Hala bada, haurraren jokabideari buruzkoan aieru huts ziren hipotesi haiei zientziaren euskarria jartzeko, behaketa eta egiaztatutako naturalistek jo beharra ukan zuen, eta horrelaxe hartu zuen Etologiaren ikuspuntua. Munduko psikoanali-elkarteen artean gailena zenaren lehendakaria izan zenak haurraren garapenaren azterketa naturalistari ekin zion, horrek elkartekideen eta zientzia-kideen aldetik irainak eta omena kentzea besterik ekarri ez arren. Esaterako, Londreseko Psikoanali Erakundea delakoak kanpora bota zuten. Hala eta ere, irakurria, aztertua eta itzulia izan da, horren adibidea izanik hiru liburukiz osaturiko gaztelarazko "La vinculación afectiva"-Afektuzko lotura- (Bowlby 1969, 1973, 1980) izenekoak.

Gizaki oren hazkuntza aldiaren harekin batera haziz eta haziz doan jokabideen zuhaitzaren lehen sustraia, eta funtsezkoena, atxikimenduzko jokabidea dela erakutsi zuen Bowlbyk. Gero, berak Harlowekek, Darwinek berak aurreikusia zuena egiaztatu ahal izan zuten, alegia, gizakumearen garapena eta primatumearena ildo paraleloetan doazela. Ondorioz, primatuei buruzko azterketek halako balio handia hartu zuten, haurrari buruzko Garapenaren Psikologiaren arloko gida bikain bilakatu baitziren.

Bowlby, ordea, orain arte azaldu ditugunak baino harago joa zen. Etologiaren metodo enpirikoa erabiliz aztertu zituen jokabidearen agerrera primatueengan eta gizakiengan, bai, baina besterik ere egin zuen. Metodo hori berori erabiliz, beste zientzia-paradigma bat osatu zuen. Horretan XX. mendeko diziplinek elkarren osagarri bilakarazten dira, hala nola, Giza-Etologia, Psikologia Kognitiboa, Lengoaiaren Psikologia eta Sistemei buruzko Teoria.

Orain artekoak gogoan, Bowlby giza-garapenari buruzko psikologia enpirikoaren aitzatzen jo dezakegu, hala berak sorturiko paradigmatik nola beraren lanak abiarazi zituen haurrari buruzko azterketak abiarazi zituelako. Ikerketa enpirikoetarako gogo berri bati esker mundu anglosaxoian haurraren munduaz diharduten lanen loraldia ezagutu da, esan behar delarik hori loraldi hori Bowlbyren paradigmatikaren emankortasunaren fruitua dela.

Loraldi eder horretan badira besteen artan gailentzen direnak, hala nola, Mary Salter Ainsworth, Mary Main eta Alain Sroufe Ameriketako Estatu Batuetan, Hubert Montagner Frantziatik, Marinus van Ijzendoorn Herbehereetan eta Grossman senar-emazteak Alemanian.

Iragan mendeko hirurogeita hamarrekotik Ainsworthek, Blehar, Waters eta Wall-ekin batera (1978), "Egoera Arrotzari buruzko Testa" (Strange Situation Test, SST) izenekoak sortu zuen,

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

gaur egun 12 hileko haurrei buruzko ikerketetan ezinbesteko bilakatua duguna. Bestalde, Mary Mainek, George eta Kaplanekin batera (George, Kaplan eta Main, 1985) haurrak nagusiekiko dukeen loturaz ikertzeko beste tresna bat sortu zuten, aipatu berri dugun beste hori bezain garrantziko: AAI (Adult Attachment Interview). Tresnoi garrantzia hain handikoak ez diren beste batzuk gehitu izan zaizkie. Halaxe, 40 urtera iristen ez den epean erabat aldatu da haurrerekiko irudia, eta horrekin batera aipatu epe hori baino lehen hari buruzkoan indarren zegoen irudia bere ere aldatu da.

Frantzia, eta aipatu ditugun azterketa horiekin aldi berean, erabateko garrantzia hartu dute etologi ikerketak. Hubert Montagnerrenak dira, parekideen arteko jokabideari eta haurraren oldarkortasunari dagozkienean batik bat. Ikerlari honen lanek haurrek ikasgelan ohi dituzten dinamikak beste argitasun batekin ikusarazi dizkigu, pedagogi esku-hartzea erraztuz. Montagnerren merituen artean daude, bestalde, etologia-metodologiaren bitartez behagarri diren jokabideen eta neufisiologi aldaeren elkarrekiko loturaz, aldaeron artean defentsarako hormona kortikosteroideen aldaketa eta 17 hidrokortikoidak izanik.

Zertan den azaltzen ahalegindu garen zientzia-korronte hau Atxikimenduaren Teoria delakoarekin bat eginik ikusi ohi da. Bada, berau da liburu honek hezitzaileei eskaini nahi dien psikologia. Aurrerantzean azalduko den guzti-guztiaren oinarrian datu egiaztatuak jarriko dira. Horrela bada, azaldu eta eztabaidatuko diren gaiak ez dira eskolen arteko eztabaidetan oinarrituko, egiaztatutako datuetan baizik. Horren testigantza emango dute, bestalde, ikertzaileen eta ikergaien egiazkotasunari buruzko erreferentziak, eta, zehatzago hitz eginez, horrez gainera nork zein metodo erabiliz jardun izan duen ere azalduko dugu. Uste baitugu horixe dela haurraren errealitate psikologikoa eta jokabideen multzoa ulertzeko behar duten tresna, gero ekintzak bideratzeko orduan hezitzaile bakoitzak berak nola erabili jakin behar izango duena, noski.

3.1. Konfigurazio pizgarriak

Esanda gauden moduan, Darwin bera izan zen berezko jokabideek animalien artean zein gizakiengan duten zereginaz, hain zuzen ere lehenago aipatuak ditugun "Especien jatorriaz" (Darwin, 1859) eta "Emozioen adierazpidea animalien artean eta gizakiengan" (Darwin, 1872) lanetan.

Eztabaida gorabeheratsuz beteriko mende oso baten ostean berezko jokabideari buruzko teoriak, zientziaren komunitatean eskubide osoz onartua izateko, 1973. urtea arte itxaron behar izan zuen. Horrelaxe gertatu zen Medikuntzaren Nobel Saria Konrad Lorenz eta Nikos Tinbergen etologoei eman zitzaizkionean, instintuen kontzeptua frogatu izana sarituz.

Nozio bi dira, elkarren ezberdinak, instituzko edo berezko jokabidearen nozioa eta erreflexuarena, bigarren hau, inguruko estimuluek ez ezik neurofisiologi faktoreek ere abiarazten dutelako. Horrekin batera berezko beharra delako agertzen da. Animaliak bere berezko jokabidean jardun beharra dauka, mugimendu-sekuentzia osoarekin jardun ere. Eta ez soilik inguruko seinaleren batek abiarazita, baita delako sekuentzia berriztatu ezinik denbora bat eman ondoren ere.

Une edo egoera horretara behin iritsita, eta inguruko estimulurik izan ezean, berezko jokabide piztuaren deskarga dator. Horixe da Lorenzek (1937) "hutsune egoerako erreakzioa" deritzona da. Ehiza-jokabidea luzaz erabili gabe egon den katua, bat-batean, mutur-muturreko kitzikapen egoeran sartzen da eta ehizari dagozkiekeen mugimenduen sekuentzia osoa burutzen du, nahiz eta ezein ehizakirik izan ez. Eldarnioak jo izan balu bezalaxe izaten da. "Piztuera endogenoa" (bere barrutik sortua) deritzona da horren abiarazlea.

Bada, piztuera endogenoa kontzeptua, kontzeptu esentziala da, giza-eta animalia-psiologia ulertzeko bederen. Fisiologi faktoreak horren alde direnean edo, bestela ere, berezko jokabide jakin hori gauzatzerik ez dagoenean, behera egiten da, halako moduan non zerora iritsiz gero hutsune egoerako erreakzioa dator. Ildo beretik, "estimulazio-atalasea" gero eta baxuago, orduan eta estimuluei erantzuteko sentiberatasuna gorago, edo, bestela esanda, berezko jokabidea abiarazteko beharrezkoa den espezifikotasunak behera egiten du. Adibidez, haserre gaudelarik edozein eragozpenek pizen digu eraso-jokabidea. Haurraren ere horrelaxe izaten da. Eritasuna dela, nekea dela, logalea dela edota mina dela eta atxikimenduzko jokabidea abiarazten delarik, haurra mainekin hasten da eta inguruan nori atxikimendua dion irudi hori agertzen ez baldin bada beste edozeri atxikiko dio, hala nola, panpina edo kuxinen bati, edo bestela bere magalean bilduko da.

Aldiz, animaliak, berezko jokabideren bat beronen osotasunean burutu ostean, selektibo bilakatzen da. Horrela, lehengo jokabide jakin hori berori berriro abiarazteko, estimulu guztiz egokia eta indartsua beharko du. Gose garelarik, adibidez, askotariko usainak aditzeko gai izaten gara; behin gosea aserik, ordea, jaki guztiz gutziazitua usaindu beharko dugu jateko gogoia piztuko bazaigu.

Esandakoak esanda, esan gabe doana da haurrak eraso-jokabidea aktibazio-maila altuan duenean bidea ez dela errepresio morala. Horrela eginez eraso-joera aktiboago bilakarazten besterik ez dugu erdietsiko. Hezitzaileok, lehenik eta behin, haurraren erasokortasunarekikoan koltxoiarena egin behar dugu, eraso-gogoaren oldarraren lehenengo hartzaileak geu izan gaitezen, geuregana isur dezan amorrua, eta, horren ostean, hark aktibaturik duen erasokortasuna nora bideratu bilatu beharko dugu, haurrari oldarra edo amorrua husteko bidea emango dion zereginen bat eskainiz. Bada, azaldu berri

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

duguna da, hain zuzen ere, Winnicottek (1948) sorturiko “holding” -eusten- delakoaren kontzeptua.

Bestalde, animaliak, berezko jokabideren bat behin abiarazita, estimulagarrien bila ekingo dio. Delako estimulagarri horren gogoia, nahia eta beharra dira jokabide jakin batek eragiten duen psikearen egoera izendatzeko erabiltzen ditugu hitzak.

Espezie ororen hautespen filogenetikoan, balizko instintu-jokabide guztien artean jakin batzuk hautatu izan dira. Hautatuak dira, era berean, aipaturiko jokabide hautatuok abiarazten dituzten estimuluak edo konfigurazio estimulagarriak ere. Berezko jokabidea eta konfigurazio pizgarria, biak ere osotasun bakar baten osagarriak dira, eta biak hautapen naturalaren prozesuan aldi berean sortuak. Hala bada, ekologia-ingurumen jakinean hautatuak dira, hala berezko jokabidea nola seinale pizgarria. Horiek horrela, gure haur-eskoletan ekologia-ingurumen horixe birsortu behar dugu, haurraren garapena era naturalean gerta dadin.

Estimuluen konfigurazio edo taxuera horri, etologoek, eta mundu naturalaz mintzatuz, “eboluzio- inguramenerako moldaera” izena eman diote. Banakoarengan garatzen diren jokabide-sistemak, genetikak eta inguramenak elkarrekiko eraginak zehazten ditu. Delako banakoa bere eboluzio-ingurumenetik urrunduago, gertagarriago banako horren jokabide-sistema ez-ohiko moduan edo eran garatzea.

Rhesus primatearekin erabateko zein hein bateko gabetasunari buruzkoan Harlowek egindako azterketek erakusten dutenarekin bat, benetan akats larriak eragiten ditu berezko jokabideak eraikitzeke prozesuan delako izakia bere adaptazio-ingurumenetik erauzia edo aldendua izateak. Bada, haurra amaz eta kideez gabetzeari buruzkoan ere Harlowen beraren eta Suomiren azterketek frogaturik utzi dute horixe berori gertatzen dela gizakiekin ere.

Zein animalia-espeziek badu berezko jokabideen eta seinale pizgarrien multzo zehatza, bere berea, eta multzoko horiek guztiak delako espeziearen genomaren baitan dira. Etograma deritzona da. Biak eta biak ontogenesia edo hazkuntza ebolutiboan agertuz doaz.

Bada, Animalien eta Gizakien Jokabideari buruzko Teoria Orokorrari eskainitako lerroetan zentzu zabalagoz aztertuko duguna aurreratuz, berezko jokabideetako edozein behin abiarazita, animaliar abiarazitako jokabide hori osatzen duten mugimendu motore eta neurobegetatibo, irudizko konfigurazio eta emozio-dimentsio guzti guztiak azken-azkeneraino garatzeko nahia, gogoia eta beharra sortzen zaizkio. Halaxe, abiarazitako jokabide hori aska dadin eta bere azken-azkeneraino irits dadin genetikoki egokiena datekeen konfigurazio pizgarria bilatzeko nahiak biziko du. Bada, bertan sartu behar dira jokabide eragingarriak, instrumentalak (Skinner) zein finalistak (Tolman), Skinner paradigmatari buruzko atalean iradoki zen moduan sartu ere. Animaliaien buru-egokimenak ere bertan sartzen dira jokoan.

Eskala filogenetikoan behe-mailetan diren animaliek buru-egokimen urriak dituzte eta, espeziaren bizi-irauteko beharrezkoak diren jokabideak burutzeko gaitasunetako gehienak, genetikoki ezarrita dituen mugimendu programatuen bidez betetzen dira (Lorenz, 1937). Hegaztiren batzuek, oiloek eta, automaten portaeraren antzekoa dena erakusten dute. Bada, eskala filogenetikoan gorago egin-eta, ugariagoak dira berezko jokabidea osatzen duten jokabide eragingarri, instrumental edota finalistetako sekuentzien artetik ezagutzaren mende uzten direnak, ezagutza hori asmatua zein kultura izan daitekeelarik. Beste hitz batzuekin, gizakiaren berezko jokabidearen hein handiena, jarduera adimentsuaren aginduetara bideratzen da. Hegaztiek, habia egin, berezkoak zaizkion jarraibideen aginduetara egiten dute. Gizakiak, ordea, artisautzaren tradizioa eta arkitektura eskolak ditu, besteak beste.

3.2. Berezko jokabideak

Berezko jokabideetan zeinek bere-bereak diren pertzepzio-gaitasunak ditu, konfigurazio pizgarri zehatzetarako egokituak. Hain zuzen ere, Spitz (1946) etologia sortu baino lehentxeago ohartu zenez, hile biko haurraren aurrean hiruki bateko erpinetan zirkulu bana marrazteak eta gero zirkuluok gora eta gora mugitzeak harengan irribarrea sorrarazten zuten.

Jaioberriarengan giza ahotsak (Eisengerg 1976, Eisenberg eta lag., 1974) bihotz-taupaden erritmoa motelarazten du, eta loaldian ere indarrean segitzen duen orientazio-jokabidea eragiten du. Ahotsaren jariora eteteak, era berean, negargura eta atsekabe keinuak eragiten ditu.

Ahotsaz dihardugularik, esan tonu zolikoek -apalek ez bezala- haurraren irribarrea pizteko gai direla, haren 4. astea baino lehen, eta behin denbora hori gaindituz gero emakumezko ahotsa da irribarrea sorrarazteko pizgarri eraginkorrena, baita haurra negarraz bada ere, beti. Aurrera egin ahala, 5. astetik gora alegia, irribarreak eta zezelka esateak sorrarazteko pizgarririk eraginkorrena giza aurpegia da, nahiz dela benetakoa, nahiz dela eskematikoki zirriborratua, bigarren hori Spitzek berak erakutsi zuenarekin bat diogularik. Horrelaxe diosku Paduako Unibertsitateko ikerketa jakin batek (Turati, Viola eta Leo, 2006), zeinaren arabera jaioberria gai den gizabanakoaren aurpegia ezagutu eta bereizteko.

Ildo horretan, eta negarrari dagokionez, jaiosteko lehenengo astean bertan zenbaitek hots, hala nola txintxirrinarena, hori isilarazteko edo eteteko gai dira. Bigarren astean sartuta, berriz, giza ahotsa beste edozein baino pizgarri indartsuago bilakatuz doa. Denboran aurrera, 5. astearen ostean giza aurpegia begiztatze hutsak negarra isilarazteko gaitasun handia erakusten du. Haatik, elikadura-edoskitzea (Kessen eta Leutzendorf, 1963) eta bere buruarekiko pertzepzioak eta labirinto- pertzepzioak dira negarra isilarazi dezaketen pizgarri nagusiak.

Ume edota kumeei erreparatuta zera ikus dezakegu, bekoki puztua, aurpegia bera baino bolumen handiagokoa eta begietan hasi eta kokotserainokoa luzatua, sudurtxoa eta lepo

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

laburra. Hazpegi horiek begikotasuna, edota abegiz hartzeko gogoa, eragiten dute, hau da, berezko jokabide bat abiarazten dute, alegia, zaintzakoa edota gurasoengandikoa delakoari. Soin edo gorputzaren taxua aipatuz, buruaren tamaina, gorputzako gainerako guztiarekikoan neurturik, handiagoa da umetan gero baino. Ezaugarri horri soin-adarren laburra eta larruzalaren biguna gehitu behar zaizkio. Adibidea ez da besterik berezko jokabide jakin bat eragiten duten gorputz ezaugarrien adibidea baino. Era berean egin genezake gorputzko beste atal batzuekin ere, baldin eta berezko beste jokabideak -hala nola beldurrezkoa, arakatzekoa, oldartzekoa eta sexua- zerk abiarazten erakutsi nahi izanez gero.

Horiek horrela, berezko jokabideetako bakoitza azaltzeari eskainiko zaion ataletan garatu dugu, zehatzago, jokabideotako zein abiarazten duen zein estimulu edo abiarazlek. Hinderren (1970) paradigmari atxikiz, estimulu natural horiek abiarazte estimuluak izenarekin aipatuko ditugu.

3.3. Berezko jokabidearen dimentsioak

Lorenzek (1937) definitu zuen bezala ulerturik, espeziaren bizirik irauperako ezinbestekoa den jakintza da, naturak emandako izan beharrean genomaren baitan izkiriaturik dagoena bera. Hain zuzen ere, gizakion eta animalien jokabideen espektro zabala hartzen duten egiten jakin delako batzuei buruz hitz egiten ari gara, aipatu espektroaren mutur batean egonik elikadura -izan edoskitzea, izan mamurtzea, izan irenstea- eta bestean beste jokabide batzuk direlarik, hala nola, atxikimendu-, bilaketa-, ihes egite-, oldarte-, parekideekiko- eta sexuarekiko jokabideak direlarik. Gure burua lan honen helburuetara mugatuz, ordea, hezkuntzari buruzkoan garrantzia duten berezko jokabideak jorratuko ditugu, besterik ez.

Bada, Lorenzek berak (1978) ohartarazia duenez, nolabaiteko konplexutasuna, handiagoa edo txikiagoa, duten jokabide instrumentalak garatzeko gaitasuna bera ere espezie jakin bateko instintu-multzoaren parte dira.

Bada, banakoaren nahiz espeziaren bizirik irauteari dagokionean, berezko jokabideek egiten jakin horien baitan multzo zabal zabala eta ezinbestekoa dira. Loari eta elikadurari buruzko jokabidea mutur batean eta gizartearekiko jokabideen zuhaitza beste muturrean, bi horien artean beste hainbat jokabide sartzen dira. Horiek guztiak banan-banan zeinari bere atala eskainiz landuko ditugu. Loa eta elikadura alde batetik eta harremanen munduan taxutzen duten jokabideak bestetik.

Berezko jokabidea izenaz aipatu ohi dugun hori ez da berezko jokabidearen dimentsio eta ertzetako bat baino mugimendu dimentsioa. Alegia, jokabide horri berez dagozkion mugimendu morfologiaz zehaztuen eta iraunkorren dimentsioa. Bestela esanda, behaketaren bidez antzemangarriak eta elkarren antzekoak diren mugimendu-patroien dimentsioa, Bowlbyren testuak dioten bezala esanda.

Didaktikari begira jardunez, berezko jokabidean lau dimentsio funtsezko bereizi ahal ditugu:

- Motore dimentsioa
- Dimentsio neurobegetatiboa
- Emozio dimentsioa
- Irudimen dimentsioa, edo kognitiboa

Horrelaxe sailkatu ditugun lau dimentsioek berezko jokabidea zehazten dute eta aldi berean gertatzen dira. Hortaz, horietako bat inon antzemanaz gero, ziurtzat jo genezake beste hiruren presentzia ere. Izua ageri duen haurren aurpegiaren motore konfigurazioari begira denok ondorioztatu ahal duguna horixe da, haurra izuturik dela. Ildo beretik, delako haurrak gihar gehienak tentsioan dituela eta agian zorabio sentsazioa ere bizi duela ondorioztatuko dugu. Besterik ere jakin genezake, ordea. Adibidez, horren bihotzaren taupadak azkarragoak direla, oinetan hotz dela, kortisol maila goian duela, larruazalaren konduktantzia ere goiti dabilela (aipatu guztiok dimentsio neurobegetatiboari dagozkienak dira), beldur dela (emozioen dimentsioa) eta arrisku itzela bizi duela (Irudimen dimentsioa, edo kognitiboa), hori guzti hori jakin genezake, adibidez.

Iragan mendeko lehenengo urteetako psikologo gailenen arteko aizan zen William Jamesek (1890), gaur egun berezko jokabideaz dakiguna artean ezezaguna zelarik, halako sententzia bat esan zuen, ezustea eta are nahasmena ere eragin zuena. "Negar, ez dugu saminez gaudelako egiten; haatik, negar egiten dugulako gaude saminez", horrelaxe esan zuen. Egia osoa esanda, sententzia hori ez da erabat zuzena, zeren eta kasualitateei egiten die dei. Aipaturiko lau dimentsioen artean ez dago kasualitate-loturarik, ordea, aldiriberekotasuna baino. Nolanahi ere, William Jamesek, oraindik ere indarrean dagoen pentsamenduan, oro har, errakuntza galanta dela eta, errakuntza horrexetaz ohartarazi nahi izan zuen, hona: samina dela negarraren kausa, zio edo zergatia. Egin dugun formulazioan samina (emozio dimentsioa) eta negarra (mugimendu dimentsioa) izate bat eta bakarraren dimentsio bi dira, ez besterik. Gaia bere osotasunean aipatu nahi izatekotan, ordea, beste dimentsio bi ere aipatu beharko ditugu. Dimentsio kognitiboa da lehena, hots, iluntasuna eta bakardadea; dimentsio begetatiboa da bestea, hots, neuronon eta hormonon mailak eta orotariko organo-sistemen funtzionamendua: jangurarik eza, arteria-presioaren beherakada, logalea eta abar luzea.

Berezko jokabideari buruzkoan arestian azaldu duguna beti gogoan izatea da, beraz, haurren munduan haren motore jokabidearen bidez sartu ahal izateko gakoa, ez baita inoiz ahaztu behar berori dela -motore jokabidea- begien behaketa hutsez antzemangarri zaigun dimentsio bakarra.

3.3.1. Mugimendu dimentsioa

Esanda gauden bezalaxe, berezko jokabideko mugimendu dimentsioa osatzen dutenak morfologi jarraibide zehatz eta egonkorak dira, behaketaren bidez

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

antzemangarriak. Morfologia horiek zertan diren, hurrengo ataletan azalduko dugu, mintzagai izango ditugun berezko jokabideei banan-banan eta zehatz-mehatz aipatuz hain zuzen ere.

Gizakiarengan, senari dagozkion zereginetako ia guzti guztiak adimen-ekintzen mende daude. Kultura bakoitzak bere egiten jakin bere berea badu eta, horrexen bidez asebate ohi ditu sen-premiak. Hala bada, giza banakoarengan kultura da -zein kultura bere gaitasun instrumentalak dituelarik, jakina- beste izakien kasuan "eredu finkoko motore katea" denaren ordezkoa. Horrexegatik esan izan da, hain zuzen ere, gizakiaren kasuan, kultura bigarren natura edo izatasuna dela. Eta kultura orok bere ikasbidea, eta kulturak kultura, gizakiaren berezko premiei erantzuten dieten ezagutzak eta teknikak besteei ematea da edozein ikasbidearen zeregin nagusia.

Beraz, errealitateari ekiterakoan beharrezkoa den egiten jakin delakoa, giza banakoari dagokionean, kultura-egituretan taxutu diren jokabide instrumentalen mende utzi delarik, mugimendu katea labur batzuk baino ez ditugu guk berezko jokabidearen mende. Horiei laster ekiten baino lehen esan beren horretan direla beste hiru dimentsioak, alegia, begetatiboa, emozioena eta irudizkoa.

Esandakoak esanda, arestikoa ez da bere horretan betetzen gizakiaren bizialdian hasi eta buka. Bizitzako lehenengo aldietan -Piagetek "sentsu-motor" izena eman zion aldian, hain zuzen- nagusi dira "ekintza eredu edo jarraibide finkoak". Edo horren baliokide dena, delako jokabideak bere bereak dituen edo berari bakoitzari dagozkion motore katea zehatzak. Noski, nolabait esanda abstraktuak diren kontzeptuok adibideak eskatzen dituzte. Hala bada, har ditzagun osagarriren batzuk aipagai ditugun berezko jokabideen multzo bietatik: atxikimenduzko jokabidetik eta parekideekiko jokabidetik.

Atxikimenduzko jokabidea aurkeztean ikusiko dugunarekin bat, irribarrea taxu edo morfologia zehatza duen berezko jokabidea da. Badu agerrera une zehatz zehatza. Bigarren astea aldera, keinu edo zirkin estereotipatu eta, 5. astea arte behintzat, erabat osatu gabeen itxura dutenekin. Behin aste horretara iritsita ahoa mugimendu zabalak eta muskulu orbikularren uzkurdurak datoz, azkenok begi-ertzetan zimurdurak eragiten dituztenak. Horiek guztiak estimulu zehatzek eragindakoak dira. Lehenengoetan giza ahotsaren tonu zorrotza izaten da abiarazlea, eta 5. astearen ostean, berriz, giza aurpegia bera.

Umea gorra eta itsua bada ere, irribarrearen taxu edo morfologia, ordea, ikusmendun edozein umerenaren berbera da: begi zuloak uzkurtzea, aho-ertzak zabaltzea eta eskua aurpegirantz luzatzea. Gorra eta itsua delarik, argi dago haurren keinu horiek guztiak berezkoak direna.

Hala bada, irribarrea, izatez, estimulu jakin batzuei erantzunez sortu ohi den eredu finko baten araberako muskulu-mugimenduen sekuentzia. Haatik, haurrak irribarrea

bestela ere erabil dezake, alegia, berezko jokabidearekin zerikusirik ez duten helburuak erdiesteko. Jarraibide horri urtea bete baino lehen makurtu dakiok, gainera. Beraz, berezko jokabide motore hori helburu jakin batzuetarako erabil daitekeen "tresna" bilakatu da; hots, jokabide instrumental bilakatu da. Horrelakoen aurrean nagusiek haurrak "maltzurkeriak" ikasi dituela, edo "gaiztoa" dela esan ohi dute. Negarrarekin berdintsu gertatzen da. Lehenengoetan, negarra, estimulu jakin batzuk direla eta -ondoeza, laztanen premia, gosea, e.a.- harengan sortzen den erantzuna izaten da. Gero, ostera, bere helburuak erdiesteko bitarteko bilaka daiteke. Jokabidearen perbertsioaren hasierako pausoak dira.

Parekideen arteko jokabidea agertu, lehen urtearen erdia aldera, eta gero urterik urtera garatuz doalarik, haurrak motore mugimendu jakinen jabe da. Eskatzea, opatzea, mehatxu egitea eta erasotzea dira horietako batzuk. Lehenagoko beste jokabideak bezalaxe horiek ere estimulu batzuk dituzte abiarazle, eta beste batzuk geldirazle. Kanpoko nahiz barruko estimuluei erantzunez sortzen diren motore kateak, edo "eredu finkoak", nagusi diren aldian gaude. Bigarren eta hirugarren urtean sartu ahala jokabideok helburu jakinen mende jarri eta, instrumental bilakatu ahal dira. Bestea seduzitzeko edota menderatzeko gogoak aipatu motore ekintzak erabiltzen ditu, helburu jakinen bat erdiestearren erabili ere.

Aipatu berri dugun bereizketak erabateko garrantzia duena da, haztea eta heztea buruzkoan. Askotan umeen jagoleek horien portaeretan asmoak ikusi uste izaten dituzte, portaerok, izan ere, berezko motore mugimenduetan ez diren arren. Portaerok, ordea, kanpoko nahiz barruko estimuluei lotuak dira, ezinbestez. Horiak hezten saiatzea ez du besterik ekartzen haurra lesionatzea eta bilatu izan denaren kontrako lortzea baino. Nolanahi ere, horiei buruz geroago hitz egingo dugu, atal bana eskainiz.

Berezko motore kateok, ume haziarengan zein pertsona nagusiarengan, jokabide instrumentalekin konbinatzen dira, osotasun bakarraren baitan. Jokabideok kulturak emanak nahiz norberak sortuak izan daitezke (Lorenz, 1937).

3.3.2. Dimentsio neurobiologikoa

Berezko jokabideen neurobiologi alderdiaz egin izan diren ikerketek elkarren oso ezberdinak diren emaitzak ekarri dituzte eta, horrez gainera, zatikaturik ageri zaizkigu, oraingoz behintzat. Medikuntzaren arloan duten eragina dela eta, poliki ezagunak dira ihes egiteko edo beldurrezko jokabideari dagozkion fenomeno begetatiboak. Horiexen artekoak ditugu, besteak beste, hormonon eraginpekoak, plazeraren eta minaren guneen arteko erregulazioari dagozkionak eta, era berean, ongizatea eta

ondoezaren ardura duten peptidoetan izaten diren orekak eta desorekak. Hori dela eta, berezko jokabideen neurobiologi alderdiari buruzko gure azalpena, delako alderdi horri buruzko ikerketen egungo egora beraz bezain zatikakoa eta bestelakoa izango da. Nolanahi ere, heziketaren jardunean jarraibide izan litezkeen aurkikunde garrantzizkoak ditugu eskura.

Hasteko, eta atxikimenduzko jokabideari dagokionari ekinez, Alain Schore (1994) ikerlariak egundaino egin duen bildumak erakusten digunez, atxikimenduari buruzkoan segurtasuna edo segurtasun eza eta beldur izateko joera, horiek guztiak, hipotalamoaren eta garun linbikoaren konexio dendritikoan kateaturik edo loturik dira. Honek esan nahi duena, hurrengo atalean ikusiko dugunarekin bat, zera da: umeak amarenganakoan edota lehen lehenengo zein bigarrenengo zaintzaileenganakoan izan ditzakeen esperientzia goiztiarrak neurobiologikoki finkaturik lotuko direla, auskalo atxikimendu seguruan ala ez-seguruan, eta hortxe izango dela beste inorenganako funtsezko konfiantzaren gakoa (Bowlby, 1969).

Atxikimendu armoniatsua den esperientzia liluragarriak, horren goiztiarra den kateatzeren bidez letorkeenak, erabateko garrantzia du zorientasunari eta ongizateari buruzko bideak zabaltzeari dagokionean eta, gogoratu, bide horiek non eta endorfinak sorrarazten dituzten egiturekiko konexioan finkatuak diren prosentze-faloko faszikulu medialean direla. Beste hitz batzuen bidez esanda, garai horretan eraikitzen da umearen -eta gerora izango den- gizakiaren neurobiologi gaitasuna, plazera, atsegina, poza eta ongizatea esperimintatzeari dagokionez bederen. Ildo berean, gizaki jakin bateko sari sistema deritzonaren egituran legokeen edozein eskasiak delako horri plazera, atsegina, poza edota ongizatea bizitzeko eragozpenak eragingo lizkioke (Olds eta Milner, 1954). Aldiz, behin eta berriro errepikaturiko bat bateko aldenteak zein lehen zaintzen ezak eragin ohi duten ez-armonia eta ahultze esperientziek zigor sistema delakoa garatzen lagunduko dute. Delako sistema, aldiz, peribentrikularra eta endorfina jariatzearen ezabatzailea den bidea erabiltzen du.

Droga-zaletasunera joeraren jatorria non dagoen eta, sari eta zigor sistema horien arteko oreka alderantzikatuetan dago. Hala bada, plazera, atsegina, poza eta baikortasuna bizi ahal izatearen aldetik erabatekoak diren aipatu egiturak taxutzeko tenorea lehen lehenengo harremanarenari dagokion aldia da. Lehenaldi horretako harreman asaldatuak adierazi izaten duten negarrek, irribarre eta zezel ezeak, atxikimendu ez-seguruek eta beldurrek haurrari ondorioz ekarriko diotena ongizate eta bozkarioaren aldetiko defizit kronikoa izango da, eta hori berdintzeko kanpoan dituen gaitara joko du, alkohola zein beste gai psike-pizgarrietan bilatuz berez ments duena, hots, ongizatearen desorekak berrerekatzearen bila joz. Drogaren menpeko banakoei buruzko ikerketa guztietan ageri da aipatu berri dugun lotura-harreman asaldatu hori berori.

Bestalde, eta jakin-min eta bilaketa edo esplorazio jokabideaz dagokionean, horren korrelatu neurobiologikoa ez da, oraingoz behintzat, aztergai berezitzat hartu ezein ikerketatan. Hala eta ere, bilaketarako gogo iaitsuak, bizitzako bosgarren hilea aldera lehertu ohi bada ere hurrengo urteetan ere hortxe iraungo duen jakin-minak -ume bihurriak aipatu ohi dira- sari sistema delakoaren -horrek morfina-peptidoetan dituen ondorio guztiekin- eta jarduera operatzaile guztien bideen aktibazio bizi-bizia adierazten dute, jarduera operatzaile horien artean direlarik jarduera dopaminergikoak eta noradrenergikoak. Bada, insomnio gainditzeko erabili ohi diren gaietako batzuek eragina izaten dute jarduera monoaminergikoan eta, beraz, bilaketa-jardueran ere bai.

Beldur-iheserako jokabideak eta sumindura-eraso jokabideak, biek ere neurobiologi ezaugarrietako komun batzuk dituzte eta, Darwinek (1872) berak ikusi bezalaxe, hala gizakiarengan nola animaliarenean baitako gogo-egoera askori loturik ageri dira. Horren arrazoia ez da besterik biak ala biak konfigurazio pizgarri edo estimulatzaile berberak osatuak direla baino; hain zuzen ere, banakoaren osotasunari kalte edota mehatxu egin diezaioketen estimuluek ari gara.

Subjektuak aukeran dituen eraso jokabidea eta beldur-ihes jokabidearen arteko hautua, delako horrek bere indarrak mehatxu zaion objektuarekikoan neurtzeak eragingo dio. Gaia zabalago azalduko dugu sentimenduari buruzko atalean (Bowlby, 1973). Delako banakoak, gizakia nahiz animalia izan, bere burua mehatxu zaion estimuluaren gainetik ikusten badu, eraso jokabidea piztuko zaio. Behetik ikusten badu, ordea, hautatuko den jokabidea beldur-ihes jokabidea izango da.

Alde Neuroendokrinotik begiratu gero, jokabide bietako edozeinetan gora egiten dute defentsarakoak diren giltzurrun gaineko hormonek: kortisolak eta 17OH kortikoideek. Aipatu hormona biak ari dira psikopedagogiaren eremuan aztertzen, 1970. urtea geroztik, umearen estres mailaren adierazle baliagarriak baitira. Zuzenago esanda, aipaturiko hormonek gora eginez gero, umeak mehatxuren bizi duen seinale. Egun, kortisolari buruzko ikerketek aurrea hartu diete 17OH delakoari buruzkoei, laginak hartzea errazago baita haren kasuan bigarrenarenean baino. Listuaren lagina kotoi puskatxo batez harturik nahikoa delarik kortisolaren kasuan, bestearekin ezinbestekoa da gertuaren lagina hartzea.

Bestalde, 17OH delakoari buruzko lehenengo ikerketak 1970. urtea geroztik hasi ziren, orduan Besançongo Unibertsitatean Psikobiologia irakasle ziharduen Montagner ikerlariaren eskutik hasi ere. Haren lanek polito argitu dute zertan diren sortzezko jokabideen korrelatu psikobiologikoak.

Parekideen arteko jokabidea azaltzean ikusiko den bezalaxe, Montagnerrek elkarrekin erlazionatu zituen kume edo umearen etologia-ezaugarriak eta giltzurrun gainekoen erantzuna. Horrela, umeen artean jokabide nagusi bi bereizi zituen, aintzat hartuz haiengan zien jokabide nagusitzen zen: baketsuak eta loturazkoak ala erasokorrak eta suntsitzaileak. Lehenengo kategorian liderrak zirenak zein jokabide baketsuko menderatuak zirenak sartu zituen. Bigarrenean, ordea, menperatzaile erasokorrak, menderatu erasokorrak eta ume isolatuak sailkatu zituen.

Arestian aipatu ditugun ikerketa lan horiek emaitzak konstanteak ziren; jarduera baketsuetan parte hartzen zuten umeek 17OH kortikoidearen jariatze askoz motelagoa izaten zuten erasokorrak izan edo isolaturik bizi ziren umeek baino. Ikerketaren egiaztapenak haragokoak ziren, ordea. Defentsarako hormonon jarria gurasoen portaeraren, batik bat amaren portaeraren, eta hezitzaileen portaeraren aldaketan mende aldatzen zen.

Egun, ordea, kortisolari buruzkoan munta handiko ikerketak ari dira bideratzen, horietan haurren eskola-bizitzako une jakin batzuk eta giltzurrun-gaineko hormonon tasak elkarrekiko duten loturaz hain zuzen ere. Halaxe, Gunnarrek (1992) ikusi ahal izan duenarekin bat, Haur Eskolara datozen umeek etxean geratzen direnek baino kortisolaren maila altuagoa ematen dute. Berdintsu esan daiteke egokitze edo adaptazio aldia delakoaz.

Bestalde, beldurrari eta erasotzeari loturik diren alderdi neurobegetatiboei, hots, herstura eta larridura egoerei dagokienez, klinika psikosomatikoak guztiz ongi ezagutzen ditu nerbio sistema begetatibo edo autonomoak erregulatzen dituen organo-alor guzti guztietan horiek dituzten korrelatoak.

Horiek guztiak ihesa nahiz erasoaren diren ekintza bortitzen musika organismoa den orkestrak bateraturik jotzetik datoz, batuta, nolabait esan, nerbio sistema autonomoak duelarik. Didaktikaren arloa helburu, multzotan sailka genitzake organo-sistemak:

- **Gihar sistema:** giharren tentsioaren adierazpidea denean tentsioa izatea da, hots, nekea, bularreko mina, lepoko mina, buruko mina nahiz labirinto-muskulaturaren eraginezko zorabioak sentitzea. Dardarak ere, eskuetan, edo bestela beste edonon, gorputz guztian, eta hain zuzen ere gorputza atzera eta atzera mugitzea, beldurrezko jokabidea aktibatu izanaren beste adierazpide batzuk dira. Sistema horren barruan dermiseko gihar meheen sarea sartuz gero, horra ileak lasturik den fenomenoak ageri-agerian.
- **Kardio-zirkulazio eta arnasketa sistema:** bihotz dardarak, takikardia delakoa, arnasa behar bezala hartzeko oztupoak eta arteri presioaren igoaldiak. Era berean, sintoma ezagunak dira oinak eta eskuak hotz izatea, aurpegi zurbiltasuna, gorputz tenperaturaren gorabeherak eta itomena.
- **Digestio sistema, edo aparatua.** Jateko gogoahitzea, digestio eteteak, goragaleak eta, kasu larriagoetan, oka egitea eta bihotzerrea, aipatu sintoma

guztiok beldurrezko jokabideak hesteetako goi traktuan duen eraginaren isla dira. Berriz, haizeak eta beheakoak dira jokabide horrek hesteetako behe-traktuan duen eragina.

- **Sistema geniturinarioan**, hortxe dira polaquiuria delakoa, hots, pixa sarriegi egiteko gura -ikasleek azterketen aitzinean hain maiz izaten dutena- eta sexu-grinaren galera.
- **Sistema exokrinoan** hortxe da gorputz osoko izerdia, edo bestela galtzarbeetako, eskuetakoa eta oinetakoa.
- **Loaren** arloko gorabeherak ere beldurrezko jokabidea piztu edo abiarazi izanaren beste adierazgarri bat dira. Loak hartzeko zailtasunak, askotan esnatzea eta amets gaiztoak aipaturiko aktibazio egoera horrexen adierazle dira.

Aurrera eginez, parekideen arteko, gurasoenganako eta sexuarekiko jokabideaz dagokionez neurobiologiaren aldetik ez dago beste daturik arestian beste jokabide horiez -atxikimenduzkoa, beldur-ihesa eta eraso- azaldu ditugunak baino. Ikusirik, hala eta ere, parekideekikoak, gurasoenganakoak eta sexuarekikoak era armoniatsuan betetzeak dakartzan gozamina eta atsegina antzemanik, zuhurtasunez esan daitekeena da horiek horrela izateak endorfinak jariatzen dituen sari sistema delakoa piztu egin dela esan nahi duela. Berdintsu esan daiteke giltzurrun gaineko hormona kortikalen jariatzeaz.

3.3.3. Berezko jokabidearen barne-dimentsioak

Berezko jokabidearen barne-dimentsioak aipatzen ditugularik zeri buruz ari garen eta, kanpotik behatuz antzemanekin izanik norbanakoaren barne-behaketaren bidez beste ezertara antzematerik ez dauzkagun dimentsioez ari gara. Barne-dimentsio horiek emozioek eta irudizkoek osatzen dituzte.

3.3.3.1. *Emozioa eta irudizko errepresentazioa*

Etimologiara joz, emozio hitzaren jatorriak asko esaten digu berezko jokabideen ezaugarriez. Hitz latineko “ex-movere”, alegia, “nondik etorri, nondik ekarri”, horiek bezalakoxe adiera izango luke euskaraz. Norbanakoarengan berezko jokabideren bat abiaraziz gero, jokabidea etorrian dator eta bere buruarentzat amaieraren bat bilatzen du, hots, burutua izatea eskatzen du.

Badira emozio kontzeptuari lotu ohi zaizkion beste hitz batzuk ere, berezko jokabide piztuaren egitate psikobiologikoarekin zerikusia dutenak hain zuzen.

Halaxe, Freudek (1905), eta haren ostean psikoanaliaren literaturak oro har, pultsio edo bulkada hitza erabili dute. Horren esanahia: bultza egin, akuilatu.

Bada, berezko bulkaderek bultza egiten diote horiek bere baitan bizi dituenari, buka ditzan. Bultza, eta buka!, horrelakoxe zerbait aldarrikatzen dutela esan daiteke.

Antzeko da inpultso hitzaren esangura, 'in' horrek berezko jokabide abiarazi edo aktibatuaeren "ad quem" terminoari begiratzen badio ere.

Berriz, afektu hitzak jatorrian latineko "ad facere", "nora bidera egin", horixe du, eta, beraz, "ad quem" terminoa dakar gogora. Emozioa bezala, motibazioa "mugitu" aditzetik eratorria denez gero, jokabide instrumentalak mugiarazten dituen berezko jokabidearen motore alderdia nabarmenarazten digu.

Antzeko hitza da pasioa-grina-, gehien bat literatura moralean erabili izan dena bera. Hitza, subjektuak emozioarekiko, bulkadarekiko duen jarreraren alderdi pasiboaz mintzo da. Subjektua, bere emozio egoerekikoan, ez da ekintzaile edo aktiboa, baizik eta egoerok "pariatu edo jasan" behar dituena. Jasan eta pairatu aditzek "min" hitzaren oihartzuna dakarte. Bestela, frantsesez badute "subir" aditza, minaren oihartzun hori gabekoa, ez baitu besterik adierazten subjektuak beroni gainera datorkion zerbaitekiko bizi duen egoera pasiboa. Bada, psikologiaren arloko nozio horiek ondo begiratzea garrantzikoa dateke euskarazko hitz berriak sortzeari dagokionez. Horrelaxe, maitemina edo bihozmina bezalakoak ditugu euskaraz, emozioei buruzkoan min hori zein aberats gertatzen den adibide bi baino ez aipatzearren.

Labur, berezko jokabideetako bakoitzak, dimentsio motore eta neurobiologikoaz gainera, baditu bere barne dimentsioak, emozioetan eta irudizkoetan gauzatuak.

a. Atxikimendu jokabidea. Atxikimendu jokabidearen emozio-alderdia adierazteko gure gorputzari lotuak diren bihotza eta laztana bezalako hitzak erabili izaten dira eta, bestela ere argi dago gizakion erraiekiko edota odolarekiko erreferentzia egiten dugula askotan emozioak adierazteko. Atxikimenduzko jokabidea jokoan den egoera askotan, beraz, bihotza, erraiak, odola eta horrelakoak erabili izaten ditugu. Poza eta alaitasuna, edo bozkarioa ere, loturazko harreman armoniatsuei buruzko hitzak dira. Aldiz, harremanak hautsi edo etendakoan emozioak amorrua, sumindura eta samina izaten dira.

Jokabide honi lotu ohi zaizkion irudiak argia, beroa eta kolorea dira, besteak beste. Eguberri jaietan, esaterako, gure mundua argiz eta irudiz bete izaten dugu, horietatik direlako lotura-harremanen egunak. Aldiz, harreman haustu edo etenaren ondoko eszenatokia ilun eta hotz ageri ohi zaigu.

b. Esplorazio jokabidea. 5. hilea aldera agertu ohi dena, jakin-mina du emozio-dimentsio nagusi, eta horren irudizko agerbidea interesa da. "Hori bai

interesgarria" esaten dugularik, delako horrekiko jakingura piztu zaigula eta arakatzeko jokabidea abiarazi zaigula esan nahi da, maila kognitiboan bederen. Asperturik egotea, berriz, delako jokabide hori aktibatu ez izanaren seinalea da, eta "ez du batere interesik" dateke horren adierazpide kognitiboa.

c. Beldurra da zerbaiti ihes egin edota hura saihesteko gogoari loturik ageri zaigun emozioa. Eta beldurra eragin duen objektua irudiz eman behar izanez gero, izugarri arriskutsua eta horrelakoak erabili izaten ditugu. Eta beti betikoak esaten ohi ditugula eta, betidanik esan izan dena da beldurrak berak dituela zera mehatxagarriak benetan direna baino handiagoak bilakarazten. Egunoroko hizkera erabiliz pentsaera negatiboa deritzonak, alegia, den-denetan arazoak eta eragozpenak ikusi ohi dituenarenak, delako banako horrenagan beldurrezko jokabidea piztu izanaren adierazletzat jo dezakegu. Jokabide honi eskainiko diogun atalean ikusiko duguna aurreratuz, badira beldurra beti bizturik edo aktibatuturik bizi diren gizakiak. Pertsona ezkorrak, horiexek.

d. Oldartze edo eraso jokabidea. Berezko jokabidearen neorobiologi-dimentsioak azaltzeko zereginari eman diogun atalean esanda utzi dugun bezalaxe, estimulu bat eta bera da, bakarra beraz, hala ihes-beldur jokabidea abiarazten duena nola oldartze edo eraso-jokabidea pizten duena. Subjektuak objektu mehatxagarri edo kaltegarriarekikoan bere gaitasunen zein ebaluazioa egiten duen, jokabideotako batera edo bestera joko du. Eraso jokabidearen emozio-dimentsioa sumina da, edo bestela haserrea. Irudizko, esan dezagun, irudikapena gaitzespena da. Hiztegian erdeinua adierazteko ditugun ergel, tentel, mengel eta abar luzea dira gaitzespen horren lekukoak.

Berriro ere eraso/sumindura jokabidea abiarazten duen pizgarri edo estimuluaren gaiari oratuz, eta ebaluazioari eta sentimenduari eskainiko zaien atalean esanda dena aurreratuz, estimulu bat eta bakarra den halako batek ebaluazio bi izan ditzake, horri banakoak interesgarri nahiz mehatxagarri edo kaltegarri iritzi diezaiokenez gero, aintzat delako banakoaren aurretiko historia eta une jakin bakoitzeko emozio-egoera. Honek fobieki ekiteko era edo moduetan du garrantzia, inon garrantzirik duenez. Beldurgarri izan zaigun zerbait, hara non, interesgarri bihurtu daiteke eta, horrelako kasuetan, delako zerbait horrexek berorrek, iheserako edota erasorako jokabidea eragin beharrean, jakin-mina eta arakatzeko gogoia piztu dezake.

e. Parekoen arteko kidesun-jokabide armoniatsuaeren emozio-ordainekoa adiskidesuna da, eta horren berorren irudizko ordainekoa sortzean maitagarri eta atsegingarri zaizkigun ezaugarriak esleitzen dizkiogu. Hala bada, atxikimenduzko jokabidetako emozio zein irudizko alderdiez esan den guzti guztia, kidesun-jokabideei buruzkoan ere berdintsu esan daiteke.

f. **Sexu-jokabidea** aipatuz, esan, bada, horren osotasunean badirela lotura-jokabide lehen-lehenari dagozkion osagarriak eta badirela sexu-erakarmenari beste ezeri ez dagozkienak ere. Maitemina dugu jokabide honen emozio-osagarria. Maiteminduak ore berean nahasten ditu atxikimenduzko jokabide lehen-lehenaren ezaugarri idealizatuak eta izatez edo berez sexuarenak diren ezaugarriak. Maiteminduen eszenatoki idealizatuek alaitasuna iradokitzen dute, udaberriari loturiko irudiez osatua dira, argitsuak eta bizi-pozez beteak amesten ditugu horiek. Gure kulturari, ordea, sexu-jokabidea, heziketaz eta lanketa bereziz jorratu beharreko alortzat jotzen da. Hots, naturaltasun gabekoa. Hitz batean, tabua da, gainean tabuaren marka duen jokabidea da. Ondorioz edo, norbanakoaren edota parekideen taldearen baitako esperientzia izatera mugatu ohi dugu. Inoiz ez da, inondik ere, gurasoek edota haurtzainek edo hezitzaileek beren begirada liluratuaz argiturik agerrarazten dieten jokabidea. Azken batean, gurasoenganako jokabidearen emozio-osagarriak behintzat, samurtasuna eta babesa dira. Horren irudizko itxuraketan hortxe ageri zaigu izakitxo hori, samurtasuna, babesa eta laguntza behar dituen, ezer behar duenez.

3.3.4. Barne dimentsioen adierazpena eta komunikazioa. Hitza.

Espezie jakin bateko banakoaren kanpo-dimentsioak, horiek, delako banako horrek espezie kide dituenek antzeman ahal dituzte, organoei esker antzeman ere. Animalietan, espezie jakin batekoek espezie horretako kidearen emozio-egoera zehatz batzuk zertan diren antzematea ahalbidetzen dioten joera genetikoak ditu, bere bereak. Animalia espezieen talde-bizitza gaitasun horrexetan euskarritua da (Lorenz, 1937). Guri dagokigunez ere, askotan antzemangarri zaigu harako lagun haren aurpegiko keinuaren esanahia, ia deusez den keinurik arinena izanik ere.

Animalien arteko beste edozein espezie bezalaxe, gureak ere halako hautemate- aparailu zorrotza du garaturik non gai garen beste inoren aurpegietan ageri diren keinu adierazgarri ñimiño eta ia ez deus horiek antzemateko, horren bidez delako beste horren emozio-egoeraz berehala jabetzeko eta, azkenik, emozio-erantzun egokia sortzeko, azken hori gogoia edo borondatea horretara jarri gabe, era inkontzientean. Fenomeno honi sinpatia deritzo (Grezieratik, non "phatos" norberak zerbait bizi izatea -esperimentatzea- eta sin, ordea, aldiberekotasuna adierazten duen hizkia den). Horra ba zer dela eta giro alaiak alaitu, ilunek ilundu eta tentsiokoek sumindu egiten gaituzten. Animalien erreinuko beste espezie guztietan ere berdintsu gertatzen da, agian askoz ere era biziagoan erreinu horretako eskala gizakiak baino beherago diren espezieetan gizakiarengan berarengan baino.

Banakoaren barne-dimentsioak -emozioen dimentsioa, eta irudizkoa-, horiek, ezin ditu jokabidearen subjektua den delako banakoak berak beste inork antzeman.

Atxikimenduzko jokabidean dautzan argitasun, berotasun eta kolore irudiak, adibidez, nork eta jokabide hori bizi izaten ari den subjektuak antzematen ditu, bizipenoi errailetan atxiki ohi zaien samurtasunarekin batera.

Bada, hitza da, zer bestela, harako norbanako haren barne-dimentsioak horko beste horri eskuragarri bilakarazten dizkionak. Hitza, horra beste inorekin zubi lanerako ia-ia ezinbesteko tresna, emozioen eta irudien garraiolari trebea dena. Gizakiok beste ezeinek ez duen gaitasuna, gure geurea den atributua. Etologoen ustea (Lorenz, 1954), litekeena da giza espeziearen baitan jokabideari buruzko seinale jakin batzuk igortzeko eta hartzeko gaitasuna murriztu izana, horrela hitzaren nagusigoaren alde eginez. Gure zakurrei askotan esaten zaina horixe da: hitz egiten jakin, gehiago besterik ez lukete beharko. Horiek gure gogo-egoerak eta asmoak igartzeko erakutsi ohi duten gaitasuna hain baita handia.

Gizakiari hitza ezinbesteko zaio, bestela ez baitu bere baitakoaren barri ematen, ez daki bere jokabide-egoera adierazten, hots, bere emozioak eta irudiak zertan diren jakinarazten. Arestian aipatu bezala seinaleak igortzeko eta hartzeko gaitasuna murriztu egin zaigula eta horiek, hitza ez diren seinaleak, ez dira aski. Gizakiarengan keinua askotan izaten da engainua. Hor dugun beste horri gure hitzak zertzen dio gure egoera. Hitza mintzo zaio, keinua baino ulergarriago.

Haatik, hitza oskol huts da baldin eta barruan berezko jokabiderik -keinuzkorik, biologikorik, emoziozkorik edota irudizkorik- ez badakar. Hitzik gabeko keinua engainagarri eta iluna izaten da. Hitz esanguraz betea, gorputzaren adierazpidea den hitza, irudimenari eta zentzumenei dei egiten dien hitza, hitz sorgindua. Norberaren berezko jokabidearen barrunbeetan diren mehetasunak besteari adierazteko eta ulertarazteko gai den hitza, hitz umotua. Maiteminduek elkarri egiten diote hitz, eta hitz eginez sentitzen dutena xehe-xehe adierazi nahi dute, zoriontsu. Hitza landu duten horiek guztiak mintzo zaizkigu eta, hitza landurik dutelarik mintzo zaizkigulako dira beren baitako meheena ere adierazteko gai.


Elkarri hitzez zuzendu, elkarri hitza txandaka eman eta elkarren hitzak aditu, hortixe dator, hain zuzen ere, elkarrizketa delako egitate zoragarria. Eta elkarrizketak elkarrizketa, zoragarriarekin lantzean-lantzean norberaren buruarekin izaten den elkarrizketa horixe dugu, ziurrenik. Norberaren artean jardun, hitzez, gero biren edo gehiagoren artean jardun ahal izateko, horra lehenengo urratsa. Era berean, adinekoak haurrarekin egiten duen hitza funtsezkoa da, delako haur horrek bere buruarekin hitz egiten ikas dezan. Eta haurren ikasbidean hezitzaileak duen ardura gogoan, horrek ere badu bere hitza, eta erabiltzen jakin behar du, ezinbestez.

Gure eskoletan hitza landu behar dugu, ezer landu behar dugunez. Hala inguruko munduarekikoan ditugun jokabideak eta harremanak adierazteko balio duen hitza, nola norberaren barne-munduko egoerak azalarazteko ezinbesteko den hitza. Literaturak, nahiz dela olerkiz, nahiz dela prosaz edo antzerkiz, hitzaren

aberastea dakarkio gizakiaren baitakoari. Nor bere egoeran eta bere apalean guk denok, guzti guztiok, literaturagile izan beharra daukagu, eta gure haurrak eurak ere literaturagile izan daitezela lan egin behar dugu. Hitza baitu giza abereak abere huts izatetik askatzen duena, horrexerri esker baitaki barnean bizi duenaren berri kanpoan duen munduari jakinarazten. Mundua bera aldarazteko lehen urratsa dena, bai. Entzumen urritasuna duten pertsonen kasuan hitza zeinua izango da.

>> 4. BEREZKOA ETA IKASITAKOA UZTARTUZ: JOKABIDE ZIRKUITUA

Orain artekoan, ikasitako jokabideen eta berezko jokabideen nondik norakoak ikusi ditugu, zein bere aldetik. Haratago joan nahi dugu, ordea. Hala bada, hurrengo orrialdeetan jokabide eremu biak elkarrekin uztartuko ditugularik, azken atal honen helburua bategite horrexen azalpena izango da, gure ustez hori, eskola mailan behintzat, giltzarria baita haurren portaera ulertzerakoan. Eta behin portaera ulertuta, horrek esku hartzea askoz ere aproposagoa egiteko aukera emango digu, noski.



Hasteko eta behin, gizakiaren eta, oro har, animalien jardunbidearen prozesu zirkularra zertan den argitzeko egokia izan daitekeen ideograma eskaini nahi dugu. Errealitatera hurbiltzeko behin-behineko tresnatzat hartu beharreko eskema da 1. irudi horretakoa, ez baita erraza gizakiaren zein animalien jokabideen konplexutasuna irudi bakar baten bidez ematea.

Ideogramaren osogarriak banan-banan azaltzeari ekin aurretik, ordea, esan "jokabide zirkuitua" izenaz aipatuko dugula delako ideograma aurrerantzean. Esan, baita ere, zirkuitu kontzeptuak gizakien eta animalien jardunen mugimendu zirkularra islatu nahi lukeela.

Zirkuluek errealitatea (objektua) eta subjektua (norbera), bi-biak irudikatzen dituzte. Gezi gorriek batetik besterako jarioak irudikatzen dituzte, estimulu-erantzuna eskema klasikoaren arabera irudikatu ere. Goiko gezi gorriak jario pizgarria irudikatzen du, behekoak estimuluaren erantzuna den jarioa irudikatzen duelarik. Objektuaren obaloaren barruan ageri den laukian irudikatzen dena, ordea, estimuluaren mundua da, mundu hori konfigurazio pizgarri naturalen eta baldintzatuena (E1 eta E2) izanik. Subjektuari dagokion obaloaren barruan irudikatzen daudenak, aldiz, jokabidearen aktibazio-denbora ezberdinak eta erantzuna osatzen duten ekintza instrumentalak abiaraztea dira.

4.1. Berezko jokabidearen aktibazioa: Objektuaren aldetik datozen estimuluak eta Subjektuarengandik datozenak

Orain arteko azalpenetan nabarmendu duguna laburtuz, estimulua edo pizgarria da, izatez, berezko edozein jokabide abiarazten duen elementua. Aurrera egin baino lehen, ordea, estimulu hitza guzti honen ulermena errazte aldera erabiltzen dugula argi utzi behar dugu. Izan ere, estimulua, berezko jokabidea abiarazten duen konfigurazioa da, konfigurazio hori elementu anitzek beren "gestalt" delakoan taxutzen dutelarik. Bada, esateko modurik egokiena estimulu konfigurazioa litzatekeen arren, estimulu hitza erabiliko dugu, gure jarduna errazte aldera eta horrelaxe aipatu izan delako psikologiaren literaturan.

Berezko jokabideak kanpotik nahiz barrutik abiarazten dira. Hala bada, halako edozein abiarazten duten ingurumeneko eragilei "kanpo estimulu" iritziko diegu eta, era berean, "barne estimulu" iritziko diegu hura abiarazten duten baldintza organikoak. Ildo horretan baina beste modu batez esanda, barne estimuluei estimulu "endogeno" eta kanpokoei "exogeno" irizten zaie. Bestalde, irudimenezko errepresentazioak barne estimuluaren multzoan sartuko ditugu. Horrela, barne estimuluaren multzoan sartzen ditugu, hurrenez hurren, nerbio sistemaren egoeren multzo osoa, sistema endokrinoaren egoerak eta organismoaren beste edozein egoera, baldin eta balizko horrek berezko jokabideren bat abiarazten badu.

Berezko jokabide bakoitzaren azterketa egitean barne zein kanpoko eragile abiarazleak -baita ere eragile amaitzaila edo azkentzaileak- zertan diren azalduko dugu. Hasteko, bada, esan konfigurazio estimulagarri bakoitza aldagarri edo item pizgarri zenbaitek osatzen dutela. Horrela, konfigurazio estimulagarri jakin bat zenbat eta item pizgarri gehiagoz osatua izan orduan eta estimulazio indar handiagoa izango du delako konfigurazio horrek.

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

Berezko jokabidearen abiarazle diren estimulu berberak izaten dira delako jokabide horren estimulu amaitzaileak ere, beldur eta ihes jokabideetan izan ezik. Nolanahi ere, estimulu abiarazle edo pizgarrien amaitzaile dimentsioa, burutzeari buruzko azpiatalean azalduko dugu, atal honexen amaieran hain zuzen. Ulermena errazte aldera, 1. irudian estimulu abiarazleen leku berean jarri ditugu estimulu amaitzaileak ere. Esan gabe doa estimulu amaitzaileak ere kanpoko nahiz barneko estimuluak izan daitezkeela.

Arestian azaldu dugun bezala, Pauloven terminologian (1928) estimulu naturalari "baldintzatu gabeko estimulua" edo "estimulu baldintzatu gabea" deritzo. Estimulu naturalarekin batera edo aldi berean berezko jokabidekoa ez den beste edozein estimulu "estimulu neutroa", paradigma honetan- agertuz gero bigarren horrek estimulu natural edo baldintzatu gabearen propietateak bereganatzen ditu. Estimulu neutroari, aldiz, "estimulu baldintzatua" deritzogu, baldin eta estimulu neutro horrek estimulu baldintzatu gabearen propietateak bereganatu baditu. Horiexek dira 1. irudian E1 eta E2 ikurren bidez adierazirik ageri direnak.

Estimuluak giltzarena egiten du, organo edo "ate" egokiaren ateko sarraian eraginez gero berezko jokabide egokiari atea zabaltzen baitio. Izan ere, barne zein kanpoko estimuluek, berezko jokabideek eta harrera organoek batera garatu dira guzti guztiak, hautapen-presio berberaren eraginpean, esan nahi da.

Berezko jokabide-zirkuituari begira eredu bi taxutu dira; lehena Lorenzena da, eta bigarrena Hinderena, Bowlbyk ere erabilia. Lehenari hidrodinamiko iritzi ahal zaio, bigarrenari zibernetiko iritzi ahal zaion era berean. Paradigma bi horiek zertan diren, estimulu kontzeptuaz hitz egingo den atalean azalduko ditugu zehatzago.

4.1.1. Jardun endogenoa, edo barnekoa

Lehenago ere azaldu dugun legez, berezko jokabidea, erreflexuzko jokabidea ez bezala, barnetik edo barrutik ere abiarazi ahal da. Adibidez, logura, mina, gaixotasuna edota ezbeharrak, atxikimendu jokabidea abiarazten duten egoerak dira.

Behin berezko jokabidea abiarazia izan delarik, subjektuak -gizakia izan nahiz animalia izan- delako jokabidea amaitzea, azkentzea edo burutzea ahalbidetuko dioten kanpo estimuluak bilatzeari ekiten dio. Une horretan, behar-beharrezko duen estimulu konfigurazio hori antzemango duen lilurak bizi du subjektua. Hala bada, umeak eta nerabeak ingurune aberastetan lekutu beharko ditugu, hots, objektu naturalez zein kulturakoez ondo hornituetan, instintuen garapen osasuntsua bermatuko bazaie bederen, zeren eta aberastasun horrek berezko jokabideak pizteko balio izango baitu, batetik, eta haurrei jokabideok amaitzeko edo azkentzeko gaitasuna ere emango baitie, bestetik. Noski, horrelako ingurumenek nagusiren bat bertan egotea eskatzen dute, umeak edo nerabeak jokabide instrumentalen helburua erdiesterik ez duenean zeregin horretan laguntzeko prest egon ere.

Berezko jokabideren bat -eraso jokabidea, eman dezagun- aktibatua delarik - berdin dio barne nahiz kanpo estimuluen bidez izan-, animalia "zeraren umorean" sartua da. Erasorako umorean sartua den animalia erasora jotzea eta erasoaldia azkeneraino eramatea edota amaitzea ahalbidetuko dion objektu edo objektu-elementu oro -estimulu oro- bilatzeari ekingo dio. Umore horretan den giza subjektuari dagokionez, horrek, arrunki, ezkortasunez begiratzen die gauzei. Edo pentsa, beste adibide bat ematearren, beldur umorea bizi duen subjektuarengan; horrek den-denean mehatxuak eta oztopoak ikusiko ditu, ez besterik. Pertzepzioa subjektuaren jokabide egoerarekiko independentea den ekintza dugu. Bada, berezko jokabide aktibatuaren emozio-dimentsioa da umorea.

Diogunaren harira, "hutseko erreakzioa" (Lorenz, 1937) berezko jokabidearen barne aktibazioaren adierazpide edo zeinutzat jo behar da. Halaxe, horko katu horrek predazio edo harrapari jokabidean jardun gabe denboratxo egin baldi badu, ohi baino beheraxeago izango du "estimulazio atalasea", aktibazio endogenoaren eraginez hain zuzen. Horrekin batera "espezifikotasuna" bera ere aldaturik izango du: bere bizarren aurre-aurrean mugitzen ari den pilotak harrapari jokabidea abiaraziko dio eta hortxe ekingo dio ehiza-sekuentzia garatzeari; aldiz, sequentzia hori berori biologikoki egokia den objektuarekin burutu berri baldin badu, lekutan da pilota katuarentzat. Atalasearen maila zerora jaisten baldin bada, ordea, animaliak objektua hor egon gabe ere ekintza katea osoko jarduerak burutzen ditu: zelatzea, ehizari dagozkion maniobrak egitea eta guztiaren amaiera edo azkenera iristea.

Gizakion arlora etorritz, jardun onirikoa diren "ametsak" funtzio hori berori dute. Egunezko bizimoduan burutzerik ukan ez ditugun berezko jokabideak ametsen bidez burutzen dira, nolabait esan. Loaren paradoxa-faseko ametsak maitasun eta guda, beldur eta borroka, xarma eta txerazko pasartez osatuak izaten dira, egunaren barruan subjektuak burutzerik ukan ez dituen beste hainbat jokabide ahaztu gabe, noski. Horixe baita jardun onirikoaren funtzio homeostatikoa edo orekazkoa.

Azken hori hezitzaileek ezagutzen dute ondo, inork ezagutzekotan. Hezitzaile adituek badakite, jakin, umeek berezko jokabide jakinen bat erabiltzeko aukerarik gabe halako denbora tarte bat emanez gero guztiz komenigarria izaten dela jokabide horretan jardutea eta, ondorioz, horretarako bidea bilatu behar zaiela. Atsedendialdiak horretarako ere badira eta, gela barruan garatzerik izan ez dituzten jokabideak horretarako ere badiren tarteotan gara ditzatela bilatu behar dugu, guztion mesederako izango da eta. Jokabideok garatzeko premia adinaren arabera ere bada eta, txikiagoengan larriagoa eta handiagoengan arinagoa izaten da premia hori.

4.1.2. Estimulazioa

Lehenago ere nabarmendu izan dugun bezalaxe, estimulazioa zer ote den eta, estimulu jakin batek berezko jokabide egokia abiaraztearen prozesua da. Behin

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

berezko jokabidea abiatu edo aktibaturik, delako jokabideak bere amaierara iristea bilatzen du, bere burua estimulu amaitzailean hustea alegia; amaitzaile hori, gehienetan, estimulu abiarazle berbera izaten da. Aipatu dugun husteari "ekintza amaitzaile" deritzo.

Estimulazioa aldagarri biren menpe ibili ohi da. Batetik, hortxe da estimuluaren "aktibazio gaitasuna" delakoa; bestetik, organismoak, animaliak edo dena delako subjektuak duen "jokabide-aktibazioa" dago, bere egoera aldagarriekin. Eguneroko hizkera esaten den moduan, gertaera edo estimulu jakin bat "ontziari gainez egin arazi dion tanta" izan liteke. Kasu honetan estimulaziorako gaitasun txikia duen baina instintu-erreakzio bortitza aska dezakeen zerbaiti buruz hitz egiten ari gara.

Animalia zerbaiten umorean dagoenean ezer gutxi behar izaten da, zinez, berezko gertaeren sekuentzia aska dakion, ondoren sekuentzia hori behar den moduan gara dadin eta, azkenean, amaitu behar den moduan amai dadin. Horrelakoetan "askatze atalasea" behe-behean dagoela esaten da (Lorenz, 1937). Bada, berezko jokabide jakin hori zenbat eta aktibatuago edo eszituatuago, orduan eta beherago horren askatze atalasea eta, ondorioz, orduan eta estimulazio indar ahulagoa behar izango da delako jokabidea abiarazteko.

Fenomenoa irudikatzeko hona hemen nolabaiteko formula:

$$AA = \frac{\text{Berezko jokabidearen aktibazio maila}}{1}$$

Formulan ageri den AA hori, esan gabe doa, askatze atalaseari dagokio.

Bestalde, zeingura jokabide abiarazteko kasurik kasu behar izaten den estimuluaren espezifikotasuna estimulazio atalaseari loturik dator (Lorenz, 1937). Berezko edozein jokabideren eszitzazio egoera zein den, halakoxea haren askatze atalasea. Eszituatuago eta beherago atalasea, aktibatua -edo askatua- izateko behar duen espezifikotasuna ere txikiagoa izango da.

$$\text{Estimulazioaren espezifikotasuna} = \frac{1}{\text{Jokabidearen aktibazio maila}}$$

Gose garelarik edozein jakiri -ogi gogorrari berari- bikain irizten diogu. Era berean, gizakiak beldur jokabidea oso aktibaturik duelarik -beldur umorean oso sartua denean- edozein huskeriak eragin dezake izu erreakzioren bat. Aitzitik, organismo jakin batek berezko jokabidea motel aktibaturik duelarik askatze atalasea oso goian

izaten da eta, hortaz, estimulu indartsua eta espezifikoa beharko da jokabide hau abiaraziko baldin bada.

Askatze atalasea (AA) eta berezko jokabidea aktibatze behar den estimuluaren espezifikotasuna berezko jokabidearen aktibazio mailarekiko alderantzizko proportzioan dira.

Hau guzti hau eskola ingurumenean garrantzi handikoa da, zeren eta haurren emozio egoera lasaitzen laguntzeko gai izango baikara esandako hau ondo gogoan izanez gero, batik bat hura gela sartu berritan eraso zein itomen egoeran baldin badabil. Bestela, edozein estimulu txikik haurrak erasora jotzea eragin lezake. Beraz, koltxoiarena egitea, berriro diogu, hezitzailearen funtzio nagusietakoa da. Hortaz, inork "zer egin eraso umorean datorren umearekin?" galdera luzatuz gero erantzuna beti bat eta bera izan behar da: eraso moteldu. Eraso moteldu, bai, giza ezkutuarena eginez, goiz edo berandu eraso jokabidea bere amaierara eramango duen bidetik janaraziz erasokortasuna. Jokabide horri zigorra ematea edo besterik gabe zentsura ezartzeak ez dakar delako jokabidearen indartzea, lehenik, eta eragozteko baina, eta gero gainera umeak bere buruarekiko sortuko duen irudia gaizto irudia izango da. Hara bada zer dela eta den hain beharrezkoa zaintzailea bera ere zaintzea. Zaindu, bai, umearen erasoaldia lepoan hartzeko eta beste erasoren baten bidez, fisiko zein moral, erantzun beharrean aurrera egiteko kemena eta indarra ukan ditzan. Hala adierazten dugu 2. kapituluan, sinkroniaren gaia jorratzen dugunean.

Berezko jokabidea, nahiz dela kanpo estimuluaren eraginez nahiz dela barnekoen eraginez, aktibatuz delarik, berezko jokabidearen lau dimentsioak ere beren ekinean sartuak dira.

Norberaren baitan izaten diren gertaerak antzematen ikasi ez duten gizaki askoren artean arrunta da subjektuari arrotza izatea bere izatean bizi duen instintuzko jokabidearen aurpegia. Bere baitan jokabidea aktibatuz duen arren ez du antzeman ahal haren irudimenezko osagarria, ezta ere haren emozio osagarria. Gaizki sentitzen da, ondoezik, eta ez daki zeren eraginez den. Aztoraturik edo bestela urduri dagoela, horixe da bere buruaz esan dezakeen ia bakarra, gorputzeko zein funtzio duen nahasirik aipatzeaz gainera. Horrelakoetan pertsona helduak mediku enera jotzen du eta horrexen lana izango da gero gaixoaren urduritasun edota organo-nahasmendu orokor hori berezko zein jokabideri dagokion argitzea.

Hezkuntzaren zereginetako bat umeari beronen emozioak ezagutzen laguntzea da, baita ere emozioei lotuak diren irudimenezko osagarriak ezagutaraztea. Sentimenei nondik norakoan ezagutza horretan umeari bere buruaren introspektioan hazten laguntzea garrantzizkoa da, garrantzizkoa denez. Sentimenei ezagutza horretan narrazio edo kontarek, eta horiei buruzko geroko aipamenek eta solasek, zeregin handia betetzen dute. Berdintsu esan liteke aurpegiak eta irudiak direla eta. Aitzitik, elkarriketa da garrantzizkoena. Nagusien arteko elkarriketa, elkarren sentimenei

ezagut ditzaten, eta hurrekiko elkarrizketa. Umeari, bere baitan abiarazia den jokabide jakin baten mugimendu dimentsioa antzematen ari delarik, "zer sentitzen duzu?" galde egin behar dio hezitzaileak. Eta umea bere sentimendua identifikatzera iritsi baldin bada hezitzaileak emozio hori zein "eszenatokik" eragin dion galde liezaioke. Horretara eginez, hezitzaileak, haurrari hor barruan gertatzen ari zaiona ezagutzara bideratuko du hura. Prozedura hauek guztiek funtzio erreflexibo iritzi izan zaiona sustatzen dute (Fonagy eta lag., 1995). Elkarrizketak erabateko garrantzia dauka gizakien arteko elkar ulermenari buruzkoan ez ezik irudimenezko unibertsoak denok bat eginez eraikitzearen aldetik ere.

4.2. Bizitarako helburuak eta utopiak eraihiz: instintuen arkitektura, Pauloven baldintzapena, irudimenez sortuak eta idealizazioa

Estimulu naturalak gizaki orori dagozkionak badira ere, haur eta gizaki bakoitzari dagozkio irudimenezko eszenatokietako estimuluak, horiek espezifikoak baitira. Hain zuzen ere, gizabanako bakoitza bakar eta berezi egiten duten osagarrien artekoak dira horiek. Beldurrik gabe esan daiteke, hala bada, irudimenezko eszenatokiak direla gizakiaren identitatea taxutzen dutenak. Horien artean dira idealak, mundu amestuak, nagusitan umeak zer nahi duen izan, egin gura izango lituzkeen balentriak eta beste.

Ametsetako eszenatokiak eraikitzea den zereginak, ordea, hezkuntzaren aldetiko laguntza eskatzen du. Umeentzako ipuinak eta horiek esan osteko kontakizunak, bizipenetan aberatsak diren pertsonak dituen ingurumenak, hitz batean esanda kulturak, garrantzizkoa den funtzioa betetzen du, alegia, umearenak diren berezko jokabideetako estimuluetan abiatu harago joatea, estimulu horien gaitasuna biderkatzen duten irudimenezko beste estimulu batzuetara iristeko. Berezko emozioaren lanketa eta aipatu eszenatokien bilaketa, bizitza aberatsa duten pertsonen asmoen sorburuan dira. Hain zuzen ere, irudimenezko eszenatoki horiek atontzean datza "bokazioa" deritzogun horrexen gakoak.

Eszenatokiok "berezko jokabideen arkitektura" delakoan abiatu eraikitzen dira. Bada, arkitektura horren zutarrak bizitzako lehen-lehen urteetan ezarri ohi dira, gerora zutarrak adimenaren sormenez eta estimulu baldintzatuez aberastuko badira ere. Hala bada, azter dezagun hiru arloetako bakoitza bere aldetik.

4.2.1. Berezko jokabideen arkitektura

Orain arteko laburbilduz, hona hemen berezko jokabideen arkitektura zertan den ulertzeko garrantzizkoak diren hastapenetako batzuk:

- Hastapenetako bat "lantzea" da, edo lanketa. Konduktismoaren irakurketa axalekoenak pentsaraz lezaketenaren aurka, berezko jokabideak ez dira heziketat manipularriak. Berezko jokabideekin lan egin daiteke, baina ez dira manipularriak (Psikologia Konduktistaren ildoan, sarien eta zigorren bidez,

esaterako), moldagarriak dira. Landareen haztearen kasuan legez. Zeinek bere hazkunde legeak ditu, bere bereak. Lagundu egin ahal diegu, noski, lanketa egokiaren bidez lagundu ere. Edo desitxuratu egin ahal ditugu, baita inhibitu ere, zabarkeriaren zein zentsuraren bidez. Sekula lortuko ez duguna, ordea, landara jakin bat beste bat bihurtzea izango da. Hala bada, hezitzailearen ikuspegitik erabateko garrantzia du berezko jokabideak eta jokabide instrumentalak bereizten jakiteak. Jokabide instrumentalak moldagarriak dira, berezkoak osteraz ez.

Haurraren bizitzako lehen sei urteak berezko jokabideak lantzeko arorik egokiena dira. Inguruan ez badu behar bezalako girorik, aditasunik, estimulu eta erantzun egokirik topatzen, azpigaraturik edo, berehala ikusiko dugun bezala, perbertsio batekin haziko da. Jokabide jakin bati bere sortze beretik inguruak erantzun egokia emanez gero, berezko jokabideak harmoniatsu eraikitzeo aukera egon liteke eta, ondorioz, pertsonaren nortasunari euskarri osasungarriak ezartzeko ere bai.

- Hil ala biziko garrantzia duen beste hastapen nagusi bat zigorrari eta errepresioari buruzkoa da. Garatu ere inguruaren eraginez garatu den baina aldi berean inguru berberak erreprimetua izan den jokabidea, azkenean, desitxuratu egingo da eta inkontzientera zokoratua izango da. Inkontzientearen sakonetik jokabide horrek gero, barne aktibazioaren bidez, errealtatera iristeko bideak bilatuko ditu, bideok "sintoma" edota "desitxuratze eratorriak" izango dira, hots, paradigma tradizionalak "tentaldi" iritzi izan diena bilakatuko dira.

Adibide bat jartzearen, horra historiaren kasua. Iraganeko garai historikoetan mendez mendez emakumeak bere izatea ukatu egin zitzaizkalarik, moral arauz eta erlijioaren eraginez ukatu ere, hari -emakumearen izateari- buruzkoan erabili ohi zen nosologiako entitate edo hitz nagusia horixe izaten zen; historia. Mendebaldeko munduan sexuari buruzko tabuak berezko jokabideen akuiluarena egiten zuen eta, era berean, jokabideok erreprimetzen zituen, zirenik eta mehatxurik handienak erabiliz horretan. Ondorioa errepresio desitxuratua izan zen, eta hortik historia mota guztiak. Mendebaldeko gizartean inoiz lehenago ez zen izan halako besterik, alegia, berezko jokabide bat, aldi berean hain akuilaturik eta hain eragotzirik zena. Moralaren aldetik zeukan debekuak irudimenari eragiten zion, mehatxuen bidez eragotzi nahi zen harexeri hain zuzen. Sexuari buruzko guztian, eskrupuluak izan dira mendebaldeko gizarte tradizionalen nagusi. Eskrupuluetan hortxe daude hala debekatuaren eszenatokia nola debekua berak, biak.

- Hirugarren printzipio bat "perbertsioa" delakoa da. Hala animalien psikologian nola gizakionen psikologian, berezko jokabide jakin bat eragozteak haren lekua ordezkotzeko beste batek hartzea dakar, bigarrenak lehenari beste bide bat emanez, nolabait esan. Diogunaren adibidea ematearen, aipa dezagun atxikimenduzko jokabidea, jokabide guztietan lehena eta guztien oinarria. Horren ostean sortzen dira beste jokabideak, hala nola esplorazio eta jakin-minezkotza, beldurraren, parekidearen artekoa, oldartzekotza, sexuarekikotza eta guraso jokabidea, gizarteko harremanak gauzatzen dituztenak baino ez aipatzearen. Bada, hala animalien artean nola gizakioi dagokigunean ere frogaturik dagoenez, atxikimenduzko jokabideari garapena eragotzen bazaio errepresio horren ondorioz beste jokabide batzuek bilakabide anormala izaten dute, esate baterako, esplorazio, oldar eta sexu

jokabideek. Ume “saihestzailea” delakoari dagokionez, horiengan atxikimenduzko irudiaren lekua objektu fisikoek eta horien esplorazioak hartzen dute. Gizartean onartua den perbertsioa dugu, noski. Sexu jokabidea eta eraso jokabidea ere oso goiz garatu izaten dira, baldin eta atxikimenduzko jokabidea ez bada bere osotasunean garatzen, aipatu biek hirugarren hori bideratzen ordezko lana egiten baitute. Sexu eta eraso jokabideek bestearekiko loturazko harremanaren zubi lana egiten dute, horrexen zerbitzura lan egiten baitute. Subjektuak “tresnatzat” hartzen du sexu edota eraso jokabidea, atxikimenduzko Objektu duen horri albo-alboan eustea helburu. Gure paradigma erabiliz zera esango genuke, sexua eta erasokortasuna jokabide instrumentaltzat erabiliak direla, lotura-harreman problematiko baten zerbitzuan hain zuzen. Honelako “perbertsioetan” sexuaren eta erasoaren Objektu denari Erreferentziatzeko Lehen Pertsonaren “atributu idealak” eransten zaizkio eta, horrez gero, loturazko harremanak izandako ezaugarriak sexu- eta eraso harremanak bereganatzen ditu.

4.2.2. Pauloven baldintzapena eta Unibertso Estimulagarriaren eraikuntza

Pauloven paradigmatz lehenago esan duguna gogoan, hartan estimulu neutroa kanpoko munduko elementua litzateke, animalari axolarik ez liokeena. Aitzitik, ez da benetan horrela; izan ere, kanpaitxoa edo txilina estimulua baita, esplorazio jokabidearekikoan bederen. Hartan animalia gosetuak elikadura jokabidea aktibatuz zeukanez ez zen jateari buruzkoak ziren estimuluei baino beste ezerekiko sentibera agertzen. Esplorazio estimuluekiko atalasea oso goi zegoen, gose egoera zela-eta elikadura jokabidearekikoa oso behean zegoen aldi berean. Hala bada, une hartan jakin-minaren estimulua bigarren maila batean zetzan, lehenengo mailan jateari buruzko estimuluak zeudenez gero. Diogun hau erabilgarria da kanpo estimuluen munduko beste ordena guztiei buruzkoan ere.

Gizaki jakin edo konkretu batengan, une jakin edo konkretu batean, estimuluak halako edo bestelako hierarkia-mailan kokatzen dira, beti ere estimulu bakoitzak une eta egoera bakoitzean duen estimulazio gaitasunaren arabera. Indar ahulagoko estimuluak estimulu neutroarena egiten du estimulu indartsuagoarekikoan. Edo, beste modu batera esanda, indar handiagoko estimuluak estimulu baldintzatu gabearena egiten du, indar txikiagoarekikoan, indartsuak ahulagoari bere estimulazio gaitasuna erantsiz. Estimulu indartsuak, bere estimulazio gaitasunaren poderioz, indar txikiagoko estimulua baldintzatzen du. Azaldu berri dugun hau hobeki ulertze aldera adibideren bat edo beste ematea komeniko da, hain segur.

Adibidetako bat eskola bizitzatik hara hartu ahal dugu. Bost urteko adinean hurrek irakurketan eta idazketan hasteko halako estimulazio indar bat badaukate ere, ez dago hori guraso eta irakasleekin duten harremanari alderatzerik, izan harreman bero eta atsegina nahiz izan harreman gaiztoa eta okertua haiekikoa. Nolanahi ere, lotura-harremanak berez duen estimulazio gaitasuna emango dio hizkuntza idatziari

ekiteko gogoari; delako harremana beroa eta atsegina baldin bada idazketa gozamen eta asetasun iturri bilakatuko da; bestela baldin bada, alegia, harremana garratza baldin bada, idazketa eta irakurketa ondoez iturri bilakatuko dira. Hots, lotura-harremanaren estimulazio gaitasuna irakurketari eta idazketari transferituko zaie, Pauloven asoziaren bidez transferitu ere.

Estimulazio gaitasunaren eta beronen garrantziaren arlo zabalera joz, haurrenganako atxikimendua eta maitasuna adierazten dituen atxikimenduzko irudia delako haurraren ondoan izatea gailurrean egotea izango da, gertaera garrantzizkoen sailkapenari dagokionez; aitzitik, kontrakoa gertatuko da alderantzizko egoeretan, irudia hor ez egoteak haurrari ukapena adieraziko dio. Hain garrantzizko zaien horren ordainetan beste guztia "safirifikatzeko" prest agertuko dira haurra zein heldua. Hala bada, atxikimenduzko irudiarengandiko maitasuna nahiz maitasun eza, haurrenganako gogo ona edo bestela gogo eza, horrexetan egongo da baldintzatu gabeko estimuluetan erabakigarriena.

Laburbilduz, gizaki jakin bakoitzaren estimuluaren unibertsoan badira, funtsean, elkarrekin batera arkitektura zehatza osatzen duten estimulu naturalak zein baldintzatuak, doi-doi egituratuak. Haurraren estimulu unibertsoa hastapenetan baino ez da estimulu natural hutsez osatua. Zeren eta haurrak zerbait eskatu eta eman ez, edo tratu bat nahi eta beste bat ematen zaiola, edo beste edozer dela eta -urradura eta amorrua sortuz, edo bestela maitasun gozoa sortuz- orotariko estimuluak estimulu baldintzatu izaten hasten dira eta horrelaxe doaz gero baldintzatu gabeko estimuluaren gaitasunez betetzen, oso goiztik. Horrelaxe, bakanetan baino ukitua ez den umeak min hartu ahal du larruzazala laztandurik sentitzean, kanpoko estimulazio gehiegizkoaren gehiegizkoaz. Ukituzko estimulazioa, jatorriz plazerezkoa, haurrari min ematen dion estimulu baldintzatu bihurtu zaio eta, laztanak ekidin beharra dauka. Antzeko zerbait gerta liteke jatearekin, esplorazio estimuluekin edota sexuarekikoekin.

4.2.3. Irudimenezko sorkuntza eta idealizazioa: bizitzako utopia

Goiko atalean azaldu dugunarekin bat, giza jokabidea osatzen duten konfigurazio estimulagarri gehienak estimulu baldintzatuak dira. Baldintzapen hori, ordea, baldintzatu gabeko estimuluetatik eta estimulu neutroetatik dator, estimuluok kanpokoak (inguruan diren objektuak) zein barrukoak (norberaren gogo-egoera) izan daitezkeelarik. Berritua ere Pauloven asoziaren eremuan ari gara, bai.

Alabaina, giza jokabidearen beste ikertzaile batek, Bandurak (1968), subjektuarengan estimulu gaitasun espezifikoak hartzen dituen kanpoko elementuren baten nondik norakoa beste modu batez, bigarren mekanismo batez erakutsi zigun: sinpatia edo antzeratze mekanismoaz. Mekanismo horri "behaketaren bidezko ikaskuntza" izena ere eman izan zaio.

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

Haurrek gauzak, maite dituzten pertsonen begiekin ikusten baldin badituzte, ikusi ere ikusten dituzten bezala, irudi garrantzitsu direnek gauza horiekikoan dituzten sentimenduetan beren bihotzetan oihartzun egiten dutelako da. Fenomenoari "afektu kutsaketa" deitu izan zaio, modu ez oso egokian, gure ustez. Animalien munduan afektu kutsaketa delakoa oso presentea da. Nagusien eta haurren arteko harremana beroa eta harmoniatsua bada, bigarrenek lehenek maite duten berbera maite izango dute, eta haiek zeri dioten beldurra horiek ere horrexen beldur izango dira. Haiek zerekin duten interesa, haurrek ere horrexekin interesa. Haiek zeri dioten estimua eta zer gaitzesten duten, kanpokoetan zein beren baitakoetan? Ba haurrek horrexetan beren buruaren ispilua. Hala bada, eskarmentu pertsonala ez da inondik ere estimuluaren eta ikasitako jokabideen iturri bakarra. Besterik ere bada eta, horra zergatik den hain garrantzi handikoa gure eskoletako irakasleak nolakoak eta bizitzari gogotsu begiratzen diotenak, jakinguratsuak eta irakatsi behar duten gaiak maiteminduak izatea.


Aipatzen ari garen estimulu baldintzatuzko egitura honetan berdin sartu ahal da "idealizazioaren argia" zein "gorrotoaren iluna". Pertsonenganako eta gauzekiko maitasunak, hala umearengan nola etorkizuneko gaztearengan ere, idealizatorako halako gaitasun indartsu bat dakar berarekin. Idealizatorako gaitasun horren argitan (Kohut, 1971), jomuga eta egitasmo kutunenek "utopia" ezaugarri janzten dira.

Jomuga idealizatuak berekin herrestan daramate ekintza instrumentala, eta une gaitzetan haiek elikatu egin ahal dute delako ekintza hori. "Gaitezen errealista, eska dezagun ezinezkoa", zioen 68ko Maiatzeko lelo hark. Ez da harritzekoa, azken batean frantziar ikasleen erreboltak utopiaren eragin-gaitasuna aldarrikatu zuen.

Amets tarteetan umearen irudimen dimentsioak eszenatoki idealak atontzen ditu, horretarako berdin balio diotelarik hurbileko pertsonaiek, aditu dituen narrazioetako legendako heroiek edota ikus-entzunezkoen bidez iritsi zaizkion kontakizunek. Horiekin guztiekin bere baso sorgindua osatzen du, batzuetan beldurgarria ere izan litekeena. Hautzarroa magikoa den ororen aroa baita.

4.3. Estimuluaren ebaluazioa: sentimendua eta barne mapa operatzaileak

Subjektuaren estimulazio-unibertsoan diren konfigurazio estimulagarriak zein ere diren, estimulua eta erantzunaren arteko bidean delako estimuluaren balorazioa dago, beti. "Ez mintza egiaz, mintza gaitezen munduari behatzen dion begiaz", esan dezakegu. Estimuluei behatzen diena zein begi, eta estimulua nola den begiralearen baitan bizi, horixe da sentimendua (Arnold, 1960). Funtzio hau 3. irudiko ideograman lilaz margoturiko laukian ageri da.



4.3.1. Sentimena

Bere trilogiako lehenengo liburuko 7. atalean, Bowlby (1969) sentimenduaren definizioa interesgarria dakar, Arnolden (1960) lanetan oinarritua bera. Estimulua eta erantzunaren artean subjektuak estimuluaz egin dezakeen balorazioa tartekatu ondoren, ebaluazio horrek kontzientziaren eremuan duen presentziaren bidez kontzeptualizatzen du delako subjektuak sentimendua. Funtz-funtsean, ebaluazioa faktore-ordena biren arabera egiten da:

- Bizitakoaren eskarmentua.
- Subjektuaren egoera organikoa eta umorea edota aldartea.

Horrela, konfigurazio mehatxagarri jakin bat gogaikarritzat hartu edo bizi daiteke subjektuaren aldetik, izuzkotzat jotzera iritsi gabe. Hori horrela izatea are eta errazago izango da baldin eta subjektua lehenago ere antzeko beste gatazka batzuetan garaile irten baldin badago, osasunez ondo badabil eta kolera-umorez badago, iraganeko gatazkatan galtzaille irten, gaixorik egon edota beldurti umorean badago baino.

Ebaluazio prozesu hori, nolnahi ere den, subjektuaren oharkabean egiten da, hein handienez bederen. Hari kontzientziara iristen zaiona konstruktua hutsa da, eta hortixe hautematen du hark objektua zein estimulua: sentimenaz ari gara.

Ebaluazio hori zein den, halaxe hautatako da jokabidea. Arestian ekarri dugun adibidean, esaterako, konfigurazio bat eta bakarra dena mehatxutat zein interesgarritzat jo dezake subjektuak, aintzat bera nola dagoen; interesgarritzat, noski, baldin eta umore onean badago, osasunez ondo badabil eta buruaz duen iritzia oso aldekoa bada.

Hala bada, errealitate bakarra eta bera dena modu askotarako hauteman daiteke, hala nola interesgarri eta atsegintzat, gogaikarritzat bestetik gabe, edo bestela ikaragarritzko mehatxutat. Ondorioz, horrek berdin aktiba lezake esplorazio

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

jokabidea nola eraso jokabidea zein ihes jokabidea. Zakurra hor aurrean duelarik umeak jakingura, beldurra zein haserrea erakuts dezake, aintzat egoera.

Paradigma honetan sintoma, psikologi balio handiko konstruktua da, horretan presente baitago objektua eta subjektuaren arteko indar-erlazioa, bai unean uneko egoera organikoaren eta jokabide-egoeraren arabera neurturik, bai iraganeko eskarmentuaren arabera kontsideraturik, bai estimulazio konfigurazioak eta horrek sorrarazitako emozioaren aldetik begiraturik.

Sentimenduan hortxe daude emozioa, aktibaturiko jokabidea eta konfigurazio estimulagarria, prozesu zirkular berean sarturik hirurak. Ikaratuta dagoen umeak, zakurrari ikaragarri deritzon aldi berean, beldur dio sentitzen ari den irudiari berari; beldur da, eta beldurgarri hautematen du zakurra. Beldur izango den ez den izango, hori zakurraren beraren ezaugarrien arabera ez ezik haurrak bizi duen egoera organiko eta emozio egoeraren arabera ere erabakiko da. Haurrak gaixorik egon edo logale bada, eta animalia arrotza bazaio, errazago etorriko zaio beldurra haserrea baino. Zakurra hor izatea egoera gogaikarritzat hartu beharrean ikaratu egingo da, aintzat unea eta egoera. Osasunez ondo eta sumindurik baldin badago errazago haserretuko da eta, ondorioz, animalia alderdi nekagarriak hautemango ditu. Azkenik, zakurrari lagun eta interesgarri iritz diezaioke, baldin eta umore onean, hots, beldurrik eta haserterik gabe badago.

Guzti honek nora eta "konfigurazio estimulagarriaren eta jokabide aktibatuaren arteko erlazio zirkularra" delako gaira garamatza atzera ere. Konfigurazio estimulagarriak berezko jokabide jakin bat hautatzen eta aktibatzen du, bai, baina berezko jokabide horrek bere aldetik konfigurazio estimulagarriaren ezaugarriak taxutzen ditu. Zakurren beldur diren gizakiak animalia hartz-haginei eta ezpainen keinuei adi begiratzen dieten era berean, ileari eta begiei begiratzen diete haiek maite dituztenek.

Hala bada, objektuaren konfigurazio estimulagarria -zeinaren dimentsio subjektiboa sentimendua den- hari begiratzeko erabiltzen ditugun betaurrekoak direla esan daiteke. Lehenago esanda gauden bezalaxe, emozioak errealitateari begiratzeko erabiltzen ditugun betaurrekoak dira, egi, baina hori horrela dela onartzu eta zehatzago hitz eginez, pertsona edota egoera jakin baten pertzepzioa ekartzen ditugun betaurrekoak sentimena direla esan dezakegu.

4.3.2. Iraganeko esharmentua: barne mapa operatzaileak

Oroimenean, memorian, hortxe geratzen dira subjektuak munduarekiko bizi izan dituen biografi datu guztiak. Esaterako, besteak subjektuarekikoan eta subjektuak bestearekikoan izan dituzten jarrera eta portaeren oroitzapenak. Edota subjektuak eta besteak elkarrekikoan bizi izandakoak eta horietan tarteko izan diren emozioak, hots, irudimenezko eszenatokietan kokaturiko bizi-penak. Bada, azpi atal honetako

lehenengo lerroan aipatu dugun oroimen bizi hori berori, "barne mapa operatzaileak" (working models) jorratuz garatuko dugu sarrera honen ostean. Zeren eta oraintsu aipaturiko oroitzapen multzo horretako zati bat inkontzienteko erregistroetan gorderik geratzen baita. Subjektuaren bizipen jakin bat zenbat eta traumatikoago eta onartezinago egin, orduan eta inkontzienteko oroimeneko zokoetara baztertuago geratuko da delako bizipena.

Bowlbyk barne mapa operatzaileez egin duen formulazioan barne mapa operatzaileak Freuden Inkontzientearen eta haren Bigarren Topikoa -Nia, Zera eta Super Nia- delakoaren arabera buru-aparailuaren ereduaren ordezkotzat ageri zaizkigu. Haren helburua ez da besterik bere teoria informazioari buruzko teoriarekin bateragarriago eta ikerkuntza enpirikoari buruzkoan erabilgarriago egitea baino.

Honez gero erakutsirik utzi dugun bezala, mapa operatzaile horixetan abiatuak etorriko da gure aurreikuspen oro, hala pertsona esanguratsuek norberarenganako izango dute portaerari buruzkoan, nola gure portaerak haiengan eragingo dituen erantzunei buruzkoan ere.

Besteaz eta norberaz subjektuak eraikitzen dituen irudiak horixe dira: irudi eraikiak, haien bien arteko benetako gertaeretan oinarriturikoak beti ere. Hala bada, bestea ez da bete-betean irudi esanguratsuak eta haien portaerak benetan izan zirena, baizik eta besteaz subjektuak izan duen pertzepzioa edo hautematea baino.

Eri den haurrak bestearen portaeraz duen pertzepzioa ez da delako beste horren benetako portaerarekin bat etorriko, azken batean egoerak eragina baitu pertzepzioan ere. Barne mapa operatzaileok guztiz goiz hasten dira egituratzen, eta horixetatik begiraturik ikusten dira -eta horixekiko erreakzioz- besteren jarrerak eta portaerak. Hortixe dator hain zuzen ere barne mapa operatzaileek bizitza osoan zehar irauteko duten joera.

Hala bada, barne mapa operatzaileetan bada objektuen munduaren halako irudikapen bat, zeinetan objektuok -lehenik- haurtzaroko begiek ikusi zituzten ezaugarriak dituzten, eta -bigarrenik- norberaren buruaren irudikapena ere badago, bigarren kasu honetan aipaturiko harremanetan bizi izan ziren emozio eta grina guztiez jantzirik, eta badago -hirugarrenik- besteen ezaugarri guztien eta norberaren buruaren kalifikazioa, beti ere haurrak pertsona esanguratsuegandik hartu duen etika kodearen arabera eginez kalifikazio hori.

Bowlbyk (1980) barne mapa operatzailea nozio hau erabiltzen duelarik, nola eta haur subjektuak atxikimenduzko irudiarekiko duen harremanari buruz jarduteko erabiltzen du. Aitzitik, barne mapa operatzailea den nozio hori erabilgarria da, baita ere, subjektuak beronen eszenatokian diren izaki eta gauza guztiekiko dituen harremanetan, hala nola, atxikimenduzko lehenengo pertsonarekiko, bigarren irudiekiko, haurren arteko parekidetasunezko munduarekiko, berriak diren objektuekiko, hots, harreman sare osoarekiko. Aintzak haurrak nolako harreman-jokoak bizi izan dituen, mapa operatzaile anitzagoz edo urriagoz horniturik irtingo da haurtzarotik.

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

Hala bada, konfigurazio estimularriari antzeman, nondik eta barne mapa operatzaileetatik eta horiei loturiko emoziotik antzemango zaio. Alegia, berezko jokabide jakin bati -horren lau alderdietan- eragin diezaiokeen estimulua ez datza, zentzu zorrotzean, objektuaren edota estimulu objektiboaren ezaugarrietan, subjektuak delako objektuaz edo estimuluaz egiten duen irudikapenean baino. Estimulu naturalaren eta berezko erantzunaren artean subjektuak horietaz egiten duen ebaluazio edo irakurketa dago. Jokabidearen psikologia hori horrela dela ezagutzera iritsi delarik, ezagumen horrexetan abiatuturik sortu da Ellisen (1962) terapia emozio-koginitiboa delakoa.

Esandakoak esanda, argitu beharrekoa da ebaluazioak, eta horrekin batera sentimenduak, ez dutela helburu bakarra eta objektuen errealitatean jarria, hots, konfigurazioa estimularrietan; haatik, ebaluazioaren helburuetan sartzen da subjektuaren beraren ekintza ere, alegia, bizitzan zehar eta berezko jokabidearen azken mugetaraino doazen etapa guztietan mugarri egiten dituzten jokabide instrumentalak oro. Azken hori, nolana ere, hurrengo azpiatalean aztertuko dugu, tartetxo hori jokabide instrumentalei eskainiko baitiogu. Bestalde, 1. irudiko eskeman antzeman ahal den bezalaxe, ebaluazioa/sendimendua delakoak jokabide instrumentalak ere hartzen ditu bere baitan.

Azken helburu horiek umea -eta nagusia ere- hark eraiki dituen tarteko helbururik tarteko helburuz daramate, pausoz pauso hari tiraka, hezitzaileek eskaintzen ahal dioten indarrak lagundurik, 1. irudiko ideograman ikusi dugunarekin bat. Irudi horrexetan ikustea daukagun legez, bestalde, bitarteko helburuak (BH), azken helmugarako edo jomugetara iristeko tresna diren jokabide instrumentalen bidean tartekatutak dira. Bidea, egiatan, oso luzea da, zeren eta norberaren bizitzako urratsek batera egiten dutena baita. Infinituak dira mugarriak, askotarikoak eta anitzak oztogarriak, eta horiek gaindituz, saihestuz eta inguratuz egin beharko du aurrera, urratsean urratseko helburuak erdietsiz azkenetaraino iristeko.

4.4. Jokabide instrumentalak

Giza abereari nahiz haren beheagoko mailakoari animalia azpi-humanoari berezko jokabideren bat abiarazi baldin bazaio, kanpotik nahiz barrutik abiarazi ere, barruko tentsioak gora egingo dio eta horren amaiera ekarriko dion konfigurazioa estimulatzailea bilatzeari ekiten dio, aktibatua izan den berezko jokabidea horrexetan amai edo hustu -aintzat zein paradigma erabiltzen den hautatu behar da aditza- dadin. Bilaketa hori eta horrek dakartzan ekintzak dira, hain zuzen ere, jokabide instrumentalak.

Behin baino gehiagotan esanda gaudena berriro esanez, aipatzen ari garen ekintza guzti hauek genoman, hots, "ekintza-pauta finkoetan" daude inskribaturik, behe-eskala filogenetikoetan bederen.

4.4.1. Skinnerren paradigma

Jo dezagun adibideetara, Skinnerren paradigmari eta Jokabide Zirkuluaren paradigmari, jokabide instrumentalaren kontzeptuak bietan esan nahi duena errazago ulertze aldera.

Begira diezaiozun dirugatik lan egiten duen horri. Dirua, berez, pertsona horren azken helburua izan daitekeen era berean bitarteko jomuga ere izan daiteke. Lehenengoa baldin bada, dirua pilatzearen lan egiten duela esan dezakegu. Bigarrena izanez gero, aldiz, pertsona horrek familia mantentzearen, komunitateari aberastasunak ekartzearen edota elbarrituei dirua ematearen lan egin dezake, auskalo. Edozein kasutan ere haren jarduna "jokabide instrumentala" da. Nekatu ahal da, nekatu ahal denez, azken batean lana beti lana baita, nahiz eta helburua horren garbia izan. Helburua erdiestea izaten da ekintza instrumentalaren saria. Sariaz aldeztu aurretik dakielako eusten dio ekintzari, noski.

Beste pertsona batek lan egiten du lana sormena ere badelako, eta sormena gustuko duelako. Izan liteke ikertzaile, izan liteke artista edo izan liteke enpresaburu, berdin dio zer den. Horrentzat dirua bigarren mailakoa da. Horrek lanean "bere burua gauzatu" egiten duela esan ohi da. Zaletasun hutsez, hobbyz, lan egiten omen du. Pertsona horren kasuan burutzen dituen zereginak ez dira ekintza instrumentalak, ez dira lana; horren jardunak ekintza amaitzaile bera eta bat dira. Ez da nekatzen, sortu eta jolastu egiten du. "Gogoko lekuan aldaparik ez", esan ohi da.

Azkenik, horra beste pertsona hori, beldur hutsagatik lanean, hots, gaitz handiagoak ekiditearren. Gaitzok askotarikoak izan litezke, hala nola diru larritasuna, lantokian zigortua izatea edo gizartean gaitzespena. Pertsona horrek egiten duena jokabide instrumentala da, lana da, mehatxuak eraginda egiten baitu egiten duena.

Ikasle jakin batek ezagutza maite duelako ikasten du, hobby du ikastea. Beste batek, aldiz, nota onak ateratzearren ikasten du, horiek, orain bizi duen unean onespina eta geroko batean lanean arrakasta ekarriko diotelakoan; lan horren helburua saria da. Beste batek, azkenik, orainean zein geroan etor dakizkiokeen hondamenak ekiditearren egiten du lan; ez du ikasturtea errepikatu nahi, ez du gogoko zentsura edo zigorra, ez du bere burua lanik gabe ikusi gura etorkizunean. Mina saihestearren egintza lana da horrena.

Hala bada, edozein ekintza sorburuan desioak daude, askotarikoak eta ugariak, lehen mailakoak eta erantsiak, lehenetsuen hierarkia propio baten arabera sailkatuak. Zeren eta litekeena baita motibazio guztiak elkarrekin bat ez etortzea, ezta ere helburuak, eta horren ondorioz elkarrekin bateraezinek diren jokabide instrumentalak sorraraztea. Hortxe, bada, "desioen arteko barne-kontraesana".

4.4.2. Arrakasta eta porrota

Berezko jokabide oro azken bururaino eramatea ala bidean geratzea plazer-atsekabe sokaren muturren artean dabilen lege berean, jokabide instrumental bakoitzak bere helburua erdiestea ez erdiestea ere hortxe dabil, arrakastatik porrotera eta porrotetik arrakastara doan continuum horrexetan. Arrakastak aktibatu egiten du sari-sistema, eta horren ondorioz emozioen dimentsioan gogoia piztea eta poztasuna agertzen dira; irudimeneke eszenatokian garaitza eta ahaltasun irudiak ageri dira. Porrotak berriz zigor sistema delakoa mugiarazten du, horri loturiko emozioa gogo eza izanik; irudimeneke eszenatokian aldiz, porrota eta ezintasuna ageri dira. Diogun hau esatearen parekoa litzateke esatea ezen animalari arrakasta sari zaiola, eta zigor porrota. Arrakastak etorkizunera bultzatzen gaitu, porrotak gelditu lotzen gaituen era berean. Horixe da 6. kapituluaren zehatzago azalduko duguna.

Jokabide instrumentala desiotik sortzen da, hau da, zerbait desio dut eta zerbait egoten dut lortzeko, eta amaitu ere delakoa desioa aseztu aurretik, bidean zenbait etapa egin ondoren. Etapa horietako bakoitzak bere oztopoak eta arazoak, gainditu beharrekoak. Horrela bada, berebiziko garrantzia dutenak aipatu ditugu hurrengo lerroetan.

- Etapa bakoitzari dagozkion tarteko helburuak finkatzea, beti ere unean uneko baliabideak gogoan hartuz. Norberak ahal dena baino haragoko helburuak jartzea ez dakar besterik estresa eta porrota baino. Irakasle edota zuzendari onaren ezaugarria horixe da; subjektuari laguntzea, bere gaitasunen barruan eta estresik sorrarazi gabe, erdietsi ahal dituen helburuak zein diren erabakitzen. Norberaren baliabideekin bat datozen helburuak jartzea norberaren buruari, horra metodoa. Guk gure aldetik subjektuari egokiro datozkion helburuak proposatzu hark bere neurriko jomugak jartzen ikas lezake, hots, metodoaren jabe bihurtu liteke. Hala bada, eskolaren eta hezkuntzaren zeregin nagusietako bat haurrak eta gaztetxoak beren buruari helburu egokiak jartzeko gai bilakaraztea da. Gurasoen zein irakasleen aldetik helburu gaitzegiak proposatzen zaizkien haurrak depresiora eta eskola porrotera kondenatuak dira. Helburu gaitzegiak erdiesteko agindua barne mapa operatzaileetan sartuko ditu haurrak, eta gero, nagusi bilakaturik, agindu horren menpe itorriko amaituko du.
- Funtsezkoa da, funtsezkoa denez, etapa bakoitza amaitutakoan horren balorazio egitea, baina ez aldezturik jarritako helburu hau edo bestea erdietsi den ala ez aztertuz, subjektuan ekintzan konprometitzeko izan duen moduari begiratu baino. Helburua edota eraginkortasuna erdiestea eskatzeak hondatu egiten du subjektuaren motibazioa. Horrelako prozedurak ezin dira subjektuari berari arrotzak zaizkion interesetatik baino etorri. Maizegi ahazten gara baina, gizaki oro eta, beraz, haurra, arrakasta erdiesteari buruzko motibazio oso sendoa izaten duela. Hala bada, hark zeinahi ekiten diolarik ere, ezinbestez arrakastatsua behar duela izan kanpotik eskatzeak dakarkion bakarria antsietatea areagotzea eta balizko porrotak eraginezko mina bizitzenago egitea besterik. Horrela eginez lortuko

dugun bakarra haurren sistema instrumentala erretzea izango da. Gizakiaren erantzukizun bakarra asmoarekikoa da, inondik ere ez ekintzarekikoa. Emaitzak ziurtatzea ez baitago ez haren, ez eta beste inoren esku.

Hezle on denak aldian-aldian berrikusi behar ditu haurrei ezarritako helburuen egokitasuna, haur bakoitzaren baliabideen arabera berrikusi ere. Helburu jakin bat erdiesteko ahaleginaren emaitza porrota baldin bada, delako helburu jartzean egin da okerra, seinale helburua ez zela egokia. Hezle onak buruturiko ekintzaren alderdi onak baloratuko ditu, eta ekintza eta horren helburuak haurrekin batera aztertuko ditu, horren baliabideekin bat letozkeen beste helburu batzuk adosteko. Horrela eginez haurrari arindu egingo dio porrotaren mina eta, horrez gainera, ekintza bideratzeko ildo berriak non diren erakutsi ahalko dio. Horrela egin ezean ekintzaren pertzepzioa aldatu egiten da, zerbait beldurgarri bilakatzen baita. Ondorioz, haurrak bere burua ez-gaitzat jo eta delako ekintza saihesten ahalegina egingo du. Bestela bada, hots haurra, porrot egin dion ekintzarekiko beldurra uxaturik eta beste ekintza arrakastatsu batzuen bidez haren gaitasun sentimendua berrezarri, baikortasunerantz eta buruarekiko konfiantzarantz abiatuko da. Hezkuntza sistemaren erru handienetakoa, askotan egia esan saihestezina ere izaten dena, haurrari bere benetako baliabideen gairako helburu orokorrak proposatzea da.

Subjektua, izan haurra edo izan nagusi, bere ekintzak arrakasta erdietsiko duelakoan bizi da delako ekintzak irauten duen tartean, arrakasta hori tarteko zein azken-azken helburuetara iristean datzalarik. Itxaropentsu bizi da, ekintza instrumentala abiarazi dion desioa asetzen doakio eta. Era berean, hezle ona denak subjektuari eutsi nahi dio, helburuak zein diren gogoraraziz eta ekintzari esker horiek erdiestear dituela esanez. Azken kontzeptu hau hain da garrantzizkoa, pausatukiago azter dezagun eskatzen baitigu.

Hala jokabide instrumentala bera nola berorren osagarri bakoitza ere, guztiak dira oztopoz josiak, gehienetan behintzat. Horiek gairatzeko estrategiak asmatzea eta bideratzeak ahalegina eskatzen du. Lana, alegia. Jokabide instrumentala gehien gehienetan lantsua izaten da. Horri ekiteko eskatzen den buru-indarrak subjektuari beronen gaitasunari buruzko ziurtasuna eskatzen dio.

Aitzitik, norberaren gaitasun sentimendu hori hor izatea ezinbestez bete behar den baldintza bada ere, ez da zereginari konfiantzaz ekiteko aski bermea. Subjektuak bai baitaki sarritan bere indarrak ez zaizkiola nahikoa izan arazo bat batean sortuak konpontzeko. Laguntzaren premian izan dezake, ikasia du hori. Hala bada, helburuak erdietsiko dituen ziurtasunaren euskarri dira hala bere gaitasunekiko ziurtasuna nola besteren laguntza hortxe izango duen ziurtasuna ere. Norberaren buruarekiko konfiantzak eta besteri laguntza eskatuz gero erantzuna baiezkoa izango den ziurtasunak, biek batera Bowlby (1969) funtsezko konfiantza deritzona osatzen dute. Delako konfiantza hori bizitzako lehenengo hiletan

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

erdiesten da. Gai hau sakonago atxikimendu seguruari buruzko ataletan jorratuko da eta, horietara jo dezan gomendatzen diogu honen irakurleari.

4.4.3. Ekintza instrumentalaren arrakasta

Edozein ekintzetan arrakasta erdiestea delako ekintza horrek duen "berezko indartzaile positiboa" da. Ekintzaren porrota, aldiz, berezko zigorra da. Arrakasta indar handiko "indartzaile positiboa" da. Porrota zigor oso indartsua da. Hala bada, arrakastak eta porrotak beste edozein indartzaile -positibo zein negatibo- eta beste edozein zigor baino indartsuagok dira, jokabideak abiaraztea nahiz azkentzearen aldetik behinik behin. Hezkuntzak oinarria non eta ikasle bakoitzaren arrakastan izan behar du, eta horrek ikasleak banan-banan hartzea eskatzen digunez, oso argi izan behar dugu Vygotski-ren (1977) "Garapen Zonalde Hurbila" non den.

Gainerako indartzaileei kanpo indartzaile iritzi ahal diegu. Hala bada, zeingura jokabide indartzearen aldetik garrantzizkoa da indartzaileok gogoan hartzea. Horien artean garrantzitsuena ekintzaren beraren arrakasta da. Zigorrekin ere berdin: jokabide instrumental jakin bat era eraginkorrean bukaratzen duena, zer eta ahaleginak huts egitea da.

Irakasleek haurra lauda dezakete, nahiz dela modu programatuan nahiz dela berezkotasunez, haren buru-estimua hobetu aldera edo bestela ere, haurra idealizatzen okertu egin direlako. Nola ere den, haurrak bere ekintzetan arrakastarik erdietsi ezean ez-gai sentituko da, alde batetik, eta kanpoko laudorioen menpeko, bestetik. Ez da gutxitan ematen den irudia, hezkuntzako errakuntzen artean.

Laudori ustelen aldean besterik da, oso ezberdina, arrakastaren aitortza. Arrakastaren aitortzak biko eragina du jokabidea instrumentalean, zeren eta:

- Aitortza horrek umeari arrakastaren kontzientzia izatea ahalbidetuz hori barneratzen laguntzen baitio.
- Aitortzak, bestalde, arrakastaren inguruan giro beroa sortzen laguntzen baitu. Kanpo indartzailea da, beraz.

Ekintzan arrakasta erdiestea eta garrantziko irudiengandik horren aitortza jasotzea dira haurrari gaitasun sentimendua eragingo diote baldintza eraginkorrak.

Ekintzak porrot egitea eta horren zentsura, aldiz, barne eta kanpo zigorrek dira. Haurrak bertan behera utziko du ekintza instrumentala (egin beharrekoa), ez-gaitasun sentimendua sortzen zaion aldi berean. Hurrengoan, haurrak egin behar duen horretan porrota aurreikusten badu, saiatuko da egin beharreko hori ez egiten.

Nolanahi ere, porrotak ekarri ohi duen minarekin aurrez aurre irakasleak haurraren ekintzaren berezko balio aitortu behar du, baita ere porrotaren zergatiak onartu:

baliabideen gainteko helburuak jarri dituzte. Horretara haurrak porrotean ere arrakasta badela ulertzera iritsiko da eta, hori horrela dela oharturik, egindako guztia indartzailerik positibo bilaka dakiok. Ondorioz, iristen errazagoak zaizkion helburuetara joko du, agian, eta arrakasta erdietsiko. Diogun hezkuntza-ekintza honek haurrari bere buruarekiko gaitasun sentimendua itzuliko dio.

4.5. Asmoa eta zentzua

Jokabide instrumentalak berezkoak ditu asmoa edo intentzioa, eta zentzua edo noranzkoa. Asmorik gabeko jokabide instrumentalik ez da, horrek "ez baitu zentzurik". Giza komunikazioari dagokionez, ordea, besteren jokabide instrumentalak ez dago inola ere ulertzerik, delako beste horrek jokabideok zein asmo edo intentzio duten argitu ezik, ekintza bakar batek helburu asko eta askotariko motibazioak izan bailitzake.

Ekintzaren motibazioa eta helburua, bata eta bestea, jokabide instrumentalaren garabide diren polo bietako banatan dira. Hala bada, berezko jokabide jakin bat aktibatu izanak berez estimulu amaitzaileak -aktibatutako berezko jokabidea azken burura eramango duten estimuluak, alegia- erdiestea helburu duen jokabide instrumentala abiarazten baldin badu, helburu horretara doan noranzkoa da hain zuzen ere jokabide instrumentalaren zentzua, eta zentzu hori antzematea da, azkenik, intentzio (In-tendere: norabait joan, norabait jo). Intentzioak jokabide instrumentalaren zentzua erakusten digu; asmoaz hitz egitean, berriz, kalifikazio moralaren arloa sartzen gara.

Jokabide instrumentalaren asmoak, hala bada, haren kalifikazio etikoa ematen digu. Jokabide instrumental jakin bat ona zein gaiztoa izan liteke, aintzat zein asmok bideratzen duen. Bestela, "modus operandi" delakoa da jokabideari kalifikazio morala, ona ala txarra, ematen diona. Helburuak ez du edozein bitarteko erabiltzea zilegi egiten. Jokabide instrumentalei buruzko arauak gizarteak adostu behar ditu, kontzientzuz.

Edozein jokabide instrumentali buruzko balorazio etikoa jokabidearen mutur bietatik begiratuz egin behar da; batean berezko aktibazioak sorrarazi duen desioa eta bestean estimulu amaitzaileen bilaketa egonik, horietara iristeko prozedurak eta moduak dira balorazio etikoak gogoan izan behar dituenak. Etikan ondo bereizten dira desio onak eta desio gaiztoak, asmo zintzoak eta asmo makurrak, eta horiek betetzeko erabil daitezkeen prozedura zuzenak eta prozedura okerrak.

Etikaren eragin eremua ez da goian aipaturiko kalifikazio eta asmo zintzo ala makurrak -jokabide instrumentalak- kalifikatzen mugatzen, ordea; kalifikazio horiek elkarrekikoan dituzten hierarkiak ere hartzen ditu hark bere eremuaren barrukotzat. Dirua irabazi, estatusa iritsi eta boterea erdiestearren ikastea ala giza gaitasunak eta adimena garatzearen ikastea gero ikasitako hori besteen zerbitzura erabiltzeko, ikasteko arrazoi bi dira horiek, elkarren oso ezberdinak. Helburua erdiestea inor zapaltzea ez da, inondik ere, helburu bera inor zapaldu gabe elkarriketaren bidez erdiestearren parekoa. Etikak proposamenak egiten ditu; hezkuntzak proposamenok lantzen ditu.

Ez da ez erraza besteren asmoez jakitea, hari kanpotik begiratu hutsarekin bederen. Ez dago erraz haurren jokabide instrumentalek zein asmo dakarten beren muinean, jakitea. Horra zergatik den hain arriskutsua harenak auzitan jartzea eta gero epaia ematea. Bidea bestek dionari adi egotea da, eta horrela haren asmoen, ageriko zein ezkutukoen, berri jakitea. Bada, elkarrri aditzea eta elkarren artean hitz egitea da bidea, jokabide instrumentalen azpian dautzan asmo eta desioei buruzko interpretazio hipotesiak elkarrri jakinarazteko ez baita beste modurik ezagutzen.

4.6. Motibazioa: motibazio orokorra eta motibazio eraginkorra

Gizakiongan berezko jokabide aktibatuatarik horien azkentze edo amaieraraino doan bidea luzea izaten da. Bizitzako helburu jakin bat erdiesterako tarte luzea igaro lekiokie edozein gizakiri. Hala nola, unibertsitateko titulua eskuratzea, norberaren etxearen jabe izatea, norberaren lanbidea maila jakin batera iristea, gizartean izan bat egitea edota politikan norabait iristea. Literaturan eta artean bidea hartu izan da bizitzaren alegiatzat. Zein bide luzea egin behar izaten den batzuetan helburua erdiesteko, egia handia da. Helburuotako batzuk, egon ere, bidearen azkenean egon daitezke. Beste batzuk bide laburragoa eginez erdiesten ahal dira. Hala eta ere guzti guztiak nahi genituzke bidean aurrera goazelarik erdietsi, haren amaierara iritsi arte itxaron beharrik gabe. Bizitza, bidea ez ezik, bidean elkarrekin gurutzatzen diren gertaeren sarea ere bada eta, hainbeste eta hain askotarikoak baitira josi beharreko desioen eta asmoen hariak. Hari horietako bakoitzak helburu jakin baten bila tiratzen gaitu, ekintzara behartzen gaitu. Horrek ordea ez du esan nahi ekintza bakoitzak motibo edo hari bakarra duenik. Edozein gizakiren bizitzako une jakin bat hartu eta horretan zeharkako halako ebakidura bat egingo bagenu, oi! zenbat zeregin eta zenbat motibazio une jakin horretan (Tolman, 1932).

Bizitza den bidea oztopoz josia da eta, horiek gaintuz egin behar aurrera, nola bestela? Ekintza instrumentalen bidez goaz aurrera. Eta hori ere neketsua izan arren, hortxe dago beti motibazioa, oztopoko gaintuzeko erronka luzatuz gizakioi. Motibazioa baita jokabide instrumentalen motorea, bitarteko helburuak jartzera eta ekintzarako estrategiak abiaraztera akuilatzen gaituena, delako helburuak erdiestearren gure baliabideak mugiarazten dituena. Nola ere den, ezinbestekoa da motibazio orokorra eta motibazio eraginkorra ondo bereiztea.

4.6.1. Motibazio orokorra

Behin eta berriz esan dugunarekin bat, animalari berezko jokabideren bat pitzuz gero hura berezko tentsio egoeran sartuko da eta egoera hori azken burura nola eraman, hots, jokabidea nola azkendu bilatuko du, kosta ahala kosta. Animaliak bizi duen tentsio mota zein den, kanpoko halako adierazgarri sotil batuen bidez antzeman ahal izango diogu. Noski, litekeena da tentsio hori lehenengoetan ez izatea besterik nolabaiteko aztoramen psikomotore arin bat baino, hala animalien kasuan nola guri dagokienean ere. Subjektibotasunaren aldetik animalia hortxe hasiko da

“zerbait guran”, “zerbaiterako gogoz” edo “zerbaiten beharrean” bezala. Horiek akuilu, tentsioa edo berezko jokabidea nola azkendu bilatzeari hortxe ekingo dio. Behin une horretara iritsirik berezko jokabideak berak dakartzkio subjektuari estimulu amaitzailearen irudiak irudimenera, eta horiek ez badira ere delako jokabide horrek azkentzeko beharko lukeen Objektuarenak ekarriko dizkio.

Bada, abiatu den jokabide horren alderdi subjektiboa desioa da; estimulu amaitzaileak, berriz, jomuga dira, horien dimentsio subjektiboa. Desioak jomuga horrexetara egin nahi du, bilatu, objektua ez bada egoera jakin bat, zeinetara berezko tentsioaren isuria hustu. Halaxe, “zerbait guran”, “zerbaiterako gogoz” edo “zerbaiten beharrean” bizi den subjektuak desioa, gogoa edo beharra aseko dion horrexekin ametsetan bizi da.

Gizakiona baino "azpikoago" munduan, filogenetikoan maila baxuagoko diren artean esan nahi da, berezko jokabideen asetzea dakarten ekintzak, izatez, nerbio sistemak programaturiko mugimendu-automatismoak dira, nahiz eta horiek inteligentziak gidaturikoak direla iruditu (Lorenz, 1938). Gizakioi dagokigunez, helburuetara bideratzen gaituzten mugimendu-ekintza horiek ia-ia guztiak jokabide instrumentalen multzokoak dira, lehenago ere esanda gauden moduan.

Gu baitan, gure bitzako une jakin batzuetan bederen, badira batera eta aldi berean bizi ditugun aktibazioak. Aitzitik, aktibaziook aldibereotasun horretan gertaturik ere, bada beren artean halako hierarkia bat, eta guztien artean bakar bat izaten da beti nagusi. Subjektuarengan aktibatua izan den jokabideak delako subjektuari helburu jakin batzuk jartzen dizkio aurrez aurre, eta horren eraginez irudienena ametsetan hasten zaio eta ekintzak helburuok erdiestea bideratzen ditu. gure baitan. Gu gizakion baitan une jakin bakoitzean zenbait eszitazio elkarrekin batera bizi ditugunez, normala da horietako bat nagusitzea, hots, halako hierarkia bat izatea. Bada, gizabanako orekatua nor eta bere barnean diren aktibazio ezberdinak harmonia ederrean bizi dituen horixe da.

Arestian esandakoaren harira gerta daitekeena da, baita ere, jokabide jakin bat halako aktibazio mailara iristea non subjektua erabat haren “mendeko” bilaka daitekeen, bere kontzientziaren eremu osoa jokabide horrek helburu edo jomuga duen hartan jarrarazteraino. Egunero hizkeran horri “grina” esaten zaio. Aldiz, kontzientziaren eremuan guzti guztia grina horren irudietan polarizatzeari “obsesio” deritzogu. Grinaren mendeko subjektua desioak preso harturik bizi da, grinaren objektua ez den guztiari gor-itsu. Ez du berezko hori menderatzeko aski indarrik, haren menpeko izanik. Hortxe grina hitza. Berezko jokabidearen indarra hain da bortitza, horren mendeko subjektua horixe da, mendeko pasiboa, maniobrarako inongo gaitasunik gabea.

Literatura moralak aspaldidanik jorratu duen gaia da hori, gizakiok bizitzan beti erdi-erdian izan duguna eta oraindik ere hortxe duguna. Horrela, tragediak giza pasioak lantzen dituelarik horietan subjektua objektu itsua da, berezko indarren menpeko hutsa.

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

Literatura klasikoko hainbat lanetan, hala nola Edipo, Hamlet, Macbeth, Don Juan edo Joanak joan eleberrian, pasioaren menpe bizi diren pertsonaia txotxongilo bihurtu eta patua alde aurretik idatzirik duten horiexen gorabeherak kontatzen zaizkigu.

4.6.2. Motibazio eraginkorra: ekintzaren arrakastarekiko konfiantza

Esandakoak esanda, desio bakarra, daitekeenik eta desiorik grinatsua izanik ere, ez da aski motibo sendoa jokabide instrumentalaren motorea bera izatera iristeko. Desio bortitzak, grinak, subjektuak bere buruari ezarri dizkion helburua erdiesteko bidean tartekatuta ahal zaizkion oztoporik handienak ere gainditu ahal izango ditu, bai, baina alde aurretik bere burua horretarako gai ikusten badu, bestela ez. Tragedietako protagonista errege, printze eta halakoak izaten ziren, hots, boteretsuak eta edozertarako gai. Ustez behintzat. Ustez bai, zeren eta tragediako protagonista grina hutsaren mende eta ezertarako ezindurik baldin balego ez bailuke ezer egingo, grina horren indarrarekin eta guztiarekin ere. Grinaren indarrak azken bururaino eramatea eskatzen dion ekintza horrexetaraino eramateko baliabide askirekin ikusiko ez balu bere burua, ez lioke inondik ere bideari ekingo.

Erromantizismoaren garaiak kate instrumentalaren beste osagarri bat ere hartzen du kontagai: grinaren grinaz subjektuak bere buruari ezarritako helburuak erdiesteko ezintasuna. Eta ezintasan sentimendu horrekin batera horra larrimina eta depresioa.

Patuak guretzat gorderik dituen azken jomuga horietarainoko bide luzean barna pausoz pauso goazelarik badira nabarmendu beharreko bi denbora. Denbora horietako nola taxutzen edo gauzatzen den, subjektuak helburuak erdietsiko ditu, edo ez ditu erdietsiko eta bidean lotuko da, geldi:

- Hurrengo zereginaren balorazioa, norberaren baliabideekiko eta zailtasunekiko erlazioari dagokion aldetik begiratuz.
- Buruturiko zereginaren ebaluazioa.

Bi ebaluazio horiek elkarri estu lotuak dira. Gai izatetik gai sentitzera bada aldea.

Aipatu denbora bi horien deskribapenari dagokionez, berdin dio batarekin nahiz bestearekin hasteak, elkarri erreferentzia egiten diotenak baitira. Lehenagoko helburuekikoan nola joan zaigun, ondo ala txarto, horrexen araberrako asmoekin ekingo hurrengo helmugarako bideari. Azalpenak argiago emate aldera, ordea, denbora biotako lehenari ekingo diogu lehenik, eta bigarrenari bigarrenik. Hala bada, honen hurrengo lerroetan helburu berriren bati ekitekotan den subjektua aztertuko dugu. Esan, aurretik, lehenagoko ekintzan -edo ekintzetan- sorturiko gaitasun sentimenduari esker hurrengo datozen ekintzei baikortasunez ekitea ekarri ohi du.

4.6.2.1. Gaitasunaren ebaluazioa

Esplorazio eta jolas jokabideari eskaini diogun atalean zehatzago azalduko dugun bezala, bizitzako lehen lehenengo urteetan finkatzen dira ekintzarako gai izatearen sentimenduaren oinarriak. Loturazko irudiekikoan atxikimendu segurua garatu duen haurrak horiexengan bilatuko du portu segurua, behin esplorazio jokabidea abiatuz gero. Horiexengana joko du, hain zuzen ere, esploraziozko joan-etorrietan zerbaitek izutu egiten duen aldiro. Loturazko irudiak, berezko dituen eskarmentu eta soseguari esker haurrari izua uxatzen laguntzen dio eta, bide batez, hain beharrezko duen konfiantza itzultzen dio. Horrela, haurrak esploratzen jarraitzeko adorea eta kemena berritzen dizkio. Haurrak berriro ekingo dio lehenago izuagatik edota ezintasun faktikoagatik porrot egin dion ahaleginari, behar adina aldiz saiaturaz, harik eta halako batean arrakasta erdietsi arte. Saiakeraz saiakera haurrak bere buruaz sortuko duen irudian gai den norbait ikusiko du islaturik. "Itxaron egonarriz, iritsiko da eta" esan ohi da.

Haurrak bere buruari dion konfiantza eta besteri diona elkarri eragiten diotela da aipatu atal horretan indartuko dugun beste ideia bat. Subjektuak bizitzan barna bere buruaz egingo dituen ebaluazioen ardatza mapa operatzaile horixe izango da. Bere buruari konfiantza baldin badio, eta bestenganako konfiantzan ere baldin badu, gaitasunak ahuldu egiten zaizkiola igarri bezain laster delako beste horrexengana joko du, horrela eginez bidean agertu ahal zaizkion oztopoak saihestu eta arrakasta iritsiko da.

Oztopoei, ihes egin beharrean, ekin ekingo die, harik eta oztopook menderatu arte. Halaxe, ikasleak bere bururekikoan nola irakasleenganako duen konfiantza horrek gai berriei ekiteko orduan ziurtasuna emango dio eta azkenean gaiok ere gustua hartuko die. Horrela, berritasunek ez diote atzez eragingo ikasleei, ez diote ezta ere oztopo egingo kognizio aparailuari eta horrez gero adimenak ematen dizkion gaitasun guztiak erakusteko modua izango du. Hezitzailearen zeregin nagusia ikasleari konfiantza helaraztea da. Hala bada, hezitzaileak gelan landuko diren gai berriak ikasleari honek dituen baliabideen mailaraino azaltzea da, horrela delako ikasleak, ikaratu eta gaiok irristezinak iritzi atzez egin beharrean, bere irispidean direla ulertu eta gustura ekingo die. Irakasleak horrela ikasleen begietara objektu zail eta gaindiezin legez ikusten izan den gaia erraz eta interesgarri bilakatuko da. Interesgarri irizte horrek esplorazio jokabidearen abiarazlea da, haren parte ere baden aldi berean.

Desioaren aktibazioan goi mailetara iristearekin batea ikasleak helburuak idealizatzea joko du eta horren ondorioz hura erakarmen indar handia duten eszenategi indartsuetan sartuko da, eta horiexetan jarriko du arreta edo aditasun guztia. Idealizazioa handiak duen fakultatea da. Haurra gai

berriak edo oso interesgarriak zaizkio, edo izugarriak iruditzen zaizkio. Hala bada, subjektuaren konfiantza maila behar bezainbestekoa ez baldin bada larridura sortuko zaio, bata bestearen mailakoak izanik, hots, konfiantzaz eskasago ikaslea, larritasun minagoa harena. Helburuak iristezinago ikusi eta orduan eta izugarriago iritziko die ikasleak haiei. Horrek ezintasun sentimendua dakar, noski. Horren hurrengo pausoak gogo eza beheraldia izango dira. Aldez aurretiko porrotak sorrarazten duen larritasunak gorputza paralizatzen du, eta adimena moteltzen. Azkenean, gurpil gaiztoa osatuz, ezintasuna areagotu eta porrot egiteko aukara errazten da.

Larriduraz egiten den ekintza, ilun eta atsekabetsua izaten da. Bizitzan tarteka-marteka garai txarrak izaten dira eta, halako tunel existentzialak igaro behar izaten ditugu, denok, noiz edo noiz. Konfiantza betean burutzen den ekintzak sorrarazten dituen sentimenduak, ordea, atsegina, jakingura eta oztopoei aurre egiteko gogoia izaten dira, bizi pozarekin batera.

Hezitzailearen eta irakaslearen zeregin nagusietako ba ikasleari beronen baliabideen arabera irisgarriak zaizkion tarteko helburuak jartzea da, horrela arrakastarako aukera izango du eta dituen gaitasun faktikoez jabetuz joango da. Porrota helburuak proposatzean eginiko hutsen ondorioa izaten da, beti. Eskolak, bestalde, etxeko heziketan izaniko balizko gorabeherak seguritate ezari loturiko sentimenduak eragin dizkien haurrei konfiantza berreraikitzen lagun diezaieke.

Lehenago ere esanda utzi dugun bezala, subjektua bere balizko gaitasunen edo ezgaitasunen aldetik -beraz, seguritate eta seguritate ezaren sentimenduez- bere buruaz osatuz doan irudia bizipen pertsonaletan, hezkuntzako erantzunetan eta kultura transmisioaren eremuan eraiki ohi da. Esaterako, ezintasunen kultura bidezko transmisioari sarritan ez zaio behar adinako garrantzia eman, ezta ere beldurren halaxe besteganatzeari ere. Matematikoak gizonezkoaren adimenak baino ezin mendera zezakeen jakintzatat jo izaten zen. Aspaldiko denbora haietan emakumeari ez zitzaion unibertsitateko ikasketetarako gaitasunik aitortzen. Areago, ez hain aspaldi langileen seme-alabak ikasketetarako gai ez zirelako uste ustela oso zabaldurik zen. Eta hala ere goi mailako ikasketetara iristen ziren emakumeek bere buruaz zeukaten irudia, kultura bidez berenganatua, gaitasun ezarena zen.

Orain artekoak gogoan hartuz eta laburtuz, hurrengoia esan dezakegu: bere buruarekin konfiantzarik eta segurtasunik ez duen subjektuaren desioak eta motibazioak estresera eta antsietara daramate hura, eta egoera horiek berriz gogo eza eta ekintzetan amoreta ematea eta depresioa dakartzate. Motibazioa arrakasta erdietsiko den konfiantza dagoenean baino ez da eraginkorra.

Helbururik gabeko subjektua izaki gogogabea eta aspertua da. Aldiz, gogotsua izan bai baina bere buruarekin zein bestekin konfiantzarik ez duen subjektua etengabeko estresean bizi da. Amaitzeko, desio eta xede handikoa izan bai baina gaitasun ezaren sentimendua bizi duen subjektuak geldi lotuko da, beheraldiaren zuloa hantxe kateaturik.

4.6.2.2. Buruturiko zereginaren ebaluazioa eta aitortza

Gaiari ekiteko oinarrizko kontzeptu bat edo beste berreskuratzea komeni da. Esan moduan, norbera gai izatea eta norbera gai dela sentitzea bizipen bi dira, oso elkarren ezberdinak. Kontu bat da gauzak ondo egiten jakitea eta egin egitea, eta beste bat oso bestelakoa norberak gauzak ondo egitearen ziurtasun osoa izatea. Hamaikatxo dira gauzak ondo egin bai baina hala eta ere beren buruari konfiantza ez diotenez ekintza berriei ekiten ausartzen ez direnak. Azkenok uste izaten dutena da, edo ez dutela ahal bezain ondo egin uste izaten dute, edo egindakoa balio gabeko dela. Eta honen harira, hona gure mahaiaren gainean ebaluazioaren gaia. Bada makina bat jende bere buruari ez dio aitortzen bestek begiradarekin aitortzen diona. Horrelakoek beti ibiltzen dira kexaka, gauzak hobeto egin ahal zirela esanez, edo bestela egindakoak baliorik ez duela edo aski ez dela diote, ez baita dira inoiz aserik sentitzen. Horien ebaluazio sistemaren betaurrekoekin horrelaxe ikusten baitute egindakoa. Beren barne-optika “ene, hobe egin zitekeen” delako irudipena eragiten die, edo bestela egindakoa “erabat perfektua izateko zer falta duen hasten dira bilatzen.

Arrakastak gogoaren goraldia dakar, subjektuari bakea ekartzen dio, eta berriro zereginei lotzeko adorea eman. Porrotak beheraldia eragiten du, ezertarako gogoia kenduz eta jokabide instrumentalak paralizatuz. Subjektua zeregina burutu beharra larritasunez bizi du, harik bere ekintza arrakastaz burutu dela ikusi arte. Ordura arte ez du atsedunik. Eta bere burua ezinean ikusirik amore ematen badu ere horren ondoren etorriko zaion atsedena aztoramenez kutsatua izango da, hark bere larridurari aurre egiteko defentsa mekanismoaren bat erabili ezean, noski.

Skinnerren paradigma sortu ostean argi geratu den bezala, arrakasta da indartzaile positibo ahaltsuena, eta zigorrik handiena, berriz, porrota. Aitzitik, ekintza jakin bat arrakastaz burutu izana eta arrakastaz burutu izanaren kontzientzia ez dira kontu bat eta bera. Era berean, ekintza porrotean amaitu izana eta norberak horrelaxe baloratzea ez dira beti bat etortzen. Zeren eta gure errealitatea ez da, ez, errealitatea bere horretan, guk horretaz dugun pertzepzioa baino.

Jokabide instrumentalak bere azken helburuetara iristeko egin behar izaten duen bide luze horretako bitarteko etapetan etapa horietako bakoitzak bere helburuak ditu, bere kalitate estandarrekin eta, beraz, horietatik ebaluatu behar dira etapa bakoitzeko zereginak. Hezkuntzan alderdi bi dira erabat garrantzitsuak:

- Subjektuari jarritako helburuak haren baliabideen gaintekoak baldin badira ekintzak ez du jomugarik erdietsiko, delako ekintza daitekeen eta modurik eraginkorrean burutua izan arren: porrot egingo du.
- Delako ekintza, daitekeenik eta modu eraginkorrean egina izan arren, ez baldin bada subjektuak dituen perfekzio estandarretara iristen, porrota!, haren eboluzioaren arabera.

Zeingura ekintza instrumentalari arrakastatsu irizteko, ezinbestekoa da, lehenik eta behin, haren helburuak subjektuaren baliabideen irispidean jarri izana eta, bigarrenik, haren perfekzio estandarrek ez izatea estandar idealei lotu, baizik eta delako subjektuaren adinari eta gaitasunen garapen mailari eska dakizkiekeenei egokituak. Bestela esanda, ekintza nork burutu behar duen, horrexen gaitasun eta asmoen mailara egokitu behar dira delako ekintzaren emaitzari buruzko irizpideak.

Hezkuntza sistemak haurrari erdiestea eskatu izan dizkion helburuak eta perfekzio maila haren garapeneko unean-uneko baliabideen gaintetik izan ohi dira sarritan. Seme edo alaba nagusiari gurasoek askotan haren gaitasunen gaintetik portaerak eskatu izan dizkiote; txikienari, berriz, haren gaitasunen oso azpitik diren ekintzak onartu izan zaizkio. Eskola sistemak ikasleen interesetatik urrun egon eta gainera horien adimen gaitasunetatik oso urrun ziren ulermen mailak eskatu izaten zituen, aspaldi.

Hamaikatxo dira adibideak. Garapeneko aldi egozentrikoan den umeari -hiru urtetik beherakoari- adibidez jarrera altruistak eskatu izan zaizkio, nahiz eta horretarako adimen gaitasunik ukan ez. Bestearen lekuan jartzeko eskatu izan zaio, noiz eta garatu duen adimen gaitasunak ez dio besterako ematen inguruan duen mundua bere ikuspegitik eta berari loturik ikusteko baino. Zentsuratuz, "berekoi" iritzi izan zaie.

Edo bestela lehia-portaerak ez erakustea eskatu izan zaio, ikaslearen adimen garapenak ezinezko egin arren hunkiberatasunaren gaineko maila horretako kontrolik. Horrela, haurra zauriturik sentitu izan da, eta moralki porrot egina. Hortxe izaten dira errudun sentimenduaren sustraiak. Hamaikatxo adibide legoke, hala nola ikasten ez duen haurra alfertzat jotzea. "Gai bada, baina alferra da", nazka eragiteraino errepikatu izan da. Horretaz, ordea, borondatearen gaia ekiten hitz egingo dugu.

Gizakiaren ontogenesian, bestek jarriak dira helburuak eta estandarrak. Lehenik hezkuntzako irudiek eta geroago, lanerako adinera iristean, agintariek eta ugazabek jarri ohi dituzte horiek. Horien begirada aldatuz joango da, aintzat zein jarrera duten haurrenganakoan, hots, aintzat haren helburuen tamaina eta perfekzioak noraino zaien axola. Horrela, batzuen begirada haurrak bere helburuak erdiesteko falta duenaren bila joango da; beste batzuen, ordea, haurraren ekintza jakin batek haurraren gaitasunei alderatuz duen balioa baloratzera zuzenduko da.

Begirada nolakoa den, ekintza bera arrakastatsu eta baliozkotzat zein porrot egindako eta balio gabekotzat jo liteke. Hala bada, "begiradan dago balorazioa", 8. kapituluaz azalduko dugun moduan.

4.6.2.3. Borondatea eta abulia. Arrakasta eta porrota eskolan

Borondatea, gure munduan hitza arrunki erabili ohi den bezala erabiliz, subjektuak helburu jakin bat erdiestearren oztopoak gaindiarazten dizkion ahalmen edo gaitasun hori da. Ahalmen hori, ordea, erabaki aske eta kontzienteari lotu izan zaio. Ondorioz, borondatea moralki gorai patua da, borondate eza gaitzetsia eta zentsuratua den aldi berean. Borondate eza, edo abulia, batzuetan eritza eta bestetan biziotzat jotzen da, bizio nozioaren adiera argi ez badago ere.

Bestalde, borondatea bera motibazio eraginkor iritzi diogun horretan adierazi ditugun faktoreen funtzioa da:

- Kontzientziaren eremuan hortxe izatea azken helburuak eta tartekoak ere; horiek aldi berean estimulu eta motibazio dira.
- Norberaren buruarekin tarteko helburuak erdietsiko diren konfiantza izatea, horien euskarria lehenago ekintzetan -aspaldiko eta aurretikoetan- erdietsirikiko arrakastetan baitatza.

Ikasle onak aurretiaz bizi du geroago erdietsiko duen arrakasta, ikasgelan adi egonez eta gogotsu ikasiz hain zuzen. Bere ekintzaren arrakasta bere asmoen guztien betetzea izango da eta, gogoan izan behar dugu asmo horiek jatorrian motiboak izan zirela. Arrakasta izango da haren lanaren motibo nagusia, baita ere indartzailerik positibo zein negatiboek dakartzaten motibo erantsiena.

Ikaslearen asmoen motoreak eta bere ekintzak arrakasta izango duen konfiantzak ikastea errazten diote. Ez du ahalegin berezien premiarik ia. Lan handia egiten du, baina ez du bereziki saiatu beharrik, zeren eta duen motibazio hain da indartsua non ez baitu akuilurik behar. Azkenik,

motibazioak arrakastaren bidez aserik, ikastea plazerezko ekintza bilakatzen zaio, Pauloventzako asoziazioen bidez hain zuzen. Gustua hartu dio ikasteari. "Ondo pasatzen du" ikasten.

Ikastea den ekintza erakargarri zaio "ikasle onari", horren esplorazio jokabidea aktibaturik dago, horren ondorioz ondo mamitzen ditu gaiak eta, azkenik, arrakasta erdiesten du eskolak eskatzen dion guztian; beraz, eskola arrakastari loturiko indartzaile guztiak hortxe agertuko zaizkio, alegia, laudorioak, ospea, gurasoen xera eta beste hainbat indartzaile positibo. Gorpila biribilduz, ikasteko denbora arrakastaren zain bizi du, lehenagoko arrakastak gogoan: bere baliabidea guztiak mobilizatzen ditu, ahalegin berezirik zertan egin gabe.

Aldiz, "ikasle eskasa" deritzon horren kasuan erabat alderantzizkoa gertatzen da. Nork daki horren historia latza ez ote zen hasi irakurtzeko zailtasunen batekin topo egitean, edo gai berriren batek eragin zion izuarekin. Gaiari zail irizten zaio, eta ikaste ekintza porrotera bidean ikusten da. Ikasle eskasa porrotaren eszenatokian bizi da. Jatorrizko eragile horien garapen esponontzial batek eskola porrotera darama ikasle hori. Eta aurkako erantzunetik beldurrak ikasten ahalegintzera behartzen badu ere, ikasteko modua memoriatikoa izango da, hots, ez du geroagoko ezagutza guztien oinarri eta zutarrak izango diren oraingo gaiak ondo mamituko. Buruz ikastearen mugak prozesatu beharrekoa informazio bolumenak ezartzen ditu. Buruz ikasteko metodo hori izuak edota indartzaile negatiboak eraginda etorri baldin bada, metodoak huts egin bezain laster larritasuna dator.

Beldurraren eraginez ikastea ez da atsegina. Ikasteari beldur izateak ikastea bera beldurgarri bilakarazten du, honetan ere Pauloventzako asoziazioak sartzen baitira jokoan. Ikastea, horrela, atsekabe eta mehatxu iturria da. Eskolako lanekin aurrez aurre, ikaslea urduritu egiten da. Irtenbide bi ditu, aintzat balizko zigorraren espektatibaren indarra: edo ikastea den aztoramenera makurtu, edo bestela hori saihestu, ihesean. Lehenengoetan gelako orduetan gora begira egongo da, beste muturrera joanik, "piper egiten" hasiko da, halako batean kaleko gazte-bandaren batean sarturik hezkuntza sistemari matxinatuz ekingo dio eta azkenik sistematik kanpo geratuko da. Informazioaren edozein gizartean eskola porrota ez da huts-hutsik eskola porrota; besterik ere bada, alegia, norberaren burua bizitzarako ez-gai den irudia osatzen laguntzen duen esperientzia. Ez zen horrela izaten, inondik ere, mundu informatuaz gainera mundu zabaleko beste eremuak hantxe zirenean. Gure industria gizarteotan, berriz, informazioak bizi-esparru guztiak ditu harturik. Hala bada, informazio guztia atzeman, norberaganatu, prozesatu eta operagarri egiteko gaitasuna norberak bere buruaz duen kontzeptuaren osagarri funtsezkoa da.

Lehiaren zentzua garatzearen aldetik eskolak lehen lehenengo milako rola betetzen du. Hezitzailearen irudiak -bigarren mailako zaintzailearena- portu seguruaren zeregina bete lezake, hots, berrikuntzekiko beldurra uxatzen duenarena. Horretara, haurraren esplorazio-jokabideen alde egin lezake, eta horren ondorioz haurrari errazago egin bere helburuak erdiesteko behar dituen jokabide instrumentalak erabiltzea. Gizakia arrakastarako egina da. Ildo horretan hezitzailearen zeregina haurrari denean arrakasta lortzeko bidea erraztea da: egiten utziz, bai, baina arrakastara iristeko beharko lukeen balizko horixe jarritz ere.

4.7. Amaitzaileak diren ekintzak

Horiexetan ixten da Jokabide Zirkuitua. Hasle estimuluetako asko estimulu amaitzaile era badira. Berezko jokabidea estimulatzeari buruzkoan espezifikoak diren errealitatearen konfigurazio horiek, berezko jokabidearen osagarri guztien mugimendua eragiten dute: motoreak, neurobiologikoak, emozionalak eta irudimenezkoak. Berezko jokabidearen osagarri guztiek beren azken burura iristen dira estimulagarri zaizkien konfigurazio guzti horiekin topo egitean: instintu tentsioa deskargatu egiten da eta subjektua baretu egiten da. Aipatu bezala, honi "Esperientziaren Zikloa" (Zinker, 1999) delakoak Gelstat ikuspuntutik egiten duen ekarpena alderatu ahal zaio.

Berezko jokabidearen erabat azken-azken bururaino eramateak plazera eragiten du. Tartean geratuz gero, edo erabat huts eginez gero, frustrazioa eta ondoeza datoz. Subjektuaren zoriona zertan datzan eta, hark jokoan sartu dituen berezko jokabide guztiak modu harmoniatu eta erabatekoan burutzean datza.

Desioa bere azken burura iristeko unean zein horraino bidean, berezko jokabidea aktibatua izan denetik horren amaieraraino alegia, agerian geratuko da desioaren konfigurazioan izan den horren osasuna edo bestela patologia. Horiei "neurosi" izena eman zieten, mediku hizkeran hitzak "nerbioen degenerazio" esan nahi baitu. Aitzitik, horiek baino nahasmendu larriagoekin aurrez aurre suertatu zirenean, hizkera arruntean eromen irizten zitzaizkien kasuekin alegia, horiek "arima edo psikearen degenerazioa" zirela iritzi zioten. Halaxe, "psikosi" izena sortu zuten. Hitzok hor segitzen duten arren ez dute ezer adierazten, edo argitzen.

Aitortu eta esan beharrekoa da, aldiz, berezko jokabideen inhibizioak zein horien burutze aldatuek ondorioak dituztela berezko jokabideetan eurretan, hala horien dimentsio neurobegetatiboetan nola emozio eta irudimenezko dimentsioetan ere. Nahasmendu neurobegetatiboek organismoari denetariko alterazio funtzionalak eragiten dizkiote, alegia, gaixotasun psikosomatiko irizten zaizkien horiexek. Emozioen eta irudimenaren nahasmenduek, berriz, antzina nahasmen neurotikoa edota perbertsio irizten zitzaizkienetara daramate.

1. JOKABIDEAREN TEORIA OROKORRA

Laburbilduz, subjektuaren berezko jokabide guztien erabateko asetasunak eskutik dakartza haren zoriontasuna, inguruarekiko haren harremanen harmonia eta haren gorputz osasuna, jokabideok dituzten irudimenezko eszenatokietan eta emozio-xehetasunetan baitatza gakoa.

fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok

2

BIOLOGI ERRITMOAK ETA SINKRONIA

BIOLOGI ERRITMOAK ETA SINKRONIA

>> 1. HELBURUAK


Atal honetan aurkeztuko diren lan eta irakurketen bidez erdiestea proposatzen diren helburuak hurrengoak dira:

- Biologi erritmoen eraketa ezagutzea.
- Biologi erritmoekiko errespetuaren garrantzia ulertzea.
- Biologi erritmoak gogoan ez hartzeak izan ditzakeen ondorioen kontzientzia argia izatea.
- Biologi erritmoek sinkroniarekikoan eta ziurtasunean oinarrituriko harremanekikoan duten lotura edo zerikusia.

>> 2. EGOERA

Hilero bezala gaur ere ikastetxeko haur-hezkuntzako irakasle guztiak elkarrekin bildu dira, beren irakasleztaren nondik norakoa aztertzeko eta, era berean, zeinek bere jardunean antzeman dituen oztupoekin aurre-aurrez hartu beharreko bideak eztabaidatu eta kontsentsura iristeko helburuz bildu ere.

Haur hezkuntzako taldeko kideak hurrengoak dira:



Hitza hartzen lehena Julene izan da. Julene 23 urteko emakume gaztea da, alai eta ekinkorra. Ikasketak iaz bukatuak, oraingo hau berai da haren lehenengo tutoretza-erperientzia. Juleneren kontratua irailan hastekoa bazen ere, ekainean ere ikastetxera etorri izaten zen, gero ikasturtean beraren taldea izango zenaren ikasgelara hain zuzen. Horrela bada, ikastetxearen filosofia eta irakasleria ez ezik berea izango zen taldeko ikasleak eta familiak ere ezagutuz joan zen.

2. BIOLOGI ERRITMOAK ETA SINKRONIA

Julene gaztea da, bere buruarekiko kritikoa eta zorrotza. Bada, sarri askotan zalantzan jarri izaten ditu gure erabakien oinarrian diren zioak edota irizpideak. Eta hurrengo azalduko dugun egoeran berea erdietsi egin zuen, bai horixe.

Julene: Aste honetan zalantzarako arrazoi ugari izan dut, bi urteko haurren gelan siesta kentzeko izan ditugun oinarritzko motiboen aldetik batik batik. Badakit ikastetxe honetan ikasturtearen azken aldera siesta hori kentzeko ohitura historikoa dagoena. Oker ez banago helburua zera da, hurrengo ikasturterako bidea erraztea, ezta? Hiru urtekoen gelan ez da eta siestarik egiten. Bai?

Mari Karmen: Bai, halaxe da, Julene.

Julene: Ba gelako dinamikan izan dugun aldaketa hau dela eta, eta Mari Karmenekin kontsultatu ondoren, ezer aldatu aurretik gurasoekin biltzea otu zitzaidan. Hortaz, joan den astean eskutitza igorri nien, bileraren eguna eta arrazoiak azalduz, ohi dugun moduan. Ba, ezin duzue ezta imajinatu ere siestaren kontu honek ekarri duen atzea! Gurasoetako batzuek ez dute iritzirik eman; beste batzuk, ordea ... Batzuk kezkatuak etorri zaizkit, esanez hau ez dela ez siesta kentzeko une egokiena, beraien haurrek urte biak bete berri dituztela eta, haurrei loaldi hori ezinbesteko zaiela ...

Josu: Imajina dezaket, bai; Julene, zera, orain urte batzuk berdintsu gertatu zitzaidan ... eta hurrengo urtean zure oraingo egoeran izango naiz ... Gurasoek, batez ere haur txikiak dituztenek, haurro siesta kentzeak ustez behintzat aldaraziko eta haserrealdiak areagotuko dizkielakoan, ez dute begi onez ikusi izaten erabakia. Hala eta guztiz ere, eta hurrengo ikasturtera begira, erabakia zuzena delakoan nago.

Julene: Ja, baina niri halako zalantza potoloa sortu zait ze, egia esateko, gurasoetako batzuek adierazi didaten kezkarekin bat egiten dut. Urte biko haurren gelan badira urte bi eta erdira iristen ez diren haurrak. Beraz, begi-bistakoa da batzuen eta besteen premiak ezberdinak direla, ezta?

Ane: Bai, Julene. Baina ezin ahaztu duguna zera da, batzuek siestaren premiarekin segitzen duten artean, edo aldi berean, premia hori ez duten beste batzuk ere badirela. Eta ezin dugu ahaztu, ezta ere, hurrengo ikasturtean ez dutela aukera hori izango.

Agurtzane: Ane, ez dut uste erabakirik hartu behar dugunik, ez baten alde ez bestearen alde; gakoa zera litzateke, batzuen eta besteen premiei erantzun ahal izatea haurretako bakar bati ere kalterik egin gabe.

Miriam: Horixe ba, noski! Esango didazu ba hori zelan egingo dugun.

Josu: Adin kontua baldin bada, talde bitan banatu ahal dira: hiru urteak baterik dituztenen taldea batetik eta oraindik bete ez dituztenena bestetik. Azkenoi siesta orduarekin segitzen utzi ahal zaie ...

Julene: Siestaren premia ez da adin kontua. Badira hiru urteko haurrak, siesta eskatzen segitzen dutenak. Horien artean badira loaldi luzea eskatzen dutenak, eta badira lo-kuluxkatxo batekin aski zaienak. Kontu honek uste baino ertz gehiago ditu.

Miriam (*pittin bat nahasturik*): Zera, zer esan nahi da? Lekuak eta orduak kartara antolatuta behar direla, horrela gure ardurapean ditugun haurren premiei hobeki erantzun ahal izateko? Hara! Siesta gora eta siesta behera, ez dut uste gai hau hemen eztabaidan denbora alferrik emateko bezain inportantea denik. Ikasiko dute, ezta? Ohituko dira siesta gabe egoten, ez ala?

Mari Karmen: Miriam, entzun, nire ustez gai hau bada garrantzizkoa ... premia duenari atsedenerako tartetxo bat emateak edo ez emateak, horrek gero arratsaldean eskainiko zaizkien jardunetan parte hartzeko modua baldintzatu ahal du; haurrak adiago egon ez egon, beste haurrekiko harremanetan ... Nekaturik egonez gero haurren parte hartzea makalagoa izango da eta konfliktoak areagotzeko arriskua dago. Bilera honetan aztertzen ari garena zera da, ea siesta horrela kentzearena ohitura egokia

den ala ez. Iritziak bat baino gehiago dira, argi dago! Hala eta guztiz ere, ebatzi beharrekoa aho batez ebatzi behar dugula uste dut. Adin-tarte batean egiten dugunak eragina izango du-eta hurrengoan.

Miriam (*ironiatsu, honelaxe jarraitzen du*): Ba horrela jarriz gero nik neuk badaukat beste proposamen bat: zer dela eta ez ditugu jangelako ordutegiak ere egokitzen? Badira beren ordua ez dela eta jan nahi ez duten haurrak; beste batzuk, ordea, goizeko lehen ordutik daude gurekin ...

Mari Karmen: Arrazoa! (*Miriamek nahasturik begiratzen dio, Mari Karmenek azaltzen segitzen duelarik*) Jatorduei buruz ere eztabaidatu behar izango genuke, horiek une egokienetan egiten ote diren.

Agian zuk zeuk ere bizi izan duzu orain arte azaldu dizkizugun egoeretako bat edo beste, edo antzekorik behintzat; eta horrela ez bada ere, litekeena da zure irakaste-jardunean horien antzeko zalantzak sortzea.

Hala bada, zer deritzozu azaldu zaizhigun kezkek aztertzen baditugu eta haurren premiei egokituko zaien erantzuna eskaintzeko erabili behar ditugun irizpideak finkatzen baditugu?

>> 3. HAUSNARKETARAKO GALDERAK

Irakur itzazu hurrengo galderak adi-adi, eta gero idatz itzazu zuk zeuk emango zenituzkeen erantzunak eta horien zergatiak edo arrazoiak. Erantzunak eta zergatiak idaztea garrantzikoa da, zeren eta edukien atala irakurri ondoren berriro etorriko baikara horietara, atal honexetan azaltzen ari garen marko teorikotik aztertzeko helburuz etorri ere.

- Nork du nori egoki beharra? Nagusiak haurraren biologi erritmoetara ala haurrak adinekoenetara?
- **Loa**
 - Lo egiteko orduan haur guztiek antzeko patroio edo ereduari erantzuten al diote?
 - Haur guztiek izaten al dute lo egiteko premia berbera?
 - Zenbat orduz lo egin behar dute hurrek?
 - Egun bakarrean zenbat siesta-aldi izan litezke? Noiz?
 - Zein adinetara luzatu behar da siestaren ohitura? Zergatik?
 - Siesta garrantzikoa al da? Zergatik?
- **Esna-aldia**
 - Esnatzeko orduan haur guztiek antzeko patroio edo eredu bakar bati erantzuten al diote?
 - Haurra esna dagoelarik, orduantxe al da elkar-komunikaziorako une egokia?
 - Haurra lo den artean jostatzeko ordua iristen baldin bada hobe hura esnaraztea garrantzikoa delako haurraren beraren garapenera begira aberasgarria den esperientzia ludiko horretan parte hartzeko aukera gal ez dezan?
- **Elikadura**
 - Jateko orduan haur guztiek antzeko patroioari erantzuten al diote?
 - Jatorduetan, noraino da beharrezkoa haurraren beraren berezko denborak errespetatzea?
 - Jatorduetan, noraino da beharrezkoa haurraren beraren biologi erritmoak errespetatzea?
 - Jateko ordua iristean lo baldin badago haurra, esnaraztea komeni da? Zer dela eta?
 - Haurrak nahi eta nahi ez jaten behartu behar ditugu? Zer nolako arriskua dakar horretara ez behartzeak? Eta behartzeak?

>> 4. EDUKI KONTZEPTUALAK

Atal honetan irakurleari erritmo biologikoen egituren oinarrian diren hastapen teorikoak azalduko zaizkizu, era laburtuan. Hastapenok hezitzaile ororen jardunaren euskarria beharko lukete izan, haurren behar eta premiei erantzuteari dagokionez bederen.

4.1. Biologi erritmoen definizioa

Erritmo biologiko zero deritzogun, denbora tarte jakin baten inguruan antolatuak diren eta horrez gainera ziklikotasunez ageri diren jokabideei deritzegu erritmo biologiko, edo biologi erritmo. Biologi erritmoak askotarikoak direnez, horietako bakoitza definitzeko kontutan hartu behar da delako hori zein denbora-tarteren edo zein aldiren arabera antolatzen den. Eta hain zuzen ere funtzio biologiko jakin bat definitzeko orduan gogoan hartu behar da, batetik, funtzio biologiko jakin hori zenbatero birsortzen den eta, bestetik, ea birsortzen den aldiro aurrekoetan bezalaxe edo era berdinean agertzen den. Aipaturiko aldi edo tarteon arabera, biologi erritmoak hiru multzo edo familia nagusitan sailkatu ahal dira.

- Zirkadiar erritmoak, edo egunerokoak: Erritmoak gaua-eguna txandatzearen arabera antolatutakoak dira. Agerikoena loa-esnaldia da. Hain zuzen ere, berau dugu erritmoetan garrantzizkoenetakoa, gainerako guztien antolamenduaren ardatza dela uste baita.
- Ultradiar erritmoak, edo erritmo azkarrak: Erritmo hauek eguna eta gauaren elkar txandaketenak baino askoz laburragoak diren tarteon arabera antolatzen dira, hortxe izanik, besteak beste, bihotz-erritmoa, gorputzaren tenperatura, gosea, egarria eta aditasunaren mailaren gorabehera. Guzti horien egituraketa loaldia-esnaldia erritmoen mende egiten da, hein handi batean bederen.
- Infradiar erritmoak, edo erritmo geldoak: Erritmo hauek eguna eta gauaren elkar txandaketenak baino luzeagoak diren tarteon arabera antolatzen dira. Ziklo hauen egituraketaren ardatza asteetako izaten da. Obulu-zikloa ere familia honetakoak da.

Sailkatu berri ditugun hiru familia horietarik lehenengo biak jorratuko ditugu testu honetan, horietatik baitira hezkuntzaren ingurumarian eragin handiena dutenak.

4.2. Biologi erritmoen antolakuntza

Hasteko, eta azaldu nahi dena hobeki ulertze aldera, erritmoak sinkronizatzaile jakin batzuei egokitzen zaizkiela argitu behar da. Sinkronizatzaileok kanpokoak nahiz barrukoak izan daitezke. Bada, erritmoak erregulatzen dituzten biologi elementu guztiak "barne sinkronizatzaileak" deritzen multzoaren barrukoak dira. Kanpo sinkronizatzailea nagusia,

ordea, eguna-gaua txandatzeara da. Haatik, eta horrekin batera, multzo horretan beste batzuk era aipatu ahal dira, hala nola eskola-erritmoak, orduategietan aldaketak edota beste meridiano batzuetara bidaiatzea.

Hala bada, aipatzen ari garen eritmoon erregulatasuna eragile biren mende antolatzen da. Batetik, organismoak badu bere ingurumena, edo bilaka-lekua (kanpoko sinkronizatzailea) eta bestetik hortxe dago gizakume bakoitzak bere berea duen nortasun-agiri neurobiologikoa, edo tenperamentua (barne sinkronizatzailea).

4.3. Biologi eritmoetan eragina duten aldagarriak

4.3.1. Jaio aurreko aldia

Gizakion biologi eritmoen antolamendua jaiotzaren aurretikoa da, antolamendu hori umontziaren barruko aldiaren hasten baita gauzatzen. Aldi horretan, umontzian den izakia amaren aldikotasunaren mende garatzen da, harexen bizi-eritmoei sinkronizatuz garatu ere. Hala bada, jaiotzen den unerako gizakiak badu bere historia, eta horrek eragina izango du ondorengo garapenean eta eritmoen erregulatasunean, bi-bietan. Beraz, garrantzizkoa da eragin hori zertan den ezagutzea, baita ere eritmoetan eragina izan lezaketen aldagarrien berri izatea, horrela errazago ulertu ahal izango baita haurraren geroagoko garapenaren nondik norakoa.

Umontziaren barruko aldiaren haurraren eta amaren arteko bategitea fisikoa da; hots, biologikoa. Amaren eritmoaren arabera taxutuz doan elkarren eritmoraren errenditze horretan, amaren eritmo horiek ez ezik, beste eragile batzuk ere zeregin garrantzizkoa jokatzeko dute. Horrela bada, amaren ingurumenari, jokabideei eta emozioei ere garrantzia eman behar zaie.

Ama izateko bidean aurrera doan horren irregulartasunak zenbait eragilerekiko zerikusia izan lezakete, esate baterako haren lan-ordutegiarekin (goiza-arratsaldea-gaua), bai aztoramen handiko aldiekin (lan-estresa, etxe-aldatzea, galera emozionala ...), edota insomnio boladekin eta, oro har, loaldia-esnaldia txandaketen erregulartasunari kalterako eragin diezaioketen beste emozioekin ere, hala nola depresioarekin. Aipatu ditugun aldagarriak edota eragile horiek guzti-guztiak dira kontutan hartu beharrekoak, haur bakoitzaren eritmoen antolamenduan gertatu ohi diren gorabeherak egokiro antzeman eta ulertuko badira behinik behin.

Hezitzaileak garen aldetik guri geuri dagokigun zeregina da gure ardurapean ditugun haur guztien eta bakoitzaren umontzi-aldiaren berri jakitea, horretara bakoitzaren patroia zein den ulertu ahal izan eta horren arabera agian egingo dituen eskariak aurreikus ditzagun. Egokiena gurasoei eurei galdetzea litzateke, noski. Adibidez, umetoki-aldiko lan-ordutegiak jakiteko. Horren eta horrelako beste informazio batzuen jabe izateak haurraren ingurumenari eta bizipenei egokituriko aurre

2. BIOLOGI ERRITMOAK ETA SINKRONIA

ikuspenak eraikitzeko beta emango digu. Aipatzen ari garen ezagutzak, hezitzaileoi, haur bakoitzaren premia bereziei modu sentiberaz eta kasuan kasuko aldagarriak gogoan hartuz erantzuteko bidea emango digu. Hitz gutxitan, aipatzen ari garen informazioak hobetu egiten du haur bakoitzarengan eragiteko aukera, eta erraztu jokabide-patroietan erregularutasuna ezartzeko bidea.

4.3.2. Jaio ondoko aldia

Arestian esan bezalaxe, umontzi-aldian izaki bien egokitzapena modu fisiko edo biologikoan izaten bada ere, besterik izango da jaio ondoko aldia. Bigarren horretan haurraren zaindaria bera (gurasoa, hezitzailea, ...) izango da haurraren biologi erritmoari egokitu beharrean. Hala bada, delako nagusiak haurraren premiak ulertu eta errespetatzen baldi baditu, alegia, sentiberatasunez jokatzeko baldin badu, erraz eta egokiro egingo du haurraren erritmoekin bat. Bat egite horri esker nagusiaren eta haurraren arteko elkar antzematea sinkronikoa (aldi berekoa) eta sintonikoa (sintonia berean) izango da. Horrela, delako nagusiak, gizartean alde aurretik ezarriak diren erritmoetara astiro baina etengabe egokituz eraman ahal izango du aurrera haurra.

Hala eta ere, bada gutariko hezitzaile bakoitzak bere buruarekikoan egin beharreko beste gogoeta bat; haurraren eskariak interpretatzeko norberak dituen moduari buruzko gogoeta, hain zuzen ere. Aipatzen ari garen akoplamendua bideragarri izan dadin ezinbestekoa dena, bestalde.

Arestian aipaturik dugun elkari errenditze hori bideragarria izan dadin, ordea, ezinbesteko zaigu haurraren eskariak ulertzeko edo interpretatzeko norberak dituen moduez edo bidez gogoeta egitea. Haurra logura edo gose denean, edo itzartu egin dela-eta beste norbaiten hantsa hortxe sentitzeko premia duen arren alboan inor ez duenean, esate baterako, adinekoari dei egiten dio. Bilaketako dei hori askotariko jokabideen bidez egin ahal du. Helburua bakarra da, ordea. Haurrak adinekoaren aditasuna bereganatzea edo erakartzea, eskari duen hori haren bidez eskura dezan.

Deiari erantzun ez erantzun, horretan jagoleak ez luke zalantzarik egin behar izango. Baietz erantzun behar du, zeren eta, horrelako deiak, sortzetikoak diren eta oraindino urrats finkoetan antolatuak ez diren premietan oinarritua baitira. Beraz, haurrak kanpotik laguntza behar du, hala horiek ordezkatzeko nola bere kabuz erregulatzeko.

Biologi errimok zertan diren ulertzea garrantzizkoa da, zeren eta azken batean haurren jokabideez zein interpretazio egiten dugun horrexek emango digu gure erantzunaren nondik norakoa ere. Horretara eginez adinekoaren erantzuna haurraren premiekin bat etorriko da, egokiro.

Haurraren barrenekoen nondik norakoa ulertze horretan aipagarria da ezen haren biologi erritmoari eragiten dioten aldagarrietako batzuk barrukoak direla

(intrapsikikoak, hala nola nekea eta gorputz eritasunak) eta beste batzuk kanpokoak (inguruarekikoak, hala nola ordu aldaketak eta etxe aldatzeak). Horiek horrela, biologi erritmoak erregulartasunetik ez-regulartasuneraino aukera-sorta osoa hartzen duen continuum bezala ulertu behar dira. Hortaz, halako batean haurren biologi erritmoetan aldaketaren bat izango dela aurreikusten dugun aldiro delako aldaketak eragin litzakeenak ulertzeko eta aurre egiteko prest egon behar dugu.

Bukatzeko, nagusia haurraren beharretara makurtu, horietara egokitu eta horiekin bat egiten duen arteko harreman sendoa sortzeko behar diren euskarriak sortuz doazela esan, hurrengo atalean ikusiko dugunarekin bat sortu ere.

4.4. Biologi erritmoen mende egitearen garrantzia

Atal honetan erritmo biologikoak zertan diren azaldu eta horiek errespetatzeak duen garrantziaz hitz egingo dugu.

4.4.1. Loa

Loaldian gertatu ohi diren fenomenoek, hala psikologikoez nola fisikoez, hura -loaldia-gizakiaren premiarik behinenetakoa izatea eragiten dute.

- **Loaldiko zikloen eboluzioa**

Lehenago ere aipaturik gauden legez, loaldia-esnaldia erritmoa eguna/gaua ardatzaren inguruan antolatuz bizi dugu, hots, 24 orduko aldietan. Hala eta ere, jaiotakoan loak ultradiar erritmoari egokitzen zaio, alegia, aldizkatze-maiztasuna handiagokoa da loaldia. Horren ondoren, astiro baina bai gabe, loaldiaren barruko tarterik luzeena gauaren muin-muinean erregulartasunez egonkortzen joango da eta, horrelaxe bada, 6 hilabetea aldera erritmo zirkadiarrera egokituz izango dugu haurra.

Haurra urte erdiko denean loaldia-esnaldia txandatzeko zirkadiar arauari erantzuten badio ere, hark oraindino ere badu ultradiar erritmoko bere aldia: siestarena. Haurrek siesta-aldi ondo berezitu bi dituzte. Goizekoa eta arratsaldekoa. Haatik, haurraren neurologia-aparatua helduz doan heinean berean aldion premia iraungiz doa, desagertu ohi den lehena goizekoa izanik.

- **Loaldi-zikloen arkitektura eta horren ondorioa garapen ebolutiboan**

Loa, zirkadiar erritmoaren mendekoa izanik ere, beste loaldi azpi-mota bitan eratua da. Bi horiek umontzi barruko aldian egituratuz doazenak dira, hain zuzen. Lo mota biok, bata lo motela eta bestea lo gorabeheratsua dira, bigarren horrek paradoxazko lo edo REM (Rapid Eye Movement -begi mugimendu azkarra-) delakorantz eboluzionatzen du, umearen neorobiologiaren aldetiko haztearen ondorioz hain zuzen. Bada, lo mota bi horiek ultradiar antolakuntzaren eraginpekoak lirateke.

2. BIOLOGI ERRITMOAK ETA SINKRONIA

Lo mota horietako bakoitzaren ezaugarriak eskematikoki azalduz dira beheko laukian.

1. laukia	LOALDI MOTELA
	<ul style="list-style-type: none">• <i>Elektroenzefalografia-uhinak motelak eta elkar sinkronizatuak dira.</i>• <i>Loaldiaren hasieran eta siestaren baitan izan ohi da.</i>• <i>Aldi honexetan jariatzen da hazte-hormona, zeinak gorputzaren berrosatzearekin zerikusi nabarmena baitu.</i>• <i>Adosturik dago aldi honetan egunean zehar pilatu den gorputz-nekea gainditzen dela.</i>• <i>Loaldian bizi diren ametsak eguneko bizipenen hondarretan oinarrituak dira. Amets gaiztoak, gau izuak, sonanbulismoa eta horrelakoak aldi honetan etorri ohi dira.</i>• <i>Loaldi mota hau lo lehenik asaldatua eta gero gorabeheratsu edo REM delakoa bilakatzen denaren aurrekoa da.</i>

2. laukia	LOALDI GORABEHERATSUA EDO REM
	<ul style="list-style-type: none">• <i>Elektroenzefalograma-uhin arin eta desinkronizatuak dira honen ezaugarriak.</i>• <i>Giharren hipotonia dago, alegia, giharrek bigun daude, beheja jota bezala.</i>• <i>Begi-mugimendu arinak ageri dira.</i>• <i>Loaldia sakon-sakona da.</i>• <i>Ametsak gehienak aldi honexetan etorri ohi dira. Ametsok, ordea, ez dute egunez bizi izandakoekin inongo zerikusirik. Aldi honetako ametsak bizi-bizi biziak eta indartsuak izan ohi dira.</i>• <i>Eguneko gorabeheretatik epe laburreko oroimenean gorde dena epe luzeko oroimenean kodifikatzea ahalbidetzen duten proteinen sintesiak gora egiten du aldi honetan.</i>• <i>Loaldi hau ez izateak, edo laburregi izateak ere, bere eragina dauka, hala aldarlean nola aditasun mailan.</i>• <i>Aldi hau burutu ostean, edo beste loaldi arin-arin bat dator, edo bestela esnaldira bitarteko urratsa dator.</i>

Hala umetokiko barneko bizitzan nola bizitzako lehenengo hiletan, lo motelen maiztasunaren aldean lo gorabeheratsukoaldiak askoz ugariagoak dira. Umea hazi ahala proportzio hori aldatuz doa, ordea. Lo gorabeheratsuen ezaugarriak gogoan hartuz gero, argiro ageri zaigu antolamendu horrek duen eboluzio-funtzioa, zeren eta haurrak bere ezagutzen gordailua betez joateko aukera baitauka horretara.

- **Gogoan izan beharrekoak**

Haurren loaz ari garelarik gogoan izan beti haur guztiek ez dutela lo premia berberak. Zein umek zein loaldi luzea edo laburra behar duen, hori bakoitzak bere neurobiologia ezaugarrietan sartuta dakar. Ezaugarri honen arabera kategori bi berezitu dira: loti handiak eta loti txikiak.

Tipologi bi horiek batzuen eta besteen lo-premiak aztertuz ondorioztatu direnak dira eta, haurren arteko alderaketak egiteko orduan ez dira esanguratsuak. Haur

bakoitzak atsedent-tarte jakin bat behar izango du, besteenaren berdina zertan izan ez duena. Hori ulerturik, ulertu beharrekoa da baita ere loaldia homogeen bilakatzeko ahaleginean jagoleek, askotan, aldiok murriztera zein inposatzera jotzen dutela. Bada, estrategia hori inoiz ez da bideragarria izango, sortzetiko edo berezko biologia-patroi jakin baten erritmoak agintzen baitu haur bakoitzaren loaren ezaugarrietan. Diogun moduan, patroia hori ez da ikasia, genetikoki dakarguna baino.

Hala bada, haurren loaldia era berezkoan eta haur bakoitzaren premiaren arabera izan dadin lekurik edota denbora egokirik ez baldin badugu, hezitzaileok esan nahi dugu, guk geuk eragotziko diegu motelak ekarri ohi duen gorputz-susperraldia, batetik, eta lo gorabeheratsuak berarekin dakarren ezagutzen oroitzea eta oroimenean gorderik atxiki ahal izatea.

Horiek horrela, loaldia murrizteari buruzko estrategiekin batera, bada loaldia denboraren galtzearen parekotzat duenik eta bada beste aurreiritzi hori ere, alegia, haurren hezi-prozesuan esku hartu edota hori zuzendu beharra daukala uste duenarena. Horiek bezalako iritzien eraginez haurrei jarduerak inposatu nahi izatea, proposatu egin beharrean, okerkuntza da. Haurra logura baldin bada, alferrik da motibaziorik ez duela esatea, behar duten lo egitea baita; alferrik da, era berean, jarduera jakin baten bidez ezagut dezaten hori ezagutzera bultzatzea, logale izanik ez baitute ezagutza hori mamitzeko erarik; alferrik, elkarreragina beroa eta atsegina izan dadin saiatzea baldin eta haurrak behar duena zer eta loaren atsedena bada, lortuko den bakarra hura -haurra- haserretzea baita.

Biologi erritmoekin bat egiteak duen garrantzirik dator siesta edo biaoari zaion begiramena. Loaldi hori loaldia-esnaldia ereduaren ultradiar osagarrietakoa da, gorputzaren nekea eta gauzez lo nahikoa egin ez izanaren kalteak gaintzera zuzendua dena bera. Horra zergatik den hain garrantzi handikoa haurrei horretarako behar duten tartearen ematen jakitea.

Siesta edo biao mota bi berezitu ohi dira. Lehena, goizaren erdia aldera ageri izaten da eta bigarrena, aldiz, bazkalostean. Haurren neorobiologia-aparailua helduz doan hein berean atsedendaldi horien premia ahulduz doa, guztiz iraungi ohi den lehena goizekoa izanik. Hala eta era hezitzaileok ezin ahaztu dugu bi aldiok baliagarri zaizkigula, aditasun maila baxukoak badira ere zaindu beharrekoak direna. Beraz, aipatzen dihardugun guzti hau gogoan hartu beharrekoa da, eguneroko jarduerak antolatzean batik bat. Haurren aditasun mailak aldakorrak baitira, esan bezala. Laburtuz, aldiok aditasun-maila baxua eskatzen duten jarduerak proposatzeko egokiak izan ahal dira.

Siesta mota bien jatorrian dagoen zirkardiar eredu horrek eragile biren mende aldatuz joango da: haur bakoitza zein orduetan esnatzen den eta haurretako bakoitzak zein loti tipologiari erantzuten dion.

2. BIOLOGI ERRITMOAK ETA SINKRONIA

Lehenengoari dagokionez, gogoan hartzekoa da haurretako bakoitza gaueko loalditik zein ordutan esnatzen den, zeren eta horrexek eragingo du ondorengo siesta-aldiak noiz agertuko diren. Eta hori horrela baldin bada, loaren ultradiar eredua, gogora dezagun hau, zirkardiar ereduaren arabera antolatu delako da. Hala bada, garrantzizkoa da zein haur zein ordutan esnatu ohi den jakitea, ezagutza horrek delako haurra noiz abailduko den eta atsedena noiz behar izango duen aurreikusten lagunduko digu eta. Guztien ordutegiak ezaguturik eta denbora-espazio baliabide egokiak erabilgarri edukirik haurren eskari guzti-guztiei sentiberatasunez erantzuteko gai izango gara.

Loti motei dagokionez, ordea, esan behar da joera nagusia dela gaueko loti ederrak egunez loti arinak izatea eta, ostera, gaueko loti arinak egunez loti ederrak izatea. Nolanahi ere, esandako hau ez bedi arau erabat finkotzat har, arren, gauez hain loti direnak egunez ere loti ederrak izan litezke eta. Ez da inola ere ahaztu behar, beraz, loaren eredua erregularitasunetik ez-regularitasunera doan continuum bakarraren ereduaren arabekoa dela. Ondorioz, ezinbesteko deritzogu hezitzaileak ondo jakiteari zein haur zein loti tipologiaren sailekoa den. Era berean, hezitzaile horrek haur bakoitzarengan eragiten duten barne nahiz kanpo aldagarriak zertan diren antzemateko gaitasuna behar du. Gaitasun horrek sentiberatasunez erantzutea eta erritmoak errespetatuz esku hartzea ahalbidetuko dio.

Azkenik, tentu eta kontuz handiz zaindu beharrekoak dira hala loak hartzeko uneak nola esnatzerakoak ere. Zeren eta loaldia-esnaldia egoeren arteko joan etorrietan eta norberarenganako nahiz inguruarekiko harremanean berriro sartzeko zein horrekin deskonektatzeko moduen aldetik haur bakoitzak bere bereak diren erritmoak baititu. Hortxe dira, esaterako, oso ekinor ibiltzetik loak hartura egotera tarte labur eta berehalakoan igaro ohi direnak, eta horiekin batera badira lasaitze eta desaktibaziora igarotzeko nagusiren baten laguntza behar izaten duten haurrak. Eta esnatutakoan ere berdintsu; badira bizitasun maila ezinonera bizkor iristen direnak, eta badira egunak ekarriko dituen zereginetara egokitzea kostatu egingo zaienak ere.

Hezitzaileek ezinbestez ezagutu behar direnak dira orain arte esandakoak, horiexen arabera egokitu ahal izango baitira haurretako bakoitzaren premietara. Aldez aurretik jakite horri esker, hezitzaileak erraz iritsiko dira haurra lotarazteko beharrezkoa den lasaitasuna iristeko eta gero haren ondoan soseguz egotera, iratzartzea edo esnatzea noiz datorren eta nola datorren zabaltasunez hartu ahal izango dutelarik.

Atal hau ixteko, eta iratzartzeaz ari garelarik, esan haurra esnatzeak ez du beti esan nahi loaldia azkenera iritsiko denik, baizik eta edo hotz dela, edo zarataren bat aditu duela, edo iluntasunaren beldur dela, besteak beste. Esnatze horien zergatia zein ere den, erantzunaren nondik norakoa beti berbera izan behar da. Haurra loalditik irtenarazi edo atera duen hori zuzendu behar du, lehenik eta behin, eta behin hori eginda haurrari loak berriro hartzen lagundu.

4.4.2. Esnaldia

Esna gaudelarik gertatzen zaizkigunak, hala buruaren aldetik nola gorputzaren egoeraren aldetik, hain dira garrantzitsuak, aldi hori ezinbestekoa baitzaigu.

- **Esnaldiko zikloen bilakaera**

Arestian aipatu dugun bezala, esnaldia-loaldia erritmoak eguna-gaua gurpilean gertatuz doaz, alegia, 24 orduko aldietan behin eta berriro errepikatuz. Hala eta ere, jaio berritan hala esnaldiak nola loaldiak ultradiar erritmoaren mende bilakatzen dira, esan nahi baita maiztasun biziagoz txandakatzen direla egoera biak. Haurra hazi ahala, berriz, esnaldi luzeena finkatuz eta egonkortuz doa, egunaren bihotzean bilatuz bere erdigunea, harik eta zirkardiar erritmora egokitu arte. Hori 6. hilea aldera gertatu izaten da, ordea.

- **Esnaldi motak eta horien eragina eboluzio-garapenean**

Behin urte erdiko adinera iritsita haurraren loaldi-esnaldi txandatzek zirkadiar ereduari erantzuten badio ere, esnaldiak ez dira homogeenak. Aldi nagusi horren barruan bi dira-eta argiro berezitu ahal diren moduak edo erak. Esna egoteko modu edo era bi horiek zerikusi nabarmena dute hormona jariatzearen gorabeherekin, hala nola kortisolarenarekin.

Bada, leba handikoa da esna egoteko modu edo era bi horiek umetokian bertan egituratuz joan direnak direla beti gogoan izatea.

3. laukia	ESNALDI LASAIA
<p><i>Esnaldi mota hau loaldiaren aurrekoa edo bestela esnaldi gorabeheratsuen ondokoa izaten da. Bere bereak dituen ezaugarriak hurrengoak dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none">• <i>Haurrak lasai daude.</i>• <i>Inguruari adi direla ematen dute.</i>• <i>Begiekin luzaz adi egoteko gai dira.</i>• <i>Eragile hauek guztiek elkarreragin sinkronikoa ahalbidetzen dute.</i>	

4. laukia	ESNALDI GORABEHERATSUA
<p><i>Esnaldi hau goizeko esnatze zein siestaren ondoko bi orduren buruan izaten da. Zehatzago, goizerdian eta arratsalde erdian. Esnaldi asalduaren ezaugarriak hurrengoak dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none">• <i>Gorputza asaldurik.</i>• <i>Horrekin batera inoiz negarrak, oihuak eta abarrak izan ahal dira.</i>• <i>Begiek ez diote luzez adi eusten.</i>• <i>Eragile hauek guztiek zailago egiten dute elkarreragin sinkronikoa</i>	

- **Gogoan izatekoak**

Nola loaldiarekin, halaxe gertatu ohi da esnaldiarekin ere, alegia, haur bakoitzak bere-berea duen eredu zehatz baten arabera antolatua dela. Hala bada, atal

2. BIOLOGI ERRITMOAK ETA SINKRONIA

honetan aurrekoan esandakoa berriro gogora ekarri behar dugu. Hain zuzen ere, izango dira loalditik asaldadura-egoera batera bat-batean igaroko diren haurrak, izango dira esnatze pausatua izanik aktibazio maila ezinonera igaroko direnak, eta ez da faltako ezta ere egunak ekarriko dizkion zereginiei egokitze eragozpenak edukiko duenik. Honetan argitu beharrekoa da kanpoko eragile zenbaitek aipatu egoera horiek aldarazi ditzakeela, hala nola, esnatzeko unean erreferentziazko pertsona hori (ama, aita, irakaslea, ...) ondoan ez izatea edota une horretan ingurua aldatuz topatzea (etxe aldatzea, haur eskolaz aldatu izana, ...).


Bada, garrantzizkoa da, garrantzizkoa denez, hezitzaileak ongi ezagutzea haur bakoitzak egunaren deiarri aurre egiteko duen erantzuteko modua, aipatzen ari garen guzti honetan izan daitezkeen gorabeherak ahaztu gabe, ordea. Adibidez, loalditik asaldadura-egoerara bat-batean igarotzen den haurrak behar-beharrezkoa du erreferentziazko pertsona (ama, aita, irakaslea, ...) hori izatea, lasaitu eta horrela aktibitate maila egokiro jaitsiko bazaio behinik behin. Hala bada, guzti horren jakitun den irakasleak ez du zertan amore eman kanpotik ezarri zaizkion ordutegien aldetik, lanekoak zein eskolakoak izan ordutegiok. Bestela eginez gero, haurraren barne-aktibazioari kanpotik etorritako aktibazioa erantsi behar izango litzaioke eta, delako haurra gorpil zoroan sartuko genuke (haur asaldatu, hezitzailea aztoraturik dagoelako; hezitzaile asaldatua, haurra aztoraturik dagoelako) eta behin gorpil hori jira-biran hasita desaktibaziorako aukera murriztu egingo litzateke.

Berdintsu esan dezakegu eguneko premiei egokitze eragozpenak dituen haurra dela eta. Ez baldin bagara gu geu hark esnatzean dakarren erritmora egokitzen eta berarentzat zoroa den gure erritmora etorritara nahi badugu, horra asaldadura eta aztoramena, horra beldurra eta horra haurra negarrez adostasun eza adieraztearren. Konfliktua, bada. Zergatik-eta pertsona nagusiak ordutegi jakin bati erantzun behar diolako (haur eskolan sartzeko zein irteteko orduak) eta haurrari ezinezko zaiolako goizeko erritmora hain arin egokitzea. Talka egite hori saihesteko bideak bat baino gehiago dira eta, hona hemen zenbait:

- Batetik, eta haurra eguneko zereginetara astirotsu egokitu dadin, beti dago hura goiztoago esnarazteko aukera. Estregia horrek, ordea, ez dirudi egokiena, loa errespetatzeak duen garrantzia eta horrek haurren garapen ebolutiboan duen eragina gogoan hartuz gero bederen.
- Bestetik, eskola-orduak malguago hartzeko aukera ere hortxe dago. Horrela eginez gero hezitzaileek haur bakoitzak gaueko zein siestako loalditik esnatzean izaten duen erritmoari egokitze aukera ukan dezakete. Abantaila, haurrak eskolan sartu eta irten, modu sosegatu, lasai eta beharkizun askorik gabe egin ahal izatea.

Laburtuz, loaldia eta esnaldiaren arteko zubia zubi ongi zaindua behar dugu, tentuz eta kontuz hartu beharrekoa, zeren eta esnatzea baita besterekin eta

munduarekin harremanetan sartzeko atearen atariko, nolabait esan. Gure aditasuna eta arreta haurren aktibazio edo abiarazte erritmoetan jartzeak hark esnatzeko eta bere burua kokatzeko behar duen denbora errespetatzen dugu eta, ondorioz, delako haurrak esaldia modu sosegatuan eramango du. Haurren egoera horrek, berriz, halako dantza baten antzekoan sartzeko bidea emango digu, hura eta erreferentziatzko pertsonaren arteko elkar subjektibitateak dakarren erritmo egokian dantzatuko dena, hots, biologia-denborak, jokabidearenak, komunikazioarenak eta beste denborak ere modu konpasatuan eramango baitituzte. Harremanetako harmonia edo sinkroni operatzaile hori berori izango da afektu-segurtasuna eraikitze euskarri sendoenetakoa, izan ere sendotasun hori delarik gizakiaren gainerako jokabide guztien oinarria.



Sinkronia operatzaile horretara iristeko beharrezkoa da esnaldian elkarri txanda hartuz kateatu izaten diren tartek: elikadura, higieena eta garbitasuna eta, azkenik, elkarreagina. Hiru tartek elkarrekin nola jokatzen duten gogoan, hiru hezitzaile-patroi ondo berezituak ditugu:

- **Lehentasuna higieena edo garbitasunari ematen dioten hezitzaileak**
Higieena edo garbitasunari lehentasuna ematen dioten hezitzaileek haurra

esnatutakoan jarraitu ohi dioten sekuentzia hurrengoa da: garbitasuna edo higiena, elikadura eta elkarreragina. Patroi edo jarraibide honen ezaugarria, beste bien aldean, denbora-antolamendua askoz zurrunagoa izatea da. Eredu honen barruan sailkatu ahal diren hezitzaileen ezaugarria da elkarreraginari ekitea beren esku hartzen dutenak izatea. Ondorioz, beren esku egoten da zer, non eta nola elkarreragina, haurrek adiera dezaketinari muzin eginez.

Horretan sailkatu ahal ditugun zaintzaileak betebeharraren zama handia bizi izaten dute. Adibidez, guraso bakarra izanik erantzukizun guztia beregan hartu behar duen hori, edo lan-ordutegi itogarria ukan eta horren ondorioz zurrun jokatzera eta berezkotasunari ateak ixtera beharturik den langilea, edo askotako familia izanda ere haurren premiei erantzunik ezin emanik direnak haurron seinaleei kasu egiteko astirik ez dutenak, edo bestela baita haur-ikastetxeetako irakasleak berak ere, baldin eta ordutegiak zurrun egituraturik eta aniztasunari erantzuten ez dioten espazioetan jarduten badute.

Eredu edo patroi honen araberako erreferentziazko pertsonak umea esnatu bezain laster egiten duten lehena zer izaten da eta, garbitasunak egin. Horrela, haurraren zainketan ezinbestekoak diren zereginok bat-batean eta presaka, laztan eta bihotz gabe eginak izaten dira. Horrela bada, haurrari horrek eragiten dion asaldadura edo aztoramenak hortxe iraungo du, egunak aurrera egin hurrengo aldi edo tarteetan ahala ere. Ondorioz, elikaduraren tenorea iristen denerako haurrak ez du atseginez hartuko bere gose-egarria ase izatea. Azkenik, hezitzaileok jarraibide duten elkarreraginaren eredu hezitzailea bera haurraren munduan era edo modu intrusiboan sartzen da. Haurraren premiak zertan diren unean-unean begiratu beharrean, bere ekintzen sekuentziari begiratzen dio, beste ezeri ez. Argi dagoena da eredu honetan sailkatu ahal direnek gaitzago dutela haurrekiko elkarreragina, sinkronia eta emozioen adostea erdiestea, hurrengo lerroetan azaldu ditugun beste eredu bietan baino.

- **Lehentasuna elikadurari ematen dioten hezitzaileak.**

Lehentasuna elikadurari ematen dioten hezitzaileak umea esnatutakoan jarraitu ohi dioten sekuentzia hurrengoa da: elikadura, higiena eta elkarreragina. Bada, delako jarraibidea, aurrekoa baino malguagoa izateaz gainera, haurrari argi aurreikusten uzten dio elikaduraren ostean garbitasuna datorrela eta azkenaren premia guztiak ase izango dituela.

Azaltzen dihardugun heziketa-patroi honen barruan badira haurraren hazteaz halako arduraz begiratzen diotenak haren elikadura-aldia konpromisoan jartzera irits baitaitezke. Horrelako erreferentziazko pertsonak elikadurari neurritz gainera garrantzia ematen diote, sarritan. Elikadurari hain adi egoteak, aldiz, haurrarendik etor litezkeen seinaleak behar moduan ez aditzea eragin lezake. Hala bada, pertsonok askotan, haurraren premiei adiago egon beharrean, beren izu-beldurrei begira jarduten dute.

Haurren hazte ondo neurtuarekiko obsesio horren menpe diren hezitzaileei batzuetan umearen loaldia eteteko eta jaten emateko gogoia sorrarazi ahal die, baita haurrak berak horrelakorik eskatu edota behar duen imintziorik egin gabekoetan ere. Bada, haurra bat-batean horretarako esnarazteak asaldadura eragin diezaioke hari, eta horrek berez elkarreraginaren sinkronizazioa zailtzen du. Hezitzaileak gose baino logura den haurrari jaten emateko ahalegina egin arren, haurrak berak, loguraz eta non dagoen galduta egonik ez du jan nahi izango. Erantzun horrek jaten ematen dionarengan kezka sorraraziko duenez, hark indartu egingo du bere jokabidea, alegia, haurren loaldia eteten jarraitu du. Nahi gaberik loaldia-esnaldia zikloan eragozpen egingo du eta, ondorioz, haurren hazte orekatuari ere traba egingo dio.

- **Lehentasuna elkarreraginari ematen dioten hezitzaileak.**

Lehentasuna elkarreraginari ematen dioten hezitzaileek umea esnatu ondoren jarraitu ohi dioten sekuentzia hurrengoa da: elkarreragina, elikadura, garbitasun edo higienea eta elkarreragina. Aurreko beste bien aldean eredu edo patroia hau malguagoa da, batetik, eta atxikimenduzko pertsonengan beste sentiberatasun bat erakusten du. Ezaugarriok direla eta, multzo honetako hezitzaileek ez dute eragozpenik jarraibidez aldatzeko, baldin eta haurren premiek halaxe egitea eskatzen badute.

Eredu honekin bat datozen hezitzaileak haurren loaldia-esnaldia erritmoarekikoan guztiz begiratuak direnez, ez dute eten izaten haurren atsedernaldia, ezta elikatu edo garbitzearen ere. Umea esnatu arte itxaron ohi dute, eta igaraldia modu pausatuan egin dezaten uzten diete. Horren ondorioz haurren esnaldia baketsua eta atxikimenduzko irudiarekin egoteko ezin hobea izaten da.

Bada, eredu honi egokitzen zaion hezitzailea zabal-zabal itxarongo du haurra elkarreraginerako prest dagoela adieraziko dioten seinaleak agertu arte. Elkar topatzean, biek, hala haurrak nola nagusiak, elkarri begiradak, irriak, barreak, laztanak eta hotsak (nagusiak hitzak esan eta horiei haurrak xaramelak eta zezelak eskainiko dizkio) elkarri opari eginez. Horrela sortu izaten den giroa beroa eta harmoniatsua izaten da, elkar ulertzen dutenen artekoa, nolabait esan.

Umearen eta nagusiaren arteko lehenengo elkartzeko hau luzeagoa ala laburragoa izango den, hori haren elikadura premiek aginduko dute. Eredu honetan sartu ahal diren hezitzaileak, jangaia irensteko tartea zaintzeaz kezkatzen badira ere, ez dira bizi haurren hazte neurrikoaz edo ponderatuaz larriturik. Beraz, ez dute elikaduraren fasera joko haurrak halaxe egitea eskatu ezean, eta beti ere eskatzen duen unean hezitzaileak bere burua sentiberatasunez eta xeratsu erantzuteko gai ikusten baldin badu, bestela ez.

2. BIOLOGI ERRITMOAK ETA SINKRONIA

Behin umearen premia hori aserik, haren gorputzaren zainketara jo ohi dute multzo honetako hezitzaileek. Horiek haurra era laztanberaz eta mimo handiz tratatzen dute, aurreko ataletan azaldu ditugun besteen aldean bederen. Sentiberatasun hori dela eta, larruzala laztantzea edota gorputzarekiko ukitua euskarri duten harremanak haurrak atseginez bizi izango ditu.

Elkarreraginaren aldiaren hurrengo urratsa luzeagoa izango da, edo laburragoa, aintzat hartuta umearen premiak zein diren. Nola ere den, eredu honen barruko hezitzaileak badut haurraren eboluzio-eskariei egokiro erantzuteko nahikoa sentiberatasun maila. Horrela, umea berriro lo egin beharrean izanez gero atxikimenduzko irudiaren esku hartzea haren afektu-segurtasuna sendotzera zuzenduko da, lotaraziz edo lo geratzeko bidean lagunduz zuzendu ere. Bestela izanda, hots, umeek atsedean beharrik ez baldin badute, multzo honetako hezitzaileak haiekin jolasean hasten dira. Erantzun biak dira egokiak, zein bere aldetik, eta biak ere biak haurraren bilakaeran eragin onekoak.

Amaitzeko, heziketa eredu horrek haurrak bere burua maitatua eta babesturik ikus dezan eta horrela mundura hala gauzak nola jendeak ezagutu ahala zabalduz joan dadin atxikimenduzko pertsonarengandik behar duen harreman-harmonia erdiesten laguntzen du.

4.5. Ondorioak

Ondorio nagusia argia da. Ez dago haurren eguna behar bezala antolatzerik haurren loaldi-esnaldi erritmo nagusiak eta gero haurrotako bakoitzak bere berea duen erritmoa gogoan hartu gabe. Beraz, espazio-denboraren antolamendua zein heziketa ereduarena, hala etxeoarena nola eskolakoarena, haurren neuropsikobiologi premiei egokiturik atondu behar dira. Alabaina, etxea eta eskolaren arteko oreka egokia erdiesteko bidean ezinbestekoa da elkar laguntzan eta auzolanean oinarrituriko harremana eraikitzea.

Azkenik, eta orain arteko guztia gogoan, zaintzaileak, hala lehen lehenengoak (gurasoak) nola bigarrenkoak (hezitzaileak), zaintzearen garrantzia gogorarazi beharra daukagu. Honi dagokionean gure helburua horien premiak ezagutzea eta partaide diren gizarte-sareari (jatorrizko familia, oraingoa) edota eskolakoari jakinaraztea litzateke, horien balizko esku hartzearen nondik norakoa aztertzeko. Haurraren lokarria eraikitzen joateko ezinbestekoa da etorkizunean sinkronia iristea, etorkizuneko sinkronia balizko horrek ostera egungoan behar du batekoen eta bestekoen bat egitea, eta bat egite horretarako ezinbestekoa da, azkenik eta esanda gauden moduan, zaintzailea zaintzearen gaia ere gogoan hartzea.

Helburu hori erdiesteko bidean gurasoei zuzenduriko eskola antolatzea egoki etor liteke. Eskola horretan parte har lezaketanak dira, besteak beste, osasun-zentroak, erditzen laguntzeko eskolak, udala eta eskola arruntak. Aurre-arretazkoa litzatekeen ekimen horren

bitartez zaintzailea guztiak zainduko lirateke, hala lehen-lehenengoak (gurasoak) nola bigarrenagoak (irakasleak), beti ere komunitateko haurren garapen ezin hobea erraztu lezaketen erantzun sentiberak eskaintzeko aukera adostuan oinarriturik beti ere.

>> 5. ARIKETA PRAKTIKOA

Atal honi ekin aurretik, gure ustez, kontzeptu-edukiei berriro ekitea eta zuk zuek lehenago emandako erantzunak berrikustea egokia litzateke. Berrikusketa honen helburua erantzunak eta egokienak ez diren justifikazioen birformulazioa da

Bigarren gogoeta-aldi honetan edukiak eta horien ondorioak hobeki mamitu ahal izango dituzulakoan, ... Behin zeregin hori beterik, jarrai irakurtzen eta ea ba atal honetan luzatu nahi dizugun erronka zein den asmatzen duzun!!!

Atal honetan orain artekoan jorratu ditugun edukiak euskarri, hezitzailea zaren aldetik zure eskarmentua berrikusten eta hobetzen lagundu ahalko dizun zeregin proposatzen dizugu.

Ikasturtearen hasieran ikastetxerik gehienetan gurasoei zuzenduriko batzarra antolatu ohi da. Bada, haur-heziketako hezitzaileoi, elkarlanean, gurasoei zuzendurik joango den biologi erritmoak errespetatzeari buruzko triptikoa apaila dezazuen proposatzen dizuegu.

Horren nondik norakoa zehazten lagundu ahal dizueten proposamen xumeak dira hurrengo galderak:

- Gogoan hartuz haurra haur eskolara lo ekartzearen ondorioak, zer aholkatzen diezue gurasoei gaiari buruzkoan? Zer dela eta?
- Zein dira, zuen heziketa-proiektuaren ikuspegian, siesta edo biragoari ikusten dizkiezuen aldeko eta aurkako alderdiak? Zein da iritzion oinarria?
 - Zehazturik al dago eguneko zein uneetan egiten duen siesta?
 - Ba al da ordutegirik?
 - Baiezkoan, zein?
 - Zein adinetan ahal da siesta egin? Zer dela eta?
- Eguneko zein unetan ez da haurra esnaraztea inondik ere zuhurtzat jotzen, eta zein unetan iratzarri ahal dira? Zer dela eta?

fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok

3

ATXIKIMENDU JOKABIDEA

ATXIKIMENDU JOKABIDEA

>> 1. HELBURUA

Atal honek eta jarraitzen dutenek Atxikimendu jokabidearen izaera deskribatzea dute xede, ezaugarriak, bizitzaren lehen hilabeteetan zehar ematen den garapen ontogenikoa, bizi-ibilbidea eta neurtzen duten sistemak. Bigarren liburuan, eskola mailan gai honek dituen inplikazioak zehaztuko dira.

>> 2. EGOERA

5 hilabeteetako umeen amak.

Lehenengo egoera:

- Pediatrak esan digunez umea negarrez ari denean negar egiten utzi behar zaio, era honetan autonomo izatera ohitu dadin. Auto-kontrola garatu dezan eta indartzen joan dadin on egiten diola.
- Ez, ez nago ados. Negar egiteak beti eragingo dio samina haurtxoari. Laguntza eske ari da. Edo molestiaren bat duelako edo gorputzarekin ukitu nahi gaituelako. Negar egitea esperientzia mingotsa da, beraz, mingostasun arrastoa utziko du eta aurrerantzean ezin izango du bizitzaz gozatu. Nire ustez, hurbildu behar gatzazkio, besoetan hartu edo, beharrezkoa balitz, gure ohera ekarri.
- Ez, zelako astakeria! Amak noiz hartu dezakeen eta noiz ez ikasten hasi beharra dauka. Jaiotzaz geroztik garatzen dute malezia eta ondo baino hobeto erabiltzen gaituzte. Bere negarrei erantzuteak apetatsu eta manipulatzailer bihurtuko du. Horrela ez da garatuko eta amaren menpeko bilakatuko da.
- Ez dut uste. Ez dakit non entzun dudan, hark eskatutakoan, bere ondora hurbiltzea maitasuna erakustea dela. Umea maitatua sentitzen baita. Eta maitatua den umea indartsu sentituko dela eta geroago independenteagoa izango dela.

Bigarren egoera:

- Nire umea oso lasaia da. Ez digu lanik ematen. Uzten badiozu egun osoa emango du lotan eta lasai sehaskan. Ez dugu laztanak egitera eta hitz egitera zertan joan beharrik.
- Bai zortea zurea, gure alabatxoa geldiezina da eta igarotzea ikusi ahala xaramelak egiten hasiko zaizu. Begiratzuz gero, irribarreka eta ostikoka hasiko da. Baina ez diogu kasu handirik egiten, ze bestela hitzontzi galanta bihurtuko zaigu nire senarraren amaren gisa, egun osoa ematen baitu itxurak egiten.
- Ba, ni ez nago ados. Ume irribarretsua ume zoriontsua. Eta adin horretan irribarre

eginez, ume atsegin eta alegeraren sustriak eraikiko ditu bizitza osorako. Nire ustetan, hilabete horietan haurtxoak gozatuz gero bizitzaz gozatzeko ahalmena garatuko dio. Umearengana hurbiltzen hasi beharko zenuke, hitz egiteari eta irribarre egiteari ekin, esnatutakoan atseginerako gaitasuna bere baitan mugiarazteko.

>> 3. HAUSNARKETARAKO GALDERAK

Hurrengo baieztapenetatik, zeintzuekin zaude ados? Zeintzuekin ez-ados? Zertan oinarritzen zara hori esateko?

- Amarekiko atxikimendu honek titia hartzeko dituen gogoak asetzen dizkiolako sortzen zaio umeari.
- Amarekiko atxikimendua nahiko independentea da titia hartzeko dituen gogoez. Bere gorputza ukitu dezaten dituen desioen eta mimoak eta laztanak jasotzeko ondorio gisa ematen da.
- Atxikimendu jokabidean jatorria duten gorputz ukitu eta laztanen eskaerak hasiera hasieratik hezi behar dira, amaren eta familiaren bizitza zibilizatura egokitu daitezen.
- Gorputz ukitu eta laztanen eskaerak bete-betean erantzun beharko dira, bestela, ondorengo garapen emozionalak kalteak jasango ditu.
- Umeak ez du, nahikotxo hazi arte, emozio, irudi eta erreakzio bizirik garatuko.
- Jaiotzaren lehen unetik jada, giza-haurtxoak gozameneko edo mingostasunezko emozioak, irudiak eta sentsazioak ditu.
- Haurtxoak bere amarekin duen erlazioaren harmonia, gorputz eta keinu bidezko elkarriketan adierazitakoa, gozamenaren jatorrian datza. Haurtxoaren gozamenean eraikiko dira, nerbio sisteman bertan, gozatzeko eta poztasunerako bideak, bizitzan zehar gozatu ahal izateko oinarriak ezartzen dituztelarik.
- Etorkizunean gozatzeko izango duen gaitasuna bere jite eta herentziari zor zaizkio. Beraz, ez du garrantzirik izango jasotako atentzio motak edota negar egiteak edo gaixorik egoteak.
- Erabile kausalek, barnekoek eta ingurumenekok jokabidearen aktibazio maila piztuko edo gutxiagotuko dute. Hauek ezagutzea eta kontutan izatea funtsezko gida izango da haurtxoa zaintzeko.
- Erabile kausalen nozioak bizitza psikikoaren ikuspegi mekanizista du jatorritzat. Atxikimenduaren jatorria maitasuna eta samurtasuna dira. Maitasuna eta samurtasuna ezin dira jokabide animalia mekaniko batera mugatu.
- Nerabe eta heldu bilakatzen denean desagertuko zaio atxikimendu jokabidea umeari.
- Atxikimendu jokabidea gizakiaren bizitza ziklo osoan mantenduko da.
- Negarra, irribarrea eta zizakadura gida fidagarriak izango zaizkie zaintzaileei jarraitu beharreko umearen heziketa portaerari dagokionez.
- Negarra, irribarrea eta zizakadura ez dira bat ere fidagarriak umearen manipulatzeko saiakeretan sustraitzen baitira. Tradiziozko esperientziak bermatutako irizpide pedagogiko zuzenak dira, zaintza eta pedagogia eginkizunetan gidari egokienak.
- Haurtxoak amarekiko duen atxikimendua eta maitasuna jaiotzaren unean bertan ematen da umeak duen instintuaren ondorioz.

- Gizaki-haurrak ez du loturarik gauzatuko bizitzaren 5. edo 6. hilera arte, beti ere zaintza hoberenak eskaini dizkion zaintzailearekin, nahiz eta lehen unetik erakusten duen nolabaiteko joera amarekiko, amaren sabelean izan duen esperientzia medio.
- Hastapenetik hezi behar dira haurtxoak, gurasoak eta anai-arrebak eta gainontzekoak kontutan hartu ditzaten. Xede honekin, ezin zaie nahi duten guztia uzten egin, ezta erantzuten ere ez. Irakatsi egin behar zaie eta, beharrezko balitz, errietan egin behar zaie ez daitezen egoistak izan.
- Hiru urte bete arte, haurtxoak ez du aukerarik izango berea ez den beste ikuspegi batetik gauzak ikusteko: ezta bere jagoleen ikuspegitik edota heziketa irizpideen ikuspegitik. Altruismoa irakasteak kalterik besterik ez dio eragingo eta hezitako-egoista bilakatuko du.
- 3. urtetik aurrera, bestearen sentimenduak eta motibazioak hautemateko gai izango da haurtxoa. Beraz, exijitu egin behar zaio besteak eta hauen beharrezkoak izan ditzan gogoan.
- 3. urteak ez du deszentratzearen hastapena besterik markatzen. Gaitasun hau hurrengo urteetan garatuko da progresiboki. Horregatik ezin zaio eskatu gainontzeko interesak eta motibazioak izan ditzala kontutan, oso pixkanaka ez bada.
- Pertsona egoistak eta egozentrikoak gizarte arauetan eta elkarbizitzan gaizki hezitako umeak izan dira.
- Pertsona egoista eta egozentrikoen jagoleak, haien lehen haurtzaroan, ez ziren bere eskakizunen zerbitzura jarri.
- Deszentrazioa prozesu kognitiboa eta emozionala da, ezartzen denean baldintzez gain mantenduko da.
- Deszentrazio kognitibo eta afektiboa gaitasun aldakorra da, egoera emozionalen menpe dago. Egoera emozional bizietan deszentrazioa gaitasuna egozentrismora itzuliko da. Une horietan, bere altruismoarako gaitasunaren kaltetan besterik ez da izango gainontzekoak kontutan izan ditzala exijitzeak.

>> 4. EDUKI KONTZEPTUALAK

Hurrengo baieztapenetatik, zeintzuekin zaude ados? Zeintzuekin ez-ados? Zertan oinarritzen zara hori esateko?

4.1. Atxikimendu jokabidearen ezaugarri orokorrak

Primate azpi-gizakian sortzen den lehen jokabidea atxikimendu jokabidea dugu. Rhesus primateak, genero honetako eskala ebolutiboan maila ertainean aurkitzen denak, jokabide honen programazio motor osoa hedatuko du jaiotze unean bertan. Jaioberriak bost puntutatik helduko dio aurkitzen dion edozein objekturi: eskuak, oinak eta ahoa. Mundu naturalean, objektu edo izaki hau bere ama izango da noski, zeinak harengana joko duen erditzea baino pixka bat lehenago aktibatuko den amatasun jokabideak (guraso jokabidea -ikus 11. kapitulua) eraginda.

3. ATXIKIMENDU JOKABIDEA

Giza primateari dagokionez, oso bestelako eran gertatzen dira gauzak kanpoko mundura azaleratzerakoan fetuak erakusten duen heldutasun faltagatik. Lehendabizi "imprinting-a" egingo zaio gizaki irudi bati, haurtxoa inguratzen duten objektu eta izaki guztien artean, eta geroago nabarmenduko da harenganako lotura. Seigarren hilabete aldera azalduko da lotura hau -gertaera ezberdinen arabera-: irudi honekin hasiko da harremanetan haurtxoa garapen motorrari esker. Ezarritako loturaren beste adierazle bat banatzerakoan ematen diren erreakzioen agerpena da. Bi adierazleok agertu baino aste batzuk lehenago, 4. hilabetearen amaieratik aurrera, beste seinale batek adieraziko digu haurtxoak jada aukeratu duela atxikimenduzko irudia: zuzentzen dizkion irribarreak eta beste jai-keinu batzuk eta amaren figurak lortzen duen barealdia. Haurtxoari arreta kantitate eta intentsitate gehien zuzendu diona bilakatuko da atxikimenduzko figura. Aukeraketa honetan, leku pribilegiatua izango du amak.

Umetokian egondako epealdi guztian zehar hartaz blaitu da fetua, bere usain, soinu eta motrizitateekin hain zuzen ere, eta blaitze honek jarraipena izango du bizitzako lehen hilabeteetan zehar. Beste alde batetik, baldintza normaletan, inongo gizakik ez dizkio amak "bere haurtxoari" eskaintzen dizkion bezalako arreta kalitaterik eta zaintzarik eskainiko. Hau dela eta, ohizko baldintzapean ama izango da atxikimenduzko lehen figura.

Atxikimendu jokabidea titulatu dugu kapitulu hau "Lotura Jokabidea" izendatu beharrean. Zorroztasun terminologikoaz ari gara kasu honetan. Arestian aipatu dugunez, eta zehatzago azalduko dugunez, ondorio didaktikoei dagozkien berezko jokabideak lau dimentsio dituela esan daitekeela: motorra, begetatiboa, emozionala eta irudimenezkoa. "Atxikimendu jokabidea" esamoldeak nozio orokorragoa du eta umearen eta bere figuraren arteko loturari zein ezartzeko joerari dagokie eta, jakina, aipatutako lau dimentsioak hartzen ditu bere baitan. Giza jokabideen zuhaitzaren berezko jokaeraren gaineko aurkibidean dimentsio motorra eta emozionala erabili ditugu izendatzerakoan. Era honetan, jokabide ezberdinak ondorengo esamoldeekin izendatu ditugu: "esplorazio eta kuriositate jokabidea" "ihes egite eta beldur jokabidea" eta horrela hurrenez hurren. Horregatik deituko diogu lehen jokabide honi atxikimendu jokabidea edo lotura afektibozkoa.

Atxikimendu jokabidea da lehendabizi azaltzen dena eta gainontzeko jokabideak eraikitzeko ardatza da. Horrela bada, esplorazio edo kuriositate jokabidea agertze denean atxikimenduzko loturaren sendotasuna erabiliko du mundu ezezagunean murgiltzeko oinarri gisa. Ihesa edo beldurra azaltzen direnean, atxikimenduzko figurak eta harekin ezarritako maitasunezko konfiantzak beldurra desagerraraziko dute eta mundua esplorazioko saiakeretan murgiltzea erraztuko dute. Berdinen arteko jokabidea azaltzen denean, beste ume batzueganako atxikimendu jokabideak lehen eta bigarren mailako zaindariengan erakutsitako atxikimendu jokabidearen ereduari jarraiki gauzatuko da. Maitasun jokabideari dagokionez, jokabide honen dimentsio sexualak lehen maitasuna gauzatu zen modalitateen erari jarraituz sostengatuko dira, maitatutako izakiak sortutako atxikimenduan. Borroka jokabideetan,

aztertuko dugun jokabidearen garapenean, maitatutako eta miretsitako umea indartsu sentituko da eta mehatxuaren aurrean ihesaren jokabidea lehenetsi beharrean aurre egitea eta borroka aukeratuko du. Jokabide honetan gerta litezkeen alterazioek era ezberdinetako perbertsioak eragingo dituzte, hala nola, perbertsio sexualak eta erasotzaileak. Atxikimendu jokabidea da ardatzean dagoen lehen jokabidea, berezko zuhaitz-jokabidearen garapenean. Horregatik eskainiko diogu lehentasunezko arreta. Atxikimenduaren Teoriaren adituek garatu dituzte teoriaren multzoa eta ikerketa faktikoak.

Lehen jokabide honen osagai eragilea atxikimenduzkoa da edo pribilegiatutako figuratik hurbil mantentzea, jokabidearen aktibazio intentsitatearen arabera beti ere. Bere garaian adierazi moduan, gozamen sentsazioak eta gozatze emozioak (endorfinak eta sari sistemak) sostengatzen dituzten mekanismo neuro-fisiologikoen arabera izango da alderdi neuro-biologikoa.

Kapitulu honetan atxikimendu jokabidearen behaketa-alderdiak aurkeztuko ditugu, hau da, bere osagai motorra. Atal berezia eskainiko diegu barne osagaiak: irudimenezkoak eta emozionalak. Lehen harreman honetan zabaltzen diren hartu-eman mugimenduak behaketaren dimentsioren ikuspegitik deskribatu dira jokabide eritmoen gaineko aurreko kapituluan. Barne osagaiak dagokien atalean, harreman honen bizipen emozionalak eta irudimenezkoak deskribatuko ditugu.

4.2. Atxikimendu jokabidearen izaera

Lau dimentsio nabarmenduko ditugu atxikimendu jokabidean:

- Dimentsio motorra atxikimenduzko figurarekin hurbiltasuna eta atxikitzea mantentzeko egin beharrekoan datza. Hurbiltasun eta atxikimendu hau zeinu espezifikoei esker lortuko da, hala nola, negarra eta umetxo bere atxikimendu figurarenganako hurbilpena eta eransten zaion jokabide motorra.
- Dimentsio neuro-begetatiboa, edo termino zabalagoetan, neurobiologikoa. Atxikimendu jokabidea harmoniaz gauzatzeak lasaitasun begetatiboa eragingo du, sistema parasinpatikoa gailenduko da: erritmo kardiakoa eta arnasketa geldoagoa egingo da, arteria eta zainetako zuhaitza irekiko, larruazalaren konduktantzia gutxitu egingo da larruazalean hodi-zabalkuntza emango delarik -larruazal beroa eta lehorra-defentsarako hormonak jariatzeko tasak gutxitu egingo dira -kortisola eta 17 OH kortikoideak- jariatze exokrinak gutxituko dira eta genitalen zonaldea aktibatuko. Gozamina eta gozamen eza sistema neurtzen duten gune neuro-biologikoei dagokienez, gozamen eta zorientasun emozioak sostengatzen bide endorfinikoak garatuko dira (Schore, 1994). Lehen haurtzaroan atxikimendu jokabidea harmoniaz gauzatzen denean, sari sistemaren bide neuro-biologikoak garatuko dira, subjektuaren zorientasunerako gaitasuna eta jorana sostengatzen dituztenak hain zuzen ere. Harmoniaz betetako atxikimenduzko erlazioa hautsiz gero, sistema sinpatikoa aktibatuko da eta aipatutakoen kontrako emaitza neuro-begetatiboak emango dira, defentsa sistema aktibatuko da, kortisola eta hormona kortiko-suprarenalak ugaritu

3. ATXIKIMENDU JOKABIDEA

egingo dira eta zigor sistema edo sistema parabentrikularra aktibatuko da baita, gozamen eza, tristura, mingostasuna, beldurra eta erruaren eragilea hain zuzen ere.

- Bere dimentsio emozionalean, harmoniaz betetako atxikimendu jokabideak bi emozio agindu eragingo ditu: aipatutako gozamen eta zoriontasunezko eta samurtasunezko eta maitasunezko sentimendu kutunak. Harmonia ezak ezinegon eta amorru sentimendu sutsuak eragingo ditu.
- Irudimenezko dimentsioa, atxikimenduzko lotura harmoniaz betetzea argi, kolore eta berotasunezko irudimenaren bidezko eszenatokietan kokatzen da. Ordea, atxikimendu jokabidean afektu eza gertatzen bada, iluntasuna, kolore gabezia eta hotza islatzen dituzten eszenatokiak sortuko dira. Hautzaroan maitatuak sentitu ez ziren subjektuen umetako oroimenak kolore grisetan eta hotzetan gauzatzen dira.

4.3. Atxikimendu jokabidearen eragile hausalak

Atxikimendu jokabidearen egitura ulertu dadin, berezko jokabide orotan bezala, interesgarria da kausalitate eta funtzioaren artean bereiztea. Jokabidea abiarazten edo geldiarazten dituzten eragileak kausalitateak direla ulertu daiteke. Funtzioa, bestalde, aktibazio honen emaitza litzateke: hurbiltasuna mantentzea, esaterako.

4.3.1. Atxikimendu jokabidea abiarazten duten eragile kausalak

Zenbait estimulu sistemek aktibatu egingo dute eta amaiera emango atxikimendu jokabideari. Batzuk kanpokoak dira eta barnekoak beste zenbait. Estimulu hauei eragile kausal deituko diegu, berezko jokabidea abiarazten eta amaitzen dutelako. Berebiziko garrantzia izango du eragile hauek ezagutzea haurren mundua -eta baita helduarena ere- ulertzeko eta hezitzaileak portaera gida gisa erabili dezan.

4.3.1.1. Barneko eragileak edo baldintzak

Baldintza organiko hauek eragingo dute atxikimendu jokabidea aktibazio egoeran jartzea. Hizkuntza arruntean umea mimoen bila ari dela esan ohi da, hau da, bere zaindariaren hurbiltasuna bilatzen ari dela eta bere arreta eta zaintza bereziak eskatzen ari zatzaizkiola. Honako hauek nabarmendu daitezke guztien artean:

- Nekea
- Loa
- Gaixotasuna edo ahuldade organikoa
- Gosea eta hotza
- Min fisikoa eta morala
- Beldur-egoera

Oro har, bere egoera fisikoa edo gogoa hausten dute eragileok. Umeek estreserako joera dute haur-eskolan, familian ematen diren hazkuntza

baldintzekin alderatuz bederen. Eguneroko banaketek eta zenbait umek zaindari bakarra izateak defentsako hormonen gehikuntza suposatuko du, etxean bizi diren umeak baino maila altuagoetan kasu batzuetan. Baldintza honek eta umeek elkarriz egin diezazkieten erasoek zaindariak arreta berezia jarri beharko duela ondorioztatzen dute, umetxoek atxikimendu jokabidearen gehikuntzei erantzuteko. Era berean, oso inportantea da osasun baldintzez eta familia krisialdiez arretatsu egotea. Biek ala biek eragingo baitute haurtxoak "mainatsu" egon daitezen. Atxikimendu jokabidearen eskaeraren gehitze honi erantzunik ez zaionean ematen, banaketa afektiboaren gaineko atalean aztertuko ditugun ondorioak eragingo ditu.

4.3.1.2. Inguruko baldintzak

Atxikimendu jokabidea eragiten duten inguruko baldintzak honako hauek dira.

- Atxikimenduzko figurarik ez egotea edo alde egitea.
- Amak errefusatzera edo alde egingo duenaren mehatxua.
- Gertakari kezkarriak, hala nola, estimulazio mailaren aldaketa latza: argi bizia, bat bateko iluntasuna, zarata indartsua, objektu bitxiak.
- Helduek edo beste ume batzuek errefusatzera.
- Ama beste ume batzuk altzoan dituela ikustea.

Atxikimenduzko figura urruntzea garrantzi handiko estimulua izango da jokabide hau abiarazi dadin.

Haur-eskolara joateko, bere lehen zaindaririk egunero banandua izateak aktibatu egingo du atxikimendu jokabidea. Kontu handiz maneiatu beharko da banaketa hau. Umeak banaketaren aurrean negar eginez gero, atxikimendu jokabidea aktibatu egin dela esan nahiko du. Aurrerago ikusiko dugunez, protesta jokabidearen osagaia da. Atxikimendu jokabidea gauzatzen ari den bitartean ez dira beste jokabide sistema batzuk abian jarriko, hala nola, esplorazio jokabidea edo berdinen arteko jokabidea.

Haur-eskolara joaten hasteak eragindako egokipen denbora eta eguneroko banaketak berebiziko kontuz maneiatu behar dira. Esplorazioa eta jokia oztopatuko duten portaera oldarkorak eta umea bere baitan biltzeak banaketaren aurreko erantzunaren parte dira, eta honekin batera, atxikimendu jokabidea aktibatuko dute.

3. ATXIKIMENDU JOKABIDEA

Umea -eta heldua ere- beldurtzen eta kaltetzen duen orok ere aktibatuko du atxikimendu jokabidea, beldurraren jokabidea aztertzerakoan egiaztatuko dugunez. Atal honetan aipatutako eragileek haur-eskolari dagozkion gai interesgarriak planteatzen dituzte. Oro har, talde-zaintza estres eragilea da berez. Kortisolaren gaineko ikerketek agerian utzi dute. Honela bada, taldean zaindutako umeak errazago aktibatuko du atxikimendu jokabidea etxean zaindutakoak baino. Umeen kolektiboak arreta eta kontsolamendu gehiago eskatuko ditu. Beste alde batetik, baliabide ekonomikoen arabera, haur-eskolan ematen diren ratioak eragozpen berezia izango dira arreta maila handia eskaini ahal izateko zaindarien aldetik, gain-ahalegina egin ezean. Gertakari hauek irudimenean oinarritutako konponbideak eskatuko dizkigute.

Ez egoteak edo errefusatzek atxikimendu jokabidea aktibatuko du. Atal honetan, heziketa edo diziplina xedez umea abandonatzeko edo etxetik alde egiteko mehatxuak nabarmentzea mereziko luke. Berriki egindako ikerketen arabera umetxoak ez du mehatxuaren eta errealitatearen artean bereizteko gaitasunik. Umeak esaten zaion guztia sinetsiko du.

Zaindaria, ama bereziki, beste haur batekin atxikimenduzko edo samurtasuneko jokabideetan ikustea da atxikimendu jokabidea abiarazten duen beste baldintza bat. Aktibazio hau eta ondorengo jarrerak, hala nola, oldartzea edo arreta deialdiak oker interpretatu izan dira, umea jeloskor zegoela uste izan baita. Akats honek ondorio oso kaltegarriak eragingo ditu. Normalean, jarrera hauek zentsuratu egiten dira eta maila ezberdineko diziplina neurriak hartzen ohi dira. Eraso moralak zauria eragingo du umearengan, eta honekin batera, dagoeneko aktibatuta dagoen atxikimendu jokabidea areagotu egingo da, gizakiaren bizitzaren ardatz den jokabidea itotzeak ondorioztatzen dituen atsekabe guztiekin.

4.3.2. Atxikimendu jokabidea bertan behera uzten duten estimuluak

Atxikimendu jokabidearekin amaitzen duen konfigurazio estimulatzailea atxikimenduzko figuratik gertu egotea, kontaktua izatea edo besarkada jasotzea da, beti ere aktibazio mailaren arabera. Atxikimendu jokabidea maila altuan aktibatuta izan bada, hurbiltasunarekin soilik ez da nahikoa izango. Ez egote luzeen ondoren, saminezko egoera nabarmenean edo larrialdi bizien pean -senaren jokabidearen adierazkortasuna landu duten izakien artean- besarkadak bakarrik aseko du. Jokabidea amaitutzat ematen duen ekintza aktibatu denean erabilitako intentsitate maila berberarekin eman ezean, atxikimendu jokabidearen hondarra geratuko da eta ezinegon kroniko modura mantenduko da.

Honela bada, atxikimendu jokabidearekin amaitzeko beharrezkoa den estimuluaren intentsitatea indarrean dagoen atxikimendu jokabidearen aktibazioaren intentsitatearekin lotzen da:

- Aktibitatea oso intentsua denean, atxikimenduzko figurearekin kontaktu fisikoa izateak bakarrik amaituko du.
- Intentsitatea txikiagoa denean, bere ahotsa entzutea besterik edo menpeko figuraren bat hurbiltzea nahikoa izango da amaitu dadin.
- Atxikimendu jokabidea bertan behera uzten duen beste eragile bat beste jokabide antagoniko bat aktibatzea da, esplorazioa esaterako. Baina gertatu dadin atxikimendu jokabidea ez da maila altuetan aktibatuta egon behar. Haur- eskolari dagokionez, esplorazio jokabidea aktibatuz gero bertan behera geratuko da atxikimendu jokabidea. Subjektua, haurra zein heldua, "entretenitzea" deitzen zaio honi arruntean.

4.4. Atxikimendu jokabidearen funtzioa

Gogoeta orokor bati jarraiki, atxikimendu jokabidearen funtzio nagusia, jatorrizko jokabide guztietan legez, espeziearen biziraupena da. Primateen genomaren erreperetoria erantsita geratu baitzen atxikimendu jokabidea bizirauteko garaian harraparien aurrean eman zuen abantailagatik.

Gogoeta espezifiko batean, atxikimendu jokabideak lehen edo bigarren zaindarekin bat datozen atxikimenduzko figurekiko hurbiltasuna mantentzeko funtzioa betetzen du. Hurbiltasun hau, halaber, atxikimenduzko figurak eskaintzen duen zaintza jokabideak ziurtatuko du, gai honi dagokion kapituluaren ikusiko dugunez.

4.4.1. Hurbiltasuna mantentzearen erantzukizuna

Primateen ordenan, eskala filogenetikoan mailaz igo ahala, amaren zaintzapean lagako da hurbiltasuna mantentzearen erantzukizuna. Oro har, goi-primateen familia guztietan, haurtzaroan zehar, ama eta seme-alabaren artean hurbiltasuna mantentzearen erantzukizuna era progresiboan desbideratuko da amaren aldetik umearengan.

Giza espeziari dagokionez, amak atxikita mantenduko du umetxoa gizarte primitiboetan eta tradizioan ikusi daitekeenez. Hurrengo epearen ezaugarritzat jo daiteke umetxoak lortuko duen mugikortasuna: rhesus-aren kasuan aste betean, gorilarenean hilabete bat edo bi, eta gizakiaren kasuan 6 hilabeteren ondoren.

6 hilabete igaro ondoren, amaren figurekiko hurbiltasuna mantentzen hasten denean, umeak garatuta ditu jada hurbiltasuna mantentzeko tresnak, bere esplorazio ibilbideetan hura mugitu gabe geratzen bada leku batean. Hala ere, hirugarren urtearen amaiera arte, atxikimenduzko figura lekuz aldatuz gero umeak jarraitzeko duen gaitasuna ez da batere eraginkorra izango. Portaera hau egoki ulertu behar da, umeak bere zaindaria jarraitzeari errefusatzen diola interpretatu

3. ATXIKIMENDU JOKABIDEA

izan da, eta zoritxarrez errietak jasaten ditu zigorrak ez direnean. Umearen munduak arbitrariotasun gisa irakurriko du bidegabekeria hau, aipatu arbitrariotasuna gertaera natural legez onartu daitekeelarik. Gurasoen portaera honek umearen segurtasun falta areagotu besterik ez du egingo dagoeneko bere gogoan ezarrita dagoen bere sistema logiko-kausalean.

Hurrengo fasean aldaketa gertatuko da orekan: atxikimendu jokabidea askoz ere eraginkorra egingo da. Bere atxikimenduzko izakiekiko hurbiltasuna ziurtatzeko gai izango da umea, geldirik badira zein mugitzen. Momentu horretan biek hartuko dute hurbiltasunaren erantzukizuna.

4.4.2. Umeak hurbiltasuna neurtzeko erabiltzen dituen sistemak

Umean zentratzen baldin bagara, eta ondorengo atal baterako utzita bere azaleratze kronologikoa, atxikimendu jokabidearen neurtzaile deitutako jokabide sistemen bidez lortuko du bere zaindaritik gertu mantentzea. Bi motatakoak dira honako hauek:

Zeinu-jokabideak:

- Negarra
- Irribarrea
- Zizakadura

Hurbiltze-jokabideak:

- Hurrupaketa
- Atzematea
- Lau oinka eta bi oinetan ibiltzea

Jokabide sistema bakoitzaren ezaugarri espezifikoak eta bere azalera kronologikoa, azalpen luzea eskatzen baitute, kapitulu honen 6. atalean azalduko dira.

4.4.3. Atxikimendu jokabideak eragindako ohizko portaera patroiak

15. hilabetetik aurrera, gizakiak nahiko konfiguratuta du jada atxikimendu jokabidea bere morfologian deskribatu ahal izateko. Adin horretarako jada, esplorazio eta beldurraren jokabideak helduta dira. Jokabide hau aztertzeke 4 oinarrizko egoera erabiliko dira:

- Ama dagoenean eta leku beretik aldatu gabe mantentzen denean
- Ama dagoenean eta lekuz aldatzen denean
- Ama urruntzen denean
- Ama itzultzen denean
- Ama dagoenean eta leku beretik aldatu gabe mantentzen denean

4.4.3.1. Ama dagoenean eta leku beretik aldatu gabe mantentzen denean

Bizitzako lehen urtearen amaieran, eta batez ere bigarren eta hirugarren urtean zehar, leku berean lekuz aldatu gabe dagoen zaintzailearekin, umeak esplorazioari ekingo dio eta beste ume batzuekin jolasten hasiko da zaindariaren lekua hartuko duela oinarritzat.

Hurbiltasuna mantentzeko gai izan dadin, ezinbestekoa da umea harengana zuzenduta egotea, haren lekua gogoratzea eta dituen lokomozio baliabideak erabiltzea. Atxikimendu jokabidea areagotzen dituzten eragileak tartekatzen ez badira umeak ez du atxikimendua erakutsiko, begirada eta irribarre trukaketa baino.

4.4.3.2. Ama dagoenean eta lekuz aldatzen denean

3. urtetik aurrera bakarrik mugitu daiteke umea eraginkortasunez amaren mugimenduari jarraituz. Gizakien komunitateetan, gurasoek garraiatuko umeak 3 urtetik beherako leku aldatzeetan.

3. urtetik aurrera, ume gehienek nahiko eraginkorrak diren helburu egokitze sistemak dituzte, mugitzen denean gurasoengandik hurbil mantendu ahal izateko. Adin horretan, dena den, gurasoen eskutik helduta edo bere arropetara itsatsita joaten saiatuko dira. 7 urtetatik aurrera bakarrik utziko diote gehienek gurasoen eskua heltzeari bere leku aldatetetan.

4.4.3.3. Ama urruntzen denean

12 hilabeteren ondoren, eta baita lehenago ere, umeak kexatu egingo dira ama edo aitaren figura aldentzen ikustean. Banaketari dagokion kapituluan aztertuko dugu beren beregi gai hau. Geroz eta ume txikiagoa izan, litekeena da negarrari ematea eta zailagoa ama jarraitzen saiatzea. Honek alde egitean erakutsitako mugitzeko era eragile garrantzitsua da: geldiro eta arreta deitu gabe eginez gero, protesta eta jarraipen saiakerak ezdeus izan daitezke; guztiz alderantziz gertatuko da pausu azkarrez eta zeinu nabarmenekin irteten bada.

Azkenik, rol garrantzitsua jokatuko du inguruaren etxekotasun mailak. Hark etxekotzat jo dezakeen inguru batean alde egitea jasan dezake. Jokabidearen biologiar dagozkion datu hauek sostengatzen dute umea haur-eskolako espazioa etxekotzat hartzeak eta zaindarien bertatik alde egitean erabiltzen duten moduak duten garrantziaren nondik norakoa. Banatu ondoren, aktibazio mailaren intentsitateak behera egiten badu, umea esplorazioan eta beste batzuekin jolasean aritzeko askatu daiteke ordu bi baino gehiagoko epealdietan, adinaren arabera. Atxikimendu jokabidearen aktibazio berrien

3. ATXIKIMENDU JOKABIDEA

araberakoak izango dira amaren bilaketa eta honen gabeziak eragindako bilaketa.

4.4.3.4. *Ama itzultzen denean*

Ama egon ez den denboraren, eta halaber, harekin garatutako atxikimenduaren araberako jarrera eta egoera emozionala agertuko du umeak ama itzultzean.

- Ohizko motiboek eragindako ez egote laburren ondoren, umeak norabideratuz eta hurbilduz erantzungo du. Umearen egoera emozionala, atxikimendu jokabidea abiarazi duten eragileak kanpo utzita, loturaren segurtasunaren araberakoa izango da, Egoera Bitxiaren Testak agerian uzten duenez. Atxikimendu seguru edo anbibalenteetan indar gehiagoz atxikiko da.
- Ez egote luzeagoen ondoren eta harentzat ohizkoak ez diren baldintzapean, guztiz aztoratuta egon daiteke umea ama itzultzen denean. Ez erantzun eta saihestu egin diezaioke. Negarretan egon ezean, isilik geratu daiteke tarte batez eta gero negarretan hasi. Harreman fisikoari esker, gutxitu egingo da negarraren intentsitatea, eten arte. Orduan, umea indarrez atxikiko zaio amari eta ez du bere besoetatik jaitsi nahi izango, ezta ahaleginak eginda ere. Elikatzea xede ez duen edoskitzea ere emango da.
- Zenbait egunetako edo banaketa luzeago baten ondoren, giro arraroan bereziki, atxikimendu jokabideak jarraibide bitxiak eta arauari arrotz zaizkionak hartuko ditu. Banaketotan, protesta faseari etsipenak edo itxaropen ezak jarraituko dio. Arestian deskribatutako errefusapen jokabidean zirriborratutako erantzuna.

4.5. Atxikimendu jokabidearen ontogenia

4.5.1. Aurre-atxikimendu hasiera fasea: 0tik 8-12 aste bitartean.

Bowlby-k (1969) "orientazioa eta figura bereizi gabeko seinaleak" deitu zion fase honi. Jaiotzan bertan hasiko da eta lehen asteetan zehar izango du jarraipena.

Bowlby-k (1969) iradoki zuenez, ekintza finkozko patroietan oinarrituko da jaiotze berriaren jokabide ekipamendua.

Ekintza finkozko patroia hauek Piaget-en (1936) Psikologian azaltzen diren eskema erreflexuen baliokideak dira (S-R) eta psikologia honen araberako aldakuntzekin datoz bat.

Fase honetan jada, itxaropenak (aurre hartzekak) eraikitzen hasiko da haurtxoa -Paulov-en asoziazioetan dute jatorria- nahiz eta hastapenetan, Piaget-ek esaten duenez, aska ezinik daude lotuta eskema sensorio-motorretara eta ez dira erabiliko inguruko gako gisa (seinaleak), ingurumeneko beste gertakari bati aurre hartzeko osagai gisa. Beste hitz batzuetan esanda: haurrak titia hartu ondoren, aurreratu dezake ondoren haur-oihal aldaketa eta gorputz-zainketak etorriko direla eta horrela bere gorputza ardatz izango duten beste zenbait jarduera. Ezin dezake aurreratu, ordea, ateko txirrinak jo ondoren aita agertuko denik. Inguruko gakoan antzemate eta uztartze hau ez da geroagora arte garatuko, ikusiko dugunez.

Umeak pertsonen arteko bereizketa egin dezakeenean, eta bereziki, zaindari primarioaren figuraren (ama) eta inguruko gainontzeko pertsonaien artean, eman daiteke amaitutzat I. Fasea. Hala ere, zaila egiten zaigu zehaztea noiz amaitzen den I. fasea eta noiz ematen zaion hasiera II. faseari, zenbait estimulu modalitateen bidez (usaimenezkoak eta somato-estesikoak) askoz ere lehenago egin baita bereizketa beste batzuen bidez baino (ikusmenezkoak).

Ainsworth-en iritziz, ikusmen seinaleen bidez umeak bere ama bereizi dezakeenean jo daiteke lehenengo fasearen amaieratzat. 8-12 asteen artean gertatuko da.

4.5.2. Loturaren eraikitze fasea: 3 hilabetetatik 6-9 hilabeteetara.

“Orientazio fasea eta bereizitako figura bati edo gehiagori seinaleak zuzentzen zaizkien fasea” deitzen dio Bowlby-k fase honi.

Fase honetan zehar, umeak ezin du bereizi familiako figura bat familiakoa ez den beste batzuegatik, hala ere, familiako figura bat beste familiakoen artean bereizten hasiko da. Honela adieraziko da aipatu bereizketa:

- Hurbiltasuna xede duten bere portaera era ezberdinak zuzenduko dizkielako figura ezberdinei: irribarrea, zizakadura.
- Bereizitako figurek atxikimendu jokabidea pizteko (irribarrea edo zizakadura) zein negarra gelditzeko erakusten duten azkartasuna.

Piaget-en (1936) bigarren eta hirugarrenaldi sensorio-motorrarekin dator bat oinarrian fase hau: figura baten bereizketa Piaget-en asimilazio re-kognitiboarekin etorri liteke bat.

Figura bat beste batzuen aurrean nahiago izateak lotura irizpidea osatu arren, Atxikimenduaren gaineko teorikoek -eta Ainsworth-ek bereziki- nahiago dute hirugarren fasearen hasiera ezarri, hurbiltasunaren bilaketan umea aurrea hartzeko gai denean: 6-9 hilabeteen aldera.

3. ATXIKIMENDU JOKABIDEA

4.5.3. Lotura argi eta zehatzaren fasea: 6-9 hilabetetik bizitzako 3. urtera arte.

Bowlby-ren ustez, fase honetan zehar, "hurbiltasuna mantentzen da bereizitako figurarekin, lokomozioren zein seinaleen bidez".

Fase honetan, seinaleen sistema baino gehiago erabiliko dira bitartekari aktiboak, negarra bereziki, bereizitako figurarekin hurbiltasuna eta harremana izateko. Garapen motorrak portaera motorren hedadura zabaltzeko aukera emango dio: ez da soilik jarraitzea mugatuko, zaindariaren gainera igoko da, besarkatu egingo du, bere gorputzean murgildu eta aurpegiaren edo gorputzaren esplorazio barnerakoiagoari ekingo dio. Seinaleen jokabideei dagokienez, irribarreak eta ahozko igorpen soinudunak ere garapen nabarmena izango dute.

Epealdi honetan zehar, umeak hurbiltasuna eta harremana bilatzeko joera gehiago izan arren, esplorazio jokabidea azaltzeak bere ingurua era aktiboan esploratzera bultzatuko du aldi berean, aurkitzen dituen objektuak manipulatzeko eta bere ezaugarrien gainean ikasiz. Esplorazio jokabideak bere zaindari primariotik aldentzera bultzatuko du.

Horrela bada, 3. fasean, umetxoak ez du bakarrik bere atxikimendu figurarekiko etengabeko atxikimendua erakutsiko. Honezkerok, bere esplorazioetarako eta inguratzen duen munduarekin ohitzeko segurtasun oinarria bilakatu baita figura hau. Fase honetan bere atxikimendu figuran jarraituko du enfokaturik, baina beste modu batera: kanpoaldera egingo dituen ibilbideak proiektiorako abiapuntu gisa.

Bowlby-k, (1969), bere kontrol sistema eredu erabiliz adierazten duenaren arabera, helburuen egokitze baten bidez antolatzen da umearen jokabidea. Plangintza globalen terminoetan eratan dira bere portaerak, era hierarkikoan. Horrela bada, atxikimendu jokabidea patroia honen arabera eratuko da, trukatu egin daitezkeelarik jokabide honi dagozkion portaera ezberdinak: jokabidea aktibatu ondoren, hurbiltasuna izango da xede nagusia eta portaera ezberdinak plangintza global bati dagozkion tresnak izango dira, eta baliabide ezberdin hauek hierarkizatu egingo dira helburua lortzeko estrategien arabera.

Illo honi jarraiki, 3. fase honen hasieratzat jo daitezkeen irizpide onargarria litzateke atxikimendu jokabidearen antolaketa helburuaren arabera egokitutako jokabide gisa. Kasuen arabera, lehen urteko bigarren zatian edo apur bat beranduago emango zaio hasiera honi. Piaget-en garapen sentorio-motorren 5. eta 6. aldiekin dator bat. Beste hitz batzuekin esanda: umeak bitartekari eta helburuen artean bereizteko duen gaitasunak eragingo du fasearen hasiera. Bitartekari eta helburuen arteko hierarkizazioarekin batera asmoa agertuko da.

Plangintza bati dagokion xede inplizitua lortzeko nozioa Piaget-en "eskema mugikorak" kontzeptuaren baliokidea da.

Piaget-en teorizazioan, 4. aldiari dagokio "objektuaren iraunkortasunaren" ideia. Epealdi honetan dagoen umearentzat objektuak iraunkorrak dira, hau da, uneko antzematean egon ez arren existitzen dira. Bereizitako figurarekin lotura izan dezan beharrezko baldintza da kontzeptu hau (Ainsworth, 1967; Shaffer eta Emerson, 1964; Bowlby, 1969) Beste era batera esanda, ez dagoenean ere existitzen den atxikimendu figuraren ideia ondorioztatuko du atxikimenduaren ideiak, denboran eta espazioan iraunkorra balitz legez, denbora-espazio etenik gabekoan mugitzen delarik, gutxi gora behera iragarri daitekeen eran. Iguripenak (aurrerapenak) hasiak ziren jada 1. fasean, 3. fasean zehar askoz ere hedapen garrantzitsuagoa izango dute. Aldi honetan zehar, Piaget-ek (1936) erakusten duenez, inguruko gertakaria erabiltzen hasiko da umea beste gertakari batek jarraituko diolakoan. Amaren ekintzak aurreratzen hasiko da umea, beti ere, hauek arrazoizko iraunkortasun maila duten neurrian.

Bowlby-k (1969) adierazten duenaren arabera, 3. fasean zehar umearen portaera helburuaren arabera egokitzen hasiko den epealdian zehar hain zuzen ere, -hurbiltasuna eta harremana mantentzeko dituen asmoei begira- amak nola jokatu dezakeenaren gaineko iguripenak kontutan hartzen hasiko da umea: bere amaren igurikatutako portaeren arabera bere planak egokitzeko gai izango da.

3. fase hau bizitzako bigarren eta hirugarren urtean zehar garatzen dela ulertuko da, eta beraz, Piaget-en 4. aldiaren mugez haratago hedatuko da. Honela bada, epealdi sentsorio-motorraren azken epea eta epealdi aurre-operazionala (ordezkapen sinbolikoa) hartuko ditu. Honen arabera, atxikimendu figuren eta hauekiko harremanean norberaren barne errepresentazioaren helburu izango du geroz eta gehiago lotura.

Umearen atxikimendu jokabidea eta amaren elkarrekiko jokabidea elkarren artean aurre-egokituta izan arren, zentzu ekologiko edo eboluzionista batean, zenbaitzuetan bikote honen partaide bakoitzaren jokabidea beste jokabide sistema batzuen menpe egongo da: umeak aktibatuta izan dezake atxikimendu jokabidea baina ama, berriz, amatasunaren aurkako beste jokabide sistema baten menpe egon daiteke. Beste modu batera esateko, umeak amarekiko harremana bilatu dezake baina amak beste interes pertsonal bat izan dezake, umearekin egotea baino garrantzitsuagoa.

3. fase honetan zehar, amarekiko hurbiltasun/harremana bere desioa lortzeko plana egokitu dadin umeak geroz eta gaitasun gehiago duen arren, eraikitako ordezkapen ereduaren arabera interpretatuz amaren ekintza, mugak aurkituko ditu bere ahaleginak emaitza onak izan ditzaten, ama bere planak bertan behera utzi eta umearen plangintzetara egokitzen ez bada. 3. faseko umea lar "egozentrikoa" da -Piaget-en zentzuan- bere amak izan ditzakeen planak iragarri ahal izateko eta aldatu ditzan beste, eta hark dituen planekin gehiago etor daitezen bat.

Datu honek berebiziko garrantzia du eta, beraz, zenbait aldiz errepikatuko da. Heziketaren funtsezko oinarria da umeari egiten dizkiogun eskakizunek bere gaitasun

mentalaren garapenaren unea izan behar dutela kontutan. Bere gaitasun mentalak ahalmentzen ez dion zerbait eskatuz gero, porrota eta errua sentitzera eramango dugu. Aurrerago berriro esango denez, umearen garapena altruismora norabidetzeko modu bakarra, bestea kontutan izan dezan, haren beharrianak eta desioak, beste hitz batzuekin esateko, bestearen lekuan jarri dadin, bere egozentrismoari sentikortasunez erantzutean eta zaintzean datza: bere zerbitzura jartzea azken finean. Hiru urte baino lehenagoko ume batek – orduantxe abiarazten baita bestearen lekuan jartzeko gaitasun hau- ezin baitu besterik egin: gauza guztiak bere ikuspegi eta desioetatik ikusi eta sentitu.

Hausnarketok bereziki garrantzitsuak dira umeak taldeka zaintzeaz ari garenean. Gure haur eskolen ratioek behartu egiten dute pertsona bakar batek ume kopuru lar handi baten arreta hartzea, eta ez dira gai izango hauen ikuspegi eta desioaren arabera unibertsoa ikusteko. Ratio irrazional hauek behartu egingo dute zaindari profesionala zentsurak eta diziplina neurriak hartzea, eta beraz, are gehiago zailduko dute altruismorako garapena.

4.5.4. Elkarrekin zuzendutako bikote baten eraikitze prozesua: 3. urtea.

Umea eta amaren arteko loturaren garapenari dagokion 4. eta azken fase honen ezaugarri nagusia egozentrismoa gainditzen hasten dela da (Bowlby, 1969), honela bada, bere amaren ikuspuntutik gauzak ikusteko gai izango da umea eta era honetan bere jokabidearen gainean eragina duten zioak, helburuak eta planak ondorioztatu daitezke.

Bowlby-k adierazten duenez, garapenaren puntu hau lortzen denean, amak eta umeak askoz ere harreman konplexuagoa garatzen dute euren artean. Asoziazioa deitzen dio harreman mota honi. Bere hitzetan esanda, “elkarrekin egokitutako helburuak dituen asoziazioa” (goal corrected partnership); honen bidez, “plangintza” kontzeptuak inplizituki duen umearen lotura jokabideen eta amaren portaeraren antolaketa hierarkikoa eta malgua ematen da.

Heldutasunezko loturen ohiko ezaugarriak erakusten dituzte 4. faseko prozesu inplizituek, hau da, ekintza antolatzerakoan bestearen ikuspuntua eta interesak kontutan hartzen dituzten maitasunezko loturak hain zuzen. Gizaki guztiak ez dira zentzuz barneratzen atxikimenduaren garapenaren epealdi honetara. Edozein eratako tratu txarrak edo bortizkeriak atxikimendu jokabidearen heldutasun maila hau ezin eskuratzea eragingo du. Heziketari dagokionez, atxikimenduaren garapen maila goren hauetara heltzea nola sustatu daitekeen ezagutu beharra dago. Haur subjektuaren -subjektua norbera dela ulertuz- autonomiaren oinarrian dago berezko beharrianak eta asmoak dituen subjektu gisa antzematea bestea, eta era berean, altruismoan barneratzea: era berean asmoak eta beharrianak dituen beste subjektu bat legez hartzea bestea.

4.5.5. Egozentrismo eta altruismoaren gaineko hezkuntza gogoetak

Moralaren ikuspuntutik kokatu dira heziketaren gaineko gogoeta hauek: autonomia izan nahi duen umeari predikatuz eta besteak kontutan izan ditzala erakutsiz. Helburu moral hauek gauzatzeko erarik ohikoena menpekotasuna eta egoismoa gaitzestea izan da.

Ume altruistagoak lortuko zirela uste izan da honekin, hau da, bere gurasoak kontutan izango dituzten umeak, beste ume batzuen gainean pentsatu dezaten. "Egoistak ez izatea erakutsi behar zaie", esaten da. Eta, horrela, bere gauzak konpartitzen irakatsi zaie. "Heziketa" honen bidez altruismoan bezatutako umeak besterik ez dira lortu, eta beti egongo dira ekintza egoistaren bat egiteko gogoz bere nagusien begi zaindaritik ezkutatuta lehendabizi eta gero bere moralaren kontzientziatik ihesi egin nahian. Izan ere, ez da ulertu edo ahaztu egin da konpartitzeko jarrera ez dela jokabide instrumentala, jatorrizkoa baino. Eskaintza, baztertutako ume bat kontsolatzea jatorrizko jokabidea da ume baketsu eta lidergorako profila dutenen artean, berdin arteko jokabidearen gainekoan ikusiko dugunez. Eta ume hauek dira bere gurasoek samurtasunez eta sentsibilitatez zaindu dituztenak, hain zuzen ere. Eta ume gisa, azken finean presentzia eta zaintzak behar dituzten ume txikitxoak baitira, tratatuak izan direnak maitekorak izango dira eta euren barnetik propio izango dira maitekorak beste batzuekin. Pozik daudelako. Eta bere garapen mentalak gauzak bestearen ikuspegitik ikustera ahalbidetzen dienean, zailtasunik gabe egin dezakete. Zorigaitzokoren batek emozionalki aztoratuta utzi ez baditu bederen. Beraz ez gara ari predikatzeaz eta gutxiago zentsuratzeaz, sustatzeaz ari gara.

Honela bada, altruismoa sustatzeak egozentrismoaren zaintza du oinarritzat. 3. urtera arte umearen aparailu kognitiboak ezin ditu gauzak antzeman bestearen ikuspegitik. Aulki baten aurka estropezu eginez gero, eta min hartu, aulkia gaiztoa da. Ama edota irakaslea aurpegi txarrez baldin badator, bera -umea- da guztiaren eragilea. Egozentrismo terminoak umea bere unibertsoaren erdigunean dagoela eta bere ikuspegitik ikusten duela dena adierazten du, kausalitateak beregain hartuz eta gertaerak nahita berarengana zuzenduak direla interpretatuz. Halaber, pertsona heldu askori ere gertatzen ohi zaie gauza bera, bereziki aktibitate emozional biziko egoeretan. Harremanetan gatazka inportanteen jatorria dugu.

Zaindaria umearen zerbitzura jartzen duenean bere jokabidea, egozentrismoan sustraitu baino bere aparailu kognitibo-emozionalaren heldutasuna eta lotura era garatueterako sarrera bideratzen ditu. Garapenaren era arkaiko batean gelditzea epe egozentriko horretako eskakizunei behar bezala edo desegohi erantzutearen ondorio da. Berdin gertatuko da autonomia menderatzerakoan. Autonomiaren sustraiak sendotzeko era umeari bere atxikimendu jokabideak eskatzen dizkion harremana eta atxikimenduzkoa ematea da.

3. ATXIKIMENDU JOKABIDEA

Mugena da garrantzi erabakigarria duen beste heziketa gai bat. Gai ezberdinak nahasten ohi dira termino hau erabiltzen denean. Gizarte jokabidearen arauak direla ulertuz gero, umeak imitazioz ikasiko dituela arauok nabarmendu behar da, ez predikatu edo zentsuratzen zaielako.

Desio bat onargarri egiten zaigun inguru zehatzez ari bagara mugez ari garenean, ideia okerra da umeen desioak, edozein motatakoak direlarik, mugagabeak direla. Jokabideak ase egiten dira eta autoerregulazioa dute. Mugak aipatzen direnean, oinarrian umea perbertsotzat jotzen da, mugak jartzen ez bazaizkio desbideratze larrienean eroriko litzatekeelakoan.

Bestearen eskubideak jotzen baditugu mugatzat, beste gogoeta bat egin beharra dago. Bizitza helduan esan ohi da gure eskubideak bestearenak hasten direnean amaitzen direla. Gizarte elkarbizitzarako oinarritzko araua dugu. Alta, umeak ez du 4. fasearaino bestearen eskubideak antzemateko gaitasun mentalik. Beraz, araua hau ezin da aplikatu umearen elkarbizitzara bizitzako hirugarren urte aldera hasten den deszentrazioa heldu arte. Lauzpabost urte itxaron beharko dira umeak behar moduan igarri dezan bestea motibazioak eta berezko modalitateak dituen izakia dela. Ordura arte, umeak beregan proiektatuko du bere berezko mundua. Honetan datza altruista izateko gaitasuna. Eta datu honek berriro garamatza taldean umeak hezteari dagozkien arazoetara. Aipatu izan denez, arrazoi ekonomikoak medio gure eskolek jasan behar dituzten ratioekin, jakinduriaz eraikitako egitura arkitektonikoez bakarrik lagundu diezaiokete hezitzaileari ume egozentriko talde bati aurre egitera, eta beraz, bere arretaren gunea izan nahi dutenak.

Bestalde, mugez ari garenean umearen eskakizunek noraino gaintitzen duten gure espazio pertsonalaz ari bagara, orduan muga horiek gure erantzuteko mugak direla besterik ez dugu gogoratu behar. Edozein harreman ordenetan bestearen eskakizunei erantzuteko mugak ditugu, barne eta egoera eragileen arabera beti ere.

4.6. Atxikimendu jokabidearen bizitza zikloan

Arestian adierazi denez, primate azpi-gizakien eta gizakien arteko ezberdintasuna ondorengoa da: haien artean amarekiko atxikimendua nabarmenagoa egiten da jaiotza unean bertan, garapen sensorio-motorra azkarrago burutzen baitute, eta gizakien artean, aurretik atxikimendu figura aukeratzeko prozesua gauzatzen da, ondorioz, azaleratu egingo da atxikimendua. Honela bada, lehen urtearen amaieran bakarrik nabarmenduko da atxikita dagoela, mugikortasuna lortu duenean. Dena den, aurre-zeinuak aurreko hilabeteetan ere nabarmendu daitezke.

Erakutsiko ditugun berezko jokabideen kronologiaren gainean azalduko dugun guztian legez, data orientagarriez ari gara, izan ere, heziketa ingurumen baldintzen zein barne heldutasun neuro-biologikoaren arabera izango baitira.

4.6.1. Atxikimenduaren agerpena eta garapena: bizitzako lehen urtea

4. hilabete aldera, umeak ezberdin erantzungo dio amari, beste figurekiko alderatuz: irribarre egingo du hura ikustean eta azkarrago ahoskatuko du, halaber, begiradarekin jarraituko dio. Bere organo sensorialei esker, aukera egin dezake gainontzeko gizakien artean atxikimendu figura nagusia hautatu ahal izateko. 6. hilabetean ume gehienek ezarrita dute jada: negar egingo du hark alde egiten duenean eta irribarre egingo, besoak jasoko eta poztasunez betetako oihutxoak jaurtiko ditu hura itzultzean.

Pertsona batekiko lotura afektiboa ez da oztopo izango beste batzuekiko atxikimendua eman dadin. Are gehiago: zenbat eta figura gehiagori atxikita egon umea, biiziagoa izango da bere figura nagusiarekiko lotura (Bowlby 1969), lehen hilabeteetan zehar; lotura kopuruak eta intentsitateak umearen maitatzeko gaitasuna areagotuko balute bezala.

Atxikimendu jokabideak aldaketa nabarmenak nozituko ditu egun batetik bestera, eta balizkoa da orduak igaro ahala ere aldatzea. Intentsitatearen aldaketa hauek, ikusienez, eragile aktibatzaile eta amaitzaileen duten eraginaren ondorioz ematen dira. Bizitzako lehen epeotan honako hauek izango dira atxikimendu jokabidearen intentsitatean eragin handiena izaten duten aldaerak:

- organikoak: gosea, nekea, gaixotasuna, mina eta zorigaitza.
- ingurumenekoak: bakardadea eta larrialdia. Beldurraren jokabidea azaltzen denean agertuko da larrialdia.

4.6.2. Hurrengo bilakaera haurtzaroan

Bizitzako bigarren eta hirugarren urtean zehar atxikimendu jokabidearen adierazpenak ez dira intentsitatez ez maiztasunez gutxituko lehen urtearekin alderatuz, 3. urtearen amaieran bat-bateko aldaketa emango da.

Jakin dakigunez, behin atxikimendu jokabidea agertu eta gero, umeak ez du jada amaren figurarik bistaz galduko eta bere mugimendu guztiak jarraituko ditu. 11. eta 12. hilabeteetan zehar haren aldegitia aurreikusiko du eta kexatu egingo da. Atxikimendu jokabidea hirugarren urtean zehar adieraziko da maiztasun eta indar gehiagoz.

3. urtearen amaieran, eta bere funtzio kognitiboek heldutasun bat lortu dutenaren ondorioz, funtsezko aldaketa gertatuko da, umeak gaitasun gehiago izango du ama aldi baterako ez dela egongo onartzeko eta jolasari ekiteko beste ume batzuekin.

Atxikimendu figura berriekin ingurumen arrotzetan konfiantza hartzeko gaitasuna erdietsiko dute umeek. Dena den, honako honek baldintzatuko du menpeko figurekiko lotura hau:

- Amaren konpainian ezagutu dituela.

3. ATXIKIMENDU JOKABIDEA

- Osasunez ondo egotea eta larrialdirik gabe.
- Ez du jakin beharko ama non dagoen eta konfiantza osoa izan behar du epe laburrean berriro izango duela harremana berarekin. Beste era batera esanda: atxikimendu segurua izan behar du.

Bigarren haurtzaroan zehar, bere aita-amen eskua hartzeko gogo bera izango dute umeez eta min hartuko dute errefusatuak izanez gero.

- Lagunekin jolasean ari direla, bat-batean bilatuko dute bere aita-ama edo ordezkoa zerbait gaizki doala sumatuz gero.
- Beldurra sentitzean, berehala bilatuko dute euren harremana.

4.6.3. Nerabezaroa

Nerabezaroan zehar, ahultzen hasiko da gurasoekiko atxikimendua eta beste heldu batzuk ere garrantzia hartuko dute gurasoekin batera. Bere adin bereko kideekin erakargarritasun sexuala azaltzeak maitemintze egoera ondorioztatuko du, bada, maitasunezko erlazioan birbizi egingo da lotura primarioa bere ezaugarri guztiekin: erlazio lasaia edo jeloskorra.

Haurtzaroko gorrotoak agertuko dira atxikimendu figurei zuzenduta, haurtzarotik jarauntsitako atxikimendu jokabideak banan-banako gorabeherak nozituko ditu aipatu osagaiok tarteko direla. Nerabeek gatazka irekia izan dezakete euren gurasoekin. Gazteen iraultzaz ari gara.

Lotura harmoniatsua izan denean berriz, gurasoekiko atxikimendua mantenduko dute nerabeek gainontzeko lotura berriak kaltetuak izan gabe.

4.6.4. Bizitza Heldua

Bizitza helduan zehar mantendu egingo da gurasoekiko lotura eta aldi berean garatu egingo da bikotekidearekin sortzen den lotura. Ama-alaba loturak bizitasun gehiagoz irauteko joera izango du, semeak gurasoekin izan dezakeenak baino.

Zahartzaroan zehar, bikotekide eta kide gazteagoengana zuzenduko da aipatu lotura.

Kasu guztietan, adierazi legez, gaitotasun, ustekabeko arriskuek edo hondamendiek berpiztuko dute atxikimendu jokabidea. Gizakiek jasaten dituzten zorigaitzoko handien aurrean, atxikitze beharrian eutsiezina sentitzen dute zenbaitzuk. Gaitotasunean eta heriotzaren aurrean, norbait bere alboan izatea eta eskua estutzea ezinbestekotzat dute gizakiek. Hil-hurrean dagoenarentzat inportanteagoa da aipatu presentzia gure garaiko ohiko terapia amorratuak baino. Gaitxoak bisitatzea eta heriotzaren ohantzean egotea beharrian alienaezina da.

Lotura-erlazioan jazotako gorabeheren esperientziak bere gaineko, atxikimendu figura edo figuren gaineko eta erlazio-modalitateen gaineko irudi bat konfiguratu dute subjektuaren barne munduan. Barneko mapa operatiboetan deitutakoetan erregistratuko da esperientzia hau. Pertsonak, norbera eta hauekiko erlazioak ikusteko ukipen-leiarrak izango dira eredu hauek. Animalien eta Gizakien Jokabidearen gaineko Teoria Orokorrean aztertu da mapa operatiboaren kontzeptua. Gizakiekin dituen erlazioetan gertatuko denaren gaineko iragarpenak egiteko erabiliko ditu leiar hauek subjektuak. Barne eredu operatibo hauek kokatuko dira norbere buruaren eta bestearen gainean garatuko duen oinarritzko konfiantza. Barne eredu operatibo hauek bizitza osoan zehar iraungo dute eta belaunaldiz belaunaldi transmitituko dira. Belaunaldien arteko transmisioa gisa kontzeptualizatu da (Van IJzendoorn, 1992).

4.7. Atxikimendu jokabidea neurtzen duten jokabide-sistemak

Jokabide-sistema biren funtzionamendu sinergikoak umearen eta bere atxikimendu figuren arteko hurbiltasuna ziurtatuko du:

- Atxikimendu jokabidea umean.
- Jokabide parentala guraso eta zaindariatzen.

Honela bada, bi jokabide osatzen duten sistema ekologikoa dugu hurbiltasuna: umearen jokabidea eta gurasoen jokabidea hain zuzen ere. Hurbiltasun honetan gertatu daitezkeen oztopoen eraginez, arazoak, istiluak eta galerak sortu daitezke umearen zein zaindari primarioen garapen afektiboan.

Umeari dagokionez, lehen zaindariarekiko edo amarekiko hurbiltasuna edo albokotasuna mantendu dezan umeak erabiltzen dituen jokabide-sistemen indarra deskribatuko dugu jarraian.

Amaren berezko jokabidea inportantea den arren, hurbiltasuna ziurtatzeko jokabide-sistema indartsuenak umearen aldean aurkituko ditugu. Bi motatakoak direlarik:

- Seinaleen bidezko jokabidea: gizarte seinale gisa sailkatu daitezke guztiak: negarra, irribarrea, zizakadura eta zenbait keinu aurrerago. Berezko ezaugarriak ditu bakoitzak, baldintza espezifikoak erantzuten die eta ondorio ezberdinak eragingo ditu.
- Hurbiltasun jokabidea: amarengana eramango du umea. Amarengana hurbiltzea eta hurbiltasuna mantentzea ziurtatzen dituzte eskuek, oinek, buruek eta ahoak.

4.7.1. Seinaleen jokabidea

Seinaleen bidezko jokabideak negarra, irribarrea eta zizakadura dira.

4.7.1.1 *Negarra*

Berezko jokabide guztien modura, negarrak morfologia espezifikoa du ume bakoitzean (Wolf, 1969), estimulu abiarazleak eta amaitzaileak.

> 4.7.1.1.1 *Morfologia*

Soinuaren gaineko espektogramak adierazitakoaren arabera, negarraren ezaugarriak hatz-markak bezain berezkoak dira jaiotze berria identifikatu ahal izateko.

Zaindari primarioa umearengana erakartzea du xedetzat. Seinaleen bidezko gainontzeko sistemek ez bezala -irribarrea eta zizakadura- negarrak ez dio interakziorik sortaraziko zaindariari. Negarra alarma seinale bat da eta besteak ez du atseginez hartuko. Ume txikiek zein nagusiagoek eraso egin dezakete negarrez ari dena. Irribarreak eta zizakadurak ordea, ez dute soilik zaindaria erakarriko, irribarre eta elkarrizketa trukatzeko aukera emango diote zaindariari. Negarrak eragiten duen zaintza erantzuna eten egingo da negarra bera etetean. Irribarreak eta zizakadurak mantendu eta sustatu egingo dute erantzun hau.

Negar mota ezberdinak dira eta bakoitzak berezko morfologia eta estimuluak ditu, abiarazi zein amaiera eragiten dutenak.

> 4.7.1.1.2 *Estimulu abiarazleak*

Negar jokabidea abiarazten duten estimuluak ezberdinak dira, eta era berean, bere morfologia berezia zehaztuko dute. Horregatik deituko diegu gose-negarra, min-negarra etab.

- Gose eta hotz negarra: intentsitate maila baxuz hasiko da eta mailaka erritmiko eta indartsu bilakatuko da, txandakatu egingo dira arnasbehera eta arnasgora soinuak. Janariak edota beroak etengo dute.
- Min-negarra: Hasieratik indartsua. Sarritan, isiltasun beteak jarraituko dio oihu luze eta indartsu bati apnearen eraginez. Mina sortu duen arrazoia amaitzean amaituko da.
- Kanpoko bat-bateko estimuluek eragindako negarra: zarata, argiztapenaren edota jarreraren bat-bateko aldaketak. Hasiera nahiko indartsua izan ohi du eta geldiro eraikiko da era erritmikoan.
- Ukipen desioaren negarra. Amarekin kontaktua izan nahiak edo beharrianak abiaraziko du. Gose edo hotz negarraren morfologia berbera du. Garrantzi handia du negarrez hasteko baldintza hau nabarmentzea, sarri ezjakintasunak eraginda baztertuta izango baita. Diada eta familiaren arteko harremanean arazo asko sortzen ditu

baztertze honek. Kumea gorputzaren bitarteko harreman estua izateko programatuta dago. Atxikimenduzko erlazioa ezartzen ari den gorputza aukeratuko du eta pribilegiatu bihurtuko.

> 4.7.1.1.3 Estimulu amaitzaileak

Mota ezberdinekoak dira. Negarrak intentsitate handiko ahalmen estimulatzailea du gizakiarengan. Ume baten negarra adituz gero, ezinbestekoa zaigu bertara hurbiltzea jaramon egitera. Azkar eteteko beharrezana sortaraziko digu negarrak.

Ukipenezko, propiozeptibo, entzumenezko eta ikusmenezko estimuluen konbinazioa da jokabiderik eraginkorrena. Beste hitz batzuk erabilita, ama sorburu dutenak umearekin harremanetan dagoenean edo hau esekita duenean: kulunkatzea berba egiten edo kantatzen dion bitartean (Wolf, 1969), sehaska kanten mundua. Azalpen eskakizunak direla medio, banan-banan azalduko dugu osagai bakoitza.

- Entzumenezkoak: jaiotzaz geroztik, negarra eteteko ahalmena izango dute zenbait soinuk: lehen astean zehar, txintxirrina edo kanpaitxoa giza ahotsa bezain eraginkorrak dira. Eta bigarren astean giza-ahotsa bilakatuko da negarra eteteko modurik eraginkorrena, hirugarrenean berriz, emakumezkoaren ahotsa gizonezkoareni gailenduko zaio. Bi asteren ondoren, amaren ahotsa izango da eraginkorrena eta berak bakarrik eten dezake negarra, halaber, irribarrea iratzartzea lortu dezake amak bere ahotsaren bidez (Wolf 1963). 4. hilabeterako atxikimendu figura bete-betea bereizi denean, hau izango da eraginkorrena.
- Bisualak: 5. astetik aurrera, rol garrantzitsua jokatuko du ikusmenak negarra abiarazteko edo eteteko (Wolf, 1963). Ume askok negarrari ekingo diote aurpegi baten aurrean eremu bisualetik desagertzean eta negar egiteari utziko diote agertzean.
- Elikatzerik gabeko zurrupaketa. Baldintza naturaletan, amaren bularrak eskainiko dio umeari elikadurarik gabeko zurrupaketa asetzeko objektua. "Banatutako umearen" hezi baldintzetan txupeteak beteko du, neurri batean, funtzio hau. Minak, sustoak, beldurrak, loak edo maitasun egoerak aktibatuko dute umearen atxikimendu jokabidearen osagai hau. Pertsona helduan, beste ahozko aktibitate batzuk baretuko dituzte baldintza hauek eragindako kitzikapena.
- Propiozeptiboak eta labirintikoak: kumari eragin. Estimulazio propiozeptiboa eta labirintikoa dira negarra eteteko estimulurik eraginkorrenak.

Estimuluen arteko lehentasunezko hierarkia bat ezarriz, honako hau egiaztatu daiteke: goserik, hotzik edo minik izan ezean, ondorengoak

3. ATXIKIMENDU JOKABIDEA

izango dira umearen negarra eteten duten estimuluak goranzko ordenan: ahotsaren soinua lehendabizi, elikadurarik gabeko zurrupaketa bigarren, eta eraginkorra, kumari eragitea. Kumari eragitea ez da bakarrik eraginkorra negarrari amaiera emateko, abiarazi ez dadin saihesteko ere erabil daiteke.

Gizarte tradizionalan amak eskainiko dizkio elementu hauek guztiak umeari. Bizkarrean daramala, amaren ohiko mugimenduetan, 60 ziklo/ minutuko erritmoan kulunkatuko da umea. Ama geldirik egonez gero, umea alboan duela, negarrari ekiten badio besoetan jasoko du, titia emango, hitz egingo, edota kantatuko eta umea irribarrera igarotzen bada, irribarre eta zizkadura trukatzeari ekingo dio.

Komunitate tradizionalan gauzatu diren ikerketa antropologikoen nabarmendu dutenez, amaren gorputzetik zintzilikatutako umeek ez dute inoiz negarririk egiten minak eraginda izan ezean. Elikatzerik gabeko titi-zurrupaketak mediku azterketa batek eragindako asaldura lasaituko du.

5.-6. hilabetearen ondoren, atxikimenduak funtsezko rola jokatuko du negarra eteteko (Ainsworth eta Witting, 1969).

4.7.1.2 Irribarrea

Irribarrea eta zizkadura dira gozameneko komunikazioaren seinale nagusiak: ama hurbiltzen dute umearengana eta bion artean iraunkorra izan daitekeen komunikazioari ematen diote hasiera. Berezko jokabide guztien gisara, morfologia, ontogenia eta funtzio bat ditu.

Adierazi berri dugunez, bere presentziak eskaintzen digun gozamina besteari adierazteko balio du irribarreak, eta era berean, irribarretsu ari denarekin komunikatzeko gustua abiarazten du bestearengan.

Umea esna eta pozik dagoenean, goserik, minik eta bakardaderik gabe, azalduko dira irribarre eta zizkadura seinaleak. Maitasun-erantzuna piztuko du amarengan edo zaintzaile primarioan: umea irribarretsu edo zizakatzen agertzen denean, amak irribarre, berba edota laztanak egingo dizkio arruntean, halaber, besoetan hartzeko gogoak ere agertuko zaizkio. Biek gozamina adierazten dutela irudiko du eta seinale hauek bere giza-interakzioa luzatuko dute.

Negarrarekin gertatu ez bezala, erantzunik jasotzen badu, irribarrea areagotu eta mantendu egingo da. Baina, berriz, seinaleak edo keinuak ez badu inongo erantzunik jasotzen, gutxitu eta desagertu egingo da: askotan, erantzun ezak negarra eragingo du.

Epe luzera eragingarria suertatuko da ama-ume interakzioaren baitan: zizakadurarekin batera, ume atseginaren irudia konfiguratu du. Irribarrea eta zizakadura ama-ume diadaren baitan ematen diren elkarrizketen osagai dira. Tronick-ek (Tronick eta Cohn, 1989) asmatutako "Still face" testean ikertzen da komunikazio hau, sinkronia operatiboaren gainean hitz egin genuenean aipatu genuena.

> 4.7.1.2.1 Irribarrearen ontogenia

60. hamarkadan burutu ziren irribarrearen gaineko lehen ikerketak. (Wolf, 1963; Freedman eta Keller, 1963).

Fase ezberdinak zeharkatzen ditu irribarreak azken morfologia konfiguratu arte:

- Berezko irribarreak eta erreflexuak: lehen 2 asteetan eta ume guztietan 5. aste aldera. Ahoz egindako noizbehinkako keinuak dira eta ez dute erakusten begietako orbikular kontrakziorik, hauetan albo zimurrak eraginez. Lehen astean zehar, umea lotan dagoela emango dira. Bigarrean, elikatzen ari direla ere ematen dira baina begirada espazioan galdua duelarik. Abiaraziko duten estimuluei dagokienez, hasiera batean berez sortuko dira eta bigarren astean ostean giza-ahotsa bilakatuko da estimulurik eraginkorra. Ez dute eraginik izango behatzailearengan, hau da, ez dira funtzionalak izango sozialki.
- Aukeraketarik gabeko irribarre sozialak: 3. astetik aurrera hasiko dira eta guztiz ezarrita egongo dira 5.aren amaierarako. Aldaketa nabarmena emango da morfologian: aho mugimenduak zabalagoak izango dira eta begietako orbikularraren kontrakzioa emango da: zimurrak sortuko dira betazal-ertzetan. Adi-adi dagoenean eta begiratzen dion aurpegian bere begiak finkatzen hasten denean sortuko da nagusiki. Oraindik entzumenezko izaera du eragiten dituen estimuluek eta tonu zorrotzeko giza-ahotsa izango da eraginkorra. 4. aste aldera, irribarrea sor dezake emakumezkoaren ahotsak, umea negarrez edo titia hartzen izan arren. Berriz, ikusmenezko estimuluek ez dute oraindik inongo eraginik izango. 5. astean ikusmenezko estimuluek ordezkatu dituzte entzumenezkoak: giza ahotsak ia ahalmen guztia galduko du eta giza aurpegiak ordezkatu du: ahotsak zizakadurak eragingo ditu eta aurpegiaren ahalmen estimulatuak indartuko du. Fase honetan zehar, ez du ondo bereziko aurpegi errearen eta eskematikoki marraztukoaren artean. Estimulu bisualekin batera, garrantzitsu bilakatuko dira propiozeptiboak eta ukipenezkoak: ukitzeak eta kulunkatzeak irribarrea sorraraziko diote umeri, aurpegiak ikusi gabe ere.

- Gizarte irribarre aukeratuak. 4. hilabete aldera hasiko da fase hau. Ordura arte, arrotz baten aurrean zein zaindari primarioaren aurrean egin du irribarre, berez. Arrotza eta familiakoa bereizi ondoren, ez du gehiago irribarrerik luzatuko arrotz baten aurpegiaren aurrean. Arestian aipatu denez, geroz eta irribarre gehiago jaso, areagotuz joango da umearen irribarrea. Aurrez aurreko giza aurpegia da irribarrea pizteko konfigurazio estimulatzailearik boteretsuena, goitik behera mugituz, irribarre eginez, ahots zorrotzaz lagunduta eta ukipenezko eta estimulazio propiozeptiboarekin. Umeak ez du bakarrik irribarrez erantzungo, burua eta gorputza ere zuzenduko dizkio pertsonari, “poztasunezko” mugimenduak egingo ditu beso eta zangoekin eta zizakatzen hasiko da.

4.7.1.3 Zizakatzea: *mintzamenaren hastapenak*

Irribarrearen gisara, zizakaduraren funtzioa amarekin komunikatzea da. Zizakadurak komunikazio dimentsioa du, eta honez gain, hitzen oinarriak diren bokalak eta silabak igortzeko ariketa autonomoa erakusten du. Irribarrearekin gertatzen den modura, umea esna eta ase dagoenean emango da. Besteak berdin erantzutea gerta daiteke eta era honetan interakzio kate bati emango zaio hasiera, xaramelak egitea barne. Erantzun honek irribarreak areagotuko ditu.

Bizitzako 4. astean azalduko dira xaramelak ahotsaren erantzun gisa, une horretan irribarre ez aukeratuaren eragingarri izaten ari dena. Entzumenezko estimuluek irribarrea sustatzeko zuten eraginkortasuna galtzen dutenean eraginkorrak izaten jarraituko dute hauek zizakadura sortarazteko. 5. astearen ondoren, ikusmenezko estimuluek ere eraginkor sustatuko dute zizakadura. Amari dagokionez, bateratsu emango dira irribarrea, buruaren mugimendu longitudinala eta xaramelak, eta umeak batera agertuko ditu irribarrea eta zizakadura.

5 hilabete aldera giza ahotsak bakarrik piztu dezake zizakadura, eta dagoeneko zaindariaren bokal eta kontsonanteen antzeratzea ematen ari da:

- 4. hilabete aldera umeak soinu gama zabala emitituko du.
- 6 hilabete aldera aukeratu egingo ditu soinu hauen artean amaren intonazio eta silaben inflexioen arabera. Mintzamenaren hastapenetan gara.

Gizakiak zizakadurari erantzuna emanez gero, areagotu egingo du eta erantzunik jaso ezean gutxitu: umearen eta bestearren arteko hitzezko komunikazioaren hasiera da. Aurreko kapituluan azaldu modura, diadaren (ama-haurra) (Trevarthen, 1975) baitako interakzioaren gaineko ikerketek erakutsi dutenaren arabera, 2 hilabete arteko umearen eta amaren arteko

interakzioak jada elkarrizketa baten gisa asimilatu daitezke, batak itxaron egingo baitu besteak ekintza amaitu arte, berriro ekin baino lehen. Erritmoa (adierazpen eta geldiuunen arteko txandaketa) eta elkarrizketen edukia aldatu egingo dira diada batetik bestera.

5. hilabetearen inguruan, figura familiarren eta arrotzen arteko bereizketa azalduko da, elkarrizketa honekin burutuko da, euren artekoa bakarrik bilakatzeraino. Aipatu izan denez, umearen eta amaren arteko interakzioak, bada, bata bestearekiko duten jarrerai aurre hartzeko modu bat lirateke. Biek ala biek zehaztasun osoz garatuko dituzte bulkada emozionalen gainean egituratutako alternantziak eta bat etortzeak, "ballet baten gisara". Era berean, umearen ahozko adierazpenetara egokituko ditu amak bere hizkuntza eta prosodia (Trevarthen, 1975). Hurrengo kapituluan azalduko dugun amaren baitako sentsibilitate nozioa konfiguratu du umearen emozioekin bat etortze honek.

Objektuen gaineko interesa eta bereizteko gaitasuna garatzen duenetik aurrera -eta batez ere hauengana heltzeko eta manipulatzeko gaitasuna- umeak helduekin gauzatuko duen elkarrizketak inter-subjektibitatearen jolas formalaren aldi soilaz haratago hedatuko da, umeak ikusi, ukitu eta egin duenaren gaineko benetako truke bat bilakatuko delarik. Objektuekin gauzatuko diren jolasen abiapuntu izango da epealdi hau, jostailuen hasiera, hain zuzen ere.

4.7.2. Hurbiltze-jokabidea

Umea amarengana eramaten duten eta hurbiltasuna edo kontaktua mantentzen duten, atxikimendu jokabidearen xedea, jokabide motor guztiez ari gara termino hau erabiltzen dugunean. Jokabide aktiboak dira, irribarre eta zizakaduraren gisa, negarra ez bezala, jokabide pasiboa baita. Umeak garapen orekatua izateak jokabide pasiboetatik aktiboetara igarotzea eragingo du atxikimendu jokabidearen bitartekotzan.

Hurbiltze-jokabidearen nozioari dagokionez, hurbilketa zein elikatzerik gabeko atxikimenduak dira. Jokabide beraren osagarri dira hirurak eta atxikimendu jokabidearen aktibazioaren arabera gauzatuko dira.

Umeak mugikortasunen bat lortu eta berehala, amarengana hurbiltzeko eta hau jarraitzeko erabiliko dituen jokabide motorrak azalduko dira. Garapen motorrak umearen esku jarritakoak profitatuko ditu honek hurbiltasuna mantentzeko: arrastaka joan, lauoinka ibili, ibili, korrika egin.

Umearen aparailu kognitiboaren baitan "Objektuaren Iraupena" garatuz bat, ohiko lekuetan bilakatuko du umeak bere zaintzailea. Piaget-ek (1936) "Objektuaren Iraupena" 9. hilabete aldera kokatu arren, 6. hilabeterako jada, bere begiradaren eremutik kanpo bilatuko du bere ama umeak.

3. ATXIKIMENDU JOKABIDEA

Hurbiltze jokabidea helburu egokitzearen arabera eraten da: amak jarrera aldatuz gero, norabidez aldatuko ditu umeak mugimenduak. Bi urte aldera, umeak garatua du jada hurbiltze jokabidea gauzatu ahal izateko aparailu lokomotorra. Baina, behin eta berriro adierazi denez, hiru urtetik beherako umeek ez dute helburu egokitze sistema eraginkorrik hurbiltasuna mantendu ahal izateko ama mugitzean. Eraginkorrek dira oso harengana hurbiltzeko leku batean gelditzen denean, baina ez dira batere eraginkorrek jarraitu ahal izateko lekuz aldatzen denean.

Eskuak, oinak, burua eta ahoa dira umeari amarekiko kontaktuaren hurbiltasuna eta hau mantentzea ziurtatzen dion talde eragileko osagaiak. Umeki primatearen aparailu neuro-muskular osoa ama atxikitzeko egina da, esplorazio jokabidea azaltzen den arte.

Hasiera batean, atxikitzea jokabide erreflexua da. Ume gizakian bi erreflexu ematen dira jaiotzearekin batera, primatearen herentzia filogenetikoaren lekuko dira: "Grasping" eta "Moro" erreflexuez ari gara. Aurrerago, goi funtzio mentalek kontrolatuko dute eta boluntario bilakatuko da.

Hurbiltze jokabideak atxikimendu jokabidean aurrez finkatutako helburua gauzatu du: subjektuaren eta bere atxikimendu figuraren arteko hurbiltasuna mantentzea. Beraz, atxikimendu jokabidearen aktibazioa bukatutzat emango du dagoen maila horretan eta aktibazio maila baxuenera eramango du. Erreferentziazko figura ez dagoenean edo susto txiki baten eraginez, aipatu jokabide hau azaltzerakoan nahikoa izango da hurbil egotea asaldura gutxitzeko. Biziki maitatzen dituen izakiak epe luzez kanpoan baleude edo subjektua izualdian sartuko balitz, ez da nahikoa izango figura esanguratsua hurbiltze soilarekin. Umeki primate azpi-gizakiak sutsu atxikiko dira eta helduak denbora luzez besarkatuko dira. Besarkadari esker, gutxitu egingo dira ez egoteak sortzen duen emozioa zein izua. Eta subjektua bere eginkizunetara itzuliko da, lehenago edo beranduago.

Komunitate tradizionaletan amaren titia hurrupatzeak etengo ditu sustoa edo hurbiltze gogoak. Mendebaldeko umei dagokienez, txupeteak beteko du eginkizun hori.

>> 5. ARIKETA PRAKTIKOA

Behatu itzazu haurrak testuinguru desberdinetan eta arreta jar ezazu zer gauza egiten duten beraien erreferentziazko irudiengana hurbiltzeko eta berauek erakartzeko. Identifikatu ondoren edukietan aipatu ditugun jokabide ezberdinak. Posible duzu orain jakitea zerk aktibatu dituen jokabide horiek? Egin zerrenda.

fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok

4

ALDENTZEA ETA GALERA

ALDENTZEA ETA GALERA

>> 1. HELBURUAK

Bi dira ditugun helburu nagusiak. Batetik, banaketaren ezaugarriez eta ondorioez ohartzea, eta bestetik, eskolan gertatzen diren banaketen eta lantzen diren edukien arteko loturak egitea.

>> 2. EGOERA

Haurrak, eskolako lehen egunetan guraso eta senideak alde egiten dutenean negarrez geratzen ohi dira. Antza, aste batzuk igarotzen direnean “pasatu” egiten zaie. Baina oporraldi luzeen ondoren berriro ere eskolara doazenean batzuk berriro geratzen dira negarrez.

>> 3. HAUSNARKETARAKO GALDERAK

- Nola azalduko zenituzke gertatzen diren negar horiek?
- Umeak eskolara “ohitu” direla diogu jada negar egiten ez dutenean. Umeak ohitu egin behar dira? Arrazoitu.
- Nola lagun dezakegu umea izaten dituen banaketetan?

>> 4. EDUKI KONTZEPTUALAK

4.1. Aldentzea

Hona hemen gizakion bizitzako gai eta gako nagusietako beste bat. Eskola-bizipenetan ez dugu horren adibiderik falta.

4.1.1. Aldentze-erantzunen ontogenia

Atxikimendu portaeraren funtsezkoena zer den esan behar izango bagenu, hurrengoak aipatuko genituzke, ezinbestez:

- Lehenengo 16 asteak baino lehen, oso bakanak dira haurraren ingurukoei hark modu berezitan zuzenduriko erantzunak, eta erantzun bakanok ezin dira behaketa-metodo zorrotzen bidez baino antzematen.
- Lehenengo 16 asteak eta 26 asteen tartean ugariagoak dira modu berezitan zuzenduriko erantzunak, eta erantzunok, gainera, antzemangarriagoak dira. Hain zuzen ere, etxean hazitako 6 hilabeteko haurrik gehienengan argiro antzematen dira.

4. ALDENTZEA ETA GALERA

- Lehenengo 6 eta 8 hilabeteen artekoengan atxikimendu portaera ageri-agerikoa egiten da. Atxikimendua irudi jakin batenganakoa izaten da, amarenganakoa gehienetan.

Hala bada, aldentzeari buruzko erantzunak ez dira lehen 7 hilabeteak baino lehenago ageri izaten.

Aldentzeari buruzko lehenengo ikerketa, Shaffer-ek eta Callenderrek egin zuten bere ikerketa, 1959koa da. Hark, Atxikimenduaren Teoria ezagutu gaberik egin zuen bere ikerketa. Horren arabera, haurrak bere lehen urteko bigarren erdian hasiko litzateke antzematen inguruko objektuak bere buruarekiko gauza independenteak direla alegia, orduantxe, ez lehenago objektuak espazio eta kausa ingurumen jakin batean kokatzen hasiko litzateke.

Haatik, Bellek (1970) erakutsi zuen legez, haurrik gehienek goizago garatzen dute giza-objektuaren iraunkortasunaren nozioa gauza-objektuaren nozioa baino. Baina hori horrela bada ere, giza-objektuaren nozioa, behar bezala garaturik, ez dago bederatzigarren hilea bete baino goizago. Hala bada, tarte horretan aldentzeari eman ohi zaion erantzuna ez dator kognizio-garapenaren menpe, baizik eta figura primarioarenganako atxikimenduaren agerteraren mende, eta irudi hori, sortu ere, zazpigarren hilabetea aldera sortu izaten da.

4.1.2. Aldentze-erreakzioaren morfologia

Aldentzeak eragin izaten duen erreakzioak pauta edo jarraibide jakin bati jarraitzen dio. Pauta hori hiru aldi edo fasetan bana daiteke, aldentze-tartearen arabera, hain zuzen ere (Bowlby, 1973):

- Protesta
- Itxaropen eza, edota etsipena (*Dispair*)
- Atxikimendu eza (*Detachment*)

Berrito elkartu ondorengo lehenengo egunetan -zenbait egunetako, asteetako edo tarte luzeagoko aldentze aldiaren ondoren- haurrak kostatzen ahala kostatzen ahala -amaren-ondoan egon nahi izaten du eta, hura berrito aldentzekotan dela susmatzen dueneko larritasun nabarmena erakusten du. Aurrerago zehatzago aztertuko dugunez, horra hor sorturik larritasun-atxikimendua haurrarenengan.

Aldentzeak eragindako lehenengo behaketa dokumentatuak, behaketok enpirikoak izan ez baziren ere, Dorothy Burlingane eta Anna Freudek (1942) Bigarren Mundu Gerran barrena Hampstead (Inglatera) herriko haurtzaindegiak egin zituztenak dira. Antzematea ahal izan zuten, haurrak, aldentzearen ostean, posesibo, jeloskor eta apetatsu bilakatu ohi dira. Antzeman zuten, halaber, haurrok zaindaria-renganakoan

egundoko kontraktotasuna eta arbuioa erakusten zutela. Beste batzuk uzkur agertzen ziren, emozio-atxikimendu ezaren seinaleak emanez.

Geroagoko ikerketek, Robertson eta Bowlbyrenek hain zuzen (1952), protesta, etsipen eta atxikimendu ezaren patroia finkatu zuten, horiek aldentzeari emaniko erantzun pautatuak direla erakutsiz.

Aipatu behaketa eta oharpen horien ostean eta horiexekin aurrez aurre, egun klasikoak diren ikerketa bi abiarazi zituen "Tavistock Child Development Research Unit" delakoak, biak ere aldentzean haurrek izaten dituzten erreakzioari buruzkoak. Ikerketok gauzatu zituztenak Heinicke (1956) eta Heinicke eta Westheimer (1966) izan ziren, behatuak 15 eta 30 hilabete arteko haurrak izan zirelarik. Lehenak, aldentze-tartean eta horren ostean izaten diren erreakzioen sekuentzia aztertu zuen. Bigarrenak, aldiz, haurrak etxera itzuli ostean izaten zuen jokabidea aztertu zuen. Biek ere biek 15-30 hilabeteko haurrak aztertu zituzten, esan bezala; haatik, haurron familiak trinkoak eta inoiz lehenago banatu gabekoak ziren. Argitu beharrekoa da ikerketa guztiak atxikimendu irudiarengandik aldenaraziak eta erakundeen menpeko etxeetan sartuak ziren haurrekin gauzatu zirela.

Aipatu ditugun ikerketa biek argitara ekarri zituzten aldentze-erreakzioaren aldietako bakoitzean izaten dituen portaerak.

4.1.2.1. Protesta

Haurrak gogotsu protestatzen du eta, kosta ahala kosta, atxikimenduzko irudia berreskuratzen saiatzen da. Fase hau denok ezagutzen duguna bada ere, gainerako beste aldentze-erantzun biei kateaturik agertu ohi delakoa ez da hain gai ezaguna. Bestalde, protesta-erreakzioa arinkeriaz hartu izaten da, alegia, naturalizat eta, hortaz, ondorioz gabekotzat joz. Ez da horrela, ordea, hurrengo lerroetan argi geratuko den bezala.

Erantzun honen azalpenetan aditu ahal dugunez, elkarrengandik aldentzeko tenorean haurrak negarrez hasten ziren eta, areago, batzuek haraino eramán zituen atxikimendu-irudiaren konpainian segitu nahi izaten zuten. Beste batzuek aldiz, bere burua behearen gainera botatzen zuten. Eta azken batean guzti-guztiak negarretan eta mugimendu zoroetan itotzen ziren, nolabait esan. Oherako orduan negarrak maiz agertu ziren. Azkenik, neskatoetako batzuek etsipenez eusten zioten beraiekin ekarritako trapuzko panpinari.

Etetik kanpoko lehenengo hiru egunetan izaniko erantzunen artean negarra izan zen ohikoenetakoa. Astiro-astiro negarrok baretuz joan baziren ere, lehenengo bederlatzi egunetan behin baino gehiagotan agertu ziren berriro.

4. ALDENTZEA ETA GALERA

Jokabide hori askoz ohikoagoa izaten zen oherakoan eta gero gau osoan ere tarteka. Ama aldarrikatuz gauaren erdian itzartzen zen haurrik ere bazen.

Haurretako batzuk amaren bila hasten ziren. Gero, astebetegarrenean edo, haurretako gehienek negar egiteari uzten zioten. Lehenengo hiru egunetan, ordea, etxetik ekarria zuten objektuari atxikirik egoten ziren.

4.1.2.2. *Etsipena edo itxaropen eza*

Denbora tarte jakin bat igarota irudi zuen haurra atxikimendu-irudia berreskura zezakeenik amore emanda zegoela. Haatik:

- Kezkaturik segitzen zuen, inguruari adi-adi. Haurrak soraio ageri ziren, atxikimendu irudia nondik joana zen eta, hantxe. Berau da, bada, desagerturiko objektuarekiko orientazioa deritzoguna.
- Hurbiltzen zitzairen edota kontsolatzeko ahalegina egin zezakeen pertsona oro arbuatzen zuten. Kontsolatzea ukatuz, axolagabe bezala, ez zuten ezertan lagundu nahi izaten; ez zuten beste inork janztea edo erantztea onartzen, uko egiten zioten guztiari, hala jatekoari eta nola zaintzaileen eskariei, adibidez.
- Betilun, hutsaren hurrengo zen haurrek esploraziorako, jolaserako eta beste haurrekin egoteko agertzen zuten gogoia.
- Behin aste bi igarota haurretako batzuen zaintzaile jakinen bat gogokoa zutela erakusten zuten. Nolanahi ere, horrelakoetan ere erantzun kontraesankorrak ematen zituzten, eta behin edo behin erantzunok liskartsuak izaten ziren. Liskarrak biziago bilakatzuz zihoazen denbora igaro ahala. Jolasean neskatoren batek panpina airean jaurtitzen zuen, "joan da" esanez.

4.1.2.3. *Atxikimendu eza*

Denbora igaro ahala haurrak atxikimendu irudiarekiko interesa galduz zihoazela zirudien. Haienganako emoziorik eza azaleratzen zen.

Aipatzen ari garen ikerketan haurrak, aldendurik egon ere, 13 egun eta 21 aste bitarteko denboraz egon ziren aldendurik, aintzat kasua. Erantzunak ere denbora tartearen arabera aldatzen ziren

- Zenbait egun edo astetako aldentzearen ostean ama berriro ikustean harenganako atxikimendu ezaren halako zantzu batzuk antzematen zitzaizkien guzti-guztiei; zenbaitek ezagutu ere ez zuela egiten ematen zuten, beste zenbait aldendu egin ziren eta, kasuren batean edo bestean, harengandik urrundu ere bai. Hori horrela, aitarenganakoan guztiak agertu

ziren xeratsu. Bada, amarekin berriro elkartzearen ezaugarrietakoa dugu atxikimendu ezaren aldera hori eta, jakina, elkarrengandik aldendurik egondako tartearen araberakoa da horren indarra. Zehatzago esanda, atxikimendu ezak berriro elkartzearen osteko hiru egunetan iraun zuen.

- Atxikimendurik gabeko fase horren hurrengoan haurrak berriro bakaturik geratzearen beldur zirela erakusten hasi ziren eta, amari atxikitzeke moduan aldentzea gertatu baino lehenagoko gogo handia erakusten zuten.

Oharpenenon zuzentasuna geroagoko beste ikerketa batzuk berretsi dute, horien ondorioak izan direlarik:

- Bizitzako lehen hiru urteetan, aldentze oso luze edota errepikatuaren ostean hain zuzen, atxikimendu ezaren egoera mugarik gabe luza liteke.
- Aldentzearen ostean irudi esanguratsuarekiko anbibalentzia sistematikoa antzematen da:
 - alde batetik hura bertan egotea aldarrikatzen dute eta bakarrik utzita lotuz gero negarrez hasten dira.
 - eta beste aldetik harekiko arbuioa erakusten dute, edo bestela liskartsu eta desafiatzaile ageri ohi dira.
- Era berean, aldaketak antzeman ziren hala amarengan nola familiaren barruan ere: haurraren sentimen beroak hoztu egiten ziren zenbait kasutan, eta etxeko bizimodua beste eskema batzuen barruan antolatua zen.

Anbibalentiaren iraupen-aldiari eragin ohi zion aldagarri nagusia amaren portaeraren nondiko norakoa da: haurraren portaera liskartsuak zigorra merezi duen ala segurtasun eta baketasun seinaleak eman behar zaizkion da gakoa.

Ordezko irudiak haurrari eskaini ahal dizkion zaintzak dira, hain zuzen, atxikimendu ezaren indarra ahularazten duten eragileetako bat. Lehenengoetan txikia beldur da arrotzarekiko, eta uko egiten die haren txera eta amatasun zaintza eskaintzeko ahaleginei. Aldi edo fase horren hurrengoan jokabide liskartsua erakusten du, anbibalentea deritzon jokabidea, hain zuzen. Alegia, kontsolatua izatea bilatzen duenean aldi berean kontsolamendu ahalegin orori uko egiten dio. Erantzun anbibalente horren soluzioaren gakoa ordezkoi irudiaren jarreran datza. Zaintzaileak, ala haurraren jokabideari egokitzen dio berea, haren liskar gogoari liskarrik gabe erantzunez egokitu ere, ala, kontrara, haurraren portaera erasokorra zigortzera edota zentsuraztera jotzen duen.

Atxikimendu eza areagotzen duten eragileen artean daude, aldiz, haurra giro arrotzera ekartzea eta arrotz zaizkion eta elkartrukagarriak diren pertsoekin

4. ALDENTZEA ETA GALERA

aurrez aurre egonaraztea eta bizipen mingarriak biziaraztea, hala nola, ospitalean egonaraztea.

4.2. Zenbait gogoeta psikologiaren eta pedagogiaren aldetik

Aldentze erreakzioaren baitan hura ulertarazten lagundu ahal zuten entitate psikologiko eta psikopatologiko garrantzitsuak antzematea izan zen Bowlbyren jenialtasuna, horren ondorioztat gero psikoanaliaren dogmatzat jo ohi ziren tesi nagusitik aldentzea pairatu behar izan bazuen ere. Entitate horietariko bat eraso da. Larrimina edo larritasuna da bestea. Eraso eta larrimina, horra psikopatologia neurotikoa deritzonaren oinarrian direnak. Haren jenialtasunen artean beste bat, aldentzeak eragiten duen dolu prozesuaren eredia hiru faseetan banaturik azter daitekeela igartzea edo antzematea izan zen. Doluaren gaia, ordea, atal honexen azken aldera jorratuko dugu, galerari dagozkion gaiak azaldu ondoren. Horietan aldentzearen hiru faseak berrikusiko ditugu, alegia, protesta, itxaropen eza eta atxikimendurik eza. Oraingoaz, lot gatzazkio aldentzearen lehen faseari -protestari-, zeinaren osagarrietan hira eta larrimina agertzen baitira.

4.2.1. Eraso eta hira

Gizakiaren jokabide zuhaitzari eskainitako atalean azaldu dugun bezalaxe, eraso, izatez, berezko edo sortzetiko jokabidea da, hala subhumanoak diren primateengan nola humanoengan. Delako jokabide hori une jakin batean ageri da (Suomi, 1976; Montagner, 1995). Berrikiago, AEB delakoan 1.100 hurrekin egindako ikerketak (NICHD 2004) eta Herbeheretan eredu errepikatuz 2.253 hurrekin egin beste batek (Alink eta lag., 2006) erakutsi digutenarekin bat, eraso fisikoa ageri-agerikoak 12 hilerekin hasten dira; gero, 36 hileak bete artean, haziz doa eta, behin horretara iritsita moteldu egiten da; azkenik, 24 eta 36 hilabeteen arteko adin-tartean, mutikoak neskatoak baino oldarkorrakoak dira. Jokabide hau areagotu edo bestela moteldu egin ohi da, haurrenenganakoan ingurukoek duten jarreraren arabera hain zuzen.

Aipatu ditugun ikerketen jomuga eraso jokabideak izan dira, hala nola zartadak, ostikoak eta haginkadak edo ausikiak. Bada, ordea, eraso eredu primitiboagorik (Bowlby, 1973); aldentzeari buruzko erantzunetik sortu eta bakardadeko negarraren aurretik etorri ohi dena dugu hori protesta erantzunetan antzeman ohi dena, alegia. Eraso mota edo molde hori aldentzeari buruzko erantzun guzti-guztietan sortu ohi dena dugu hori, haurrengan zein nagusiengan ematen delarik.

Haur suminkortasunaren garapen gehiagokoan bizien eragiten duten faktoreetako bat, gerora gainera haur erasokorraren ezaugarrietan ere eragingo duena, aldentze traumatikoa da (Montagner, 1978). Umea haur eskoletan hazteari buruzkoan gogoan hartzekoak dira eguneroko aldentzeak. Goizeroko aldentzeak ikasgelan haurrek garatu ohi duten erasokortasunaren oinarri dira, Montagnerrek frogatu duen bezalaxe.

4.2.2. Antsietatea eta larridura

Gertaera psikiko konplexua dugu antsietatea. Hain zuzen ere, funtsezko kontu bitaz ohartarazi nahi dugu konplexua dela esanez ordea. Lehen, gertaera hori osagarri zenbaitez osaturik dela; bigarrena, antsietatea ez dela zehatz-mehatz zedarritu ahal den nozioa, osagarrien askotarikotasun horrexegatik hain zuzen ere.

Beldurra den emozioari ekitean zabalago azalduko duguna aurreratuz, antsietatea bizi duenak beldur oraindik erabat bukatu gabe batek bizi duela esan dezakegu. Izan ere, beldurra kenduko dion atxikimendu irudi horixe da faltan duena. Horrela bada, antsietateak gora eta gora egiten du, harik eta psikearen hustuketa gertatu arte, oldean eta era desordenatuan gertatu ohi dena, bestalde. Alabaina, larridurazko beldurraren maila edo egoera muturreko horri izena emateko hobe izu hitza gordetzea.

“Angustia” hitzaren etimologiari begiratzuz ohartuko garenez, “angostura”, hots, herstura da, edo estura, haren jatorrian dagoena. Euskaraz esanda, larrimina bizi duen gizabanakoak bere burua indar elkarri kontrajarri biren artean preso ikusten du. Estuturik, bada. Eta estutasunetik irten beharra dauka, eta horretarako gerora begiratu behar du. Antsietatea, izatez, gurari oso bortitza da. Beraz, aztertzen ari garen gaierikoa antsietate hitza erabiliz estura edo larritasun egoeratik irteteko gogo bizi-bizi horrextaz ohartarazi nahi dugu. Haatik, eguneroko bizimoduan antsietatea, estutasun edo herstura hitzak batetik, eta larritasuna edo larridura hitzak bestetik, guztiak elkarren baliokidetzat erabiltzen dira.

Darwinek (1872) berak ere antzeman zuenez, erosotua den animaliak elkarren muturrekoak diren erreakzio edo erantzun bi izan ditzake: animaliak berak bere indarren ebaluazioak zertara ematen dion, erasora zein ihesera jo lezake. Edo bien nahastura edo konbinazio litekeen hirugarren irtenbide batera ere jo lezake. Larritasunaren baitan badira beldur/ihesa eta eraso/hira binomioak. Gizakiaren eta animaliaien jokabideari buruzko teoria orokorrean azaltzen duen atalean idatzita dagoen bezalaxe, mehatxuzko egoerak berdin-berdin eragin lezake erasora jotzea nahiz ihesera jotzea, baita bietara ere aldi berean.

Bada, aldentzeak berarekin dakar larritasun edota larridura deritzogun gertaera konplexu hori. Izan ere, Bowlbyren meritua izan da larridura aldentzeari buruzko lehenengo erantzun-faseari loturik antzematea. Eta horri estu-estu loturik gizakia aldentzea berriz gertatu behar ote zaion beldurrez bizi dela esan behar da. Aldentzeari buruzkoan aurre-larridura ere badela, alegia. Aipatu egoera biei eman zaie izen bera, hain zuzen ere Aldentzeari buruzko Larridura, eta horrelaxe ageri zaigu sailkatutik buru-nahasmenean sailkapen taxonomikoetan.

4.3. Galera, dolua eta psikopatologia

Aldentzea eta galera fenomenoaren azterketak (Bowlby, 1960 a eta b, 1980) agerira ekarri zuen, haurrak aldentzearen hiru fasetako bakoitzari eman erantzunek ukan ere badutela zerikusirik doluaren faseekin.

- Protesta aldi edo fasea loturik legoke aldentze-larridurari, baita ere izaki kuttunen baten galerari.
- Etsipen aldia, ordea, loturik legoke haren galerak eragindako atsekabe eta dolu egoerei.
- Eta atxikimendu ezaren faseak zerikusia leukake defentsa erantzunarekin: ukapena, proiektzioa, arrazoizko bihurtzea eta abarrekin (defentsa-mekanismo psikologikoak). Horiek guztiek halako emozio-min larria eragin duten gertaerak kontzientziaren esparrutik eragozteko ahalegina egiten dute, egiten dutenez. Berehala ikusiko dugun bezalaxe, dolu osasungarriaren fasea bukaturik ere ez dator berez-berez izaki galduarekiko atxikimendu eza, afektuzko loturen beste antolamendu ezberdin bat baizik.

4.3.1. Dolua eta atsekabea

Goiko hitz bietako bakoitzaren esangurara joz, dolu delakoak zera adierazten du; pertsona jakin batek norbait galdu eta harekiko lotura ukan duelako haren galerak eragin dituen prozesu fisiko eta psikologikoen, nahiz kontzienteak izan nahiz inkontzienteak izan -berezko erantzunak- multzoa osoa. Bigarrenera joz, atsekabe deritzogunak erantzuneko barne fenomenoak -psikearen egoera- hartzen ditu; berezko edo instintuzko erantzun osoaren dimentsio emozionala eta kognitiboa, alegia.

Dolua, azken batean, izaki maitatuaren galeraren ostean hura galdu duenak bere bizitza berrantolatzeke egin beharreko lan neketsua besterik ez da. Ostera, lan hori egin ezin dutenenagan doluaren atsekabea melankonia bilakatzen da.

Bowlby bera izan da doluaren prozesuan zerikusia duten osagarri guztiak ulergarri bihurtu dituen markoa sortu duena, atxikimenduaren teorizaziotik abiatuak sortu ere. Bada, benetan egoki deritzogu dolu lana delakoaren formulaziori. Lan horrek irauten duen denboran subjektuak horrexetan dihardu buru-belarri, gogoz eta gorputzez. Burua ez du beste ezertarako izaten, zentzumen guztiak horrexetara baititu jarriak. Haurrek, esate baterako, eskolako lanei ekiterakoan neke handia izaten dute eta, zeregin horretan beharakada etortzen zaie. Doluak eta atsekabeak hartzen die gogoia oso-osorik. Horretara bada, haurraren ohiko bilakatzen dira hainbat gorabehera psikosomatiko zein funtzional, haren organismoaren edozein ataletan gainera.

Gurean lutoa deritzona ezer izan bazen, gizarteak berak sorturiko araua izan zen, subjektuari jendarteak afektuen eta harremanen aldetik eskatzen zizkion erantzunak bideratzeko balio zuena. Beste kontu bat da gero horrekin egin izaten ziren

gehiegikeriak. Hori alde batera, lutoak irauten zuen tartez irauten zuen doluak ere, alegia, hortxe-hortxe bi urte.

Egungo gure gizarteak ez darama ondo dolua. Hori bizi dutenengan eragin nahi izaten du, galera izan duen subjektua bere aurretiko erritmora eta afektu-harremanetara lehen baino lehen itzul dadin. Dolu bizi duenak inguruko bizimoduarekiko interesa galdu duen arren, horri ateak interes berriei zabali eduki ditzan eskatzen zaio. Egoera horretan direnengan gizartearen presio edo indar horrek egonezina sorrarazten du, ordea. Lutoak eta haren koloreek eman ohi zioten babesaz gabeturik, dolu lanari ekin ahal izateko oztopo larriak tartekatzen zaizkie, nahi gabe bada ere.

Kanpoko edo inguruko munduari dagokionez halako aldaketa mingarria gertatu zaion gizabanakoak aldaketa hori onartzeko, eta, horren ondorioz, bere barne-munduan ere -irudizko munduan eta emozioen munduan- aldaketak behar izango dituela, eta agian bere atxikimendu-jokabidea ere aldatu beharra ere izango duela onartzeko ahalegina arrakastaz burutzen lagundu ohi du dolu onuragarria delakoak. Gazteagoak direnengan egoera honen bilakaerak atxikimendu ezarantza jo ohi du -bilakaera horretan sortuz joango diren defentsa mekanismoek patologia ezberdinak eragingo dituztelarik-, adinez nagusiagoak direnengan melankoliara joko duen era bertsuan.

4.3.2. Doluaren aldiak

Arestian ohartarazi dugun bezalaxe, izaki kutunen baten galeraren ostean izaten diren aldiak eta aldentze afektiboarenak, bertsuak izaten dira kausa batean eta bestean.

4.3.2.1. *Protesta aldia*

Galeraren osteko lehenengo denboretan gertatu ohi da. Hiru dira aldi honetako fenomenoek multzoan gailendu izan direnak.

- **Atsekabea.** Subjektua saminez eta atsekabeturik dago. Negarra izaten da horren ispilua, subjektuak negarrerako eskubidea duela antzematen duen okasioetan bederen.
- **Galera sinesteko buru-eragozpena** edo **sinesgaiztasuna.** Eragozpen honen muturretako batean etxera iristean galdu duen pertsona topatuko duen ustea dago, bestean heriotzaren ukapen patologikoa, eta mutur bion artean beste hainbat bizipen. Aldi honetan doluan den pertsonak pertsona galdua lekurik uste gabekoenetan topatuko duen inpresioa izaten du.
- **Hira.** Hira edo sumina nola-eta joan zaigun kuttun horrenganako erantzukien bidez adierazten da egokien, utzi egin gaituen akusazioa eginenez edota geure buruari eginiko erantzukien bidez, bietako

4. ALDENTZEA ETA GALERA

edozeinetara. Subjektuaren erredun sentimenduak dira, galdu dugunarenganako izan behar bezain onak izan ez garela-eta sentimendu horiek berez ekarri ohi duten damuarekin batera, norberaren buruaren kontrako hira edo sumin horren irudizko eta emoziozko adierazpidea. Haurrak, baita adin nagusiko pertsona jakin batzuk ere, hildakoaren heriotzaren eragilea beren portaera txarra edo gaitoa izan dela uste izatera iristen dira.

4.3.2.2. *Itxaropen ezaren aldia, edo etsipenezkoa*

Bigarren aldi hau heriotzaren osteko hurrengo asteetan etorri ohi da. Dolua bizi duen pertsona gogogabetu egiten da, eta kanpoko ezerekiko interesik eza erakusten, buruan ez baitu besterik galdutako kuttuna baino. Bada, iragan-minaren eta interes ezaren aldia da. Aldi hau beratu da mingarriena eta luzatu ere hileetan eta hileetan luza daitekeena da, aintzak lotura zernolakoa den. Gainera, min hain biziari biologiaren arloko gertaerak nahastu ahal zaizkio, hala nola neke handia, gogorik eza, insomnia eta nerbio-sistemaren arloko beste desoreka batzuk. Llabur esanda, dolua bizi duena ez dago ezertarako.

Aipatzen ari garen aldian dolua bizi duenaren barne-mundua pertsona kuttunari ager esaten ari zaio, astiro, harekiko atxikimendua motelduz doan heinean hain zuzen. Haatik, aldi honetan aurreko aldian ohikoagoak diren ezaugarrietako batzuk agertzea nahikoa arrunta da. Dolua bizi duenari aringarri zaion bakarria bere dolua beste pertsona batzuekin bizi izatea edo konpartitzea da aldi honi dagokionez. Joan den horri buruzko hizketaldiak izaten dira dolua mamitu eta norberaganatu ahal izaten lagundu ohi duen jokabide bakarria.

Hileak igaro ahala eta dolu lana behar bezala eginez joanez gero subjektua aipatu horren aldiaren hurrengoa den hirugarren aldian sartuko da.

4.3.2.3. *Doluaren amaiera eta atxikimenduaren berbideratzearen aldia*

Dolu lanari esker galera bizi duenari desagertuz doakio galduriko horrekiko atxikimendua, astiro bada ere, atxikimendu jokabidea beste batzuegana zuzenduz doan aldi berean. Horrela bada, dolu prozesuko fenomenoak motelduz doa, harik eta erabat ezabatu arte. Horrexetan datza hain zuzen ere dolu onuragarria.

Lehenago ere esanda gauden bezalaxe, badira prozesua bere azken burura eramateko gai ez diren pertsonak ere, aintzat dolua bizi duenak galduriko

horrenganako izan duen lotura nolakoa izan den. Atsekabeak hortxe dirau, melankonia bihurturik, eta horrekin batera hortxe diraute dolu prozesuko fenomenoetako asko. Horrextan datza hain zuzen ere dolu patologikoa.

Psike-aparailuak horrelako kasuetan eta luzera begira izaten duen irtenbide bakarra defentsa da. Galera atzean uzteko bidean pertsonak bere sentiberatasunaren zati handi bat ere uzten du atzean, galdurik. Galera erreakzioek eragindako blokeoek buru-gaitasunak murrizten dituzte, azken batean. Halaxe esan ohi da pertsona horiek "ez direla lehengoak". Horrelakoei ezinezko egiten zaie atxikimendua birbideratzea, ez dakite inori ateak zabaltzen, beste interes batzuei buruz joaten, helburu berriak bilatzen. Lotuari loturik geratzen dira, betiko.

4.3.3. Dolua haurtzaroan

Haurraren psike aparailua, egon ere, irudi garrantzitsuren baten galerari, batik bat amaren galerari, aurre egiteko behar bezain garaturik ez dagoenez, bilakaera patologikoaren arriskua hortxe dago beti. Haurrak ere doluaren elaborazioa nagusiak bezain ongi burutu dezake, baldin eta delako haurrari behar dituen euspina eta informazioa argia eta zuzena ematen bazaio.

Galeraren elaborazioan haurrari lagungarri izan dakizkiokeen eragileak bi dira: informazio egiazkoa eta atxikimendu beste irudi batzuk hortxe izatea. Horiek haurraren sentimenduak adituz lagundu ahal diote hari, horrela hark ez du bere sentipen mingarriari aurre egiteko beste defentsa mekanismo batzuetara jo beharrik izango. Sarri askotan pertsona kuttunaren galera haren inguruko besteentzat ere hain izaten da mingarria, ez baitute hari aurre egin nahi eta, horrez gainera, beren baitara biltzen dira edo bestela gogoa beste edozertan jartzen dute, ez jakinarena egin nahirik bezalaxe. Azaldu berri dugun egoera horretan biziz gero haurrak, pertsona kuttuna ez ezik, etxeko besteak ere galdu dituela esan liteke. Bere baitako egoera zein etxeko besteena bere kabuz ulertzeko gai ez delarik, haurrak defentsa mekanismoetara joko du. Horretara bada, mingarri zaizkion sentimenak bazterrean utzi nahi izango ditu, dolu lanari muzin eginez.

Beraz, haurraren doluari ekiterakoan beti gogoan izan beharreko alderdia da haren garapen kognitiboa, Piagetek deskribaturikoa hain zuzen ere. Haurra, lehen 5 urteak bete aurretik, ez da gai itzulezintasuna zertan den ulertzeko. Uste izaten baitu gaur hilik dagoena bihar berriro bizirik egon daitekeela. Halaxe, George Sand eleberrigileak amari aitaren heriotzaren hurrengo egunean galde egin ziona ekar dezakegu gogora. "Ama, aita hilda dago gaur ere?"

Gogoan hartu beharreko garrantzi handiko beste nozio bat haurraren egozentrismoa da, baita ere adin horietan hark bere burua -haurrak- ahalguztiduna ikusten duela,

4. ALDENTZEA ETA GALERA

pentsaera horixe baitu. Inguruan gertatzen den ororen kausa bere burua ikusten dut. Gaiztoa izan dela uste baldin badu, edota izaki kuttunari okerren bat gertatzea deseatu izan baldin badu, heriotzaren eragilea bera dela sinetsiko du eta, ondorioz, errudun sentimendu jasanezinak agertuko zaizkio. Hala bada, haurraren dolu aldian nagusiren bat haren alboan egoteak aipatu ditugun sentimen horiei buruz hitz egitea dakar, eta horrek hari kasualitateak ulertzen eta errudun zama arintzen lagunduko dio. Horra bada zergatik den hain erabakigarria haurrari errealitatea ez ezkutatzea. Haurra egia zuzentasunez esatea eta hileta erritueta egoten uztea on da. Kulturak ohi dituen bideok egokiak dira, egokiak direnez, haurrari galeraren nondik norakoa ulertarazteko. Hori bai, atxikimendu irudiren bat alboan izatea ezinbestekoa da, eusten lagun diezaion.

Dolua prozesatzeko bidean geldirik geratzeak min jasangaitza eragin izaten du eta, horri eman ohi zaion irtenbidea defentsa prozedurak dira. Prozedura horiek guztiek irudikatze eta emozio mingarrien errepresioa dakarte. Galera bera den traumarekin aurrez aurre defentsa psikologikoa garatzeak haren bizipena -galerarena- elaboraturik gabe bazterrean uztea dakar eta, horrekin batera ezintasun bat ere badakar. Hain zuzen ere, atxikimendua etxeko beste batzuegana birbideratzeko ezintasuna. Sentimenekiko defentsak sentiberatasun hautsi horren errepresioa dakar eta atxikimendu eza eragiten. Ondorioen artean emozioen zaurgarritasuna nabarmenak jota uzten du subjektua. Hala bada, mehatxu handitzat jo behar da dolua haurtzaroan eraman beharra, haurraren bearen nortasuna eraikitzearen aldetik begiraturik bederen.

>> 5. ARIKETA PRAKTIKOA

Beha ezazu testuinguru ezberdinetan nolakoa den haurren jokabidea beraien irudi esanguratsuetatik banatzen direnean, eta ondoren erregistra itzazu. Jasotakoa aldera ezazu kapituluaren jorratutakoarekin eta azter ezazu ea bat datozen.

fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok

5

SEGURTASUNEZKO ETA SEGURTASUNIK GABEKO LOTURA

SEGURTASUNEZKO ETA SEGURTASUNIK GABEKO LOTURA

>> 1. HELBURUAK

Helduaren eta haurren arteko lotura afektiboak nola eraikitzen diren jakitea da kapitulu honen helburu garrantzitsua, eta horrekin batera konturatzea norberaren ze jokabideak laguntzen dien haurrei lotura afektibo segurua eraiki dezaten.

>> 2. EGOERA

Haurrak gelan daude marrazten. Hezitzaileak eskutik hartu eta esaten die nola marraztu behar duten. Oso argi dauka lortu nahi duen marrazkia. Baina ordua begiratu eta konturatzen da ez diola astirik emango jolastokira garaiz irteteko, beraz marrazkiak biltzen ditu. Ume bat negarrez hasten da beste batek marrazkia kendu diolako hezitzaileari emateko. Hezitzaileak bere egitekoarekin jarraitzen du.

>> 3. HAUSNARKETARAKO GALDERAK

- Zer eragina izango du umeengan hezitzaileak eskutik hartu eta nola marraztu behar duten esateak?
- Nola biziko dute umeek euren marrazkia bukatu gabe hartzea?
- Nola sentituko da negarrez dagoen haurra, inork kasurik egiten ez diola ikustean?
- Nola baloratzen dituzu hezitzailearen dituen erantzunak? Sentikorra da ala sarkorra? Arrazoitu.

>> 4. EDUKI KONTZEPTUALAK

Atxikimendu jokabideari dagozkion zenbait alderdi azaldu dira aurreko kapituluetan. Kasu honetan, are gehiago sakonduko dugu jokabide honen gainean, atxikimenduaren tipologiari helduko baitiogu. Atxikimenduaren tipologia ulertzeko, barne mapa operatiboaren garrantzia nabarmendu beharra dago. Umeak esperimendu dituen gertaera guztiak jasoko eta erlacionatuko ditu mapa hauei esker. Beste era batera esanda, umearen memoria garatu moduari esker hamabi hilabete betetzean, objektuak edo pertsonak bereizi ditzake une horretan bertan ikusi ez arren. Honez gain, umeek honezkero bizipen eta esperientzia ugari bizitakoak direla izan behar dugu kontutan. Hamabigarren hilabeterako, umearen barne mapa operatiboek bere buruaren gaineko eta atxikimendu figuraren eta euren arteko harremanaren pertzepzioa garatu dute. Segurtasun eta segurtasun eza nozioen gakoa hautemate hauetan aurkitzen da, oinarritzko konfiantza eta bere buruaz eta besteaz duen mesfidantzari estu lotuta baitira Segurtasun nozioak gailentzen badira, behar izanez gero era egokian erantzuteko prest izango duela pertsona heldua pentsatuko du umeak. Beraz, oinarritzko konfiantza izango du

5. SEGURTASUNEZKO ETA SEGURTASUNIK GABEKO LOTURA

helduarengan kasu honetan. Aitzitik, segurtasun ezari dagozkion hautemateak gailentzen badira, deitutakoan heldurik ez dela agertuko edo ez diola era egokian erantzungo pentsatuko du.

Funtsezkoa da oinarrizko konfiantza, helduaren irudia gainontzeko gizakietan islatuko baita eta, ondorioz, bere buruarenganako eta gainontzeko gizakienganako konfiantza erakutsiko du umeak. Aipatu konfiantza funtsezkotzat jo daiteke, kalitatezko esplorazioa garatuko baitu umeak honi esker, arrakastatsua izanez gero esplorazioak konfiantza ematen duelako. Aurkitu beharreko espazio berrietan murgiltzean, esploratzaile bikain bihurtuko du konfiantza honek, jakin baitaki zerbait gertatuz gero, hor izango duela erreferentziako figura laguntzeko prest, eta beraz, portu segurua dela. Aipatu oinarrizko konfiantza garatu duen umea parkean edo gelan barneratuko da, segurutzat jotzen baitu, behar izanez gero, helduak lagundu egingo diola, portu seguru gisa duen funtzioa betez. Aitzitik, oinarrizko konfiantzarik izan ezean, litekeena da umea ez barneratzea parkean edo gelan eta pertsona helduaren gertutasunean mantentzea. Kasu honetan, esploratzeko desioari gailenduko zaio umearen konfiantza eza. Edozein modutan ere, badira oinarrizko konfiantzarik gabe parkean barneratzen diren umeak ere. Espazio berri horretan barneratu arren, litekeena da etengabe bilatzea helduaren erreferentzia ikusmenaren bidez, edo ikaratuta oso egotea, ez baitute segurutzat jotzen behar izanez gero heldua hor izango denik eurak laguntzeko. Adibidez, beste jardueraren bat burutzeko xedez umeek gelaz aldatzen dutenean zeharo argi nabarmendu daiteke aipatutakoa. Hasiera batean, guztiz arrotza egingo zaie espazioa, baina erreferentziako figurak eskaintzen dien konfiantza edo segurtasunaren arabera, aipatu espazio berria deskubritzera ausartuko dira, edo ez.

Aldi berean, maitatua sentitzeak zein bere esplorazioen arrakastak areagotu egingo dute umearen konfiantza eta bere buruaz duen segurtasuna. Arau gisa, barne mapa operatiboetan inskribatutako nozioak bizitza osoan lagunduko dio, zorigaiztoko gertakariren batek ez badu aipatu oinarrizko konfiantza eteten. Beste era batera esanda, konfiantza eta segurtasun nozioa, orokorrean, bizitza osoan zehar mantenduko da.

4.1. Atxikimenduaren ebaluaketa

Literaturan egiaztatu dezakegunez, tresna ezberdinak erabili dira atxikimendua ebaluatzeko, fidagarritasun handikoak eta oso baliagarriak izan dira batzuk. Atxikimendua berezko jokabidea denez, eta ondorioz, bizitza ziklo osoan ematen denez, formaz aldatu arren, ebaluatu ahal izateko tresna ezberdinek adin ezberdinak hartuko dituzte, urte beteko umeetatik hasi eta heldutasunera arte. Tresna guztien artean, Egoera Arrotzaren Testa (Strange Situation Test -SST-) dugu ezagunena eta honi esker ondorioztatzen dira atxikimendu mota ezberdinak, ondoren deskribatuko dugu.

4.1.1. Egoera Arrotzaren Testaren jatorria

Agian bizitzaren bilakaeran duen garrantziagatik, ikerketa ugari egin dira konfiantza eta segurtasunaren nozioaren gainean. Hauetako askotan erabili da Egoera Arrotzaren

Testa (Ainsworth, Blehar, Waters eta Wall, 1978). Test honek nabarmendu duenez, umeak oso goiz finkatzen ditu bere etorkizuneko nortasunaren oinarriak, bere buruaz eta besteez duen konfiantza eta segurtasunaren moduko gaietan. Era berean, Test honek berretsi eta azpimarratu egiten du umea eta bere atxikimendu figuraren arteko loturaren kalitatearen garrantzia, eta ondorioz, azterketaren ardatz bilakatzen du.

12 hilabeteko umearen atxikimendu jokabidea aktibatzean datza Egoera Arrotzaren Testaren funtsa, bi eragileren bitartez egin ere: umeari arrotz egiten zaion egoeran egotea eta amak, bere atxikimendu figurak, aldegitia. Atxikimendu jokabidea aktibatzen ondoren (ikus. 4. eta 5. kapituluak) ama irteteen zein berriro elkartzean umeak duen erreakzioa aztertuko da. Amak aldegitian eta berarekin berriro elkartzean umeak dituen erantzun hauek ordurako ezarrita dagoen lotura motaren gaineko adierazle fidagarriak dira.

4.1.2. Loturaren tipologia

Umearen jokabideen gaineko ikerketa esparru honetan, Ainsworth-ek eta bere taldeak (1978), eta ondoren Mary Main-ek (Main eta Hesse, 1990), egindako lanei esker umeak helduarekin eraikitzen duen oinarritzko loturaren tipologia ezarri zen: lotura segurua eta segurtasunik gabekoa, honen baitan direlarik segurtasunik gabeko saiheste atxikimendua, anibalentea eta desantolatua. Tipologia lau bloketara mugatu den arren, bloke bakoitzak aniztasuna erakusten du, azpi-tipo espezifikokoak sortuz. Aipatu aniztasun honi esker, jarraian kokatuko dira kasuak, lau tipologiai muga orientagarriak direlarik.

Beste alde batetik, kasuen aniztasunak eta tipologiaen kronologia testuinguru zehatz batean gauzatzeak (gela arrotza) ez dute egokitzat joko aipatu testuingurutik kanpo atxikimendu mota batekin etiketatzea edozein ume. Beste era batean esanda, ez ditugu umeak atxikimendu seguru edo segurtasunik gabekotzat sailkatu behar, atxikimenduzko tipologia zehaztu ahal izateko ezinbestekoak baitira Egoera Arrotzaren Testaren protokoloaren laborategiko baldintza zorrotzak eta bere osaketa eta garapen zehatza eta osoa. Honela bada, ondoren azalduko diren umearen jokabidearen gaineko ezaugarriak Testaren testuinguruan bakarrik ulertu beharko dira. Hau da, ez dugu pentsatu behar gure eskolako gela batean ume batek Testean segurtasunik gabeko saiheste atxikimendu erakutsiko balu, ume horrek ezinbestez duela atxikimendu mota hau. Jokabideak ematen diren testuinguruan interpretatu behar direla adierazi nahi dugu. Hau da, segurtasunik gabeko atxikimendua zehazten duten jokabideak gela batean agertuko balitu, gela horretan eta une horretan umeak duen segurtasun maila baxua dela ondorioztatzea litzateke egokiena. Beraz, beti izan beharko dugu kontutan ondoren aurkeztuko ditugun portaera ezaugarriak Egoera Arrotzaren Testari dagozkiola eta ez testuinguru naturalei, beraz, biziki arriskutsua litzateke beste testuinguru batzuetara hedatzea.

5. SEGURTASUNEZKO ETA SEGURTASUNIK GABEKO LOTURA

Honako portaerei esker zehaztu daiteke lotura mota:

ATXIKIMENDU MOTA	PORTAERAREN EZAUGARRIAK testean banaketa eta berriro elkartzearen aurrean
Segurua	<p>Umea neurritz kexatuko da bere zaindari primariotik banatzen dutenean</p> <p>.....</p> <p>Era aktiboan bilatuko du kontaktua berriro elkartzean, negarra eta hurbiltze jokabideen bidez ...</p> <p>.....</p> <p>Aise lasaituko da eta jolasari ekingo dio berriro.</p>
Segurtasunik gabe saihesten duena	<p>Jabetu ez delakoan edo bere amaren edo lehen zaindariaren irteera berdin zaiolakoan, itxurak egingo ditu, irudia besterik izan arren.</p> <p>.....</p> <p>Berriro elkartzean, era aktiboan saihestuko ditu ama eta zaindari primarioa.</p> <p>.....</p> <p>Bere jostailuekin edo objektuekin arituko da buru-belarri, hark alde egin baino lehenago, eta kanpoan dagoenean ere</p>
Segurtasunik gabeko anbibalentea	<p>Neurriz edo biziki kexatuko da banaketa bitartean</p> <p>.....</p> <p>Aldi berean bilatuko du zaindaria eta bere aurka egingo du berriro elkartzerakoan.</p> <p>.....</p> <p>Zailtasun asko ditu lasaitzeko, eta ondorioz, ez dio berriro esplorazioari ekingo.</p>
Segurtasunik gabeko desantolatua	<p>Aurreko atalen artean kokatu daitekeen portaera erakutsiko du, ez ohizko portaeraren sekuentziak gehituko ditu banatzean eta berriro elkartzean.</p>

4.2. Atxikimendu motak eta garapen intelektuala

Egoera Arrotzaren Testean tipologia bakoitzari dagokion umeen jokabide ezaugarrienak azaldu ondoren, garapen intelektualaren gainean hauetako bakoitzak eragiten dituen ondorioez arituko gara ondoren. Bi ikuspuntutatik jorratuko dugu gai hau. Batetik, ikuspegi orokor bati jarraiki, atxikimendu motak umearen jokabide esploratzailean duen

garrantziaren berri emango dugu. Bestetik, atxikimendu motak ezagutzaren eraikuntzan dituen ondorioak aipatuko ditugu.

4.2.1. Atxikimendu mota eta jokabide esploratzailea

Umearen atxikimendu mota eta garapen intelektualaren arteko erlazioa ulertzeko, jokabide esploratzailea hartu beharko dugu erreferentzia gisa. Berezko jokabide hau jaio eta 5. hilabetera agertuko da eta orduan hasiko da umea inguruan gertatzen denari ikusminez begiratzen. Handik eta denbora gutxira, garatutako mugitzeko gaitasunak askoz ere aberasgarriagoa bihurtuko du jokabide esploratzailea, honi esker, bilatze ibilaldietan murgilduko baita umea. Beste era batera esanda, umea mugitzen hasiko da eta ezaguna egingo zaio inguratzen duen espazioa. Testuinguru honetan, zaindari primarioak, elkarrizketak eta laztanak konpartitzeko figura pribilegiatuak izateaz gain, euren ibilbideak hasteko eta beldurtzen direnean babes bila joateko portu bilakatuko dira.

Bion artean ezarritako lotura segurua baldin bada, konfiantza osoz ekingo dio esploratzeari umeak, bere beharrian eta eskaerei erantzuteko atxikimendu figurak hor izango direlakoaren seguru oso. Bere atxikimendu figuren presentziak eta hauek libre egoteak, hain zuzen ere, eragingo dute umeak ez izatea inongo larritasunik bueltatzean bere atxikimendu figura aurkitzeko. Hau da, umea lasai dago bere atxikimendu figurarekin, eta ondorioz, lotura seguruan dagoen umea aktibazio maila baxuan izango du atxikimendu jokabidea (negarrak, atxikidurak ...). Modu honetan, esplorazio jokabidea gailendu egingo zaio atxikimendu jokabideari eta umeak lasaitasun osoz esploratuko du bakarrik.

Eredu hau haur eskolaren testuinguruan kokatzen badugu, bere hezitzailearekin seguru sentitzen den umeak materialak eta gelako bazter guztiak esploratzeko adina konfiantza izango du. Bere hezitzailea beti izango denaren segurtasuna du ume honek eta, beraz, ez du bere atxikimendu jokabidea aktibatua izango (helduarenganako seinaleak edo mugimenduak) eta horrela lasaitasun gehiagoz esploratu ahalko du. Ia gauza bera gertatzen zaio ere, haur eskolan geratzen denean, familiakoak geroago hor izango direla ziur duen umeari edo eskolako jantokira doanari, jakin baitaki ostean gelan aurkituko duela hezitzailea.

Eta hau guztia gutxi balitz, atxikimendu seguruko umea maitatua sentitu da, gertakari beraren beste dimentsio bat; baliotsua eta bere buruarekiko estimuaz. Hau dela eta, gehiago esploratzeaz gain, ume segurua hobeto esploratuko du.

Gutxi gora behera 8. hilabete aldera agertuko den beldurrezko jokabidearen eta atxikimendu motaren arteko erlazioari dagokionez, Egoera Arrotzaren Testak adierazten zuena nabarmendu beharra dago. Beldurrezko jokabidea abiarazten denean, azkar lasaituko da atxikimendu segurua duen umea beldurra gainditzeko beharrezko segurtasun eskainiko baitio atxikimendu figurak.

5. SEGURTASUNEZKO ETA SEGURTASUNIK GABEKO LOTURA

Bestalde, segurtasunik gabeko lotura duen umeak maila altuan izango du aktibatuta iraunkorki atxikimendu jokabidea, ez baitu ziurtatuta atxikimendu figuren presentzia eta erabilgarritasuna. Dena den, umeen portaerak oso ezberdinak dira. Saihesten dutenek ez dute inongo portaera "aktiborik" erakutsiko helduarekin egoteko: deiak, hurbiltze saiakerak ... Aitzitik, litekeena da segurtasunik gabeko atxikimendu anibalentea duten umeek era aktiboagoan bilatzea bere atxikimendu figura seinale adierazgarrien edo hurbiltzeen bidez.

Kasu honetan, honako adibidea eman daiteke: ume batzuk, bat-batean, beldurrak jota dira elementu arrotz bat heldu delako gelara, bisitari bat izan daiteke. Pertsona arrotz honek aktibatu egingo du beldurrezko jokabidea umeengan eta hauek, era berean, modu ezberdinean jokatu dute. Segurtasunik gabeko saiheste atxikimendua duten umeek berdin jarraituko dute, ez dutela seinale aktiborik erakutsiko helduarekin egoteko, beldurrez egon arren. Atxikimendu ez segurua anibalentea dutenek, ordea, era aktiboan ekingo diote hezitzailearen bilaketari seinale edo hurbiltzeen bidez, eurok lasaitzea zaila gertatu arren.

Beste alde batetik, segurtasunik gabeko umeak esploratzeari ekiten badio, banatuta izango du arreta egoera arruntean: gurasoak (hezitzaileak, atxikimendu figurak) non dituen jakin gabe arduratuta batetik, eta esplorazioan murgilduta bestetik. Modu honetan, ezinegonak eragindako atxikimendu jokabide maila igotzeaz gain, esplorazioa oztopatzen duen egoera psikiko nahasia gehituko zaio. Beste era batera esanda, segurtasunik gabeko lotura duen umeak gutxiago esploratuko du eta kalitate gutxiagoko esplorazioa garatuko du atxikimendu seguruko umearekin alderatuz, beldurra edo lasaitasun eza segurtasunari gailenduko baitzaio.

4.2.2. Atxikimendu mota eta ezagutzaren erakuntza

Errealitatearen gaineko informazioa lortzea du xedetat esplorazioak. Honela bada, informazio honi esker erakiko du ezagutza umeak. Ezagutzaren erakuntzak, aldi berean, bi osagai nagusi ditu:

- Esplorazio beraren ondorioz biltzen diren datuak.
- Datuok prozesatzea eta antolatzea memoriaren erregistroetan.

Lehen osagaiari dagokionez, berehala ondorioztatu dezakegu atxikimendu segurua duen umeak, gehiago eta hobeto esploratzen duenez, datu gehiago jasoko dituela segurtasunik gabeko umeak baino.

Bigarren osagaiari dagokionez, esplorazioaren bidez jasotako informazioa kategoriatu eta motetan sailkatzen dela nabarmendu beharra dago, ondoren memoriaren apaletan artxibatuko da eta erabilgarri izango da esplorazio berriei ekiterakoan berrerabiltzeko. Eskuratutako ezagutza hauei esker errealitatearen elementu gehiago hautemango ditu, esponenzialki handituko delarik ezagutzeko gaitasuna.

Beste modu batera esanda, aurre ezagutzak eta informazio berriak erlazio zirkularra osatuko dute, ondorioz, adimena eraikiko dute (Piaget, 1936). Eredu simple bat jartzearren, boligrafo bat esploratzen ari den umearen kasuan, tapoia kendu eta jarri diezaiokeela aurkitu duelarik, aurre ezagutzetatik abiatuta ekingo dio esplorazioari eta modu honetan aurkikuntzen sakontasuna hedatuko du. Hau guztia gertatu dadin, ezinbestekoa da lasaitasun emozionala. Bestetik, lasaitasunez burutu daiteke esplorazioa eta, ondorioz, sakontasun gehiagoz egingo da bilaketa. Beste alde batetik, lasaitasuna ezinbestekoa da, umea ezinegonetik aske sentituko baita esplorazioaren bitartez erdietsitako informazioa gordetzeko behar dituen kutxatilategietan eraiki ahal izateko. Aitzitik, segurtasunik gabeko atxikimendua duen umeak ohikoa izango du ekaitz emozionalean bizitzea, lasaitasunik eta segurtasunik gabe: ardurarik gabe esploratzeko aske ez sentitzeaz gain, bere adimenak ez dio prozesatuko edo informaziorik antolatuko. Beste era batera esanda, umea lar nahastuta eta segurtasunik gabe dago ezagutza berriak lortzeko, prozesatzeko eta antolatzeko. Modu honetan, ez du aurkikuntza berririk inongo kutxatilategitan gordeko eta zail egingo zaio berreskuratzea.

Nabarmendu behar da, baita ere, bere kontzeptuak lasaitasunez ondo finkatzen dituen umeak bere memoria biografikoa osatzen duten narrazioak eraikiko dituela. Berriz, lotura ez segurua duten umeek, eta ekaitz emozionala pairatzen dutenek ere, ezingo dituzte egoki finkatu euren bizipen tenporalak eta beraz ez dute gordeko haurtzaroaren gaineko oroimenik, egoki antolatu edo zehaztua.

Ondorengo taulak umearen portaeraren ezaugarri nagusiak laburbiltzen ditu, bere atxikimendu motaren arabera. Nabarmendu behar da ez direla atxikimendu ez seguru desantolatua duen umearen portaerarik adieraziko, oso zaila baita bere portaerarik ohikoenak zehatz zehaztea:

ATXIKIMENDU MOTA	PORTAERA OROKORREKO EZAUGARRIAK
Segurua	<p>Lehen zaindariaren presentzian eta prestutasunean konfiantza osoa du.</p> <p>.....</p> <p>Asko eta ondo esploratuko du.</p> <p>.....</p> <p>Egoki prozesatu eta antolatuko du esploratzerakoan jasotako informazioa.</p> <p>.....</p> <p>Oroimenez landutako sekuentzia tenporala eraikiko du, oroimen gogoangarriak eta narrazio biografiko koherentea ondorioztatuz.</p> <p>.....</p> <p>Historia beraren zentzua dute.</p> <p>.....</p>

5. SEGURTASUNEZKO ETA SEGURTASUNIK GABEKO LOTURA

Bere, bestearen eta bion arteko harremanaren gaineko irudi baikorra islatuko dute oroimenek.

Bestearekin kontatu dezakeenaren konfiantza du eta bere burua balioesten duenez, abentura berritan murgildu daiteke edo erronka berriei ekin.

Portaera baketsuak erakutsiko ditu beste ume batzuekin harremanetan jartzen denean eta loturak sortuko ditu eurekin.

Segurtasunik gabe saihesten duena

Oso goiz daki ez duela bestearen laguntza egokirik izango, eta ez du nora joaterik portu seguruaren bila.

Ez du hain lasai ez kalitatez esploratuko.

Bere kabuz moldatu beharra duenez, bitarteko arrakastaren bat lortu dezake, baina beti ere bere buruaren laguntza besterik ez duela izango jakiteak sortzen dion tentsioarekin.

Larregizko eraso eta isolamendua garatu du, hau dela eta, portaera baketsu eta loturazko gutxi izango ditu.

Segurtasunik gabeko anbibalentea

Bere zaindariaren erantzun aldakor eta bidegabeen eraginez menpekotasun handia erakutsiko dio.

Autonomia gutxirekin esploratuko du kontu gehiago jartzen baitu bere atxikimendu figurarengan, esplorazioan edo jolasean baino.

Esperientziak irakatsi dionaren arabera, bere negar seinaleak muturrera eramanez bakarrik lortuko du bere zaindariari eskatutako erantzuna.

Muturreko eskaera aldakuntza psikikoa da, non mesfidantza eta eraso nahastuko diren.

Ume hauek bestearen menpekoak dira, baina, aldi berean, haserrea erakutsiko diote.

Ume erasotzaile edo isolatu gisa izendatu daitezke.

Nabarmena da atxikimendu tipologiaren eta jokabide esploratzailearen arteko erlazioa. Aurrerago ikusiko dugunez, atxikimendu tipologiaren eta jasotako zaintzaren arteko erlazioa bezain nabarmena. Beste era batera esanda, eta kontutan izanik aurrerago ekingo diogula gai honi, ume horrek jasotako zaintza motaren ondorioa izango da atxikimendu tipologia. Dena den, esplorazio jokabideari heltzen badiogu, jokabide hau ezagutza eraikitzeke motortzat jo dela nabarmendu beharko dugu. Ikuspegi honetatik, Michiganeko Unibertsitatearen (Crandel, 1994) ikerketa batek egiaztatu zuen korrelazio esanguratsua dagoela ume baten atxikimendu motaren eta bere garapen intelektualaren artean. Ikerketa honetan, ume seguruek segurtasunik gabekoei baino emaitza hobekak lortu zituzten ahozko esparuan, abstrakzioan, oinarrizko matematika operazioetan eta memoriari zegozkion frogetan. Beraz, garapen intelektualak ere atxikimendu tipologiaren garrantzia egiaztatzen du.

4.3. Atxikimendu motak pertsona helduan

Aurreko puntuan adierazi denez, atxikimendu motak eragina du esplorazio jokabidean eta, era berean, umearen informazioa prozesatzeko eran. Honez gain, atxikimendu motak etorkizunean izango dituen oroitzenetan eta hauen narrazioan duen eragina aipatu izan da. Ikuspegi hau abiapuntutzat hartuta, George-k, Kaplan-ek eta Main-ek (1985) atxikimendu mota ebaluatzeke prozedura garrantzitsua asmatu zuten: "Adult Attachment Interview (AAI)" delakoa, adin helduari propio zegoekia. Era sinplean esateke, prozedura honen bidez, atxikimendu figurekiko erlazioan helduak dituen oroimenak aztertzen dira elkarrizketa erdi egituratuaren bidez.

Tresna honen ekarpen handietako bat honako hau da: Egoera Arrotzaren Testean 12 hilabeterekin bakarrik antzemandako atxikimenduzko patrioiak denboran irauteko joera dute, gertakari edo pertsona inportanteak tartean sartzen ez badira bederen. Honela bada, honela laburbildu daiteke ondorio orokor gisa:

- Lotura seguruak lotura segururantz eboluzionatuko du bizitza helduan. Esan daiteke, beste behin, gizabanako seguruak konfiantza osoa duela bere buruarengan – eta bestearengan ere- eta ondorioz edozein arazori aurre egiteke gaitasuna garatuko duela. Hau dela eta, umearen segurtasuna landu behar da aurretik, egungo umeek etorkizuneko guraso eta hezitzaileak izango baitira, eta era berean, eragina izango dute bere etorkizuneko seme-alaben atxikimendu mota ezartzerakoan eta bere etorkizuneko ikasleen segurtasun mailan
- Segurtasunik gabeko saiheste atxikimenduak antzeko ezaugarriak dituen pertsonalitate baterantz eboluzionatuko du, hala nola, indibidualtasuna edo mesfidantza. Ikuspegi klinikoago batetik, pertsonalitate obsesibotzat deskribatu izan da.
- Segurtasunik gabeko atxikimendu anibalenteak pertsonalitate nahasia edo arduratua ondorioztatuko du, eta psikologia klinikak pertsonalitate histeriko eta depresiboekin lotu du.
- Azkenik, atxikimendu desantolatuari dagokionez, buruko patologiarenekin lotu izan da, koadro disoziatibo larriak eta psikosia dira gradurik larrienak (Dozier, Stoval eta Albus, 1999).

5. SEGURTASUNEZKO ETA SEGURTASUNIK GABEKO LOTURA

Edozein modutan ere, psikologia klinikaren ekarpenei heldu gabe, AAI-ri esker helduari eginiko lotura motaren gaineko azterketaren garrantzia nabarmendu beharra dago, honi esker jakin baita hurrengo belaunaldiari transmititzen zaizkiola lotura patrioiak (Van IJzendoorn, 1992). Beste era batera esanda, lotura segurua duen helduak aukera handia du bere umearengan lotura segurua sortzeko, bere sentsibilitateari esker. Berriz, saihesten duen umearen antzeko ezaugarriak dituen helduak saiheste jokabidea garatuko duen umea izateko aukera gehiago ditu. Berdin gertatzen da pertsonalitate nahasia edo arduratua duten helduekin, lotura anibalentea duen umea izateko aukera gehiago dute. Azkenik, heldu desantolatuak ere lotura berbera eragiteko aukera gehiago du.

Funtsezkoa da AAI-k egiten duen ekarpena helduaren lotura bere seme-alabaren loturarekin erlazionatzeko, izan ere, lotura-desoreka hauek hauteman daitezke haurdun dauden emakumeetan eta, ondorioz, esku-hartze egokia bideratzeko bidea emango du transmisioa eten dadin. Honez gain, hurrengo punturako sarrera bikaina da amak duen loturaren garrantzia. Azken finean, berebiziko garrantzia izango du helduak loturaren nolakotasuna ezartzeko.

4.4. Loturaren ezaugarria zehazten duten eragileak

Ikerkuntza enpirikoak loturaren gainean burutu duen aurkikuntzarik inportanteenetarikoak belaunaldien artean transmititzen dela deskubritzea izan da. Beste modu batera esateko, Egoera Arrotzaren Testa eta AAI-ri esker, lotura segurua duen amaren umeak lotura berbera garatzeko joera nabarmena duela dakigu egun eta segurtasunik gabeko amak segurtasun eza sortzeko joera duela bere umearen lotura motan. Eta honez gain, segurtasunik gabeko mota espezifiko ezberdinetan ere antzera gertatzen da, (van IJzendoorn, 1992). Izan ere, atxikimendu patrioiak belaunaldiz belaunaldi transmititzen da helduak umearekin erakusten duen portaeraren ondorioz.

Atxikimendu figurekiko loturaren eraikuntzan eragina duten eragileak argitzen saiatuko gara ondoren.

4.4.1. Sentikortasuna eta atxikimendu segurua

Adierazi berri dugunez, helduaren portaerak eragin zuzena du umearen atxikimendu motan. Puntu honetan, ideia honi ekingo diogu sakon eta atxikimendu segurua eta ez segurua zehazten duten helduaren portaeraren aldaerak definituko ditugu. Bere garrantziaren arabera, hiru eragile izan behar dira kontutan nagusiki:

- Heldua iraunkor egotea.
- Umearen portaerak eta seinaleak egoki hautemateko eta interpretatzeko erregulartasuna.
- Umearen eskakizunak erantzuteko prest izatea, erantzun egokiekin eta umearen seinaleei kontingente.

Hiru eragile hauek duten garrantziaz ohartu gaitезen, bere ahozko eta jokabidezko elkarrizketetan (Trevarthen, 1975) amaren eta umearen arteko akordioa edo sintonia (Stern, 1985) zehazten dutela izan behar dugu kontutan. Nozio honi sinkronia deitu zaio halaber (Isabella, Belsky eta von Eye, 1989). Zaindarien sentikortasunaren gainezko markagailu garrantzitsuena da.

Honela bada, funtsezko noziotzat jo behar dugu zaindarien sentikortasuna, aurretik aipatutako hiru eragileen ondorio baita. Beste era batera esanda, amaren sentikortasunak zehaztuko du umearen atxikimendu mota. Ama sentiberak -beti egongo da prest umearen beharrazanei egoki erantzuteko- umearen lotura segurua izan dadila eragingo du, berarekiko. Alderantziz, umearen seinaleei emandako hautemate inkongruente, okerreko interpretazio eta erantzun axolagabeen arabera garatuko dira segurtasunik gabeko loturak. Beste hitz batzuekin esateko, umearen seinaleen pertzepzioak eta interpretazioak eta hauei emandako erantzunak ez datoz bat umearen beharrazanekin. Sentiberatasun falta deitzen zaio prozedura honi.

Dena den, zaindari sentiberek harreman sinkronikoa garatuko dute umeekin eta sentikortasuna funtsezko ardatza bilakatuko da. Beraz, presentziak eta prestutasunak, eta honez gain umeak igorritako seinaleak egoki hautemateak, interpretatzeak eta erantzuteak, atxikimendu segurua sortuko diote umeari helduarekiko, non bestearengan duen konfiantza eta segurtasuna funtsezko ondorioak diren. Beraz, haur eskoletako hezitzaileen eginkizun nagusia umeekin sentikorak izatea da, hauek atxikimendu segurua garatu dezaten eta horrela konfiantza eta segurtasun giroa sortu dadin eskolan bertan. Azken finean, konfiantza eta segurtasun nozioa izango da oinarri umeek gaitasunak garatu ditzaten.

4.4.2. Sentikortasun falta eta segurtasunik gabeko atxikimendua

Behin eta berriro aipatzen ari gara sentikortasunak atxikimendu segururako duen garrantzia. Ondorioz, sentikortasun falta segurtasunik gabeko atxikimenduari lotuko zaio estuki. Edozein kasutan ere, kontutan izan behar dugu, segurtasunik gabeko atxikimenduen baitan saiheste erakoa, anbibalentea eta desantolatua eman daitezkeela. Nagusiki atxikimendu mota helduaren portaeraren arabera gauzatzen bada, ondorioztatu daiteke, logikoa denez, helduak portaera ezberdina erakutsi duela segurtasunik gabeko atxikimendu hiru mota ezberdinetan. Hau dela eta, atxikimendu mota bakoitzari dagokion helduaren portaera aztertzea izango du xede atal honek.

4.4.2.1. Saiheste lotura

Saihesten duenaren atxikimendu lotura gurasoen arbuizatzearekin edo umeari erakutsitako maitasun eskasiarekin erlazionatu izan da. Geroago, mota honetako loturari dagokion garrantzi handiko beste eragile bat nabarmendu zen: amaren bidegabe sartzee-jarrera, zaindariaren portaerari

5. SEGURTASUNEZKO ETA SEGURTASUNIK GABEKO LOTURA

dagokiona, umeak igorritako mezu eta seinaleen irakurketaren arabera jokatu beharrean bere buruan ezarritako patroiz zurrunez gidatuko da. Beste era batera esanda, zaindari sarkorrak ez dio sentikortasunik adieraziko umeari eta ez ditu kontutan izango umearen mezu zoliak. Ondorioz, ez du jokabide sinkronikorik eraikiko umearekin, norabide bakarrekoa baizik, aurrez ezarritako patroiz zurrunez gidatuta. Egoera honen aurrean, umeak saihestea erabakiko du babeste defentsa estrategia gisa.

Beste alde batetik, saiheste atxikimendua duten ume taldean kokatuko dira ere axolagabetasunez eta erantzunik eza erakutsi duten zaindaria. Kasu hauetan, saihesteko joera erakutsiko du umeak bakarrik konpondu beharko baitu bere eskakizunak erantzunik gabe geratu direlako, hau da, erantzun prestutasunik izan ez denean.

Zenbaitzuetan, berez zaindari sentikor batetik azaleratuko dira sentikortasunik gabeko portaera hauek, baina, heziketa irizpide okerrek gidatuta, ez du naturak agintzen diona egingo umearentzat onena delakoaren ustean. Heziketa irizpide okerrek ondorengoen moduko mito faltsuak dira: “ez ezazu umea besoetan jaso menpeko umea bihurtu nahi ez baduzu” edo “gauzez negarrez ari denean hurbilduz gero, txarto ohituko da eta ez du lorik hartuko zu gabe”. Biak ala biak guztiz faltsuak eta arriskutsuak dira, saiheste loturaren eragile bihurtu baitaitezke. Honela bada, haur eskoletako hezitzaileek kontutan hartu beharko dute aipatutakoa, bere sentikortasunaren arabera eraikiko baita umeek eurekiko erakutsiko duten atxikimendu mota. Haur eskoletan hezitzaileek, nahiz eta berez sentikorrak izan, duten arrisku handiena aipatutako sarkortasuna da.

Esaterako, umeari haur-oihala aldatzea bere egoera emozionalari erreparatu gabe, prest ez egotea, bada, umearen deiei inongo jaramonik ez egitea, edo fisikoki egon arren inongo erantzun emozionalik ez agertzea, edota umearekin olgetan aritzean nola esploratu behar duen inposatzea gertatu daitezke, besteak beste, gure haur-eskoletan.

4.4.2.2. Lotura anbibalentea

Harreman segurtasunik gabeko/anbibalenteari dagokionez, nagusiki, gurasoen jokabidearekin erlazionatutako bi eragile aipatzen dituzte ikerketek.

- a. Umearenganako amaren azpi-inplikazioa, depresioa jasaten duten amen kasua esaterako.
- b. Amaren erantzunetan iraupen falta edo inkongruentzia maila aldakorra.

Portaera honen ondorioz, umeak erantzun afektibo bikoitza garatuko du:

haserrea eta amorrua eta aldi berean babesgabetasuna. Amak ez dira prest izango umeak interakzioa bilatzen duenean eta, berriz, amak prest egongo dira eta interakzioa bilatuko dute umeak ez duenean inongo gogorik. Aurretiko jakin ezak nahasmena sortuko dio umeari eta etsipen handiagoa eragingo. Amaren erantzunen bikoiztasun hau umearengan garatzen den anbibalentziaren jatorria da.

Beste alde batetik, ume anbibalenteek larregizko negarraren adierazpena erabiliko dute amaren inplikazio handiagoa pizteko. Estrategia hauek automatizatzen direnean, antzina histeria deitutakoaren gradu handi bat agertuko da. Beraz, saihestea zein anbibalentzia zaintzaileen jokabide eta jarrera mota jakin bati egokitutako portaerak direla ondorioztatu daiteke. Beste era batera esateko, umearen jokabidea oso estu lotuko zaio bere atxikimendu figuraren jokabideari.

Beraz, gainontzeko tipologietan gertatu modura, helduaren papera funtsezkoa izango da -hezitzailearen eskola testuinguruan-. Honako hauek izan daitezke aipatutakoaren eredu: umeak negar egiten duenean beso batekin besarkatzea baina bestearekin aldentzea, zenbaitzuetan kontsolatzea eta beste batzuetan ez, umea jolasten ari denean eta bere jolasean murgilduta batzuetan berarekin parte hartu eta aldiz beste batzuetan jolasa etetea besarkada bat emanez eta abar.

4.4.2.3. *Lotura desantolatua*

Segurtasunik gabeko loturen baitako azken kategoriak kontsiderazio espezifikoa eta bereizia eskatzen du baldintza honi dagozkion eragile kausalak aztertzeke. Dena den, berriro agertzen zaigu amaren eragilea funtsezkotzat era honetako lotura sortzerakoan. Oro har, amek konpondu ez duten esperientzia traumatikoekin erlazionatu izan da lotura hau (Ainsowrth eta Eichberg, 1991), erditzearen ostean depresioak jotako amekin (Murray, Fiori-Cowley, Hooper eta Cooper, 1996), haur abusuetatik gertu diren amaren arerio portaera arduragabeekin (Lyons-Ruth eta lag., 1991), gurasoak umearen aurrean beldurrez egotearekin (Main eta Hesse, 1990) eta gurasoekiko isolamenduarekin (Sagi eta lag., 1995). Beraz, lotura desantolatuak gurasoen muturreko portaeretan eta axolagabeetan duela jatorria ondorioztatu daiteke.

4.5. Ondorioak

Azken buruan, gurasoen jokabideak dira atxikimendu moten jatorri, gaketzat dutelarik sentikortasuna. Zaindari primario sentiberak atxikimendu segurua eragingo du. Beste era batera esanda, adi dagoen zaindaria, umearen seinaleak egokiro hauteman eta

5. SEGURTASUNEZKO ETA SEGURTASUNIK GABEKO LOTURA

interpretatzen dituena eta, honez gain, eta era egokian eta kontingentean erantzuten diona atxikimendu seguruaren oinarri bilakatuko da. Berriz, umeari egoki erantzuteko gai ez den zaindaria segurtasunik gabeko atxikimendua eragingo du, hiru aldaeretakoa bat sortaraziz, saihesten duena, anibalentea edo desantolatua.

Gurasoen jokabideak eta hezitzaileenak duten garrantzia dela eta, haur eskolak bete dezakeen rola funtsezkoa izango da, izan ere, gutxienez hiru bideren bitartez hobetu baitezake umearen loturaren segurtasuna:

- Prozedura ezberdinen bidez, umearen sentikortasuna hobetu xedez (Van IJzendoorn, Juffer eta Bakermans-Kranenburg, 1995), familian bertan esku hartuz. Gurasoentzako eskola edo eskola sozializatorako elementu gisa moduko ekimenak sartu daitezke bloke honetan. Halaber, eta agian are inportanteagoa, familiekin duten hartu-emanetan tutoreek izan dezaketen eragina, euren artean ezartzen diren erlazioak oso adierazgarriak izan baitaitezke.
- Erakundeekin, osasun zentroekin, kultura etxeekin elkarrekin arituz sare gisa... pediatriak, ginekologoak, emaginak, erditzeko prestaketan, hedapena. Telebista, gurasoendako aldizkariak, egunkariak...
- Ordezko figurak eskainiz, honela bada, zaindari primarioen portaera disfuncionalak zuzenduko lituzkete, berarekin bizi izan diren pertsonaia esanguratsuekin izandako esperientzien lanketa baita umearen lotura patroia (Grossmann eta Grossmann, 1991). Beste era batera esanda, balizko famili gabeziak aurreikusiz eta orekatuz.

Funtsezko garrantzia izango dute aipatu bideok, gurasoen gaitasunak garatu daitezkeen. Honela bada, ez da harritzekoa izan gurasoen portaera hobetzea xede duten programen kopurua nabarmen hedatu izana. VIPP (Juffer, Bakerman-Kranenburg eta van IJzendoorn, 2008) delakoa esaterako, ikus-entzunezko materialaren gainean egindako lanean oinarritutako prozedura da, zaindarien sentikortasuna hobetzeko xedez. Herbehereetan garatutakoa, Van IJzendoorn irakaslearen taldearen eskutik, heldua bere umearen beharriaz jabetu dadin tresna baliotsua bilakatu da. VIPP delakoa oinarri hartuta, Hazitegi proiektuko ikertzaileek haur eskolara egokitutako Sentikortasuna Garatzeko Programa (SGP) garatu dute. Programaren bidez ez da soilik sentikortasuna garatzen, berrikuntza metodologikoak ere bultzatzen dira eta ondorioz haurren ongizate maila handitzen da. Batak bestea dakar halabeharrez.

Orain arte esandakoaren ondorio gisa, Haur Hezkuntzako profesionalen rola nabarmendu nahi dugu. Duten garrantziagatik, oso inportantea da haur eskolek baldintza egokiak izatea sentikortasunez jardun ahal izateko. Era berean, garrantzitsuak baitira, funtsezkotzat jo daiteke gurasoak eta hezitzaileak sentikortasunean heztea, arestian aipatutako VIPP eta SGP oso erabilgarriak izan daitezkeelarik. Amen gainean aurreko kapituluaren nabarmendutakoa guztiz baliagarria da haur eskolako langileengan ere. Azken finean, profesionalen sentikortasun maila ere funtsezkoa da umeek eurekin gauzatu dezaketen atxikimendu motarentzat. Beraz, AAI-an esandakoari jarraiki, haur eskoletako profesionalen sentikortasun maila egokia izatea oso inportantea izango da atxikimendu segurua sustatu dadin.

Azkenik, azpimarratu nahi genuke ez dela hezitzailearen lana bere gelako ume bakoitza atxikimendu tipologia baten arabera sailkatzea. Azken finean, ezinbestekotzat jotzen dugu neurgailu garatuen erabilpena, SST-a esaterako, zehaztasun osoz jakin ahal izateko umearen atxikimendu mota. Hau dela eta, sentikortasunak duen garrantzia nabarmendu nahi dugu berriro edozein sailkatze lanaren gainetik, izan ere, aipatu sentikortasunaren araberakoa izango baita umearen tipologia eta, ondorioz, bere garapena.

>> 5. ARIKETA PRAKTIKOA

Kapitulu honetan helduaren sentikortasunak duen garrantzia azpimarratu dugu. Honela bada, hezitzaile gisa bakoitzaren sentikortasunaren gainean hausnartzeko aitzakia izan nahi du ariketa praktikoak. Ikuspegi honetatik, kapitulu honi dagokion ariketa praktikoan haur eskolako egunerokoaren ohiko egoera bat aukeratu beharko da (sarrera edo irteera, jolasa, aldaketa...) eta ondorengo informazioa jaso beharko da behatuz edo grabatuz:

- Helduarekin egotea helburu duten umearen jokabideak: negarra, deia, hurbilketa...
- Umeak aipatu atxikimendu jokabideak aukeratzen dituzenean ematen den egoera.
- Hezitzailearen esku-hartzea: erantzun mota eta honen arrakasta.

fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok

6

ESPLORAZIO JOKABIDEA ETA GARAPEN KOGNITIBOA

ESPLORAZIO JOKABIDEA ETA GARAPEN KOGNITIBOA

>> 1. HELBURUAK

Atal honetan azaltzen ditugun lan eta irakurketak jorratuz erdietsi nahi diren helburuak hurrengoak dira:

- Haurren esplorazio jokabidearen nondik norakoa ulertzea, bere definizioa, dimentsioak eta ontogenia barne.
- Haurren esplorazio jokabidea abiarazteko eta amaitzeko estimuluak identifikatzea.
- Haurren esplorazio jokabidearen eta garapen kognitiboaren arteko lotura ezagutzea.
- Haurren garapen kognitiboaren ezaugarriak ulertzea.
- Haurren esplorazio jokabidea eta garapen kognitiboa aberasteko, hezitzaileen zeregina ulertzea.

>> 2. EGOERA

Haur eskolan egunero-egunero antzeman ahal dugun bezala, egoera berberaren aurrean haur bakoitzak bere portaera erakusten du, zeinek berea eta besteen portaeren aldean ezberdina. Askotan ez gara horren nondik norakoa ulertzeko gai izaten, ez baitugu jakiten gakoa non den antzematen edota ez gaude ziur zer gertatu den ere. Horrela bada, ulergarria da egoera horietako bakoitzari zein erantzun eman argitu ahalko ligukeen irizpide argirik ez izatea. Hots, faltan izaten dugu jarraibideen gida litzatekeena.

Adibidez, Haur Hezkuntza ikasten ari den gazte bat, praktika garaian, 0-6ko gela guztietan izan da. Praktika aldia amaitzerakoan, esperientzia horren berri eman eta bere kezkek adierazi ditu.

“20 urte ditut eta nire lehenbiziko praktikak egin ditut Haur Hezkuntzan. Esperientzia aberasgarria izan da, aukera izan baitut, azaletik bada ere, lanbidea ezagutzeko. Haurrak ezagutzen joan naizen heinean, nire esku-hartzearekiko ez-ezagutza areagotzen joan da. Konturatu naiz haurren jokabide batzuk ulertzen edo egoki interpretatzen ez dakidala. Eta jokabide horien aurrean non esku hartu ere ez daukat batere argi. Adibide batzuk jarriko ditut.

Une jakin batzuetan, 2-3 urteko haurrekin egon naiz, txokoetan oinarritutako gela batean. Bertan, besteak beste, sukalde txoko bat zegoen, plastikozko frutatxoekin, ontziekin, platerekin... Haur batzuk bertan jolasten hasi dira... baina oso bestelako eran. Markel luze egon da bertan. Lehenik frutatxoak zuritu ditu, lapikoan sartu, egosi, koilaraz nahastu eta, azkenik, platerean jarri ditu eta Olaiari eraman dizkio jan ditzan. Ondoren, Markel aulkian eseri da, bere jolaskidearen txanda aitortu eta gero. Baina Olaiak ez du Markelek egindakoa errepikatu. Olaiak frutatxoak hartu eta lurrera bota ditu. Bota bezain pronto, bizi joan da frutak berreskuratzera, oraingoan ere bota eta lurrera jaustek sortzen duen zarata entzuteko asmoz. Hirutan ekintza bera errepikatu eta gero, gauza bera egiteari utzi dio eta ondoko txokorantz jo du. Lehenbiziko zalantzak agerian: zergatik ezberdintasun hori Markel eta Olaiaren

6. ESPLORAZIO JOHABIDEA ETA GARAPEN KOGNITIBOA

artean? Zergatik ezberdintasun hori iraupenean, esploratzeko eran...? Moztu beharko nuke Olaiaren jokabidea eta Markelen antzera jolastera bideratu?

Bestalde, sukalde txokotik haratago, gelaren ikuspegi osoa izaten saiatu naiz praktika garaian. Txoko guztiak ikusi eta haurrek egiten zuten prozesua aztertzen saiatzen nintzen. Horrela, antzeman nuen haur batzuk txoko batetik bestera ziztu bizian joaten zirela. Beste batzuk, ordea, egunak joan eta egunak etorri, txoko berean egoten ziren. Nire hasierako impresioa izan zen: " tira, ez bata eta ez bestea!". Baina, zintzo izateko, ez nekien zer egin ziztu bizian batetik bestera zebiltzan horiek sakonago esplora zezaten, eta toki berean mantentzen ziren horiek beste txoko batzuk ere ezagut zitzaten. Horrelako egoeren aurrean, galdera hauek etortzen zaizkit gogora: zer egin dezaket objektu edo espazio jakin batekiko haurren esplorazioa luzatzeko edo murrizteko? Are zalantza gakoago, luzatu edo murriztu behar da esplorazio hori? Beste era batera esanda, zerk bultzatzen du haur bat jolasean jarraitzera? Eta zerk jolasari amaiera ematera?

Azken galdera horiekin lotuta, beste pasarte baten berri eman nahi nuke. Praktikan nengoela irakasleak plastikarekin lotutako eskaintza bat haurrei proposatzera animatu ninduen. Nik hordagoa onartu eta prest nengoela erantzun nion, horman papera jarri eta haurrek bertan margotzeko aukera eskainiko nien. Haurrak txokoetan jolasten ari zirenez, gonbidapena apal samar luzatu nien, papera itsasten nuen bitartean: "zeinek nahi du hormako paperean margotzea?" Hori entzun eta berehala, hiru haur niregana etorri eta margoak eskatzen hasi ziren. Beste haur batzuek, gehienek, eskaintza luzatzerakoan begiratu zidaten baina onartu ez. Azkenik, gainerakoek bere horretan jolasten jarraitu zuten, euren txokoetan. Kontuak kontu, hiru haur horiek margotzen hasi ziren, bakoitzak bere marra, borobil eta forma abstraktuak paperean islatzen. Poliki-poliki beste haur batzuk ere animatu ziren, esploratzen ari ziren objektuak utzi eta gero, margoekin horman margotzen hasi ziren hauek ere. Denborak aurrera egin ahala, beste hainbat ere margotzera animatu da. Aitzitik, margotzen ibilitako batzuek nahiago izan dute beste zerbaitetan hastea... Eta oraingo honetan ere, zalantzak izan ditut. Arestian adierazi bezala, zerk bultzatzen du haur bat jolasean jarraitzera eta zerk jolas berri batekin hastera? Zergatik ematen dira ezberdintasun horiek haurren artean? Zer egin behar dut nik, Haur Hezkuntzako profesional gisa, horrelako egoeraren aurrean?

Hala bada, zer deritzozu aipatu ditugunak aztertzen baditugu, haurren premiei egokitu ahal zaien erantzunen bat bilatzeko edota zein irizpidetan oinarritu behar garen jakiteko?

>> 3. HAUSNARKETARAKO GALDERAK

Adi-adi irakurri behar dituzu ondorengo galderak, eta zure ustez egokiak lirajtekeen erantzunak orri batean idatzi, erantzunon zergatiekin batera idatzi ere. Idaztea garrantzizkoa da, zeren eta eduki kontzeptualen atala irakurri ondoren horiek zure iritz horiek berriro kontutan hartuko baititugu, atal honexetan azaltzen ari garen marko teorikoaren ikuspuntutik hain zuzen.

- Markel eta Olaiaren kasuan, biak modu berean sukaldean jolastera behartu beharko genituzke?
- Egin dezakegu zerbait Markel eta Olaia benetan elkarrekin jolas daitezen?
- Zeinena da jolasteko modu "egokiena", Markelena ala Olaiarena?
- Zertarako balio diete ekintza horiek Markel eta Olaiari?
- Euren garapenari dagokionez, zein fasetan daude Markel eta Olaia?

- Gelaren ikuspegi orokorraren kasuan, zergatik ari dira haur batzuk txoko batetik bestera? Eta zergatik beste batzuk txoko jakin batetik mugitu gabe?
- Haur horiek derrigortu beharko genituzke txoko batean denbora zehatz bat pasa eta beste txoko batera joateko?
- Zer egin behar dut Haur Hezkuntzako irakasle gisa horrelako kasuetan?
- Plastika-ekintzarekin lotutako kasuan, zergatik haur batzuek egiten ari zirenari uzten diote eta zergatik beste hainbatek ez?
- Zerk bultzatzen du haurra esploratzen hastera? Eta zerk bultzatzen du esploratzen amaitzera?

>> 4. EDUKI KONTZEPTUALAK: ESPLORAZIO JOKABIDEA ETA GARAPEN KOGNITIBOA

Heziketa umearen berezko jokabidearen aukera anitzen lanketa baldin bada, eskolaratzean esplorazio jokabidea landuko da bereziki. Gizakiaren dimentsio askoren oinarrian aurkitzen da esplorazio jokabidea baina bereziki munduaren ezagutzaren hedapenaren oinarrian, munduaren baitako oro barneratuz. Gure zibilizazioan, eskolatzeak betetzen du nagusiki ezagutzan sakontzeari dagokion eginkizuna. Bada, esplorazio jokabideaz ari garenean, eskola deitzen dugun espazioan murgiltzen gara.

Ezagutzeko gogorik gabe ezingo dira hazi umerik ezta heldurik. Eta ezagutzeko nahia esploratzeko nahia dugu. Esploratzeko desioa dugu garapen kognitiboaren motorra, Piagetek ikertutako arauari jarraituz ematen delarik nagusiki. Esplorazio jokabidea bizirik mantentzea eta sustatzea izango da, beraz, eskolaren eginkizuna, eta honez gain, gure zibilizazioak munduaren gainean dituen ezagutzak eta objektuak bereganatu ditzala umeak. Esploratzeko gogoak bizirik mantentzea eta sustatzea, horra hor eskolako heziketaren ardatza.

Esploratzeko desioa berezko joera dugu, bereziki nabarmendu beharra dago, esplorazio jokabidea berezko jokabidea baita. Ez dago irakatsi beharrik. Gizakiak bere genomatik inskribaturik du joera -eta beraz esploratzeko desioa-. Piageten (1936) ekarpen nagusietako bat dugu aipatu nozio hau.

Bere inguru gizatiarra esploratzeko jakin-min biziz jaioko da gizakia. Pixka bat aurrerago, 5. hilabete aldera hain zuzen, bere inguruko objektuak arakatzeari ekingo dio. Inguruko objektuenganako interes hau hartu izan da esplorazio jokabidearen abiapuntutzat, inguruko mundua -materiala eta gizatiarra- esploratzeko bulkadaren intentsitate umearen interesen jabe bilakatuko baita.

Umearen lehen lau urteetan zehar, inguruko objektu fisikoak besterik ezingo ditu arakatu gaitasun intelektualaren bidez. Bere kanal sensorial guztien bidez egin ere. Bosgarren urte aldera, kanal sensorialek hauteman dezaketen errealitate geroz eta urrunago diren objektuak arakatzeari ekingo dio garapen intelektual indartsuari esker. Orduantxe hasiko da kultur errealitate konbentzionalak esploratzen, hala nola, hizkiak eta zenbakiak. Hemendik aurrera, adimenaren bidez irekiko da bere errealitate hurbilenetik urrunen diren eremuetara, kultura eta jakintza zientifikoaren esparru zabalean zehar hedatuko du bere ikasketak.

6. ESPLORAZIO JOKABIDEA ETA GARAPEN KOGNITIBOA

Eskolako sistemaren eginkizun nagusia esplorazio jokabidea bizirik mantentzea da, zentzumenezko kanaletatik hautemandako objektuetatik, operazio intelektualean hazkunderari esker sortutako objektu abstraktuetara igaro dadin naturaltasunez informazio egarria. Esplorazio jokabidea berezko jokabidea baita eta, dimentsio biologiko guztien modura, kaltetua, inhibitua edo sustatua izan daiteke.

Atxikimendu jokabidearen ondoren, eta beldurrezko edo ihes egiteko jokabidearen aurretik, azaltzen da esploraziozko jokabide. Hezkuntza sistemarentzat berebiziko garrantzia du azaleratze uea, zein aurreko eta ondorengo jokabidearekin dituen loturak, kontuan hartzea.

Atxikimendu eta beldurrezko jokabideak abiarazitakoan, esplorazio jokabidearen antagonistak dira. Umean aktibatutako atxikimendu edo beldurrezko jokabideak esploraziozkoa eragotziko duela esan nahi dugu, antagonismoa aipatzerakoan.

- Ikastetxera heltzean, esploraziozko jardueretan murgildu dadin aktibazio maila baxuan behar du izan umeak bere atxikimendu jokabidea. Eskola-gunean sartzerakoan, lehen zaindariatik bat-batean eta ezgaraian banatzeak hauekiko atxikimendu jokabidea aktibatuko du. Banaketaren gainean jardun genuenean ikusi ahal izan genuenez, era guztietako erreakzioak eragingo ditu jokamolde honek. Protesta faseko ekaitz emozionalak esplorazio jokabidea galaraziko du. Galaraziz gero, umea ez da motibatuta sentituko beste ume batzuekin esploratzeko edota olgetan murgiltzeko eta ezta bigarren hezitzaileen irakaspenetara zabaltzeko.
- Beldur eta ihes jokabidean ikusi ahal izango dugunez, behin hau azaldu eta gero, berritasuna pizten zuenak ezinegona eta beldurra sortaraziko ditu umearengan orain. Atxikimendu figura primariotik bigarren mailako atxikimendu figurenganako transferentzia ez bada egoki burutu, mesfidantza eta ikara sortaraziko dute figura berri hauek. Era berean, familia espazioaren eta eskolakoaren arteko trantsizioa ez bada leuntasunez burutu, umeari ezagunak zaizkiolarik espazio fisikoaren forma, kolore eta usaimenak, arrotz eta beldurgarria suertatuko zaio eskola-gunea. Atxikimenduzko figura bilakatu den hezitzailearen portu seguru berririk gabe ingurunetik ihes egingo du umeak bere beldurrean, eta bere baitan barneratuko da nostalgiaz betetako fantasiak asmatzeko familiako atxikimenduzko figuren gainean. Beldurrezko jokabidearen kapituluan ikusiko dugunez, haur eskolan eskola guneak hartzen duen aurpegi beldurgarri horretan hasiko da eskola-porrota.

Hau guzti hau delarik, eskolako esplorazioa garatu dadin, umeak ezinbestekoa du atxikimendu segurua eskaintzen dion figura, hezitzailea: bere portutik abiatuko baita eskola-gunera esploratzera eta esplorazioetan edota beste umeekin duen harremanetan zaurituz gero, azkar itzultzeko moduko portua.

Honela bada, esplorazioaren garapenaren azterketa ezin da beste bi jokabide horietatik isolatu: atxikimenduzko eta beldur jokabideetatik hain zuzen ere. Ikasteko abentura

ikaragarrian, non umea aukera berriak arakatzera irekiko den, funtsezkoa da hezitzailearen figura: ezagutzaren espazio berrietara hedatzeko eta umeari eta ikasleari eduki berrienganako beldurra uxatzeko: irakurketa eta kalkulia lehendabizi eta ondoren eskolako gainontzeko irakasgaiak. Garapen teoriko honen argitan, hobeto ulertuko dugu zein oker dabiltzan bere ikasleengan "irakasgaien" esparru berriak esploratzeko gaitasunaren gainean konfiantzarik sorrarazten ez duten hezitzaileak, eta are okerrago beldurra sorrarazten baldin badute, gutxiegi mehatxupean.

Esploratu beharreko munduez lehen eta bigarren mailako figurek betetzen duten rolaen gaineko beste gogoeta bat egin beharra dago. Esplorazioaren lehen faseetan, objektu naturalen gainekoan, bere ezaugarrien gainean ikertu dezake umeak: bakarrik edo berdinek osatutako taldean. Esploratu beharreko objektuak umearen inguru naturaletik urrundu ahala, hezitzailearekin harreman maitekorra izanez gero, eta honek proposatutako irakasgaiez maiteminduta bakarrik ireki ahal izango da espazio berriak ezagutzera. Umeek, animaliek bezala, trebezi berezia erakusten dute bere atxikimendu figurentzat garrantzitsua dena atzemateko. Matematika, natur zientziak edo filosofiaren moduko diziplinekin maitemindutako hezitzaileak bakarrik transmititu diezaioke ikasleari hauenganako berotasuna. Bere figura esanguratsuen begiekin ikusten dute mundua umeek. Zentzumen zuzenen bidez hauteman ezinezko esparruari dagokionez, hezitzaileak maite duena maite dezakete bakarrik ikasleek. Eta maitatzea, kasu honetan, ezagutzeko gogoia da eta ezagutzeko gogoia, era berean, esplorazioari ekitea.

Atxikimendu jokabidea esplorazioaren aurkakoa izanik, aktibatutako atxikimendu jokabideak esploratzeko jokabidea galarazten baitu, esplorazio jokabideak, halaber, atxikimenduaren aurka jokatzen du. Esplorazio jokabideak amarekiko atxikiduratik aldentzera eragingo du umea, inguruko munduan murgildu eta esploratzeko. Esplorazioa agertzen denean, bizitzaren 5. hilabetearen inguruan, elikatzeko jokabideei gailenduko zaie: umeari interes gehiago piztuko dio biberoiaren ibilbideak eta bere koloreak edukiak baino. Elikatzen duen amaren eta umetxoaren arteko lehen krisia izango da.

Atxikimendu jokabidearen gaineko kapituluaren adierazitakoaren gainean esandako gogoratuko dugu. Oraindik orain, oso hedatua dago umeak egindako kontaktu eta ukipen eskaerei jaramon egiteak bere amarekiko menpekotasuna sustatuko duela sinestea. Menpekotasun afektiboaren gaineko bere kapituluaren Bowlby (1973) azaltzen duenez, ikerketa empirikoek justu kontrako errealitatea erakusten dute. Ukitzeko eskaera seinaleei emandako arreta emankorren ondoriozko lotura seguruak umearen autonomia baldintzak ezarriko ditu, bere esplorazio jokabidearen bidez. Atxikimendu figurenganako menpekotasuna modalitate anibalentean ematen den segurtasunik gabeko atxikimenduaren ondorio da. Gurasoen presentzia asetatutako umea, esplorazio jokabidea agertzean, esplorazioan murgilduko da buru belarri, kanpoko mundura egindako ibilbideetan zailtasunik agertu bezain pronto bere portura itzuli daitekeenaren segurtasun osoz. Loturan ematen den segurtasun faltaren ondorio besterik ez dira ume kikalak.

6. ESPLORAZIO JOKABIDEA ETA GARAPEN KOGNITIBOA

4.1. Esplorazio jokabidea

Elikatze eta sexu jokabideetatik bereizi zuen jada Piagetek bere postulatuetan (Flavell, 1963), izan ere, esplorazio jokabidearen funtzio espezifikoa ingurunearen gaineko informazioa eskuratzea da. Ondorengo ikerketa enpirikoez erakutsi dutenez, ez da inondik inora elikatze edo jokabide sexualaren eranskina, Freudek postulatu gisa. Aitzitik, erabat zehaztutako jokabide independentea da eta ingurutik informazioa jasotzeko xedez garatutako sistemen meneko dugu.

4.1.1. Esplorazio jokabidearen dimentsioak

Berezko jokabidea izanik, sarritan aipatu izan ditugun honako lau dimentsioak agertzen ditu:

- Dimentsio motorra
- Dimentsio neuro-begetatiboa
- Dimentsio emozionala
- Irudimenezko dimentsioa

4.1.1.1. *Dimentsio motorra*

Hezitzaileek eta zaindariak aise hauteman dezakete esplorazio jokabidea abiarazi zaiola umeari. Eta era berean, kontrakoaz ohartuko dira baita ere. Proposatuko objektu edo gaiaren gainean noiz erakusten duten interesa eta noiz interes eza.

Dimentsio motorrari dagokionez, hiru alditan ematen da esplorazio jokabidean:

- Buruaren eta gorputzaren norabide zehatz bat, zentzumenezko organoak objektu-estimulua bereizteko jarrera egokienean jarriko ditu. Interesgarri zaion estimulua hautemandakoan seinalea igorriko dio sistema begetatiboari, esplorazioari ekin diezaion.
- Burua eta gorputza hurbilduko ditu objektu-estimulutik gertu, era honetan, zentzumenen organoek informazio oparoagoa eskuratu dezakete.
- Objektua ikertuko du, era guztietara manipulatu edo esperimintatuz.

4.1.1.2. *Dimentsio neuro-begetatiboa*

Oso gutxi edo ezer ez ikertu izan da eremu honetan, beldurrezko edo erasozko jokabidearen gainean egin ez bezala. Aipatu gisa, medikuntzak

heldu dio erasoaren eta beldurraren dimentsio neuro-begetatiboa ikertzeari, aktibatzean sortu dituen arazo organikoengatik.

Honela bada, esplorazio jokabidearen dimentsio neuro-begetatiboaren eremuaren gaineko egungo ikerketaren egoerak zenbait hipotesirako beta besterik ez digu ematen. Adierazle ez zuzenek agertzen dutenaren arabera, esplorazio jokabideak noradrenalina eta adrenalina jariatzea eragiten duela esan daiteke. Giltzurrun gaineko muineko bi hormona hauek rol garrantzitsua betetzen dute finkapen oroimenaren eraikuntzan. Esplorazio jokabidean diharduten umeez -interesa agertzen dutenek- inolako interesik ez duten umeez baino hobeto finkatuko dituzte ezagutzak.

Esplorazio jokabidean egoki jardunez gero, gozamina azalduko da. Beste hitz batzuetan esanda, prosenfaloaren faszikulo mediala aktibatuko da - sarien araberako sistema-, eta honekin batera sortuko dira endorfinak. Esplorazioaren adierazpen askea eta honen ondoriozko ezagutzak atseginarean eta gozamenaren eragile dira. Harrigarria dirudien arren, atsegin eta gozamen hau ez da aspaldiko kontua gure kulturaren. Iraganean, ikaslea behartu behararen sinesmena guztiz hedatuta zegoen, eta gaur egun ere, behartzeko prozedurak ezititu arren, beharrezko dituen ezagutzak lortu ditzan umea behartzearen beharra zabaltzen da sarri.

4.1.1.3. *Dimentsio emozionala*

Esplorazio jokabidearen dimentsio emozionala jakin-mina da. Bada, esploraziozko edo jakin-mineko jokabidea deitu diezaiokegu jokabide honi. Zerbaiten gaineko informazioa eskuratzera eragiten digun emozioa edo sentimendua da jakin-mina. Umeek berezko dute jakin-mina. Asperdura dugu jakin-minaren sentimendu antagonikoa. Ohikoan jakin-minak ikastera bultzatzeko gaituela adierazi arren, izatez aktibatuta dagoenean, esplorazio jokabidearen sentimenduaren esparruko barneko alderdia besterik ez da.

Jakintsu handiek bere bizitza osoan jakin-mina mantentzeko aukera izan dute. Umeek eta animaliek agertzen duten jakingura bereziki. Izpiritu eta kulturaren eremutik at aurkitu ohi dugu jakingura. Hezkuntza sistemari dagokio erantzukizun hau, umeen jakin-mina bideratzeko gai izatearen erantzukizuna, hurbileko objektuak eta ordezkatzeko gaitasuna eta sinbolikoa eskatzen dutenak barne direlarik.

Sarritan berezko esplorazio/jakinmina erreprimituko du hezkuntza sistemak, ume bihurria, geldiezina eta hiperaktiboa zentsuratuz, eta gero, berriro eskatuko zaio aurrez erreprimitutako jakin-min berbera kontzeptu abstraktuak esploratu ditzan.

6. ESPLORAZIO JOKABIDEA ETA GARAPEN KOGNITIBOA

Beharbada, eskola sistemak aztertu beharreko gai nagusia etengabeko auto-ebaluazioan datza: nola mantendu bizirik ume eta nerabeen jakingura.

4.1.1.4. Irudimenezko dimentsioa

Esploraziozko edo jakin-minezko jokabidearen irudimenezko dimentsioa objektua "ze interesgarri" konnotazioarekin ordezkatzean datza. Esplorazio jokabidea zerbaitek piztu duenean, interesgarri gisa agertuko da. "Ze aspergarri-ren" kontrakoa hain zuzen. Propaganda eta publizitate kanpainetan esplorazio jokabidea sustatzen dute gauzak aurkezterakoan, interesgarritzat jo ditzagun.

Hezitzailearen funtsezko eginkizuna irakasgaiak ikasleei interesgarri egitea da. Eskolako sistemak ez badu ikasleengan irakasgaiaren gaineko interesik sortzen, ez du motibatzeke baliabiderik aurkituko: noten bidezko sari eta zigorren prozedurara jotzea besterik ez. Sariok lortzeko edo zigor edo gaitzak ekiditeko tresna gisa biziko du orduan irakasgaia ikasleak.

Jokabidearen gaineko teoria orokorrean ikusi dugunez, jokabidearen berezko sariak ukatuko dizkio subjektuari prozedura honek: ezagutzearen gozamina eta ezagutza maitatzea. Noten edo klaseko postuen moduko sari eta zigor sistemek, eurek bakarrik, ez dute umeak ezagutza maitatzea eragingo, ezagutzak ondorioztatzen duen sari agortezinarekin: maite dugun horren aurrean irekita izatea, kasu honetan, munduaren eremu jakin baten gaineko ezagutza.

Kanpotiko sari eta zigorren sistemak -bikain eta ez nahikoak- ikasle arrakastatsu zein porrot egin dutenak sortu ditzake. Ez ditu inoiz jakintzaren egarri dutenak sortuko, esplorazio jardueraren maitaleak. Jakintzaren gaineko aipatu gustu hau eskatzen du gehien gure ezagutzaren gizarteak, kasualki.

Esplorazio jokabidea abiarazten denean, eskola sistema osoa jartzen da auzitan.

4.1.2. Estimulu abiarazleak eta amaitzaileak

Gainontzeko berezko jokabideen gisara, esplorazio jokabidearen kasuan ere zenbait estimulu aginduk abiaraziko dute eta ezaugarri zehatzetako estimuluek amaitu araziko dute.

- Distira, forma eta kolore nabarmenetako zenbait ezaugarri dituzte estimulu abiarazleek, eta bereziki, berritasunaren bereizgarritasuna. Esplorazio jokabidearen ezaugarriak nabarmenena berritasuna da. Horregatik, esplorazio handiaren aroa da haurtzaroa, bestelako indarrek jokabidea eragotzi ezean, kezkek adibidez. Eskola guneak espazio forma konplexuak izan behar ditu, non dimentsio berriak aurkitu.

Helduaroan, berritasun hori bilatzera zuzenduko dira publizitate kanpainak eta moda.

- Esplorazio jokabidearekin amaitzen duten estimuluak honako hauek dira: familiartasuna eta esplorazioaren aurkako berezko jokabidea abiarazi dezakeen beste estimulu bat.
- Familiartasuna. Objektu berria informazioz murreratu da. Esplorazioaren bidez informazio hori jaso ostean, familiarra bihurtuko da objektua. Ez du gehiago jakin-minik estimulatuko. Ez da interesgarria dagoeneko. Ez du gehiago interesik erakutsiko.
- Jokabide antagonikoa. Esplorazio jokabidea eteten duten aurkako jokabide bi nabarmendu behar dira: atxikimendu jokabidea eta beldur jokabidea. Aipatu izan dugu arestian.

Bi baldintza aipatu genituen jada atxikimendu jokabidea abiarazteko: umearen egoera fisikoa -gaixotasuna, mina- eta bat bateko banaketa.

Beldur jokabidea abiarazten duten estimuluei dagokienez, espazioaren berritasuna eta umearengan larrialdia eta kaltea eragiten duen edozein egoera aipatu daitezke. Eskola gunean, beste ume batzuen eraso da ohizkoena.

Apur bat aurrerago ikusiko dugunez, beldurtzen duten eskolako lanak egin behar dituenean esaterako, esplorazio jokabidea eten egingo zaio. Ez du arakatzeko desiorik izango jada. Blokeatuta geratuko da eta beldurgarri egingo zaio irakasgaia, interesgarri izan beharrean. Orduan azalduko da hezitzailearen figura bigarren mailako atxikimendu figura gisa: portu seguruaren funtzioa beteko du, eta bere harreman fisiko eta emozionalaren bidez amaitutzat emango du beldurrezko jokabidea eta hari esker berriro abiaraziko da esploraziozkoa.

Honela bada, esplorazio jokabidearen ezaugarri nagusia berritasuna familiar bihurtzean datza. Honela, aktibazio eragilea amaiera eragile bihurtuko baitu eta datu berriak jasoko ditu bere ezagutza-multzoan; eta bere garapen kognitiboari dagozkion prozesuei jarraiki, oroimen artxiboetan gordeko ditu, errealitateko geroz eta ezaugarri gehiago arakatu. Goethek esan zuenez, "ezagutzen duguna ikusten dugu bakarrik". Esplorazioak esplorazio gehiago eta hobe sortuko du. Horregatik, bere eskuetan lagatuko umeen esplorazio jokabidea eskola sistemak berak ondo zaintzeak berebiziko garrantzia izango du.

Esplorazio jokabideak interesa sortu duen objektuarengan zuzenduko du hautematea: esplorazio jokabidea aktibatu duen objektuarengan. Hautemate gailuaren kokatze honi arreta deitzen zaio: esplorazio jokabidea piztu ondoren, esplorazioa akuilatu zuenarengana zuzenduko da organismo osoa. Bere jokabide motorra besterik ezin izango du nabarmendu behatzaileak orientabide edo arreta honetan. Umearen arretadenbora laburra da. Azkar hartuko du informazioa interesa piztu zion horretatik eta bere arreta, radar baten antzera, estimulu berrien bila hasiko da. Horregatik, keinuak eta doinuak aldatu beharko dira narrazioaren baitan, umearen arreta mantendu dadin. Adierazteko elementu berriek berpiztu egingo dute umearen interesa. Hezitzaileak ezin duenean ikaslearen interesa etengabe piztu, "burruntzia" dela esaten da.

4.1.3. Esplorazio jokabidearen ontogenia

4. edo 5. hilabete aldera (Rheingold, 1963) azalduko zaio umeari esplorazio jokabidea. Honek ez du esan nahi ez duela inongo interesik erakutsi inguruko objektuekiko, gizakiekiko bereziki, eta beraz, umea ez dela hauengana zuzendu. Bigarren hilabeterako giza aurpegiaren marrazkiarekiko interesa erakutsiko du, bere begirada zuzenduko dio eta keinu sozialekin pribilegiatuko du, hala nola, irribarrea eta beso zein zangoetako mugimenduekin.

Gizakiaren berezko jokabide guztietan bezala, jokabidearen aurrekariak bere funtsezko ezaugarri bilakatuko dira. 5. hilabetearen aldera, biberoiarekin elikatutako umeetan batez ere, honen ibilbidea eta ezaugarri fisikoak lehenetsiko ditu umeak elikagai beraren gainetik.

Umearengan, esplorazio jokabidea helduengan baino aktibatuagoa dago. Espezie guztietan eta primateetan bereziki, umeak denbora asko eman dezake palankak sakatzen edo pertsianak zabaltzen jardunak berak ematen dion sariagatik bakarrik edo esploratzeko objektu berri bat lortzeko tresna gisa.

5. hilabetearen inguruko epean ez da esplorazio jokabidea bakarrik agertuko, era berean, eztanda kognitibo handia emango da. Honela bada, adimenaren garapena eta esplorazio jokabidea eskutik doaz. Une honetatik aurrera, giza umeak sutsuki ekingo dio bere eskura duen oro esploratzeari: eta jada ez bakarrik bere hurbileko izakien aurpegiak baizik eta bere begiradaren eskenatokian dagoen edozein objektu ere, bere gorputza eta mugimenduak barne. Eta dagoeneko garatu dituen kanal sensorialek eskaintzen dizkioten bitarteko guztiekin esploratuko du.

Esploratzaile handia da umea, ikertzaile aparta. Hala ere, mendebaldean ume ikertzailea arriskutsua bilakatu da etxebizitzako objektu sofistikatuen osotasunerako. Ikaragarri eta beldurgarritzat hartu da ume hau, hiperaktibotzat jo ez dutenean, eta sarritan mugarik gabeko hezteari ekin zaio. Eta, gizarte heziketarako xedez, mugak jartzeak duen garrantziaren gainean teorizatu da baita ere. Honela eginez, ikertzailearen bulkada moztu da eta eskolara joan behar

denean objektu ez materialekiko interesa izan dezan nahi izan da. Eta umeak ez zuen esploratzeko bulkadarik jada. Askotan errepikatu dugu. Ezin da umeak objektu naturalak esploratzeko duen gogoa ito eta gero objektu kulturalak ikertuko dituen umea espero.

Jolasa da esplorazioaren aroa. Zizakadurak egin antzera (Bi osagai bereizten genituen zizakaduran: doinua, eta beraz, komunikazio emozionala eta fonema eta silaben formulazioa. Doinua prosodiaren aurrekaria den modura, umeak hitza lantzeko erabiltzen duen ariketa ludikoa da fonemen bokalizazioa -jolasa da-), jolasak berdinen artean eta helduekin, horretarako prest bada, ematen diren esplorazio eta komunikaziorako funtzioak betetzen ditu. Guraso modura, ume bati eskaini diezaiotegun oparirik handiena berarekin jolasean aritzea da.

5. hilabetetik aurrera, era bakartian ekingo zaio esploratzeari, eta pixka bat geroago lehen eta bigarren mailako zaindarekin, eta hamabi hilabete aldera berdinek osatutako taldeetan. Bere garaian aipatu moduan, zaindarekin partekatutako jolasak biziki akuilatuko du hizkuntza. Zaindarekin komunikatzea ez da bakarrik izango komunikazio inter-subjektiboa, umeak ikusi, ukitu eta egin duenaren gainean hitz egitea baino. Beste hitz batzuetan esateko, esploratu duenaren gainekoa.

Jolasa da esplorazioaren denbora eta, halaber, berdinekin komunikatzeko denbora. Kapitulu osoa eskainiko diogu berdinen arteko komunikazioari, hau da, sozializazioari. Jolaskideak esploraziorako lagunak dira eta komunikazio emozionalaren helburu.

Funtzio semiotikoa azaltzean, sinboloa objektuekin ordezkatzeko gaitasunari esker, egoera sozialen irudimenezkoa esplorazioa barneratuko du berdinen arteko jolasak: "rolen jokoak". Partekatutako jolasean umeak egoera sozialak ikertuko ditu eta, eszenatoki horretan, geroz eta konplexuagoak diren etorkizunerako jarduerak probatuko ditu.

Ekimenaren eta sorkuntzaren aro handia ere bada jolasa. Jolaserako erraztasunak sortzea eta sustatzea subjektu autonomorako baldintzak sortzea da, bere kabuz jardungo duen subjektu sortzailea. Jolasten ez duen umeak ez du gaitasunik erakutsiko trebezia operatibo eta sozialetan. Beraz, jolasak jarduera kognitibo osoaren jarduna konfiguratu du, eta halaber, ekimena eta sorkuntza, luzapen zein sakontasunari dagokionez. Berriki lortu du jolasak dagokion mailan. Mundu tradizionalan, olgetak duintasuna zuen galdua eta garrantzirik gabeko jarduera gisa baztertu zen, zentsuragarri gisa hartu ez denean: "hau beti olgetan" esan ohi da.

4.2. Garapen kognitiboa

Umearen garapen kognitiboari heldurik, hezitzaileari interesatzen zaizkion gaiak nabarmenduko ditugu. Honela, badira aipatu beharreko zenbait ideia.

6. ESPLORAZIO JOKABIDEA ETA GARAPEN KOGNITIBOA

Animalien eta gizakien genoman idatzitako gaitasuna dugu adimena eta esploraziozko jokabidearen zerbitzura dagoen garapen ebolutiboa du. Bere zerbitzura izanez gero, esplorazioan murgiltzeak sustatuko du adimena, sustatuz batera, gehiago ezagutu nahiko da ezagutu ahala, ezagutzak gozamina ondorioztatuz gero. Halaber, esploraziozko jokabidea ez dela atxikimendu eta beldur jokabideetatik independentea dakigu, bere aktibazioari edo eteteari dagokionez.

Horregatik, ez zaigu adimenaren beraren garapena azaltzea interesatuko, psikologia kognitiboari interesatu dakioken modura, hezitzaileari umea ulertzeko eta bere heziketa jarduera zuzentzeko gidatu diezaioketen gaiak eta dimentsioak baizik.

Esploraziozko jokabidea berezkoa denez, berezko jokabide guztien gisara, bere baitatik eta aurkeztutako objektuekin abiatuko da esplorazioa. Egun hedatzen ari den ardura: umearen garapen kognitiboa handitzeko xedez estimulazioaren aldekoa hain zuzen, ez da ez beharrezkoa ez egokia.

Ez da beharrezkoa: aski da kanal sentsorialekin bat datozen egituretan umea jartzearekin, honek esploratzeari ekin diezaion estimulu gehigarririk gabe.

Eta ardura honen desegokitasuna ulertu dezagun, esplorazio eta datu bilketaren erritmo naturalak bortxatzeko arriskuaz ohartu behar gara. Estimulazio artifizialak -erritmo naturala hautsiz- errealitateatik jasotako datuen prozedura denbora eragozteko arriskua areagotuko du, kanpokoekin eta berezko bizipenekin integratzeko erabilitako denborak hain zuzen ere (Montagner, 1996). Beste hitz batzuetan esateko, umea datuz betetako baina esangura pertsonalik gabeko robot kognitiboa bihurtzeko arriskua dago.

Gure ustez, umearen garapen kognitiboari dagokiolarik, honako hauek izan daitezke hezitzaileari interesgarri gerta dakizkioken gaiak, umearen mundu mentala ulertzeko eta bere heziketa jokabidea zuzentzeko xedez:

- Objektuaren gaineko oroimenaren agerpena.
- Ezagutza eta oroimena.
- Mundu errearen eraikuntza: objektu iraunkorra, espazioa, denbora eta kausalitatea.
- Arreta galtzea.

Gai guzti hauetarako, saihestezina zaigu Piagetek ikertutako psikologia kognitiboa aipatzea. Ez dugu Piageten kontzeptu klasikorik garatuko, izan ere, gaur egun bere teorian aipatzen diren asimilazio, egokitze eta bestelako nozioak baino biologiarekin eta giza zientzia enpirikoekin bat egiten duten formulazioak direlako. Psikologia enpirikoaren eklosio handia baino lehenago sortu zuen Piagetek bere teoria. Aitzitik, bai aipatuko ditugula Piageten garapen kognitiboaren gaineko aldiak, behaketaren ondorengo gertakizunak azaldu besterik ez baitute egiten.

Objektu fisikoekin erlazioatzerakoan umearen adimenak zuen garapena ikertu zuen Piagetek. Objektu ez gizatiarrekin umeak garatutako erlazioan, itxuraz, kolorez eta

kokapenaz aldatu arren, oroimena zein ezagutza ikertu ziren –eta hauekin batera objektuaren iraunkortasunaren nozioa-. Eta, objektu materialen eta gizakien artean bereiztearen garrantziaz ohartu gabe, hasieran, Piagetek gauzaki bizigabean gainean egindako behaketak giza errealtatearen esparruan aplikatu ziren.

Alta, Piageten ikerketak espezifikoki bere inguruko pertsonaiekin umeak zuen erlazioan aplikatzen hasi zirenean, Bower-ek (1974) aipatu zuenaz ohartu ziren, “umetxoaren bizitzako lehen urtean zehar, Piagetek hasiera batean uste zuena baino aurreratuagoa dela bere garape kognitiboa”.

Umetxoak bere inguruko pertsonetikiko erakusten duen interes askoz ere handiagoak eta loturan ematen diren emozioak adierazten dutenez, askoz ere lehenago antzematen da objektuaren iraunkortasuna gizakiei dagokienean. Umetokitik bertatik jada, ezagutza objektu bilakatuko dira ama, eta ondoren, ingurune familiarra osatzen duten zenbait pertsonaien ezaugarriak, dagokion kapituluan ikusi genuen legez.

Honela bada, amaren figura ezagutzea eta hautematea objektu materiala baino lehenago ematen da garrantziari dagokionez. Horregatik, bere amarekin garatutako erlazioan, umearen garapen kognitiboa aztertu duten ikerlariak marraztutako ibilbidea ez dator bat zenbait mugetan Piagetek deskribatutakoarekin. Dena den, ezberdintasun hauek ez dute balio akademikoa besterik, izan ere, bere garapen erritmoetikiko umeak erakusten duten aldakortasunak konpentsatu egiten baititu aipatu ezberdintasunok. Baina, hala ere, garrantzitsua da adieraztea, pertsonetikiko interesa eta ezagutza nabarmen aurreratzen zaizkiola objektu materialenganako interes eta ezagutzari, ume guztietan. Umetokian bertan hasiko da umea ama ezagutzen eta jada bere bizitzako lehen egunetan ezagutuko ditu haren alderdi partzialak, umetikiko existentziako usaimen (Montagner, 1974) eta entzundako soinuekin (Feijoo, 1981) ikusi ahal izan genez. 5. hilabetean emango den eztanda kognitiboa gertatu arte, umearen interes bakarrak amaren figura eta giza figurak dira. 5. hilabetetik aurrera hasiko da erakusten interesa kanpoko objektuekiko, bere gorputzaren atal batzuk barne: epe honetan zehar gogo biziz ekingo zaio esplorazioari, eta honela bada, esplorazio jokabideari ekingo zaio era konbentzional batez. Piagetek lau aldi nagusi ezartzen ditu gizakiaren garapen kognitiboan:

- Fase sensorio eragilea: 1. eta 2. urtea.
- Fase aurre-kontzeptuala: 3.-4. urtea.
- Fase aurre operazionala: 5-10 urte bitartean.
- Operazio formalen fasea: 11. urtetik aurrera.

Gure xedeetarako, aurre-eskolatutako umearen garapen ebolutiboa azaltzeko, lehen bi faseen gaineko azalpena interesatzen zaigu bereziki: fase sensorio-eragilea bizitzako lehen bi urteetan zehar hedatzen dena eta fase aurre-kontzeptuala 3. eta 4. urtean zehar garatzen dena.

• **Fase Sentsorio Eragilea: 0-24/30 hilabete**

Gure helburuetarako ez du garrantzirik Piagetek epealdi honi "Fase sentsorio eragilea" deitzeko erabilitako formulazio teorikoak aztertzea.

Umea hautemateko gaitasunekin edo sentsorialekin, eta gaitasun sentsorial hauek hautemandako estimuluei erantzuteko berezko jokabide erreperitorio batekin, jaiotzen dela umea jabetu zelako izendatu zuen honela fase hau Piagetek, izatez biologoa baitzen. Azaldu izan dugunez, hastapeneko estimulu-erantzun jolasak edo eskema sentsorio-eragileak atxikimenduzko eta elikatze jokabideen inguruan ematen dira.

"Sentsorio-eragile" adierazpeneko "eragile" terminoa berezko lehen jokabideetan dimentsio eragilea bakarrik behatu daitekeelako erabiltzen da. Piagetek bere teoria formulatu zuenean, ez zituen ezagutzen Lorenz-ek berezko jokabidearen gainean egin garapenak.

Fase sentsorio eragile honetan errearen eraikuntza ardaztuko duten gertakari handiak jazotzen dira:

- Baliabide eta helburuen arteko bereizketa, eta ondorioz, ekintza jokabide operatzaileen arabera planifikatzeko gaitasuna.
- Objektuak ingurune espazio-tenporalean irauten du.
- Errepresentazio mentala edo funtzio semiotikoa, eta honekin batera, hizkuntzaren hastapena.
- Deszentrazioaren hastapenak egozentrismotik alozentrismora igarotzean.

Gertakari hauek ezagutzeari esker ulertu ahal izango dugu umearen mundu kognitiboa eta berarekin izango dugun portaeraren nondik norakoa eskainiko digute. Fase sentsorio eragile honetan, Piagetek aldi ezberdinak nabarmendu ditu, erabilgarriak izan dakizkiguke aipatutako gaitasunen agerpenekin egiten baitute bat.

1. Aldia: 0-4 aste bitartean

Aipatu izan denez, estimulu egokiaren bila bultzatzen duten, eta aldi berean erantzun, berezko jokabideak ditu jaiotzean umeak. azpimarratu dugunez, konfigurazio estimulagarrien eta berezko jokabideen ekologia hau garapen biologikoaren arabera emango da eta genoman inskribatuta dago (Lorenz, 1937).

Hurruptatze jokabideari gagozkioz geroz -era desegokian erreflexu deitutakoa-, ez da gauzatuko edozein konfigurazio estimulagarriaren aurrean, aparailu sentsorialak ezagutuko duen morfologia zehatz baten aurrean baizik: ezipain-inguruko zonaldearen ikusmenak eta ukipenak hautemandakoa. Ukipenak eragingo du hurruptatze jokabidea. Berdin esan daiteke heltze jokabideaz eta une horretan beharrezko diren gainontzeko jokabideez ere. "Asimilazio" deitzen dio Piagetek genetikoki zehaztuta dagoen fenomeno honi.

Etologiaren aurkikuntzez geroztik, behatu daitekeen jokabide eragilea geroz eta konplexuagoa den mugimendu-koordinazio gisa definitu daiteke, batetik ezagutza genetikokoaren bidez bilatuko duena estimulu egokia, eta bestetik, bere presentziak

pitzen duena. Oso goiz, oraindik oso egoera garatu gabeen diren jokabide operatzaileez aberastuko dira estereotipatutako berezko mugimenduak, ekintza finkozko jarraibideak deitutakoak, geroz eta gehiago egokitzen ekintzak bideratuz. "Egokitze" deituko dio Piagetek gertakari honi.

Gaitasun berriak integratuta, lehen aldi sentorio eragilearen jokabide eskemaren egokitze honek markatuko du 2. Aldiaren hasiera.

2. Aldia: (2.-4. Hileen artean)

Erreflexu (edobaldintzaren) pauloviarren eta baldintza operatzaileen zirriborro lortuagoen ageriko presentziak markatzen du aldi hau -bigarren estimuluaren aurrerapena- Beste era batera esanda: eskema eragile konplexuagoak eta eraginkorragoak eratuko dira. Hurrupatzean esaterako, hurrupatzea lortzeko eskema konplexuagoak eta eraginkorragoak. Gauza berbera esan dezakegu epe honi dagokion berezko edozein jokabide ordenaren gainean.

Eskema hauek (pauloviarrek eta operatzaileak) arrakastatsuek izanez gero, ohitura bihurtuko dira. Piagetek erabiltzen duen "egitura" terminoa (Piaget eta Inhelder, 1975) ohituraren sinonimoa da, Animalia eta Gizakiaren Jokabidearen Teoria Orokorrean garatutakoa.

Ohitura ez da oraindik adimen, portaera operatzaile arrakastatsuek erdietsitako zenbait automatismo egoki baino. Adimenaren ardatzetariko bat baliabide eta helburuen arteko bereizketan datza. Epe honetako umetxoak ez du oraindik garatzerik izan gaitasun hau. Ohitura sentorio eragilean, mugimenduen jarraipen behartuaren eraginez lortuko da xedea, eta ezingo da nabarmendu aurretik aukeratutako helburuaren eta balizko eskema (ohitura) ezberdinen artean (Piaget, 1936).

3. Aldia: (5.-7. Hileen artean)

Xede eta baliabideen arteko bereizketa du ezaugarritzat epe honek, eta honekin batera, planak azaleratuko dira. Adimenak eztanda egingo du epe bikain honetan, eta era berean, esplorazio jokabidea agertuko da.

4.-5. hilabete aldera koordinazioak eman dira ikusmenaren eta heldzearen artean: umeak kordioa helduko du sehaskan eta heldzerakoan kanpaitxoak entzungo dira adibidez, eta ostean, emaitzarik espero gabe entzungo dira berriro keinua errepikatuz. Eta gero, egun batzuen buruan, kanpaitxoekin soinua eragin nahian, sokatik tiratuko du. Adimenaren atarian aurkitzen gara. Ez da oraindik gauzatuko, bere harremanetan umetxoa objektu edo pertsona baten irudia egiteko gai izan arte, eta bere ekintzaren antolaketa irudikatu arte objektu edo pertsona horrekiko helburuak lortzeko baliabide hierarkia baten baitan. Helburu zehatzak lortzeko ezaugarrietan agertuko da adimena. Horregatik deituko zaio adimen praktikoa (Piaget, 1936). Adimen praktikoa azaltzearekin batera ekingo zaio hurrengo aldiari.

4. Aldia: (8.-9. Hileen artean)

Adimen praktikoen ekintza konplexuagoak ikusten hasiko dira epe honetan: umeak xede bat izango du aurretik eta lortzeko bitartekoak bilatzeari ekingo dio: mantatik tiratuko du edota makila bat erabiliko du objektu bat hartzeko. Baina epe honetan

ematen den gertakaririk nabarmenena, 7 eta 9 hilabeteen artean objektu iraunkorraren nozioa azaltzen dela da, espazio eta denbora continuum batean. Interesatzen zaion objektua bilatuko du umetxoak, bere bistatik desagertu arren.

Horrela bada, epe honetan zehar, objektu entitate iraunkorraren nozioa azaleratuko da, Kant-ek bere Arrazoimen Hutsaren Kritikan adierazi zituen a prioriko bi kategorietan inskribaturik: espazioa eta denbora. Hemendik aurrera, espazioan eta denboran kokatutako entitate iraunkorra duen gauza eta pertsonen mundu baten gisara gauzatuko da bere hautematea. Denboraren joan-etorrian bere entitatea mantentzen duten objektuen eraldaketak aurreko aldietan garatu gabe biziak beste nozio bat ondorioztatuko du: kausalitatea. Kausalitate nozioa azaltzeaz batera, xede eta baliabideen artean bereizteko gaitasuna irekiko da.

5. Aldia (10.-18. Hileen artean). Xede eta baliabideen arteko bereizketa argia

Xede eta baliabideen artean bereizteko gaitasunak markatuko du 5. Aldiaren hasiera, erabat. Aktore adimentsu bilakatuko da umea.

Aldi honetan, aurreko jokabideei funtsezko erantzun bat gehituko zaie: baliabide berriak bilatuko dira, ohiturak bereizita (Piageten eskemak). Paraleloki, aktore adimentsu honen baitako esperientziak islatuko dira barne mapa operatibo delakoetan (Bowlby, 1969). Barne mapa operatibo hauek ez dira guztiz lotu behar funtzio semiotikoarekin. Egoera Arrotzeko Testean (Ainsworth eta lag., 1978) ikusten denez, umetxoak bere portaera norabidetzen duen mapa izan arren, ez da behar adina agerikoa izango soinutzat jotzeko: hitz bat. Hitzaren agerpenak markatuko du hurrengo aldia.

6. Aldia 1 1/2 - 2 urte bitartean (18-24 Hileen artean). Barne errepresentazioa edo semiotikoa.

Epe sentsorio eragilearen amaiera markatzen du aldi honek: baliabide berriak aurkitzeko gai izango da umea, eta ez bakarrik kanpoa aztertuz, bat-bateko ulermenaz ari gara, konturatzeaz edo "insight" deritzona, eragiten duten barne konbinazioen bidez. Elkarrekiko harremanetan erabiltzen diren osagai espazial guztien barne errepresentazioa sortu delako eman daiteke (Lorenz, 1954), honela bada, ekintzen hierarkizazioa ezarri daiteke: "lehen hau, bigarrena beste hau". Baliabide edo jokabide operatzaileen erabilera hierarkizatzeke gaitasuna sortu da. Köhler-ek aurkitutako txinpantzearen bastoiaren aurkikuntza ospetsuaz ari gara. Eskema sentsorio eragileak egoki bilakatuko dira konbinazio berriak eman daitezen, errepresentazio mentalari esker.

Adimenaren bidez objektu bat irudikatzean, soinu edo soinuen nahasketa erantsi dakioko eta ekintza bat irudikatzeari esker, ekintza ahoz adierazteko aukera: subjektua, aditza eta osagarriak. Mintzamenaren agerpena, hain zuzen ere.

• Fase aurre kontzeptuala: 2-3 urte. (36-48 Hilabete). Deszentrazioa.

Ikuspuntu kognitiboaren ikuspuntutik, Bowlby eta Ainsworth-en lotura gogoratuz, elkarrekin egokitutako xedeak dituen bikote baten eraketa fasearekin dator bat fase hau. Epe honetan, jakina, irudikatze mentala garatuz doa eta irudi grafikoan eta hizkuntzaren bidez adieraziko da. Epe honetan zehar, garapen nabarmena izango du umearen hazkunde globalak:

irudikapen grafikoa, jolas sinbolikoa, motrizitatea eta hizkuntza. Hala ere garrantzi nabarmenena duen gertaera psikikoa, honela esan badaiteke, deszentrazioaren hasiera dugu. Ordura arte egozentrikoak ziren pentsamendu eta arrazonamendua -sekuentzia logikoak ezartzea - alozentrikoak izaten hasiko dira.

- **Fase aurre operazionala: 4-7 urte.**

Aurreko fasearen jarraipen heldutasun fasea dugu honako hau.

Fase aurre kontzeptualean ematen den norbere buruarenganako zentramenduak jarraituko du, errealtate objektiboaren gainean jarritako arreta urriaren eraginez informazio kopuru mugatuak ditu. Honela bada, kontserbazioaren arazoari dagokionez, arazoaren alderdi bakar bati besterik jarri diezaiokie arreta umeak. Fase honetan, operazio konkretuetan zentratuta dago umea oraindik.

- **Operazio zehatzen fasea.**

7 eta 11 urteen artean, arrazonamendu prozesuak logiko bilakatuko dira eta arazo zehatz eta errealetan aplikatu ahal izango dira. Operazioak aipatzen ditugunean arazoak konpontzeko erabilitako logikaren bidezko operazioez ari gara. Fase edo aldi honetako umeak ez du jada sinboloa besterik erabiliko, era logikoan erabili ditzake sinboloak, eta kontserbatzeko gaitasunari esker, orokortasun zuzenak lortu ditzake. Alde sozialari dagokionez, umea benetako izaki soziala bilakatuko da eta epe honetan seriozitate eskema logikoak, multzoen antolakuntza mentala eta kausalitate, espazioa, denbora eta abiadura kontzeptuen sailkapena agertuko dira.

6/7 urte aldera, kopuru numerikoak gordetzeko gaitasun intelektuala erdietsiko du umeak: luzerak eta bolumen likidoak. Formaz aldatu arren, kopurua berdin mantentzen dela ulertzeaz ari gara hemen "gordetzeaz" ari garenean. Lehenago, aldi aurre-operatiboan esaterako, umea guztiz sinetsita zegoen litroko ur botila altu eta luze bateko ur kopurua botila baxu eta zabal batera ontziz aldatutako litrokoa baino gehiago dela (Gestalt teoria aipatu daiteke hemen) Aitzitik, operazio zehatzen aldira heldutako umeak intelektualki ulertu dezake kopuru berbera dagoela (ur litro bat esaterako) oso bestelako formak dituzten edukiontzietan.

7/8 urte aldera, materialak kontserbatzeko gaitasuna garatuko du umeak. Adibidez: buztinezko bola bat manipulatu zenbait bolatxo egiteko, konturatu egingo da bolatxo guztiak bilduz jatorrizko bolaren kopuru ia berbera dela. Berriki aipatutako gaitasun honi itzulgarritasuna deitzen zaio.

9/10 urte aldera, kontserbazio nozioaren azken urratsera heldu da umea: azalera kontserbatzera hain zuzen ere. Esaterako, paperezko laukien aurrean jarrita, azalera berekoak direla ohartu daiteke laukiok metatu zein sakabanatuta izan arren.

- **Operazio formalen fasea.**

10-11 urtetik aurrea, operazio formalen fasean sartuko da umea. Ekintza praktikoetatik aldentzeko gaitasuna du arazoari atxikitako aukera guztiak irudikatu ahal izateko.

6. ESPLORAZIO JOKABIDEA ETA GARAPEN KOGNITIBOA

Hipotesi abstraktuak lantzen hasiko da eta arrazonamendu hipotetiko-deduktiboak egingo ditu. Nerabezeroaren erdialde aldea, doktrina eta ideal abstraktuekin egingo dute bat gazteek, errealitate faktikoarekin hurbilekoak ez diren zentzuan.

Ondorengo lerroen bidez laburbildu litezke pentsamendu formalaren ezaugarriak -bizitzako arlo ezberdinetara hedatzen direnak:

- Nerabearen pentsamendua malgu eta eraginkor bilakatzen hasiko da: arrazonamendu arazo konplexuei aurre egiteko gai.
- Aipatu denez, aukera hipotetikoaren gainean arrazoitzeko gai izaten hasiko da: ez da zehatz eta errealer mugatua izango. Arazo zientifikoei aurre emateko gai izango da: behatu, esperimentatu eta datuen gainean arrazoitu.
- Aukeraren ondorio gisa ulertuko da errealitatea. Egoera bati dagozkion aukerak irudikatze joera nabarmenagoa du, egoeraren gaineko datuak behatuz zentratzen hasteko baino.
- Globala da: arazo bati ekin baino lehen, kontuan hartu beharreko aukeren zerrenda sakona egiteko joera dute. Umeak, ordea, alderdietako eragile bat zuen bakarrik kontutan, konbinazio ezberdinak kontutan izan gabe. Honek guztiak malgu bihurtuko du pentsamendua, arazoari ekin baino lehen balizko forma ezberdinak eta ikuspuntu ezberdinak kontutan dituzten operazio kognitibo kopuru handia egiteko gai izango delarik.
 - > Esparru intelektualean: filosofia eta erlijio doktrina abstraktuekin egingo du bat, soilik pentsamenduarekin dena egiteko gai dela sentituko du, errealitatearekin kontaktua galtzeko arriskua du.
 - > Esparru emozionalean: ideal abstraktuengana zuzendu ditzake bere sentimenduak.

4.2.1. Objektuaren gaineko oroimenaren agerpena

Bere oroimenean umetxoak objektu baten irudia gorde duenaren adierazle argia, desagertzen ikusi duen objektua bilatzeko saiakeraren bat litzateke. Piageten iritzi, seigarren hilabetea igaro arte ez da jokabide hau ikusiko. Piageten ustez (1936), epe honen aurretik umeak ez du bilatzeko saiakerarik egingo, eta beraz, objektu ezberdina balitz modura erabiliko du aurkeztuz gero: ez da objektu oroimenik, eta ondorioz, ez da ezagutzarik.

Piagetek egin irakurketa ezberdina egiten du Bower-ek (1974). Ezagutzarik eza ez da ematen oroimenean irudirik gorde ez delako, 5. hilabetea baino lehen ez direlako kontutan hartuko neurririk, formarik edo kolorerik baino. Adin honetako umetxoarentzat leku berean irautea eta mugimenduaren ibilbidea dira objektu baten ezaugarri bereizgarriak. Ez litzateke, beraz, oroimen finkatze kontua izango, baizik eta umetxoak objektuaz finkatzen duenaren gaineko kontua.

Objektuaren gaineko ezaugarri nahikotxo behar dira memorizatuta, lehenago antzemandakoa orain antzematen dena dela jakiteko. Aipatu izan denez, 5. hilabetea baino lehen, ama eta gizakiak ez diren gainontzeko objektuek ez dute umetxoaren

interesik piztuko. Amaren figura oroitzeak eta ezagutzeak rol oso garrantzitsua dute epe honetan, izan ere, lehen 6 hilabeteetan zehar, umetxoaren garapen psikikoari dagokion funtsezko gertakaria baita gizakien munduaren artean amaren figura edo bigarren mailakoren bat bereiztea, eta bereizi eta gero lotura gauzatuko da eurekin: Bowlby eta Ainsworth-en 2. fasea.

Jakina denez, jaiotzatik bertatik oroitu eta ezagutu daitezke amaren zenbait alderdi, zentzumenen kanal ezberdinei esker hautematen dira. Usaimen eta entzumenerako frogatzen duten esperientziak aipatu izan dira (Feijoo, 1981; Montagner, 1974). Era berean, beste kanal sensorialetarako inferitu daiteke: ikusmena, ukipena eta sentzibilitate propiozeptiboa eta labirintikoa. Honen arabera, umetxoak memoriaren artxiboetan gordeko ditu gurasoek nola ukitzen, eusten edo mugitzen dituzten gaineko irudiak, eta hauen aurpegietako ezaugarriak ere. Aipatu izan dira baita, jaiotzaren ondorengo orduetan aurpegiaren hautemate bisualaren gainean Paduako Unibertsitatearen ikerketak (Turati eta lag., 2006).

Hasiera batean alderdi partzialak bakarrik ezagutu arren, irudi global batean artikulatuko dira irudi partzialok, eta 6. hilabetearen ostean, espazioan eta denboran iraungo duen pertsona zehatz bat (Piageten 4. aldia) bilatuko du umetxoak bereziki eta honekin lotuko da.

Interes akademikoari begira besterik ez bada ere, amaren figura ezagutzearen eta izaera jarraitua duenaren artean bereizi daiteke bere ikusmenetik kanpo egon arren, hau da, espazioan eta denboran identitate iraunkorraren gaineko nozioa.

4.2.2. Ezagutza eta oroimena

Umeak goiz ezagutzen duen arren, dagoeneko aipatu dugunez, oraindik ez du garatu objektuaren gaineko iraunkortasunaren nozioa. Kokatutako tokiak edo ibilbideak, eta ez biek, zehaztuko dute izaera honen nondik norakoa bizitzako lehen lau hilabeteetan zehar. Hau dela eta, umea ez da jabetuko pertsona bat aurretik leku batean egonda beste batera mugitu daitekeela edo ezin daitekeela aldi berean egon bi leku ezberdinetan.

Honela bada, bost hilabete baino gutxiagoko ume bati bere amaren irudi anitzak erakusten badizkiogu ez zaigu nahastuko, "ama" bakoitzarekin ekingo dio interakzioari zoriotsu aldi bakoitzean. Eta amaren irudi hauetako bat arrotzen irudiekin ordezkatzuz gero, umeak ondo baino hobeto jakingo du zein irudi duen nahiago (Bower, 1974).

Lehen bost hilabeteak igaro ondoren, ordea, izugarri aztoratuko da amaren irudi anitzak ikustean: honezkero umeak badaki ama bakarra duela eta hura ezin daitekeela egon bizpahiru lekutan aldi berean.

Bestalde, Schaffer (1964) ohartu egin zen 6 hilabetetako umetxoek oso bestelako jarrera erakusten zutela hamabi hilabeteetakoekin alderatuz. Objektu arrotz bat erakusten zitzairenean, bere amaren konpainian, 6 hilabeteetako bakar bat ere ez zen atzean zuen amarengana zuzentzen. Aurkeztutako objektuak liluratuta zuela ematen zuen eta guztiz ahaztuta hurbil zuen amaz. Hamabi hilabetera, ordea, bueltatu egiten ziren nola jokatu behar zutenen gaineko aginduak lortu nahian.

Behaketa hauekin bat, lehen urtearen azken laurden aldera, seinaleei erantzuten dion amaren ume segurua (Stayton eta Ainsworth, 1973) zorionsu hasi daiteke olgetan jakin baitaki bere ama, ikusi ez arren, hurbil dagoela eta eskuragarri duela nahii izanez gero.

Umeak oso aldakorrek dira gaitasun kognitiboak garatzen dituzten adinari erreparatuz gero (Bell, 1970). Zenbaitzuk zazpi hilabeteekin erakutsiko dute nolabaiteko gaitasuna bere ama aurkitzeko eta ia arazo komun guztiak edo ia guztiak konpondu ditzakete bederlatzi hilabeteekin. Beste batzuk, geldoagoak dira. Bere seinaleei erantzuten dion amaren umeak eta interakzio ugari dituen ama arreta gutxiago eskaintzen dionaren aurretik izan ohi da.

Objektuaren iraunkortasunaren nozioa hautemateko umeak asko desberdintzen direnez, edo zehatzago esateko, amaren iraunkortasuna, kontuz ibili behar dugu garapen kognitiboari dagozkion faseak adin kronologikoaz erlaxionatzen ditugunean. Bestelako kontua da umetxoaren oroimenaren hedapenari buruzkoa edota denbora igarota pertsonak eta leku espezifikoak ezagutzeko edo gogoratzeko gaitasunen baldintzen gainekoa. Fagan-ek (1973) agerian utzi duenez, lehen hilabeteetan zehar informazio bisualaz ari garenean, uste zen baino askoz ere gehiago irauten du ume baten gomutak. Aurpegi baten argazkia bi minutuz soilik bost hilabetetako umetxoari erakutsita ezagutu egingo du bi asteren buruan argazki bera erakutsitakoan.

Bat-bateko oroimenari edo figura gogoratzeari dagokionez, informazioa eskasia dugu. Bowlby-ren (1969) iritziz, arriskutsua litzateke esatea 18 hilabete baino gutxiagoko ume batek pertsonak edo lekuak gogoratzeko gaitasun osoa duenik, egun bat edo pare bat igaro ondoren. Horregatik da hain garrantzitsua umearen pertsona esanguratsuen argazkiak izatea haur-eskolan, eta zaindaria umearekin hurbildu dadila irudiekin osatutako panel honetara figurek gogoratzera.

Ohar guzti hauek bat datoz honako hipotesiarekin: umearen lehen urtearen hirugarren laurdenaren aldera -bizitzaren 6. hilabeteetik aurrera- bere amaren gainean umeak duen errepresentazioa azkar egituratzen zaio honako honetarako:

- ama ez dagoenean beste pertsona batzuekin alderatzeko.
- eta etxera helduan ezagutzeko.

Aditza eman denez, hilabete hauetan zehar ama bere buruaz independenteki existitzen pertsona giza hautemateko gaitasuna garatuko du umetxoak. Ondoren

ikusi ahal izango dugu, Objektuaren Iraunkortasunaren gainean jardundakoan hain zuzen ere.

4.2.3. Mundu errearen eraikuntza

Mundu errearen eraikuntzaz ari garenean, objektu iraunkorra espazio eta denbora batean kokatuta, sailkatutako mundu fisikoaren antolaketaz ari gara, eta kausalitate legeen menpeko balizko aldakuntzetan. Mundu fisikoaren nozio honen barnean leudeke inguruko giza figurak ere, mundu honen parte bailiren.

5. eta 6. hilabete inguruan esponentzialki azalduko dira gaitasun kognitiboak eta objektuen munduarekiko jakin-mina izango dute lagun, esplorazio jokabidea deitutakoa alegia.

Errearen eraikuntza ondorioztatzen duen objektuen mundu honen esplorazioari eta prozesatzeari ekin aurretik, ezinbestekoa da Piagetek garapen kognitiboaren eta bere epeen gainean egin ikerketak aipatzea.

Fase sensore-motorrean umetxoak errearen kategoria handiak eraikiz antolatuko du errealtatea:

- Objektuaren iraunkortasuna.
- Espazioa eta denbora.
- Kausalitatea.
- Deszentrazioa.

Hauetako kategoriarik ez zen hasieran: bada, hastapeneko unibertsoa gorputzean eta honen ekintzetan zegoen zentratuta. Guztiz egozentrikoa zen: umea ez zen jabetzen bere kanpoko errealtateaz, bere buruaz haratagoko berezko lege independenteen menpeko errealtateaz: ez zuen bere burua hautemateko gaitasunik, ezta NI-aren noziorik indibidualizatutako zerbaiten gisa.

Bizitzako lehen 18 hilabeteen zehar, iraultza kopernikanoa ondorioztatuko duen prozesua garatuko da. Deszentrazio orokorrak ari gara, honako kokapena izango du bere buruaz umeak:

- besteen artean, beste objektu baten gisara.
- irauten duten objektuen unibertsoaren barnean, espazioan eta denboran egituratutakoa.
- non kausalitateak gidatzen duen gauzen jokamoldea, espazio-denbora jarraitu horretan.

4.2.3.1. Objektu iraunkorra

Jakin dakigu 5. hilabete aldera geratzen dela eztanda kognitibo handia: neurriak, formak eta objektuen koloreak esanguratsuak bihurtuko dira umetxoarentzat.

Bat bateko garapen honen ondorio gisa, aldi batez desagertu ondoren, berragertu den objektua ezagutuko du umeak eta objektu bera balitz modura erabiliko du. Existentzia jarraitua duen objektutzat hartuko du umeak, bere ikusmenetik kanpo egon arren. Gaitasun berri hau agerian geratuko da umea bere bila hasiko delako aurretik kendu ostean. Oraindik orain, trakets gidatuko du bilaketa eta akats bitxi asko egingo ditu. Hamabost hilabeteren buruan, aitzitik, umeak bakarrik konponduko du guztiz arazo hau.

Behaketa hauetatik abiatuz, Piaget eta beste ikerlari batzuen iritiz, lehen urteko azken hilabeteetan eta bigarreneko hasieran zehar, umeek geroz eta gaitasun gehiago garatuko dute objektua euren buruaz haratago existitzen den entitate gisa hautemateko. Esaten denaren arabera, garapenaren data hauetan zehar, objektuaren iraunkortasunaren kontzeptua barneratzen ari da umea. Hemendik aurrera, izaera propioa duten objektu iraunkorrez osatuko da mundua, espazioan eta denboran aldakuntzak izan arren.

4.2.3.2. Denbora eta espazioa

Hastapenetan ez dago objektuak kokatzeko espazioa bakarrik, ezta denbora ordenarik non gertakariak kokatu. Ez dago espazio-denborarik objektuak eta bere aldaketak edukitzeko.

Ez dago espazioa bakarrik, espazio heterogeneoen multzo bat baizik, eta guztiak zentratzen dira umearen gorputzean bertan: ahozko espazioa, ukipenezkoa, ikusmenezkoa, entzumenezkoa eta jarrerazkoa. Denborari dagokionez, zenbait denbora hautemate ematen dira gertatuko denaren aukerak igartzeko, baina ez da izango jarraituaren noziorik non gertakarien jarraitutasuna gauzatzen den.

Bizitzako lehen hilabeteetan zehar, progresiboki artikulatuko dira objektuaren gaineko irudi heterogeneo hauek (ahozkoak, ikusmenezkoak, ukipenezkoak eta zenestetikoak) baina denbora luzez, oraindik orain, partzialak izango dira 8. hile aldera arte -4. aldia-. Une horretan egingo dute bat, aldakuntza fisikoak, kokapen aldaketak eta leku aldatzeak izan arren, berdin mantenduko den objektu bakarra konfiguraturaz. Ezin dugu ziurtatu objektu iraunkorra eratzen delako agertzen dela espazioaren nozioa edo aldi berean ematen direla. Berekiko berdintsu mantentzen den

objektuaren gaineko nozio honi Objektu Iraunkorreko eskema deitu dio Piagetek.

Aldakuntzak izan arren, objektuaren identitatea mantentzeak denboraren nozioa ondorioztatuko du: objektuari gertatzen zaizkion gertakarien jarraipena kokatzen da continuum horretan.

Espazio eta denbora kategoriak sortzeko erabilitako bideetatik aparte, hezitzaileari garrantzitsua zaio oso jakitea bizitzako 8. hilabete aldera hasiko dela umea objektu iraunkorreko nozioa espazio eta denbora batean kokatzen.

4.2.3.3. *Kausalitatea*

Kausalitatea ez da objektiboa eta egokia izango eboluzio luze baten ondoren bakarrik, hasierako faseetan norberaren ekintzan zentratuak direlarik, oraindik ez dakite ezer mundu objektiboan gertatzen diren kausalitateei atxikitako lotura espazial eta fisikoen gainean.

Objektu iraunkorrak eta bere leku aldatzeak ezin dira bereizi egituraketa kausaletik, objektu iraunkorra, espazio-denboran, ekintza ezberdinen ondorio baita eta bere konexioak kausalitatearen kategoria osatzen dute.

Piageten 4. aldian, umetxoak eskema ezberdinen arabera manipulatuak ditu objektuak (lekuz aldatu, kulunkatu, itsatsi edo igurtzi) eta ez du oraindik bere ekintzarik ez den beste kausalitateerik, kontaktu espazialak gorabehera. Kanpaitxoek jo dezaten kordioaz tiratzerakoan, umetxoak ez du haien soinuaren iturria kordioan kokatuko: honen froga litzateke 2 metrota diren objektuen gainean eragiteko ere, kordioaz tiratzen jarraituko duela.

Magiko fenomenista deitu zaio hasierako kausalitate honi:

- Fenomenista, edozein gauzak edozein gauza eragin dezakeelako, lehenago behatutako loturen arabera.
- Magikoa, subjektuaren ekintzan zentratzen delako kontaktu espazialak kontutan hartu gabe.

Unibertsoa egituratu ahala, adimen sentsoz motorraren garapenaren eraginez, espazio-denbora antolaketaren arabera eta objektu iraunkorrak eratuz, objektibo eta espezializatua bihurtuko da kausalitatea: subjektuak ezagututako gauzak ez dira bakarrik norberaren ekintzan kanpoko edozein objektutan baino, beti ere, kontaktuzko harreman espazialak baldin badira.

6. ESPLORAZIO JOHABIDEA ETA GARAPEN KOGNITIBOA

5. eta 6. aldietako umeak alfonbratik tiratzen badu edo objektua beregana hurbiltzeko makila erabiltzen, inplizituki daki eragina izango dutela objektuarengan, kontakturik izanez gero. 3 eta 4 aldietako umeak, ordea, alfonbratik tira egingo du objektuarekin kontaktuzko harreman espazialik izan ez arren.

4.2.4. Deszentrazioa

Egozentrismo terminoak, lengoaia honetan, umeak bere ikuspuntutik besterik ezin dezakeela ikusi eta pentsatu mundua adierazi nahi du. Edo, beste termino batzuk erabiliz, umeak ezin dituela gauzak eta pertsonak, bere inguruan gertatzen dena edo inguratzen duten izakien portaera, besteen ikuspuntutik edo haiei dagozkien berezko motibazioen ikuspuntutik.

Umeak munduaren erdigunetzat du bere burua, eta gertatzen den guztiaren interpretazioak bere burua du erreferentziatzat. Ezin du ulertu ama nekatuta egotea edo hezitzaileak nekea adieraztea gaixotasun baten eraginez. Objektu baten aurka kolpatuz gero, objektua txarto portatu da berarekin eta haserre jarriko da edo zigortu egingo du zerbait txarto egin duelakoan. Bere ama edo hezitzailea goibel badira, berak eragin du. Ezin du pentsatu haien arazoren batek eragin duenik. Bere buruari egotziko dio ezinbestez bere inguruan geratzen den guztiaren arrazoia.

Umearekin garatzen den heziketa harremanean, garrantzi handia du nozio honek. Gaitasun bat azaleratu baino lehen eskatzeak edo exijitzeak ez du umea zauritu besterik eragingo, umetxoak ez baitaki zergatik eskatzen zaion. Arrazoitu dezala eskatzeak, hau da gure arrazoietan kokatu dadila, ez du gatazka konpondu ezina besterik erakarriko: umeak ez baitu beste aldean jartzeko gaitasunik. Itxuraz, horrela mintza daiteke edo jokatu dezake, beti ere hezitzailearen gustukoa izateko, baina berba-zigorren aurreko ekintza mimetikoa besterik ez da izango. Gatazka emozional hau gatazka moral bilakatuko da, eta ondorioz errudun sentituko da umea, jasaten dituen zentsura eta gaitzespenen eraginez.

Mundu eta errealitate osoa bere buruaren arabera bizitzearen egoera mental honi, eta besteen beharrezan ez hautemateari, egoismoa deitu dio ikuspegi etiko ezjakin batek. Piagetek, ordea, egozentrismoa deitzen dio. Ez luke eragozpenik egon behar egoismo deitzeko, gaitzespen moralaren konnotaziorik ez balu.

Nabarmendu beharrekoa da, baita ere, epealdi egozentrikoa konfiguratzeko duten gertakariak ulertzeak heziketarako duen garrantzia. Jarrera egozentrikoak ezorduan gaitzesteak ez du umea alozentrismora edo altruismora bideratuko eta, are gehiago, hauetara heltzeko garapena eragotziko du. Zauri orok hazkundera geldituko du. Berezko errealitate guztietan gertatu modura, egozentrismotik fase alozentrikora igarotzea sustatzeko modua umetxoaren egozentrismoaren zerbitzura jartzea da. Gaitzespena jasaten duen ume egozentrikoak altruista izan

behar duela ikasi dezake. Are gehiago, altruista izatea eskatuko dio bere buruari. Baina berdin jarraituko du egozentriko izaten, errudun sentituz. Erruak eta beharizanak bultzatuta, gizarte portaera altruistak izatera helduko da. Baina pobreak eta antinaturalak izango dira.

Honen harira, beste hausnarketa bat egin behar da eskolako gelaren gainean. 36 hilabeteetatik 48ra arteko epealdiak haur taldearen osaketari dagozkion gai konplexuak planteatzen ditu. Adin epe honetan, epealdiaren berezko gaitasunak erdietsi dituzten umeak izango dira, hala ere, beste zenbaitzuk ez dute heltzerik izan edota beste zenbaitzuk garapen maila altuagoan dira. Bestalde, gaixotasunak edo familia arazoak direnean, atzerapena jasan dezakete garatzen ari diren gaitasunek, eta hauen artean deszentrazioaren hastapenetan gertatutakoak. Eta esparru guztietan gertatu ere: eta ez bakarrik garapen kognitiboari dagozkionak, esfinterren kontrolari eta gaitasun motorrei dagozkienak baita ere.

Beraz, bizitzako 3. urterako, umeak beheko mailara itzultzea edo hurrengora igotzea bideratu dezakeen mugikortasuna asmatu beharra dago heziketa proiektuan. Honela bada, guztiz egokia litzateke continuum baten gisara egituratzea espazioa, umeak era naturalean jaitsi edo igo daitezten talde mugakideetara.

>> 5. ARIKETA PRAKTIKOA

Atal honi ekin baino lehen eduki kontzeptualen aurretik aurkeztu zaizkizun hasierako galderak eta horiei emandako erantzunak berrikustea komeniko litzaizuke. Berrikusketa honek erabat zuzenak ez liratekeen erantzunak birplanteatzea du helburu.

Ariketa praktikoa bi fasetan banatzen da:

Batetik, edozein egun hasterakoan, hurrei harrera egin eta gero, azter ezazu hurrek egiten dutena, gurasoei agurtzen duten unetik esploratzen dutenera arte. Azter itzazu, beraz, haurren jokabideak eta saia zaitetz ikusitakoa idatziz deskribatzen. Azterketa eta deskribapen lan horiek egiteko, atal hauek kontuan izan itzazu:

- Hurrek egindakoa esploratzen hasi aurretik.
- Esploratzerakoan, esplorazio jokabidearen deskribapena, besteak beste dimentsioen azalpena, objektu edo espazioei ematen dieten erabilera, garapen kognitiboaren zein faserekin egiten duen bat zehaztea...
- Hurrek egindakoa esplorazioari amaiera emateko arrazoiaz hausnartu eta interpretatu.

Bestetik, hauta ezazu hurrek orain arte gelan ikusi ez duten estimulu bat (orain arte gelan erabili ez duzun edozein objektu izan daiteke). Estimulu hori hautatu eta gero, gelan sar ezazu eta ikusgarri jarri, hurrek gelan izan ohi dituzten espazio eta objektuekin jolasten ari direla. Azter itzazu haurren jokabideak arestian aipatutako atalak oinarritzat hartuz eta konpara ezazu ikusitakoa aurreko egoerarekin.

fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok

7

BELDUR-IHESA, LARRIMINA, ERRUA ETA HASERRE-ERASO JOKABIDEAK

BELDUR-IHESA, LARRIMINA, ERRUA ETA HASERRE-ERASO JOKABIDEAK

>> 1. HELBURUAK

Atal honetan azaltzen ditugun lan eta irakurketak jorratuz erdietsi nahi diren helburuak hurrengoak dira:

- Haur eskolan hain ohikoak diren beldur/ihes jokabideen nondik norakoa ulertzea, eta horiek elkarrekiko duten loturaz jabetzea.
- Jokabideok hezitzaileen zereginari buruzkoan dituzten inplikazioak ezagutzearen garrantzia ulertzea.
- Jokabideok erruarekin eta larridurarekin (izan ere jokabideon ondorio diren horiexekin) duten zerikusia eta haurraren garapenean dituzten eraginak edo ondoreak ulertzea.
- Jokabideon garrantzia ulertzea, halaber, eskola porrotari aurre hartzearen aldetik eta, oro har, psikopatologiari buruzko guztian.
- Jokabideok atxikimendu- eta arakatze-jokabideei lotzea.

>> 2. EGOERAK

Haur eskolan egunero-egunero antzeman ahal dugun bezala, egoera berberaren aurrean haur bakoitzak bere portaera erakusten du, zeinek berea eta besteen portaeren aldean ezberdina. Askotan ez gara horren nondik norakoa ulertzeko gai izaten, ez baitugu jakiten gakoa non den antzematzen edota ez gaude ziur zer gertatu den ere. Horrela bada, ulergarria da egoera horietako bakoitzari zein erantzun eman argitu ahalko ligukeen irizpide argirik ez izatea. Hots, faltan izaten dugu jarraibideen gida litzatekeena.

Adibidez, Arantzak, 5 urtekoen gelan tutore dagoena izanik, ikasleetako batzuen jokabideaz hausnartzen jardun du eta, horren ondoren, bere bizipenak eta zalantzak lankideekin bat egin nahi izan ditu:

“Psikomotrizate gelan nire ikasleetako batzuek izaten duten portaerari adi egon naiz eta, horietako batzuenak zuekin batera aztertu nahi nituzke, ea horrela eginda gero nire esku hartzea egokiagoa den. Pittin bat galdurik nabil, ez dakit non esku hartu. Errakuntzak bi izan litezke, zera, edo dena neuk zuzendu nahia edo, bestela, ezertan ere esku ez hartzea. Haurren portaeren artean dauden aldeak ulertzeko gakoa, non da? Kasuak aipatuko dizkizuet. Hona.

Pello psikomotrizitate gelan dago, eta halako batean hormako barretara igo da. Nahikoa altu daudenez, hortxe lotu da, jauzi egin ez egin zalantzan. Beldur dela ematen du. Begiratu eta begiratu egiten dit, eta jauzi egitekotan dela ematen duenean, hara!, atzera egiten du. Jabetu naizenez, ez da horrela egin duen lehen aldia izan. Hormako barretara joan, han tartetxoa eman eta, gero, horren ostean, beste zereginen bati ekin, horrelaxe, behin baino gehiagotan egin duela konturatu naiz. Gotzonek, ordea, saiakera bakoitzean maila bat goragotik egiten du salto. Zein da ba gakoa, batak eta besteak erakusten dituzten portaera ezberdinak ulertzeko? Hezleak garen aldetik, zer egin kasu bakoitzean? Gure aldetik, zein jarrera litzateke egokiena?”

Galdera horiek egin ondoren Arantzak berak gelan dituen beste haurren portaerak aipatzen ditu. Hain zuzen ere, badira haur batzuk proposatzen zaizkien jarduera berriei muzin egiten dietenak, jarduerotan parte hartzeari behin eta berriro uko eginez.

Hortxe dago Nahia, esaterako. Marrazkietan itsasgarriak (biribilak, laukiak, hirukiak) jarri behar dituen bakoitzean aitzakiaren bat bilatzen du ariketa hori ez egiteko, edo beste edozertan luzatzen da, eta egin egin behar duela esaten badiozu, azkar eta aditasunik gabe egiten du. Gogoko ez duela ematen du, bai, baina beste zerbait ere ez ote dagoen susmoa daukat. Zer egin horrelako egoeretan, zein jarrera litzateke gure aldetik egokiena?

Arantzak dituen kasuetako beste kasu bat Edurena da. Askotan aztoraturik, iraultzaturik bezalaxe agertzen omen da eskolara. Bada, beste bultza egitea ez dagoela ongi, min eman ahal diela eta horrelakoak, Arantzak askotan gogorarazi behar izaten dizkio Eduri. Ahaleginak eginda ere ez du haurraren 'ohitura' hori zuzentzea erdietsi. Batzuetan, taldetik aterata, bazter batean egoteko agintzen dio, ea ba horrela besteekin egin duenaz 'hausnartu' edo egiten duen. Denboraren indarrez pasatuko zaiolakoan dago Arantxa, baina oso argi ere ez dauka.

Amaiak ere kezka sorrarazten dio Arantzari. Sarri askotan ikusten du neskatoa goibel, eta ez daki zer dela eta ote den. Egiten duen guztiagatik barkamena eskatzen du, bere burua bere izaeraren errudun ikusiko balu bezala. Haurrek beti alai eta jolasteko gogoz egon behar dutela uste du Arantzak, eta haurren bat horrelakoa ez bada zerbait gertatzen ari ote den susmoa izaten du.

Hala bada, zer deritzozu aipatu ditugunak aztertzen baditugu, haurren premiei egokitu ahal zaien erantzunen bat bilatzeko edota zein irizpidetan oinarritu behar garen jakiteko?

3. HAUSNARKETARAKO GALDERAK

Adi-adi irakurri behar dituzu ondorengo galderak, eta zure ustez egokiak liratekeen erantzunak orri batean idatzi, erantzunen zergatiak batera idatzi ere. Idaztea garrantzizkoa da, zeren eta eduki kontzeptualen atala irakurri ondoren horiek zure iritzi horiek berriro kontutan hartuko baititugu, atal honexetan azaltzen ari garen marko teorikoaren ikuspuntutik hain zuzen.

- Pello eta Nahiaren kasuetan, ezer lortuko al genuke jauzi egitera behartuz edota itsasgarriak jarraraziz?
- Ba ote dugu ezer egiterik Peiok beldur hori bizi ez dezan? Ba al dugu beldurraren maila apalarazterik edo behearazterik? Nola?
- Pello beldurti izateak (joera hori baldin badu bederen), zein eragin dauka haren garapenean? Beldurti izateak, oro har, zein eragin izan lezake haur oren garapenean?
- Aurrez aurre ez dugunaren beldur izan ahal gara? Arrazoitu egizu erantzuna.
- Nolanahi ere haurrek gogoko dituzte beldurrezko istorioak edo ipuinak. Zergatik ote da, zuk zeuk zer deritzozu?
- Arantzak taldetik atera du Edu, honek gogoeta egin dezan. Eduri ezertarako balio izango diola deritzozu? Zertarako? Ba ote dugu Eduren balizko jokabide erasokorreirei aurrea hartzeko ezer egiterik?
- Eduk, erasokor diharduenean, zer ote da sentitzen duena? Zer ote da barruan dabilkiona?
- Arantzak Eduri era horretara ez jokatzeke mehatxu egingo balio, Eduk horrela jokatzeke utziko liokeela uste al duzu? Zein eragin izan lezake mutikoari mehatxua luzatzeak gelako lanak egin ditzan? Lan jakin bat egin dezan mutikoari mehatxu egiten baldin badiogu, zertarako balio lezake delako lanak?

- Naiaren kasura itzulita, hark itsasgarrien ariketa hori ekiditeko darabilen jokabideari zein ulerpide ikusten diozu?
- Arantzak dioenez, bere ikasle Amaiak bere burua ikusten du bere izaeraren errudun. Zure iritziz, nola garatzen da errua haurrengan? Nagusiok, ba ote dugu horretan zerikusirik edo eraginik?

4. EDUKI KONTZEPTUALAK

Gizakiak betidanik edo menderatu, edo bideratu, edo eragin, edo ekidin, edo gaitzetsi, edo ezagutu edota epaitu nahi izan dituen gaietako bi dira beldurra eta erasokortasuna. Egia da, ordea, horietariko edozein helburu erdiestea inoiz erraza gertatu ez zaiola. Beldur eta eraso jokabideok hor dira, ordea. Bizi guztian gure baitan dira, gure buruarekin zein bestekin modu gatazkatsuan bizi ditugu, gizartearen erroturik daude, gaur bezalaxe iraganean, kultura guztietan egon baitira presente, nahiz dela iraganean, nahiz dela historia urrunean zein hurbilean. Gure bizitzetan horiek duten eragina erabatekoa ez bada ere, handia da, handia denez. Haur eskolari begiraturik, eta hain zuzen ere bertan hazten diren haurrei eta horiekin lan egiten dutenei dagokienez, guztiz garrantzizko zaigu jokabideoi ahalik eta goizen antzematea eta aurrez arreta jartzea, nondik sortzen diren ezagutzea, zein den barnean duten dinamika eta zein den haurraren garapen armoniatsuarekin zuzenean zein zeharka duten zerikusia. Horretan guzti horretan sakontzeko ahalegina egingo dugu hurrengo datorren atalean.

Gizakioi, edozein egoarekin aurrez aurre aukeran ditugun jokabideen artean jokabide jakin bat hautatzea eragiten diguten motibatzaileen artean, beldurra dago. Areago, beldurra paralizaziora bideratzen gaituzten faktoreen artean dago. Era berean, askotan beldurraren eraginez mugitzen gara. Hau guzti hau gogoan, haurraren nortasunaren bilakaera eta ikasketa prozesuaren nondik norakoak ulertzearen aldetik garrantzi handikoa da beldurraren gaia.

Aurreko ataletan nabarmendurik utzi dugun bezalaxe, berezko jokabide guztiek launa dimentsio dituzte. Lau dimentsio horiei buruz sakonago hurrengo ataletan hitz egingo badugu ere, utz dezagun bertan argi zera, berezkoa den ihes jokabidearen emozio-dimentsioa beldurra dela.

Ihes egin eta ekidin, horra elkarren sinonimoak diren aditz bi. Sinonimo bietako edozeinen bidez izendatzen dugu jokabidea zortzigarren hilabete aldera sortzen da haurraren. Pertsona edo objektu jakin batzuen aurrean sortu ere. Bada, jokabidea behin sorturik, haurrak, objektu edo pertsona hori aurrez aurre agertzen zaion aldiro, ihes egitera joko du, edo bestela ekidin egin nahi izango du objektu edo pertsona beldurgarria.

Bestalde, zerbaiten edo norbaiten beldurra edo -beste hitz batzuekin esanda- zerbaiti edo norbaiti ihes egiteko edota delako hori ekiditeko jokabidea, larridurari loturik datorren jokabidea da. Larridura kontzeptua, berez, erabat burutu gabeko beldur-egoerari dagokio. Hain zuzen ere, larri dagoen subjektuak aktibaturik izaten du beldurraren jokabidea. Eta gogoan izan jokabide horrek beste jokabide-sistema batzuk ere konprometitzen dituela. Beraz, eta orain artekoan azaltzen ahalegindu garena ulertze aldera, etengabeko beldurrak psikopatologiaren bat abiaraz eta gara lezakeela esan behar dugu. Izan ere beldurra larrimaren osagarri funtsezkoena

7. BELDUR-IHESA, LARRIMINA, ERRUA ETA HASERRE-ERASO JOKABIDEAK

denez, beldurraren garapenaren nondik norakoa ulertu beharko dugu lehenik eta behin, inoiz larriduraren gakoa ulertzera iritsiko bagara bederen.

Beldurraz gain, larridurari loturiko beste osagarri bat eraso da. Norbera larriminez dagoenean haserrekor ere egon ohi da. Horrelakoetan, kontrako edozein egoeratan esan nahi da, erasora jo dezakegu. Izan ere, erasorako joera hau ere gizakion berezko jokabideetako da, bizitzako lehenengo bederatzi edo hamargarren hilabete aldera agertu ohi dena bera. Irudika dezagun, adibidez, Pello; koltxonetara jauzi egin ez egin zalantzan dabil, eta halako batean gelakideetako batek estutu egiten du, jauzi egin dezan, behingoz. Pello jazarria edota esetsia senti daitekeenez, egoera horretan berdin-berdin jo lezake erasora zein ihesera. Zer egingo duen? Erantzuna Pellok berak egoeraren zein ebaluazio egiten duen aintzat hartuta etorriko da. Bera eta gelakidearen arteko indar-harremana hartuko du gogoan Pellok, alegia, bere indarrak eta mehatxuka edo presio eginez datorkion gelakidearen indarrak elkarrekikoan neurtuko ditu.

4.1. Ihes/beldur jokabidea

Atal honetan ihes eta ekidite jokabideaz zein beldur eta izu jokabideaz hitz egingo dugu, batzuek nahiz besteak. Hurrengo lerroetan azalduko dugunarekin bat, lehenengo biak berezko jokabidearen mugimendu dimentsioari dagozkionak dira, bigarrenak emozioen dimentsioari dagozkion era berean. Azken dimentsio horri gagozkiorik, delako emozioaren indarrari buruzkoan hitz bat baino gehiago erabili ohi dugu, hala nola, izua eta laborria.

Lehenago ere esanda gauden moduan, mugimendu dimentsioa eta dimentsio neurobegetatiboa bertatik bertara behatu ahal ditugunak dira, horrexetarako ditugu-eta ditugun tresna zorrotzak; emozioen eta irudimenaren dimentsioak, ordea, pertsonen esan ahal dizkigutenetatik inferitzen ditugunak dira, ez baitaukagu horiek inongo eta inolako tresnen bidez behatzerik.

4.1.1. Ihes/beldur jokabidearen dimentsioak

a) *Mugimendu dimentsioa*

Dimentsio honetaz dihardugun aldiro mugimendu-kateez dihardugula ulertu behar dela argitu nahi dugu, lehenik eta behin. Hori argiturik, beldurraren kasuaz zehatzago hitz egin dezakegu. Beldurraren jokabidea aktibatzen delarik ihesa dator. Ihesa, bai, beldurraren eragile den hori, objektu nahiz pertsona, ekidin nahirik, segurtasun bila. Segurtasun hori gehienetan beste pertsonaren batengan bilatu ohi da. Beraz, beldur jokabideak atxikimendu jokabidea indartzen du. Beldurraren indar maila aldakorra izaten da eta, segurtasuna eskaintzen duen pertsonarenganako hurbilpenak ere bere graduazio ezberdinak izaten ditu. Batzuetan hurbiltze hutsa nahikoa izaten da; beste batzuetan, berriz, pertsonari oratzeraino iristen da beldur den hori.

Besterik ere gerta liteke, ordea. Gerta liteke pertsona paralizaturik lotzea, gorputzez ez ezik adimenez ere (ez da ezertan pentsatzeko gai), eta muturreko kasuetan kontzientzia galtzera irits daiteke. Beldurra handia denean, berriz, izulaborria sor daiteke. Pelloren kasura itzulita, horma barretako goraino igotzen baldin bada eta beldurra norekin desaktibatu ez baldin badauka, paralizaturik geratzeko arriskua izango du eta handik behera jaisteko laguntza eskatu beharrean ikusiko du bere burua.

Kontua da beldurra eragiten diguten mehatxuak askotan ez direla errealak izaten, norberak asmatuak baino. Noski, horrelakoetan ez dago ezer erreali ihes egiterik. Hala eta ere giharrak eta sistema begetatiboa tentsioan dira (larrua izerditan, eta bihotza, arnasbideak eta urdaila ezinean) gorputzaren barnean zein kanpoan eraginez. Horra hor nerbioak agerian, ihes egiteko dugun gogoak eragiten dituen zirkinekin batera. Erraz irudika ditzakegu ikasle horiek, logika-ariketen fitxak bete behar dituzteneko egoerak, edo antzeko edozein egoerak ere, beldurra eragiten dienak. Idazten eta irakurtzen ahalegintzen direnen kasua litzateke beste adibide bat. Gogoan izan haur-hezkuntzan idatz-irakur delakoa lantzen dela eta horri aurre egiteko uanean haurretako batzuegan prozesuak nolabaiteko beldurra sorrarazten duela. Horrelakoetan ikaste prozesua eten egiten da eta, etete horrek, ondorioz, haurrak bere buruaz duen irudi edo kontzeptuan eragiten du. Jarritako helburuak erdietsi ezinik, haurrak bere buruaz sor lezakeen irudia ez-gai denaren irudia izatea etor liteke.

b) Dimentsio neurobegetatiboa

Aipatzen ari garen jokabidea aktibatzen deneko gertatzen diren erantzun neurobegetatiboak, erraz antzeman daitezkeenak izateaz gainera, guztiz ezagunak dira, medikuntzari esker izan ere. Erantzunok "nerbioak izan" esamoldea jokatzuz izendatu ohi ditugunak dira, hain zuzen. Azken batean gorputza beldurra eragiten dion horrexeri "ihes egiteko" prestatzen ari da. Gakoa hurrengoan datza, ordea; horrelako egoeretan "gerora edo etorkizunera" ere joan gaitzkeela, gertatu izan denaz edota gertatzen ari denaz ez ezik hurrengo gerta daitezkeenaz ere (hurrengo momentuetan gertatuko dela uste dugunaz, alegia) pentsatzeko gai garenez gero. Horrela bada, balizko arriskuez eta mehatxuez arriskuon edota mehatxuon gatiko beldurra delako horiek benetan gertatu aurretik ere bizi ahal dugu; balizko geroko batekoak orainean bizi ditzakegula, alegia. Gure irudimenak eragiten dizkigun mamu antzeko horiei ez dago ihes egiterik, fisikoki edo mugimenduen bidez bederen. Beraz, horrelakoetan "nerbio egoeran" sartuko gara, beldur/ihes jokabidea erabat burutu gabe lotu baita. Ikusleen aurrean hitz egin behar dugunean gerta dakiguke.

Mehatxuei ihes egiteak, mehatxuok zein ere diren, energi gastu handiak eskatzen ditu. Eskari horri erantzunez gure gorputzeko sistemetako batzuk aktibatzen egiten dira. Hori-tako batzuk, hurrengo lerroetan.

- Lokomozio aparatua: tentsioan gaude, epe labur baten buruan gure giharrak goi-goi mailan funtzionatzeko prestatzen ari dira. Energia erruz behar dugu. Giharretako tentsioa, burukomina eta nekea izaten dira sintoma edo adierazpide nagusiak.
- Aparatu kardiobaskularra: giharrak lan ikaragarria egitera beharturik direnez, giharrok odolaren jarioa askoz bizkorrago etor dakien eskatzen dute. Bihotzaren taupadak azkartuz doaz. Horren ondorioz dardarak eta takikardiak gertatu ohi dira. Arteri presioak gora egiten du.
- Arnas aparatua: bularreko eta diafragmako giharrera uzkurto egiten da, azkarrago arnasteko helburuz uzkurto ere. Horrek arnasa hartzeko oztopoak ditugula sentiaraz diezaguke. Arnasaldiak, hortaz, gorabeheratsuak dira.
- Digestio aparatua: odolak gorputz guztitik giharretara ahalik eta ugarien iritsi behar duenez, urdailekoak ere haraxe egiten du. Horren ondorioz gosea joatea edo jateko gogorik ez izatea gerta daiteke. Bihotzerrea ere ager daiteke eta, oro har, digestioa motel egin ohi da.
- Sistema endokrinoa: hormonak jariatzen dira, hala nola, kortisola. Hormonok ezagunak dira defentsa-hormonak izenez ere.

Haurrek eskolako ingurumarian duten beldurraren aktibazio maila antzeman ahal izateko erabili ohi diren adierazle argienak dira, besteak beste, lokomozioaren gorabeherak, arnasaldiarenak eta digestioari loturiko fenomenoak, azkenen artean egonik beherakoak, okadak, putzak eta nazkak.

c) *Dimentsio emozionala*

Ihes jokabideari dagokion emozioa beldurra da. Emozioa, izatez, komunikazioaren edukietakoa da. Atxikimenduzko irudiarengan konfiantza baldin badugu, delako irudi horri emozioa komunikatzeko gai izango gara (beti ere balizko emozio hori zein den identifikatzen jakinez gero), gaitasun horrek beldur jokabidea desaktibatzeko balio izango digu eta, hortaz, beldurra uxatzeko zereginetan lagungarri izango zaigu.

Jakin badakigu beldurretako batzuk ez direna begi onez ikusten, ez dira onartuak, zentsuratu egiten direna, edo eragotzi, atxikimenduzko pertsonen aldetik barregarritzat jotzen dira eta. Esate baterako, iluntasunari beldurra izaten diote haurrek, eta horrelakoetan nagusiek “beldurti” ez izateko esaten diete, ez dutela zertan beldur izan, nagusiok, oro har, beren haurrak “gogorak” haz daitezten gura izaten baitute. Bizitza bera gogorra delako, noski, eta gogorkeriari gogor egin behar omen zaiolako, bestelakoek, bigunek, etorkizuneko erronkekin aurrez aurre defentsarik nahikoa izango ez dutelakoan. Hala bada, horrelakoetan, beldur den pertsonak atxikimenduzko irudiarengana jotzerik ez daukala-eta, beldur iturriari bere kabuz egin beharko dio aurre, inoren laguntzarik gabe. Bada, azaldu berri dugun hau berau izaten da atxikimendu saiheskorra (ikus 5. atala) duen haurraren kasua. Horrek ez du amarengana joko ezta mundua behera etorrita ere, hark erantzunik emango ez diola aurreikusten duenez gero.

Bada, gogoan izanik hurrek zentsura hori barneratzeko joera izaten dutela, litekeena da epe jakin baten buruan haurretako batzuek gertatzen ari zaiena ez aitortzea ezta beren buruari ere, beldurra barneratzearen barneratze hutsez hain zuzen. Ezkutuan horrela gordeak bere agerbidea bilatu ohi du, ordea. Hala bada, horrako haur horri tripetako mina egingo zaio, beste hark arnasa ezin hartu duela esango du, honi takikardiak agertuko zaizkio, edo zorabiatu egingo da, edo auskalo beste zer ez zaion egingo. Benetakoak ote dira horiek? Ala ustez edo itxurazkoak? Esandakoak esanda, argi ikusten dugu haurrari bere emozioak eta horiei atxikirik datozkien irudiak zertan diren antzematen laguntzea zein onuragarri gerta dakieken. Bada, lagundu egin behar zaie irudiok ulertzen, horiei izenak ematen, guzti-guztiak eta bakoitza onartzen, ez positibotzat ezta negatibotzat ere jo gabe, baina ulertzen azken batean. Horrela eginez gero emozioekin esperimintatu ahal dutela eta esperimintatzen hasita gero gozatu ere egin ahal dutela erakutsi behar diegu haurrei. Honek guzti honek hezitzaileari erabateko aditasuna eskatzen dio, hots, entzuteko eta endelegatzeko beti prest egotea. Hezitzaileak hortxe ditu ipuinak, eta ipuinetan haurraren mamuak direnak, alegia, basoko iluntasuna, piztia ikaragarriak, otsoa, bakardadea eta beste.

Laburbilduz, haurrak beti hor izango den nagusiren bat behar du, bere premiei adi. Ez edonolako nagusia, ordea. Aditu egingo dion eta aditzeaz batera bere emozioak adierazteko ateak zabalduko dizkion norbait behar du. Hots, emozioak zentsuratuko ez dizkion norbait. Bestela, pertsona hori izan ezean, haurrak berak zentsuratuko du bere burua, bere gain hartuko du zentsura lana.

d) *Irudimen edo ezagutza dimentsioa*

Aipatzen ari garen jokabideari dagozkion irudiak mehatxu eta arrisku irudiak izaten dira. Irudi hain itzelak edo handiak ezen pertsona ez baita horiei aurre egiteko gai izaten. Beldurraren eszenatokiak ilunak dira. Haurrak bere burua horiei aurre egiteko gai ikusiko balu eraso edo oldartze jokabidea aktibatuko luke.

Arriskugarritzat "irakurria" den edozein errealitatek ihes/beldur jokabidea aktibatzen du eta, beldur egoerek, behin aktibatuturik, eszenatoki durduzagarriak sorrarazten dituzte, zeren eta, horrelako egoeretan gerta litezkeen balizko gertaera guztien artean horietako okerrera etorri behar duela "ikusit" izaten baita. Labur esanda, pentsamendu negatiboa deritzon horixe nagusitu izaten da. Hala bada, aipatu egoeretan subjektua ezkortasunezko kiribiletan sartuta bizi da, behera eta behera eginez. Hala bada, inguruko beste inork edota gertaeraren batek ezkortasunezko kiribil horietatik askatzen lagundu ezean hondoa joko du. Litekeena da, esate baterako, haurrak eskolan bera bakar-bakarrik geratzearen beldur izatea eta balizko egoera horretan mehatxua "ikustea", nahiz eta errealitate horretan, besteak beste, hezitzaileak, beste umeak, materialak eta jarduerak izan. Hortxe egon liteke delako haurrak eskolan arazoak izaten hasteko abiapuntua, zeren eta horrez gero eskolatik etorriko zaion guztia hastapeneko ikara horrexek kutsaturik etorriko baitzaio.

4.1.2. Beldur jokabidea aktibatzen eta amaitzen duten estimuluak

Berezko jokabide guztiak, baita aipatzen ari garen jokabide hau berau ere, estimulu jakin batzuek aktibatzen eta amaitzen dute. Begira dezagun zein diren estimuluok.

a) Aktibatu egiten duten estimuluak

Kanpoko munduko errealitateak gu guztiongan beldurra, erasokortasuna, jakingura edota interesa sorraraz ditzake (azken biak esplorazio jokabideari lotuak dira). Galdera da, ordea, ea zeren mende dagoen gudan jokabide bat edo bestea abiaraztea. Erantzuna ez da zaila: aintzat nola aditzen dugun kanpoko hori. Azken batean, errealitate hori, zein ere den, interpretatu eta baloratu egiten dugu. Horrela, berria den edozein objektuk askotariko erantzunak eragin ditzake, hala nola, interesa, beldurra edo erasokortasuna, aintzat delako objektuaz egin dugun balorazioa. Adibidez, tekla edo botoiak zanpatuz argiak piztu eta hots elkarren ezberdinak sortzen dituzten jostailuek haurraren interesak piztu dezakete-eta, hortxe abia daiteke haren esplorazio-jokabidea (ikus 6. atala), edo bestela haurraren izua eragin lezake eta horrelaxe abiarazi ihes jokabidea eta atxikimendu jokabidea, eta jokabideok haurrari atxikimendu irudiaren babespera joaraziko diote (ikus 3. atala) eta litekeena da aipatu jostailuen argi eta hotsetan mehatxuren bat antzematea eta, ondorioz, delako objektuari erasotzera jotzea haurrak.

Azken batean gutariko edonoren edozein balorazio aurretik izan ditugun esperientzien eta unean uneko gure egoeraren mende dago. Arriskuei aurre egiteko tenorean lehenago ere arrakasta erdietsi baldin badugu, gure buruaz egin dugun irudia den ispiluan gure burua arriskuei aurre egiteko gai ikusiko dugu, hots, oztopo eta perilei aurre egiteko gaitasunik badugula iritziko diogu. Aldiz, orain arteko esperientzietan porrotak ugariagoak izan baldin badira eta gure burua ezgai ikusten baldin badugu, normalena errealitate berri hori arriskutsu ikustea izango da. Gure egoera besterik bada, erasokor baldin bagaude, adibidez, errealitate berrian arriskurako bidea ikusi uste izango dugu; jakinguratsu bagabiltza eta lasai baldin bagaude, ordea, errealitate hori berori guretzat interesgarri bezala agertuko da; porrotek ikarati bilakarazi baldin bagaituzte edota ahul bagabiltza, berriz, delako errealitatea mamu izugarriz beterik agertuko zaigu.

Azkenik aipa dezagun beldurra eta erasorako gogoia eragin diezaguketen estimuluak, eta esan horiek ordenu bereko errealitateak direla. Beldurra piztuarazten duten estimuluak era edo mota bitakoak dira:

- Estimulu naturalak, edo espeziearen bilakaerak genomaren barruan sarturik utzi dituenak.
- Estimulu hartuak, hots, gure geure eskarmentuaren eskarmentuz zein kultur transmisioz gureganatu ditugunak.
- Estimulu naturalak.

Hasteko, benetako arriskuak eta berezko estimuluak ondo bereiztea garrantzizkoa dela esan behar da. Hortxe ditugu hilerri bakartuak, inorentzat benetako arriskurik ukan ez arren edonorengan ikara sorrarazteko gaitasuna dutenak. Era berean, irudika dezagun ikasgelari dagozkion komunak ez daudela ikasgelan bertan, kanpoan eta pasillo luzearen urreneko aldean baizik; bada, zenbait haurren ikuspuntutik haraino joatea eta gero handik itzultzea bidaia izugarri mehatxagarria gerta liteke.

Gure espeziearen iragan filogenetikora joz, gaur egun berezko estimulutzat ditugunetako gehienak arriskutzat hartu ohi zirela esan behar da; gure ingurumen edo habitat zibilizatu honetan estimuluotako gehienek galdua dute iragan urruneko harako arrisku kutsu hura. Egungo gizakiok estimulu horiei antzemateko dugun gaitasuna geure genomak dago inskribaturik. Nolanahi ere, berezko estimuluek ikara sorrarazten dute.

Ilido berean, objektu edo egoera natural jakin bat zenbat eta item natural gehiagoz osatua izan, orduan eta beldur edo arbuio jokabidea esnarazteko gaitasun handiagoa dauka. Diogun azken hau izuzko filmen egileek ezagutzen dute ongi, inork ezagutzen duenez.

lhes edo beldur jokabideetan eragina duten estimulu natural edo baldintzatu gabeen sorta zabalean askotariko egoerak ditugu, hala nola:

- Berritasuna eta, horrekin batera, objektu eta pertsona ezezagunak.
- Mehatxu keinuak.
- Ez ohikoaren edo bitxiaren ezaugarriren bat duten objektu, pertsonaia eta egoerak.
- Iluntasunak.
- Bakardadeak.
- Minak.
- Objektuak zein pertsonaiak bat-batean norberari inguratzeak.
- Hotsen bat-bateko gorabeherak.
- Argitasunaren bat-bateko gorabeherak.
- Goiak eta amildegia.
- Sugeak eta, oro har, bat-batean mugitzen diren animaliak.
- Animalien ahoa eta hortz-haginak.

Egun, gure espezia garatu zeneko "eboluzio-egokitzapeneko ingurumena" ez den oso bestelako giro edo ingurumen baten bizi gara gu eta gure umeak. Bestelakoa, bai, hala orduko eta gaurko munduko ezaugarri fisikoen aldetik nola kulturaren aldetik ere. Aipatu testuingurura egokitzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta jokabideak genetikaren bidez transmititzen jakin izan du giza izakiak aspaldidanik. Haatik, geroko gizakiok, kulturaren bidez, giro edo ingurumen antzinako haiek eraldatu egin ditugu, natura huts zirenen ordez eta

haien leku berberetan hiriak sortuz, adibidez. Hiriok, argi dago, ezer gutxi dute espeziaren hastapenetako ingurumenetatik. Azken ideiokin adierazi nahi duguna zera da, haurrari genomak ez diola inola ere bermatzen egungo hirietan ohikoak diren arriskuez ohartuko denik. Eta azken hau gure zereginetara egokituz eta hezitzaileak garen aldetik begiratuz, haurrei arriskuon berri eman behar diegu, zeren eta naturalak ez diren arriskuek ez baitute beldur jokabidea aktibatzen.

Esan bezala, egoera natural jakin batek edo objektu zehatz batek zenbat eta osagarri edo alderdi natural ugariago ukan, orduan eta beldur handiagoa eragingo du.

Bada, orain arte aipatu dugun gaiaren jakitun egotea eta ondo gogoan hartzea heziketari buruzko gure laneko alderdi askotan baliagarri izango zaigulakoan gaude, izan ere horixe baita liburu honen bidez erdiestea helburu duguna. Horrela bada, jakin badakigu denetariko berritasunek eta horien artean berrikuntza diren objektuek ere asaldadura edo alarma sorrarazten dutena. Beraz, eta eskolara hastea bera aldaketa dela kontsideraturik (berriak -eta unearen arabera ezezagunak- diren guneak, erreferentziatzko irudiak eta lagunak ageri zaizkio haurrari) eta kontsideraturik halaber ezagutza berriak etorriko zaizkiola (hala nola, matematikatan hizkera edota idazte-irakurtzea) eta horiek guztiak osagarri orain arte ezezagunak zaizkiola ere kontsideraturik, haurrari bere baitan agian asaldatu egingo zaiola aurreikus dezakegu. Horiek horrela, garrantzizko deritzogu objektu berriak eta edonolako berrikuntzak haurrari tentuz eta kontuz aurkezten joateari, atxikimenduzko irudia ondoan duelarik egiteari hain zuzen, horrela eginez gero haurrak berritasunok normaltasunez bereganatuz joan daiteke eta. Gai edo eduki berriak gaitz eta zaila den zerbait balira bezala aurkeztuz gero, ordea, litekeena da haurraren asaldadura sortzea. Hala bada, hezitzaileak haurrari aurkeztuz doakion horiek guztiak zertan diren eta zertarako diren ulertzen eta konfiantza hartzen lagundu behar dio. Ez dago eduki berriak aurkezteko modu hoberik, zeren eta modu horretara eginez edukiok ezagun eginez joango baitzaizkio eta, horrenbestez, esplorazio eta jolas jokabidea berriro abiatuko baita haurraren.

Estimulu ikasiak eta kulturakoak

Asaldatzen ikasteko erak edo bideak askotarikoak dira, eta etorri ere jatorri askotatik etorri ohi dira bideok. Gizakiarengan sortzen diren beldur, fobia eta arbuioetako askok eta askok esperientzia traumatikoetan dute sorburua. Adibidez, esplorazioan diharduen haurrari ikara ematen baldin bazaio edo min hartzen baldin badu, esperientzia negatibo hori esplorazio jokabideari atxikiko dio. Horrela, jokabidea bera ere konnotazio negatiboz kutsatuko da eta beldur jokabidea aktibatuko du. Beste adibide bat haurrak jardun edo ariketaren bati gaixorik egonik ekiten dionean dugu. Hain zuzen ere, gorputzaldi txarra jardunari atxikiko zaio. Lekuak direla-eta ere antzera esan dezakegu. Hor daude, esate baterako, zineak eta igogailuak. Lekuok pertsona jakin batek esperientzia negatiboek lotzen baldin badizkie, horra hor klaustrofobia deritzon hori garatzeko

baldintzetako bat beterik. Gizarte fobia, berriz, noizbait publikoari zuzendu behar eta horretan pertsonak larritasuna sentitu duelako sortu ahal da. Oro har, fobiak sorrarazten dituzten mekanismoen oinarrian Pauloven asoziazioak egon ohi dira.

Orain arteko honen guztiaren ondorioa da, beraz, haurra eskolara etxekoen albotik aldendu beharrak eragin dezakeen larriduraz etortzen baldin bada, eskola-inguru osoa larridurak kutsaturik lotuko dela, beldurra eragingo diola, eta arbuioa sorraraziko. Hortxe egon liteke eskola bera edota eskola-ikasketak gaitzestearen sorburua.

Bestela ere ikasi ahal da asaldatzen, noski. Esate baterako, norberarentzat esanguratsuak diren pertsonengan beldur erreakzioak edota antzeko jarrerak antzemanaz. Berau da imitazio bidezko ikasbidea delakoa (Bandura, 1968). Izan ere, haurren ziurtasun zein beldurren jatorrian gurasoek eta hezitzaileek errealitate anitzekin aurrez aurre erakusten dituzten jarrerak izaten dira. Horretara, ikasketetan zailtasunak bizi izan dituzten edota seme-alaben eskolaratze goiztiarrekiko eta horren ondorioekiko beldurra adierazten duten gurasoek beldur hori berori haurrei helarazten diete, aipatu ditugun gertaera horiek zail bezain desiratu bezala agerrarazten baitizkiete. Berriz, gizakiarengan konfiantza duten irudi esanguratsuek konfiantza hori berori sentiarazten diete seme-alabei. Zenbatetan ez ote diegun aditu gurasoei edota hezitzaileei Kontuz! esaten bat-batean haurrari, nahiz dela goialderen batera igo delako, nahiz dela objektu zorrotzen bati oratu diolako, nahiz dela min eman liezaiokeen zerbait ukitu duelako, nahiz dela horrelako beste zernahigatik. Kontuz! horren indarra aldakorra izan ohi da, aintzat egoera. Guztiz bat-batean eta ozenezi esaten baldin bada haurra asaldatu ere egin daiteke. Eta denok dakigun bezalaxe, badira egun guztia Kontuz! hori aditu eta aditu ematen duten haurrak; Kontuz, zikindu egingo zara eta; Kontuz, apurtu egingo duzu eta; Kontuz, erori egingo zara eta; Kontuz, galdu egingo zara eta; Kontuz, kendu egingo dizute eta; Kontuz, kontuz eta kontuz. Eta hainbeste kontuz eta kontuzondo, azkenean hara non aditzen dugun errematekoa: "Esan dizut ba, zikindu egingo zinela, apurtu egin behar zenuela, eroriko zitzaizula, galduko ...".

Hirugarren ikasbide bat mehatxuak eta beldurrezko ipuinak dira. Mehatxuak pertsona nagusiengandik zein beste umeengandik etor daitezke, nahiz dela txantxetan nahiz dela diziplina ezartzeko helburuz. Mehatxuetan estimulu naturalak aipatu ohi dira, hala nola, gela iluna, aldentzea eta, batik bat, bazterrean utzia izatea. Mehatxuok haurrak bere burua bakardadean ikustean biziko lukeen laborria irudikatuz bizi ditu. Beldurrezko istorioak ere beldur askoren jatorria dira.

b) Jokabidea amaitzen duten estimuluak

Beldur jokabidearen funtsa non eta arriskutzat bizi den objektuari ihes egitean egonik, eta horrekiko babesa atxikimenduzko irudiarengana joz bilatzen den

portu segurua izanik, bigarren ekintza horixe da -irudiarengana jotzea- ihes jokabidea burutu edo amaitzen duena. Beste modu batez esanda, beldur jokabideak atxikimendu jokabidea aktibatzen du. Hau honela, aipatzen ari garen jokabidea amaitzen edo desaktibatzen duten estimuluak atxikimendu irudiarenganako atxikimendu ekintzak dira. Beldur jokabidearen aktibatu duen indarra zein neurritakoa den, jokabide hori desaktibatzeko ere hein bereko indarra beharko da; alegia, batzuetan nahikoa izango da atxikimendu irudiaren albora jotzea eta bestetan, ordea, gogor oraturik eutsi beharko dio irudiari. Atxikimendu irudiaren aipatuz, eta beldur den haurrak bere beldur jokabidea arrakastaz amaitzeko irudiaren aldetik hartu behar dituen estimulu amaitzaileei gagozkiolarik, batzuetan hitz soil batzuk nahikoa izan daitezke eta beste batzuetan besarkatua izatea eskatuko du haurrak, adibide bi aipatzearren.

Etologiak erakusten digunarekin bat, primateen munduan nahikoa izan ohi da gorputz-ukitua, horren indarra eta iraupena beldur jokabidea aktibatu duen zergatiaren arabera izaten delarik. Gizakion mundua horiena baino konplexuagoa izanik, ordea, ukitu hori baino beste zerbait eraginkorragoa behar izaten da. Hain zuzen ere, beldur den horren sentimenduak gogoan hartu eta, harekin batera egonez besterik ez bada ere, bizipena sorrarazi dion egoeran aurrera egiten laguntzea. Hots, hitz beroa behar da, azaltzen ari garen guzti honen berri badakienaren hitz egokia alegia.

Bada, beldur jokabidearen amaierara iristeko atxikimenduzko irudi sentikorra eta trebatuaren abaroan babesa bilatzearen alderdi honek atal hau baino lehenagoko ataletan ere jorraturik dugun gaira garamatza; pertsonaren segurtasuna atxikimendu irudiarekiko lokarriaren sendotasunean datzala berrestera, hain zuzen. Harenganako konfiantzan datza gakoa. Esan nahi baita haurrak atxikimendu irudiarekiko konfiantza behar izango duela, harengana joko badu bederen. Pertsona nagusia noiz behar duen, hori hortxe izango duela ziur egon beharra dauka haurrak. Eta delako nagusia edozertarako gai den konfiantza ere eduki beharra dauka, jakin haren egiteko moduak eta korapiloak askatzeko gaitasunak ez diotela huts egingo, eta edozein egoeratan beti bere alde -haurraren alde, esan nahi dugu- egingo duela.

Konfiantza bikoitz horrek bizitzako arlo guztietan du bere garrantzia eta, beraz, eskolako beldurrei buruzkoan ere bai. Adibidez, udalekuak bezalako toki ezezagunean dagoelako, edo eskolan bertan berria den egoeraren bati aurre egin behar diolako, edo beldurra eragiten dion horrelako beste edozein kasutan dagoelako, haurra ikaraturik dagoelarik gurasoak edo zaindariak haurrari begira baino beren zereginei begirago baldin badaude, delako haurraren ezinegonak gora egingo du. Ildo honetan, haurraren egonezinari adi egoteak horren heziketan eragin kaltegarria izaten duela uste duen lehen zein bigarren mailako zaindaririk bada, tamalez. Horiek haurrak "zaillu beharra" duela uste izaten dute. Horrela uste duten zaindarien erreakzioa, sarri askotan, haurrari erantzukia egitea izaten

da. Bada, horrela jardunez gero haurrak zaindariarenganako urruntze bidean lehenengo urratsa egingo du, egia.

4.1.3. Pertsona: beldur izateari buruzkoan gizabanakoen arteko aldeak eragiten dituzten aldagarriak.

Beldurra bizi duen pertsonaren gaiari ekiterakoan gogoan hartzea garrantzizkoa den hainbat gogoeta:

a) *Beldurra saihestezinik*

Joanak joan eta etorriak etorri, izakiak beldur izaten segituko du, baita bizibaldintzarik hoberenetan ere, baita kanpoko estimulurik zertan izan gabe ere. Beldur jokabidea berezkoa baita, eta edozein jokabide berezkoa izateak delako jokabidea endogeniaz (barneko mekanismoez) aktibatzen dela esan nahi baitu. Beste modu batera esanda, izakiaren irudimenak bere estimulu propioak sorraraziko ditu, baita estimulu naturalik edo ikasirik (ingurumenak baldintzaturiko estimulurik) egon ezean ere.

Ez dago gizakiari bere bizitzan noizbait beldur izatea eragotzi ahal dion ezer. Egia da, bai, "uztatu ezinik diren jokabideen legea" delakoaren arabera gizakiak beldur jokabidea desaktibatzen laguntzen dioten beste jokabide batzuk badituela, hala nola, erasorakoa, jakingurazkoa edota maitasunarena. Edonola ere beldurraren itzala hortxe izango da beti, hura noiz agerira edo argitara agertuko, noiz jokabide hori beste jokabideei nagusituko, eta hori noiz edo noiz gertatu egingo da. Hain zuzen ere, haren aldeko estimuluak beste jokabideen aldekoak baino indartsuago izatean gertatuko da. Goizago, beranduago, baina agertu egingo da. Beldurra. Alferrik da, bada, inor beldur izatea ekidin nahirik bizi izatea. Osasunaren ardura larregizkoarekin bizi denak ez die beldurra galduko balizko gaixotasunei, ezta munduan diren eta ez diren mediku-froga guztiak erakutsita ere. Eta gaitzerdi hori besterik ez balitz. Horretan ekinez gero hipokondria sor dakioke subjektuari, horra tamala.

Beldurra gudan gorpuztu denean ez dago beste irtenbiderik hura bizi izatea eta jokabidearen estimulu amaitzaileak diren atxikimenduzko irudietara jotzea baino. Kontzeptu inportantea dugu hau, hezkuntzara begira batik bat. Haurrei beldurraren beldur ez izaten hezi behar zaie.

b) *Haurren arteko aldaerak*

Esanda gauden moduan beldur jokabidea genomak inskribaturik dagoen berezko jokabidea baldin bada ere, gizabanako bakoitzaren genetikari loturiko aldaerarik ere bada da, noski. Eraso jokabideaz ere berdintsu esan daiteke. Hori horrela

dela ongi jakin, animalien hezitzaileek dakite. Hots, badira beldur jokabiderako joera indartsuago duten izaerak, eta badira berez horretara hain emanak ez diren izaerak.

Gizaki bakoitzaren gorpuzkerari dagozkion eragileen multzoan badira neurobiologi baldintzak, aipatuak izatea merezi dutenak; asaldadura-esperientziari buruzko guztian duten garrantziagatik aipatuak hain zuzen ere. Jakina denez, neurobiologiaren alderdi horrek bere aldetik badu bere garrantzia ihes eta eraso jokabideen aktibazioan. Bada, neurobiologi baldintza horiek estimuluak iragazteko eta estimuluetara ohitzeko duten gaitasunagatik dira aipagarri.

Estimuluak iragazteari dagokionaz mintzatuz, edozein estimuluk -begien bidezkoak, entzutezkoak, eta abar- gure estresa eta nekea mutur-muturrekoak diren egoeretan lasaitasunean gaudenean baino eragin askoz indartsuagoa izaten duela, gudan beste indar batez eragiten duela alegia. Bada, subjektuaren estimuluen iragazgailuan gabeziaren bat izatea baldintza nahikoa litzateke hura oso-oso asaldaturik lotzeko eta, ondorioz, haren beldur/ihes jokabidea aktibatzeko.

Estimulu jakin bat (hots edo doinuren bat, adibidez) behin eta berriro era etengabean agertuz gero, halako batean subjektuak delako estimulua aditzeari utziko dio. Fenomenoari neurobiologiaren hizkeran "ohitzea" deritzo. Etxeko edozein zarata edo hots, xurgagailuarena adibidez, luzaz adituz gero harekiko gor bihurtzen garela esan daiteke eta, hara!, ez gara hartaz ohartuko harik eta aparailua itzali arte. Ohitzeari esker erdiesten dugu zarata artean edo giza-ahotsez inguratutik ere loak gu bere mende hartzea.

4.2. Larridura eta errua

Larridura eta errua giza-oinazearen ardatzeko bi dira. Gure barne muinetan muin-muineraino egiten dute horien sustraiek. Elkarren ahaideak direla ere esan daiteke, eta biek ahaide dutela, halaber, beldurra.

a. Larridura

Larridura, larrimina edo angustia, berdin dio. Euskarazko lehenengo biek estutasuna adierazten dute, eta beste hirugarren hori ere, sustraia latinean duen angustia hitza, ez dago horietatik urrun, jatorriz bederen. Etorri ere angustia hitza angostura -meharra dena, euskaraz- hitzetik dator eta, angustia, larridura edo larrimina bizi duenak horixe nahi izaten du: barruan bizi duen estutasun horretatik askatu, ihes egin, kanpora irten. Eta estutasunetik kosta ahala kosta alde egin nahi horrek antsietatea sorrarazten du. Hala bada, psikologiaren hizkeran antsietatea eta angustia hitzak baliokidetzat erabiltzen dira, elkarren sinonimotzat hartuz.

Larriduraren ardatz nagusia beldur jokabidea da. Amaitzen ez den jokabidea delako, hain zuzen. Horrexegatik dira elkarren sinonimoak beldur kronikoa eta larridura kronikoa. Esan behar da, ildo beretik, larridura agertzen denean beldurraren indarra oso goian izaten dela eta erasokortasun alderdi bat ere hortxe izaten dela. Larri dagoena oso suminkor egoten da eta gogoia edozein unetan alda dakioke, alegia, ihes egiteko gogotik erasora jotzekora egin dezake bat-batean. Egoerak horretarako baldintza egokiak eskaintzea baino ez da behar izaten.

Larridura sorraraz dezaketen egoerak anitzak dira. Eman dezagun arrisku egoera jakin batean gaudela, edota beldurra eragiten duen edozein egoeratan zerbaiten zain gaudela, eta pentsa dezagun ez dugula arriskutik edota zain egote horretatik inora ihes egiterik; bada, horrela geldi egotea larritzekoa izaten da. Inola ere saihesterik ez duen azterketak ikaslearengan larridura sortzen du. Eskola-fobia edukita ere ikasleak gelara joan behar baldin badu, larridura sortuko zaio. Kasu horietan guztietan egoera bertsua da, subjektuari ihes egitea eragozten dion agindu indartsuago bat gainerik duenez gero, beldurraren lehenengo tartearen -ihesaren tartearen- ezin da burutu. Eta beldurra sorrarazten dion egoera are eta gertuago, gero eta larriago egongo da subjektua.

Psikopatologiak aztergai dituen larridura motak barne-gatazken ondorioz sortu ohi direnak dira, pertsona ororengan borroka-toki halako bat baitago; desira betetzeko nahiaren eta ezinaren borroka-toki ekaitzez betea. Debekua, hasieran, pertsonarengatik kanpokoa izaten da eta, gero berriz, "barneratu" egiten da. Hau, hori ala bestea desiratzen dugun, desiratzen duguna arrisku bihurtu daiteke, desiraturikoa eskuratzeak ondorio negatiboak ekar ditzakeenez gero, hala nola, zigorrak edota irudi esanguratsuen aldetik abandonua. Azken mehatxu hori katastrofe itzela izaten da. Gizaki guztiontzat.

Besteek nahiz guk geuk ezarritako arau eta eginbeharrei men egitea (era guztietako mehatxuak izaten dira tartean) beldur-ekintza da. Gurari jakin bat halabeharrez bete gabe laga behar dugunean beldurra izaten dugu portaera horretan akuilu. Beldur ekintza da lagatze hori. Haatik, guraria pertsonari ekintzara joarazteko bezain indartsua baldin bada, delako pertsona hori elkarren aurkakoak diren indar biren erdian suertatuko da, eta larritu egingo da, larritu egingo denez. Hori horrela bada ere, egitea debekaturik duguna egiteko kementa hartu nahi izaten dugu, ordea, eta kemen hori erdiestera droga ansiolitikoen bidez iritsi ahal dugu, besteak beste. Alkohola da diogun honen adibidea. Baita gazteek zein nagusiek hartzen dituzten drogetariko asko ere.

Beldur jokabideak eta eraso jokabideak badute antzekotasunik: biak ere biak subjektuari mehatxagarri zaion errealitatearen batek sortuak dira. Aurrean oztopo gaindiezinen bat duela-eta Pellori, ihes egin ezin duenean, eraso jokabidea askatzen zaio. Larridurak badu beldurretik eta badu erasokortasunetik. Pertsona larrituak horrexegatik egoten dira aldi berean beldurretan eta haserrekor.

Bowlby (1973) subjektu jakin batek larritzeko joera izatea eragiten duten kausa faktoreak aztertu zituen. Haren azterketaren emaitzetatik hurrengo ondorioztatu da: atxikimenduzko

irudiekiko konfiantza eskasa da, izatez, subjektuak bere bizitzako egoera ezberdinetan larritzeko joera pairatu beharra eragiten duena. Beste modu batera esanda, subjektuak bere bizi-zikloan larrimina sufritzeko joera pairatu beharra haren atxikimenduaren ahuleziagatik izaten da. Bere irudienganako konfiantzarik ez daukan haurrak, zein nagusiak ere, ez du besterik bere baliabideak erabiliz jokatzeari baino (atxikimendu iheskorra duenaren kasua da) edo bestela bere eskariak ugaltzea (anbibalente erakoen kasua da), beti ere erantzungo dioten ez dioten erantzungo zalantzan biziz. Horien guztiengan atxikimenduzko irudiarenganako herra edo ezinikusi antzekoren bat datza hor azpian, zeren eta aipatu ditugun inguruabar horietan guztietan zigortzailea eta jarraikortasunik gabekoa den norbaiten halako irudi bat baitago.

b. Errua

Gizakiaren eginetan eta haren bizi-gorabehera guztietan dago, beti hor. Beldurra bezala, errua gure barne-muinetan sakon erroturik dugu. Errua eta beldurra, bada, gizaki ooren motibazio sistema indartsuenetako bi dira.

Araua urratzeko nahiaren eta beldurraren arteko borrokan azkenean nahia nagusitu eta gurari izan dugun hori konplutuz gero, egin dugunaz errudun sentitu ohi gara. Errua zigorraren itxarote larria da. Nahiarik debekua jarri ahal dion pertsona hori berori da gero saritzeko zein zigortzeko gaitasuna duena. Hierarkian gorago dagoen pertsonak ebazten baititu gainerako besteek bete behar dituzten arauak eta erregelak. Erregelak, arauak, aginduak, mugak, hitz horiek guztiak elkarren sinonimoak dira, desiren konplitezari buruzko debekua izendatzeko erabiliak.

Mendebaldeko gure gizarte honetan hitz batzuk, hala nola agindua, debekua eta morala, ez dira begi onez ikusiak. Horien ordez "mugak" eta "gizarte etika" erabili ohi dira. Esaten da, adibidez, haurrei mugak jarri behar zaizkiela, bestela legerik gabeko izaki bihurtuko omen direlako; izaki anomikoak, alegia. Etikari ekiteko modu honek hegoa galarazten digu. Lehenago ere nabarmendu dugun bezalaxe, nagusien jokabidea imitatuz ikasten du haurrak nola jardun, horretarako ez debekurik ez mehatxurik behar ez duelarik. Zer ikusi, hura ikasi. Areago, bestearen larrupean sartzeko gaitasuna garatu ahala besteen gogoa asebetetzen ikasten duen haurrak bere gogoa ere asebeteko du. Azken batean haurrak behar duena informazioa da, eta eredu imitagarria ere bai, ez besterik.

Orain itzuli gaitezten baina portaera morala ikastearen gaira. Mehatxu eta zigorraren bidez ikasteaz, alegia. Argi esateko, hala edo nola moralki zentsuraturik dugun berezko jokabideren bat aktibatzen zaigun aldiro gudan larridura sortzen da. Alabaina, araua edota debekua (interdikzioa) urratu baldin badugu, larridura egoera areagotu egingo da, zigorra itxaroten dagoenaren larritasuna beste maila batekoa baita. Horra erruaren funtsa.

Errua subjektuari beronen larriduraren zuloatik sortzen zaio, arestiko oharrean aipatu ditugun osagarri biek in sortu ere: batetik zigorraren zain dago eta, bestetik, bere buruaz duen irudia gaitzesgarri zaio. Horrelakoetan bere buruari zigortzailea den zerbait esango dio. Edo egin behar ez zukeena egin duela, edo ahula izan dela, edo horrelako beste

zernahi. Bere “barne mapa operatzailea” delakoan diren pertsona esanguratsuek horrelaxe ikusten dutela iritziko dio, eta gaitzetsi egiten dutela sentituko. Horrez gero ezin du pertsona horien baimena sentitu bere baitan, eta ezin du, ezta ere, bere buruarekiko mirespenik sentitu. Zital, errudun sentitzen da. Eta bere burua bakarturik eta bertan behera utzirik ikusten du.

Errudun sentipenei buruzkoan bi jarrera dira posible:

- Zentsuratzaille eta zigortzaile diren irudi horiekiko errebolta.
- Horiexenganako mendetasuna, errudun edota bekatarik identitateaz.

Etxeo harremanetan zein ezkontideen artekoetan elkarri damua adierazteko eta batak besteari barkamena emateko gaitasuna izaten da harmonia berrezarri eta erruduntasunetik irteten lagundu ohi duena, ordea. Beste behin ere esanda, haurren heziketa moralean pertsona irainduari ekintza iraingarria aitortzen jakitea da rol garrantzizkoa duen portaera, erruduntasunaren zulotik argitasunera irteteko bidean aurrera egiteko bederen.

Hala bada, erreferentziatzeko pertsonak (lehen mailako zaindarien zein bigarrenen) eskuarteak dituzten zereginen artean nagusienetako bat da haurrei pertsona minduarenganako damua erakusten irakastea, horrela pertsona minduari barkamena emateko atea zabalduz. Erruaren zamatik askatzeko bidean aurrera egin ahal izateko garrantzizkoa da haurrak onartua, balioetsia eta lagundua dela sentitzea. Imitazioz edo eredia antzeratzearen bidez ikasteak duen garrantzian gogoan harturik, haurren heziketaren ardura dugun nagusiok, geuk beharko genuke lehenak izan hutsegiteak aitortzen eta barkamena eskatzen.

Haur eta nerabeen portaera suntsitzaile askoren jatorrian erruduntasunaren garbitze horixe dago; zigorra bilatzen dute. Gertatzen da, ordea, haurra edo nerabea bere burua suntsitzen ari dela ez konturatzea, min hartzen dutenak beraiek direla ez ikusteak, eta horrela jardunez gupil zoroaren mendean sartzen direla ez jabetzea. Bada, horrela, azkenean ingurukoekiko gatazka areagotu baino ez da egiten.

4.2.1. Beldurraren eta erruaren motibazio sistema

Beldurra motibazio sistema oso indartsua da. Are gehiago, motibazio sistemen artean indartsuena da beldurra, epe laburrari begira bederen eta psikopatologiak erakutsi duenarekin bat. Adibidez, kutsaduraren beldurrez bizi den pertsona obsesiboak bere inguru guztian gai kutsagarriak ez du besterik ikusiko, eta garbiketa ariketa amaigabeetan ibiliko da, kutsatua izatearen balizko arriskuak eragindako larridurari ihes egitearren.

Beldurra den motibazio sistemaren indarra norainokoa den ulertzeko nahikoa litzateke esatea indar horren berri diktadore guztiek izan dutela. Maisuak ere ez dira horretatik salbuetsiak, askotan aditu izan baitugu harako “odolez ikasi” delakoa. Horren urrun

joan gabe ere, gaur egun badira irakasleak eskolako lehen egunean zorrotz itxuran agertzeaz gainera ikasleei ikara sartzen ahalegintzen direnak.

Diktadoreak heriotza zigorra iragartzen die bere ildo politikoarekin bat ez datozenei, edo bestela psikiatrikorako atea erakusten dizkie. Edo makurtu, edo horixe. Haren mendekoek ildotik ez aldentzen ahaleginduko dira, bada. Hori bai, batzuk gogotsuago eta besteak ez hain gogotsu, beharbada, aintzat mehatxuen arrakasta bakoitzarengan. Era berean, tresna nagusizat zigorra duten hezitzaileek ez dute besterik erdiesten ikasleek balizko zigorra ekiditeari beste ezeri adi ez egotea baino. Irakasleok ez dute gogoeta egiten beren ekintzen ondorioei buruz. Horrela bada, haurrak ez du bere ekintzen baloraziorik egiten ikasten, ezta ere horien ondorioak bideratzen eta ordainetan eman beharrekoaz gogoeta egiten. Halabeharrez egiten du haurrak men, inongo arrazoibiderik erabili gabe, jakin badakielako ekintza jakin batzuek legezko lekurik ez dutela, delako hezitzaile zorrotz horren begiradapean dagoelako, besterik gabe. Haatik, zer gertatu behar da haurra begirada horretatik aske ibiltzen jakinez gero? Hau guzti hau gogoan, ondorioa argia da: mehatxuetan eta zigorrean oinarrituriko edozein heziketak heteronomia delakoa sustatzen du, hots, agintariaren zigorraren beldurraren menpeko pentsaera indartzen du, burujabetasuna eta pentsaera kritikoaren alde egin beharrean.

Beldurraren bidezko motibazioa duen subjektua mehatxu zaion zigorra ekiditeari beste ezeri ez dago adi. Subjektu mehatxatuari berdin dio zer egin behar eta zer ez. Bilatzen duen bakarra mehatxu bidez iragarri zaion balizko zigorretik libratzea baita. Horrela bada, aurkezten zaion edozein gai aztertzeari ekiten baldin badio ere, azterketa horrek zigorretik libratu ahal izateko behar dituen baliabideak eskuratzearren baino ez dio ekiten. Tartean beldurra dabilenean nagusitzen dena ez da gauzekiko atsegina. Beste horretarako, atseginerako behar dena, maitasuna da. Maitasuna sortzailea da, beldurra saiheskorra den era berean.

Pertsona jakin batek kanpotik ezarri zaizkion zereginak bete ditzala lortzen du beldurrak, epe laburrari begiraturik bederen. Zeregin goitik behera ezarriak baino ez dira, ordea. Beldurraren mende den subjektuari berdin dio zer agindu zaion. Betetzeko agindu zaion hori egiten erraza ala zaila den, ez dio beste ezeri begiratu. Ez dauka gauzekiko inongo interesik eta, ondorioz, ez da sortzailea izango, ez du irudimena ezertan erabiliko, ez du beste dimentsiorik bilatuko. Helburu bakarra zeregina amaitzea izango du. Beteko du bai bete beharrekoa, baina lehen-lehenengo egunetik hark gogoan izango duen bakarra zeregina lehenbailehen bukatzea izango da. Erretiroa izango du amets, ezer ez egitea izango da haren xede nagusia.

Hezitzaileen kezken erdigunea non-eta pedagogiaren zereginak sustatu beharreko motibazio-sisteman datza. Hark begiak beti zabalik egon behar du, zein motibazio-sistema sustatzen ari den beti adi. Beldurraren bidezko motibazioan, mendekotasunarekin batera, egoera hori ezartzen edo eragiten duenarenganako eta horrek berorrek agintzen dituen zereginekiko herra sustatzen da motibatuaengan.

Kristautasunaren mendeko kulturaren, tarteka-marteka baina zereginean inoiz etsi gabe, gizakiari zigor eskatologiko izugarriak agindu ohi zizkieten predikatzaileek. Gero, horretara jendea ezarritako bidetik aldentzen ez bazen ere, unean uneko gaitzengatik eta balizko geroko bateko zigorrerengatik egiten zuen markaturiko bidetik. Gaitzak eta beldurrak, horietatik ziren kristau moralaren zutarrak. Horren ondorioz kristau mundua neurosi obsesibo konpulsiboz bete zen, moral hori gizakien baitan nahikoa barneratu zenez geroztik bere ere. Latindar kulturek beldurraren bidezko motibazioa garatu zuten gehien bat. Anglosaxoi kulturetan, ostera, asmakuntzarako eta lanerako gogoia garatu zuten.

4.2.2. Aldentzeak eragindako larridura

Goiko kontzeptu hori, psikologiaren arloko literaturari dagokionez, Bowlby (1973) sartua da. Kontzeptuak funtsean esan nahi duena da, bada, aldentzea behin gertatuz gero haurra hurrengo aldentzea noiz gertatuko bizi izango dela, horrexen beldurrez beti. Horrexerik deritzo Bowlby larridurazko atxikimendua. Aldentzea gertatzen delarik haurrak hori ekiditearren erabili ohi duen seinale-sistemaren mezuek (negarrek, kexuek, oihuek eta bestek) huts egin baldin badute, haurrari, ezertarako ezgai eta gertaera hori nola eragotzi jakin ezinik, aldentzeak eragindako larridura sortuko zaio, bai aldentzearen berehalakotasunagatik eta bai aipatu ditugun jokabideek hori gerta ez zedin egindako mobilizazioaren huts egiteagatik, biengatik. Horren ondorioz haurra geldotasun egoeran lotu ohi da, hain ikaragarri zaion gertaera noiz erabat burutuko den itxarroteak dakarren larriduraz itxaroten.

4.3. Eraso jokabidea

Atal honen beronen sarrerakoan esandakoan gauden moduan, eraso jokabidea da, izatez, subjektuak bere buruari buruzkoan mehatxagarritzat zein arriskugarritzat jotzen duen kanpoko edozein egoerari aurre egiteko aukeran duen bigarren jokabidea. Jokabide hori abiaraziko den ez den abiaraziko, erabakia subjektuak bere indarrei buruzko ebaluazioaren mende egon ohi da, ordea. Subjektuak bera eta errealtatearen arteko indar-harremana zertan den aztertuko du, eta horrexen arabera erabakiko. Indarrak alde dituela irizten baldin badio, eraso eta borroka jokabidea piztuko zaio, ekidite eta ihes jokabidea piztu beharrean. Nolanahi ere pertsonak berak jokabide biak bizi ahal ditu, aldi berean eta intentsitate anitzekin.

Eraso jokabidea espezie guztiek beren eboluzioan hautatu duten tresna dugu, bakoitzaren osotasun fisikoari zein jokabidezkoari eragin diezaioketen faktoreak gainditzeko erabilia hain zuzen.

Hala bada, nabarmenduko beharrekoa da eraso jokabidea, izan ere, berezkoa dela, genoman inskribaturik dagoela eta ondorengotzaz hartzen dela, hots, gizakiengandik

gizakiengana iristen dela, besteganatu egiten dena dela. Gizabanakoz gizabanako aldatzen dena, batetik, jokabidearen intentsitatea eta, bestetik, giza-jokabideen zuhaitza osatzen duten gainerako jokabideekiko harmonia dira. Intentsitate gorabeherak ondorengotza faktoreen eta, batik bat, heziketa eta hazketaren eraginpekoak dira. Beste jokabideekiko harmonia, aldiz, heziketa faktoreen mende dago.

4.3.1. Jokabidearen azaleratzea

Eraso jokabideari buruzko azterketak parekideen arteko jokabidearen testuinguruan egindakoak dira. Parekideen arteko erasoak izan da ikertua, lehenik Harlowen eskutik rhesus primateekin eta, ondoren, Montagner (1988) ikerlariaren eskutik haur eskoletako haurrekin.

Haurrei behatuz oharretza daukagun bezala (Montagner, 1988) 15 eta 24 hileko tarteko haurrengan erasoak maiztasunak gora egiten du, gero berriro apaltzeko. Aldi horretan haurrak egoskor eta temati ageri dira, eta erasora erraz jotzen dute. Hezkuntza tradizionalan aldi honexetan landu ohi zen esfinterren gaineko kontrola, prozedura hertsagarrien gehien-gehienetan. Horrek erasorako joera areagotu baino ez zuen egiten, jakina.

Haurren erasoak kopuru edo maiztasunaren gorakada hori haren bigarren urte aldera gertatzeak ez du esan nahi, inondik ere, eraso-jokabidea hazkunderen une horretan ernaldu denik. Horren hazia askoz lehenago ereinda dago. Behin jaiotzeko gero haurrari min, izan min emozionala nahiz izan min fisikoa, ematen dion edozein egoerak gerora eraso jokabidea taxuko duten osagarriak indartuko ditu. Bestalde, haurren bizitzako lehen urtea bete aurretik antzeman ahal izan diren eraso jokabideen kopurua askoz urriago izatea ez ote den adin horretarako tartean haren aditasuna guraso-irudiei edo bestela atxikimendu irudiei jarrita dagoelako. Uste izatekoa da baietz, horrelaxe dela. Aldentzeari buruzko ikerketek esker badakigu, jakin, oldarkortasuna protesta-erreakzioaren osagarri garrantzizkoa dena. Horrela bada, hamabigarren hilabete aldera ume anibalentearengan amarenganako erreakzioa oldarkorra sortu ohi dela, biak berriro elkartzean. Antzekoa da saihekorrengan antzematen dena, ama ez dagoen tartean.

“Berdinkideen arteko jokabidea” izeneko atalean, liburu honetako 9.ean hain zuzen, ikusiko dugunarekin bat, haurren artean badira berdinkideen arteko lotura sustatzeko baino hori eteteko joera nabarmenagoa dutenak. Atal horretan ondorioztatzen denarekin bat, erasorako joera biziena duten haurrak segurtasunik gabeko atxikimendua dutenak dira. Hortaz, eskolak bere lehen-lehengoa helburua haurrei segurtasuneko atxikimenduak sortzen laguntzea izan behar du, eta horretarako behar bezainbesteko sentiberatasunez jardun behar dugula berriro esatea ez da alferrik izango.

4.3.2. Eraso jokabidearen dimentsioak

Berezko beste jokabide guztiak bezala, lau dimentsio ditu:

- Mugimenduena.
- Begetatiboa.
- Emozionala.
- Irudimenezkoa.

a) Mugimendu dimentsioa

Jokabide honen mugimendu dimentsioa erasoaldia da. Behaketa enpirikoan oinarriturik Montagnerrek (1988) eraso jokabide irizten die hurrengo mugimendukateei:

- Hozka egin
- Atzamarka egin
- Nahiz dela masailetan, nahiz dela sudurretan, nahiz dela besoetan, atxiki edota atximur egin.
- Besteari oratu, tiratu eta behera eraitsi arte horrelaxe eutsi.
- Bat-batean bultza egin
- Kolpe sendoak jo, oinekin, besoaz edo eskuaz, esku hutsik nahiz honetan objekturen bat erabiliz.

Eraso jokabideak dakarren motore portaerak suminaren keinuak eta eraso jarrerak ditu adierazpide. Bada, mehatxuen mimika eta keinuak beste atal batean landuko dira; hain zuzen ere, 9.ean, parekideen arteko mehatxu eta erasoei buruzko azpiatalean.

Aipatu ditugun motore portaerak mugimendu-katea automatikoez osatua dira, hots, genom programaturik dira portaerok. Haatik, subjektua, hazi ahala, jokabide automatikooi kate maila inteligenteak eta borondatezkoak erantsiz doa. Horiexek dira jokabide instrumentalak, jakin badakigun bezala. Esan nahi da estrategia eta egitasmo legez eraturiko jokabideak direla. Estrategia eta egitasmoak, ordea, luzaz egon daitezke hor, noiz beteko edo gauzatuko diren zain. Mendekua dugu diogunaren adibidea. Subjektuak beste norbaiti min emateko asmotan gara ditzakeen baliabideak erabat sotilak izan daitezke, eta lan horretan urteak eman ditzake, harik eta mendekua gauzatu ahal izan arte.

b) Dimentsio neurobegetatiboa

lhesjokabideaz hitzegitean esanda gauden bezala, dimentsio neurobegetatiboaren funtsa borrokari begira egin beharreko organo-orkestrazio guztietan datza. Bi-bietan gihar-mugimendu ugari behar da-eta, beldur jokabideaz esandakoak berdin-berdin balio du eraso jokabideari buruzkoan ere.

i. Lokomozio-aparatuarekikoan.

Organismoa erasorako prest egon dadin ezinbestekoa da gihar gehienak tentsioan izatea. Burukomina, zorabio-sindromea eta gorputz guztiko nekea gihar-tentsio horren agerpen sintomatikoak dira.

ii. Sistema neurobegetatiboa.

Erasoari buruzko motor-jokabideak giharrei askotariko mugimenduak eskatzen dizkie, garunek estrategia egokiak asmatzeko egin behar duten lana ahaztu gabe. Beraz, organismo guztiak halako jardun bizi-bizi baterako prestatu beharra dauka. Hala bada, ihes jokabideari buruzkoan erreakzio baskularrez eta arnasaz esan dugunak oso-osorik balio du beste jokabide honi buruzkoan ere. Eraso eta ihes jokabideen arteko alde bakarra, horien ezaugarri neurobegetatiboei dagokienez bederen, zuhaitz baskularrean dago; suminaren kasuan aurpegia pittin bat gorriturik eta soin-enborrak bero izaten diren era berean, beldur jokabidean aurpegia zurbil eta oinak hotz egoten dira.

Esandako azken hori berdin-berdin esan daiteke sistema endokrinoari buruz ere. Eraso jokabidean, ihes jokabidean bezalaxe, giltzurrun gaineko azalak ohi baino defentsa hormona ugariago jariatzen du. Horien artean Kortisola eta 17OH delakoa nabarmendu nahi ditugu, horiexek bilakatu baitira giltzurrun gaineko azalaren jardunaren markatzaileak. Egun, Kortisola erabiltzen da, zeren eta erraza baita laginak hartzea, hura listuan ageri denez gero.

Nolanahi dela, eraso eta beldurraren arteko ibilbidean urrats ugari dago, erasoaren egoera begetatiboak bakanetan baino ez baitira egoera nahasgabeen ageri. Aipatzen ari garen jokabidean badira larridura eta beldur osagarriak ere, irudian ikusten denarekin bat.

c) Emozio dimentsioa

Eraso jokabideari dagokion emozioa, edo sumina, edo hira, edo haserrea da. Psikologia zientifikoak ondo dakienez, hira erreprimetua denean, hots, kanpora ateratzen ez denean, subjektuaren kontrako bihurtzen da eta depresioa dakar.

d) Irudimen dimentsioa, edo hognitiboa

Suminaren irudimen eszenatokiak egoera desegokiez osotuak badira ere, subjektuak horien gainetik ikusten du bere burua. Badira egoera desegoki horietako arinenak direnak izendatzeko hitz arruntak, hala nola, gogaikarria eta nekagarria, irain legez erabiltzen den beste hitz andana bat ez aipatzearren. Hori guztiek konnotazio bina dute; hain zuzen ere, subjektuarentzat iraingarri izatea eta estimulu desegokiarekiko haren gaitzespena. Ezinikusia eta herra, izatez, mendekua dira, baina itxarote egoeran, harexen zain.

4.4. Ondorioak

Ondorio gisa aipatu dezakegunera joz, esan behar da haurren garapenean beldurrak eragin handia daukala eta hori dela-eta adi ibili behar dugula jokabide hori abiaraz dezaketen egoerak aurretiaz arretatzeko. Hori horrela, askoz ere garrantzi handiagokoa izaten da gu geu jokabide hori desaktibatzen laguntzeko gai izatea, zeren eta atxikimenduzko irudiak, nahiz dela lehen mailakoak nahiz dela bigarren mailakoak, desaktibatze prozesu horren zutarrak baikara.

Bestalde, gure balizko mehatxuei adi egon beharra daukagu, ez dezagun horrelakoen eraginez beldur jokabidea abiaraz. Lehenago ere esanda gauden moduan, maitasuna sortzailea da, beldurra saiheskorra den hein berean.

Azkenik, haurren eredia gu geu gara-eta, esan ohi den moduan, “zer ikusi hura ikasi” horrexetara makurtu beharko ginateke gure zereginetan, guri zer ikusi horixe ikasiko baitute haurrek.

>> 5. ARIKETA PRAKTIKOA

Atal honi ekin baino lehen eduki kontzeptualen aurretik aurkeztu zaizkizun hasierako galderak eta horiei emandako erantzunak berrikustea komeniko litzaizuke. Berrikusketa honek erabat zuzenak ez liratekeen erantzunak birplanteatzea du helburu.

Bigarren gogoeta honek landutako edukiak eta horien ondorioak hobeto barneratzen eta mamitzen lagunduko dizu, ziur. Lan hori egindakoan segi ezazu irakurtzen eta jakin ezazu zein den ataltxo honetan luzatu gura dizugun erronka!

Atal honetan garatu ditugun edukiak gogoan, zure hezitzaile jarduna berrikusten eta hobetzen lagundu ahal izango dizun ariketa egitea proposatzen zaizu. Hona:

Ekiozu zure egunerokoa idazteari, aste betez bederen, eta jaso itzazu umeetariko batzuek beldur, ihes, eraso edota mehatxu jokabideak garatu dituzten uneetako zenbait. Saia zaitetz jokabideok motibatu dituen emozioa zein izan den (beldurra, larridura, amorrua,...) eta ekintzaren ostean ere zein emozio geratu den igartzen eta ezagutzen. Sentimenduak hitz egokiaren bidez (segurtasuna, errua, ...) identifikatu beharko zenituzke.

Hurrengo astean berrikusi ezazu egunerokoan bildu duzuna, atal honetan ikasi duzunaren argitara berrikusi ere, eta hausnar ezazu zein izan litezkeen sar zenitzakeen aldaketak.

Erabil ezazu hirugarren aste bat aldaketa horiek egiteko eta emaitzak baloratzeko. Zer aldatu da? Zer besterik alda zenezake zure egiteko moduetan, zure praktikan?

fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok

8

ERAKUSKERIAZKO ETA LOTSA JOKABIDEAK

ERAKUSKERIAZKO ETA LOTSA JOKABIDEAK

>> 1. HELBURUAK

Atal honetan azaltzen ditugun lan eta irakurketak jorratuz erdietsi nahi diren helburuak hurrengoak dira:

- Haur Eskolan hain ohikoak diren erakuskeria eta lotsa jokabideen nondik norakoak ulertzea, eta horiek elkarrekiko duten loturaz jabetzea.
- Jokabideok hezitzaileen zereginari buruzkoan dituzten inplikazioak ezagutzearen garrantzia ulertzea.
- Jokabideok erreboltarekin, arau urratzeekin, mendekotasunarekin eta erruduntasunarekin (izan ere jokabideon ondorio diren horiexekin) duten zerikusia eta haurren garapenean dituzten eraginak edo ondoreak ulertzea.
- Jokabideon garrantzia ulertzea, halaber, eskola porrotari aurre hartzearen aldetik eta, oro har, psikopatologiari buruzko guztian.
- Jokabideok atxikimendu eta esplorazio jokabideei lotzea.

>> 2. EGOERAK

Haur Eskolan egunero-egunero antzeman ahal dugun bezala, egoera berberaren aurrean haur bakoitzak bere portaera erakusten du, zeinek berea eta besteen portaeren aldean ezberdina. Askotan ez gara horren nondik norakoa ulertzeko gai izaten, ez baitugu gakoa non den antzematen jakiten edota ez gaude ziur zer gertatu den ere. Horrela bada, ulergarria da egoera horietako bakoitzari zein erantzun eman argitu ahalko ligukeen irizpide argirik ez izatea.

“Ikasturtean zehar askotan izaten dira gurasoak eta aitona-amonak eskolan, haurrekin jolas jakinen batzuetan laguntzera, baita ere nagusi horiek ongi egiten dakiten kontu edo istorioen kontaktetean parte hartzera. Egun horiek beldurgarri gertatu ohi zaizkit. Gelako guztiak asaldatzen dira eta, zehatzago esanda, badira hiru haur barregarrikeriatxoetan ibiltzen direnak, gelara etorri ohi diren nagusi horien arreta bereganatu nahirik beti. Gogor jarri beharra izaten dut eta, adi egon daitezen nahi baldin badut bederen, haserre agertu. Aski da!, esan behar izaten diet, behin eta berriro, bestela hor ibiltzen dira, gangar-gangar, ergelkerietan. Eta hori guzti hori gelan sartu aurretik nola portatu behar diren argi eta garbi utzi ondoren, hots, alde zurririk errieta eginda. Alfer-alferrik izaten da.

Gela berean badira ordea beste bi haur jakin badakiten gauzak esateko inoiz eragozpenik izaten ez dutenak; baina halako batean larritu egiten dira, eta ezkutatzen saiatzen dira. Ez dago horiek ezer egin dezaten lortzerik, ezta ere hurbil daitezen edo zerbait esan dezaten erdiesterik. Eta hurbil daitezen eta zerbait esan, egin edo erantzun dezaten ahalegina eginez, okerrago!

Ezer ez da ongi joaten. Zer dela eta gertatzen guzti hau, bada? Zer egin nezake? Jarduera horiek bertan behera ez ote dudan utzi behar pentsatzen ari naiz.”

Hala bada, zer deritzozu aipatu ditugunak aztertzen baditugu, haurren premiei egokitu ahal zaien erantzunen bat bilatzeko edota zein irizpidetan oinarritu behar garen jakiteko?

>> 3. HAUSMARKETARAKO GALDERAK

- Gelan berria edo ezezaguna den norbait agertu eta egoera hori haur guztientzat berbera izanik, batzuegan erakuskeriazko jokabidea abiarazi ohi da, beste batzuegan lotsa jokabidea eta gainerakoengan ez bata eta ez bestea. Jakingo al zenuke zergatia azaltzen?
- Ba ote dugu haurrak lotsatu ez daitezen erdiesterik?
- Haurrengan erakuskeria eta lotsa nola garatzen dira? Nagusiok ba ote dugu horretan eraginik edo zerikusirik?
- Zerk eragiten du gelan diren haurretako batzuek jokabide bat edo bestea hautatzea, aipatzen ari garen kasuetan hain zuzen. Zer dela eta jokabideok? Zerk eragiten du konfiantza eta segurtasun kontzeptuetan? Eta buru-estimua edota buru-irudia bezalako kontzeptuek duten funtsa?
- Haurrak beren lotsari edota erakuskeriari aurre egiten behartuz gero, lortuko ote genuke ezer?
- Lotsatia izateak zein erakuskeriazalea izateak zein ondorio izan lezake haurren garapenaren aldetik?
- Lotsa eta herabetasuna, biak bat al dira?

Bada, hurrengo datozen orrietan galderoi erantzun zuzena ematen lagundu ahal dituzten teoria-hastapenak, hots, eduki kontzeptualak garatuko ditugu, baliagarri izan dakizkizun. Erakuskeria eta lotsa jokabideek larridurarekin eta erruarekin zein zerikusia edo harreman duten aztertuko dugu. Izan ere, hezitzaile orok haurren premiei erantzuterakoan gogoan hartu beharrekoak lirateke edukiok.

>> 4. EDUKI KONTZEPTUALAK

4.1. Sarrera

Gizakiak betidanik edo menderatu, edo bideratu, edo eragin, edo ekidin, edo gaitzetsi, edo ezagutu edota epaitu nahi izan dituen gaietako beste bi dira erakuskeria eta lotsa, beldurra eta erasokortasunarekin batera. Azken jokabide horiei buruzkoan aurreko atalean esan duguna errepikatuz, erakuskeria eta lotsa ere bizi guztian gure baitan dira, gure buruarekin zein bestekin modu gatazkatsuan bizi ditugu, gizartean erroturik daude, gaur bezalaxe iraganean, kultura guztietan egon baitira presente, nahiz dela iraganean, nahiz dela historia urrunean zein

hurbilean. Gure bizitzetan horiek duten eragina erabatekoa ez bada ere, handia da, handia denez. Haur eskolari begiraturik, eta hain zuzen ere bertan hazten diren haurrei eta horiekin lan egiten dutenei dagokienez, guztiz garrantzizko zaigu jokabideoi ahalik eta goizen antzematea eta aurrez arretea ematea, nondik sortzen diren ezagutzea, zein den barnean duten dinamika eta zein den haurren garapen armoniatsuarekin zuzenean zein zeharka duten zerikusia. Horretan guzti horretan sakontzeko ahalegina egingo dugu hurrengo datorren atalean.

Gogoan izan behar dugu beldurra, funtzio biologikoaren aldetik bederen, esplorazioari buruzko serbomekanismoa izan zela hastapenetan. Inguruan arakatzea urrunegi joan ez zedin eta gizabanakoarentzat eta espeziearentzat berarentzat arriskugarri izan zitekeen egoeretara iritsi ez zedin lan egiten zuen beldurrak. Bada, antzeko zerbait da lotsarekin eta erakuskeriarekin gertatzen dena. Horiei ekin aurretik, ordea, seinale bidezko animalia komunikazioaz beste zerbait esatea komeni delakoan gaude. Hain zuzen ere, gizakiaren eboluzioaren lehenengo urratsetan keinuen bidezko komunikazioa gailendu zen, eta rol zentrala hartu. Eta hara non, erakuskeria eta lotsa jokabideetan keinuen bidezko lengoaiak leku garrantzitsua betetzen du. Haatik, zeinuen bidezko komunikazioa bere aspaldiko garrantzia galduz joan da, gizakiak hitza sortu eta hizkuntza garatu ahala joan ere. Eta horrelaxe, azkenean hona hemen hitzen bidezko komunikazioa, seinale jokoen ordeko eta gehiago ere badena.

Argituak argiturik, eta erakuskeriaren gaira joz, hori, erakuskeria, jokoa dela esan behar da. Seinaleen bidezko animalia lengoaiaren barnean garatua, hain zuzen. Lotsa, berriz, erakuskeriazko jokabideari jarritako hesia da, urrunegi iritsi ez dadin jarria hain zuzen ere. Nolabait esan, elkarbizitzak eskatzen duena da lotsa jokabidea. Azken ideia honi berriz ekingo diogu, aipatzen ari garen jokabidetako batak zein besteak duten biologi funtzioak eta horrek espeziaren iraupenarekin duen zerikusia aztertzean, hain zuzen.

4.2. Erakuskeriazko jokabidea gizakiarengan

Lehenik eta behin erakuskeriazko jokabidearen izaerari ekingo diogu, horren ondoren haren dimentsioei ekiteko, gainerako beste jokabideak azaltzean egin dugun bezalaxe.

4.2.1. Erakuskeriazko jokabidearen izaera

Espezie jakin bateko banakoak espezie bereko beste kide bati nola bera -delako banakoa- atributu nagusietakoen arteko atributu jakin baten jabe dela jakinaraztean datza erakuskeriazko jokabidearen funtsa, edo izaera. Jokabide horretan, ordea, jakinarazi nahi dena hitzez adierazi beharrean seinaleak igorritz adierazten da. Zehatzagoak izanez, erakuskeriaren gakoa jokabide hori duen horrek beste espeziekieidaren bati atributu edo gaitasunen baten jabe dela erakuts diezaioten bilatzen duten portaeretan datza.

Horiek horrela, erakuskeriazko jokabidea, gizakiongan, berezko jokabidea da eta norberak norberaren buruari antzematen dion atributu hori besteri adieraztea du

helburu. Horrela, erakuskeria Norberarena Besteari erakustea helburu duen portaera muturrik muturrenekoa dela esan liteke.

Hortaz, eta erakuskeria funtsean "norberak" norberaren burua "besteari" adieraztean datzanez gero, erakuskeriaren dinamikak polo edo mutur biren arteko jarioetan gauzaten dira: polo edo alde batean subjektua dago (subjektuaren poloa), beste alde edo poloa beste (bestearen poloa) dagoen aldi berean. Bada, hurrengo orrietan polo biotako bakoitzari bere tarte eskainiko diegu.

4.2.1.1. Subjektuaren poloa

4.2.1.1.1. Erakuskeriazko jokabidearen dimentsioak

Bereko beste jokabide orok bezala erakuskeriazkoak ere lau dimentsio ditu. Horietako bi kanpokoak dira eta, beraz, behagarriak, alegia, mugimendu dimentsioa eta dimentsio begetatiboa. Beste biak barnekoak dira, hots, horiek bere baitan bizi dituenaren hitzen bidez baino ezagutu ezin direnak: emozioen dimentsioa eta irudimenezko dimentsioa dira.

4.2.1.1.1.1. Kanpo dimentsioak, edo dimentsio behagarriak

a. Mugimenduarena

Mugimendu dimentsioa, izatez, gorputzaren bidez zein hitzen bidez erakutsi nahi diren ezaugarrien hedakuntza da. Horrela, haurrak bere balentriaren baten berri eman nahi digunean nagusiok berehala ohartzen gara zertan ari den.

Erakuskeriazko jokabidea besteari zerbait adieraztea da, beti. Horrela, umeak bere buruaren erakuskeria egiten dion lehenengo pertsona lehen-zaindariatakoa izaten da. Geroago etorriko da erakustekoak erakustea bigarren eta hirugarren mailakoei. Hori bai, maila horietako zaindarien bat haurraren begietara lehen mailako zaindari bilakatuz gero, hortxe etorriko zaio zaindari horri haurra beronen balentria eta lorpenen berri ematera. Kontua da bat izan beharrean asko direnean zaindariari zeina bere egitandien berri ematera batera datozen haurrak. Eta zer esan zaindariari etorri zaizkion artean erasotzailea eta eraso jasan duena, baztertua eta baztertzaila, hau hori eta bestea daudenean. Hortxe dago, inon dagoenez, haur eskolan taldearen zaintzari ekitean agertzen zaigun eragozpen handi bat. Ratioekin zerikusia duen eragozpena, hain zuzen.

Irribarrearekin gertatu izaten den bezalaxe, erakustaldiak ez baldin badu mirazko begiradarik erakartzen, delako erakustaldiak indarra galtzen du-eta, litekeena da haurrak, zapuzturik eta haserre, eraso jotzea. Horrelaxe,

haur bakarra dagoen etxean bigarrena jaio bada gurasoen begirada gehienak horrexengana joan ohi dira-eta, lehenengoaren erakustaldiak sarritan erantzunik gabe gera daitezkeenez, horrek astun jartzera jo lezake, baita erasora ere. Ondorioz, zentsura hitzak aditu beharko ditu, eta zigorrak pairatu ere bai batzuetan. Eta behin horretara iritsita, horra indar erakustaldien gupil zoroa abiatu. Haurrari zentsura besterik ekarriko ez diona, ziur. Hala bada, haurrak eragotzi egingo du bere lorpenak erakusteko joera eta, beraz, erakuskeriarako bulkadak beste adierazpide batzuk bilatuko ditu.

Horra bada ipuin-liburuak hausteari ekin dion haurra, edo beste haurrei erasotzera jo duena, edo horrelako beste zeingura jokabide disruptibo erakusten duena. Denboran hain eskas ibiltzen gara non ez dugun astirik izaten haur horrek harmaila biren artean jauzi egin duela ikusteko, edo gogotsu saiatu ondoren marraztu duen irudia erakutsi nahi digunari begiratzeko, edo min hartu arren negarrik egin ez duela jakinarazi nahi digun beste horri jaramon egiteko, aipatzen ari garen jokabide disruptiboak eragiten dituzten egoeretako batzuk aipatzearen. Hobe gure haurrei jaramon egitea, egin behar den une berean egin ere, gero horrelako jokabideekin kezkatu baino.

Nagusiontzako ere baliagarria da arestian esan duguna, eritasunei begira batik bat. Hortxe dugu, adibidez, hipokondria delakoa, ez dena besterik gorputzeko adar edo organoen minaren adierazpena baino, hots, aditua eta zaindua izan nahi duen minaren aldarria.

Haurren mundura itzuliz, hortxe dugu gelan ikaskideen edota irakaslearen muturretan horiexen aditasuna erakartzearen eta kasu egin diezaioten tentelkeria eta barregarrikeria etengabeetan diharduen hori. Horren deigarri agertu nahiaren adierazpidea izan litezke hala hitzak (tokiz, lekuz eta denboraz kanpoko komentarioak, oihu eginez batzuetan) nola keinuak (burua behera botatzea, hara eta hona irristaka ibiltzea, etengabeen korrikan egitea, lekuz kanpoko keinuak...).

Hezitzaileon zereginetara joz, berriz, gutariko norbait errotik oso kanpoan dagoen erakuskeria batekin aurrez aurre egonez gero, delako gutariko horrek hobe luke, lehenik eta behin, jokabide hori ez zentsuratzea eta, hurrengo, haurrari irtenbideren bat bilatzea. Irtenbide hori ezin da besterik izan ildo zuzenetik aldenduz haurrak egin duen erakuskeriaren orde gizartearen onartuagoa den beste adierazpideren bat bilatzen laguntzea baino.

Gure kulturaren bederen, haurraren eginei miraz erantzuteak haren nortasuna harrokeriaz eta hantustez kutsatuko ez ote duen beldurrak

eginok zentsuratzea dakar. “Ez harrotu!”, esan ohi diegu, bada. Hezkuntzaren aldetik akats larria da hori, zalantzarik gabe. Ez baitugu gogoan hartzen harrotasuna eta hantustea ez direla besterik erakuskeria erreprimituaren ondorioak baino eta, hortaz, bere buru-estimuan haurrak egina duen zauriaren adierazpidea. Eta haurra hitz egiteko gai bilakatu bezain laster adierazpide hori areago hedatzen da, orain artean esandako portaerez gainera ahotsaren tonua eta keinua ere hortxe direlako.

b. Neurobegetatiboa

Erakuskerian gorputzaren eta psikearen hedakuntza sustatzen duten sistema organiko guztiak abiarazten dira: ilea hazi bezala egiten da, eta odol jariora biziago dator. Aldiz, erakuskeria zigortzen denean, haurra barregarri utziz nahiz zentsuratuz, delako haurrak bizi duen minak zigor sistema abiarazten du, eta horrekin batera defentsa hormonari jariatzea ere bai. Hormona horien artean Kortisola dago.

Aipatzen ari garen jokabidea behin galarazia izatea nahikoa da gero berriro galaraztean halako sintoma ezagun batzuk agertu daitezen, hala nola, lotsaz gorritzea, presaka hitz egitea, motel-motel jardutea eta gorputzaren mugimendu eragabeak agertzea.

Aldiz, bestelako erantzunik jaso duen erakuskeriak plazeraren neurobiologi sistemak abiarazten ditu -sari sistema-, eta horiek endorfinak jariatzen dituztenez, defentsa hormonari mailak behera egiten du.

4.2.1.1.2. Barne dimentsioak

Dimentsiook hitzaren bidez baino ezin dira ezagutu. Hain zuzen ere, subjektuaren oroitzapenek, ametsek eta mitoek ahalbidetu digute barne gertaera horien mapa osatzea, psikoanalisiak egin duen moduan hain zuzen. Haurrarekin lasai hitz egiteak haren barruko atearak zabaltzen dizkigu-eta, horrelaxe iritsi gaitezke hark bere erakuskeria aldietan bizi izan dituenak ezagutzera.

a. Emozioa

Erakuskeriazko jokabideari dagokion emozioa norberaren goratze loriatsua da, eta horrekin batera norbera handi eta indartsu sentitzea.

b. Irudia

Erakuskeriazko jokabidean ageri diren irudiak norberari buruzko iritzi handiusteak dira. Norberaren burua eder, jakintsu, onbera eta inportante

ikusten du erakuskeriaz jokatzeko duenak, hots, “Ni bai handia, ni!” aldarrikatuko balu bezala.

Hala bada, garrantzizkoa da eskolan bertan erakuskeriari bide ematea eta jokabidea lantzea, zeren eta horrela eginez ikasleen beraien buru-irudia eta buru-estimua modu positibo eta baliagarrian garatzen eta indartzen laguntzen baitugu, aurrerago ikusiko dugun legez lagundu ere.

4.2.1.2. *Bestearen poloa: Bestearen begirada*

Bestearen poloa begirada dugu. Eta begirada horrek ispluarena egiten du. Hala bada, irudi esanguratsuen begiradak baditu ezaugarri bi, lehenik haurrak eta gero nagusiak bere buruaz sortuko duten iritzi edo irudiaren aldetik gako-gako direnak. Lehenik eta behin begiradak ezagutu egiten du, hortxe agertu zaion datu fisikoa, jokabidezkoa edota psikologikoa, bereganatuz. Bigarrenik eta bi, agertu zaion datuari buruzkoan datu hori edo itsusia, edo baliotsua, edo gaitzesgarria, edo ona, edo txarra, edo beste zer den, bere iritzi propioa osotuko du haurrak.

Bestearen begiradan haurrak bere baitan sortzen eta handik azaleratzen ari direnak ezagutzen ditu. Esan nahi baita, haurrari Bestea -lehen zein bigarren zaindaria- den ispluak zer erakusten dion eta erakusten dionari zer kalifikazio ematen dion, horixe berori identifikatuko du azaleratzen ari zaizkion bere ezaugarrietan eta ezaugarrien balioaz edo balio ezaz jabetuko dela.

Begirada mota asko dira. Saikapen xumeena eginez lau begirada-ordenu berezituko genituzke:

- Mirazko begirada
- Inkisidore begirada, zentsuratzailea
- Begiratu irrigarri uzten duen begirada
- Begirada axolagabea

Nolakoa den bestearen begirada, haurraren erantzuna ere halakoa. Erantzunen sorta oso zabala izaten da, alegia, konfiantza adieraztetik eta erakuskeria grinatsutik estutasunera eta paralizatzaile gerta daitekeen lotsarainokoa.

Mirazko begirada

Guraso subjektuarengan mirazko begirada agertu ohi da, haur subjektuarengan antzematen duenari balio ematen diola adieraziz horrela. Dirdira ageri du hark begietan. Ispilu duen haurrak eskaintzen dion irudian ikusten duen argitasunaren isla den dirdira, hain zuzen.

Bada, haurraren bizitzako lehen urteak izaten diren fusio-fasean hark bere

egiten ditu, hala bestearen begiradak proiektatzen dion bere buruaren haur-subjektuaren irudia nola begirada ere.

Subjektua bere eginez joango den begirada da hori. Begirada horri Freudek "Super Ego" izena eman zion; Bowlbyk, berriz, bere barne eredu operatzailea nozioaren bidez azaldu zuen. Modu batera nahiz bestera esan, gure kulturaren "kontzientzia morala" deritzon horrexetaz dihardugu hemen.

Izenak izen, begirada hori egitura automatiko bihurtuko da-eta, beraz, inkontziente. Eta hain zuzen ere subjektuak berak egingo dituen ekintzak, bizi izango dituen emozioak eta izango dituen desirak begirada horrexen arabera barneratuko ditu aurrerantzean. Halaxe, mirazko begiekin begiratua izateko zoria izan duen haurrak bere buruaren irudi -kontziente zein inkontziente- ona izango du eta, ondorioz, modu ulerkor eta positiboan ebaluatuko ditu aipatu ditugun ekintzak, emozioak eta desirak. Haur hori bere buru-estimua goi-goian izango duen subjektua izango da nagusitan.

Diogunen adibidea denok ezagutzen hurrengo egoeran dugu: "Begira, begira egizue; Aitor bai jatorra, gelako gauzak batzen eta gordetzen laguntzen du-eta, hori da hori mutila", diotse hezitzaileak gelako beste haurrei.

Inkisdore begirada, zentsuratzailea

Inkisdore begirada zentsuratzaileak, zer ere erakusten duen, erakusten duen horri buruzko iritzia gaitzespenezkoa izango da-eta, begirada horrek, berez, hezitzailea den irudiaren aldetik zigorren bat etorriko zaion susmoa eragingo dio haurrari. Begirada horren ondorioz mina eta zigorra pairatuz gero, subjektuak irudiok erreprimitu eta inkontzientera igorriko ditu. Madarikatuak izango dira, eta horrez gero baita desitxuratuak ere. Begirada horrek agerrarazten duen irudia subjektuarentzat irudi ezagutua bada ere, irudi txarraren ezaugarriekin iritsiko zaio.

Adibidea, denok inoiz entzun edo esan izan duguna. "Ez dago modurik; behin honetara ezkerro zigorra behar izaten du, egunero, edo bestela isolatu beharra izaten dut; aldarrika eskatzen du zigorra, eta horren ostean zera baino leunago ibiltzen da", diotso hezitzaile batek beste bati.

Irrigarri uzten duen begirada

Irrigarri uzten duen begiradak baditu begirada zentsuratzaileak dituen ezaugarrietako batzuk. Bien arteko aldea kalifikazioan datza. Zentsuratzailea gaitzespenezkoa da eta bestea, ordea, irrizkoa. Lotsa onaren sentimendua subjektuarengan lehendabizikoz modu leunean azaleratzen da eta, delako hori irrigarri uzten duen begirada delako horren lotsaren ama izango dela esan daiteke. Oro har, berezko jokabide guztiak zentsuratuak izan daitezkeen era beran irrigarri uzteko modukoak izan daitezke. Kasu bietan subjektuak

bere buruari hori azaleratzea eragotzi egingo dio, batean zigorraren beldurrez, bestean trufa edo barrearen izuz.

Inor irrigarri uztearen lehenengo urratsa hezitzaile irudiek egin lezakete, eta horrez gero beste haurrek ere irrien jokoan sartu. Beste era batea esanda, hezitzaileek ez baldin badute haur jakin baten erakuskeria ongi hartu, delako horrek bere jarreran egoskortu eta gehiegikeriatarara jo lezake, gelakideengan irria eraginez. “Begira, begira zer nolako zirrimarra egin duen Urliak” dioen hezitzailearena da, izan ere, diogunaren adibide adierazkorra.

Begirada axolagabea

Axolagabeko begiradak begiratuari ez dio ezeren islarik itzultzen. Beraz, begiratuak ez dauka bere portaerak eragindakoaren inongo irudirik. Begiratu, berez, bada; haatik, ez da horretaz jabetuko. Potentzialki musikari handia edo kirolari itzela izan liteke, baina ez da horren jakitun izango. Izan ere baden hori berretsiko dion begiradarik izan ezean haurrak ez du bere gaitasunen kontzientziarik osotuko eta, ondorioz, gaitasunok garatu gabe haziko da. Gizakiok zeren kontzientzia dugun, horixe hazten da gudan, beste ezer ez.

Adibidea, berriro ere denok inoiz entzun edo egin izan duguna. Horra hor jolastokian haur hori irakasleari deika eta deika, hark nora igotzen ari den ikus dezan, horraino igotzera iritsi den lehen aldia baita. “Andereño, begira; begira, andereño; andereño ...”. Horrela zenbait aldiz saiatu ostean deitzeari utziko dio.

4.3. Lotsa jokabidea

4.3.1. Jokabidearen izaera

Lotsa beldurraren korrelatua da, erakuskeriari dagokionez bederen. Poloetako batean zerbait erakusten edo begietaratzen duen subjektua dugu; subjektu horrentzat berak erakusten edo begietaratzen duen hori baliozkoa den arren eragotzi egiten du. Beste poloan bestea dago, edo besteak. Subjektua lotsa izateak bestearen begirada hortxe dagoen kontzientzia hortxe dela esan nahi, jakina. Bestea hor den protokontzientzia hau bizitzako hirugarren urte aldera sortu ohi da.

4.3.2. Lotsa jokabidearen dimentsioak

4.3.2.1. Kanpo dimentsioak

Beste jokabideetan bezalaxe honetan ere kanpo dimentsioak behagarriak direnak dira. Berezko beste jokabideei buruzkoan azaldu dugun legez, atal honetan

mugimendu dimentsioa edo jokabidea dugu, jokabide organiko edo dimentsio begetatiboekin batera.

a. Mugimendu dimentsioa

Lotsa jokabidearen mugimendu dimentsioaren adierazpideak dira, besteak beste, aurpegia estaltzea eta burua zein gorputzaren goiko aldeaz atzera egitea. Aurpegia estaltzea gizakion kultura eta maila guztietan ageri da, jaiotzez itsuak diren umeengan ikustea daukagunarekin bat.

b. Dimentsio neurobegetatiboa

Aurpegian ageri den eta erreakzio kardiobaskular hutsa den lotsagorritzea da dimentsio neurobegetatiboaren adierazpen nabarmenena. Erantzuna horrez gainera badira beste batzuk, oraindino aztertu gabeak. Jakin badakigu, ordea, horien artean defentsa hormonek gora egitea dagoena, hala nola giltzurrun gaineko hormonei dagokienez; hormonon artean gaur arte ikertuena izan den kortisola dago. Esandakoez gainera, bihotz taupaden erritmoa bizkortzen da, arteria-presioak gorantz jotzen du eta larruazalak berez ere baduen konduktantzia areagotu.

4.3.2.2. Barne dimentsioak. Hitzaren bidez komunikagarria dena

a. Emozio dimentsioa

Lotsaren emozio dimentsioa lotsa izatea edo sentitzea bera da. Hain zuzen ere, jokabide honek izena horrexeri hartu dio, emozio dimentsioari. Izan ere, norbera nahasturik eta irrigarri ageri den ustea sentitzen da, tristura eta porrot sentimenekin batera.

b. Irudimenezko dimentsioa

Jokabide honen irudimenezko eszenatokian subjektuaren barne-muinean sartzen den norbait ageri da, eta delako horrek, bere garrantziagatik, subjektuari gehiago egiten dio, hots, inposatu egiten zaio. Erakuskeria naturala hauskorra da beti. Estimuz begiratu dion horren zain egoten da, itxaroten, horrela begiratua izango den ez den izango zalantzan. Horixe da lotsa ona, azken batean. Haatik, subjektuaren barne mapa operatzaileetan beste horren gaitzespena erregistraturik geratu baldin bada lotsa ona lotsa huts bilakatuko da.

Izaki indartsu horrek ematen duen erantzunak erakutsi izan zaion hori baloratu beharrean gaitzetsi egiten duela erakusten baldin badu, hots, subjektuari inposatu egiten zaion izaki horren begirada axolagabea edota irrigarri uzten duena baldin bada, lotsa azaleratzen edo agertzen da, ondorio gisa.

Azaldu berri dugun eszenatokian horretan subjektuak bere buruari irrigarri, ezegoki eta arbuigarri iritziko dio, ezinbestez. Esan nahi da aintzaz beterik agertu gura

izan duen hori berori zerbait zitala eta edertasunik edota baliorik gabeko bilakatu zaiola. Itsusi, ergel, hutsal, arbuia garri eta horrelako iritziak dira eszenatoki horretan erakutsi denari buruzkoan nagusitu ohi diren adjektiboak.

4.4. Erakuskeriazko eta lotsa jokabideak abiarazten duten estimuluak

Erakuskeria eta lotsa abiarazten duten estimuluak bestearen begiradan dautza. Erasoaz edota beldurrak hitz egitean errealitate kaltegarriren batetik etorri ohi dela esan dugun era berean, erakuskeria eta lotsa jokabideri dagokionez estimulua bestearen begiradan datza, begirada horrek erakustaldia irigarri uzten duenez gero. Eta eraso ala ihes jokabidea, horietariko zein hautatu subjektuak bera eta bestearen -estimuluaren- indar harremanen balorazioen ondorioz egiten duen bezala, subjektuaren eta begira duen beste horren -horren begiradaren indarraren- indar-harremanaren arabera, edo erakuskeria edo bestela lotsa agertuko dira. Beste modu batera esanik, ebaluazio hori barne mapa operatzaileetan irarrita diren prototipoen bidez egingo da, subjektua eta bestearen begirada aurrez aurre direnean.

4.5. Erakuskeria eta lotsa jokabidearen gorabeheren eragina norberak norberari buruzko irudian

Subjektuaren buru-estimua hark bere erakuskeria eta lotsa jokabideetan bizi izan dituen gorabeherekin zerikusi zuzena du.

Bestearen begiradarekikoan haurraren azaleratzen doazen erakuskeria eta lotsa jokabideei buruz azaldu berri dugun zikloan aipatu dugun bezalaxe, begirada horretan datza subjektuak bere buruaz eta bizi guztirako izango duen irudiaren gakoak, esan nahi baita, balioespena eta buru-estimua izango dituen ala, ostera, irudi balioz gutxietsia izango duen. Hala bada, Bestearen begirada, haurrak bere burua erakusten dien lehenengo irudi horiaren begirada -nahiz dela lehen mailako zaindaria nahiz dela bigarren mailakoena-, begirada horixe izango da, etorkizunean eta horrez gero adineko bihurturik, haur izandako hark bere buruari baliozko iriztea ala, ostera, baliogabe iriztea erabakiko duena.

Buru-estimua den gai garrantzitsua non-eta bestearen begiradarekiko erakuskeria eta haren mirazko zein gaitzespeneko erantzunaren dinamiketan oinarritzen da.

Atal honen beronen hasieran azaldu dugunarekin bat, bestearen begirada, haurri besteak itzultzen dion begiradan delako haurrak zer ikusten duen, horrexek erabakiko ditu hurrengoak:

- Bere buruaz duen irudiak haurrak bere izatearen dimentsioak eranstea. Bestearen begirada den ispiluak itzuli ez duen dimentsiorik ez da norberaren buru-irudian sartzen inola ere. Objektibotasunez baduen gaitasunen bat hortxe izan arren, subjektuak ez du horrelakorik antzemango bere baitan.
- Erantsitako irudi hori baliozkoa ala gaitzesgarria, ona ala txarra izatea. Hori erabaki,

8. ERAKUSKERIAZKO ETA LOTSA JOKABIDEAK

ezaugarri jakin bati buruzkoan bestearen begiradan eskaini duen balorazioaren mende erabakiko da.

Honetatik pedagogiari loturiko gai bi eratorri ahal dira:

- Umeak haur eskolako talde-zaintzan tarte luzeak ematen baldin baditu eta horko ratioak bigarren mailako zaindaria umeari eskaini ahal dizkionak baino altuagoak baldin badira, gertatu ahal dena da, besteak beste, zaindariaren begiradari legokiokoen ispilu-zeregina behar bezala ezin egin izatea.
- Lehenengo zein bigarren mailako zaindarien ideologi sistemak baldin eta badio mirazko begiradaz erantzuteak hurrengan harrokeria eta hantustea bezalako bizioak elikatu dituela, ez dute ispilu zeregina beteko delako haurrak erakutsi dituen gaitasunei dagokienez eta, gainera, erakustaldian agerturiko poza zentsuratuko dute. Ideologi sistema horrek antza ez daki harrotasuna eta hantustea buru-estimua zaurituaren erantzunak direna, hots, zauriei egin ohi zaien hanturaren antzekoak.

4.6. Ondorioak

1. Erakuskeria, norberarentzat baliagarria den atributu edo ezaugarrien bat besteari ikusaraztea den aldetik. Lotsa, erakuste horren galaraztea den aldetik. Erakuskeria hierarkia estatusaren zerbitzura: beste atributuen gainetik dagoen atributuren bat erakustea boterearen zerbitzura jartzea.
2. Erakuskeriazko jokabidearen lau dimentsioak:
 - Mugimendua: erakusten diren ezaugarrien hedapena.
 - Neuro-begetatiboa: gorputzaren nahiz psikearen hedakuntza pizten duten sistema organiko guztiak abiaraztea, hala nola, ile tamainaren haztea eta odol jarioaren azkartzea. Erakuskeria galaraziz gero lotsagorritzea agertzen da.
 - Emozioa: pozezko beroaldia eta harrotasuna.
 - Irudizkoa: Ni bai handia, ni.
3. Lotsa: erakuskeriaren hedakuntza-joera galaraztea.
 - 3.1. Kanpo dimentsioak
 - Mugimendua: gorputza uzurtzea eta aurpegia eskuez estaltzea.
 - Neuro-begetatiboa: lotsa-gorriak eta beldurtasunak eragindakoen antzeko fenomeno begetatiboak.
 - 3.2. Barne dimentsioak
 - Emozioa: lotsa.
 - Norberaren buruaz irrigarri irudia.
4. Erakuskeria eta lotsa jokabideen azaleratzea
 - Gizakia bestearen begiradan sortzen da.
 - Bestearen begirada subjektuari eransten zaio: subjektua delakoak bere buruari begiratzeko berari begiratu dioten begiak izango ditu, bizi guztian hor.
 - Bestearen begiradaren funtziorik behinena, ernalduz eta azaleratuz doazen jokabideak onesteko baimena ematea da. Haurrak badu bere protokontzientzia,

bere baitako sortze prozesuan etorri datozen zerena hain zuzen, baina horiek itzuliko dizkion begiradarik izan ezean haurrak ez ditu horiek beretzat ezagutuko.

- Bestearen begiradaren bigarren funtzioa da, aldiz, agertuz doazen jokabideok baloratzea, ontzat, txartzat, miragarritzat zein gaitzesgarritzat emanez. Bestearen begiradaren balorazioa, ordea, Hark etika eta estetikaren aldetik dituen estandarrei alderatuz egiten da.

5. Erakuskeria eta lotsa jokabideen estimulu abiarazleak

5.1. Bestearen begirada : estimulu abiarazlea

- Gizakia oraindino hazte prozesuan delarik bestearen begirada eratzaila da: hura zer den eta zer izango den, alde bietatik. Gero, gizaki bera gaztea edo nagusia denean, bestearen begirada indartzailea da: hura zer den eta zer ez den, zerk balio duen eta zerk ez, begirada horrexek diotso.
- Zentsurazko begirada. Begiradak itsusi ikusi eta erreprimitu egiten dituen jokabideak azpikontzienteko sakonenean dautza, itsusi-itsusitzat bazterturik.

5.2. Bestearen begirada bat egitea

Erakuskeria eta lotsa abiarazten dituzten estimuluak bestearen begiradan dautza. subjektuak, bera eta begiratzen dionaren arteko indar-harremanaren ebaluaziotik -haren begiratzeko modua eta garrantzia neurtzetik- edo erakuskeria edo lotsa, biotako bat azaleratuko da.

Ebaluazio hori, subjektuak bestearen begiradarekikoa esan nahi da, haren barne mapa operatzaileetan erantsirik diren prototipoetan abiatuz burutuko da.

Bestearekin buruz buru: begirada dirdiratsua, mirazkoa, edo bestela begirada axolagabea eta gaitzespenezkoa.

- Begirada dirdiraz eta miraz betea baldin bada, umeak, liluraz, bere burua guztiz balioetsia ikusiko du.
- Begirada axolagabea eta gaitzespenezkoa baldin bada umeak bere buruari arrunt eta arbuiagarri iritziko dio.

Horiek dira buru-estimuen zutarrak.

6. Amaitzaileak

- Subjektuarengan oraindino sortze prozesuan diren jokabideekiko bestearen begirada zentsurazkoa edota gaitzespenezkoa baldin bada, jokabideok deabrukeriatzat eta itsusitzat joko dira.
- Kondena eta errepresioa gertatuz gero ondorioa jokabidea etetea edota norberaren buruaren irudiaren ezaugarriak desitxuratzea.
- Debekurik egonez gero, ordea, debekua hori urratzeko bulkada eta debekugilearen aurkako matxinada datoz.
- Matxinadak dituen irtenbideak: bestearekin etetea eta mendekotasuna edo bestela errua.

Hurrengo lerroetan azalduko duguna gurasoei zein hezitzaileei zuzendurik doa, debekua ezartzeko unean ongi hausnar dezaten zer egitekotan diren. Debekua eta zentsura jokabideak ez dira, ezta inondik inora ere, uste izaten den bezain jokabide errugabe eta ondorio gabekoak. Eta zer esan zigorrei buruz, larriagoak direla baino.

8. ERAKUSKERIAZKO ETA LOTSIA JOKABIDEAK

Debekua eta zentsurak oso hedaturik dagoen uste horrexetan oinarritzen dira, alegia, haurren gizarte- eta moral-heziketan mugak beharrezkoak direlako ustean. Zeren eta, esan ohi denez, berezko jokabideak gidarik gabe sortzen direnak izanik, horiei mugak jarri ezean giza aberea jokabide-nahasmen mugagabea baldin izango bailitzateke. Haatik, orain arteko azalpenetan behin baino gehiagotan aipatu eta garatu dugun gaia da haurrek gizarte arauak ikasteko dituzten bide egokiak zein diren.

Haurrek ez dute besterik behar gara daitezen uztea baino, euren saiakeretan lagunduz eta giro zibilizatuez informazio emanez, giro horiek gizakiak sortuak izanik giza-aberearen jatorrizko eboluzio-ingurumartik guztiz urrun daudenak baitira. Haurrek eurenari euren erara ekinez ikasten dute, banan-banan, entsegu pertsonalen bidez alegia. Hori horrela dela rol jokoek erakusten digute, adibidez.

Haurrek euren konfiantza izatea behar dute. Halaxe joango dira jokabide operatzaile eta egiteko modu berriak ikasten eta bakoitzaren arma-multzoan pilotzen. Pausoz pauso eraikitzen da, ez beste inola, egiteko modu instrumentaletan eta gizarte ekintzetan behar diren gaitasun sentimena.

Heziketaren arloko talde-jokoetara joz, horietan erasotzaile, bahitzaile edota suntsitzaile ari direnenganako mehatxuek eta zigorrek jokabideok eragozte eta portaerak hiritartzea erdiesten badute ere, ez dute inola ere haurren barne munduko oldarkortasuna eta herra edo korkomia desagerrarazten.

Haurrari etxekoek antzeman ez dizkioten gaitasunak antzematearen aldetik ere eskolak zeregin garrantzitsua bete dezake, gaitasunok balioetsiz baldin eta etxean balioetsiak izan ez badira. Nolabait esan, eskolak konpentsazio rola joka dezake. Antzematea eta konpentsatzea, horra haren ardura eta zeregina.

Etxekoek haurraren gaitasunez eta gaitasunon balizko ondorioez duten ikuspegia aldaraztea ere garrantzizkoa da. Beste begirada bat behar da. Haurrak heziz, eskolak, gurasoak ere hezteko modua litzateke. Haur eskolako gelan gurasoak sartzeak badu bere funtzio osagarria, alegia, beren umearen gaitasunak erakustea horiek duten balioaz ohartaraztea. Haurrek gurasoen begietan balioetsiak direla ikusteak, horrek, zalantzarik gabe, beren burua baliozko ikusarazten eta buru-estimua hazten laguntzen die.

Konfiantza berresteak hazten laguntzen du. Haziko bada, hazi, haurrak ezinbestekoa du berreste hori.

Adibidez, bigarren umea jaiotzean etxeko adinekoen aditasuna eta arreta txikiarengana zuzentzen dira-eta, horra ume nagusia bere burua deigarri egiteko ezinbestez garatu behar dituen portaerak erakusten: erasoaren bidez arreta eskatzen, matxinatzen, arauak urratzen, mendekati bihurtzen, bere burua ezkututzen eta beste. Haatik, ez da hori izaten haurrok eskolan erakusten duten portaera ez da hori izaten eta, beraz, irakaslearen begiradak konpentsazio lana

bete lezake. Horrela bada, gero irakasleak gurasoei beren umearen portaera eskolan etxekoan izaten duenaren aldean beste bat dela diotsenean gurasook seme edo alabaren balioaz ohartzen dira, balioetsi egiten dute-eta, ondorioz, haurrak berak ere bere burua baliozko ikusten du eta estimuak gora egiten dio.

>> 5. ARIKETA PRAKTIKOA

Atal honi ekin baino lehen eduki kontzeptualen aurretik aurkeztu zaizkizun hasierako galderak eta horiei emandako erantzunak berrikustea komeniko litzaizuke. Berrikusketa honek erabat zuzenak ez liratekeen erantzunak birplanteatzea du helburu.

Bigarren gogoeta honek landutako edukiak eta horien ondorioak hobeto barneratzen eta mamitzen lagunduko dizu, ziur. Lan hori egindakoa segi ezazu irakurtzen eta jakin ezazu zein den ataltxo honetan luzatu gura dizugun erronka!

Ekiozu zure egunerokoa idazteari, aste betez bederen, eta jaso itzazu ikasleetarikoren batzuek erakuskeriazko edota lotsazko jokabideak garatu dituzten uneetako zenbait. Saia zaitez jokabideok motibatu dituen emozioa zein izan den eta ekintzaren ostean ere zein emozio geratu den igartzen eta ezagutzen. Sentimenduak hitz egokiaren bidez (tristura, poza, ...) identifikatu beharko zenituzke.

Azkenik, komenigarria litzateke haurren unean uneko premiei erantzutearren izan dituzun esku hartzeak zertan izan diren, hots, identifika itzazu aipatu haurrei egin dizkiezun begiradak.

Hurrengo astean berrikusi ezazu egunerokoak bildu duzuna, atal honetan ikasi duzunaren argitara berrikusi ere, eta hausnar ezazu zein izan litezkeen sar zenitzakeen aldaketak.

Erabil ezazu hirugarren aste bat aldaketa horiek egiteko eta emaitzak baloratzeko. Zer aldatu da? Zer besterik alda zenezake zure egiteko moduetan, zure praktikan?

fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok

9

BERDINKIDEEN ARTEKO JOKABIDEA

BERDINKIDEEN ARTEKO JOKABIDEA

>> 1. HELBURUAK

Atal honetan azaltzen ditugun lan eta irakurketak jorratuz erdietsi nahi diren helburuak hurrengoak dira:

- Berdinkideen arteko jokabide ezberdinak identifikatzea.
 - helburu lotura ezartzea duten afiliazioa jokabideak, haurren.
 - helburu lotura ezartzea duten disrupzio jokabideak, haurren.
 - jokabide horietako batzuetan eta bestetan eragiten duten aldagarriak ezagutzea.
 - hezkuntzaren arloko inplikazioak berdinkideen arteko jokabidearen ezaugarriekikoan.
- Berdinkideen arteko jokabideetan ager daitezkeen profilak ezagutzea.
 - profilak zehazteko orduan erabili ohi diren item-ak.
 - profilen taiueran eragina duten aldagarriak.
 - profileen hezkuntzarekikoan dituzten inplikazioak.

>> 2. EGOERA

Miren eta Leire irakasleen gelan elkartu dira. Miren kezkatuta dabil. Aurten HHko 2. urteko gelan hasi da talde berriarekin eta bere taldeko dinamika oso atsegina ez dela iruditzen zaio. Erasoak eta gatazkak bideratzen ematen du egun osoa. Ez daki zeren ondorioz sortu den giro hori taldean. Hala ere, ziur dago berak zerbait egin dezakeela giro atseginoago bat izateko, erasoei aurre egiteko, baina zer?

Leire: Ei Miren, zelan? Zelan zabiltza zure gelako umeekin? Hobeto? Zu ez kezkatu gehiegi, bai? Hori taldeen araberakoa ere izaten da. Batzuetan zortea daukagu eta talde politak eratzen dira, baina beste batzuetan ez dakit zergatik, taldeak gatazkatsuak izaten dira.

Miren: Ni horretaz ez nago hain seguru... zortea dela uste duzu?

Leire: Ez dakit neska, zeren ondorioz izango da ba? Guk alde zurretik umeak ez ditugu ezagutzen eta...

Miren: Irakurtzen ari naizen liburu hau ez dator bat zuk aipatu duzunarekin... Hemen aipatzen du umeen ezaugarriak jakiteak garrantzia daukala adibidez taldeak egiterako orduan, gatazkak aurreikusteko orduan eta gelako giro egokia sortzeko uneetan. Guk hori ez dugu kontuan hartzen baina egingo bagenu beharbada talde politagoak izango genituzke. Zer diozu?

Leire: Nik esperientziatik hitz egiten dizut, liburuak teorian oinarritzen dira baina egunerokoa beste kontu bat da. Esperientziak erakutsi didanaren arabera, zera aitortuko dizut: hainbat umeak beste batzuk erasotzen ditu, erasotzearen. Ume horiek nire ustez gaiztoak dira, eta kito. Hori ezin duzu aurreikusi, ezta kudeatu ere. Adibidez, nire gelan Markelek Zintia erasotzen du inongo arrazoi barik eta inongo helbururik gabe.

Miren: Ez dakit Leire... Zaila egiten zait pentsatzeak umeak maltzurak direla. Beharbada beste faktore batzuk egon daitezke horren atzean. Agian guk ez dugu ulertzen horren zergatia, hori ulertuz gero

Litekeena da zerbait egin ahal izatea eta horrelako egoerak ekiditea. Adibidez, testu honetan esaten du ume guztiarentzako material nahikorik gelan ez izateak eragina daukela gatazka kopuruan. Ume bakoitzak izan duen garapen afektiboak, eta ume batek bestearekin izan duen harremanak ere zerikusia omen du. Nik orain arte, gai honetan ez dut arretarik jarri, baina aurtengo egoera dela eta, uste dut nik pertsonalki eta ekipo moduan, berdinkideen arteko harremanei garrantzia handiagoa eman beharko geniekeela. Ez duzu uste?

Leire: Ez dakit ba... orain arte ez dut uste hain txarto egin izan dugunik baina beharra ikusten baduzu, komentatu iezaiozu koordinatzaileari eta ea berak zer dioen...

Litekeena da zuk ere horrelako egoeraren bat bizi izana, edota zure buruari antzeko galderak egin izana. Eta horrela ez baldin bada ere litekeena da zure hezitzaile zereginaren esparruan noiz edo noiz antzeko zalantza motiboak sortzea.

Hala bada, zer deritzozu aipatu ditugunak aztertzen baditugu, haurren premiei egokitu ahal zaien erantzunen bat bilatzeko edota zein irizpidetan oinarritu behar garen jakiteko?

>> 3. HAUSNARKETARAKO GALDERAK

Adi-adi irakurri behar dituzu ondorengo galderak, eta zure ustez egokiak liratekeen erantzunak orri batean idatzi, erantzunen zergatiekin batera idatzi ere. Idaztea garrantzizkoa da, zeren eta eduki kontzeptualen atala irakurri ondoren zure iritz horiek berriro kontutan hartuko baititugu, atal honexetan azaltzen ari garen marko teorikoaren ikuspuntutik hain zuzen.

- Badira berez eta besterik gabe eman eta banatu egiten duten umeak, ala guztiek dute portaera hori beste inork erakutsi beharra?
- Ba al dira berez aldakorrak diren umeak eta ez direnak? Zer dela eta? Arrazoitu egizu zure erantzuna.
- Bada gaiztakeria hutsez diharduen umerik? Zertan oinarritzen zara? Ba al daukazu adibiderik?
- Zure ustez, ingurumenak (humanoak eta fisikoak) badu portaera baketsu zein gatazkatsuen sorreran zerikusirik? Nola?
- Umearen erreferentziazko irudiaren portaeretan eman daitekeen aldaketa batek umeak duen portaera erudian eragin eta horretan hala edo nola aldaketarik eragin dezake? Nola? Adibiderik bai?
- Uste al duzu haur hezkuntzako ikasgelan sortzen den giroan eragina dutela delako gelan diren umeen portaera-ereduek? Zertan funtsatzen duzu zure uste hori?
- Uste al duzu balitekeela loturarik izatea ume jakin baten ereduaren ea delako umeak egokitzapen aldian bizi izan duen prozesuaren artean? Alegia, eredia eta egokitzapen gaitasuna elkarrekiko nolabaiteko lotura izan dezaketela uste duzu? Zergatik?

4. EDUKI KONTZEPTUALAK

Berdinen arteko jokabideak -edo berdinkideen artekoak- bakanetan baino ez dira etologiaren ikuspuntutik aztertu, adin txikioen kasuetan oinarrituz bederen. Atal honen helburua, hain zuzen ere, berdinkideen arteko jokabideak berrikustea da. Horretarako Montagner (1978, 1988) irakasleak egindako ikerketara jo dugu. Gure ikuspegitik, berdinkideen arteko jokabideak hobeto ulertzeak, horien arabera portaera-profilak zertan diren ezagutzeak, adin txikikoaren jokabide-arkitekturaren hartzen duten lekua zein den jakiteak, eta horren inguruabarrek zenbait profilen eraikuntzan duten eraginaz jakitun izateak, erraztu egin lezakete erreferentziako irudien esku hartzea, horrelakorik behar denean.

4.1. Berdinkideen arteko jokabidea

Gizakumearengan diren berdinkideen arteko jokabideez dugun ezagutza zorretan dago Montagner irakaslearen ikerkuntza naturalistarekin, hein batean bederen. Bada, atal honetan azalduko ditugun gaiak haren lanetan eta argitalpenetan azaldu izan direnak dira. Lan honetarako haren baimena dugu, berriaz eskatua eta halaxe emana.

Hurrengo orrietan azaltzen saiatuko garenak erabateko garrantzia du, hala haurraren gizarte-bizitza zertan den ulertzearen aldetik, nola nagusien bizitza hori endelegatzearen aldetik ere.

Garrantzizkoa da hasiera-hasieratik ohartaraztea ezen lehenengo zati honetan azalduko diren berdinkideen arteko jokabideak berezkoak direla, ez direla ikasiak, eta beraz ez direla dotrina bidez bideragarriak baizik eta hezibidez landu beharrekoak.

Atxikimendu jokabidea oraindik erabat heldu barik delarik, 5. hilea aldera, horra hor esplorazio jokabidea agerturik. Jokabide hori ere garapen bidean doalarik, horra hor, 8.-9. hileen tartean, beldur jokabidea ageri-agerira etorria. Eta bitartean, 7. hilabetearen inguruan, horra umeak beste umeekin lotura sortzeko edota harremanetan sartzeko gogoia ere agerturik.

Afilazioa eta disrupzioa, edo eraso, bi-biak, gizakion zein animalien egitura sozialaren osagarri funtsezkoak dira. Haurrari buruzkoan hain maiz erabiltzen dugun "sozializazio" hitzak, hain zuzen ere, delako egitura hori antolatzerakoan gogoan hartu beharrekoie egiten die erreferentzia.

Gizakiarengan, hala atxikimendu jokabidea nola berdinkideen arteko eraso jokabidea, biak ere biak, lehenagoko historia batetik datoz: haurrak amarekin eta bere hurkoekin izan dituen harremanetatik. Harremanok zein ere izan diren, erabakigarri bilakatuko dira, horietan oinarrituko baitira umeak beste umeekin eta bigarren zaintzaileekin sortuko dituen harreman-motak. Oinarriok harmoniatsuak izan diren, ez diren harmoniatsuak izan, berdinkideen arteko harremanak eta horiek taxutzen dituzten jokabideak ere horrelakoxeak izango dira.

Lotura-jokabideek umearen eta horren guraso irudien arteko loturan izan den edo izan ez den gozotasunean eta txeran dituzte sustraiak eta, beraz, jatorria. Ume baketsuak, hots, loturazko portaerak ageri dituztenak, ama abegikor eta sentikorren seme-alabak izaten dira (Montagner 1988). Haatik, portaera disruptiboak edo lotura eteten dutenak nagusia/umea harreman ez harmoniatsuan abiatuak garaturiko oldarkortasunean dute euren sorburua.

Hala bada, hala filiazioa nola oldarkortasuna, biak ere biak berezko jokabideak dira. Nolanahi ere, umearengan bata ala bestea errotzea loturazko harremanaren nondik norakoaren ondorioz dator.

4.1.1. Berdinkideen arteko jokabideak dituen kategoria funtzionalak

Haurren arteko elkarrekintza espontaneoetan diren unitate funtzionalak banakotuz eta horien genesi ebolutiboa aztertuz abiatu ziren Montagnerren ikerkuntza naturalistak. Horrela eginez, 90 unitate funtzional sailkatu zituen, hots, 1. laukian laburtuak diren horietan. Horretara haur-elkarrekintzaren egiturak dituen alderdi garrantzitsu batzuk ezagutarazi dizkigu. Bada, hurrengo datuak Montagnerrek (1978) burutu dituen ikerkuntzetatik ekarriak dira.

Laukiko unitateak kategoria bitan sailkatu ditugu. Kategorizazioa beheko laukian ageri dena da:

5. Laukia	JOKABIDE AFILIATIBOAK ETA DISRUPTIBOAK
<p>Berdinkideekin lotura sortzera bideratuak diren egintza edota afiliazio jokabide baketsuak</p>	<p>Berdinkideekiko lotura etetera bideratuak diren egintza edota jokabide disruptiboak</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Eskaria • Eskaintza 	<ul style="list-style-type: none"> • Mehatxuak • Jabetzeak • Erasoak • Isolamenduak

Jokabide unitate horiek zein bere aldi espezifikoan ageri dira guztiak, hots, bakoitza berean. Esan nahi baita ez direla aldi berean ageri izaten. Hurrengo taulan erakutsi nahi dena da, beraz, jokabide horietako bakoitzak haur multzo jakin bateko zein zenbatekoa hartzen duen, horien agerreraren kronologiaren arabera sailkatuak.

1. Taula	JOKABIDE AFILIATIBOEN ETA DISRUPTIBOEN PORTZENTAIK				
	<9. hilabete	9.-12. hilabete	12.-15. hilabete	15.-24. hilabete	24.-36. hilabete
Eskaerak	% 27,5	%22	% 12,5	% 15	% 23,5
Eskaintzak	-	% 9,5	% 10,5	% 10	% 7
Mehatxuak	% 12,5	% 13	% 21	% 14	% 17
Jabetzeak	%15,5	%18	% 17	% 11,5	% 9
Erasoak	% 5	% 11,5	% 12,5	% 25	% 18
Isolamenduak	% 39,5	% 26	% 26,5	% 24,5	% 23,5

4.1.2. Lotura sortzen duten jokabideak, edo lotesleak

Tituluak adierazten duen multzo horrexen barruan sartzen ditugu, hala lotesleak diren jokabideak abiarazten dituzten jokabideak, nola mehatxuak zein erasoak desaktibatzen dituztenak ere. Lotura afektiboa eta harreman baketsuak sorrarazten dituzten egintza horietako batzuk soilak eta erraz isolatu ahal direnak izaten dira, esate baterako, irribarrea, laztana edota berezko eskaintza. Beste batzuk, ordea, sekuentzia luzeagoetan kateaturik ageri dira.

4.1.2.1. Eskaria

Eskaria edo eskabidea den kategorian sartzen ditugu “zerbaiten bila” beste umeren batengana edo objekturen batera jotzearekin zerikusia duten portaera guztiak. “Zerbaiten desioa” delakoaren adierazpidea dira horiek.

Kategoria horrextan dira hurrengoak:

- Irribarrea, bestea dagoen alderantz
- Bestearen begirada ekinkortasunez bilatzea
- Besoa zurrundu gabe objekturen bat hatzez erakustea
- Norberaren ardatzean bira egin, dantza egin, zangoak beste norbaiten alderantz bildu
- Begirada, eskua edota bularra beste norbaitek daukan objekturen baten alderantz luzatu eta eskua objektu horrexen aldera aurreratu

Aipatu ditugun mugimenduen asmoak hurrengoak dira:

- Aditasuna edo arreta eskatzea
- Egintzaren batean parte hartzea

- Egoera desiratuaren batera iristea
- Beste norbaitek duen objekturen bat eskuratzea

- **Eragilea**

Eskabideak, gehien bat, konfliktorik gabeko egoeretan azaltzen dira, hain zuzen ere beste umearen bilaketan, edota beste umeak daukan gauzaren baten edo jakiren baten xerka.

- **Azaleratzea eta morfologia**

Eskari portaerak dira, 9 hilabete aurretik bederen, umeek beren berdinkideekin dituzten elkarrekintzetan sarrien edo maizen azaltzen diren jokabideak.

Gero, 15 eta 24 hilabeteen artean hain zuzen, maizago azaltzen dira portaerok, hortxe hasten direlarik eskuaren postura supinoak: eskuak aurrera egiten du plano bertikal eta zeiharrekoan, hatzak besteak daukan objektuaren aldera egiten duen aldi berean.

Eskaria, 24 eta 36 hilabeteen tartean, gero eta konplexuago bilakatu da, zeren eta lotesleak diren beste jokabide batzuekin batera azaltzen baita. Adibidez:

- Burua bestearen lepo gainera makurtua
- Begiz-begiko kontaktua, jesarrita nahiz zutik egonik
- Hitzez lagundurik

Bizitzako 3. urtean barrena eskabideak loturazko portaerak bezala ageri dira, oso-oso argi. Portaerok hurbiltasuna, ukitua eta elkarrekintza ahalbidetzen dituzte, ez baitira huts-hutsik besteak daukan objektuan gauzatzen den eskaerara mugatzen.

- **Erantzuna**

Objektuak eskatzeari dagokienez, behin sekuentzia (eskuz eskatzea, burua eta bularra makurturik) buruturik, behatu diren kasuetako %55 kasutan eskariak eskaintza ekarri du.

Eskari bidez eskaintza eragiteko gaitasuna edo ahalmena hurrengo aldagarri edo faktoreen arabera da:

- Eskariaren mugimendu sekuentziaren morfologia: Eskaria ez du inolako bat-bateko keinuk, mehatxuk edota susmok kutsatu. Bestela, eskua bat-batean aurrera luzatzeak, harrapatzeko ahaleginek eta horrelakoek gaitzespena dakarte kasuen %85ean. Beste modu batez esanda, erasorik gabeko eskaintzari eta trukeei oztopo zaie eskatzailearen portaerak jabetze edota erasotze keinuz kutsaturik agertzea.

- Eskatzailearen eta beste umearen arteko lehenagoko trukeak: Baldin eta objektua daukan beste ume baten ondora abiatzen den artean gorputza balantza mugimenduan badoa, besoak kulunkan, burua albo baterantz eta gero hatzaz objektua seinalatuz baina hartu gabe hura eskatuz, eta halako batean hurreratzeko ahalegina egin, kolpetxoak jo horren ostean burua eta bularra doi-doi makurtuz objektuaren bila gorputza ere makurtzen badu, horren guzti horren erantzuna bestearen eskaintza izatea oso litekeena da.
- Eskatzailearen profila eta eskatuarena: Biek ere biek funtsezko rola betetzen dute eskaintza zein elkartruke baketsua eragiteari dagokionean.

Batzuetan, aldiz, eskaeraren sekuentziak gaitzespena edo, bestela, erantzun zehatzik eza eragiten du. Horrelako egoeretan umeak hurrengo moduetako batez erantzun dezake:

- Bakartuz, edo isolatuz
- Mehatxu eginez
- Desiratzen duen objektuaren jabe eginez edota eskaria egin dion umeari zein beste edozeini erasoak zuzenduz

Erantzuna, jakina, eskatzailearen profilaren, horrek eskatutakoarekin duen harremanaren eta biok berriki bizi izan dituzten gertaeren nondik norakoaren arabera izango da.

4.1.2.2. *Eskaintza*

Berdinkideen arteko loturak duen ikur-egintza eskaintza da. Horren ondorioak askotarikoak dira, eta horietan oinarritzen dira gero haurren eta nagusien arteko harreman harmoniatsua. Hala haurren nola nagusiengan eskaintzak loturak ezartzen eta berrezartzen ditu, baketu egiten du eta emozio ekaitzak baretzen laguntzen du.

• **Eragilea**

Eskaintza jokabidea pizten duten eragileetako batzuk honez gero aipaturik utzi baditugu ere, egintza hori eragin dezaketeko egoerak bildu ditugu hurrengo lerroetan:

- Eskaintza edo oparia haurraren, txera eragiten dion beste haur batekin aurrez, sortzen den portaera da
- Eskaintza beste haur batekiko harremanaren bilaketan ere sortzen da, harekin kontaktuan sartzeko modutzat
- Oparia eskariari emandako erantzuntzat ere sortzen da

• Azaleratzea eta morfologia

Eskaintza eskaria baino beranduagokoa da. Eskaria 9 hileak bete aurretik ageri den bitartean eskaria behin adin horretara iritsi ostean dator.

Eskaintza ez da beti benetakoa izaten, batzuetan itxurazkoa baino ez baita izaten. Esate baterako, haurrak bere janzkien artean zerbait bilatzen duen itxurak egin ditzake eta gero hori besteari ematen dion keinua egin, edota mahai gainean ogi apurrak bilatzen dituen itxurak egin eta besteari ahora eman, kasu bi aipatzearren.

Egiazkoa izan, itxurazkoa izan, kontua da eskaintza dela gizakiak dituen lotura-egintzetariko eraginkorrenetakoa.

• Erantzuna

Adiskidetasunezko harremanak ezarri eta berrezartzearen aldetik opariak lehen mailako garrantzia duen rola jokatzen du. Eskaintza jokabidea, ordea, 3. urteaz geroztik hasten da gizataldearekikoan erabat eraginkorra izaten.

Opariaren edo opa egitearen itxuren bitartez:

- Bere bizitzako 2-3 urteen artean dagoen haurrak beste haurrek bera hor dagoela onartzea eta horiekin kontaktuan sartzea erdiesten du
- Egintza oldarkorren ostean etendako harreman edo kontaktua berrezartzea erdiesten du umeak
- Umeak mehatxu jakin bat bideratuz delako mehatxua eraso bilaka dadin ekiditen du
- Umeak beste ume batek bizi duen emozio-galera baretzea erdiesten du, baita kontsolamendua eskaintzen duen umea besteak bizi duen galeraren eragilea denean ere. Lehenak bestea baretzeaz gain beste hori berriro elkarrekintzan sartzea erdiesten du
- Umeak trukeak ugaltzea eragiten du eta, beraz, umeen artean gauzen jarioa areagotzea erdiesten dut. Eskaintza hainbat objekturen trukearen euskarria da. Eskaintzak elkarri opari egiteko giro aproposa sorrarazten du
- Eskaintzak txerazko eta imitaziozko harremana sortzen du eta elkarlaneko egintzak eragiten ditu

Orain arte aipatu duguna gogoan, eskaintza ume txeratsu eta baketsuei dagokien ezaugarri propioa da. Hala bada, uste izatekoa da jokabide hori ume erakargarriaren izaeran eragin handienetakoa dutenetakoa dela.

4.1.2.3. Beste filiazio jokabide batzuk

Eskari eta eskaintza jokabideaz gain badira loturazko eta bakezko beste jokabide batzuk ere. Montagnerrek (1988) hauteman eta sailkatu zituen lortura harremanak ugariak dira. Hala nola, irribarreak, laztanak, eskutik oratzea, lepoa besoaz inguratzea, burua bestearen bizkaraldean etzatea, burua eta bularra alboz makurtzea, soinaren goialdeaz balantza edo kulunka egitea, norberaren ardatzaren inguruan bira egitea, kolpetxoak jotzea eta zangoak zenbait aldiz tolestea.

- **Laztanak**

Laztana gorputzaren bidezko komunikazio egintza da, eta bestearen zaintzazkoa ere bai. Berdinkideen arteko txera adierazten du eta harremana ezartzen indartsu laguntzen du. Harlowek (1958) dioen bezala, ukitzea maitatzea da.

Izaera berekoa dira ondorioz gorputza ukitzea ekartzen duten beste zaintza bide guztiak ere. Era horretako portaerak ume baketsu eta harremanetan sartzeko joera nabarmena duten haurrengan ematen dira.

Laztanak zerikusia du beste egintza batzuekin ere, hala nola, kokotsean zein masailean hatz bat edo gehiago pausatzea, edota kokotsa eskuaz hartzea.

Laztanei gagozkiozlarik eta 0-3 urte arteko umei mugatuz, horrelakoak ume baketsuengan antzeman izan dira, gehien bat erasoak jaso berriak ziren umeengana zuzenduak. Kasutako erdi batean laztanak negarrak isilarazteko gai izan dira.

Laztanetako portzentajea txikiagoa izan da erasoren baten ondorioz isolaturik ziren umeengana zuzendutako laztanena, edota isolaturik egon ohi ziren umeengana zuzenduak. Lehenago isolaturik egon eta laztandua izan den umearen erantzuna izan da: edo irribarrea, edo zerbait erakustearren besoa luzatzea, edo zutitzea eta laztan egin dion umeari jarraitzea.

- **Musua**

Laztana bezalaxe musua ume baketsu eta harremanetako joera dutenen ezaugarria da batik bat (Montagner 1988).

- **Eskutik oratu, lepoa besoaz inguratu**

Egintza horiek sarri askotan beste bakezko egintza batzuekin batera ageri izaten dira. Irribarrea, soinaren goialdea kulunkatzea eta burua eta bularra biak makurtzea dira egintzotako batzuk.

Maiz gertatzen dena, bestalde, lider profila duen haurren batek objekturen bat kendu diotela-eta negarrez edota intzirika dabilen beste umeren bati lepoa besoaz inguratzea. Umea eroso jaso duena baretu egin ohi da, eskutik hartu eta segundo batzuen buruan.

Gertatu ohi da, baita ere, ume baketsuak eskutik oratzea bakarturik edo isolaturik eta ahoan hatz bat zein gehiago sartuta dagoen umeari, zein oztoporen batekin aurrez aurre dagoen umeari ere. Gehienetan bigarrenak berehala onartzen du lehenaren hurkotasuna eta kontsolamendu eskaini dion horrexeri jarraitzera abiatzen da.

Aipatu ditugun portaerok, ordea, askoz eta ohikoagoak dira haur hezkuntzako bigarren zikloan lehen zikloan baino.

• Burua bestearen bizkarrean etzanda utzi

Portaera hau taldeko beste umeekikoan aurrez isolaturik egondako umeengan antzeman dira gehien bat.

Portaerok ume baketsuengana zuzenduak izan dira, kasu guzti-guztietan. Hori dela eta, ulergarria da truke horien ezaugarria izatea ez mehatxurik eta ez erasorik agertu ez izana.

Burua bestearen lepoan etzanda utzi duen haurrak beti-beti hartu izan duen erantzuna irribarre, era bereko jarreraren bat edota opari edo hitzen bat izan da.

• Burua eta bularra alboz makurtu

Burua eta bularra alboz makurtzea den portaera gehienetan ume baketsuengan ageri da, eta isolaturik egon zein negarraz ari diren umeengana zuzendua izaten da. Portaera hau sarri askotan bakezko beste egintza batzuekin batera ageri da eta inoiz ere ez mehatxu edo erasoekin nahasturik.

Portaera hau bere horretan soil-soilik zein beste keinu batzuekin batera ager daiteke. Horien artean dira, besteak beste, irribarrea, burua zein soineko beste atalen batean ukitzea eta esku batez bestea joz txalo egitea.

Burua leporantz makurtzeak eta burua eta bularra alboz makurtzeak erasorik gabeko, hots, bakezko harremana eragiten edota indartzen dute, baldin eta aurretiaz jabetzeren (beste ume bati daukan objektua kentzea) bat izan ez bada. Horixe da beti gertatzen dena, eskaria luzatu zaion umea negarrez edo berriki erasoren bat jasan duena izan ezik.

Burua eta bularra alboz makurtzeak berehala izaten dituen erantzunak baketsuak izaten dira:

- Umeak irribarre egiten du
- Umeak hitz egiten du (dioena ulergaitza da gehien bat)
- Umeak eskaintza onartzen du (baita jakia bada ere)
- Umek onartu egiten du berak eskuetan edo aldean izan duen objektua hartzea
- Umeak besoa luzatzen du, noranahi, igorlea dagoen aldera izan ezik

• **Soinaren goialdeaz balantza edo kulunka egitea**

Portaera hau isolamendu aldi luze zein bat-batekoren baten ostean ager daiteke. Haurra talderantz egiten du, talde horreketan delarik bera mendea hartu duen beste umea, edo bestela berarekin harremana izan ohi duten umeengana hurreratzen da.

Balantza egitearekin batera sarritan soinaren goialdea kulunkatzen du eta zenbaitetan aho-hotsez, txaloz eta oinen plisti-plastez lagundurik azaltzen da.

Aipatzen ari garen jokabideok gehienetan ez dute mehatxua ezta erasoia ere beren ezaugarrien artean. Erantzunik ohikoenak hurrengoak dira:

- Irribarreak eta antzekoak, eta ondoren opari handiren bat ematea
- Behin bere isolamendurik irtenda umea balantzaka doalarik besteek hura imitatu eta jarraitu egin diote kasurik gehienetan

Ume batek balantza egiteak besteengan onarpena, erakarmena, jarraipena eta baketzea eragiten ditu. Hori hain da nabarmena, balantzaren bidez haur jakin batek beste batek daukan edo darabilen objektua eskura baitezake, mehatxu edo eraso bat ere eragin gabe. Horrela bada, badirudi balantza egiten duen umea askoz erakargarriagoa dela besteen begietara, baita aldakorrak diren horien begietara ere.

• **Norberaren ardatzaren inguruan bira egitea**

Zenbaitetan portaera hau entzuten ari den musikari erantzunez azaltzen da. Portaerak hutsala ematen badu ere, batzuetan mehatxuak ekiditeko estrategia eraginkorra izan daiteke. Hala nola:

- Mehatxatua, arbuaiatua edo erasota izan den umeak, ikusirik erasotzailea bere alderantz datorrela edo oraindik hurbilean duela, bere ardatzaren inguruan bira egin dezake
- Norberaren ardatzaren inguruan bira egitea ume baketsuen artean azaltzen da. Objektu baten jabetzagatik lehian parte hartu ostean

lehia horrextan parte izan diren besteen aldera itzultzean hain zuzen

- Umeak beste ume bati eraso edo mehatxu egin ostean bere ardatzaren inguruan bira eginez ekidin egiten du erasota izan denak berari erantzun berbera ematea

Hala bada, norberaren ardatzaren inguruan bira egiteak, hots, gorputza bihurtzeak, eraso desaktibatzen duela esan daiteke.

- **Kolpetxoak jo**

Jesarrita nahiz zutik egonik beste umearen buruan edo besoan kolpetxoak jotzea, aldi berean irribarrea edo bestela burua alborantz kulunkatuz. Horrela bestearengan irribarrea eragin ohi da, baita ere imitazioa, eskaintza, buruaren eta bularraren kulunken hurrenkera bat edo burua astintzea.

Nolanahi ere portaera hau haur txikiagoek edota berriki erasoaren bat pairatu duten umeek benetako mehatxua balitz bizi izaten dute.

- **Beste batzuk**

Beste haur bat edo gehiago aurrean izanik zangoak zenbait aldiz tolestea, lepoa emanez alde egitea objekturen bat astinduz, edo buruaren gainean zein aurpegian jarritz. Sekuentzia horiek guztiek berdin-berdin eragin dezakete irribarrea zein imitazioa. Gehienetan, portaerok dituen umea jarraitua izaten da.

4.1.2.4. Hezkuntzaren aldetiko inplikazioak

Azaldu berri dugun legez, loturazko eta bakezko portaerei emandako erantzunak, funtsean, egintza zenbaiten elkar kateatzeen sekuentziak dira eta, sekuentziok, ikusi dugun bezala, adiskidetasun giroa sorrarazten dute, hala horien protagonista izan denaren aldetik nola hartzaile diren edota inguruan diren beste umeen aldetik. Hutsalak itxuraz, gakoa dira komunikazio baketsu eta adiskidetasunezkoari dagokionez. Labur esanda, horien bidez elkar ulertze eta harmoniazko giroa sortzen da.

Aipatzekoa da, beste behin ere, azaldu berri ditugun portaera guztiak berezkoak direla, berezkoak diren legez ondoriozko erantzunak. Ez dira portaera ikasiak eta, beraz, ez dira dotrina bidez langarriak, heziketaren bidez lantzekoak baizik.

Esan nahi baita ez dagoela “umeari eskaintzen eta eskatzen irakasterik.” Horrela egiten duenak ez bide daki hala eskaintzea nola eskatzea gizakiari

berezko zaizkion portaerak direnik. Hots, ez direla ikastearen edo ez ikastearen araberakoak. Egintza espontaneo izan liteke, edo bestela helburu bati buruzkoa (zigorra saihestea, onarpena erdieste, ...), baina ez modu espontaneo edo naturalez. Baretasuna eragiten duten jokabideok irakasteko ahaleginak hezle lanetan saiatzea litzateke, eta horrek naturala denari darion edertasuna hondatuko luke, zeren eta aipatu ditugunak berez sortzen dira alaia eta txeratsua den umearengan. Eskuzabaltasunaren lanketaren funtsa umearen zaintzan datza, hark dituen txera eskariei erantzutean alegia. Jokabideok lantzeko bidea erreferentziatzko irudien sentikortasunak egiten duena da.

4.1.3. Jokabide disruptiboak, edo lotura afektiboa eteten dutenak

Berdinkideen arteko lotura etenarazten edo etenarazteko joera duten egintza edo jokabideak hurrengoak dira:

- Mehatxuak
- Erasoak
- Jabetzeak
- Isolamenduak

Hurrengo, mehatxua eta eraso zertan diren azalduko dugu. Bakezko sekuentziaren batean jokabide horietako osagarriren bat txertatuz gero (eskabidea, kolpetxoak...) ezerezean geratzen da sekuentziaren balizko erakargarritasuna. Horiei sekuentzia bitariko edo anbiguo irizten diegu, zeren eta horietan batera azaltzen dira lotura urratzen eta lotura ezartzen duten jokabideak. Komunikazio harmoniatsuen adibiderik enblematikoena den eskaintza ez da, inondik ere, jokabide anbiguoetan azaltzen.

4.1.3.1. *Мехатхиа*

Umea haziagoa eta mehatxua hobeki deskodifikatzen du, ulertuz baitoa portaera hori oldarkortasuna barik beste zerbait ezberdina dela. Honek argiro erakusten digunez, mehatxu portaeren zeregina funtsezkoa da konfliktuak eta lehiak erregulatzearen aldetik.

Mehatxu portaerak oso maiz azaltzen dira 15 hilabeteak artean, gehienetan ahoskatuaz azaldu ere. Hala ere, "hutsean" azaltzen dira, hau da, tartean inongo beste umetik elkar ekintzarik izan gabe. Adin tarte horretan badirudi umeak batetik mehatxu portaerak eta bestetik eskaintzak, eskariak, ihesak eta negarrak tartekatzen dituela. Horrela bada, umeak, hara eta hona ibiliz, bere jokabideen sortako mugimendu ekintzak entseetzen dituela ematen du.

Mehatxu portaera erabat bereziturik 15 hilabeteen ostean azaldu ohi da, baina gatazketan eta lehietan baino ez.

Mehatxu sekuentziak gero eta berezituagoak dira beste jokabideen aldean, batik bat jabetze eta erasoekikoan. Honek mehatxuari erasoak ez duen beste esanahi bat eransten dio.

• **Eragilea**

Esan berri dugun legez, mehatxua, 15 hilabeteak baino lehen bederen, hutsean azaldu ohi da, edozein elkar ekintzetatik kanpo. Horren ostean portaera gero eta espezializatuago bezala azaltzen dira.

Aipatu espezializazioaren ezaugarriak hurrengoak dira:

- Mehatxu sekuentzia ez soilik objektu edo egoeraren baten defentsa gisa, baizik eta beste umeren baten defentsarako ere
- Erantzun gisa ere azaltzen da, nahiz dela norbaiten mehatxuari erantzunez, nahiz dela erasotzeko asmoz hurbiltzen ari den umeari erantzunez, nahiz dela subjektuari min eman berri dion norbaiti erantzunez
- Umeak, estropezu eginez adibidez, min hartu duenean ere azaltzen da. Horrelako egoeretan mehatxua minaren sorburua den objektuari zuzentzen zaio, bestela beste umeren bati. Azken kasuotan eskuak astintzea edo besoa aurrerantz luzatzea, ahoa zabaltzea eta bokalizazioa baino lehen azaltzen da
- Lehia egoeretan, ordea, aski izaten da umeetako batek burua zein bularra beste umeak daukan objektuaren aldera behin mugitzea, objektua daukan horrek mehatxu sekuentzia erakutsi dezan
- Konfliktu zein lehiaren batetik irten berria den eta objektuaren baten edo bestela bestearen egoeraren baten jabe egin nahi den umearen kasuan ere era berean ematen da sekuentzia hori
- Zenbaitetan mehatxua beste ume batengana joan daiteke, hala nola hezitzaileak errieta egin berri dion ume batengana edo gauzaren modu zaratsuan jausten utzi duen beste batengana

• **Azalera eta morfologia**

Mehatxu egintza umearengan 14-17 hilabeteen artean azaldu ohi den mugimendu sekuentzia jakin batean abiatzeko erakitzen da. Sekuentzia horretan umeak bularra aurrera ateratzen du, bat-batean, eta aldi berean oihu ozena askatzen du, ahoa zabal-zabalik.

Azaldu dugun mehatxu sekuentziaren maiztasuna urrituz doa 28 eta 36 hilen tartean. Adin horretako sekuentzia bereizgarrienak hurrengoak dira:

- Hatzaz erakutsi, besoa luzaturik
- Besoa mehatxuaren jomuga den umearen aldera goratu, luzatu edo astintzea
- Begirada tinkoa besteari, hortzak estututa eta bekozko ilunez, eta kokotsa bularrean paraturik

Azkenik, ohartaraztekoa da baita ere ezen lehiak eraso bortitzik eragiten ez duenetan ez eta halako konflikto gogorrik ez dakarrenetan, hots, tartean erasorik ez baldin bada, ahoa ez dela hain nabarmen zabaltzen, bokalizazioak ahulagoak direla eta besondoa gora egin bai baina ez dela hain luze luzatzen. Honelakoetan mugimendua motelduz doa, harik eta umearen eskuak beste umearena ukitu arte.

• Erantzuna

Gorago esandakoa berretsiz, umeek gero eta hobeto dakite mehatxu sekuentziak deskodifikatzen, eraso jokabidetik bereizten eta abisu jokabidetzat hartzen. Diogun hau argiro islatzen da 2 eta 3 urte arteko umeengan, zeren eta behin adin horretara iritsirik mehatxuak eta eraso egintzak gero eta bakangoetan hartzen dira elkarren berdintzat.

Gelako giroari dagokionean bereizten jakite horrek funtsezko zeregina izaten du. Mehatxua abisutzat hartzen jakinez gero umeek badute eraso zuzenak ekiditeko aukera. Horrela bada, talde barruko hausturak ere bakanagoak izango dira.

Mehatxuak eragiten dituen erantzunen artean ohikoenak hurrengo biak dira:

- Ihesa, bestela beldurra, eta horren ondorioz bertan behera uztea umeak egiten jardun izan duena edo egin asmotan izan duena Funtsezko zeregina dute konflikto eta lehien erregulazioaren aldetik
- Erasoa. Eraso erantzuna maizago ageri da beren portaeren multzoan bakezkoak edota eskaintzazkoak urriagoak dituzten umeengan

Aipaturikoen artean haurrak zein hautatuko duen, hori, umearen profilaran eta beste berdinkidearekin lehenago izan dituen bizipenen mende joango da.

4.1.3.2. Erasoa

Ondo frogaturik dagoenez, erasoa, zeinaren parte baita mehatxua, berezko jokabidea zaio homo sapiens delakoari eta, ondorioz, unibertsala da horren presentzia. Esan nahi baita eraso jokabidea gizakiarengan beti dagoela

hor, ihes edo beldur jokabidea hortxe dagoen lege berean. Batetik bestera aldatzen dena, ingurumariaren ezaugarrien arabera aldatu ere, jokabideotako bakoitzak umearen jokabide-nortasunaren arkitekturan hartzen duen lekua eta daukan indarra da.

Montagnerrek berak (1978) erasotzat jotzen ditu negarra, isolamendualdi luzeak eta kontsolamendua zaintzailearengan bilatzea eragiten dituzten portaera guztiak.

• **Eragilea**

Montagnerrek berak dio, baita ere, ezen animalien etologian behatu denaren aldean (Lorenz, 1963) gizakion kasuan ezin dela "estimulu askatzaileak" delakoaz hitz egin, erasoaz azaltzearen alde egiten duten egoerez baizik.

Erasoak, mehatxu hutsak legez, hurrengoetan ager daitezke:

- Umeak arbuioa jaso duenean, edo egin dituen eskariak erantzun gabe lotu direnean
- Zenbait minutuz isolaturik egon ostean beste umeren bat edo hurbilago hurreratu edo bat-batean etortzen zaionean
- Negar oso nabarmenek ere erasoak zein kolpetxo motelduak eragin ditzakete
- Objektuarekikoan lehia eragiten duten egoera ia-ia guztietan. Askoz eta ohikoagoak dira objektuen kopura urria izanik objektuok oso erakargarriak direnetan

Lantzean behin umeez itxuraz ezertara ez datozen halako erasoaldiak izaten dituzte, ageriko motiborik gabekoak diruditenak. Umeek beren baitan erasora joarazten dien halako indar bat balute bezala da. Horrelakoetan ageriko egiten da eraso jokabidean badela aktibazio endogenorik (barrutik eraginda alegia).

• **Azaleratzea eta morfologia**

Montagnerren behaketetatik (1988) ondorioztatzen denarekin bat, 15 eta 24 hilabeteen arteko aldian erasoak ez da era nabarmenean azaltzen. Horrela bada, aldi hori erasoaren agirira etortzen ari denekoa da.

Eraso egintzat jotzen diren egintzak hurrengoak dira:

- Hozka egin
- Atzamarka egin
- Nahiz dela masailetan, nahiz dela sudurretan, nahiz dela besoetan, atxiki edota atzamarka egin

- Besteari oratu, tiratu eta behera eraitsi arte horrelaxe eutsi
- Bat-batean bultza egin
- Kolpe sendoak jo, oinekin, besoz edo eskuz, esku hutsik nahiz honetan objekturen bat erabiliz

- **Erantzunak**

Erasoak eragin ohi dituen erantzunak hurrengoak dira:

- Eraso
- Birbideratzea edo birorientazioa: Umea beste ume batekin konflikto egoeran dagoelarik, mehatxatuz zein eraso eginez erantzun lezake, baina mehatxua edo bestela eraso birbideratuz: objektu bati buruz, hirugarren ume bati buruz edo, inoiz, beraren buruari buruz ere. Birbideratzea honela ere azal daiteke:
 - "Hutsean" azalduz, hala nola besoa aurrerantz zein alborantz luzatuz edo objekturen bat edonorantz jaurtiz.
 - Zenbait segundoz eta are minutuz ere atzeraturik. Horrelaxe izaten da ume bik mehatxua elkarrekiko distantzia gordeaz luzatzea hobesten dutenean.
- Bideratzea, edo desaktibazioa: Ihes egiteko aukera oso gaitz dagoen konfliktoetan ume batzuek, batez ere baketsuek, mehatxu edota erasoaren lehen urratsekin aurrez aurre, halako portaera jakin batzuk kateatzen dituzte, horrelaxe desbideratuz mehatxu edo eraso egiten duen beste umearen aditasuna eta, ondorioz, mehatxuak edota erasoak aurrera egitea eragotziz. Portaerok hurrengoak dira:
 - Beste egintza bat burutzea. Horrek mehatxu egiten duena lekuz kanpo uzten du. Adibidez, mahaia bat gora jaso eta gero behera jausten uztea.
 - Burua eta bularra bihurtzea, eta ondoren, edo aldi berean, burua, bularra edota besoak alborantz mugituz.
 - Mehatxu egiten diharduen umeak ukitua izan ondoren buruan zein besoa igurtziak egitea edo kolpetxoak jotzea.
 - Arreta galarazi, hitzen bidez eta besoa beste norabait zuzenduz (baita besoak leku jakinik erakusten ez baldin badu ere).
 - Orain artekoan azaldu ditugun bakezko sekuentzietako edozein: jauzitxoak egin, burua eta bularra makurtzea, txaloak jotzea edo pailazoarena egitea.

4.1.3.3. Hezkuntzaren aldetiko inplikazioak

Aipatzekoa da, beste behin ere, azaldu berri ditugun berdinkideen arteko jokabide guztiak berezkoak direla. Horrek gizakiarengan eraso zein mehatxu jokabidea beti hortxe izango dela esan nahi du. Ez dira jokabide ikasiak

baina, aurrerago ikusiko dugun bezalaxe, umeen nortasunezko jokabideen arkitekturaren jokabide disruptiboek hartzen duten lekua ume bakoitzak familiaren barruan lehenagotik landuak dituen harremanen araberakoa izango da, hein handi batean bederen.

Familiaren barruko giroari eta horretan garatzen doazen harremanei zorrotz begiratuz hobeto uler dezakegu erasoaren jatorria non den eta, ondorioz, jokabideari umearen aldetiko asmo gaiztorik ikusteko tentaziori itzuri egin guk geuk. Hots, umeari gaiztoa edo zitala irizteko tentazioa saihestuko dugu. Bada, ulerturik erasoak gizartearen duela jatorria edo sorburua, umea, berak erabiltzen dituen mekanismoengatik, errudun egitetik libratzen dugu gure burua eta zergatik eta zertarako erasotzen duen ulertzeko gai bilakatzen gara. Bera ere eraso jasana edo mehatxatua izan delako jo dezake erasora, baita ere objektu edo lekuren bat erdiestearren.

Inoren portaera baketsuak besteen portaera baketsuen bidez hobeto lantzen diren era berean, jokabide oldarkorrek eta mehatxagarriek ere horrelakoxe jokabideak indartzen dituzte besteengan. Beraz, garrantzizkoa da norberaren buruari begiratzea, eta hezitzaileak garen aldetik egitea hain zuzen, gure esku hartzeen ondorioez hausnartu beharra baitauekagu. Adibidez, une jakin batzuetan kontsolamendu eske ari den umeari horrelakorik ez ematea, egunari buruzkoan osatu dugun plangintzatik at geratzen diren jokabideak edo gehiegikeriak bortitzegi aurpegiratzea umei, umeren bat zerbaiten errudun eginez zigortzea harekin hitz egin gabetan, horiek eta beste batzuk ere guztiz kanpoko portaerak izatez gainera ondorio txarrak eragin ditzakete, hala nola haurrak gelakideei erasotzea.

Esan ohi den legez erasoak eraso eragiten baldin badu, eta guk geuk ez baldin badakigu gure esku hartzeen bidez umeen premiei egokiro erantzuten, litekeena da umeak eraso egiten diogula sentitzea, horren eraginezko amorrua berbideratzea eta azkenean bera baino ahulago antzematen duen beste umeren bati erasotzea.

Talde gehienetan izaten da erasoak harexengana berbideratzen diren haur jakin bat behintzat. Haur hori nor den erraz antzeman izaten da, gainera. Horrelako haurrak "gelako hauts-trapua" izaten dira. Bada, erasoen mailan gure esku hartzeek izan dezaketen ondorioez ondo jabetu beharra daukagu, zeren eta horiek eragin nabarmena izango baitute, bai erasora eraz jotzen dutenengan zein erasoan jomuga izan litezkeen direnengan ere. Hala erasotzaile etika jarri ohi zainek ("gaiztoek") nola erasotzatu jarri zaien ere ("ahulak"), gainerako haurrek arbuaiatu egingo dituzte. Horren ondorioz erasorako joera areago baina ez zaie egingo arbuaiatuei.

Bestalde esan aipatu erasoen maiztasuna biderkatu egiten dela baldin eta hurrengan erakarmen indar handiena duten eta desiragarri zaizkien objektuen kopurua aski ez bada. Horrelakoetan hurren arteko lehia etorri ohi da, objektu desiratuaren bila. Ondorioz, eta lehia egoeretan azaltzen diren erasoaldiak ekidite aldera, ezinbestekotzat jotzen da, hezitzaileen aldetik, hurrek behar dituzten objektuen kopuruz egokiak izan eta noiznahi eskuragarri egongo direla bermatzea.

Azkenik, aipatu ezen erasorako humorean diren umeengan jokabide bakezaleak eragin nahi izatea ez litzatekeela ezertarako, ez bada haiek bizi duten isolamendu erasokorra maskaratzeko eta, ondorioz, oldarkortasun egoera horren eta adeitasunezko loturarik ezaren kausak zein diren aztertzea eragozteko. Gizalegean hezitako umeak izango genituzke, bai, baina ez ume berez txeratsuak.

4.2. Portaera profila

Atal honetako lehen lerroetan esanda gauden bezala, azaltzen ari garen guzti hau Montagner irakasleak burutu duen ikerkuntza naturalistaren ondorioa da. Orain artekoan azaldu ditugun berdinkideen arteko jokabideak zehatz-mehatz deskribatu izanaz gainera, Montagnerrek berdinkideen arteko jokabideen tipologia interesgarria osatu du. Delako tipologia haurrak oinez hasten direnez geroztikoaz da, hots, umearen bizitzako bigarren urtearen ostekoaz.

Tipologia horren helburua ez da, inondik ere, ume-nortasun guztiei etiketa bana jartzea, ezta ere sailkapenik egitea, zeren eta inguru-egoerak aldagarriak baitira eta ondorioz hori baino askoz dinamikoagoa den zerbait behar da. Labur esanda, haur bakoitzak zein harreman-estiloak garatzen dituen eta aurrerantzean portaera-profilak bezala aipatuko ditugunak erakustea da tipologiaren asmoa.

Montagnerrek burutu dituen ikerketak amarekiko harremanak profilean duen eraginean oinarritu dira. Aitaren eragina ez hain sakonki aztertua izan, zeren eta haren ikerketak haur eskoletan egin zirelarik bakanak baitziren haietara umea ekartzera etortzen ziren aitak. Nolanahi ere, onarturik dago amaren orekari edo egonkortasunari buruzkoan aitaren rola duen garrantzia eta, ondorioz, delako aitak bere umearen orekan edo aldagarritasunean duen eragina ere aitorturik dago.

Montagner gai izan da baita ere hurren profila haien egokiro lotzeko jardura fisiologikoari lotzeko, hain zuzen ere defentsa hormonak, batik bat kortisola, jariatzeko gaitasunari. Beldur jokabideaz mintzatzean esana gauden bezala hormona hori jariatzen duena giltzurrun gaineko azala bada ere, oso erraz bil daitekeena da, zeren eta kortisola hurren listuan ageri baita. Hala bada, kortisola umearen ongizate eta lasaitasun maila zehazki erakusten digun neurgailu antzekoa dugu.

Profilak ezartzeko erabiltzen diren dimentsioak bi dira, funtsean: haurrek eskala hierarkikoarekikoan ageri duten dominantzia edo nagusitasuna eta hark -hierarkiak-berengan duen erakargarritasuna edota herrestarazte indarra. Haur-taldeak gogoko duen leku edo objektu bat haur jakin batek zenbatetan lortzen duen, horrexek zehazten du delako haur horren nagusitasuna. Dimentsio horren ikerketatik kategorio bi eratorri dira, menderatzaileak eta menderatuak hain zuzen, eta horiexen arabera sailkatu ohi dira umeak. Hala eta guztiz ere, haurren erakargarritasuna edo herrestarazte gaitasuna estuki loturik dago haurrek berek egiten dituzten eskaintzei eta erakusten dituzten kateatze baketsuei. Beraz, profilak egokiro zehaztuko badira ezinbestekoa izango da gogoan hartzea aurreko atalean azertu ditugun berdinkideen arteko jokabideak, hots, lotura sortzen duten jokabideak eta lotura urratzen dutenak, edo disruptiboak.

Montagnerrek egiaztatu ahal izan duenarekin bat, izan ere, haurren portaera profila familia-giroari lotua da, eta batik gurasoek haurrenganako erakusten duten portaerari, era oso esanguratsuan gainera.

Horrela, 14-15 hilabetetik 3 urte arteko umeen artean batzuk besteak baino sarriago nagusitzen dira objektu, gozoki eta egoera bat erdiesteko lehian, beti ere askatasunez jarduten utziz gero, noski. Hezitzaileak diskretuki jostailu berriren bat ekarri badu edota txirrista joatera erabakitzen badute, adibidez, ume berberak izaten dira ia-ia beti nagusitzen direnak. Haur talde horretakoei Montagnerrek menderatzaile deritze.

Dominantzia edo nagusitasunaren harira, garrantzitsua da, garrantzitsua denez, oldarkortasunaren eta lorpen edo garaitzen kopuruaren artean erlaziorik ez dagoela nabarmenaraztea. Haur erakargarri askok lehietan inongo eta inolako erasokortasunik azaldu gabe iristen dira objektu zein egoera erakargarriak erdiestera.

Nolanahi ere, edozein umeren erakargarritasuna edo herrestarazte indarra estuki loturik dago haurrek berek egiten dituzten eskaintzei eta erakusten dituzten kateatze baketsuei. Horrelaxe, haur jakin batengan bakezko egintzak sekuentzia heterogeneoetan eratzea eta erasorik bakanetan baino ez azaltzea, ezaugarri garrantzitsuak dira delako haurra erakargarria, imitatu eta jarraitua izateko. Bada, dimentsio hau ondo azterturik hurrengo hiru kategoriak finkatu ditugu, umeen artean: oldakorrak, baketsuak eta beldurtiak. Taldekatu ere, hiru kategorion arabera taldekatu ohi dira umeak.

Esandakoak esan ondoren, hona hemen profilak zehazteko erabili ditugun hiru faktore, alderdi edo eragileak:

- Orain artean azaldu ditugun dimentsioak: nagusitasuna eta erakargarritasuna, edo herrestarazte indarra.
- Honetan zerikusia duten jokabideen maiztasunaren kuantifikazioa, hala lotura afektiboa sortzen duten jokabideena nola lotura eteten dutenena, edo disruptiboena. Jokabide-profil bat atera da jokabide-ordena bion arteko erlazio aritmetikotik, hots, bien arteko zatiduraz:


Bakezko eta loturazko egintzen maiztasuna

Mehatxu+erasoen maiztasuna

Delako zatidurari nagusitasun eta erakargarritasunaren eskalan haurrari esleitu zaizkien puntuazioak erantsiz ezarri denarekin bat, bost lirateke portaera profiletan kategoria behinenak:

2. laukia	Menderakuntza		
Erakargarritasuna edo herrestarazte gaitasuna	Menderatzaileak		Menderatuak
	Oldarkorra	Menderatzaile oldarkorra: menderatzaileak, 1 baino zatidura baxuagokoak.	Menderatu oldarkorra: menderatuak, 1 baino zatidura baxuagokoak.
	Baketsua	Menderatzaile baketsua, edo liderra: 1 baino zatidura handiagokoak.	Menderatu baketsua, edo lider mekanismoak dituen menderatua: 1 baino zatidura handiagoko haurrak. Portaera baketsuen sekuentziak eta loturazkoak nagusi dituzten haurrak. Haurrotako asko denboraren poderioz lider bilatuko dira.
	Beldurtia		Menderatu beldurtia: menderatuak, baina oldar portaeren ordeztuak eta ihes portaerak hartu dituztenak. Isolamendurako joera izan ohi dute.

Portaera zatidura 1 baino gorago duten hurrek, hots, portaera baketsu gehien agertzen dituztenek, 17 OH kortikoidearen jarraitze maila baxuagoa izaten dute 1 hori baino baxuagoa duten besteen aldean, azkenok, gogoratu, oldarkeria edota disrupzio profila dutenak izanik.



Profila 1 eta 3 urteko aldian ezartzen da eta, gainera, garapenean aurrera egin ahala ere horrelaxe irauteko joera izaten du. Datu hau gogoan hartzekoa da, nahiz dela nagusitasunaren dimentsioaren aldetik eta erakargarritasun edota herrestarazte indarren aldetik, nahiz dela baketsuen zein urratzaileen zatiduraren aldetik ere.

4.2.1. Menderatzaileak

Menderatzaileen kategoriaren barruan menderatzaile oldarkorrek eta menderatzaile baketsuak edo liderrak bereizten ditugu. Azpikategoria biok dira sakonago garatuko ditugunak, baina hori pittin bat aurrerago izango da.

Aipatu ditugun azpikategoria horietan sartuak direnez gain, badira menderatzaileen artekoak izan arren 2 eta hiru urteen artean azpikategoria bien artean ez batean eta ez bestean dabilzanak, fluktuatzaileak. Esan nahi baita egun batez edo astebetez lider profila azaltzea eta hurrengoan menderatzaile oldarkor legez agertzeko. Hala bada, delako haurraren erakargarritasuna eta herrestarazte indarra ere gorabeheratsua litzateke.

Haur fluktuatzaileek beren bakezko egintzak eta mehatxu egintzak, guztiak, sekuentzia koherenteetan antolatzen dituzte. Hala eta guztiz ere homogenotasun horrekin txandaka beste portaera batzuk azaldu ohi dira, egun batetik bestera lehengo umea besteri gauzak kentzen edo eraso egiten hasten denean. Nabarmentzekoa da, bestalde, ume fluktuatzaileen amak eurak ere nahikoa gorabeheratsuak zirela beren seme-alabekiko harremanari zegokionez.

Azkenik, beti ere kontutan hartu beharrekoa da ezen haurrok profil oldarkorragora nahiz liderraren profiler a eboluziona lezaketela aintzat familian bizi diren gertaerak noraino diren aztoragarriak (beste ume baten jaiotza, dibortzioa, aldentzea, erreferentziazko norbaiten heriotza eta beste) eta aintzat umearen beraren gorputz aldaketan eragina.

4.2.1.1. Menderatzaile oldarkorrek

Menderatzaile oldarkorren amek haur eskolan azaltzen zituzten jokabideak hurrengoak dira:

- Askotan amak, umea besoetan hartu baino lehen, hezitzaileari zuzentzen zitzaizkion.
- Umearen zain zeudelarik zurrin eta portaera itxian ziren, beren aldetiko bakezko edota eskaintzako egintzak hutsaren hurrengoa zirelarik.
- Beti berantetsiak, beti presaka, gutxi elkartrukutzen zuten umearekin. Eta harekin topo egitean:

- lehenik eta behin eskuak, aurpegia, arropak eta abarrak nola zeuzkaten begiratzen zuten.
- adi egoten ziren, umeek ez zezaten portaera debekaturik izan, hala nola, altzari edo mahaietara igotzea, kristaleko ate batean kolpeak jotzea, ezagunen baten aurrean hari kasu egin gabe igarotzea edo berba arruntegiak esatea.
- Zenbait kateatze oso bakanetan baino ez ziren azaltzen. Adibidez, irribarre egitea (umeak etortzen ikustean), magalean biltzea, musu ematea edo besoetan hartzea. Ume horien amen artean %40 baino ez ziren sekuentzia hori azaltzen zutenak, eta mugaturik, alegia, egun batzuetan baino ez.
- Lantzean behin jokabide zakarra izaten zuten, eta bakezko egintzekin batera gorputzezko nahiz berbazko mehatxuak tartekatzen ziren, hala nola umeari besotik edo zangotik oratzea. Noiz edo noiz erasoak ere gertatzen ziren.
- Sarri askotan erasora jotzen zuten, jo-joz ume txikiaren eskuan, zangoetan, ipurdian eta batzuetan masailetan edota buruan ere.
- Umeek eta amek elkarrekin bakarrik egonez gero, janzteko edo erantzeko, sarri askotan mehatxuak egiten zituzten, hala gorputzaz nola ahoz: umea bat-batean jaso, bat-baten jesarrarazi edota altzarazi eta eskutik edo zangotik indarrez oratu.
- Umearen erantzuna batzuetan behintzat korrika alde egitea izaten zen, ama agertzen zen beste aldera, edo gauzaren bati edo beste ume bati joka hasten ziren. Horrelakoetan amaren erantzuna edo mehatxu errepikatuak edo bestela eraso zuzena izaten zen.
- Ama horiek berdin-berdin jarduten dute, haur eskolan nahiz kanpoan egon. Umeari adi ez daudela ematen duten amak dira. Umeen portaeraz hitz egitean ia beti gogoko ez dituzten alderdiak baino ez dituzte aipatzen, lehenik eta behin.
- Mehatxupean, errieta eginak, bat-batean hartuak edota egurtuak... umeok gelakideekin berriro elkartzean horiei gauzak harrapatzea edota zuzenean jotzea ekidinezina da.

Aipatzen ari garen amen portaeraren zergatien artean faktore-ordena bi bereizi ahal izan ziren:

- Amaren historiari dagozkion faktoreak. Jatorriz ingurumen oldarkor eta gorabeheratsuren batekoak izanik horrek ama ez oso sentikor eta sarkorrak izatera lerrarazi zituen. Atxikimenduari dagokion profilarren aldetik emakume saiheskorak lirateke.
- Umean uneko faktoreak, hurrengoengatik:
 - Senar-emazteen arteko konfliktua
 - Desoreka fisiologikoren bat (eritasuna errepikatuak edota luzeak)
 - Heziketari buruzko kontzeptuak (ama umea estuago hartuz hezi behar dela uste izatea)

- Lan baldintza oso aztoragarriak (egun guztiko erritmo ekinkorra eta programatua, lantegietako langileek, beste profesionalen idazkariek eta horrelakoek izaten dituztenetakoak)
- Bizi baliabideak zein baldintzak oso behin behinekoak edota eta zailak izatea (hala nola, bigarren ume baten jaiotza edo etxez aldatzea)

Gogoan hartzekoa da, azkenik, aita bera ere zakarra, oldarkorra eta amarenganako ez oso prestua zen kasuetan erasoen eta isolamenduen maiztasuna askoz ere nabarmenagoa izaten zen.

• Menperatzaile oldarkorren portaera ezaugarriak

Profil hau ezaugarritzen dutenak hurrengoak dira:

- Eskari portaerak edo bakanak edo hutsaren hurrengoak dira. Edo ez dago erantzunik, edo erantzunak oso iheskorak dira, edo besteen eskariz baino ez dira etortzen
- Eskaintza eta horrelako beste egintza baketsu batzuk, azaltzekotan ere, bakanetan baino ez dira sekuentzia homogeen eta konplexuetan eraturik azaltzen; iraupen laburrekoak izateaz gainera, bahiketa, eraso eta mehatxu egintzekin nahasturik azaldu ohi dira egintzok. Beraz, sekuentzia heterogeen eta anbiguoak dira
- Umeok, 14-20 hilabeteen tartean, ez diete bakanetan baino erantzuten sekuentzia baketsuei eta besteek eskaintzen bidez egiten dizkieten eskabideei
- Mehatxu egintzek ez dute abisu funtzioa betetzen, baizik eta erasoaren batekin batera edo erasoarekin jarraiturik azaltzen dira: mehatxu egin eta berehala erasora jotzen dute, mehatxu egin dioten umearen erantzunaren zain egon gabe
- Ageriko arrazoirik gabeko eraso espontaneoak dira nagusi. Erasoak ohikoak, indartsuak eta errepikatuak dira
- Egun batzuetan erasoekin isolamenduak ere nahasten dira, horiek zenbait minutuz luza daitezkeelarik. Isolamenduak luzeago irauten dute baldin eta erasoaren maiztasunak eta neurriak ere gora egiten badu. Horrelakoetan, menderatzaile erasokorrek atzera egiten du, hatza ahoan edo sudur zuloan sartzen du eta finko begiratzen du
- Mutikoen artean portaera honen maiztasuna neskatuen artean denaren halako hiru da

• Menderatzaile oldarkorren ezaugarri fisiologikoak

Defentsa hormonak jariatzeari dagokionez, menderatzaile oldarkorrek horien tasa altuagoak ageri dituzte beste menderatzaileek baino, hots, menderatzaile baketsuen edo liderren kategorian sailkatu ditugunak baino.

- **Ondorioak**

Ondorioz, ume menderatzaile oldarkorren portaerak:

- Inguruan negar ugari eta isolamendu ugari eragiten du
- Hala bada, umeon portaerak besteen jarduerak desantolatzen ditu
- Ingurukoek asaldatu eta oldarkor irizten diete umeoi

4.2.1.2. Menderatzaile baketsuak: liderrak

- **Menderatzaile baketsuek, edo liderrek, familian izaten duten giroaren ezaugarriak:**

Liderren amak ama sentikorrek izaten dira, hurrengoak izanik horien portaera ezaugarri nagusiak:

- Portaeraren aldetik oso egonkorrak
- Beren portaeraren barruan eskaintzak eta lotura sortzen dituzten egintzen sekuentziak ohikoak, anbiguotasunik gabekoa, berezkoak eta umearen portaerari egokituak ziren
- Ama hauetako %84k umeari harrera egiteko agertzen zuten egintzen kateatzea hurrengoak izaten zen: irribarrea (umea sartzen ikustean), apatz jarri, kokoriko jarri, besarkatu, gozo-gozo hitz egin, besoetan hartu eta hortik aurrerakoak ere horrelaxe
- Sarri askotan ama eta umea elkarri aditzeko egoeran izaten ziren eta elkarri erantzuteko mugimendu zein hitz sekuentziak erabiltzen zituzten, bat ere anbiguoak ez zirenak eta bizi izaten ari ziren egoerarako oso egokiak zirenak, bestalde
- Amak ez zuen umea etengabe bereganatzen: eskabideei adi, erabilgarri zeukan leku guztia askatasunez hartzen uzten zion (jolas guneak, eraikinaren inguruak, e.a.). Labur, ez zuen etengabe bere presentzia inposatzen
- Liderren amen prestutasun maila handiaren adierazpide nagusia, beste amen artean (diogun honetan oso babesleak ziren amak salbuetsirik dira) baino askoz luzeagoak izaten ziren elkartrukeak eguna amaitu ostean
- Mehatxurik (gorputzekorik zein hitzekorik) edo erasorik ia bat ere ez. Bakanetan baino ez zuten umea zerbaitera behartzen eta zartadak ere zenbaitetan mehatxatu ondoren baino ez zituzten erabiltzen (eta ametako batzuen adierazpenak sinestera, batzuek ez zuten behin ere jotzen umea)

- **Menderatzaile baketsu edo liderrak direnen portaera ezaugarriak**

Profil hau ezaugarritzen dutenak hurrengoak dira:

- Dituzten portaeren sortan bakezko eta loturazko egintzak askoz

- ugariagoak dira mehatxu, eraso eta urraketa egintzak baino
- Egintzok sekuentzia konplexu eta bizi izaten ari diren egoerari egokitzen zaizkionetan kateatzen dira. Guzti horren eraginez liderrak adiskidetasunezko truke ugariaren jatorrian egon ohi dira. Trukeok loturazkoa, imitaziozkoa eta lankidetzakoak izaten dira
- Horretara, beste umeen hurbilpena eta eskaintza eragiten dute, ezin delarik esan portaera horiek erabili izana besteak erakartzea edota herrestaraztea izan den ala ez. Beraz, ez dira jokabide instrumentalak, edo helburu jakin bat dutenak (zerbaiten asmoa dutenak), berezko jarrerak baino
- Ume erakargarriak dira, imitatuak. Izan ere, 2-3 urte arteko umeengan bada halako erlazio positibo bat. Erlazio horrek elkar lotzen ditu umeek, batetik, erakusten duten erakargarritasun eta herrestarazte indarra eta, bestetik, azaltzen dituzten jokabide baketsuen eta erasoen arteko zatidura
- Lehia eta konfliktu egoeretan liderren aldetik bakezko eta loturazko egintzen halako sekuentzia bat agertzeak, ez objektuaren jabetzarekin, ez mehatxuarekin eta ez erasoarekin zerikusirik ez duena, lider horiei ume oldarkorrenen mehatxua bideratzeko eta eraso bortitzak saihesteko aukera ematen die
- Umeak mehatxu jarrera erakusten dutelarik, jarrera hori anbiguotasunik ez duten eta aurretiazko edo aldi bereko erasorik gabekoak diren egintza sekuentziaren bidez adierazten dute. Mehatxu egin den unetik hura igaro artean bada tartetxo bat: liderrak, beste portaera bat erakutsi baino lehen, aurrean duen umearen erantzuna itxaron izango balu bezala
- Erasora jotzeko urratsari dagokionez, berriz, liderra den umeari aski zaio besteen kolpeak moteltzen jakitea, baldin eta aurretik eraso gogor eta errepikatuak jasan beharra eduki ez badu behinik behin. Gehienetan beste umeak objektua hantxe uzten du, buelta eman eta urrunduz, negarrik egin gabe. Irudi du kolpe motelduak erasotzat baino mehatxutzat edo eskaintzatzat ere hartzen direla
- Ume hauexek dira, lider mekanismodunekin batera, beste umeak -batik bat txikiak- haurren eskolara iristean abegiz sarrien hartzen dituztenak. Kontsolamendua eskaintzen diete etorri berriei, negarrez baldin badaude edo mehatxurik jasan behar izan baldin badute
- Liderrak izaten dira besteen eskaintzei, eskaerei eta mehatxuei erantzuten dietenak, izaera bereko portaeren bidez erantzun ere. Gainera, baretua, eskaria luzatua edota mehatxatua izan den horren erantzuna itxaroten dute. Beraz, ume sinkronikoak dira, besteekin harmonizatuak
- Lehia egoeretan nagusiagoen mailara hurbiltzen dira, beldur egintzarik azaldu gabe. Izan ere, batzuetan egintza beraiek abiarazi ohi dute. Portaera horrelako sekuentzia konplexuetan eraturik izatea da, antza, nagusiagoen aldetik hain ondo onartuak izatearen faktore funtsekoa.

- Elkarlaneko jarduera arrunten arteko konplexueneren eta iraunkorrenen abiarazleak izaten dira. Ume sortzaileak dira, jarduera berriak eta erakargarriak proposatu ohi baitituzte
- Bestearengandik datorren komunikazioari osagarri berriak eranstean dizkiote, sekuentzia berriak eraginez, komunikazioa indartuz eta aberastuz
- Liderrak oso egonkor ageri dira eta bizitza-erritmoen aldaketei oso egokigarriak izaten dira
- Liderrak, bi eta hiru urte arteko aldian, mutikoak izaten dira kasuen %60an. Gero, lau urteak aldera, proportzioa orekatu egiten da

- **Menderatzaile baketsu edo liderrak direnen ezaugarri fisiologikoak**

Defentsa hormonak jariatzeari dagokionez, menderatzaile baketsuek, liderrek, menderatzaile oldarkorrek baino tasa baxuagoak ematen dituzte.

- **Ondorioak**

Profil hau ezaugarritzen dutenak hurrengoak dira:

- Jokabideak sekuentzia baketsuetan nahiz mehatxagarrietan erateak bidea ematen die, bai objektuei eusteko eta defenditzeko, bai komunikazio baketsua erdiesteko eta iraunarazteko, bai mehatxuak bideratzeko eta, azkenik, besteen erasoak saihesteko ere.
- Beren komunikazio ekintzen aberastasunari eta horiek sekuentzia homogeenetan eratzeari esker liderrak izaten dira, inor izatekotan, gelakideen portaerari egokien erantzun ahal dietenak eta jolas-gunean hobekien kokatzen dakitenak.
- Berauek dira familiakoa ez diren beste giroetara hobekien egokitzen direnak eta ezartzen zaizkien bizi-erritmoen aldaketak errazen onartzen dituztenak. Beraz, umerik moldagarrienak dira.

4.2.2. Menderatuak

Menderatuen kategoria honetan taldekatzen ditugun umeak gutxitan edo oso gutxitan sartzan dira objektu edo egoera deseatuakiko lehietan.

Arestian ere esanda gauden legez, menderatuen artean ere badira eredu edo tipoak, aintzat zein diren beren elkartrukeetan nagusitzen diren egintzak mehatxu edo eraso egintzak diren, bakezko egintzak edo lotura sortzen dutenak diren, ala beldurra sortzen dutenak diren.

Izan ere, azpikategoria bi horiexek dira sakonago garatuko ditugunak.

4.2.2.1. Menderatu oldarkorrek

- **Menderatu oldarkorrek familian izaten duten giroaren ezaugarriak**

Ume talde honen baitako gurasoen artean portaera mota bi direla antzeman da.

- Gehienak bat-batean eta zakar erabiliak eta bultzatuak izaten dira goizetan, etxetik irteteko unean, baita ere arratsalde, famili girora itzuli ostean
- Besteek askotan gehiegizko “eskari intelektuala” jasan behar izaten duten gurasoen aldetik elkarrekin ematen duten denborarik gehienez

Kasuotako lehenengoan eragin nabarmena izaten dute gurasoek dituzten ordutegiek eta lan baldintzen, zeren eta horrexen arabera, edo presa sartzen diete, edo zakar hartzen dituzte, edo erreprimitu egiten dituzte, edo dena batera.

Ikusi izan da 3-4 urte bitarteko umerik amak lanez aldatutakoan berak ere portaera aldatu duenik. Aldaketa horren ostean, menderatu oldarkorretako batzuk liderraren profilerantz lerratu izan dira, profilera erabat iritsi gabe baina, zeren eta arbuiatuak, mehatxatuak edota erasotuak izan ondorengo isolamendurako joerari bere horretan eutsi eta erasoan aldetik liderren maila baino gorako batean jarraitu izan baitute.

Bigarren kasukoei dagokienez, umeak dena bizkor ikasi eta hizkuntza, adimena eta objektuak maneiatzeko gaitasunak ere azkar gara ditzaten bilatzen dute, horretan egoskorturik. Gurasoak hiper-kontentagaitzak dira, eta hurrengo ezaugarriak dituzte:

- Umeak oso goiz hitz egin dezan saiatzen dira (oinez hasi bezain laster, eta lehenago ere)
- Umearen nahasmenari zorrotz ekiten diote (umeari ez zaio mugitzen uzten, keinurik egiten edota jolasten, hitzak errepikatu behar dituen artean)
- Sarri askotan, objektuen eraikuntza edota konbinazio gero eta konplexuagoak maneiatzera behartzen dituzte umeak

- **Menderatu oldarkorren portaera-ezaugarriak**

Profil honetakoek bereizgarri dituzten ezaugarriak hurrengoak dira:

- Eskaintza bakanak, edo ez da bat bera ere izaten
- Bakezko eta loturazko egintzak bakanak izaten dira

- Besteen jardueretatik kanpo geratzeko joera nabarmena
- Erasoaldiak gehienetan ustekabeak, errepikatuak eta indartsuak izaten dira, isolamendu aldiekin tartekaturik
- Salbuespen bakanak salbuespen, ez dute parte hartzen lehiatan. Aurrean objekturen bat (gehienetan hortxe egon dena, bestela haur-artatzaileak berriki sartua izan dena) edo gogoko lekuren bat dutelarik, bertara hurbildu eta umeren bati eraso egin liezaioke, baina haren jabe egin gabe
- Lehiaren batean sartzen direlarik ordura arte eduki duten objektua bizkor-bizkor uzten dute bertan behera. Egoeretan ere berdintsu gertatzen zaie. Hala bada, objektu nahiz egoera baten jabe bilakatzearren borrokan egin ostean, segundo batzuen buruan, delako objektua edo lekua hortxe uzten dute, isolamendura joz edo bestela erasoren bat agertuz, berez

- **Menderatzaile oldarkorren ezaugarri fisiologikoak**

Giltzurrun gaineko hormonon jariatze mailak menderatzaile oldarkorren parean edo bestela gaineratik daude.

- **Ondorioak**

Multzo honetako portaera-egitura menderatzaile oldarkorren egiturari aldera ahal zaio, oso antzekoak baitira. Menderatzaile oldarkorrek ere eraikuntzak suntsitu, besteen jarduerak desantolatu eta negar ugari eragiten dute. Hala eta guztiz ere bada alderik, nagusitasunari dagokionez batik bat:

- Multzo honetako portaera ez dago egintza-sekuentzia homogeenetan eraturik. Hala bada, egongaitz, isolatu eta oldarkortzat hartzen dira. Hori dela eta, hezitzaileek zaila daukate horien aditasuna ahalegin ekinkorra eskatzen duen ezertan jarraraztea
- Menderatzaile oldarkorren aldean hauek isolamendurako joera nabarmenagoa erakusten dute, gutxiagotan erantzuten diete besteen portaerei eta bakangoetan parte hartzen dute lehiatan. Esandako horietatik direla eta, profil honetakoak beste izenik ere merezi dute: isolatu aldakorak

4.2.2.2. *Menderatu baketsuak edo lider mekanismoen bidez menderatuak*

- **Menderatu baketsu edo lider mekanismodun menderatuen familia giroaren ezaugarriak**

Lider mekanismodun ume menderatuen amek liderrak diren amak bezalakoak dira, hala umeari harrera egitearen moduaren aldetik nola harekiko harremanari dagokienez ere.

Alderik nabarmena, ordea, ama hauek liderren amak baino senarraren iritzietara makurtuagoak izatea da, haren azpikoagoa agertzea. Erabaki gehienak aitak eginak ziren, hala nola, zaintzari, heziketari, egiteko modu egokiei, baita umearen elikadurari buruzkoak ere.

Agian “azpiko” izatearen estatus horrexek ulertarazten digu zer dela eta lider mekanismodun menderatuek liderrek baino parte hartze eta garaitza gutxiago izatea lehietan.

- **Menderatu baketsu edo lider mekanismodun menderatuen portaera ezaugarriak**

Profil hau ezaugarritzen dutenak hurrengoak dira:

- Profil honetakoen portaera sekuentziak liderrenak bezain homogeenak dira, baina horiek baino erantzun ahulagoak ematen dizkiete gelakideen portaerei; erantzunok ez dira hain interaktiboak.
- Profil honetako umeak erakargarriak eta bilatuak dira, liderren aldetik zein aldakorrek ez diren menderatuen aldetik ere.
- Mehatxu sekuentziak edota eraso egintzak hutsaren hurrengoak dira, edo ez da batere horrelakorik, aintzat eguna.
- Bakanetan baino ez dute mehatxurik erakusten eta oso-oso bakanetan erantzuten diote mehatxuz erasoari. Hala bada, mehatxuarekin aurrez aurre ez dute liderrek baduten erreakzio eta erantzun gaitasun hori.
- Defentsa portaerak behe garaturik dituztenez haur-artatzailearengan sarriago jotzen dute liderrek egiten dutena baino.
- Lehietan parte hartzea urria izan eta gainera eraso portaerak ahul garaturik izan arren ez dute ezinbestez isolamendura jotzen.
- Profil honetakoak dira %30 eta %40% ume, neskato zein mutiko, 2-3 urteen artekoetan.

- **Menderatu baketsu edo lider mekanismodun menderatuen ezaugarri fisiologikoak**

Defentsa hormonak jariatzeari dagokionez menderatu baketsuek zein lider mekanismodun umeek tasa baxuak ematen dituzte menderatu aldakorrek eta menderatu beldurtiek baino.

- **Ondorioak**

Portaerei dagokionera joz, lotura sortzea eta lotura haustearen arteko zatidura liderren artean antzematen ahal denari alderagarria da, multzo bietan berdintsuak baitira. Hala bada, aipatzen ari garen adinetan ez dago ezertan funtsezko alderik umeen eta liderren artean, nagusitasunean izan ezik.

Amaitzeko, menderatu baketsuak edo lider mekanismodun menderatuak direla eta, esan:

- Nahiz eta liderrak baino gutxiagotan parte hartu lehietan, menderatuak erakargarri, jarraituak eta imitatuak izaten dira, kateatzen egiten dituzten egintza baketsuen eta loturazko sekuentziei esker
- Elkartruke baketsu eta jarduera berri askoren jatorrian izaten dira. Hala bada, ume menderatu baketsuak ume sortzaileak dira, liderrak legez
- Multzo honetako enbako erasoaldiak denborak aurrera egin ahala ere beti bezain bakanak izaten jarraitu arren, mehatxuak ohikoago eta eraginkorrago bilakatuz doaz. Horiek sekuentzia homogeneoetan azaltzen dira, liderren kasuan legez

4.2.2.3. Menderatu beldurtiak

- **Menderatu beldurtien familia giroaren ezaugarriak**

Profil honetako umeen amak gain-babesle, irrikatsu eta larrituak ez ezik umearen egoera fisiko eta psikikoari larri adi daudela antzeman da. Amen profila bat dator Bowlby (1973) deskribatu zuen beste harako beste emakume haien profilarekin, alegia, umea beren buruari seguritatea emateko erabiltzen zuten amen profilarekin.

Umearekiko portaeran eskaintza eta bakezko egintza ugari erakusten badute ere, gero beldur eta ezinegonezko egintza asko burutzen dituzte eta hura, umea, famili girotik kanpo uztean ikaratu egiten dira. Eragotzi egiten diote umeari etxeko habiatik irtetea eta lagun berrien bila joatea, eta horrela lagunekin harreman iraunkorrek sortzea ere eragozten diete. Kanpoan ikusten dutena umearen osasunarentzako eta segurtasunerako mehatxua da batik batik. Hortaz, soka laburrean lotzen dituzte umea, horren mugimendu askatasuna eta komunikazio portaerak gehiegizko neurrian mugatuz. Gutxitan azaltzen dituzte eraso jokabiderik eta mehatxu egoerei erantzunez ikara erakusten dute, eta atzera egin eta ihes egiten dute askotan.

- **Menderatu beldurtien portaera ezaugarriak**

Menderatuen azpitalde honetakoek, nagusitasunaren eskalan non diren alde batera utziz, ikara, atzera egite eta ihes portaerak erakusten dituzte.

Profil hau ezaugarritzen dutenak hurrengoak dira:

- Menderatzaileei hurbiltzen zaizkie, haiekin harremanetan sartzeko ahalegina egiten dute, baina metro zenbaitetara gelditzen dira
- Eskaintza eta bakezko beste sekuentzien maiztasuna lider mekanismoaren menderatuenaren antzekoa da; alabaina, sekuentziek ez dituzte egitura hain konplexu eta homogeneoan eratzen

- Oztoporen baten aurrean egon edo bultzatuak zein mehatxatuak izan bezain laster eten egiten dituzte ordura arteko portaerak, atzera egiten, eta beldur edo ihes egintzak adierazten dituzte
- Maiz izaten dira erasotuak eta isolatuak. Eraso gehien jasan behar izaten duten umeak dira, baita ere eraso birbideratuak sarrien pairatzen dituztenak. Isolaturik denbora tarte luzeenak ematen dituztenak dira halaber. Sarritan ematen diote negarrari
- Isolamendu aldi luzeen ostean eraso oso bortitzetan lehertzen dira. Erasoak menderatu oldarkorren antzekoak izaten dira
- Askotan jotzen dute haur-artatzaileengana eskean, eta horiek laztandu eta kontsolamendua eskaintzen diete, maiz

• Menderatu beldurtien ezaugarri fisiologikoak

Defentsa hormonien jariatze mailak erakusten duenarekin bat, profil honetako umeek liderrek eta lider mekanismoduna menderatuek baino estres egoera larriagoak bizi dituzte.

• Ondorioak

Profil honetako umeen ezaugarriak dira, besteak beste, isolamendu aldi luzeak, negarrak, beldur zein ihes jarrerak eta bakezko egintzak isolatu eta sekuentzia konplexuetan eratu gabek.

4.2.2.4. *Bazterreko umeak edo menderatu ez adierazkorrak*

Badira 2 eta 3 urteko umeak (kasuen %70 neskatoak dira) beste umeen jardueretatik at egoten direnak. Horrelakoen portaera egitura zein den ez dago zehaztasun erabatekoz esaterik, zeren eta bere adierazpenak urriak eta pobreak izaten baitira (Montagner 1978). Hala eta ere, buruturik diren behaketek dioskutenez, hurrengo portaera-ezaugarriak aipatu ahal ditugu:

- Egintzez urriak, hala bakezko egintzetan nola mehatxuzkoetan ere.
- Maiz egoten dira goiz osoan bakaturik Beste umeen artean dabiltzalarik ez dute eskaintzarik ñimiñoena ere adierazten.
- Behin edo behin objekturen bat eskuetan erabiltzen badute ere, beti izaten da bakaturik, bazterrean eserita edo alfonbran zein behaganean etzanik.
- la inoiz ere ez dute lehietan parte hartzen, eta ez diote hirugarren baten portaera sekuentziei erantzuten.
- Menderatu beldurtiek bezalaxe, birbideraturiko eraso gehienak jasaten dituzte, menderatzaileen aldetik etorriak nahiz menderatzaile oldarkorren aldetik etorriak izan erasoak.
- Estresaren eta defentsa hormonien jariatzeak agerian uzten du ezen mota

honetako umeek estres egoera larritxoan bizi direla, nahiz eta lehietan parte hartu ez.

- Umeen amen profila ere zaila da identifikatzen, zeren eta itxiak eta umeekin elkartruke gutxi izatekoak dira. Umeari zuzentzen zaizkionean, aldiz, estugarriak eta zapaltzaileak izaten dira.

5. ARIKETA PRAKTIKOA

Atal honi ekin baino lehen eduki kontzeptualen aurretik aurkeztu zaizkizun hasierako galderak eta horiei emandako erantzunak berrikustea komeniko litzaizuke. Berrikusketa honek erabat zuzenak ez liratekeen erantzunak birplanteatzea du helburu.

Bigarren gogoeta honek landutako edukiak eta horien ondorioak hobeto barneratzen eta mamitzen lagunduko dizu, ziur. Lan hori egindakoan segi ezazu irakurtzen eta jakin ezazu zein den ataltxo honetan luzatu gura dizugun erronka!

Atal honetan garatu ditugun edukiak gogoan, zure hezitzaile jarduna berrikusten eta hobetzen lagundu ahal izango dizun ariketa egitea proposatzen zaizu. Hurrengoak hiru asteetan egin beharko dituzun urratsak, laburturik, hurrengoak dira:

- Lehenengo astea: Egunerokoa
Idatz itzazu egunerokoa, astebetez, hurrengoak:
 - Zure ikasleek zenbatetan azaldu dituzten lotura jokabideak (eskariak, eskaintzak, ...) eta zenbatetan jokabide disruptiboak (mehatxuak, erasoak, ...).
 - Garrantzizkoa da halaber zure egunkariak jasotzea portaerak zein egoeratan azaltzen diren, hots, zer gertatu den lehenago, izan ote den kanpoko eragileren bat; eta zer gertatu den gero, hots, zein izan den beste umeen erantzuna eta zein izan den zurea.
- Bigarren astea: Balizko hobekuntzak identifikatzea
Eduki kontzeptualetan azaldu dena gogoan hartuz, begira ezazu berriro egunkarian jaso duzuna eta egin ezazu gogoeta, bai sartu ahal izango liratekeen hobekuntzez eta bai hobekuntzak burutzeko egin dezakezunaz.
- Hirugarren astea: praktikara bideratzea
Aste honetan bidera itzazu praktikan gauzagarri antzeman dituzun hobekuntzak, idatz itzazu zure egunerokoa eta balora itzazu sartutako aldaketek izan dituzten ondorioak.
 - Zer aldatu da?
 - Ezarri ahal izango zenuke beste hobekuntzarik zure egiteko moduetan?

fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok

10

SEXU JOKABIDEA ETA MAITASUN LOTURA HAURTZAROAN

ALEXANDER MUELA

SEXU JOKABIDEA ETA MAITASUN LOTURA HAURTZAROAN

>> 1. HELBURUAK

Atal honek dituen helburuak bi dira. Bata, haur sexualitateari bere garrantzia ematea; bestea, haurren sexu premiei egokiro erantzun liezaiekeen sexu hezkuntza eratzea eskola sistemaren barruan. Horretarako, lehenik eta behin, gizakiaren sexu jokabidea zertan den azalduko dugu, labur, ondoren haurren sexualitatearen dimentsio erotikoa lantzeko, masturbazioaren eta sexu-jokoan gaitan bereziki sakonduko. Horren hurrengo, haur sexualitatearen dimentsio txerazko eta soziala landuko dugu. Gero, berriz, sexu heziketak curriculumaren barruan lekurik behar duen ez duen behar eztabaidatuko dugu. Azkenik ikerketa alor honetan sakontzeko pentsatuak diren jarduera jakin batzuk proposatuko ditugu.

>> 2. EGOERA

Behin batean irakasle batek laguntza eskatu zidan, bere gelan sei urteko neskato batek ageri zuen jokabide desbideratua zela eta. Irakaslearen iritzian -emakumezkoa bera- delako neskatoak jesarlekuan jarri eta, genitalak haren atzealdera eramanda, igurtzi mugimendu erritmikoak egiten zituen, alegia, masturbatu egiten zen, atseginez, plazer keinuetan antzematen zitzaionaren arabera. Egoerak irakasleari nahasmendua eragiten zion eta ez zekien oso ziur nola jokatu. Deserosotasunaren zioa ez zen, inondik ere, neskatoaren portaerari zikin edo lizun irizten ziolako, ezta ere sexualitatea bere osotasunean tabuzat jotzen zuelako, bestela baino; irakasleak bere hezkuntzaren barruan zekarren hutsune baten eragina izateaz gainera hark -irakasleak- sexualitatea gizabanako ororen bizialdi osoan barrena etengabe garatuz den giza-dimentsioetako bat dela onartzeko zeukan gaitasunik eza ere hantxe zegoen. Haur sexualitateak kolpatu egiten ditu nagusiak, hala etxeokak nola irakasleak. Izan ere sexualitate horri patologiko irizteko joera izaten da nagusi eta, beraz, ohikoa izaten da hori gaitzestea edo bestela beste norabait begiratzea. Hortxe dira beldurra, zein ziurtasunik eza, erakusten duten galderak: Zer egin era horretako egoeretan? Haurren hori patologia al da? Horrek beste haurren sexu-bilakaeran eraginik izan ahal du? Jokabide hori beste haurrek ere bereganatuko ote dute? Galderak, eta ildo beretik egin daitezkeen beste batzuk, haurren eta nerabeen sexu-garapenari dagokionean dagoen ezagutza eskasaren ondorioz datoz, gogoan izan behar baita giza-bilakaeran sexu-premiekin jokatzeko duten rola garrantziaz.

>> 3. HAUSNARKETARAKO GALDERAK

- Zer da haur-sexualitatea?
- Elkarrekiko zein lotura dute sexualitatearen garapena eta konfiantza edota segurtasuna bezalako kontzeptuek?
- Zertan da eskola- eta familia-sistemek sexuaren garapenean eta maitasun loturan jokatzeko duten rola?

- Nola kudeatu haurren sexu-jokabideak jokabideok ikasgelan azaltzen direnean?
- Nolako behar du izan sexu-heziketak haur-hezkuntzan?

>> 4. EDUKI KONTZEPTUALAK

4.1. Sarrera

Gizaki orori hil ala bizikoa zaio sexu-harremanen eta maitasun loturen premiak asetzea, bere garapen osoari begira jarriz gero bederen. Horretara, espeziaren iraupena bermatzeaz gainera, gizaki bakoitzaren beste premia batzuk ere asetzen dira, hala nola, gorputz intimitatearen premia, konkatuarena, besterekin elkartzearen atsegina eta barnekoitasun emozionalarena (López, 2009a).

Liburu honen luze-zabalean behin baino gehiagotan esan duguna berretsi behar dugu, alegia, eskola den erakundearen zereginetako delat berezko jokabideak lantzea eta jokabide instrumentalak ikasten laguntzea. Hori horrela, ordea, giza-jokabidearen dimentsio garrantzitsua den sexualitatea eskolak bazter uzten segitzen du, gure kulturaren bederen. Sexualitatea ikasgelara sartu dela esaten bada ere, gure ikastetxeetan egin den ia bakarra ugalketari buruzko informazioa zabaltzea izan da, hori ez den beste mugarik gainditu gabe. Sexualitatearen alderdi erotikoak hezkuntzaren esparrutik at segitzen du. Horrela bada, umeez, etxekoan eta eskolaren bidez bederen sexuari buruzko informazio oinarrikoan eta behinenera ere ez iristera kondenaturik eta hala ere jakinguraz beterik, pornografi aldizkarietara zein interneteko lekuetara, berdinkideen artean zabaldutako informazioetara eta animalien sexu-jokabidearen behaketara jo izaten dute (Cristobal, 2007).

Arazoa berez edonorentzat larria izanik, haur hezkuntzan are larriago bilakatzen da. Hezkuntzan, sarri askotan, edo sexualitateari badenik ukatzen da, edo bestela erabat bazterrean uzten da, ez jakinarena eginez. Eskolak lortu du, bai, txikiak neska ala mutila diren kontzientzia izatea (sexu identitatea) eta generoaren araberako rolak ikastea (neska izan, mutila izan, gizarteak bataren eta bestearengandik itxaroten duenaz jabetzea). Haatik, luzea da eskolak oraindik egiteko duen bidea, eta bide horren azkenera iritsik egunen batean, orduan bai, onartu egin beharko du haurtzaroan sexualitatea ez dela sexu-dimentsio hutsa, sexua eta gizartea eta sentimenduak elkar lotzen dituen dimentsio osoago bat baizik.

Gaiari ematen zaion erantzuna isiltasuna da. Etxean zein eskolan. Oraingoz behinik behin. Isiltasun hau haurrak modu berezian bizi du; errealitate aztoragarri bezain ilun baten estalkia balitz bezala hain zuen. Umeei tabu legez agertzen zaie sexualitatea, batik bat horren dimentsio erotikoa. Haur irudimenean, gurasoen bizitza sexualari buruzko sekretutasunak susmagarri kutsua ematen dio haien sexu-jokabideari. Hala eta ere haurrak, jakinguraz eta bere bulkadak ase beharrez, sexuari loturiko errealitateetan ezinbestez arakatu behar izango duenez, gerta litekeena da errealitate horiek debekatutzat eta zikintzat bizi izatea (ikus 8. atala).

Hezkuntzaren aldetik itzalez eta zalantzez osatua den ez-inoren lurralde honetan, eskolak, egin ahal izan duena egin du, egia. Egun oraindik pentsaezina da giza-erotismoari eta maitasunari zuzenduriko hezkuntzarik bideratzea. Nolanahi ere, hobe dugu egungo egoeran diren arazoez jakitun eta kontziente egotea; haur sexualitaterik badenik ukatzea, hezkuntza sexofobiko errepresiboak indarrean segitzea, maitasunari buruzkoan uste eta iritzi ezkorrak edota suntsitzaileak zabaltzea eta, azkenik, giza-sexualitatea ilunpeetara eta perbertsioa kondentatzea, horra arazoetako batzuk.

4.2. Giza sexu-johabidea

Egun, onarturik dago sexua pertsona ororen dimentsioetakoa dela. Diogunaren lekukotzat hortxe dira, besteak beste, sexudun kromosomak eta sexudun gonadak, hormonak, anatomia eta fisiologia, identitatea eta txerak. Gizakiaren soin edo gorputz oso-osoa da sexu-jarduera laketgarriak bizi izateko gai. Sexualitateak askotariko funtzioak ditu, hala nola plazera, ugalketa, komunikazioa, samurtasuna edo txera. Hala eta guztiz ere, iragan ez hain urrunean sexualitatea genitaltasunera eta koito-jardueretara mugatu izan da. Egun, berriz, sexualitatearen ikuspegi osoago bat dago indarrean. Sorkuntzara edota genitaltasunera mugatzen izan duen ikusmolde hori baztertuz, gaur egun, plazera, ongizatea, atsegintasuna, oreka eta zorientasuna bilatzen dituen aldetik ikusten da sexualitatea, hots, haren ikuspegi oso baten aldeko joera da nagusi.

Oraindik denbora luzea ez dela sexualitatea ezkonduerik mugaturik zeukan ikuspegia zen nagusi, emakumeei sexu-atsegina sentitzea eta bere horretan bizitzea ukatu egiten zitzaion eta beste giza-talde zenbaiti ere ukatzen zitzaion sexualitatea, hala nola elbarrituei, buruko gaitzak zituztenei eta, besteak beste, homosexualei.

Horiek horrela, orain eta hemen sexualitatea pertsona ororen eskubidetzat hartzen dugu. Pertsona orok du bere sexu-premiak asetzeko eskubidea, zein ere den bakoitzaren desioen orientazioa. Emakumezko nahiz gizonezko, eskubide berberak ditugu gizaki guztiok eta, horrez gain, gizabanako bakoitzak bere sexu-intimitatea gordetzeko premia duela aldarrikatzen da. (López, 2009c).

4.3. Haur sexualitatea

Helduen sexualitatearen konplexutasuna aditze eta onestearen aldetik aspaldion egin diren aurrerakadak nabarmenak dira. Hala ere aurrerakadek ez dute bide paralelorik egin bizitzako beste adin-tarteei dagokienean, alegia, haurren, nerabeen edota nagusien sexualitateetan. Izan ere, gizakiaren bilakaeran diren etapa guztien artean haurtzarora da sexualitatearen ikerketarik urrienak eta eskasena egin zaizkion bizitzako aldia. Haatik, sexu-erakundearen aldetik oso aberatsa den aldia edo etapa dugu haurtzarora. (López, 2009c).

Ez hain aspaldi, nerabezaroaren aurreko aldian haur-sexualitatea badenik ukatzen zen.

Egun, ordea, haurrak egokiro haziko badira beren sexualitatea adinaren ezaugarriekin baina osotasunean bizi beharko duten kontzientzia zabalagoa dugu. Aurrerakadak aurrerakada, arlo honetako ezagutzen zabalkundearen aldetik, eta aipaturiko premiei erantzungo liekeen eskola sistemaren bat ezartzearen aldetik, urri-urria da egin.

Zenbait egilek (Gómez Zapiain, 2009) adieraziarekin bat, haurtzaroan sexualitatea ez litzateke sexu-dimentsiotzat huts-hutsik hartu behar, baizik eta garapenaren etapatzat, zeinetan sexualitatea gizarte-, txera- eta sexu-dimentsioen arteko beste dimentsio bat den. Horrela bada, bereziko garrantzia du ondo bereiztea, batetik, dimentsio erotikoren garapenari laguntzen dioten osagarriak (sexu-sistema) eta txera-dimentsioa (atxikimendu sistema) bestetik.

4.3.1. Haur sexualitatearen dimentsio erotikoa

Umeen sexu-anatomia haurduntzako lehenengo aste eta hiletan eratzen da, jairo aurretiko aldi hain zuzen. Hala bada, erditze unean haurraren gorputza hain dago sexuaren aldetik garaturik non sexu-atseginaren fisiologia aktiba dakioken.

Haur hezkuntza neska-mutilek badute sexu-sentiberatasunik, batik bat sexu genitalan, eta horrelaxe, gizonezkoak erektzioa eta emakumezkoak genitalak baso-kongestioa izateko gai dira. Horrez gainera zenbait egilek (López, 2009b) umeek sexu-erantzun gizatiarra emateko gai direla diote, batzuetan orgasmora ere irits daitezkeela erantsiz. Hori dela eta logikotzat jo behar da umeek plazer zentzazioak behin ezaguturik berriro horien bila jotzea. Nolanahi ere, asetasunaren bilaketa ez da objektu erotiko jakin baten bilaketatzat hartu behar. Egoera hori nerabezaroan izaten diren eraldaketen ostean baino ez da emango.

Nabarmentzekoa da, bestalde, haur sexualitatea, helduarenaren aldean, ez dagoela oso bereizturik, ezta eraturik ere. Ez dago sexu hutsezko zentzazio espezifikorik, umearentzat esangura erotikoa lukeen kanpoko objekturik ez dagoen bezalaxe.

Haurraren eboluzio-unearekin bat, haren sexualitatea, dituen ezaugarrien aldetik, auto-erotikoa eta egozentrikoa dela esan daiteke. Esan nahi baita umea unibertsoaren erdigunea dela eta bizi dituen plazer zentzazioak berezkozat bizi dituela. Horrez gainera oraindik ez da gai besteak sentitzen duen plazeraz plazerik sentitzeko, hots, ezin du beste pertsonarik era erotikoa desiratu.

Haur sexualitatearen motibazio nagusiaren oinarriak dira, batetik, sexu-identitatea eta generoaren eraikuntza (jakingura asez, bere gorputza eta besteenak ikertuz, besteen antzak eginez, e.a.) eta, bestetik, kontaktuaren bidez sortzen den atseginaren esperimintazioa.

Testuinguru honetan, nabarmendu beharrekoa da haur masturbazioa ageriko jokabidea dela eta horren maiztasuna uste izaten dena baino handiagoa dela.

Orain artekoak gogoan, horiekikoan helduak zein portaera duen da gakoa. Aipatu ditugun haurraren sexu adierazpen horiek harentzat balio handikoak dira, baldin eta ulertuak izan eta aldarazten ez badira bederen, zeren eta adierazpenok plazeraren eta intimitatearen buru-irudi positiboak sortzen laguntzen baitute. Sexu plazera ezagutzea eta bilatzea jokabide osasungarri eta pronostiko onekotzat jo behar da. Hori bai, osasungarri iritzi dakizkiekeen masturbazio-adierazle jakin batzuk eskatzen dutena betez gero, Lópezen (2009b) arabera.

6. laukia	HAURTZAROKO MASTURBAZIO OSASUNGARRIARI BURUZKO ADIERAZLEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="299 577 1101 628">• Beren burua kontrolatzeko gaitasuna; leku publikoren batean egonez gero masturbazio jokabidea geroratzeko gai dira. <li data-bbox="299 637 1064 719">• Hiru-lau urteetatik aurrera intimitatean (ez publikoan, ezta modu exhibizionistan ere) masturbatzea. Jokabide hau pribatutasunean eta besteei eragozpen egin edota eskandalurik sorrarazi gabe eraman behar dela goiz-goiz ikasi ahal eta behar dute. <li data-bbox="299 727 1097 778">• Sexu-kitzikapen tentsioari irtenbide eman, halako moduan non denbora tarte luzeez ez dezaten jokabidea errepikatzeko premiarik. <li data-bbox="299 787 990 813">• Higiene baldintzetan masturbatzea, arriskua ekar lezakeen objekturik gabe <li data-bbox="299 821 826 847">• Ez izatea hazgaleak edo infekzioaren batek eragindakoa <li data-bbox="299 855 611 881">• Errudun usteari loturik ez izatea 	

Goian aipatu diren adierazleak abiapuntu, hezitzaileak bere jardunaren nondik norakoa hausnartzen has daiteke. Atalaren hasieran azaldu dugun kasuarekin aurrez aurre izanez gero, adibidez, jakin behar duena da masturbazioa naturala dela, askatasunez egitekoa dela eta ez diola zertan eragotzi haurrari. Nolanahi ere kasu horretan masturbazio osasungarriaren adierazleetako batzuekin bat ez datorren kontzientzia izan behar du hezitzaileak, masturbazioaren aktoa, intimitatean egin beharrean ikasgelan egiten baita. Ondorioz, hezitzaileek hori gogoan hartuz eta aldi berean sentiberatasunez ekin behar dio. Horrela bada, haurrarekin hitz egitea eta bere sexu-premiak ase ahal dituela, bai, baina besteen aurrean egin beharrean intimitatera jotzeko proposatuz.

Gomendagarriena haurrekin hizkera hurbila eta kalekoa erabiltzea bada ere, ez zaio horregatik muzin egin behar "helduenak" diren hitzak erabiltzeari, hala nola, intimitatea, masturbazioa edota ukituak. Garrantzizkoa da, zinez, errealitateaz bere izena erabiliz hitz egitea, horrela haurrak bere emozioei buruzko hiztegia aberasten duelako ez ezik errealitatearen irudi "xamurragoa" ematea ekiditen delako ere. Ez dago zertan umeen gaitasunak gutxietsi, gutxiespen horren ondorioz oker ulertzeak sor litezke eta. Era berean, ekin beharrekoak dira hizkera sexistak edota beste pertsonen gaineko agintea erakusten dutenak, berba zantarrak eta gordinegiak, beti ere gogoan izanik gure lehentasuna komunikazioa erdiestea dela.

Horiek horrela, eta agian begi-bistakoa bada ere, nabarmendu beharrekoa den beste alderdi bat haurren sexu-jokabideen aniztasuna da. Hortaz, izango ditugu

10. SEXU JOKABIDEA ETA MAITASUN LOTURA HAURTZAROAN

masturbatzen diren eta gelan egiten duten haurrak, izango ditugu inon ere masturbatzen ez direnak, eta izango ditugu masturbatu bai baina gelan egiten ez dutenak. Hiru jokabideotako edozeini iritzi behar diogu natural eta osasungarri, eta berezko, pertsonaren bilakaerarekin bat datozenak baitira. Hiru jokabideotako batake ere ez du esan nahi haurrak eragozpenen bat duenik, ezta ere haren sexu-bilakaera hobe edo txarragoa izango denik. Laburtuz, ez dugu haurrak zertan masturbatzea bultzatu, ezta ere egin ez dezatela eskatu. Haurretako bakoitzaren biologi erritmoak errespetatuz eta arestian azaldu diren irizpideei jarraituz jardun behar du hezitzaile arduratsuak.

Haur hezkuntzako irakasleen artean harridura, zalantza eta ezinegonaren motibo den beste gai bat hiru eta sei urte arteko haurrek izaten dituzten sexu-olgeta edo jokoak dira. Sexu-olgetatzat zer ulertzen dugun argitzeko, esan dezagun haurrek animalien jardunetan, etxekoen portaeretan edota hedabideen agertzen diren adibideetan ageri zaizkien horietan antzak edo itxurak egitea direla olgeta edo jokoak. Jokoen bidez umek elkarren gorputzak ukitzen dituzte, ikertu egiten dituzte, zenbait pertsonaiaren antzak egiten dituzte (medikuarena, ezkongaiena, gurasoena, e.a.) eta, batzuetan, koito-jokabidearen arloko ahaleginak ere egiten dituzte.

Beren borondatezkoak direnean, adin bertsuko haurren arteko sexu-olgetak osasungarriak eta elkarrekin harremanak sortzeko baliagarriak izaten dira, ora har. Baldin eta beren borondatez badatoz. Adituen aholkua joko edo olgeta hauei adiegi ez egotea eta zabal jokatzea da. Lópezen arabera (2009b9, helduen esku hartzea zentzuzkoa da baldin eta:

7. laukia	ESKU HARTZEA HAURREN ARTEKO SEXU JOKOETAN
	<ul style="list-style-type: none">• Jokoa partaide diren haurren artean dauden adin-asimetriak hain dira nabarmenak non batzuek besteak manipulatu ahal baitituzte eta, ondorioz, nagusienek txikiengan berezkoak ez diren esperientziak eragin.• Txiki batzuek inposatu egiten dizkiete jokoak beste batzuei, besteok parte hartu nahi ez badute ere. Horrelakoetan argi eduki behar dena da jokoetan parte hartu nahi ez eta "ez" esan duen haurraren borondatea errespetatu egin behar dela, beti.• Jokoa sexuarekiko obsesio ekinkorra erakusten dute, eta obsesio hori txiki batzuegandik besteengana helarazten da. Diogun obsesioari jokoen zein hizkeraren bidez antzeman ahal zaio.• Nabarmen-nabarmen nagusienak diren jokoen antzak egiten dituzte (aho sexua, esate baterako), horrelakoak nola-eta pornografiaren bidez edota bortxa-egoeretan ikasiak dituztelarik.• Kalte fisikoaren arriskua dute (baginan objektua sartzea, adibidez)• Jokoa edukiz sexista edo erasotzailea denean (hala nola, bortxaketa antzeratuz).• Harrigarriro, jokoekin batea erabiltzen den hizkera helduena, alegia, zantarra, oldarkorra, sexista, e.a. denean.

4.3.2. Haur sexualitatearen txera- eta gizarte-dimentsioa

Atxikimenduzko loturari estuki lotua da sexu kontaktua. Bikoteen bizitzan kideetako bakoitzak maitatu egiten du, eta maitatua da; zaindu egin, eta zaindua sentitzen da. Sexu/maitasun harremanaren bidez sexuaren bidezko kitzikapenez eta plazeraz gozaten da eta, horrez gainera, maitasunezko intimitatea eratzen da. Intimitate horretan ulertuak sentitzen gara eta emozio bidezko benetako lotura sortzen da. Maitasunezko intimitatea, gehienbat, emozio bidezko konexioa da, elkarrenganatu egiten diren emozioak adierazteko eta aditzeko gaitasuna izatea. Hala bada, sexu/maitasun sistemaren asetasunaren bidez atxikimenduzko eta elkar zaintzako harremanak eratzen dira. (López, 2009b).

Bada ikerketa oso zabala (Gómez Zapiain, 2009) zeinetan helduaroko sexu-bizipenen kalitatea lotua baita pertsona biren arteko kontaktu fisikoaren kalitateari, horrexek ahalbidetzen duelako hala zentzazio erotikoei amore ematea nola pertsona horien barruko espazioan elkarreragina sortzea ere.

Aldiz, haurraren sexualitateak, oraindik egitaratu gabea eta ez objektu erotikorik eta ez alde erogeno bereziturik ez duena izanik, sexu-, txera- eta gizarte-dimentsio bati erantzuten dio (Gómez Zapiain, 2009). Horrela bada, 0 eta 2 urte arteko haurren garapena psikosexularen gai nagusia atxikimenduzko lotura dela esan izan da inoiz (Gómez Zapiain, 2009). Lehenago ere, 3., 4. eta 5. ataletan hain zuzen, esan den bezala, adin tarte horretan haurrak, atxikimenduzko irudiarekin batera, kontaktua, gorputz zentzazioak, laztanak eta samurtasuna ikasten dihardu. Horrez gainera, eta beti ere konfiantza eta segurtasunezko elkarrekintza giroan murgildurik, harremanetan sartzean komunikazio harmoniatsuan ikusten du eta, aldi berean, barnekotasunaren ikasketan murgiltzen da. Deskribatu berri dugun ingurumari horretan haurraren eta atxikimenduzko irudiaren arteko lehenengo harremanen ikasketek, harreman erotiko barnekoiaren prototipoa izateaz gain, etorkizuneko sexu- eta txera-bizipenen kalitatean beren eragina izango dute. Félix Lópezek (1997) dioen legez, "haurrak besteekin komunikazioan nola sartu ikusi, non-eta atxikimenduzko irudiarekiko harremanean ikasten du, horiexekin baititu irekiak barne-kontakturako bideak (ukitu eta ukitua izan, besarkatu eta besarkatua izan, musu eman eta musua hartu, begiratu eta begiratua izan), baita ere komunikazio bide ez formalak, bideok etorkizuneko txera- eta sexu-harreman guztiak baldintzatuko dituztenak izango direlarik.

Aipatzen ari garen ikaste prozesu honetan garrantzi berezia izango du gorputzaren bidezko kontaktuaren kalitateak. Atxikimenduzko irudiengandiko maitasuna sentitzeko haurrek ukituak eta laztanduak izatea behar dute, ukituek eta laztanek eragiten duten plazer psikologikoa ere maitasun horrekin batera sentituz. Harremanaren irudikapen segurua behin ezarrita, haurra bere gorputza ezagutzen hasiko da, kontuen eta kontaktuoi dagokien plazeraren bidez hain zuzen. Horrez gainera haurrek badute tratuan berdinkideak eta txeratsuk diren nagusien ereduaren premia, horiei begiratzuz eta adituz ikasi ahal izango baitute posible dela maitatzea eta maitatuta izatea.

4.4. Sexu heziketa haur hezkuntzaren curriculamaren barruan

Ba al du zentzurik sexu-heziketak haurtzaroan? Hezitzaile askorentzat logikaz beteriko galdera da, eta galdera egitea ere bada logikoa. Batik bat gogoan hartuz gero etapa horretan haurraren sexu-garapenaren aberastasuna ezezaguna zaielako, baita ere gure kulturaren sexualitatea, gorputzaren aldetik begiraturaz, genitaltasunera eta, aroen aldetik begiraturaz, nerabegarora eta horren aurrekora mugatzeko joera delako nagusi. Horrez gainera, gure kulturaren sexua arrisku jokabideei lotzen baitzaie eta 0-6 urte arteko haurrek arrisku hori jasatetik libre direla uzten baita

Galderari erantzuten joateko abiapuntutzat Lopezek (2009b) eskaintzen diguna bezalako ikuspegi zabala hartzen baldin badugu, sexu-heziketa osasunaren garapenaren alorrean kokatu beharra daukagu. Ikuspegi horretatik begiratuta ikasle guztiek zeinek bere adinari eta premiei dagozkien ezagutzak eskuratzea da helburu nagusia, helburua erdietsiz gero bakoitza bere buruarekin zein besteekin harreman osasuntsuak izatera iritsiko baita. Jokoan dagoena ez da soilik hori, ordea. Sexu heziketa besteekin harremanak era edo modu osasuntsuan izateko eta arrisku jardunak saihesteko bidea da. Helburutzat dituen artean dira, besteak beste, gurasoen eta seme-alaben, ikasleen eta irakasleen, nesken eta mutilen, bikotekideen eta horrelakoen arteko komunikazioa erraztea eta sexualitatea, beldurrez edota gaitzespenez hartu beharrean, modu positiboan hartzea. Horrez gainera, haurrek erabateko heziketa izan dezatela bilatzen du, horretara horietako batzuek pairatu behar izaten duten ardura eza edota axolagabekeria saihestu ahal izango duten itzaropen osoz. Horrela, agian aurrea hartu ahal izango zaie sexu gehiegikeriei, garaiz antzeman nerabezaro goiztiarraren zein berantiarraren etorrerari, neskei lagundu hilekoaren errealitatea naturaltasunez hartzen eta abar. Horiez gainera, sexuen arteko berdintasunezko harremanak eta plazeraren intimitate partekatua bilatu nahi dira, komunikazio maila eta bikotekideen arteko zintzotasun gradua hobetuz, arrisku jokabideak ekiditen diren aldi berean.

Hezkuntzan, haurrak hiru edo lau urte betetzean ulermen eta komunikazio maila nahikora iristen direlarik, sexu heziketak esangura nabarmena hartzen du. Lópezek dioenez (2009b), landu beharreko funtsezko gaiak hurrengoak lirateke:

8. laukia	HAURREN SEXU-HEZKUNTZAHO GAIAK
	<ul style="list-style-type: none"> • Gorputzaren ezagutza, sexu-identitatea eta genero-rola
	<ul style="list-style-type: none"> • Familia eta famili barruko txera-loturak
	<ul style="list-style-type: none"> • Adiskideak eta lagunak
	<ul style="list-style-type: none"> • Gure jatorria: ugalketa eta haurduntza
	<ul style="list-style-type: none"> • Behagarriak diren sexu-jokabideak haurrengan eta helduengan
	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa. Sexualitateari eta txerei buruzko galderak eta hizkera

Haurrengan familia, eskola eta mailakideak dira eragingarri-iturri nagusiak. Hala bada, funtsezkoa da horiek egokiro funtzionatzea. Eskolari dagokionez, ordea, deigarria da, a priori behintzat, irakasleriak sexu-heziketaren arloan duen prestakuntza eza, baita ere haurren garapen-aldiari egokituriko sexu-heziketarik ezarri ez izana. Irakasleriaren Hezkuntza Plangintzaren barruan ez dago sarturik sexu heziketa. Ondorioz, irakasleriak ez du alor honetan ganoraz jarduteko prestakuntzarik. aipatzen ari garen egoera arriskutsua da, irakasleek, sexualitatea eta sexualitatearen garapena ulertzearen eta nola jardun jakitearen aldetik hankamotz, ez baitakite nola jardun edo ekin. Nolanahi ere bada, zalantzarik gabe, giza-sexualitatearen halako garapen bat, hezitzaileen aldetik orientazioa eskatzen duena.

Haurtzaroan, azkenean, sexualitatea hamaikatxo era edo moduz ager daiteke, hala nola, bere buruaren esploratuz, besteen gorputzaren esplorazioen bidez, helduei ikusitakoa itxuratuz, autoerotismoaz eta masturbazio jokabideaz jabetuz, nagusiei anatomiaren gorabeherei buruz zein haurren jatorriaz eta horiek nondik nora ernaltzen diren galdetuz eta hainbat sexu-jokabideri buruzko interesa agertuz (López, 2009b). Adierazpen eta galdera guztiok errespetuz begiratuak ez ezik, zintzotasunez eta egiatasunez erantzun beharrekoak ere badira. Ondorioz, eskolak hezkuntza horretan arduraz parte hartu beharra dauka-eta, ezinbestekoa da ardura horri egokiro erantzun ahal izango dion sistema eratzea.

>> 5. ARIKETA PRAKTIKOAK

1. Hiru eta sei urte arteko hurrek sexuarekin zerikusia duten galderak egiten badituzte, egin ere egiten dituzten bezala, beren nahiz besteen gorputz-berezitasunak eta sexu-jokabideak ezagutu eta endelegatzeko premia dutelako egiten dituzte. Bada, nerabezaroan sartu aurreko aldian egin ohi diren galdera klasikoen zerrenda emango dugu, Lópezek (2009b) eginiko ikerketatik hartua. Irakur itzazu galderak, eta presta itzazu horiei haur-hezkuntzako ikasgeletan emango zenizkien erantzunak:

Nebak -anaiak- zakila badu-eta, nik zergatik ez?

Noiz haziko zait zakila?

Zer dela eta amak titi handiak eta aitak ez?

Nondik irteten dira tripatik kanpora? Min ematen al du?

Zer dela eta daude tripan, nola egiten dira?

Nola egiten du jan, arnastu, pixa, ... tripan?

Zer egiten du gizonak, zer andreak?

Noiz eduki ahal dira umeak?

Zergatik hainbeste musu? Zergatik horrelakoak? Kosk egiten diote elkarri?

Horrek zergatik egiten du hori (gelan masturbatu)?

Aitak zakila sartzen duen bakoitzean umea egiten du?

10. SEXU JOKABIDEA ETA MAITASUN LOTURA HAURTZAROAN

2. Era horretako galderi erantzuteko jarraitu beharreko irizpideak taxutu behar dituzu. Gogoan izan behar izango dituzu kontzeptu jakin batzuk, hala nola, sentiberatasuna, berezkotasuna, hizkera, erantzuna adinaren arabera egokitzen jakitea, informazio guztia eman ala zerbait ezkutatu eta berehala erantzutea ala erantzuna atzeratzea.
3. Taldean hausnartzeko. Adituek diotenez, sexu identitateaz (emakumezko/gizonezko) jabetzeak eta genero-rolak bereganatzeak (janzkeraren ezaugarriak, bizitzako esparru jakinetan, baita lanbideetan ere, horietako bakoitzaren arabera portaerak izatea, e.a.), gizabanakoaren sexualitatea haren bizialdi guztirako baldintzatuko dute. Prozesu hori nola bilakatzen da haurraren? Nola eragiten dio sexualitateari? Guraso-roletik begiratuz gero, zein izan liteke portaera egokiena? Eta hezitzailearen ikuspuntutik begiratuz?
4. Taldean hausnartzeko. Adituek diotenez, sexu morala ere eboluzio-prozesua da eta, horrek ere haurren sexu garapena nabarmen baldintzatuko du. Prozesu hori haurraren nola garatzen da? Sexualitateari, zertan eragiten dio? Guraso-roletik begiratuz gero, zein izan liteke portaera egokiena? Eta hezitzailearen ikuspuntutik begiratuz?
5. Hausnarketa lana. Zure ustez, sexu-heziketa curriculumean sartu beharrekoa litzateke? Ala era intentsiboan landu behar izango litzateke, ikastetxetik kanpoko espezialistengana joz? Eman dezagun Curriculum Proiektuan sartu nahi dugula; nola bideratu? Ikasgai espezifikoak litzateke? Esparru Bereziaren barruan, gunea beste eduki batzuekin partekatuz? Edo, agian, zeharkako bidez, esparru edo arlo guztietan landuz?
6. Haurtzaroko sexu jokabideaz eta maitasunezko loturaz atal honetan azaldu ditugunak gogoan, osa ezazu haur hezkuntzan sexu-heziketak izan beharko lituzkeen helburuen eta edukien zirriborroa.

fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytb
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeirytbq
qoffajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok
eirverpoieurqpoeiruqof
fajfoierañlfkjaoeira
ñlfkjaeiroeirunalkdjfok

11

GURASO JOKABIDEA

GURASO JOKABIDEA

>> 1. HELBURUAK

Atal honen helburu nagusiak, oro har, guraso jokabidearen ezagutza egitea eta jokabide horrek gizakiarenak diren gainerako berezko jokabideekin duen zerikusia azaltzea da, horretara hezitzaileak oinarri sendoak ukan ditzan bere esparrua den lekuan lan egiteko orduan. Gogoan izan behar baita hezitzaileok ere inkontzientean geure aurreiritziak ditugula, zeren eta bakoitzak haurtzaroan izan ditugun esperientziek guk geuk ere gure gurasotasuna bizitzeko dugun moduan eragiten baitute. Gu geure gurasoen seme-alabak gara eta, haiei zer ikusi hura ikasi dugula esan daiteke.

Berez, eta helburu nagusiak nolabait zehaztuz, hona hemen atal honetan aurkeztuko direnak irakurriz eta jorratuz erdietsi nahi direnetako batzuk:

- Zaintza hitzaren esangura ezagutzea.
- Zaintza eta guraso jokabidearen izaera ezagutzea.
- Zaintza eta gurasoa jokabidearen euskarriak zein diren eta zertan diren ezagutzea.
- Zaintza sentiberen zein sentikortasun gabekoen bidez beste inoren larrupean sartzen jakitea.
- Atxikimendu jokabideak eta zaintza eta guraso jokabideak elkarrekin duten erlazioa.
- Zaintza eta guraso jokabidearen aldetik mapa operatzaileek duten garrantzia ezagutzea.
- Hezitzaileen zereginari buruzkoan jokabideok dituzten inplikazioak ulertzea.
- Hezkuntzaren arloko inplikazioak guraso jokabidearen ezaugarriekikoan.
- Etorkizunean gerta litezkeen disfuntzioei begira jokabideok horien aurre hartzeari buruzkoan izan dezaketen garrantzia ulertzea.

>> 2. EGOERA

Ikasturte hasierako batzarrean nire taldean -bi eta hiru urte bitartekoen irakaslea naiz-, haurren etxeoketako ei ikasturtearen helburuak eta adinari dagozkion ezaugarriak zein diren azaldu ondoren, galde-erantzunen txanda zabaldu dut. Orduan ametako batek etxean alabarekin arazo mordotxoa izaten ari dela esan du, eta ez dakiela zer dagoen ondo eta zer ez, zer den zuzena eta zer ez, eta egunetik egunero gauza ezberdinak esaten dizkiola neskatoari. "Ez dakit zer egin umearekin, garai txarrean dago, ez dit kasurik egiten, eta senarrak ez dit ezertan laguntzen". Beste ama batek berehala erantzun dio, zera, hegoa galdu dugula, eta seme-alabekin kopletan gabiltzala beti, eta gogorrago egin beharko geniekeela haurrei, eta horrelaxe. "Lehengo esku gogorra erabiliko bagenu beste oilar batek egingo liguke kukurruku; orain gure seme-alabek gogoak ematen diena egiten dute eta, horixe, esku gogorra behar dutela".

11. GURASO JOKABIDEA

Adibideak erakusten duenez, eta eskolan antzeman ahal izango dugunarekin bat, zein etxek bere lege eta ohitura, nahiz eta egoerak guztietan bertsuak izan. Gero laguntza eskatzera datozkigu eta, horra komeriak, gehienetan ez dakigu zer dela eta datozkigun laguntza eske, edo ez dugu jakiten esaten digutena nola interpretatu, ez baitugu gure eginbarrei ekiteko orduan jarraibide edo irizpide argirik, hots, ez daukagu gida fidagarriak. Beraz, ez dut jakiten horiei zer esan. Nola lagundu ahal diet familiei, bada, nire hezitzaile zereginaren bidez, zer egin dezaket nik?

Litekeena da zuk zuek ere horrelako egoeraren bat bizi izana, edota zure buruari antzeko galderak egin izana. Eta horrela ez baldin bada ere litekeena da zure hezitzaile zereginaren esparruan noiz edo noiz antzeko zalantza motiboak sortzea.

Hala bada, zer deritzozu aipatu ditugunak aztertzen baditugu, haurren premiei egokitu ahal zaien erantzunen bat bilatzeko edota zein irizpidetan oinarritu behar garen jakiteko?

3. HAUSNARKETARAKO GALDERAK

Adi-adi irakurri behar dituzu ondorengo galderak, eta zure ustez egokiak liriatekeen erantzunak orri batean idatzi, erantzunen zergatiakin batera idatzi ere. Idaztea garrantzizkoa da, zeren eta eduki kontzeptualen atala irakurri ondoren horiek zure iritziz horiek berriro kontutan hartuko baititugu, atal honexetan azaltzen ari garen marko teorikoaren ikuspuntutik hain zuzen.

- Arestiko egoeran aipatu ditugun ama bietako bakoitzak zein errepresentazio-eskema duela deritzozu? Horiek, hezkuntza zer uste dute dela? Eta beren zeregina zein den, zer uste dute?
- Ama horietako lehenaren zaintza-jokabidea nolakoa da, zure ustez?
- Zure ustez, zer da zaintzea?
- Arreta, zaintza eta erantzukizuna edo ardura, bat eta bera al dira?
- Zure ustez, zeren mende dago zaintzan sentikorra izatea?
- Nola lagundu ahal diegu familiei?

4. EDUKI KONTZEPTUALAK

Ernalkuntza sexu-maitasunaren ondorioetakoa da, espezie bizi askoren kasuan bederen. Espeziotan, behin ernalkuntza burutzean beste izakirik jaio baldin bada, horra berehala aktibaturik kumeen zaintzari buruzko jokabidea. Bada, delako jokabide horri ekiteko era edo modu egokiena, gure iritziz, atxikimendu jokabideari buruzkoan hartu genuen bidera jotzea da. Hots, jokabide horri jokabide-sistematzat harturik (George eta Solomon, 1999) ekin beharko genioke.

Gurasoen zaintza-sistemari buruzko jokabidea eta umearen atxikimendu jokabidea elkarrekin bat datoz, elkar osatuz, sistema ekologi bakarraren barruan. Sistema horretan, beste ekologi

sistemetan bezalaxe, sistemako osagarrietako baten bariazio edo aldaketek sistema bereko beste osagarriari eragiten diote. Haatik, zaintza-jokabidearen sistema ez da huts-hutsik guraso-sistemari mugatua; sistema nagusia den horren mende badira horretaz gainera beste azpi-sistema batzuk. Horiek nongura antzeman ahal dira, hala nola, bikotearen baitan kideek dituzten edo ez dituzten portaera gizatiarretan; antzeman ahal ditugu, baita ere, nahiz dela jendartean, nahiz dela lanaren munduan, nahiz dela beste edonon, lider egokiak direnengan; eta, nola ez, azpi-sistemok antzemangarriak dira hezitzaile onak direnen portaeran. Horiek horrela, atal honetan gurasoen zaintza sistemari ekingo diogu, esan gabe doalarik horietaz -gurasoez- hemen esango dugunak haur-eskoletako hezitzaileentzat ere bete-betean balio ahal izango digula

Liburu honetako 5. atalean zaintza sistema aipatu dugu, segurtasunezko eta segurtasunik gabeko atxikimenduari eragiten diotenen tipologia mugatzean hain zuzen. Sistema honi buruz 2. atalean ere hitz egin dugu, haurraren biologi erritmoak eta horien amarekiko sinkroniaz mintzatzean, alegia. Aipaturiko bi atal horietan guraso zaintzaren kalitateak haurraren atxikimenduaren kalitatea eragiten duela esan dugu. Atal honetan, berriz, bereziki haurraren zaintzari buruz eta horretan eragiten duen jokabide-sistemaz hitz egingo dugu.

Animali espezie guztietan amek kumeekikoan erabiltzen dituzten arta eta zaintzak harridura zein miresmena sorrarazi izan dute, beti eta denean, mundua mundu denetik egundaino. Izan ere, humanoon maila baino beheragoko hurrengo espezieetan zaintzari buruzko jokabideak automatikoak dira, berezkoak. Esate baterako, txinpantzeek kumeei egiten dieten arreta ez da ikasia edo hartua, espezieak aurrez mugaturik duen jokabidea baino. Horiek, guraso-jokabidea behin aktibatutik dela, kumeekin horren mende jarduten dute. Gizakion "egiteko modu" asko ikasiak badira ere, askotan zaintza jokabidea aurrez mugatua da, txinpantzeen artean bezalaxe. Esaterako, negarrez hasi den umeari buruzkoan. Atxikimenduzko irudiak, umearen negarra aditurik, horren ondora joko du, eskabideari berehala erantzun nahirik. Beste kontu bat da bateko edo besteko kulturaren eraginez zaindari jakin batek uste izatea umearen negarri jaramon egitea delako umeari kaltegarri gerta dakiokela, eta ez joatea, askotan ikusi izaten dugun bezalaxe. Haatik, umearen negarraren morfologia nagusiaren erantzuna erdiesteko diseinatua da; eboluzioaren bidez diseinatua, hain zuzen.

Hori horrela, zaintzailearen urratseko gehienak haren eskarmentuaren, inguruko baldintzen eta kultur usadioen mende mugatuak dira.

Atxikimenduaren teorikoen ikerketa ugari egin dituzte amaren zaintza jokabideari buruz. Hala eta ere bakanak dira aitaren aldetiko zaintzari buruzkoak. Amaren nahiz aitaren zaintzari buruzkoan gai funtsezkoena, nolana ere, maitasunarena da, konfliktu egoeretan batik bat. Aita-amen zaintzari seme-alabek ukazioz edo matxinatuz erantzuten baldin badiote, zer egin? Horra galdera, eta horra hor guraso-sistemaren barruko genero-aldeak ageri-agerian. Honi ere ekingo diogu, bada.

Guraso irudiak haurraren adimenean duen lekua, horixe da atal honetan jorratu dugun beste gai bat. Atxikimenduaren teorikoen haurraren unibertsoan amak duen lekua aztertutik badaukate

11. GURASO JOKABIDEA

ere, besterik da aitaren irudiaren kasua. Lehena, amaren lekua, bere tokian aztertu dugu eta, esanda gauden bezala, hura, ama, gizakiaren bizialdi guztian dago presente. Bigarrena, aitarena, ez dago oraindino jorraturik.

Mendebaldeko kulturetan sortu diren familia antolamendu soziokulturaletan emakumezkoen eta gizonezkoen gizarte-ezaugarriak, batzuenak eta besteenak, argi eta garbi berezitu izan dira. Horrek neskak eta mutilak hazteko moduak edo erak elkarren ezberdinak izatea ekarri duenez, psikologi tipologiak ere erabat bereziturik bilakatu izan dira, batzuen eta besteen berezko substratuekiko independente.

Liburu honen luze-zabalean berezko substratuez honez gero behin baino gehiagotan hitz egin dugularik, atxikimendu jokabideari eskainitako ataletan horiek modu berezian landu ditugula gogorarazi behar dugu. Bada, emakumezkoa umeak hazteko eta etxeaz arduratzeko hazia eta hezia izan da, amatasuna ardatz. Oraintsu arte, bederen.

Egun, gizonezkoaren kultur balioak eta emakumezkoarena aldatzen ari dira, lehengoarekikoan behinik behin. Aldaketa agerikoa da, hala neska eta mutilen heziketari dagokionez nola guraso-zereginen banaketaren aldetik ere. Gizonezko gurasoak seme-alabak hazteko zeregin ezberdinez ere arduratzen hasiak dira, nahiz ere oraindino batzuei eta besteei eman beharreko hezkuntza eta irakatsi beharreko pentsaera ideaetik nahikoa edo oso urrun egon, egungo produkzio baliabideen garapenak ekarri dituen zeregin berriei egokitzeari begiratuz gero behinik behin.

Hala bada, guraso zaintza sistema dela-eta aitak semea edo alabarekiko izaten dituen harremanez esan daitekeen guztia kontu eta tentu handiz esan beharrekoa da.

4.1. Zaintza jokabide sistemaren izaera

Zaintza sistema elkarrenganakoa da eta atxikimendu sistemarekiko paraleloan bilakatu da. Idazki honen jarraibidea den etologi paradigmatari atxikiz, zaintza jokabide sistemaren helburua haurrari zaintza ematea eta, oro har, hura babestea dela esan daiteke.

Guraso zaintza jokabideari buruzkoan jardutean benetan zaila izaten da horren eta haurrak gurasoengan sorrarazten duen atxikimendu sistemaren artean bata eta bestea zertan diren bereiztea; hortaz, eta zailtasun horrexen ondorioz ia alferrekoa bereizketa horretan ahalegintzea. Bata bestearekin bat egiten dira eta, ondorioz, atxikimenduzko guraso-jokabideak indartsu eragiten du zaintza jokabide sisteman, sexu maitasunean eragiten duen era bertsuan eragin ere. Amak haurrenganako duen atxikimenduan modu ezberdinak diren era berean gertatzen da aitarengan ere, hots, badira generoaren araberrako aldagarriak honetan ere. Bestalde baina bide batez esan komenigarri deritzogula gogarazteari ezen zaintza jokabideaz hitz egiten dugunean berezko jokabide bati buruz ari garela eta, ondorioz, emozioak, irudiak eta erraietako erreakzioak oroitzen ari garela, zaintza mugimendu-jokabideaz hitz egiteaz gain.

Esan gabe doa, bada, zaintza jokabidearen mamia eta azken helburua horixe dela, zaintza. Gizakiak izaten dituen lehen-lehenengo zaintzak amarenak izaten dira, hala umontzian den bitartean nola gero, bizitzako lehen egun, aste eta hiletan. Hori dela eta, amari "zaintzako lehen irudia edo lehen zaintzailea" esango diogu. Bestalde, egungo gure kultura esparruan aita ere umearen zaindari ari izaten da. Beraz, ama bezala aita ere lehen zaintzaileztat hartuko dugu lan honetan, atxikimenduari buruzko literaturaren ildoan. Bestalde, haurra jaio eta denbora laburreraren tartean, haren zaintza lanetan familiako beste batzuk ere ari izaten dira, aintzat kasua, hots, gizarte eta familia antolamendu bakoitzaren arabera. Horiei bigarren zaintzaileak esaten diegu. Oro har, aitona-amonak, ume zaintzaileak eta haur eskolako profesionalak izaten dira horiek.

Zaintzailea nor ere den, ordea, zaintza jokabidearen oinarri funtsekoenak bi dira: arreta, eta erantzukizuna hartzea.

Ildo horretan, zaintzan diharduenaren izate guztia zaintzaren helburua den izakiari emana dago. Izaki horri buruz hitz egitean umea hitza erabiliko dugu laburtzearren. Umea, biologiarene zentzuan; umea, esangura zabalean. Gure umea esango dugu, etxean bezalaxe seme edo alabaren bati buruz hitz egitean.

Gorago esan dugunaren haritik jarraian azalduko dugun moduan, zaintzailearen arreta umeari zuzendurik dago, delako zaintzaile horren irudizko eszenatokiko erdigunean huraxe dagoelako, umea. Zaintzailearen gogoan umeak leku hain zentrala izateak berez dakarrena ardura da, erantzukizuna hartzea. Arduratsua den zaintzailearen izate osoa gertu egoten da haurraren zeingura premiari erantzuteko, nahiz dela babesa emateko, nahiz dela laguntzeko, nahiz dela zaintza bereziak eskaintzeko. Gertutasun horri eguneroko hizkeran "bihotz onekoa izatea" esaten zaio.

Gertutasun horren nondik norakoari begiratzuz gero, mutur batean umea arrisku eta oztopoetatik babestea eta mimatzea edota atentzioa hartzea daudela ikusiko dugu. Umea babestea eta mimatzea animalia espezi guztietan ikusten dena da, zaintza jokabidea abiatu den artean bederen.

Arreta eta erantzukizunaren arlo honetan, berriz, bestearen larruan sartzen jakitea zaintza sentikorren zein ez sentikorren osagarri erabakigarria da. Umearen lekuan jartzeak haren jokabidearen barne arazoak eta nondik norakoak ezagutzen ulertzen laguntzen digu eta, ezagutza horixe da hain zuzen ere bestea ulertzea. Eta bestearen barnea ulertzeak hari "besteek guri ematea nahi genukeen tratua" emateko ateak zabaltzen dizkigu. Hezkuntzan ez dago jarraibide egokiagorik, zinez.

Gure burua alde batera utzirik bestearen barnean gertatzen den horretara iristeko gaitasuna, hots, bestearen izaera berezi eta bakanean sartzen jakitea. Eta delako hori sentikortasunez zaintzeak norberari ere, edo "guri geuri" ere, eragiten dio, edo digu. Beste inoren zaintza norberaren burua zainduz hasten da. Areago, ez dago inor sentikortasunez zaintzea lehenik gure burua sentikortasunez zaindu ezean.

11. GURASO JOKABIDEA

Atxikimendu jokabidearen ontogenian eskaini diogun atalean esan moduan, umearen larruaz janzteko gaitasuna giza-garapenaren mendeko atributua da.

4.1.1. Deszentrazioa

Jatorriz Piagetena den hitz hau, deszentrazioa, psikologia ebolutiboak bere nozio-ondarean sartu du, eta horrez gero giza umearen dimentsio guztiez jarduteko erabiltzen da. Hain zuzen ere, norbera bestearen lekuan edo larrupean jartzeko eta mundua haren begiez ikusten jakiteko gaitasuna da deszentrazioa. Bada, nozio hau funtsezkoa da hezkuntzan, ezkontideen artean, lan harremanetan, gizartean eta, oro har, bizitzako arlo guztietan. Elkarrekin konfliktoan diren indarrek mundua batak bestearen begiez ikusten jakin ezik ez dago inon inolako bake prozesurik, inondik ere ez.

Gogoratu 6. atalean esan genuena, alegia, umea ez da funtzio hori hirugarren urtea bete baino lehen ikasten hasten. Eta ikasi ere, ez du ikasiko baldin eta aldi baino lehenagokoan, egozentrikoan hain zuzen, zaintzailea umearen premiei erantzuteko adi egon ez baldin bada. Beraz, umeak bere izatearen erdigunetik kanpora irteten jakin dezan, ezinbestekoa da guraso-zaintzak sentikorrek izatea. Eta egon ere, egozentrismo aldi horretan zaintza sentikorrek umearen egozentrismoaren zerbitzura egoten dira.

Illo berean, altruismoa zer da-eta beste horren baitan gertatzen dena norberarengan gertatuko balitz moduan bizi izaten jakitea, adimenez eta sentimenez, eta horrela biziz bestearen gogoari eta premiei erantzun ahal izatea. Bada, gaitasun horren eza da norberekeria. Esan beharrekoa da, ordea, altruista edo egoista izaten ez dela ikasten; edo bazara, edo ez zara, eta kito.

Zaintza jokabideari guraso-maitasuna iritzi izan zaio, betidanik. Maitasun horren muturreneko muturra norberaren bizia umearenaren ordainetan ematea da.

Bada, gatozen berriro zaintza jokabideari buruzko azalpenetara, azalpenon ostean jokabide horri modu zehatzagoan ekiteko moduan baikaude. Jokabide guztiak bezala zaintzarena ere estimulu abiarazle eta amaitzaileen eta erregulazio gailuen arabera antolaturik ageri zaigu.

4.2. Zaintza eta guraso jokabidea abiarazten eta amaitzen duten estimuluak

Berezko gainerako jokabideekin gertatzen den bezala, zaintza jokabidea barne zein kanpoko estimulu bidez abiarazten eta amaitzen da.

Kanpo-estimulu abiarazleen artean hurrengoak aipatu behar dira:

- Umearentzat arriskuaren seinale direnak
- Aldentzea
- Umearen xarma iritzi dakiokkeen horrexek eragiten dituenak

4.2.1. Umearentzat arriskuaren seinale direnak

4.2.1.1. Gurasoak haurra arriskuan dagoen ustea edo hautematea

Izan ere, jokabideei estimulu zaiena zer-eta subjektuak bere barne-mapa operatzaileen bidez errealitatetzat jotzen duen horixe da. Estimulua taxutzen duen hautemate horrexetan dautza hala giza-harremanen konplexutasuna nola konfliktorako dugun joera. Horrela, berez beldurtia den gurasoak nonahi eta noiznahi ikus ditzake arriskuren bat, umeak horrelakorik ikusten ez duen edozein leku edo egoeratan. Arriskua hautematea ez hautematea, hori, konfiantzaren mende egoten da, hein handi batean bederen. Umeak arazoak konpontzeko gaitasuna baduen konfiantza izatean, esan nahi dugu. Behin baino gehiagotan ikusi izaten dugu guraso mota hori, egun osoan ibiltzen dena umeari “kontuz” esaten. “Kontuz, erori egingo zara eta!; kontuz, hotza harrapatuko duzu eta!; kontuz gero, inori traba egin gabe!; kontuz, hartu egingo duzu eta!; kontuz” Bada, nahiz eta batzuetan umeak horrelakoak behar, askotan ez dago zertan esan, zeren eta, esan eta esan, azkenean lortzen den bakarra umearengan beldur jokabidea eragitea eta hark bere gaitasunen lanketan eta ingurumenaren ezagutzan ez sakontzea baita.

4.2.1.2. Umearengandik datozen laguntza eskeak eta haren ondoeza edota hondatzea adierazten duten seinaleak

4.2.2. Aldentzea

Umea amaren abarotik alden du izan baldin bada, gero, biak berriro elkarren ondoan izatean, zaintza jokabidea areagotzen da, animalia erreinuko espezie gehienei buruz esan ahal denarekin bat.

Izan ere, zaintza jokabidea abiarazten duten estimuluen indarrari begiratu gero argi dago umea gurasoarengandik aldentzearen indarra nabarmen gailentzen zaiela gainerako beste estimuluen indarrari. Lehen zaintzaileen genoman, umea aldentzeak zerbaiten arriskua badela esan nahi du.

Ildo honetan, ametako batzuek aztoramenez eta esturaz bizi izaten dute amatasun baja amaitu ostean umea eskola sistemako talde-zaintzaileen esku utzi behar izatea,

baldin eta haren zaintzaile berrienganako erabateko konfiantza izatera iritsi ez badira bederen. Nolanahi ere, horretan "egokitze aldia" zorrotz egin beharraren aldarria aditu dezakegu. Hori horrela dela ukatu ezina denez, har dezagun den moduan. Antzekoa da denda-gune handi horietako edozeinetan sarritan ikusi izan dugun beste hori, alegia, umea hor nonbait galdu zaion ama, larri, hara eta hona haren bila bera ere galduta bezala, eta umea topatzea eta hortxe hartzea besartean, estu-estu, oraindino dardaraz.

4.2.3. Umearen karma iritzi dakiokkeen horrekek eragiten dituenak

Kanpo estimuluen ataleko hirugarrena, laztanak emateko gogoia pizten edota zaintza jokabidea abiarazten duena, umearen politasuna eta hazpegi zoragarri horietatik izaten dira. Hautemate horretan zerikusi erabakigarria daukate barne-mapa operatzaileek, eta horien artean umeari buruzko irudi idealizatuak batik bat. Esan nahi baita guraso batzuek umea den horretaz bere horretan gozatzeko gai direla. Beste batzuek, berriz, umea benetan zer den horren eta beraiek hura nolakoa izatea nahi luketen irudi idealizatuaren arteko aldeaz baino ez dira ohartzen. Horrela bada, zaintzaileak umea nola ikusten duen halaxe gertutako zaio edo atsegin bide edo bestela atsekabe iturri izatea hura. Lehenengo kasuan gurasoek umeari "gure polita, nor da munduko umerik politena?" eta horrelakoak esango dizkiote; bigarrenko multzokoek, berriz, "ai ene! Lehengusua edo anaiaren modukoa bazina, baina ez!" eta horrelakoak esaten dizkiote.

Izan ere zaintza jokabidea berezko jokabidea izanik, eta horrelakoak kanpo zein barne estimuluek abiarazten diren jokabideak direla gogoan, mimatze eta zaintzen premia giza-premietakoa dela esan behar da, eta premia hori asetzea poz eta plazer iturria dela berretsi.

Guraso sisteman ez ezik bikote bizitza sisteman ere askotan sartuta dagoen zaintza jokabidearen berezkitasunaren adierazgarri argia, esaterako, umeen zaintzaile horiek hark laztanak egin diezazkieten edo zaindua izaten uzten ez dietenetan bizi duten frustrazioa da.

Zaintzak hartu ondoren edota aldentzearen ostean berriro elkartzean agertu ohi diren seinale edo imintzioek dira zaintza jokabidearen muturretako bateko portaerak amaiarazten dituztenak. Horrela, umeak negar egiteari edota seinaleak igortzeari utziz gero zaintzailearengan jokabide honen aktibazio mailak behe-behera egiten du, egoera basalera.

Esan gabe doa zaintza jokabidea izakiaren baitakoen eraginez ere abiaraz daitekeela. Horrela, zuhaitz filogenetikoan gizakia baino beherago sailkatu ditugun animalien kasuan hormona-eragileak dira, gehien bat, abiarazleak. Gu geu ere ugaztunak gara eta, hortaz, progesterona delakoak amatasun jokabidean eragiten du ama umeaz

erditu ostean. Haatik, psikearen arloko eragileak dira jokabide zaintza honetan, sexu jokabidean bezalaxe, bizi guztian erabakigarriak direnak.

Adierazi ditugun osagarri bietako bigarrenari ekinez, esan dezagun zaintzailearen laztanak eta zaintzak umeak nolako poztasun eta atseginez hartzen dituen ikusteak harengan -zaintzailearengan- horrek zaintza jokabidea areagotzen duela, eta jokabideak hortxe irauten duela harik eta berez amaitzen den arte. Azken hori, amaitzea esan nahi dugu, orgasmoan bezalaxe gertatzen da, hots, edo jokabidea bere azkenera heldu delako edo bestela beste jokabideren bat abiarazi delako.

4.3. Zaintza jokabidea bere kanpo eta barne dimentsioetan

Berezko beste edozein jokabide bezala zaintza jokabideak, ukan ere, lau dimentsio ditu, hau da, mugimenduarena, emozioena, neurobegetatiboa eta irudimenezkoa.

4.3.1. Mugimendu dimentsioa

Osagarri honek guraso irudiarengan jarduera instrumentalen sorta zabala jartzen du martxan, horretarako nahikoa izanik aipatu ditugun arrisku seinaleetako lehen osagarria abiaraztea. Horretara, zaintzaileak egitekoak eta bost egingo ditu, ahalik eta umea zaintza jokabidea abiarazi duen egoeratik atera arte.

Hori horrela, gizakia baino maila beheragoko animalien artean kumea arriskutik ateratzeko jarduerak hura berreskuratzea, beste nonbaitera garraiatzea eta haren ondoan segurtasuna eta babesa ematen egotera mugatzen da. Aldiz, gizakion munduan zaintzak gorputzari dagozkion arreten arloa gainditzen dituzte. Aurrerago azalduko dugu-eta gaia zabalago, oraingo ez dugu esango besterik zera baino, gizakion zaintza jokabidearen lehen urratsak umeari babes fisikoa emanez egiten direla eta horren ostean, eta hura gure kultur munduan eta gure zibilizazioan sartu ahala, gurasoen ardurak eta eginbeharrak bi horiekikoetan ere babesa ematea direla. Babes edo zaintza horiek guraso batzuen kasuan umearen bizi-proiektura ere hedatzen dira eta, horretara, gurasoek beren arduren artean "ideologia" arlokoak ere hartu ohi dituzte. Era horretako gurasoek seme-alabei unibertsitatera laguntzen, bikotekideaz zein lanari buruz aholkuak ematen, etxea erosteko zereginean sartzen eta, oro har, haien bizitzan eragiten segitu nahi izaten dute.

Dimentsio honetakoak zehatzago aipatuz eta lehenik eta behin mimatze portaeretara joz, horietan zaintza jokabidearen aktibazio maila baxua izaten da eta, halaxe, portaerek atxikimendu jokabideak eragin ohi dituen erantzunen antzekoak izaten dira, alegia, laztanak larruazalean zein buruan, gorputzaren zaintzako jolasak eta horrelakoak. Portaera honen ezaugarri nabarmenak umeak eta zaintzaileak batera barre egitea eta batera hitz egiten saiatzea dira, besteak beste. Aipatu ditugun horrelako egoeretan

jokabide honen eta atxikimenduzkoaren arteko aldeaz hitz egitea akademizismoa litzateke. Bestela, eta bidez esanda, portaerak berdintsu gertatzen dira maiteminduen artean zein adiskide soilen artean ere.

Mimatze portaera dela-eta horrek zaintzaileen dimentsio psikiko eta adimenezkoak hartzen dituela aipatu dugunez, orain esan beharrekoa da berdintsu gertatzen dela umearengan. Mainekin ez gara huts-hutsik gorputzean laztanduak sentitzen, baizik eta horretan ez ezik "ariman" ere, bietan. Adibideren bat jartzearen, eman dezagun umea adinean aurrera doala eta eskolan nahiz kalean erdiesten dituen lorpenen berri ematen digula; horiek adi entzutea eta horien balio hari berrestea gizakion mimatze-portaeraren osagarri funtsezkoak dira. Izan ere, aditasuna, ezagutza eta berrespena dira giza-zaintzaren hiru urrats funtsezkoenak, behienak. Umeak behingoan ikusten du araua. Arau bakoitzari dagozkion balioak ikastea, berriz, ez dauka horren erraz. Hala bada, besteek bere lorpenen eta egitandien kontuak aditzea eta beste horiek diren ispiluan umeak berak erakutsi duen dimentsio horren isla ikustean, ukitua sentitzen da, eta ezagutua edo aitortua ere sentitzen da, ukitua izan denez gero. Dimentsio hori ezagutua eta aitortua izan dela sentitu duen umeak esperientzia hori bere buruaz duen irudiari erantsiko dio, guraso begiradaren argitasunaz pozik. Umeak gauzak ondo egiteko halako gogo handia du non bere lorpenen aitopenen alferreko bihurtarazten baitu zentsura.

Bizitzako lehenengo hiru urteetan, lehenengoan batik bat, ez dago halako alde handirik gizakion, alde batetik, eta, bestetik, primateen edota eskala filogenetikoan behe-rago dauden espezieen artean. Inguruabar arruntetan eta kultura guztietan ama izaten da umearen zaintzetako gehienak bere gain hartzen dituenak, bizitzako lehenengo urte horri dagokionez bederen. Zaintza jokabidea umearengandik datozen seinaleei erantzutean datza, gehien bat, seinaleak aditu eta egokiro interpretatu ostean erantzun egokia emateko hain zuzen (Ainsworth eta lag., 1978). Aldi hau berau dugu lokarriaren kalitatea zaintzeko garaia eta, horrekin batera, norberaren buruarekiko eta besteenganako oinarri-oinarrizko konfiantza eraikitzekoa ere bai.

4.3.2. Irudimenezko dimentsioa

Zaintzailearen irudimenezko eszenatokian diren osagaien artetik ezinbestez nabarmendu beharreko bi behintzat badira. Lehena, zaindua bertan egotea da; bestea, zaindua den horretaz eta horren egoeraz zaintzaileak zein irudi osatu duen gogoan hartzea. Irudimenezko alderdi bi horiei aditasuna emateak erabateko garrantzia du. Umeari eta umearen egoerari buruzko irudiak umearen benetako errealitatearekin eta egoerarekin bat etortzea beharrezkoa baino beharrezkoagoa da. Hori horrela, hezitzaileak bere irudimenezko mapetan umeaz zein irudi osatu duen, irudi horrexeri erantzungo dio haren jardunak ezinbestez.

Zaintzaileak bere guraso-irudimenean umearen zein irudia duen, nahiz dela umeaz horrelakoxe pentsaera sartu diotelako nahiz dela bere eskarmentua umeekin horixe

delako, irudi horrexen arabera jokatu du hark. Ondorioz, delako zaintzaileak heziketa-jarraibide hertsagarriaz ekingo dio bere zereginari, hasiera-hasieratik umea bide zuzenean ibilarazi ezean ustezko bide horretatik behin betiko aldenduko dela uste dutenekoa baldin bada. Aldiz, umerengan konfiantza duena baldin bada, umearen seinaleak aditu ez ezik haren bilakaerari adi jardun eta gida egokia izaten ere saiatuko da, umea ez dadin okertu, behar dituen jokabide instrumentalak eraikitze prozesuan.

Umearen jokabide erritmoak gogoan ez hartzea eta haren sormen gaitasunetan ez sinestea, horiexek izaten dira azkenean moral autoritariora jotzeko lehenengo urratsak. Umearen bilakaeraren zein unetan gauden begiratu gabe "zeretik datorren zera" guztiak eginaraztea moral inposatua dira. Edo men egin, edo paso egin, ez dute beste ezertarako tarterik uzten. Ez diote uzten haurrari sormena lantzen, sortzen ari zaizkio ekintzarako eskemak hausten dizkiote, mina eragiten diote eta matxinadarako prestatzen dute.

Zaintzea ez da, ezta inondik inora ere, gure eskemak modu artifizialez inorengan txertatzea, baizik eta haren erritmo naturalak gogoan hartzea eta berezko sormen ekintzak sustatzea.

Zaintzaileak umea zaindurik eta babesturik dagoela antzematen duenean bere baitan bizi dituen zentzazioak sosegua, berotasuna eta argitasuna dira, hots, segurtasuneko atxikimenduari dagozkion berberak. Horrez gainera, zaintza zereginak bere helburuak erdiesten dituen aldiro zaintzailearen buru-estimua gora egiten du, bere lana betetzeko gai sentitzen baita. Ostera bada, hau da, sistemak frustrazioa badakarkio, zaintzailearen eszenatokiak minarenak, ezbeharrenak eta erruarenak dira. Eszenatokiak aipatuz, umeak zaintzailearen irudimena edo osorik hartuko du, edo horren zati bat hartuko du, aintzat bere bilakaeraren zein unetan bizi den. Nolanahi ere den, erdigunean izango da beti.

Umearen bizitzako lehenengo hiletan amaren eszenatokikoa horizontea harekex betetzen du. Amaren aditasuna ez dago ia-ia beste ezeri zuzenduta. Hori horrela, lehen urtearen erdia aldera amaren kontzientziaren eremua bizitzako beste errealitate guztietara zabalduz doa, progresiboki. Zaintzan diharduelarik zaintzailea zaindua denari bere ahalmen guztiak erabiliz zuzentzen zaio. Zaintza intentsua baldin bada, horren dimentsio guztiek zaindua dute helburu. Zaindua da zaintzailearentzat "garrantzikoa". Zaintzak gero berez dakar erantzukizunaren ideia, eta horrek, berriz, ardura eragiten du. Zaintza eta ardura, edo erantzukizuna, txanpon beraren aurkia eta ifrentzua dira. Zaintzan, zaintzaile diharduen izakiak zaintzaren objektu denaren eskari objektibo zein subjektibo guztiei erantzuteko prest ageri da. Hala bada, zaintza jokabideari arreta jokabidea edo atentzio jokabidea esan izan zaio (Bowlby, 1969). Azken batean atentzio hitza latinezko "atendere" delakotik dator, eta "zerbaitera jo" edo "nor baitenganako joera" adierazten du.

Umearen irudia da, edo zaintzaren objektua den beste edonorena ere berdin, izaki horrek irudimeneko eszenatokian hartuko duen lekua erabakiko duena. Umeak

irudimenaren erdigunea hartuko du eta zaintza ekintza indartsuak eragingo ditu, baldin eta zaintzaileak hura, nahiz dela inguruabarraren ezaugarriengatik nahiz dela horri aurre egiteko dituen gaitasunez zalantzan egiteagatik, arriskuan dagoen ustea baldin badu. Aldiz, mimatze jokabidea eragingo du umeak, zaintzaileak argitasun idealizatuz ikusten baldin badu. Nolabait esan, gu denon irudimenean halako eszenatoki lainotsu bat bada-eta, ari garen gai honetan umeari zein edo nolako kasu egin, delako umea eszenatoki horretan zein irudirekin ageri zaigun irudi horrexen araberakoa izaten da. Irudimeneko eszenatoki horren euskarriak norberaren barne-mapa operatzaileak dira eta, horiei buruz aurrerago hitz egingo dugu berriro.

4.3.3. Dimentsio emozionala

Zaintza jokabideak emozio bizi eta indartsuak dakartza berarekin.

- Zaindua den izakia segurtasun egoeran dagoelarik jokabide honen aktibazio maila ahula izaten da eta, ondorioz, emozioen aldetik ardura hutsa nagusitzen da.
 - Zaindua nolabaiteko arriskuren baten aurrean dela hautematen delarik emozioa kezkatik erabateko beldurreraino lerratzen da.
 - Zaintzailearen ebaluazio sistemak hari eragiten dion sentimena ezinaren baldin bada, hots, helburua erdietsi ez duela edo umeari babes emateko bere gaitasuna gairiditurik dela sentitzen baldin badu, delako zaintzailearen emozioak larridura, sosegu eza, amorru bizia eta samina izaten dira. Sentimenduok gurasoek oso era indartsuan bizi izaten dituzte umea aldentzen zaienean, baita ere hark ustez aurrez aurre dituen arriskuetatik babesteko gai sentitzen ez direnean. Bide batez esan amorrua eta sosegu eza diren emozioak umearekiko konfliktuen sorburua izaten direla. Zaintzailearen kontzientzi eremuaren polarizazioa jokabide hau abiarazi izanarekin batera etortzen da.
- Umearen eta guraso irudiaren arteko talka edo konfliktua bigarrenak arriskuren bat antzematen duen leku edo egoera jakin batean lehenak horrelakorik ikusten ez duenean sortzen da, horrelakoetan guraso irudiak, estu jokatuz, mehatxuak eta zigorrak erabili nahi izango ditu, neurri hertsigarri. Egoera hau nerabezaroko lehen urratsekin batera agertu ohi da. Haatik, ez da goian azaldu duguna guraso irudiaren eta umearen, bata eta bestearen pertzepzioen arteko desadostasuna eragiten duen egoera bakarra. Sarri askotan gurasoek neurri hertsigarrietara jotzen dutelarik, horretarako motibo edo ziotzat "umearen hobe beharra" aldarrikatzen dute. Bada, goiz ez bada berandu, egiteko modu horrek matxinada ekarri ohi du. Ildo honetan, zenbat ez ote diren azkenean gurasoengandik, afektuaren aldetik begiratuta behintzat, behar baino goizago urrundu diren seme-alabak, haiek "seme-alaben hobe beharrez" izan duten portaera hau, hori edo bestea dela eta.
- Zaintzari esker arriskua desagerrarazia delarik zaintzailearengan sortu ohi diren emozioak sosegua, baketasuna, poztasuna, naretasuna eta lasaitasuna izaten dira.
 - Mimatze portaerari dagokionez, emozioak bihotz zirrartatik atsegin gozorraino zabaltzen den sortako guztiak izaten dira.

4.3.4. Dimentsio neurobegetatiboa

Dimentsio neurobegetatiboari dagokionean, organismoaren erantzunek emozio-erreakzioen urratsei jarraitzen diete. Norberaren umea babesturik ikusteak dakartzan gozamenak eta plazerak mobilizatu egiten ditu, hala endorfina sistema, nola prozentzefaloko sistema mediala ere, hots, sari-sistemaren bitartekaria dena. Gizakiongan ez ezik arratoi eta tximinoengan ere umea aldenteak edota hura arriskuaren aurrean ikusteak eragiten duen estresa hain izaten da larria, gorputzak 17OH kortikoideak eta kortisolaren multzoko hormonak jariarazten eta bihotzaren azkartzearen erantzukizuna duen sistema adrenergikoa zein aktibazio begetatiboaren arloko beste erantzun batzuk ere eragiten baititu.

Bestela bada, aldiz, larridura eta hondatzea eragiten dira, hots, sistema parabentrikularra bitartekari duen zigor sistema abiarazten da.

4.4. Zaintza jokabidea eta barne-mapa operatzaileak

Arestian, irudimeneko eszenatokiak aipatzean, barne-mapa operatzaileei buruz hitz egin dugu. Gaiari zabalago heltzekotan garelarik, ordea, amari buruz hitz egingo dugu lehenik, bera izaten baita umearen zaintzaren arduradun nagusia haren bizitzako lehen hiru urteetan bederen. Horren ostean aitari buruz hitz egingo dugu, jakina.

Zaintzari berari dagokionez -zaintza jokabide operatzaileaz ari gara- zenbat eta umearen bizialdian atzeragoko uneetara jo, orduan eta presenteago daude genomak mugaturiko mugimendu mailak. Horrela bada, umearen lehen-lehenengo momentuetan amari haren berezko jokabidea oso lagungarri izango zaio. Horren jakitun egotea segurtasun iturria izan ohi da amarentzat.

Umea, ordea, bere garabidean aurrera egin ahala gizakion zibilizazioaren adimenak sortu duen mundu gizatiartu honetan gero eta barnerago sartuz joango da. Lehenik gauza fisikoen mundu sofistikatuan barneratuko da, gero aurrerago kultur eta gizarte mundu konplexuan murgiltzeko. Bada, berezko jokabideak ez daude egungo mundu sofistikatu eta konplexu honetarako prestatuak. Barne mapa operatzaileek antzeman ahal dituzten arrisku seinaleak beste batzuk direla esan nahi dugu, azken batean.

Hala bada, zaintza jokabidearen gakoa, lehenengo etapa batean, umea naturako arriskuetatik babestean egongo da; bigarrenengo etapa batean, berriz, guk gizakiok sortua den mundu honetako konplexutasunei buruzko informazioa eta gidaritza ematea izango da zaintzaren helburua.

Amaren zaintza jarduera operatzaileak, oro har, ez daude ezinbestez berezko automatismoek mugaturik, gizakion maila baino behegaroko animalien kasuan dauden bezala, baizik eta umearen ingurumena den egungo familia eta gizarte kulturaren mendeko katea-operatzaileek gobernatuak.

Nolanahi ere, kulturaren bidez amak ikasiak dituen ezagutzen ondorio diren zaintza gaitasun faktikoez gainera, haren zereginaren -jokabide operatzaile instrumentala- beste dimentsio dimentsioetan, hots, emozionalean, irudimenezkoan eta neurobegetatiboan, barne-mapa operatzaileek agintzen dute (George eta Solomon, 1999). Mapek indartsu eragiten dute umearen erantzunean eta harenganako portaeran. Horretan amaren beraren historia eta batik nola izan den zaindua hartu behar da kontutan (Van Ijzendoorn, 1997), baita ere lehenago amatasunak, horrelakorik izan baldin bada, eta zaintzaile jardun duen aldetik haur-jolasekin izan duen eskarmentua.

Bada, barne mapa operatzaile delakoetan bada amak zaintzailea den aldetik duen irudia, bada umeak seme edo alaba bezala duen irudia eta bada, azkenik, guraso-haur harremanari buruzko irudia. Beraz, dela ohartuki nahiz dela oharkabea, amaren mapa operatzaileetan daude hurrengoak:

- Bere buruari buruzko irudia zaintzailea den aldetik, horren arabera senti daitekeelarik hala gai nola ez gai zaintza zereginei dagokienez eta, ondorioz, konfiantzaz betea edo bestela oso larri.
- Umea zer izan beharko litzatekeen halako estandar batzuk edo beste batzuk izan behar dira beti eta, beraz, horrexen arabera izango zaio amari hura gogoko edo ez-gogoko.
- Zaintza zereginari berari buruzko balorazio-estandarrek eta idealak nolakoak, eta zeregine hori estimu handitan hartu ala gutxietsi egiten den.

Aintzat hartuta barne-mapa operatzaile horiek zein diren, amaren zaintza jokabidea ere halakoa edo bestelakoa izan daiteke eta hark berak jokabideei buruzkoan balorazio ezberdinak egin ditzake. Baliteke horko hori ama ona izatea eta bere buruari hala ez iriztea. Baliteke, ostera, harako hura ama zurruna eta sartzailea izatea eta bere buruari ama ideal iriztea. Eta baliteke hala eta ere batak zein besteak ama zereginari goi mailako balioa ematea edo, bestela, hutsal eta baliogabeko zeregina iriztea.

Gorago esan dugun guztia eskola-ingurumenera ekarri ahal dugu, zeren eta hezitzaileen barne-mapa operatzaileak pertsona horiek zaintza-zereginen arloan, hala haur hezkuntzan nola lehenengo hezkuntzan eta bigarreanean ere, ikasleekin dituzten harremanen arabera taxaturik baitatoz.

4.4.1. Zaintza jokabidearen tipologia barne-mapa operatzaileen arabera

Laster ama izatekotan direnengan aipatu ditugun mapa operatzaileek zaintza-sistemeekin zein zerikusi edo lotura ote duten aztertu nahirik, George eta Solomonek (1996) halako elkarrizketa erdi egitaratu erdi informal baten eredu sortu dute. Tresna hori erabiliz burutu zuten ikerketan elkarrekiko harremanean aztertu zituzten amaren zaintzaren errepresentazio eskemak eta umearenganako haren lokarri mota.

- a. Bere buruarekikoan segurtasuna ezaugarri nagusi zuten amek, zaintza jokabidea era maguan irudikatzen zuten. Eskaturik defini zezaten nola ikusten zuten euren

burua zaintza jokabideari zegokionez, eta eskaturik halaber defini zezaten haurren nortasuna, batetik, eta horrekikoan zuten harremana, bestetik, positiboak ziren, eta errealistak. Zaintzaren ebaluazioa egitean gogoan hartzen zuten haurraren egoera, baita ere haren garapen premiak, beren buruari jarriak zizkioten helburuak eta pertsona legez zituzten beharrak. Erantzunak zuzenak izan ziren, eta ez zuten defentsa sistema handirik tartekatu elkarriketaglearekiko.

- b. Ume saihestzaileen amek, beren umeen babeserako, "urrutikotiko" estrategiak azaltzen zituzten, umeenganako halako arbuio arin bat erakutsiz errepresentazioaren mailan. Beren burua ez ezik haurra ere interesgarritasun handirik gabekotzat jo zuten eta euren arteko elkarrekintzen alderdi negatiboak nabarmendu zituzten. Sail honetako amen ezaugarri bereizgarriena, beste sailtako amen aldean bederen, elkarriketan emandako erantzunetan agertu zituzten defentsa prozeduren nolokotasuna izan zen. Horrelaxe, gutxietsi eta baliogabekotzat hartzen zituzten beraien umeen atxikimendu premiak eta, horren ondorioz, zaintza sistema beheragoko mailaren batera jaitsi arazten zuten, kasik desaktibatzeraino. Hala eta ere behin ere ez zuten, antza, zaintza eta babes emaleen rola erabat bazter utzi.
- c. Goiko saileko amek ez bezala, ume anibalenteen amen ezaugarri nagusia jokabideari eta irudikapenari buruzko ziurtasunik eza zen. Seme-alabak eurekin harreman estuan atxikitzeko estrategiak azaldu zituzten, eurenenganako menpekotasuna sortzeko asmoz eta umeengandiko seinaleei eta haien gakoekiko sentikortasunik gabe eraikiak. Defentsa sistemei dagokionez, aldiz, ama zalantzati horien buruko irudikapenen ezaugarri nabarmena ezagutzaren deskonexioa zen, hots, ez ziren gai alderdi positiboak eta negatiboak, ona eta txarra, desiragarria eta gaitzesgarria, hori guzti hori bere egiteko. Horrek, ezinbestez, ziurtasun eza ekartzen zien zaintzetan eta zaintzek intentsuak bezain alferrekoak izan zitezten eragiten zuen.
- d. Antolaketa-rik gabeko haurren amen gaia hurrengo parafragoetan zabalago jorratuko badugu ere, hemen ere zerbait esango dugu horiei buruz. Aurretik, ordea, gainerako amei buruzkoan azken ohar bat egingo dugu, zera, horiek halako oreka bati eusten ziotela, batetik zaintza jokabidearen beharkizunak eta, bestetik, euren burua taxutu duten jokabide sistemen beharkizunak bat egiten edota elkarrekin nolabait uztartzen bazekitelako. Antolaketa-rik gabeko haurren amek, ordea, ez zuten horrelako orekarik erakutsi, alderantziz baino; desoreka zen haiengan nagusi. Ama horiek ez zakiten orain ari garen arlo honetako ezer ongi gobernatzen; ez euren jokabide sistematik, ez euren seme-alabenak.

4.4.2. Jokabide sistemen arteko oreka

Ama jokabidea jokabide sistemei buruzko halako inguramen teoriko batean aztertutik ikusten denarekin bat, ama-portaera ez da huts hutsik amatasun zaintza

abiaraztearen eta amaitzearen ondorioa; elkarren lehian diren jokabide-sistema bik haren gan bat egitearen ondorioa ere bada. Hain zuzen ere, amaren beraren jokabide sistemak eta umeari buruzko zaintza sistema dira azken bi horiek. Hala bada, bada horien arteko orekari modu ezin hobean eusten diotenen halako tipologia bat, eta bada, halaber, oreka maila hain ona erdietsi gabe ere batez bestean zaintza maila onargarrian eramaten dutenen beste tipologia bat. "Zaintzaile aski egokiak" direla esan dute Solomon eta Georgek (1999) multzo horretakoak nolabait definituz.

a. Haur seguruen amak

Aipatu dugun ikerketa horretara joz, esan, bada, umearen atxikimendu segurtasunari dagokion bereizgarria amak bere jokabide sistemen (bere rol anitzez eta berak ere badituen atxikimendu premiez ari gara) eta umearen sistemen arteko bategite eta orekarako bideren bat bilatzeko izaten duen inplikatzeari dela. Honi "zaintza malgua" esaten diogu.

Berriro ikerketa horretara joz (George eta Solomon, 1999), ama horiei oreka hori lortzea askotan zein zaila egiten zitzairen eta zailtasun horrek eragiten zizkien estualdiak eta, batzuetan, zorion eza aipatu zituzten. Esan nahi baita umearen segurtasuna eta amaren zoriontasuna ez direla beti elkarren sinonimoak. Azken hori ama dibortziatuen azpitaldean gertatzen zen gehien bat. Aztoramenezko uneak noiz-eta elkarrekin uztartu ezinak ziren helburuak planteatzen zizkieten egoeretan izaten zirela aipatu zuten, eta uztartu ezinako horiei gogoko irtenbide bilatzea zein zaila egiten zitzairen ere aipatu zuten. Horrelako amekin egin ziren elkarrizketek argitu zuten, berriz, konfliktuan ziren helburuen arteko oreka onargarriren bat bilatzen saiatzen ziren delako konfliktuari irtenbidea horrelaxe emanez.

b. Haur anibalenteen amak

Ama dudakor edo zalantzatuei dagokienez, berriz, beren jokabide sistemak umearen sistemekin bat egiteko gaitasuna bazuten, irudimenaren arloan bederen; haatik, ama bakoitzak bere egoeraren gakoak eta umearen egoeraren gakoak ebaluatzeko ahaleginean jartzen zuten enfasia desorekatua zen. Amatasunari balio handiegia emateko eta haurren atxikimenduaren gakoak gehiegikeriaz interpretatzeko joera argia zuten. Azpitalde honetako amek umea beti beren aurretik jartzeko joera zuten, beste jokabide sistemetan zituzten helburuak umearen zaintza eta harekiko atxikimenduaren aldrean sakrifikatuz. Horrela bada, umerekiko halako kezka handia zeukaten, beren lan bizitza edota etxeko lana bera ere bazter uzten baitzuten, gogo guztia ustez umeek zituzten premiei erantzuten jartzen zutelarik.

c. Ume saihestzaileen amak

Umearenganakoan uzkur edo gaitzesle agertzen ziren amen multzoari dagokionez, zaintza jokabidea abiaraz zezaketen gakoak delako sistema horretan sartzeko orduan ez ziren beti oso prest agertzen, prestasunik ez hori gehien bat berehalako zaintzak eska zitzaizketen gakoak zegoen ematen zutelarik. Adibidez, ama jakin

batek urrutiko zaintzarako estrategia anitz abiaraz zezakeen, hala nola umea igeriketa ikastarora joanaraztea, han, igerilekuan, umearen neba edo arreba nagusiago baten esku uzteko, ama bertan zaintzen egon beharrean.

Ama horiek beste guztiaren aurretik beren premiak jartzen zituzten, beren desirak eta beren burua umea bera baino garrantzikoagotzat baitzituzten. Beren burua nola ikusten zuten galdeturik, berriz, umeen atxikimendu keinu eta gakoei erantzuten baino nahiago omen zuten zaintzaile rolean inbertitu denbora eta gogo. Adibide baten bidez azaltzeko, multzo honetako amek sarri askotan esaten zuten, amatasuna zen beren bizitza guztiko garrantzitsuena; hala eta ere, umearen min edota hondatzearen adierazpenak zirenak ez zituzten horrela hartzen, manipulazio ahalegintzat baizik. Era berean, emakumeek umearenganako ardurari baino garrantzi handiago ematen zieten beren jokabide sistemetako beste batzuekin zerikusia zuten alderdiei, hala nola, lanari eta maitasun harremanei.

d. Antolamendu gabeko umeen amak

Ama zalantzi eta saihestzaileen zaintzak pitin bat orekaz kanpokoak baziren ere, beren umei zaintza eta babes nahikoa onak emateko gai ziren. Nolanahi ere, antolamendu gabeko umeen amen artean bada bere umeari zaintzak emateari uko egiten dionik (Solomon eta George 1996).

Aipatzen ari garen ama horiek beren burua ezgai eta bitartekorik gabe ikusten dute, umeak babesteari dagokionez bederen, batzuen kasuan baita ere beren burua mehatxu eta arriskuetatik babestearen aldetik ere. Umeak zaintzeko gaitasun eza, desegokitasuna eta kontrolaren galera ziren ama horiek behin eta berriro errepikatzen zituzten gaiak. Horrelaxe, zaintza egoeretan hobera egiteko baliabiderik ez zutela esaten zuten, aipatuz, kasu batzuetan, baliabideak bereganatzeko edota erabiltzeko erabat ezgai sentitzen zirela edo, beste batzuetan, gaitasun eza kanpoko eragileak aipatuz. Esaterako, ikara edo beldur egoeretan ez ziren umei segurtasuna bermatzeko gai sentitzen. Irudimenaren aldetik multzo honetako amek beren burua nola ikusten zuten, bada, edo kontrolatik kanpo ikusten zuten, edo etsiturik ikusten zuten, beren burua bera, seme-alabena edota inguruabarrak kontrolatu nahirik, baina ezinean.

- Multzo honetako askok egiten zituzten seme-alaben deskripzioak bere buruaz eginiko deskripzioen parekoak ziren eta, halaxe, basatiak, maniakoaren parekoak, errebeldeak eta histerikoak zirela zioten. Koadro horren aurrean ez ziren seme-alaben portaerari aurre egiteko edota hura antolatzeko gai sentitzen.
- Ametako beste batzuek, beren buruaren aldean seme-alabak oso ezberdin ikusten zituzten; egoeraren eta beste pertsonen kontrolaren jabe goiztiar ikusten zituzten, ez sinesteko moduan. Umeok, deskribapenetan, zaintzaile trebe eta subjektu heldu bezala agertzen ziren, hots, dohain eta bertute harrigarrien jabe. Emakumeak uko egiten zioten zaintzaile rolari, rolen inbertsioa bizi baitzuten edo bestela seme alabei dohain hain bereziak antzemanik beren zaintzak

alferrekotzat edo premiagabekotzat jotzen zituzten. Ama horiek, zeinek bere buruarekiko kezka eraginez, bigarren maila batean uzten zituzten zaintza jokabidearen emozioak eta irudipenak. Emakumeek, seme-alabak beren burua zaintzeko bezain heldu ikusten zituztelarik, ardura horretaz arindurik sentitzen ziren.

- Azkenik, ametako batzuentzat umearen zaintza ez zegoen lehentasunen artean, delako umearekin zeukaten harremana “ulertzeko gaitasun” ustez bereziari esker hain zuzen. Emakumeek beren burua umearekin modu berezian psikologikoki bat eginik antzematen zuten; “nire umea eta biok bat gara”. Ondorioz, umea zaintzeko modua, horri buruzko portaera eta pentsamenduak, amak bere sentimenduei buruzkoan egiten zituen ebaluazioetan huts-hutsik oinarritzen zen.

Aipatu ditugun kasu guztietan zaintza jokabidea gaitasun gabeturik zegoen, amaren beraren gaitasun ezagatik egon ere (Solomon eta George 1996).

Ume saihestzaile zein anbibalenteen amekin izandako elkarrizketan agertu zirenen aldean, seme-alaba antolatu gabeen amekin hizketan amak ez ziren defentsa-sistema nagusiren baten nondik norakoa adierazteko gai. Horrela, beren buruaz zein seme-alabekiko harremanaz egiten zituzten ez-gaitasun ebaluazioekin batera, sarri askotan, emozioen eta afektuen desarautzea erakusten zuten. Hots, ez ziren beren emozioen jabe izateko gai ikusten.

Multzo horreketan daude seme-alabak bazter uzten dituzten amak, tratu txarrak ez ezik batzuetan baita heriotza ere ematen dietenak eta, azkenik, sarri askotan zaintzari uko eginez umeak arreta eta babesgabe uzten dituztenak. Amak beldurrez bizi dira, nahiz eta horretaz oharturik izan ez. Hala bada, umearekin aurrez aurre amak erakusten duen beldurra, jokabide beldurtiz eta beldur eragileren bidez erakutsia hain zuzen, lotura antolatu gabearen sorreran lehen-lehenengo mailako eragilea dela ere iradoki izan da (Main eta Hesse 1990).

Garrantzizko galdera da ea ama zer dela eta dagoen ikaratuta, baita ere ea ba zer ote den umearengan ikara eragiten duena. George eta Salomonek (1999) iradoki dutenez, amarengan izua eragiten duena gaitasun gabetasun sentimendu sakon horixe da, emozioen kontrola galduko ote duen zalantza biziarraren baitio. Neurritz gain asaldaturik egon eta defentsa sistema sendo eta antolaturik ukan ezean, amari, umearengandik edota ingurumenetik zein beraren baitatik etor dakizkiokeen estimuluekin aurrez aurre, izu eta gaitasun gabetasunezko emozio bortitzek gainez egin diezaioke. Izu egoera horretan zaintza sistemak bere gaitasuna galtzen du eta, galera horren ondorioz, ama haurrengandiko atxikimendu seinaleekiko irazgaitz bilakatzen da. Haren ezagutza sistema itxita egonik ez dago umearengandik letozkeen laguntza seinaleei edota premiei erantzun behar izango liekeen sistema abiarazterik, tarte horretan behintzat.

Umea zerk beldurtzen eta asaldarazten duen, ordea, zaintzaileak zaintzari uko egitea, horixe izaten da, batik bat delako umea arretaren premia larria duenean zaintzailea haren seinaleekiko eta eskariekiko entzungor dagoelarik (George eta Solomon, 1999). Horrez gain, amak umearengan bestela ere eragin dezake izua (Main eta Hesse, 1990), hain zuzen ere bere izu jokabide eta adierazpideen bidez, hala nola, begirada eta portaeretan hoztasuna erakutsiz, hazpegien bestelako aldaketen bidez edota gorputzaren beraren izu-seinaleen eraginez.

Kasu bietako edozeinetan ere, umearen atxikimendu sistema abiarazi egiten da eta martxan hasten da halako prozesu bat zeinaren ondorioz haren -umearen- adimenean antolamendu eza gertatzen den. Neurritz gain asaldaturik eta erne baino erneago, umeak amarengan bilatuko du asaldadura eta ernetasuna arintzea baina, hara non, amaren erantzun gorra, izoztuak edota izutuak umeari astundu egingo dizkio arindu beharreko horiek, horrek bere aldetik atxikimendu jokabidea muturreko mugetara eramango du eta, azkenik, bere burua antolatu ezinik antolamendu ezean eroriko da.

Gurpil zoro hori gerarazteko era bakarra atxikimendu sistema ixtea da (Bowlby, 1980). Horrela, babesa eta zaintza bilatzeko umearen desira eta gogoia blokeaturik lotzen dira. Hala ama nola umea, biak aldi berean, zaugarri geratzen dira, elkarrenganako iragazgaitz, baliabidez gabeturik, aztoraturik eta konfliktoan, eta horrek guzti horrek babesaren porrota den gurpil dialektikoa ibilarazten du, eten gabe.

4.5. Aitaren aldetiko zaintza sistema

Haurraren atxikimenduari buruzko ikerketek pentsarazten dutenarekin bat, haren kondizio erabakigarria amaren sentikortasuna dateke. Egoera Arrotzaren Testak ez du, orain artean behintzat, aitaren sentikortasunak haurraren segurtasunean zein eragin duen aurrez esan (George eta Solomon 1999). Antzeko ondorioak izan zituzten iragan mendeko 70ekoetan haurraren jokabide-profilean aitak izan lezakeen eraginari buruz Montagnerrek (1978) burutu zituen lanek.

Nolanahi ere, badakigu aitaren irudiak zein garrantzia duen haurra zaintzeko amak garatu beharreko gaitasunean (Gable, Belsky eta Crinc, 1992). Bikotekideak aukeran duena da, edo amak zaintzaile izateko duen gogoarekin lehian sartu, edo bestela gogo hori sustatu. Alderdi negatibotik begiratuta, guraso dibortziatuei buruzkoan Solomen eta Georgek (1999) ikerketa zehatza burutu zuten, eta horren barruan guraso-konflikto indartsua eta umearen aitarekiko komunikazio eskasa erakusten zuten egoera horretako amei buruz ikertu zuten. Bada, egoera horretan umeak amarekin segurtasunik gabeko harremana zeukan eta, batik bat, amarekiko haren lotura antolatu gabekoa zen.

Bikotekideen arteko konfliktoa sarri askoan aitak umearen zaintzan esku hartzeko gaitasun edota horretarako gogo ezaren ondorioa izaten da (George eta Solomon, 1996). Muturreko kasuetan aitak ez zuen uzten amak haurrari zaintza eta babesa eman diezazkion.

Amak bere ama-zereginak betetzeko gaitasunaren aldetik bikotekideen ingurumariaren garrantzia zein den, Cowanek familia-sistemaz egin dituen ikerketek ekarri dute agerira, beste ikerketa batzuk ahaztu gabe. Gizon segururen batekin ezkonduak ziren emakume guztiek, hala segurtasuna zutenek nola segurtasunik gabekoez, askoz era hobeto jarduten zuten beren ama eta ezkontide zereginetan (Cohn, Silver, Cowan eta Pearson, 1992). Beste hitz batzuekin esanda, senar segurua amaren apalgarri legez agertzen zen. Eta izan ere, hori horrela zen. Haiek beren hondatze pertsonalekin eta ezkontide atsekabeekin zeukaten harremana gorabehera, eta umearekiko elkar-eragin ahula izan arren, baita amatasun modu kontrolatzailea zuten amen kasuan ere.

Bada, seme-alabak hazteko prozesuan aitak rol garrantzitsuak joka ditzake, amentzat euskarri sendoa izan litekeen aldetik batik bat. Oso gerta litekeena da aita seguruak amarekin batera umearekiko zaintza arduetan parte hartzea, delako amari konfliktu iturri bilaka daitezkeen eskaririk egin gabe edo bestela ere haren arreta umearengandik aldenarazi gabe, hots, amari zaintzak dituen premiekin lehian diren bere beste premia batzuei tartea eskaintzeko modua erraztuz eta umearen zaintza zuzenean hala edo nola esku hartuz.

Azkenik, aita portu seguru bilakatuko da, amak bere atxikimendu sistema abiatuak duenean haraxe jo ahal izango duen babesleku, hain zuzen (Berman, Marcus eta Berman, 1994). Amatasun denboran amaren atxikimendu sistema abiarazi egiten da, hala zeregin berriak ekarri diezazkiokeen kezka berriengatik, nola amatasun egoerari berari dagozkion hormona eta jokabide eragileengatik. Aita ez baldin badago gertuan, amaren atxikimendu premiei erantzuteko, delako amak beste irudi batzuek joko du, edo bestela larritasun sortuko zaio eta depresioan sartuko da. Erditzaileen osteko depresioaz britainiarrek egindako ikerketetan ikusi denarekin bat, amari bikotekideak arreta berezia eskaini ezean ezkontideen arteko harremana kaltegarri egiten zen, erditzez erditze gero eta larriago izanik kaltea.

Orain arteko ikerketa enpirikoetan aztertu den gaia amak umearenganakoan duen zaintza jokabidea izan da. Mendebaldeko kulturetan aita seme-alabak hazteko zereginetan gero eta esku hartze handiago izaten ari den arren, ez dira asko zaintzari buruzko aita jokabideaz egin diren ikerketak.

Aitaren zaintza jokabideari buruzko ikerketa enpiriko bakan horien artean Lamb (1997) delakoarena dago, non esaten baita aita humanoak zaintza sentikorra emateko gai direla baina, batez bestekoan, umeenganakoan amak baino inplikazio maila apalagoa izaten dutela. Berrito ere mendebaldeko kulturetara joz, horietan aitak umearen nortasuna taxutzen duten ezaugarrietan izan dezakeen eraginari buruzko ikerketek diotenez, eragin hori umearen segurtasunari, esplorazio jokabideari, joko-jokabideari eta problemen soluzioa bilatzeko gaitasunari lotua legoke (Belsky, 1993; Easterbrooks eta Goldberg, 1984).

Kultura antzinakoagoetan, ehiztari eta biltzaileen kulturetan, ostera, aitak presentzia handiagoa izaten du umeen hazketan mendebaldekoetan baino. Beraz, orain artean burutu diren ikerketa enpirikoek eman dituzten datuak gure kulturari buruzkoan baino ez dute balio.

Bada, gure mundu zibilizatu honen gorabeheretan zenbat eta sartuago umea, orduan eta garrantzi handiagoa hartzen du aitaren irudiak. Gure kulturaren aitaren irudiak arauak eta hezkuntza legea ekarri ohi ditu (Lacan, 1966). Haatik, beste zibilizazio batzuetan ez da horrela izaten. Ozeaniar kulturetan, adibidez, aita jolasetako kidea da, haren zeregina amaren aldeko osabari baitagokio (Malinowsky, 1927). Kultura matriarkal horietan osaba da erreferentzia, arauari eta kultur balioei dagokienez bederen.

Nolanahi ere, eta gogoan harturik gure zibilizazio sofistikatu honetako mundu gorabeheratsua zein zaila den, semeak edo alabak ez dauka gizarte eta kulturaren arloetako gako guztiez jabetzerik harik eta gaztaroan oso aurreraturik egon arte. Bada, aitek familian betetzen duen rola berez dakarrena da zaintzari buruzko aita jokabidea haurtzaroen ez ezik nerabezarorekin eta gaztaroko tarte batez ere luzatzeko eskaria. Gure zibilizazioko subjektua ez da gai izaten mehatxu egiten dioten arriskuak uxatzeko, harik eta adinez nahikoa aurretik egon arte bederen.

Esandakoak esanda, aita zaintza sistemak gure kulturaren betetzen duen lekua ikuspuntu funtzional batetik laburtu behar izango bagenu, bi alderdi aipatuko genituzke, Kunce eta Shaver (1994) jakintsuekin bat etorritik; batetik, umearen lehen urteetan barrena aitek amaren zaintzailea eta laguntzailea litzateke; bestetik, umea gure mundu zibilizatu honetako gizarte eta kultura konplexutasunean sarturik denean, aita zaintzaile zuzen bilakatzen da, amaren euspenaz.

4.6. Guraso zaintza sistemaren eta umearen arteko konfliktua

Engungo gizakia bilakatzen ari den mundua sofistikatua da, eta sofistikazio horrek berarekin dakarkio hari konfliktua. Konfliktua, bai, guraso irudiak ebaluatzen dituen arrisku eta konplexutasunek, batetik, eta haurrak bigarren haurtzaroen eta nerabezaroen ebaluatzen dituenek, bestetik, elkarrekin talka egiten dutelako. Guraso irudiak bere burua besteari baino jakintsuago ikusten du, inguruko mundutik eta bere eskarmentutik ateratako informazioekin jantziago, aberatsago. Ezagutzaren aldetik bere buruari haurra baino helduago deritzo eta, ondorioz, egoerak aztertzean semeak edo alabak baino ikuspegi ugariagoren jabe sentitzen da. Umea hazi ahala, oster, gurasoek arriskuak eta perillak ikusi ahal dituzte non-eta hark horrelakorik ikusten ez duen leku eta egoera jakinetan. Hortxe dute sorburua eztabaidek eta gatazkek. Nerabeak, guraso zaintzari dagokion portaerari bere bizitzan sartzea dela irizten dio askotan. Konfliktu honi ekiteak ezinbestez eramango gaitu nerabearen eta guraso irudien arteko harreman gorabeheratsuetara, lehenengoek bigarrenengoan duten konfiantza edo konfiantza ezera, eta horren sorburura, hots, lehen haurtzaroko harremanetan izaniko gorabeheretara.

Lehen haurtzaroen aginduaren ordean informazioa eta burujabetzako esplorazioan bederen errakuntzetarako tarte eman izan zaion haurrak, gero, guraso irudienganako konfiantza erakutsiko du horiek arriskuak ikustean berak ikusten ez dituen leku eta egoeretan. Barne mapa operatzaileetan guraso irudi sarkor eta apetzakoa erantsirik duen

nerabeak -ez baitzaio debekuen arrazoiak modu ulergarrian azaldu- kalteturik izango du pertsona horienganako konfiantza eta konfliktua laster sortuko da, alde batean guraso sistema zaintza eta bestean delako nerabeak arriskua antzemateko eta horri ekiteko gai delako ustea egongo baitira.

Hala bada, balizko arriskuen aurrean informazioz gabeko agintekeriazko debekuak ematea ekiditen jakiteak erabateko garrantzia du. Komeni da, ostera, haurrari bere ekintzen ondorioen berri ematea, arakatu nahi duen ingurumenean edota jardunean izan daitezkeen arriskuez ohartaraztea eta, azkenik, bere konkistan aurrera egin nahi duen ala ez berak bere kabuz erabakitzen uztea. Edozertara ere, zaintzailearen begiralegoa eta euspena ezinbestekoak dira, eta ezezaguna zaion ingurumenean haurra bera bakarrik eta babesgabe uztea ekidin beharra dugu.

4.7. Zaintza jokabidearen ontogenia

Aztertzen ari garen jokabidea zein heinetan den berezkoa kontura gaitezen, ez dago besterik gogoan hartzea baino umeek beste umeak zaintzeko zein gogo handia erakutsi izaten duten, eta gero nola gogo horrek haurtzaroan ez ezik nerabezaroan ere irauten duen ikustea. Umeek animalia txiki edo kumeen aurrean utzirik horiei zaintza emateko sekuentzia luzeak garatzen dituzte, baita lehen-lehen haurtzaroan bertan ere.

Dena dela, hala primategangan nola gizakiongan zaintza joko eta jolasak garatuago ageri dira neskatoengan mutikoengan baino. Hala eta ere, ume xeratsuek, liderrak direnak batik bat, txikien zaintzaz arduratzen dira eta kontsolamendua ere ematen diete, txikiagook hondatzearen seinaleak erakusten dituztenean edota, isolaturik, taldera berriro sartu beharrean direnean (Montagner, 1978).

Biologi alderdiak alde batera, egungo ikerkuntzek berebiziko garrantzia ematen diete zaintzaileak berak haurtzaroan izan dituen zaintza esperientziei, haurtzaroaz geroztik delako zaintzaile horrek zaintza jokabidearen gaitasun genetikoak garatzearen edo ez garatzearen aldetik.

Esanda gauden bezala gu guztion barne-mapa operatzaileetan bestearen, norberaren eta horien bien arteko irudia erantsirik baldin badago, zaintza sentikorrez hazia den zaintzaileak berarekin jokatu zen legez jokatu du beste inor zaintzeko ueña iristen zaionean (George eta Solomon, 1996).

Berau dugu egungo ikerkuntza enpirikoaren aurkikuntza nagusietakoa. Haurtzaroan gaizki tratatua izan den horrek gaizki tratuko ditu besteak bere helduaroan. Berriz, konfiantza eta sentikortasunez tratua izan den haurra gero helduaroan sentibera eta begiratua izango da besteekin tratuan. Tamalez edo zorionez, bertan datza nortasunaren patrioiak belaunaldi belaunaldi irunaraztearen gakoa (Van Ijzendoorn, 1995).

4.8. Pedagogiari so eginez

Hezkuntza lekuetan ama eta guraso irudiak zaintzen, hura haurdun geratzen une beretik hasi behar dugu.

Ume saihestzaile eta anibalenteen zaintza sisteman esku hartzeak, bestalde, horrelakoen loturaren kalitatea hobetzen lagundu ahal du eta, horrekin batera, osasunaren eta harmoniaren aldetik ere hobekuntza ekarri. Antolatu gabeko umeen zaintzan esku hartzea, berriz, ezinbestekoa da. Antolatu gabeko umeek gero buru-arazoak pairatzeko arriskua izaten dute. Horrelakoen ama izateko arriskuan izan daitezkeen emakumeak zein diren antzematea lehenagoko helburutzat hartu behar izango lukete buru osasunaren sistema publikoek. Osasun sistema publikoetako obstetrizia eta pediatria zerbitzuek eskola sistemarekin koordinatu beharra daukate, ama bihur litezkeen horiei beharrezkoak zaizkien zaintzak emateko, gero amok beren umeen zaintzari dagozkien zereginak aski ongi bete ahal izan ditzaten.

Frogatu ahal izan denarekin bat (Manning-Orenstein, 1999), haurdunaldiaren azken hiru hilabeteetan, erditzeako tartean eta erditu osteko lehen hiru hilekoan norbait amaren ondoak egoteak hark zaintzailea den edo izango den aldetik bere buruarekiko dukeen konfiantza sendotuko dio, barne-mapa operatzaileetan hain zuzen. Hala bada, "erditzea prestatzeari buruzko ikastaroak" zuzentzen dituztenek taldean arriskuan diren ama horietakoren bat badela antzematea eta delako horrekin lan egitea garrantzizkoa da. Gaitasunik gabeko ama aski gai den ama bilaka daiteke, umea hazteak berarekin dakartzan zereginari edota hark erabiliko dituen seinaleei buruzko informazioa emanez, tarteka-tarteka euspenezko bisitaldiak eginez eta horrelakoen bidez. Ez baita ahaztu behar ama horietako askorengan zaintza sistema abiarazi ahal dela, oso era egokian abiarazi ere, beren buruarekiko konfiantza sentitzen baldin badute.

Gogoan harturik haurrak zein goiz hasten diren eskola sisteman, ezinbesteko deritzogu haur eskola eta obstetrizia eta pediatria zerbitzuen arteko elkarlanari, hala arrisku kasuak ahalik eta goizen antzemateari begira nola hezkuntzaren arloko esku hartzeri begira ere (Marvin, Cooper, Hoffman eta Powel, 2002).

Diogun honek badu bere garrantzia, amak bere lehenagoko lan munduko zereginetara itzultzean bizi dezakeen aztoramena ulertzearen aldetik. Bada, diogun hau aldarria ere bada, okerretara ulerturik "egokitze aldia" deritzon hori behar moduan egin dadin.

Eskolarekin jarraituz, esan hark segurtasun gabeko atxikimendu kasuetan rol garrantzitsua joka dezakeela. Lotura iheslea, berriz, haurraren gurasoenganako zaletasuna sustatu ahal lezaketan esku hartze jakinen bidez birbideratu edo aurrez arretatua izan liteke. Azkenik, lotura anibalentea amaren segurtasuna sendotzera bideraturiko esku hartzeen bidez arindu ahal delakoan gaude.

Umearen keinuei buruzko hezkuntzak eta informazio eta euspen taldeetan euskarri hartzeak gurasotasunari buruzko segurtasuna sustatzen du, eta era berean du horrek zaintzailearen sentikortasuna garatzen (van Ijzendoorn eta lag., 1995; Juffer, Bakerman-Kranenburg eta van Ijzendoorn, 2008).

Bizi ditugun gariotan gurasoek sarri askotan larriduraz daramate seme-alabei jarraibideak ematea eta nora jo behar duten irakatsi beharra den ardura. Guraso hezkuntza, betidanik, "atzokoari begira" landu izan bada, landu ere landu izan den bezala, azken aldian etorri diren gizarte eta kultura paradigma-aldaketak inoiz baino dramatikoago bilakarazi dute beharrezkoa litzatekeenaren eta egin egiten denaren artean dagoen aldea.

Hezkuntzari buruzkoan, bestalde, badira halako aurreiritzi batzuk hezitzailearengan eragina dutenak. Horrela, hark, hezitzaileak, umeei berak hartu nahi izango ez lukeen tratua ematen die, mina eraginez, "haren onerako" delakoan. Indarrean izan baita harako hura, "maite zaituenak min emango dizu", edo antzeko zerbaitek. Haatik, horrelako esakunek ez dira besterik izan umea hain maite izan ez dutenen edo bestela haren interesen ginetik beren burua jarri dutenen aterpea baino, gehienetan behintzat.

Amaitzeko, eskolak eta, oro har, etxetik kanpoko hezkuntza sistema osoak ezin dute arazo honi aurpegi eman gabe aurrera egin. Dagoena dagoelako eta gauzak diren moduan direlako, eskolari egokitu zaio gurasoei seme-alaben zaintza den zeregin zailean lagundu beharra, haurrak kultura, etika eta bizitza dimentsioetan bideratzeko ardura nagusia haiexena bada ere. Labur esanda, gurasoek eskola sistemaren laguntzaren premian daude. Laguntza hori ahalbidetzeko, ordea, eskola sistemak bere hezkuntza zereginaz duen ikusmoldea eraldatu beharra dauka. Etxetik kanpoko hezkuntza sistemari honez gero ez zaio aski irakasletza rola. Gure inguruko kolektiboek duten gizarte eta lan bizitzak ezinbestez eskatzen duena da, zalantzarik gabe eskatu ere, eskolak bere egitea umea hazteko eta hezteko funtzioak. Gainera guraso zaintza sistemarekin uztarturik, ordea.

Eta eskolak ekonomi baliabide ugariagoak behar ditu, funtzio hori bere azken burura onez eramango bada bederen.

4.9. Ondorioak

Biologiaren arloko eragileen garrantzia alde batera utzita, egungo ikerketek erabateko garrantzia ematen diote zaintzaileak haurtzaroan izan dituen zaintza bizipenei, delako zaintzailearen zaintza-jokabidearen garapen potentzialari dagokionez behinik behin. Edonoren barne-mapa operatzaileetan bestearen irudia, norberaren irudia eta bata eta bestearen arteko harremanari buruzko irudia, horiek hirurak sarturik direlarik, izan ere badiren moduan, gizaki orok, beste inor zaintzeko orduan, harako hartan bestek berarenganakoan izan zuten portaera bertsua izango du zainduarenganako (George eta Solomon, 1996). Esan berri dugun hau ikerketa enpiriko garaikideen ondorio nagusietakoa da. Haurtzaroan tratatu txarra hartu duenak tratatu txarra emango du helduaroan, hori horrela

izan dadin ekiditeko zerbait egin ezean. Konfiantzaz eta leuntasunez zaindua izan den haurrak leuna eta sentibera izango da besteenganako tratuan. Tamalez edo zorionez, berton datza nortasunaren patrioiak belaunaldiz belaunaldi iraunaraztearen gakoa, berriro diogu. Gure patua da (Van Ijzendoorn, 1995). Ikertzaileen artean askotxo dira haurrak zaintza emateko gaitasuna amarengandik hartu duen zaintzaren bidez garatzen duela diotenak (Sroufe eta Fleeson, 1986).

Haurtzaroan ordenua eta zigorraren ordeztasunaren bidez hezia izan den haurrak, bere burujabetasuna erabiliz ikertzeko eta ikerketan errakuntzak egiteko askatasuna izan duenak, horrek, guraso-irudienganako konfiantza izango du haiek han edo bestean berak inon ikusten ez dituen arriskuak ikusten dituztela diotenean.

Arestian esan duguna errepikatuz, nerabegarora heldurik barne mapa operatzaileetan guraso irudi sarkor eta apetazkoa erantsirik duen pertsonak -ez baitaio debekuen arazoak modu ulergarrian azaldu- kalteturik izango du beste pertsona horienganako konfiantza eta konfliktua laster sortuko da, alde batean guraso sistema zaintza eta bestean delako nerabeak arriskua antzemateko eta horri ekiteko gai delako ustea egongo baitira. Beste begirada bat behar da, maitasunetik sortua. Ulerkorra, beraz. Aita irudiak seme edo alabaren erreboltari ez lioke bere begiradaz behatu behar izango, seme edo alaba horrexen ikuspegitik baino, hots, hura gaizki egitera bultzatu duten indaritsuak zein diren ulertuz. Beste aldean dagoena beste alde horrexetatik ikusi nahi baldin bada, egozentrismoa gaintzea ezinbestekoa da, nahiz eta hor dagoen hori inoiz min eman digun zerbait edo norbait bada ere. Agian ez dago umearenganako horrelako urratsik egiterik hura maite ezean edo, hau ere agian, maite ahal izateko ezinbestekoa da egozentrismoa gaintu izanaren esperientzia bizitzea. Gurasook umea maitatzea iristeko bidean hura zer den onartuz eta dena delako hori den moduan hartuz abiatu beharra daukagu. "Izatez zer ere den", hori onartzea litzateke guraso zaintza jokabidearen gorengo maila.

Gazte erreboltari begira jarrita, gure haurrek eta gazteek behar dutena eurekin bat egitera abiatuko diren gurasoak dira, bizi duten borroka behar horretan diren moduan ulertuko dituzten gurasoak, bizi duten haserrea nora bideratu bilatzen lagunduko diotenak, "eguzkiak berriz argitu arte" elkarren alboan izateko prest direnak. Ez eraso eraso truk esango dutenak, baizik eta seme-alaben suminaren minenean haiekin egongo direnak, seme edo alaba horrek borrokan berriro minik har ez dezan. Justiziaren, egiaren edota ordenuaren izenean ezartzen diren errepresio bideek gaztea ez dute inora eramaten, ez baldin bada gaztea herraren mailan gorago egitera. Berriro ere azpiratua, bentzutua, herra bere izatearen muin-muinean erroturik, itxita izango ditu sormenerako ateak eta ez da bizitza bera den gertaera ederraz gozatzen iritsiko.

Gure seme-alabek euren suminak suntsi ez gaitzan behar dute. Sumin hori jakintzaz jantziko da eta, soziologikoki, ideologi moden bidez euspina emango zaio eta, litekeena da hau, aurreko belaunaldiek egindakoa gaitzestea eragingo. Ostera, gure seme-alabek gurasoez harro sentitu beharra daukate. Edozein seme edo alabak izan dezakeen zoririk handiena guraso batez harro egotea da.

Hezkuntzak aurrera darrai gazte matxinatuarekin buruz-buruko borrokan. Aitortzea eta berrestea guraso zaintza jokabideak dituen ekintza nagusienetakoa da, zeren eta haurra berezko jokabideen multzo handi baten eta sormen liluragarriaren jabea izanik, horiek garatu ahal izateko ez du besterik behar errakuntzak egiteko eskubidea onar dakion baino. Hala bada, hezkuntzak ez du zertan larriduratik ekarri, ezta ere zaila izan behar. Umeari berez dakartzan gaitasunak garatzen uztea, horiek dituzten balioak hari berrestea, hoberenaren bilaketan aurrera egiteko aholkuak eta irudi imitagarriak eskaintzea, horra hezkuntzaren gakoa. Heztea izatea da, konfiantza da, aitortza da, berrespena da.

>> 5. ARIKETA PRAKTIKOA

Gogora ezazu zu zaintzen zintuen haurtzaroko pertsona esanguratsuena. Ze ezaugarri zituen zu zaintzerako orduan? Behar zenuen bakoitzean hor zegoen? Gozo hitz egiten zintuen? Bazekien zer behar zenuen momentu oro? ...

Orain pentsa ezazu zeure buruarengan, ze ezaugarri dituzu zuk zaintzaile, hezitzaile irakasle moduan?

Azkenik, konpara jaso dituzun zuon bion ezaugarriak. Zertan dira berberak? Zein desberdintasun daude eta zergatik daude ezberdintasun horiek?

erreferentzia bibliografikoak

- >> Ainsworth, M. D. eta Witting, B.A. (1969). Attachment and the exploratory behaviour of one-years olds in a strange situation. Hemen: B.M.Foss (ed) *Determinants of Infant Behaviour, Vol 4*. London: Methuen.
- >> Ainsworth, M. D. (1967). *Infancy in Uganda: Infant care and the growth of love*. Baltimore, MD: Johns Hopkins University Press.
- >> Ainsworth, M. D., Blehar, M. C., Waters, E. eta Wall, S. (1978). *Patterns of Attachment: A psychological Study of the Strange Situation*. Hillsdale, N. J. : Earlbaum.
- >> Alink, L. R., Mesman, J., van Zeijl, J., Stolk, M. N., Juffer, F., Koot, H. M., Bakermans-Kranenburg, M. J. eta van IJzendoorn, M. H. (2006). The Early Childhood Aggression Curve: Development of Physical Aggression in 10-to 50 Month-Old Children. *Child Development, 77*, 954–966.
- >> Arnold, M. B. (1960). *Emotion and Personality. Vol.1, Psychological Aspects; Vol.2, Neurological and Physiological Aspects*. New York: Columbia University Press; London: Cassell.
- >> Bandura, A. (1968). Imitation. Hemen: D. L. Sills (Ed.), *International encyclopedia of the social sciences* (Vol. 7). New York: Macmillan.
- >> Bell, S. M. (1970). The development of the Concept of Object as related to Infant-Mother Attachment. *Child Development, 41*, 291-411.
- >> Belsky, J. (1993). Promoting father involvement: An analysis and critique. *Journal of Family Psychology, 7*, 287-292.
- >> Bettelheim, B. (1969). *The Children of the Dream*. London , New York: Macmillan.
- >> Berman, W. H., Marcus, L. eta Berman, E. R. (1994). Attachment in marital relations. Hemen: M. B. Sperlinf eta W. H. Berman (Eds.) *Attachment in Adults* (pp.204-231) New York: Guilford Press.
- >> Blehar, M. C., Lieberman, A. F. eta Ainsworth M. D. (1977). Early face-to-face interaction and its relation to later infant - mother attachment. *Child Development, 48*, 182-194
- >> Bower, T. G. R. (1974). *Development in Infancy*. S. Francisco: W. H. Freeman.
- >> Bowlby, J. (1958). The nature of the Child's Tie to his mother. *The International journal of psycho-analysis, 39*, 360-73.
- >> Bowlby, J. (1960a). Separation Anxiety. *The International journal of psycho-analysis, 41*, 89-113.
- >> Bowlby, J. (1960b). Grief and mourning in infancy and early childhood. *The Psychoanalytic study of the child, 15*, 9-52.
- >> Bowlby, J. (1969). *Attachment and Loss: Vol. I. Attachment*. London: Hogarth Press and Institute of Psycho-Analysis.
- >> Bowlby, J. (1973). *Attachment and Loss: Vol. II. Separation. Anxiety and Anger*. London: Hogarth Press and Institute of Psycho-Analysis.
- >> Bowlby, J. (1980). *Attachment and Loss: Vol. III. Sadness and Depression*. London: Hogarth Press and Institute of Psycho-Analysis.
- >> Burlingham, D. eta Freud, A. (1942). *Young Children in War-time*. London: Allen & Unwin.
- >> Cohn, D. A., Silver, D. H., Cowan, P. A. eta Pearson, J. (1992). Working models of childhood attachment and couples relationships. *Journal of Family Issues, 13*, 432-449.

- >> Cowan, P. A. (1991). Individual and family life transitions: a proposal for a new definition. Hemen: P. A. Cowan eta E. M. Hetherington (Eds.) *Family transitions* (Vol, 2, pp. 3-30). Hillsdale, NJ: Erlbaum.
- >> Crandel, L. E. (1994). *Representational models of attachment: Replication and reorganizational processes*. Unpublished doctoral dissertation, Michigan State University, E. Lansing.
- >> Cristóbal, R. (2007). *Fundamentos del ser humano*. Arrasate: Mondragon Unibertsitatea.
- >> Darwin, C. (1859). *The Origins of Species by means of Natural Selection*. London: Murray.
- >> Darwin, C. (1872). *The Expression of the Emotions in Man and Animals*. London: Murray.
- >> Dozier, M., Stoval, K. C. eta Albus, K. E. (1999). Attachment and Psychopathology in Adulthood. Hemen: J. Cassidy eta Ph. R. Shaver, (Eds.) *Handbook of Attachment* pp.497-520. New York, London: The Guilford Press.
- >> Easterbrooks, M. A. eta Goldberg, W. A. (1984). Toddler development in the family: Impact of father involvement and parenting characteristics. *Child Development*, 55,740-752.
- >> Eibl-Eibesfeldt, I. (1972). *Ethologie. Biologie du Comportement*. Paris: Editions Scientifiques.
- >> Eibl-Eibesfeldt, I. (1973). *L'Homme Programmé*. Paris: Flammarion.
- >> Einstein, A. (1980). *Mi visión del mundo*. Barcelona: Tusquets.
- >> Eisenberg, R. B. (1976), *Auditory Competence in Early Life: The Roots of Communicative Behaviour*. Baltimore: University Park Press.
- >> Eisenberg, R. B., Marmarou, A. eta Giovachino, P. (1974). Infant heart rate changes to a synthetic speech sound, *The Journal of auditory research*, 14, 20-28.
- >> Ellis, A. (1962). *Reason and Emotion in Psychotherapy*. New York: Lyle Stuart.
- >> Fagan, J. F. (1973). Infant' Delayed Recognition Memory and Forgetting. *Journal of Experimental Child Psychology*, 16, 424-50.
- >> Farwell, C. (1973). *The Language spoken to Children*. Reports on Child Language Development. Stanford University.
- >> Feijoo, J. (1981). *Lle fœtus . Pierre et le Loup... ou un approche originale de l'audition prénatale humaine*. Hemen: E. Herbinet eta M.C. Busnel, (eds), *L'aube des sens*. Paris, Stock, coll. "Cahiers du nouveau né" n° 5, 192-209.
- >> Flavell, J. H. (1963). *The Developmental Psychology of Jean Piaget*. Princeton N.J. and London: van Nostrand.
- >> Fonagy, P., Steele, H., Leig, T., Kennedy, R., Mattoon, G. eta Target, M. (1995). Attachment, the reflective self and borderline states: The predictive specificity of the adult attachment interview and pathological emotional development. Hemen: S. Goldberg, R. Muir eta J. Kerr (Eds) *Attachment Theory. Social, developmental, and clinical perspectives* (233-278). Hillsdale, NJ: Analytic Press.
- >> Freedman, D. G. eta Keller, B. (1963). Inheritance of behaviour in infants. *Science*, 140, 196-198.
- >> Freud, S. (1905). *Three Essays on the Theory of Sexuality. Standard Edition*, 7.

erreferentzia bibliografikoak

- >> Gable, S., Belsky, J., eta Crinc, K. (1992). Marriage, parenting, and child development: Progress and Prospects. *Journal of Family Psychology*, 5, 276-294.
- >> George C. eta Solomon J. (1996). Representational models of relationships: Links between caregiving and attachment. *Infant Mental Health Journal*, 17, 198-216.
- >> George C. eta Solomon J. (1999). Hemen: J. Cassidy and P. R. Shaver (eds.) *Handbook of Attachment* (pp.649-670). New York, London: The Guilford Press.
- >> George, C. Kaplan, N. eta Main, M. (1985) *Adult Attachment Interview* (2n. ed.) Unpublished manuscript, University of California at Berkeley.
- >> Gómez Zapiain, J. (2009). *Apego y sexualidad*. Madrid: Alianza.
- >> Grossman, K. E. eta Grossmann, K. (1991). Attachment quality as an organizer of emotional and behavioral responses in a longitudinal perspective. Hemen: C. M. Parkes, J. Stevenson-Hinde eta P.Marris (Eds.), *Attachment across the life cycle* (pp. 93-114). London: Tavistock / Routledge.
- >> Gunnar, M., Larson, M., Hertsgaard, L. Harris, M. eta Brodersen, L. (1992). The stressfulness of separation among 9 months old infants: Effects of social context variables and Infant temperament. *Child Development*, 53. 290-303.
- >> Harlow, H. F. (1958). The nature of love. *American Psychologist*. 13, 673-685.
- >> Harlow H. F. (1970) Love Created– Love Destroyed- Love Regained. *Colloques internationaux du C.N.R.S. N° 198. Modèles animaux du comportement humain*, 14-60.
- >> Harlow, H. F., Gluck, J. P. eta Suomi, S. J. (1972).Generalization of behavioral data between nonhuman and human animals. *American Psychologist*, 27, 709-716.
- >> Heinicke C. M. (1956). Some effects of Separating Two years old Children from their Parents: A Comparative Study. *Hum. Relat*, 9, 105-76
- >> Heinicke, C. eta Westheimer, I. (1966). *Brief Separations*. London: Longmans.
- >> Hinder, R. A. (1970). *Animal Behaviour: A Synthesis of Ethology and Comparative Psychology*. Second Edition. New York: McGraw-Hill.
- >> Isabella, R., Belsky, J. eta von Eye A. (1989). Origins of Infant-Mother Attachment: An examination of interactional synchrony during the infant's first year. *Developmental Psychology*, 25, 12-21
- >> James, W. (1890). *Principles of Psychology*. New York: Holt.
- >> Juffer, F., Bakerman-Kranenburg, M. J. eta van IJendoorn, M. H. (Eds.) (2007). *Promoting Positive Parenting*. New York, London: Lawrence Erlbaum Associates.
- >> Kessen, W. eta Leutzendorf, M. (1963). The effect of nonnutritive sucking on movements in the human newborn. *Journal of comparative and physiological psychology*, 56, 69.
- >> Kohut, H. (1971). *The Analysis of the Self*. New York. International Universities Press, Inc.
- >> Kuncze, L. J. eta Shaver, P. R. (1994). An attachment –theoretical approach to caregiving in romantic relationships. Hemen: K. Bartholomew eta D. Perlman (Eds.), *Advances in personal relationships: Vol.5. Attachment processes in adulthood*, pp.205-237. London: Jessica Kingsley.

- >> Lacan, J. (1966). *Écrits II. L'agressivité dans la Psychanalyse*. Paris: Editions du Seuil.
- >> Lamb, M. E. (1997). The development of father-infant relationship. Hemen: M. E. Lamb (Ed.), *The role of the father in child development* (pp.261-285). New York: Wiley.
- >> López, F. (1997). Afecto y sexualidad. Hemen: J. Gómez Zapiain (Ed.), *Avances en sexología*. Donostia-San Sebastián: Universidad del País Vasco.
- >> López, F. (2009a). *Amores y desamores. Procesos de vinculación y desvinculación sexuales y afectivos*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- >> López, F. (2009b). *La educación sexual*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- >> López, F. (2009c). *Las emociones en la educación*. Madrid: Morata.
- >> Lorenz, K. (1937). Sur la formation du concept d'instinct. Hemen: *Essais sur le comportement animal et humain*. Paris: Seuil.
- >> Lorenz, K. (1938). Taxie et action instinctive dans le mouvement de roulage de l'œuf chez l'oie grise. Hemen: *Essais sur le comportement animal et humain*. Paris: Seuil.
- >> Lorenz, K. (1953). Scientific value of a group collection of live animals. *Wilson Bulletin* 65 (1): 59—62.
- >> Lorenz, K. (1954). Psychologie et Phylogénèse. Hemen: *Essais sur le comportement animal et humain*. Paris: Seuil.
- >> Lorenz, K. (1963). *L'Agression. Une histoire naturelle du mal*. Paris: Flammarion
- >> Lorenz, K. (1978). *L'Homme dans la fleuve du vivant*. Paris: Flammarion.
- >> Lorenz, K. (1997). *The Natural Science of the Human Species*. London: Massachusetts Institute of Technology.
- >> Lyons-Ruth, K., Repacholi, B., McLeod, S. eta Silva, E. (1991). Disorganized attachment behaviour in infancy: Short-term stability, maternal and infant correlates, and risk-related subtypes. *Development and Psychopathology*, 3, 377-396.
- >> Main, M. eta Hesse, E. (1990). Parent's unresolved traumatic experiences are related to infant disorganized attachment status: Is frightened and/or frightening parental behavior the linking mechanism? Hemen: M. T. Greenberg, D. Cicchetti eta E. M. Cummings (Eds.) *Attachment and preschool years: Theory, research, and intervention* (161-182). Chicago: University of Chicago Press.
- >> Malinowsky, B. (1927). *The Father in Primitive Psychology*. London. Reprinted in: *Estudios de Psicología primitiva*. Paidós. Buenos Aires 1963.
- >> Marvin, R., Cooper,, G., Hoffman, K. eta Powel B. (2002). The Circle of Security project: Attachment based intervention with caregiver-pre-school child dyads. *Attachment & Human Development* 4, 107-124.
- >> McGraw, K., Hoffman, R. Harker, C. eta Herman, J. H. (1999). The development of circadian rhythms in a human infant. *Sleep*, 22, 303-310.
- >> Mead, M. (1968). *Coming of Age in Samoa*. New York: William Morrow & Company.
- >> Montagner, H. (1974). Communication non verbale et discrimination olfactive chez les jeunes enfants. *Approche Ethologique*. Hemen: *L'Unité de l'homme*. Paris: Le Seuil.

erreferentzia bibliografikoak

- >> Montagner, H. (1978). *L'enfant et la communication*. Paris: Editions Stock.
- >> Montagner, H. (1988). *L'attachement, les débuts de la tendresse*. Paris: Odile Jacob.
- >> Montagner, H. (1995). *L'enfant, l'animal et l'école*. Paris: Bayard Editions.
- >> Murray, L., Fiori-Cowley, A., Hooper, R eta Cooper, P. (1996) The impact of postnatal depression and associated adversity on early mother-infant interactions and later infant outcome. *Child Development*, 67, 2512-2526.
- >> National Institute of Child Health and Human Development (NICHD) Early Childcare Research Network (2004). Trajectories of physical aggression from toddlerhood to middle childhood. *Monographs of the Society for Research in Child Development*, 69, 1-128
- >> National Institute of Child Health and Human Development (NICHD). Early Child Care Research Network (1997). The effects of infant child care on mother-infant attachment security. *Child Development*, 68, 860-879.
- >> Olds, J. eta Milner, P. (1954). Positive reinforcement produced by electrical stimulation of septal area and other regions of rat brain. *Journal of comparative and physiological psychology*, 47, 419-427.
- >> Pavlov, I. P. (1928). *Lectures on conditioned reflexes*. New York, Intern. Publ. eds.
- >> Piaget, J. eta Inhelder B. (1975). *La psychologie de l'enfant*. Paris: Presses Universitaires de France.
- >> Piaget, J. (1936). *La Naissance de l'intelligence chez l'enfant*. Neuchâtel et Paris: Delachaux et Niestlé.
- >> Rheingold, H. L. (1963). Controlling the infant's exploratory behaviour. Hemen: J.M. Foss (eds.) *Determinants of Infant Behaviour*, Vol 2. London: Methuen. New York , Wiley.
- >> Robertson, J. eta Bowlby, J. (1952). Responses of Young Children to separation from their Mothers. *Courrier du Centre Internationale d'Enfance*, 2, 131-142.
- >> Sagi, A., van Ijzendoorn, M. H., Aviezer, O., Donnell, E., Koren-Karie, N., Joels eta Harel, Y. (1995). Attachments in multiple-caregiver and multiple-infant environment : the case of the Israeli kibbutzim. Hemen: E. Waters, B. E. Vaughn, G. Posada eta K. Kondo-Ikemura (Eds), Care-giving, cultural, and cognitive models: New growing points of attachment theory and research. *Monographs of the Society for Research in Child Development*, 60, 71-91.
- >> Schore, A. (1994). Affect regulation and the origin of the self. *The neurobiology of emotional development*. Hills-dale. NJ: Erlbaum.
- >> Shaffer, H. R. eta Callender, W. M. (1959). Psychological Effects of Hospitalization in Infancy. *Paediatrics*, 24, 528-39.
- >> Shaffer, H. R. eta Emerson, P. E. (1964). The development of social attachment in infancy. *Monographic. Society Research Child Development*, 29, 1-77.
- >> Skinner, B. F. (1953). *Science and Human Behaviour*. New York: MacMillan.
- >> Skinner, B. F. (1957). *Verbal Behavior*. New York: Appleton-Century-Crofts.
- >> Solomon, J. eta George, C. (1996). Defining the caregiving system: Toward a theory of caregiving. *Infant Mental Health Journal*, 17, 183-197.

- >> Solomon, J. eta George, C. (1999). The development of attachment in separated and divorced families: Effects of overnight visitation, parent and couple variables. *Attachment and Human Development*, 1, 2-33.
- >> Spitz, R. A. (1946). Anaclitic depression. *Psychoanalytic Study Child*, 2, 313-42.
- >> Sroufe, L. A. eta Fleeson, J. (1986). Attachment and the construction of relationships. Hemen: W. Hartup & Z. Rubin (Eds.), *The nature and development of relationships* (51-71), Hillsdale, NJ: Earlbaum.
- >> Stayton, D. J. eta Ainsworth, M. D. S. (1973). Individual Differences in Infant Responses to brief, everyday separations as related to other infant and maternal behaviours. *Developmental Psychology*, 9, 213-225.
- >> Stern, D. (1985). Affect attunement: Mechanisms and clinical implications. In J. D. Call, E. E. Galenson eta R. L. Tyson (eds) *Frontiers of Infant Psychiatry*, 2. New York: Basic Books.
- >> Suomi, S. J., Harlow, H. F. eta Novak, M. A. (1974). Reversal of social deficits produced by isolation – rearing in monkeys. *Journal of Human Evolution* 3, 527-534.
- >> Suomi, S. J. eta Harlow, H. F. (1971). Monkeys at play. *Natural History*, 80, 72-76.
- >> Suomi, S. J. eta Harlow, H. F. (1972). The role and reason of peer friendship in rhesus monkeys. Hemen: M. Lewis eta A. Roseblum (ed). *Peer relations and friendship: ETS Symposium on the origins of behaviour*. New York: John Wiley & Sons.
- >> Suomi, S. J. (1976). Expérience Précoce et Développement social du Singe Rhesus. *Psychiatric Infant XIX*, 1, 279-302.
- >> Suomi, S. J., Delizio, R. eta Harlow, H. F. (1976). Social Rehabilitation of Separation –Induced Depressive Disorders in Monkeys. *The American journal of psychiatry* 133, 11.
- >> Testu, F. (1989). *Chronopsychologie et rythmes scolaires*. Paris: Masson.
- >> Testu, F. (1992). Diurnal variation in mental activities of French pupils and test situations. *Chronobiology international*, 9, 439-443.
- >> Testu, F. (1994). Quelques constantes dans les fluctuations journalières et hebdomadaires de l'activité intellectuelle des élèves en Europe. *Enfance*, 4, 389-400.
- >> Tolman, E. G. (1932). *Purposive Behaviour in Animals and Men*. New York: London.
- >> Trevarthen, C. (1975). Les activités innées du nourrisson, *La Recherche*, 6, 447-458
- >> Tronick, E. Z. eta Cohn, J. F. (1989). Infant-mother face to face interaction: Age and gender differences in coordination and the occurrence of miscoordination. *Child Development*, 60, 85-92.
- >> Turati, C., Macchi C., Viola, S. eta Leo, I. (2006). Newborns' Face Recognition: Role of Inner and Outer Facial Features. *Child Development*, 77, 297-311.
- >> Van Ijzendoorn, M. H. (1992). Intergenerational transmission of parenting: A review of studies in nonclinical populations. *Developmental Review*, 12, 76-149.
- >> Van Ijzendoorn, M. H. (1995). Adult attachment representations, parental responsiveness, and infant attachment: A meta-analysis on the predictive validity of the Adult Attachment Interview. *Psychological Bulletin*, 117, 387-403.

erreferentzia bibliografikoak

- >> Van Ijzendoorn, M. H. (1997). Intergenerational transmission of attachment: A move to the contextual level. Hemen: L. Atkinson eta K. J. Zucker (Eds.) *Attachment and psychopathology (135-170)* New York: Guilford Press.
- >> Van Ijzendoorn, M. H., Juffer, F. eta Bakermans-Kranenburg, M. G. C. (1995). Braking the intergenerational cycle of insecure attachment. A review of the effects of attachment-based intervention on maternal sensitivity and infant security. *Journal of Child Psychology and Psychiatry*, 36, 255-248
- >> Vygotski, L. (1997). *Pensée et Langage*. Paris: La dispute. SNÉDIT.
- >> Wallon, H. (1934). *Les Origins du caractère chez l'enfant*. Paris: Alcan.
- >> Winnicott, D. W. (1948) Paediatrics and psychology. *The British journal of medical psychology*, 34, 1-9.
- >> Wolf, P. H. (1963). Observations on the early development of smiling. Hemen: J.M. Foss (ed.) *Determinants of Infant Behaviour*, Vol 2. London: Methuen. New York, Wiley.
- >> Wolf, P. H. (1969). The natural history of crying and other vocalizations in early infancy. Hemen: *Determinants of infant Behaviour*. Vol 4.

